Ioannes de Haraneder

JESU CHRISTOREN EVANGELIO SAINDUA

PATXI ALTUNAk
PARATUA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA
BILBO 1990

Ch 6753

JESU CHRISTOREN EVANGELIO SAINDUA

Colección

EUSKARAREN LEKUKOAK - 17

Ioannes de Haraneder

JESU CHRISTOREN EVANGELIO SAINDUA

17

Edizio kritikoa:

PATXI ALTUNAk
PARATUA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA
BILBO 1990

© Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia
Elkano, 5-1 - 48011 Bilbao

Fotokonposaketa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 12-14
48010 Bilbao

Inprimaketa: Elkar, E. Kooperatiba grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-85479-57-2
Legezko Gordailua: BI-2757-90

AURKIBIDEA

Atarikoa III

Aitcin Solhasa 1

J. Christoren Evangelio Saindua San Matthaeoren arauera 5

J. Christoren Evangelio Saindua San Marc-en arauera 69

J. Christoren Evangelio Saindua San Luc-en arauera 107

J. Christoren Evangelio Saindua Jondoni Jauniren arauera 171

Apostoluen Eguincariac 223

Jondoni Paulo Apostoluaren Guthuna Romarrei 291

J. Paulo Apost. Lehenbicico Guthuna Corinthiarrei 323

Jond. Paulo Apost. Bigarren Guthuna Corinthiarrei 355

Jondoni Paulo Apostoluaren Guthuna Galatiarrei 377

Jond. Paulo Apostol. Guthuna Ephesiarrei 389

J. Paulo Apost. Guthuna Philippearrei 401

J. Paulo Apostoluaren Guthuna Colossiarrei 409

J. Paulo Apostol. Lehenbicico Guthuna Thessaloniarrei 417

J. Paulo Apost. Bigarren Guthuna Thessaloniarrei 425

J. Paulo Apost. Lehenbicico Guthuna Timotheori 429

J. Paulo Apost. Bigarren Guthuna Timotheori 439

J. Paulo Aposto. Guthuna Titeri 445

J. Paulo Aposto. Guthuna Philemoni 449

J. Paulo Apost. Guthuna Hebraearrei 451

J. Jacoberen Guthuna Catholicoa 475

J. Petri Apost. Lehenbicico Guthuna 485

J. Petri Apost. Bigarren Guthuna 495
J. Jauni Apost. Lehenbicico Guthuna 501
J. Jauni Apost. Bigarren Guthuna 511
J. Jauni Apost. Hirurgarren Guthuna 513
J. Juda Apost. Guthuna Catholicoa 515
J. Joanni Apost. Apocalipsa edo Errevelacionea 517
Hiztegia 557

ATARIKOA

Patxi Altuna

Lehengo mendeetako beste zenbait euskal liburu bezala berandu dator hau ere mundura –argitara emaniko eta irakurlearen eskuetaraturiko liburuen mundura, alegia–, hainbestetaraino non izan baitaiteke hau oraindaino euskal libururi bere egileak izatea eman zion puntutik beranduen munduratua edo ezperen beranduenetarikoa. Berrehun eta berrogeitamar urte dira aurtentxe, izan ere, bere egile Ioannes de Hareneder Lapurdiko apaizak bukatutzat eman zuela. Berandu etorriagatik, ordea, hau bezalako liburuarentzat ez dateke inoiz berandu, euskal liburu klasikoen kopurua handitzera baitator eta XVIIIgarren mendearen hasierako lapurtera guri hobeki ezaguteraztera. Itzulpena da, egia, eta ez egileak bere baitarik asmaturiko liburua, lehendik ezagutzen genituen autore beraren beste biak ere, *Philotea* eta *Gudu izpirituala,* ez ziren bezalaxe; Itun edo Testamentu Berriaren itzulpena da, ordea, guk dakigula apaiz katolikok euskarara egin zuen lehena, eta ez beste edozein libururena.

Honaino esanak garbiro erakusten du, ene ustez, liburu honek ez duela behar –zenbait hizlari famatuk ere hitzaldia egiten hasi aurretik ez omen duten bezalaxe– beste aurkezpenik, ez eta inoren aipurik. Berak du bere burua aurkezten eta berak bere balioa goraipatzen. Izan ere, XVIIIgarren mendeko idazlana, gaurdaino argitara gabea, Ioannes de Haranederrek egina, Testamentu Berriaren lehen euskal itzulpen katolikoa dela esateaz dena esana dago liburu honen alde eta ez du beste gorazarrerik behar, are gutxiago nererik. Egileari berari eta itzulpenari dagozkion zenbait puntu ilun aztertuko ditut atariko honetan, argitasun pixka bat ekartzeko asmotan.

* * *

Lafittek 1964ean honela idatzi zuen (1): "Il existe au Petit Séminaire d'Ustaritz un manuscrit intitulé *Iesu Christoren Evangelio Saindua Jaun Haraneder aphez Donibane Lohitsucoac escoararat itçulia. M.DCC.XL. Jaincoaren graciaz".* Ez da

(1) Lafitte, P., "Deux traductions de l'Enfant Prodigue ou Jean de Haraneder revu par Maurice Harriet", *Bulletin du Musée Basque,* 23 (1964), 8. or.

ordea hori damurik Haranederren lumatik jalki zen eskuizkribua bera, hogeitamar urte geroago Robin delako beste apaiz batek aldatu zuena baizik, hor bertan irakurtzen dugunez: "Joannes Robin apheçac iscribatua, 1770". Ez dakigu zergatik aldatu zuen, bere eskuetara zena gorde eta altxatu ordez, ez eta, baldin noraezean aldatu beharra bazen guganaino osorik helduko bazen —oso egoera txarrean zegoelako edo—, jatorrizko eskuizkribuaz zer egin zen. Hobe genukeen, zernahi gisa, biak izan gurekin, hainbeste orrialderen kopiaketan huts bat baino gehiago itzuri behar baitzitzaion nahitaez kopiatzaileari, aise sines daitekeenez, eta itzuri ere baitzitzaion noraezean han eta hemen, nere oharrak irakurriko dituenak argiro ikusiko duenez. Ez al zion bederen, hobe beharrez edo, bere baitarik erantsiko ezer, ez eta kenduko! Bi eskuizkribuak bagenitu, jakin genezake hori; bakarra dugularik, ezin.

Erantsi eta kendu eta eskuizkribuko testua erabat itxuraldatu "hobetu" ustez, beste batek egin zuela, bai, badakigu. 1855ean, izan ere, Harrietek Dassanceren laguntzarekin "lehenago I. N. Haraneder Done Joane Lohitsuco iaun aphez batec escuararat itçulia" omen zen "Jesu-Christo gure Jaunaren Testament Berria" argitara eman zuenean, Testamentu Berri osoa ez baina Lau Ebanjelioak soilik agertzeaz gainera, egin zukeen, berak dioen bezala, "artha bereci batequin, garbiquiago" —Haranederrek bere Aitcin Solasean agintzen zigun "garbiqui eta fidelqui" hari ez aski irizten nonbait!—; badaiteke hala izatea, baina hura ez zen gehiago Haranederrek eginiko itzulpena. Lafittek artikulu berean zioen bezala, "il l'a tellement remanié qu'on ne saurait vraiment regarder l'édition de 1855 comme une reproduction du manuscrit d'Ustaritz" (2). Eta oraino beste batean: "Lan gaitza, nahiz dorpexkoa [...]. Errana da, Haraneder-enari zor handiak diozkala: ez da egia; biziki urrun daude elgarretatik" (3). Ia ehun urte lehenago gauza bera esana zuen Duvoisinek ere: "L'ouvrage de Haraneder a été completement remanié par l'abbé Maurice Harriet..." (4). Ez dugu zer pentsa, haatik, Robin-ek horrelakorik egin zuenik, hutsegite batzu gorabehera.

Harrieten beste berrikuntza batez ere ohartu zen Lafitte —eta Duvoisin ere bai, geroxeago esango dugunez—. Honela dio (5) hark: "En tête de *Philotea,* Haraneder porte le prénom de *Yoanes*" (*Joannes* dio orijinalak, egia esan). "Ici le prénom est double: I. N. Vinson a supposé qu'il fallait lire: *Jean Nicolas* ou encore *Jean Noble*". Harrietek, egia, I. N. deitzen du Haraneder; Robin-en eskuizkribu honek aldiz deitura soila dakar, *Haraneder,* batere izenik gabe, *Jaun...* (aphez) bakarrik aurrean duela. Nondik atera zuen Harrietek I. N. izen hori, *Philotea*-n ere, Lafittek esan bezala, *Joannes* soila ageri baita? Gero mintzatuko gara 'letra zopa'

(2) Hor berean, 16. or.
(3) Lafitte, P., "Biblea Eskual-Herrian", *Eusko Gogoa,* 9 (1958), 499. or.
(4) Duvoisin, J., "Bibliographie Basque", *FLV,* 49 (1987), 86. or., Patxi Altunak argitaraturiko *Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea* deituriko artikuluan.
(5) Ikus "Deux traductions..." aipatua, 9. or.

honezaz eta are nahasiagoaz, hori zela bide Duvoisinek dudan jarri ere baitzuen Testamentu Berri hau itzuli zuena *Philotea* egin zuen Haraneder berbera zen ala bi ziren.

Harrietek Haranederren testuari eta grafiari eragin dizkion aldakuntzak aztertzen ditu gero Lafittek xehero hor aipaturiko artikuluan, baina ez da hori segurki guri hemen axola zaiguna. Guri batez ere axola zaiguna da nola irakurtzen duen Lafittek Haranederren testua, hor izan baititugu guk ere estuasun eta neke ez makalak. Lafittek beretu duen Haranederren testuan –Lukasen Ebanjelioaren XV, 11-32 pasartean– *gasteénac, gazteéna, erreztun* aurkitzen ditugu, Harrietek berean bestelakotu omen dituenak, eta geroxeago ere "Résultats de la confrontation" delakoan honela mintzo zaigu Harrietenaz: "...et chez lui *erri,* doigt, devient *erhi* comme *erreztun* devient *erhestun*". Eta gero berriz ere "dans *erhestun* notez le changement de *z* en *s*".

Egia, bai, Lafittek esan bezala idatzi dituela hitz horiek Harrietek; hor ez da dudarik, baina Haranederrek (6) nola? Lafitteren segurantziak harriturik gauzka. Esan behar aldioro dakiela segurtasun osoarekin nola idatzi duen Haranederrek hitz hau eta bestea, zein letra den han eta hemen ageri den bakoitza. Guk ez dugu horrelako segurantzarik izan, mila duda bai aldiz. Lafittek –hau ere egia– hogeitabost bertsikulu bakarrik alderatu zituen eta aztertu; eskuizkribu osoa marruskatu behar izan balu, ez zukeen agian beti ziur jakingo zer jartzen zuen honako hitz honetan edo harako hartan, *s* ala *z*. Lukasen pasarte horretan berean Lafittek *gasteénac* irakurri du bata eta *gazteéna* bestea, baina ez dakit ez ote daitezkeen alderantziz ere irakur, nik egin dudan bezala, lehena *z*-z eta bigarrena *s*-z. Eta 22garren bertsikuluko *erreztun* delakoa ere neretzat *errestun* da (bai eta hori irakurri duten beste bi begirentzat). Bestetik Haranederrek *gossete* dioela eta Harrietek *gosete*; egia hori ere, baina beheraxeago Lafittek berak *gosez* aldatu du (v. 17) *gossez* dena eta *gaitcitu* (v. 28) Haranederrek garbi-garbi *gaitzitu* idatzia. Eta 29. bertsikulua aski itxuraldaturik eman digu, moldiztegia ere segurki errudun izanik. Honenbestez –esan beharrik bai ote da?– ez dugu Lafitteren jokabidea beztu nahi, geurea zuritu baizik, eta osasuna duguino geure burua sendatu.

Izan ere, Robin-ek utzi digun eskuizkribua "larriki" irakurtzen erraza den arren, gero ere aipatu beharko dugun artikuluan Ruiz Arzalluz-ek dioen bezala (7), ia beti igertzen baitzaio hitz bakoitzari zein den, xeheki irakurtzen ostera ez da beti hain erraza, hitzaren zenbait letra zein den ez baitago beti hain garbi. Eta hori izan da, nolazpait esateko, gure gurutzea, harik eta ondoren aipatuko ditudan arrazoiengatik zirt edo zart egin dudaino. Ez baitut esan beharrik –eta halere esango dut,

(6) Esan bezala, Robin-en kopia baizik ez dugu ezagutzen. Hala ere Haranederren izena darabilgu maiz, Lafittek bezalaxe, Robin-ek testua osotoro errespetatu zuelakoan.

(7) Ruiz Arzalluz, I., "Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento", ASJU, XXI-3 (1987), 712. or.

inork dudarik izan ez dezan– testua eskuizkribuan dagoen dagoenean aldatzea izan dela ene xedea, eta hala egin ere uste dut, testua nola dagoen asmatu ahal izan dudan edota garbi irakurtzeko gai izan naizen orotan. Dagoen dagoenean nola alda, ordea, nola dagoen argiro ageri ez denean? Eta garbi ageri ez direnak, letrak alegia, ez dira damurik bi edo hiru hitzetakoak bakarrik, askoz gehiagotakoak dira, ehunkatakoak. Hitzak, berriro diot, ez asko; hauek ia beti –dudazko bakanak zein diren oharretan esana dago– ezagutu ahal izan ditut. Letrak dira, *s, z* eta *x* batez ere, noiz zein diren igertzen erabat zailak. Goitik beherako, honelatsuko *s*, arrasto txiki bat egiten du maiz, *t*-ren aurrean batikpat, eta ez da jakiteko modurik *s* idatzi nahi izan duen ala *z*. Beste askotan, *sinhetsi, ardietsi* eta horien antzekoetan, *x* den ala *s* den ez dakizun kirrimarra egiten du eta ahal duenak asma dezala. Esan bezala, *t*-ren aurrean gertatzen da hori gehienetan, eta hala ditugu beste askoren artean *estei, emaste, gaste, bestitu, baster, usta, esti, dituste...*, hiru lehenak batez ere ia beti eta gainerontzekoak pasarte batean baino gehiagotan *z* gabe *s* dirudienaz idatziak; bai eta alderantziz *Baptizta, Isaiaz, bezta, bizta... s* gabe horrela idatzirik diruditenak.

Egia da, haatik, hor aipaturiko hitz guztiak ageri direla noiz edo behin edo are gehixeagotan, berez dagokien xixtukariaz idatzirik, itxuraz bederen, *uzta, bazter, ezti* eta abar alegia, eta aski zirudikeen horrek beharbada nik beti *z* erabil nezan guztietan. Baina hori bezain egia ere da *s* garbia dirudienaz ere ageri direla horiek berak, edota nahiago bada *z* ez dirudienaz. Pentsa lezake norbaitek eskuzko izkribatze lan astunaren lasterrak eta alferrak eraginiko *s* antzeko *z*-ak direla (edota gaur guri *s* iruditzen zaizkigunak), edota alderantziz. Ez da ordea hori gauza segurua, beste askotan zein letra den garbi ageri baita.

Gu ez gara, jakina, eskuizkribuaz beraz baliatu geure lanean, haren fotokopiez baizik, eta edonork daki hauetan narrio beltz eta orban ilun franko ateratzen dela maixko. Ez dugu uste, halere, gure zalantzen iturburua eta etorkia hori izan denik. Fotokopien ordez eskuizkribua bera begien aurrean izanik ere, *yenderatu, jenderatu, genderatu* bezalako grafiak ez ziratekeen deus ere argituko, eta hor azkenean erabaki beharra zegoen zein letra onar. Halaber *cembait* eta *cembeit, gaitxto* eta *gaixto, sinhetxten, sinhexten* eta *sinhesten, calixa* eta *caliza,* eta abar, idatzirik diruditenek halaxe irudituko lukete eskuizkribua erabilirik ere. Esan behar Haranederri berdin zaiola batera nahiz bestera idatzi, eta horrela uste izateko bide ematen digute inongo dudarik gabe bitara darabiltzan beste zenbait bikotek ere, *erho* eta *erro* idazten baitu hitz bera (bai eta *erro* dena *erho* ere); *erhi* dena *erri* ere bai, *orhe* dena *orre* eta abar, nahiz *-rh-* grafiaz ere ematen dituen beste batzutan. *Aitcin-solhasa* deritzan hitzaurrean ere hiruzpalau lerrotan barna *cutsatua* eta *khutsatu* aurkitzen ditugu. Agian beste xehetasun batzu argitzeko lagun ziezagukeen eskuizkribuak, hala nola noiz dugun *bainan* eta noiz *baiñan,* noiz *ceina* eta noiz *ceiña,* eta abar; ez zuen, ordea, gure ustez merezi gauzak horrenbeste zehaztea.

Ez gaitu gehiegi harritu behar, izan ere, hitz berberak orain modu batera eta gero bestera idatzirik aurkitzeak, eta Lapurdiko autore zaharrak irakurtzen ohituak baduke horretan eskarmentu. Ziburuko Etxeberrik ere bere *Manual Devotionezcoa*-n nahasi idazten ditu Haranederrengan bitara aurkitzen ditugun hitzak edo horien antzekoak, hala nola *gustiac, gaisqui, citusten, nahis, daroste* eta abar batetik, eta *Parizco, onhetz, promez* eta abar bestetik, dagokienaz bestelako xixtukaria dutelarik. Egia da Axularrek eta Sarako Etxeberrik ez dutela horrelako grafia sistema narrasik erabiltzen. Horiek zergatik ez eta Ziburuko Etxeberrik eta Haranederrek zergatik bai galderari erantzuteko ez naiz gai, bai ordea esateko idazleen zabarkeriagatik bakarrik zela sinestea gogor egiten zaidala eta inprimategiko ezaxolagatik zela sinestea ere bai, ez baitut ikusten zergatik izan behar zuten axolagabe inprimategiko langileek biekin eta beste biekin ez. Hobe dugu pentsatu kostaldeko lapurteraz ez zela zenbait xixtukariren ahoskera bereizten zenbait posiziotan eta Sara ingurukoaz bai.

Halaz guztiz, inork oraindik susma badeza gure begibistaren kamutsa eta ezkela dela errudun Robin kopiatzailearen kaligrafian letra batzu eta besteak ezin bereizi izateko eta ez dela sinesgarri Haranederrek hitz berak modu desberdinez idatzi izana, bide bat dugu oraindik, eta txit erabatekoa ene ustez, hori horrela den ala ez jakiteko. Har dezagun Haraneder beraren *Philotea* argitaratua eta ikus dezagun halakorik gertatzen den ala ez han. Hasierako hamar edo hamabost orrialderen barnean grafia zuzen edo arauezko hauen ondoan (*eztia, emaztequi, ezcondu, cituzten, –arazten, Appezpicuac, izpiritu, haguitz, gazteac,* multzo bat baizik ez aipatzeko), honako beste hauek aurkitzen ditugu: *ditustenec, itchurasco, -arastera, appespicu, ustaill, emastequi, escondu, urrescoac, ispiritu, belsten, haguits, estitcen, gasteac*... Orobat *ceiñec* eta *ceinac* eta *çoiñetan; sinhets* eta *siñhetx; hautetsiac* eta *ardietx-*. Zertako luza?

Horiek horrela zirelarik eta aukera egin behar bainuen nahitaez, aldian-aldian irakurri uste nuen letra erabiltzea erabaki nuen, beti asmatzen nuelako esperantza handirik gabe batetik eta, asmatzen ez banuen ere, bekatu larririk egiten ez nuelako lasaitasunez bestetik. Zer axola zaigu, izan ere –dudazkoetan, jakina–, letra bataz edo besteaz baliatu? Haranederrek ez digu lapurteraren XVIII. mendeko fonetikaz bestetandik ez dakigunik irakatsiko, ez eta lehendik dakiguna kolokaraziko, letra hau edo hura dela kausa. Liburu honen irakurle datekeena ere ez dut uste horren bila ibiliko denik, ez eta grafia batzuren zalantzak liburuaren balio uka ezina preziatzeko begiak lausotuko dizkionik.

Grafiazko beste bi puntu xehe aipatu beharrean naiz oraindik. Lafittek kopiaturiko *gasteénac, gazteéna* haietan nabari denez, Haranederrek hitzaren barnean bi *e* elkarren ondoan gertatzen direnean bigarrenari azentu marka ipintzen dio gehienetan, euskal azentuarekin zer ikusirik ez duena, noski. Beti ipintzen ez diolako, fotokopien narrio edo orbanen artean noiz den egilearena eta noiz fotokopiena

erabakitzen zaila delako, euskal azentuaren balioa ez duelako eta bestek ere bere lanean baztertu izan duelako (8), nik ere aintzakotzat ez hartzea hobetsi dut. Zernahi gisa, *Aitcin-Solhasa* osotoro Haranederrek bezalaxe atxiki baitut, hor ikus lezake irakurleak azentu marka esan dudanetan bakarrik darabilela eta ez bestetan.

Berebat esan behar dut zenbait letraren gainean ipintzeko ohitura duen dieresiaz. Bi bokal elkarren segidan gertatzen direnean *—haü, etsaï, daroën, choïlqui...—* ipini ohi du bigarrenaren gainean, bai eta *j*-az hasten diren hitzei ere *j*-ren gainean. Lafittek berak ez du azken hori aintzakotzat hartu eta horrelako guztiak kendu ditu. Nik gainerakoak ere bai. Ikus halere *Aitcin Solhasa,* non guztiak atxiki baititut erakusgarri gisa.

* * *

Baina nor da Haraneder?

Ikusi dugu *Philotea*-ren itzultzaileari *Joannes de Haraneder* deritzala eta eskuizkribu honetako itzulpenaren egileari, ez kopiatzaileari, izenik gabe *Haraneder* soilik deitzen zaiola eta hau bera Harrietek bere Ebanjelioen moldaketan *I. N. Haraneder* izen-deituraz izendatzen duela. Hirurak bat al dira? Daitekeena da eta ez da ageri, ikusiko dugunez, arrazoi pisurik hala ez izateko. Kontua ordea hori baino askoz nahasiagoa da. Batetik eskuizkribu honen tituluak (lau) Ebanjelioa(k) soilik aipatzen ditu, ez Testamentu Berri osoa: "Jesu Christoren *Evangelio Saindua* Jaun Haraneder aphez Donibane Lohitsucoac escoararat itçulia...", gorago ere ikusi dugunez. Hitzaurrean haatik Ioannes Leizarraga zaharrak "Testament berrico liburua" euskaratu zuela kontatu ondoren, honela dio: "gure jaun Aphezpicuac... desirraturic diocesa huntaco cembeit aphecec Testament berrico liburu sacratu hau escararat garbiqui eta fidelqui itçul deçaten, entseyatu içan gare...", eta noski "Testament berrico liburu sacratu hau" sintagma ez da ulertu behar "osoa" eta "zatia" adierazten balitu bezala; ez, inola ere. Testament berria bera da "liburu sacratu hau", ez Testament berriko zati diren Lau Ebangelioak; hala izatekotan ez bailituzke lau horiek "liburu sacratu hau" deituko. Bestela esan, Leizarragak itzuli zuela aurreraxeago esan digun "Testament berrico *liburua*" bera da gero "Testament berrico liburu sacratu hau" izendatzen duena.

Egia da, halaz ere, Harriet-Dassancek gero lau Ebanjelioak bakarrik berritu eta argitaratu zituztela, "Iesu-Christo gure Jaunaren Testament berria" titulua ezarri arren —"titre ambitieux" deitzen du zuzen onez Lafittek—; eta areago dena, Duvoisinek 1876an esango digula: "Il est resté, sous le même nom, une traduction des Quatre Evangiles en manuscrit" (9). Zein eskuizkribu da hori, lau Ebanjelioak bakarrik euskaratuak dituena? ala buruz eta besteren ahoz ari da Duvoisin, eskuiz-

(8) Ikus Ruiz Arzalluz-en aipatu lana.
(9) Ikus "Bibliographie Basque" aipatua, 80. or.

kribua bera inoiz ikusi gabe? Gero itzuliko gara berriz Duvoisingana, ez dakit gauzak argitzeko ala gehiago iluntzeko. Guk gauza bat dakigu segurki: gure eskuizkribuan Testamentu berri osoa dagoela, Haraneder delako batek euskaratua.

Haranederrek bakarrik osoa? Zein Haranederrek?

Lehen galdera nik baino lehenago egina dio bere buruari Ruiz Arzalluzek (10). Hor goian aldatu ditudan eskuizkribu honen *Aitcin Solhasa*-ko hitzetan, izan ere, Haranederrek "cembeit aphecec" eta "entseyatu içan gare" idatzi du, lanean bakarra izan ez balitz bezala. Egia da, eta hala dio Ruiz Arzalluzek, "plurales de modestia" direlakoak izan daitezkeela horiek —"gare" bai, baina "*cembeit* aphecec" ere bai?—, baina ez da gauza guztiz segurua. Lau Ebanjelioetako eta gainerako liburuetako hizkerak ongi ikertu eta elkarrekin erkatu beharko lirateke. Ez da hori orain neri dagokidan lana, baina diodan iragaitean badela batetik bestera alderik, bi egile diferenteren eskua salatzeko adinakorik den ala ez den esatera benturatzen ez naizen arren, ikerketa zehatz eta sakonagoa egin gabe. Esate baterako, lehenean (Ebanjelioetan) ez dut aurkitzen bigarrenean (gainerako liburuetan) gutxienez bitan (Ap. Eg., XIV, 3 eta XXVII, 7) ageri diren *obratcenez* eta *debecatcenez* bezalako formarik, eskuarki *obratuz* eta *debecatuz* direnen parekorik. Ez eta bigarrenean soilik agertzen diren *beitgaitçate* eta *beçaitçate* (Ap. Eg. XVI, 37 eta Kolos. II, 16) bezalako agintezko adizkirik. Alde handiagorik eta ugariagorik bilatzen ez den bitartean, beude horiek.

Hori lehen galderari nagokiola. Bigarrena, hots, zein Haranederrek egina den Testamentu Berriaren itzulpen hau, are gaitzago da erantzuten, orain ikusiko dugunez. Bat lekora dezakegu hastetik beretik. Gurea ez da noski Lafittek duela urte batzu idoro zuen Joannes Haraneder XVIIgarren mendeko fraide hura (11), artean guztiz ezezaguna genuena. Ez; gurea, baldin behingoz *Philotea*-ren itzultzailearekin bat egiten badugu, Joannes *de* Haraneder da, XVIIIgarren mendekoa, nahiz XVIIgarrenean jaioa, eta herri apaiza gainera, ez fraidea. Baina nor? Egia balitz Lafittek berak hurrengo urtean idatzi zuen beste hau: "...nahi dautzuet laburki salatu badirela bi Haraneder, eta ez bat bakarrik orai arte uste genuen bezala" (12), auzia konpondua legoke eta *Philotea*-ren eta *Gudu izpirituala*-ren itzultzailea bera litzateke Testamentu Berri honena ere. Baina, baldin bi izan ordez hiru badira, zer? Baldin XVIIIgarren mendean berean, Donibane Lohitsunen berean bi baziren izen berekoak, norbaitek aspaldi uste izan eta idatzi zuen bezala, orduan zer? Hiru itzulpen horietatik zein nork egin zuen?

Mataza ez da batere hariltzen erraza. Batetik *Gudu izpirituala* euskaratuaren aitatasuna ukatu izan diote zenbaitek Haranederri, liburuak hasieran dituen N^{l}. I^{h}.

(10) Ikus lehen aipatu lana, 713. or., 18garren oin-oharra.
(11) Lafitte, P., "Joannes Haraneder eta Joannes de Haraneder", *Gure Herria*, 1974, 257-260.
(12) Lafitte, P., "XVIIgarren mendeko Ioannes Haraneder fraidea", *Euskera*, 1975, 397. or.

D[r]. itzultzailearen izen laburpenak direla eta. Hala Daranatz-ek, esate baterako, hizki horietan garai bereko *Noël-Joseph Duvergier* delako baten izen-deiturak aurkitu uste izan ditu eta ez Haranederrenak. Honela dio 1910eko artikulu batean:

> "Le *Gudu izpirituala* a paru en 1750. Or, en 1750, il y avait á Saint-Jean-de-Luz un prêtre promu au sacerdoce en 1734, et dont les initiales N[l]. I[h]. D[r]. concordent parfaitement avec celles du signature de la traduction du *Gudu*: ce prêtre s'appelait Noël-Joseph Duvergier. A mon avis, voilà plutôt l'auteur de cette traduction" (13).

Daranatz-ek baino askoz lehenago susmo berbera egin zuen Duvoisinek, edota susmoa baino gehiago. Honentzat *Philotea,* bai, Haranederrek itzulia dateke —zein Haranederrek, ordea? Testamentu Berria ere itzuli zuenak? gero ikusiko—, baina *Gudu*-a ez, hau Noël-Joseph Duvergier-ek. Ikus zer dioen 1876ko bere *Bibliographie Basque*-n:

> "Noel-Joseph Duvergier, 1750, *Gudu izpirituala...,* N.I.D., Donibaneco jaun apheçac berriro escararat itçulia. Petit in 12 de 335 pages [...]. N. J. Duvergier naquit à Saint-Jean-de-Luz vers 1710; il fut ordonné prêtre en 1734 et ne sortit jamais de sa ville natale. Il parlait fort bien sa langue" (14).

Ez da iritzi bereko Lafitte jauna. Honek *Philotea*-ren eta *Gudu*-ren hizkerek bixkiak eta luma beretik jalkiak omen diruditelako eta lehenaren hitzaurrean bigarrenaren berehalako agerpena agintzen delako —"...promes ematen çaie (Escaldunei) hunen ondoren berehala emanen çaiotela *Gudu izpirituala* deitcen den liburutto bat..."—, uste izan nahiago zuen biak Haranederrek itzuliak zirela eta Duvergier delakoak argitaratzen lagundu ziola: "badut uste 1750-eko *Gudu izpirituala* ere harena den, nahiz bertze batek argitarat emana zuen" (15).

Iritzi honen alde gogoeta batzu egin nahi ditut hemen neure aldetik. Ez Duvoisinek ez Daranatzek ez digute frogarik edo arrazoirik, ez inoren lekukotasunik aipatzen bere iritzia sendotzeko. Hiru hizkiak Duvergier-en izen-deituren lehen letrekin bat datozela esatea, Daranatz-ek dioen bezala, ez da froga, edo izatekotan txikia da, garai berean Donibanen bizi ziren beste gehiagorenekin ere bat etor baitzitezkeen. Halere ezin dateke halabehar hutsa Duvoisin eta Daranatz iritzi bereko izatea, honek ez baitzuen haren *Bibliographie Basque* artean argitaragabea ezagutzen, non ez zuen izan hura ezagutzeko aukera Duvoisinek berak edo honen idazlanaren eskuizkribua beretu zuen aita Aranak erakutsirik, nahiz orduan aitortu beharko zigukeen bere susmoen iturburua Duvoisin zela. Bestalde ere ordea

(13) Daranatz, J.B., "Duvergier et Mihura, traducteurs ecclésiastiques basques du XVIII[e] siècle", RIEV, IV (1910), 478. or.
(14) Duvoisin, J., ikus "Bibliographie Basque" aipatua, 80. or.
(15) Lafitte, P., *Escualdunen Loraţegia,* 88. or.

Haranederrena eta ez Duvergier-ena dela *Gudu*-a pentsatzeko ez dugu froga handirik, dirudienez, Lafittek aipatzen duen bi hizkeren bixkitasuna izan ezik, nahiz horrek hobeki frogatzea eta zehazkiago aztertzea merezi lukeen.

Froga sendorik izan edo ez izan, lehenagokoen usteak badu pisua horrelako gauzetan. Orain bada, Daranatz-ek eta Duvoisinek badakite beren aurrekoen iritzien eta tradizioaren aurka ari direla puntu horretan, eta hauek beti uste izan zutela *Gudu*-a Haranederrena zela. Hori sinestera makurrerazten gaitu Daranatz-en hor goiko "voilà *plutôt* l'auteur de cette traduction" horrek, berea iritzi berria balitz bezala esana baitago, eta hori horrela izatekotan, ez litzateke lehenagokoen lekukotasun hori argudio txikia. Bestalde N^{l}. I^{h}. D^{r}. hizkietan Haranederren izen-deiturak irakurtzea ez zitzaion neke izan Vinson jaunari, zeinek *Noble Juan Haraneder Doctor* irakurri baitzituen horiek.

Duvoisinek ere bere aldetik bazekien bera baino lehenagoko euskal idazle famatu batek gutxienez idatzirik utzi zuela *Gudu*-a Haranederrena zela. Honela mintzo zaigu Francisque Michel-ez:

> "Il le confond encore (Hareneder, alegia) avec Joseph-Noel (sic!, izenak trukaturik) Duvergier, auteur de la traduction de *Combat Spirituel,* qui n'a signé que des ses initiales; il suppose qu'au lieu de I^{h}. N^{l}. D^{r}. (sic!, hauek ere trukaturik) il fallait I.H.D. qui signifieraient *Joannes Haraneder Doctor.* C'est une erreur à laquelle il ne faut pas se laisser prendre. Le même livre (Francisque Michelen *Le Pays Basque*-k, alegia) en commet d'autres" (16).

Aurrekoen usteaz landan, badugu beste arrazoi bat geure baitan asmatua eta agian ez indar handikoa. Duvergier 1710ean edo sortu omen zen, hala esan digu Duvoisinek, eta 1734ean apaiztu, Daranatz-ek ere esan digunez. Beraz berrogei urte zituzkeen hortxe-hortxe 1750ean. Garai hartako usarioak, liburuak argitaratzeko eragozpenak eta euskal idazleek bere liburuak argitaratu ohi zituzteneko adina gogoan edukirik, ez ote zen gaztetxo (?) liburu bat iadanik itzulia eta argitaratua izateko?

Horiek horrela izanik, nahiago dugu Lafittek bezala pentsatu, baldin hizki misteriotsu horien azpian Duvergier izkutatzen balitz ere, itzulpen egilea ez zela bera, Haraneder baizik, eta hark agian diru laguntza erdietsi zuela handik edo hemendik besterena zen liburua argitaratzeko, egilea orduko hila zelako edo.

* * *

Philotea-z den bezanbatean inork ez du dudan jarri, guk dakigula, Haraneder dela itzulpen horren egilea, eta nekez jar zezakeen, liburuaren sarreran haren

(16) Duvoisin, J., ikus "Bibliographie Basque" aipatua, 93. or.

izen-deiturak osorik ageri direlarik, lehen esan dugun bezala. Zein Haraneder, ordea? Bai baitirudi XVIIIgarren mendean berean eta Donibane Lohitsunen berean bi Haraneder zirela, Joannes izenekoak biak, garai bertsuan sortuak biak eta apaizak biak gainera. Hala diosku bederen Duvoisinek, *Philotea*-ren itzultzaileaz ari delarik:

> "Il y avait, dans cette ville, deux prêtres portant tous deux le nom de Jean de Haraneder et qui avaient le même âge, à une année prés. Ils étaient nés vers l'an 1670, ce qui ferait supposer que l'auteur avait environ 80 ans, ou qu'il était dejà mort, quand parut son ouvrage. Il est resté, sous le même nom, une traduction des Quatre Evangiles en manuscrit; j'en parlerai à l'article *Maurice Harriet*. Haraneder parle un très bon basque. Son livre a été réimprimé à Bayonne..." (17).

Beraz bi Joannes de Haraneder ziren Donibanen garai hartan, ia adin berekoak, Lafittek idoro zuen beste Joannes Haraneder aurreko mendeko fraide hartaz kanpo. Biotako batena da, horretan ez da dudarik, *Philotea* eta harena berarena *Gudu izpirituala* ere, arestian frogatu edo dugunez. Biotan norenak diren, Haraneder I-enak ala II-enak, ez zaigu axola, ez baititugu bigarren deiturak bata besteagandik bereizteko. Beste hau, bai, axola zaigu jakitea, eta ez gutxi: ea *Philotea*-ren eta *Gudu*-aren itzulpenak diren Haraneder berarena den *Testamentu Berria*-ren itzulpena ere, ala bestearena. Hona zer dioskun, izan ere, Duvoisin berak beheraxeago, *Maurice Harriet* delako artikuluan:

> "A l'article *Jean de Haraneder* j'ai attribué au même auteur la traduction de *Philothée* et des *Quatre Evangiles*. Il peut se faire qu'il n'en soit pas ainsi. L'auteur du dernier ouvrage met deux initiales devant nom patronymique, I. N. La dernière initiale ne se trouve pas dans les papiers de l'ancien évêche. Mais outre que l'abbé Mendionde, de Saint Jean de Luz, propriétaire du manuscrit, peut donner le renseignement désiré, on le trouvera aussi probablement dans les registres de l'état civil de la ville" (18).

Ez zuen Duvoisinek, egia esan, pisu handiko argudiorik *Philotea*-ren –ikusi dugu *Gudu*-a Duvoisinen ustez Duvergier-ena zela – eta gure eskuizkribu honen – Testamentu Berri osoaren, berriro diogu, eta ez soilik Lau Ebanjelioen – itzultzailea berbera zela dudan jartzeko: hizkien gorabehera. Arrazoi osoa zuen bestalde Harriet-Dassancek ezarri zituzten I. N. letrez ez fidatzeko eta Mendionde apaizak etxean zuen eskuizkribuak autorearen izena nola zekarren galdegiteko eta jakin nahi izateko. Harriet-Dassancek eskuizkribuaren testua goitik behera aldatu zuten bezalaxe, autorearen izena ere aldatu baitzuten, eta eskuizkribuak *jaun Haraneder*

(17) Hor berean, 80. or.
(18) Hor berean, 85. or.

apheçac soilik dioena, haiek *I. N. Haraneder* idatzi. Horrek eta Lau Ebanjelioen itzulpena dela esateak erakusten digu Duvoisinek ez zuela eskuizkribua bere begiz ikusia.

Besterik ere erakusten digu ordea horrez gain: erbi txakur onak bezala bazekiela ihizegaiari usaina ongi hartzen, eskuizkribua ezagutu ez eta ikusi ez arren igerri baitzion Harriet-Dassanceren testuari hura ezin izan zitekeela Haranederren hizkera, XVIIIgarren mendeko lapurtera oso bestelakoa zelako; eta zuzen onez pentsatu zuen, edo susmatu bederen, testua gisa hartan itxuratxartu zutenek autorearen izena ere aise alda zezaketela. Itxuratxartu diogu, bai, hori egin baitzuten Duvoisinen ustez:

> "Je ne m'étonne pas que V.A. désapprouve le mélange de dialectes que l'on trouve dans la traduction dite de Haraneder, laquelle doit porter le nom de l'abbé Harriet" (19),

idatzi zion behin Bonaparte jaunari. Hobe zukeen halere, egia osoa aitortu behar baita, fermukiago hori sinetsi eta ez gero berriz hitz hauek esan, I. N. horiek egiazkoak balira bezala:

> "Francisque Michel dans un livre intitulé *Le Pays Basque* confond le traducteur de *Philothea* avec le traducteur du Nouveau Testament, I. O. (sic!, baldin Loiolako eskuizkribua ongi irakurri badugu, eta ez da erraza, osoro lixtua baitago letra hori dagoen orri bazterra) Haraneder, dont l'ouvrage est resté manuscrit entre las mains de l'abbé Maurice Harriet..." (20).

Hemen, lehen ez bezala, Testamentu Berriaren itzultzailea dio, ez Lau Ebanjelioena. Honaino esanak laburkiro bilduz, diodan ez dudala arrazoi sendorik aurkitzen ez sinesteko, Joannes de Haraneder izenez agertu zen eta hitzaurrean *Gudu izpirituala* iragartzen zuen *Philotea*-ren itzultzailea bera izan zela *Gudu*-aren ere itzultzailea, bere hasierako N^{l}. I^{h}. D^{r}. lehen letrak gorabehera; ez eta Duvoisinekin susmatzeko, hura eta gure eskuizkribu honen itzultzailea bi Joannes de Haraneder zirela, ez baita egia eskuizkribuak I. N. izenez deitzen duela bere itzulpenaren egilea.

* * *

Arestian ikasi dugu Duvoisingandik Mendionde apaiza zela urte haietan eskuizkribuaren jabe eta geroxeago aldiz Harrietek zuela eskuartean. Badakigu bestalde Joannes Robin apaizak bere eskuz aldatua dela eta hari zor diogula guganaino heldu den eskuizkribu hau. Beraz bera zen lehenbiziko jabea. 1738an sortua eta

(19) Daranatz J.B.-k RIEV-en 1928tik 1931ra argitaratu zuen "Correspondance du capitaine Duvoisin" artikulupeko eskutitzetarik 64garrena: (1928), 459. or.

(20) Duvoisin, J., ikus "Bibliographie Basque" aipatua, 93. or.

1765ean apaiztua zelarik ez zen hil 1821 arte eta orduan Lohitsuneko apaiz Mendionde jaunaren eskuetara zen eskuizkribua, hau izendatu baitzuen Robinek bere oinordeko, Daranatzek kontatzen digunez. Harrietek gero Lau Ebanjelioak argitara eman nahi izan zituenean, Dasance izan zen Mendionderen eskutik eskuizkribua bereganatu zuena eta Harrieti eskuratu ziona, itzul lanean has zedin. Mendionderen beraren eskutitz bati eskerrak dakigu hori eta gehiago ere bai: hiru urteren buruan d'Abbadiek agertu zionean Harriet-Dassancek 1858an argitaratu zituzten Lau Ebanjelioez gainerako Testamentu Berriko liburuak ere argitara emateko gogoa, honela erantzun baitzion:

> "C'est avec un sensible plaisir que j'approuve votre intention de faire imprimer les parties encore inédites du Nouveau Testament traduit par Haraneder. Le manuscrit est ma propriété. Je l'avais prêté à M. le Chanoine Dassance qui le laissa entre les mains de l'abbé Harriet" (21).

Ez zen haatik asmo hori burutan atera eta Testamentu Berriko gainerako liburuak argitara gabe gelditu ziren. Ez dakigu gainera, argitaratu balira ere, nola egingo ziratekeen: Lau Ebanjelioak bezala, Haranederren testua erabat itxuraldaturik, ala d'Abbadiek nahiago zukeen Bonaparteren eta Duvoisinen iritziari —ez ordea Inchausperenari— lotu eta testua Haranederrek eman bezalaxe argitaratu. Zuzen onez esan dezakegu, beraz, orain datorrela lehen aldiz osorik argitara apaiz katoliko batek sekulan eginiko Testamentu Berriaren lehen euskal itzulpena, egileak itzuli zuen bezalaxe edo Robinek aldatu zuen bezalaxe bederen.

Honenbestez argitarapen honen ixtorioa laburki kontatzeko aldartea iritsi dela uste dut eta honetan aldez edo moldez esku hartu izan dutenei lana, nori berea, eskertzekoa. Aita Lafitteri lehenik, honek berrehun eta berrogeitamar urte handi hauetan eskuizkribu hau eskutik eskura batak besteari eman izan dioten apaizen kate luzean hartu baitzuen azkenik eta guganaino helerazi. Berak erakutsi zion Euskaltzaindiari, duela urte mordoxka Uztaritzen egin zuen bilera batean, bere liburutegian gorderik zeukan bitxia eta ertsiki otoitu har zitzan beharrezko ziren bideak hura ahalik lasterren argitara emateko. Mitxelena jaunak bere laguntza eskaini zuen bertantxe eta hitz eman, baldin orijinalaren kopia fidagarria makinaturik egiten bazen, berak gero begiratu bat emango ziola, sarrera idatziko eta oharrak ezarriko. Euskaltzaindiaren Gasteizko ordezkaritzako idazkari den Itziar Rekaldek hartu zuen bere gain, eskuizkribuaren fotokopiak begien aurrean zituelarik, itzulpena osorik makinatzeko lana eta urtebetean edo burutu. Esker beroak merezi ditu horrek ere. Hilak ziren ordea orduko Lafitte eta Mitxelena eta gogoan dut handik laster nola galdegin zidan aita Villasantek, artean Euskaltzainburu zelarik, ea hartu nahi al nuen neure gain Mitxelenak egingo zuela hitzeman zuen lana eta ezin izan

(21) Kontu guzti hauen berri ezin hobeki ematen du Endrike Knörr jaunak bere tesian: *Para una edición crítica del Diccionario de Maurice Harriet*, I, 14. or.

zuena. Haren gogoko, are gogobeteko eginbidea zela jakinik eta neure exkaxean ahal guziak egiteko asmoa harturik, baietz erantzun nion. Bada XVIIIgarren mendeko eskuizkribu inoiz argitara gabea, norena eta Joannes de Haraneder batena, ez da segurki inori egunoro bidera ateratzen zaion ihizea, aitzitik bai edozein euskal filologok irrikaz nahiko lukeen eta ahora lekiokeen ahamenik gozoenetakoa. Bizkarreratu nuen ekintza zuzen egin badut, oker egin badut, erantzukizun osoa enea da eta ez nabil eginagatik esker bila, neuk hartu bainuen lantegi hori neure gain neure gogoz. Idazkariak bere arloa ezin hobeki burutu zuen eta ez du alafede merezimendu txikia; gainerakoa nere gain gelditu zen: alegia, hark makinatua hitzez hitz aztertzea, ea eskuizkribuak zioenarekin bat zetorren; irakurgaitz ziren pasarteak eta makinatu gabe geldituak —bakan batzu, egia esateko— osatzea; han-hemen oker irakurriak zuzentzea; oharrak bai hizkerari, bai kopia egiterakoan Robini aldatu gabe itzuri zitzaizkion hitzei zegozkienak orripean ezartzea; azkenik irakurle arruntari ezezagun edo ez hain ezagun gertatuko zitzaizkion hitzen hizteginoa prestatzea.

* * *

Liburuaren edukiaz den bezanbatean, ez da gauza handirik esateko Testamentu Berria zer den dakienari. Diodan halere Haranederren beraren *Aitcin-Solhasa*ko hitzez "Jesu-Christoren Evangelio Saindua eta Apostoluen eguincariac, buthunac eta escribuac" besarkatzen dituela. Lehenbizikoek, Lau Ebanjelioek alegia, 462 orrialde betetzen dituzte eta gainerakoek 649. Liburuaren tituluak laburturik dakar eduki hori, ez baitu *Evangelio Saindua* baizik aipatzen: *Jesu Christoren Evangelio Saindua jaun Haraneder aphez Donibane Lohitsucoac escoararat itçulia.* Gero orri beraren barrenean beste hau irakur daiteke: *MDCCXL. Jaincoaren graciaz.* Bien erdian zigilu biribil baten barrenaldeko inguruan hau erantsi dio bere baitatik Robin kopiatzaileak: *Joannes Robin apheçac iscribatua: 1770,* eta zigilu beraren barrenagoko inguruan letra txikiagoz beste hau: *Gurutce huntaz içanen duçu garaya: çaquizco bethi,* eta erdi erdian: *IHS.*

Itzulpena baino lehen, ordea, zenbatu gabeko zazpi orrialdetako *Aitcin-Solhasa* eratxiki dio liburuari Haranederrek eta horrek bai merezi du bi hitz egitea beraz. Vinson-ek bere *Bibliographie de la langue basque*-n (22) eman zuen osorik eta gainera frantsesera itzulirik. Batetik, eman zuen erak ez du beti eta erabat Haranederren grafia atxikitzen, hasierako lerroetan irakurtzen ditugun *ichitzen, hitza, daitezken, ungi, deçakete* eta beste hitz askok aldatua baitute eskuizkribuaren grafia. Frantseseko itzulpena, bestetik, ongi egina da, bizpahiru pasartetan izan ezik. Haste-hasteko hitzek ez dute xuxenki "Ce que les Pères de l'Église ont coutume de dire, ce qu'on appelle l'Écriture Sainte et surtout le Nouveau Testament" esan nahi, baizik gazteleraz "La que los Padres de la Iglesia acostumbran llamar Sagrada Escritura y en particular el llamado Nuevo Testamento..." esan litekeena. Behera-

(22) Vinson, J., *Bibliographie de la langue basque,* II, 593. or.

xeago "hel-ahalac ditu ichitcen"-ek ere ez dut uste "il retient les attractions de tous" esan nahi duenik, baizik Axularren *chitu* gogoan edukirik —Haranederrek hor eta bestetan darabilen *ichitu* ez dakar Lhandek— "supera la capacidad de alcanzar de todos", hots "es inasequible para todos".

Azter dezagun, ordea, *Aitcin-Solhasa* delako horren muina, horko zenbait gogoeta agirian jartzen dugularik, merezi baitu. Euskarara apaiz katolikok inoiz egin duen Testamentu Berriaren lehen itzulpena egiten ari dela jakitun da eta hala dio garbiro: "...ondicoz orai arteraiñocoan nihor ez da içatu iracurtcerat eman içan daroenic [Escaldunei] bere aita onaren Testamenta escararat [...] itçulia". Badaki haatik Leizarragak "noizbeit aspaldi imprimaraci içan çuela Testament berrico liburua berac escararat itçuliric". Leizarraga ordea "itçulia baitcen bera Calviñen secta içurriztaturat", ez zen gehiago apaiz katoliko. Harrigarri da zein hitz latzez eta gogorrez iuiatzen duen eta gaitzesten Leizarragaren *obra* ("ecin guelditu da bere *obrari* iretchequi gabe cembeit lekhutan berac hartu içan çuen içurritic"), Testamentu Berriaren itzulpena —hori zen zerabilen gaiari zuzenki zihoakiona— eta *obra* osoa zaku berean sartzen dituelarik, obra gaitzestekoa baldin bazen hori bakarrik gaitzetsi eta itzulpena salbu utzi ordez. Bestelakoa izan zen —hain bestelakoa ere!— Larramendik garai berberean Leizarragaren itzulpenaz eman zuen iritzia: "Por lo demás, no se puede conocer que sea calvinista el traductor, que está a mi entender muy ajustado en su traducción." (23).

Berebat harrigarri da Leizarragaren "liburu cutsatu" hark garai hartako kristauen artean egin zezakeen kalteari Haranederrek erakusten dion beldurra ("beldurrez ecen cembeit arima fidelec [...] jan ez deçan guiçon etsai eta dohacabe harc han barrajatu içan duen poçoatic..."), nahiz adi daitekeen berea baino gehiago Apezpikuaren beldurra zela, kontatzen duen moduaren arabera. Batarena zein bestearena izan, ordea, galdegin genezake zuzen onez nolatan izan zezaketen halako beldurra. Eskupidean al zuten "cembeit arima fidelec", ia berrehun urte igaro eta gero, Leizarragaren liburua? Larramendik lehengo pasarte berean diosku "es pieza rara" eta berak ere lanak izan zituela ale bat eskuratzeko. Baina eskupidean izanik ere, zenbatetaraino adi zezaketen Leizarragaren hizkera zaharra orduko lapurtarrek, "arima fidelec" eta arruntek noski, kalterik eragiteko?

Bere itzulpena "fidelqui" egiteko xedea agertzen du Haranederrek eta xede hori zenbatetaraino bete zuen aztertzen eta dudan jartzen Ruiz Arzalluz-ek lehen aipatu artikuluan. Osin handiko gaia da hori hemen luzaki eztabaidatzeko, alderdi asko miatu beharko bailirateke epaia eman baino lehen; esate baterako, ea orduan eta gaur testu baten itzulpenaren fideltasunaz gauza bera aditzen den ala ez; ea inoiz apaiz katolikok Testamentu Berriaren, eta erabat Bibliaren, itzulpenik —itzulpenik diot, ez historiarik edo kondaira gisakorik— egin duen "fidela" izan nahi ez

(23) Larramendi, M., *Diccionario trilingüe*, lehen tomoa, § XXI.

zuenik eta bere ustez halakoa ez zenik; ea hizkuntza baten, zeinetara itzulpena egiten baita, egiturak eta legeak ahalik zintzoen gorde nahiak eta beharrak trai egiten dion ala ez itzulpenaren fideltasunari; ea fidelki itzultzeari nahitaez zor zaion literalki itzultzea, literalki itzultzea bera ere kontzeptu unibokoa ez denez gero, eta abar. Baina ez da hau, esan bezala, puntu horiek jorratzeko lekua. Neri aski zait hemen aitortzea eta garbi uztea —eta ez dut uste Ruiz Arzalluz honetan bestelako iritzikoa izango denik— Haraneder ez zitzaigula hori esatean gezurretan ari, "fidelqui" itzultzen saiatu zela eta hala egin uste zuela bere garaiko fideltasun iritzien arabera, hizkuntzen desberdintasunak ezinbestean ezarri zizkion mugen barnean.

Barkatuko dit halere esaten badiot gainera bahe estuegia darabilela aukeran, ene ustez, Haranederren eta besteren fideltasun-literaltasunen luze-laburra neurtzerakoan eta neurtuaren ondorioak ateratzerakoan: "se diría que Haraneder traduce los textos sagrados con cierta tranquilidad. Eso por lo que hace al contenido [...], ya que la fidelidad a la forma del original [...] tiende a cero". Hori orohar ezina da, mundu guziak baitaki nolako lotsa erakusten zioten "Iaincoaren hitz pura"-ri (Leizarragaren hitzez esateko) hain protestanteek zein katolikoek eta nolako erizpide ertsi, zorrotzak erabili ohi zituzten argitaratzeko baimena eman behar zutenek. Ez luzatzearren, hona bizpahiru puntu Gasteizko irakasle argi, trebeak darabilen bahe estuaren erakusgarri.

Literaltasuna ikusten du, salbuespen gisa eta itzultzaileak inoiz gutxitan erakusten omen duena, "Abrahamec jenderatu çuen Isaac" bezalako esaldian ageri den hitzen ordenan; hori ordea, bistan denez, ez du horrela itzuli literaltasun zurrean, hori baita hitzen ordena guztiz ezagun eta arrunta Leizarragagandik ("Guiçon batec cituen bi seme") hasi eta Gipuzkoako XVIIIgarren (gutxienez!) mendeko edozein idazle arte (ikus milaren artean Ubillosen hauek: "Noec izandu cituan Sem, Cam ta Jafet..."; "Isaac onen Semea zan Jacob...") (24). Hitzen berretura ikusten du aldiz "Pater tuus... reddet tibi" itzultzeko "...emanen darotçu *saria*" dioenean, *ordaindu* edo *saritu,* hitz bakarra alegia, erabili beharrean "reddet"-en ordain. Horretara bagoaz, berretura da "dormire", esate baterako, *lo egin,* edo "loqui" ere *hitz egin* itzultzea, hitz bat gehiago euskaraz alegia, *lokartu* (?) eta *mintzatu* erabili beharrean. Baina areago, "reddet" bera ere ezin zukeen *sarituko darotçu* itzuli, euskaraz bi hitz baititugu. Azkenik, "un caso claro de traducción libérrima" deitzen du Vulgatako "...quid amplius facitis?" honela itzultzen duelako: "cer eguiten duçue *hortan bertcec baiño* guehiago?", hiru hitz azpimarratu horiek latinean ez daudelarik. Jakina da gaztelerak "¿Qué más hacéis?" eta "¿Qué hacéis de más?" bereizten dituela (noizdanik?) eta euskarak bigarren hori —eta hori esan nahi du Vulgatak, ez lehena— garbi adierazteko perifrasi batera jo behar duela, Haranederren hizkeran, bai eta Ruiz Arzalluz-enean eta nerean ere, hor eman

(24) Ubillos, J. A., *Christau doctriñ berri-ecarlea,* 68-69. or.

zaigun horretara. Nola esan bestela "¿Qué hacéis de más?" hori? Baina gauzak horren estu hartzen baditugu, ezin daiteke gaztelerazko "de más" ere ontzat eman, latinez ez baita *de* horren kiderik ageri.

Arrazoi guziogatik nik nahiago dut Haranederri sinetsi eta esan baietz, ahal zezakeen eta orduan egin ohi zen bezain "fidelqui" egin zuela bere itzulpena, batez ere Ruiz Arzalluzek aztertzeko hautatu zuen San Mateoren Ebanjelioko pasarte horrena eta erabat Lau Ebanjelioetako guziena. Besterik da Pauloren gutunetako zenbait pasarte ilun eta nahasitakoena, baina hori ez da Haranederrenean bakarrik gertatzen, ezpada beste edozein hizkuntzatan eginiko nornahiren itzulpenean ere bai, mundu guziak aitortzen duen bezala. Horietan ni nerau aski galdua ibili naiz, egia esan, zenbait bertsikulu ikuskatzerakoan, Vulgatakoa baino sei edo zazpi hitzez luzeagoa baitzen Haranederren zenbait bertsikulu —eta Vulgatako hitzen parafrasia ez ziruditenez luzeagoa gainera—, neure buruari han-hemenka galdegiteraino ea pasarte horietan Vulgatatik ari zen ala beste nonbaitetik itzulpena egiten.

* * *

Haranederren hizkera darabildanez gero ahotan azken lerro hauetan, hizkera horren berezitasun zenbait ipini nahi dut hemen agerian, gogoko izango dituen gaurko hizkuntzalariak liburuaren ehunka orrialdeetan barrena bila ibili gabe bilduak aurki ditzan. Aipatze hutsa ia aski izango da beste iruzkinik eta argitasunik gabe, hizkuntzalari trebe hori ikusi orduko ohartuko baita zer duen berezitasun bakoitzak bitxi edo berezi.

Eta hasteko ekar ditzadan aurrenik lehen aipaturiko biok, zeinek erakusten baitigute ez direla XIX. mendeko zenbait gramatikariren asmakeriak:

beçaitçate (Kolos. II, 16)
beitgaitçate (Ap. Eg. XVI, 37)

Azken horretan *beit-* gabe *be-* ez ote?

Eta beste biok:

obratcenez (Ap. Eg. XIV, 3)
debecatcenez (Ap. Eg. XXVII, 7),

latinezko bi ablatibo absoluto —"dante... fieri" eta "prohibente"— itzultzen dituztelarik.

Adizkietatik atera gabe hortxe dugu *nor-nori-nork* forma bat (besterik ez?), non *nor* ez baita hirugarren pertsona, baizik pluraleko bigarrena (*zuek*). Jakina da Leizarragak badituela horrelako hiruzpalau:

"gomendatcen çaizquotet Jaincoari" (Ap. Eg. XX, 32)

Izenaren morfologiara gatozelarik, liburu osoan barrena h*apax* dela uste dut izenorde singularretiko forma hau: *nitaric,* "per me" (Jo. X, 9).

Azkenaldi honetan eztabaida izan da gure artean *-ko/-tako* bi atzizki diren ala atzizkia *-ko* baizik ez den eta *-ta-* deklinabideak izen sintagmari zenbait kasutan harrerazten dion marka. Haranederren (eta beste askoren) "atsecabe handitan" (Apok. II, 22) eta "arropa churitan" (Apok. III, 4) bezalako mugagabeak —*-ta-* bere baitan dutenak— ikusi ondoan, ez da dudarik "bothere handitacoa" (Apok. V, 2), "indar handitacoa" (Apok. X, I), "bothere gucitaco" (Apok. XVI, 14) eta antzekoetan *-ko* bakarrik dela atzizkia. Apokalipsi liburuko exenpluak bakarrik eman ditut hemen, baina dozenaka dira horrelakoak Testamentu Berri osoan barrena.

Sintaxian puntu bitxi gehiago aurkitzen ditugu. Dakardan sortatxo bat. Honako konpletiba hau liburu osoan bakarra dela esango nuke:

> "badaquite... Jerusalemen eraman içan dudana" (Ap. Eg. XXVI, 4).

Kausalak askotan perifrasi honen bidez moldatzen ditu: *halaz eta + -az gueroz.* Bakarra aipatuko dut:

> "Eguiazqui ceboc duçue aguertcen aprobatcen duçuela..., halaz eta hec hillaraci dituztenaz gueroz profetac eta çuec bastitcen ditutçuenaz gueroz hequien thombac" (Lk. XI, 48).

Euskarazko "beldurrez ez...-(e)n" gazteleraz ez da "por temor de que *no*", baizik "por temor de que". Halaber "debecatu ez..." gazteleraz "prohibir que" da, frantsesaren eraginez dudarik gabe. Ikus hauek:

> "beldurrez cerbait altaramendu içan ez dadin" (Mt. XXVI, 5).
> "debecatu çaroen niholeretan mintça ez citecen" (Ap. Eg. IV, 18).

Baina ez da beti horrela eta xeheki aztertzeak merezi luke.

Guztiz bitxiak dira eta latinezko *et... et...* perpausak gogorazten dituzte honako hauek:

> "Jauna, ez duçu eta certan erauts eta putçua behera da" (Jo. IV, 11).
> "Jauna, ez daquigu eta norat çohacen, eta bidea nondic jaquin ahal deçaquegu?" (Jo. XIV, 5).

Ez dira halere osoro berdinak.

Oso ezagunak dira *burura(t) zitzaidan, mendira(t) nintzenean* eta antzekoak, baina hau ez hainbeste:

> "..., ceren maiz içan baitcen harat Jesus" (Jo. XVIII, 2).

Honako hau ere ez da liburuetan egunoro irakurtzen:

> "Eta balacatu içan cituen lurreco egoquiac, bestiaren aitciñean eguiteco botherea çuen prodigioen gatic" (Apok. XIII, 14),

beste honen aski diferente: "...prodigioac eguiteco çuen botherea gatic", zeren lehenbizikoan batetik 'prodigioac eguiteco botherea çuen' eta bestetik 'hec gatic balacatu cituen'. Guk esan genezakeen beste honen antzekoa da: "Argitaratzeko baimena zuen liburuagatik saldu zuen etxea" eta hau ere bere aldetik honen diferente da: "Liburua argitaratzeko zuen baimena gatik...".

Mendebaldeko euskalkietan *errukitu*-ri zor zaizkion *nor* eta *nori* Haranederren *urricaldu*-k trukaturik hartzen ditu. Alegia, gure "bidantea elbarriari errukitu zitzaion" Haranederrek horrela esango luke: "bidanteari elbarria urrikaldu zitzaion", gurea "tener compasión de" eta harena "inspirar compasión a" balitz bezala. Ikus:

> "Urricaldu citçaizcon bada Jesusi" [bi itsu] (Mt. XX, 34)
> "Jesus, gure naussia, urrical gaquizquitçu" (Lk. XVII, 13)

(Galderatxo bat bidenabar azken *gaquizquitçu* hori dela eta: agintekera da, noski, eta *nor-nori,* alegia *gu zuri. Nori* kentzen badiogu, zer gelditzen da? *gaitez?* Bai al da agintekeran lehen pertsonako formarik?)

Beste esaldi guziok bere baitan duten datibo harrigarriaz aritua naiz beste batean (EUSKERA, 1989, 1; 165. or.) eta hemen aski izango da pasarteak aipatzea. Batetik:

> "...ez du eguiten Aitari eguiten icusten dioena baicen" (Jo. V, 19).
> "...esperantça baitçuen icussico cioela cembait miracuillu eguiten" (Lk. XXIII, 8).
> "...norc sinhetxi içan du guri erraten aditu darocutena?" (Jo. XII, 38)

—eta honen barneko "guri aditu darocute erraten" erka bedi beste honekin "Eta aditu nuen uretaco ainguerua erraten" (Apok. XVI, 5)—. Eta bestetik berriz:

> "...ecen cebonec neurthuco duçuen neurri beraz neurthuco çaitçue" (Lk. VI, 38).
> "...ecen cer ere neurriz neurthu baidiequeçue bertcei, eta neurri beraz neurthuco caitçue cebei ere" (Mk. IV, 24).

Lexiko mailan azkenik ekar ditzagun hona froga-ale gisa liburuaren azken orrialdeetan edonork irakurri ahal izango dituenetarik bizpahiru hitz, atentzio pixka bat eman digutenak. Behin bakarrik ageri dela uste dut *gura:*

> "...cerbait eramateco guraz" (Mk. XIII, 15).

Ez naiz oroitzen inon irakurria nuen *ohi* liburu honetan barrena duen zentzuaz eta, egia esan, "ohitu" arte atzera eragiten dizu. Hona pasarterik bitxienetakoa:

> "Ecen emastea guiçonetic atheratua içan ohi den beçala, halaber guiçona emastea ganic sortcen da..." (1 Kor. XI, 12).

Guk justuki, mendebaldekook alegia, hor *ohi* dagoen perpausetik kendu eta gehienez ere bigarrenean txertatuko genuke: hots, "atheratua içan den beçala" —hori

behin soilik gertatu baitzen– eta aldiz "guiçona emastea ganic sortcen *ohi* da" –hala baita beti–.

Hona beste bikote hau: *eguiteco dia* (2 Kor. XI, 28) eta *gathibudia* (Efes. IV, 8). Lehenak bi hitzez idatzia dirudi, bigarrenak berriz bakarrez. Lehenari dagokionez Vulgatak ez du asko argitzen: "instantia mea quotidiana". Lhandek bere hiztegian hau dakar: *ongiegiñ dia.* Horrenbestez badirudi Haranederrek "instantia (mea quotidiana)" honela itzuli –ala irauli?– duela: "(egunoro barrendatua naducaten) *eguiteco dia,* hots, eginkizun piloa edo mordoa. Bigarrenean, *gathibudia*-n, aski garbi dago, ene ustez, *-di* atzizkia ikusi behar dela hor ("captivitatem").

Zertako luza? Inori gogoa eragiteko aski da esatea, hau bezalako liburu klasikoetan baizik ezin aurki daitezkeen hitz zahar, jator eta ederrez betea dagoela. Hemen aurkituko ditu, esate baterako, *bombacia, burupe, harchedea, escudantcia, bergamio, iriondu, urmariatu, tulumbio, aldamio,* etab. Txanpon edo sos izen mordoxka ageri da; hala nola, *cornadu, tolosano, pelat, ardit, marcu, peça,* ... Orixek eta Mitxelenak agian txartzat emango ez liokete (25), *Gurasoac* ez badarabil ere, esatea *Eliçaco Aitac* ("Sancti Patres Ecclesiae") hitzaurreko lehen hitzean. Beretzat *batçarra eduqui* eta *solhasa atchequi* egiten da "mantendu" gabe. Laburki esateko, harrobi bat da alde guzietarik eta merezi luke norbaitek, *Gudu izpirituala*-rekin eta *Philotea*-rekin batera idazle honezaz tesi bat moldatzea.

Neure aldetik ez zait gelditzen, liburu hau azkenik askoren ustekari guzien kontra argitara emana ikusten dudalarik, hori ahalkor izan zedin bultzada eman eta laguntza eskaini didaten guziei eskerrak ematea baizik.

(25) Ikus Koldo Mitxelena, EIG VI, 172. or.

AITCIN SOLHASA

Eliçaco Aitec ohi diotena Escritura Saïndua eta guciz Testament berria daritçana, ceiñec çarratcen baïditu Ïesuchristoren Evangelio Saïndua eta Apostoluen Eguiñcariac, buthunac eta escribuac, da Jesuchristoc bere haürreï utci içan daroën Testamenta, Ïaïncoaren umeèn bazca eta oguia, Ïaïncoaren izpirituac miragarriqui gucieï aphaïndu içan daroëna; guciac hel ahal daquizqueyo, eta dembora berean gucien hel-ahalac ditu ichitcen, ceren mysterio batçu baïditu çarratcen arguituënac concebi ahal baïño goragocoac, eta eguia batçu baïditu eracusten gutien jaquintsun direnac ere hazteco propi direnac.

Baïñan ecin akhabatuzco lana liteque Eliçaco aïtec liburu ïaincozco hunen laüdoriotan eta haü maiz eta behar den izpirituarequien iracurtcetic heldu diren probetchuën gaiñean atchequi içan ohi dituzten solhaz ederrac hemen aïphatcea. Asqui da erratea Jaïncoaren hitça dela. Berdin hunen abantaïlletan erran ahal daïtezquen guciëc ecin haïn ungui sentiaraz deçaquete hunen preçagarritassuna, nola baïdeçaquete senti iracurtcen dutenec berec, baldin izpiritu ethorcor eta bihotz humill batequien iracurtcen badute, bethiere cinqui datcheïzcolaric Eliçaren ganaco summissioneari eta obedientciari.

Horri dagocala lehiatu ere dire Franciaco Aphezpicuac liburu sacratu haü francessezco lengoayarat itçulia bere diocesetaco fidelen escuëtan ematerat, nahiz Jaincoaren umẹ guciëc ïaquin deçaten bere Aitaren Testamenta eta guciac ditecen haz bere Aitac eman içan daroën oguitic. Baïñan Jaïncoac haiñitz gracia bereciz seïñalatu içan dituën arren escaldunac bere haür maïteènetaric batçu beçala, ondicoz oraï arteraïnocoan nihor ez da içatu iracurtcerat eman içan daroënic bere Aita onaren Testamenta, escararat, escaldun guciec adi deçaqueten lengoayarat, itçulia; nihor ez da içatu bere Aita amulsuac utci içan daroën oguia escurat eman daroënic. Eguia da bada Ïoannes Leiçarraga ceritçan Beracoïzco [1] aphez edo erretor cen batec noizbeït [2] aspaldi imprimaraci içan çuëla Testament berrico liburua, berac escararat itçuliric; baiñan nola dohacabe hura, erreligione catholica eta eguiazcoa utciric orducotz ïa itçulia baitcen bera Calviñen secta içurriztaturat eta haren

1. Halaxe dio.
2. *Bait* eta *-beit* nahasi agertuko dira gero.

heresia poçoatuaz cutsatua, ecin guelditu da bere obrari iretchequi gabe cembeït lekhutan berac hartu içan çuën içurritic eta iretsi içan çuën poçoïnatic; eta hala, beldurrez ecen, cembeit arima fidelec bere gosse izpiritualean liburu khutsatu hura açarcaturic, jan ustean bere Aitaren ogui phurutic, jan ez deçan guiçon etsaï eta dohacabe harc han barrayatu içan duën poçoatic ere, gure jaun Aphezpicuac, bere ardien salbamenduarentçat duën griñaz eta hec bazca on eta sainduëtan erabiltceco duën arduraz, desiraturic diocesa huntaco cembeït aphecec Testament berrico liburu sacratu haü escararat garbiqui eta fidelqui itçul deçaten, entseyatu içan gare gure eguin ahal guciaz haren handitassunaren chedea bethetcerat; eta hortaracotz, iretchequi içan gaizco lehia handi batequien Eliça Ama Sainduaz beregaïnqui aprobatua Vulgata daritçan textuaren ez choïlqui sensuari, baiñan oraiño eguin ahal beçambat lettrari berari; eta lettrari çorrotxqui eta urratsez urrats jarraïquiz, sensua gure lengoayan ecin ungui açarca daïtequen lekhuëtan, ez gare atrebitu guere burutaric deüssere ematerat; aïtcitic baliatu içan gare Jaun Maïtre De Saci eta Aïta Bouhours textu hura bera francesserat itçuli içan duten bi aüthor aprobatuen baïthan aurkhitu dugun laguntçaz, batean batari, bertcean bertceari garraïzcola, textu sacratu haren sensu garbia eta naturala gure lengoayan atcemateco gaitzenic diren lekhuëtan batac edo bertceac bide celhayena eracutsi içan darocun araüera.

Har çaçue beraz, gure herritar jaincotiarrac, eta jan çaçue lehia handirequien çuën Aita onac eman içan darotçuën oguitic, eta frogatuco duçue janari salbagarri horrec, lehenago Elias Profetari guerthatu citçayon beçala, emanen darotçuela indarra Jaïncoaren mendiraiño heltceco, baldin bihotz garbi eta chuchen batequien hartcen baduçue.

Iracuraçue çuën Aïtaren Testamenta eta ahal beçambat gogoz har ere çaçue, hortan ikhasteco Aita amulsu harc destinatu darozquitçuën ontassun eternalac, hetarat heltceco iracasten darozquitçuën bideac, eta hec ardiexteco berac ematen darozquitçuën laguntçac. Frogatuco duçue cembat consolacione atheraco duçuën, miseriazco haran huntan batcen çaizquigun atsecabeèn artean, iracurtça horrec gueroco descansu eternalaz ematen darocun esparantçatic; cembat indar, mundu huntan jassan behar ditugun guduën artean gure Aita guciz botheretsuac aguindu darozquigula eracusten darozquigun laguntcen iguriquitcetic; cembat argui, mundu illhunbetsu huntaco errebelamenduën artean Naüssi divino haren beraren partez presentatcen darozquigun eracuspenetaric; guerthuqui ecen arima fidelec liburu Jaincozco huntan dituzte aurkhituco, bicitce huntaco guerthacari gucietan nola comportatu behar duqueten iracatsico darozten erreguela segurac eta salbagarriac.

Noïz ere ordean bathuco baïtçaïtçue, liburu Sacratu haü iracurtcean, cembeït gauça aditcen ez duçuënic, çaquizcote arguitaco Aitari, izpiritu humill batequien galdetcen dioçuëlaric, arren adiaraz diecaçuën çuën salbamenduarentçat necesario ditequena; çohazcote Eliçaco arçaïneï eta apheceï, othoitz eguiten dioçuëlaric explica dietçatçuëten jaquitea probetchu duquetçuën gaüçac; eta hori ardietx ahal deçaqueçuën bizquitartean, sinhetxaçue, adora çaçue, humilia çaïtezte, bazca çaï-

tezte clarqui adituco dituzquetçuen eguiez, eta lehia çaïtezte, aditcen ditutçuen eguia hec leyalqui beguiratuz, merecitcerat oraïno aditcen ez ditutçuëquenen ungui aditceco gracia. Disposicione horiëquien jartcen baçarete liburu saïndu hunen iracurtcerat, ignorant çaretenec edirenen duçue hemen eguiazqui jaquintsun içateco asqui dena; pobre çaretenec, dohatsu içateco behar den eguiazco aberatstassuna; affligituac çaretenec, descansua; arima eria duçuëla dacussaçuënec, ossassuna; bekhatuan hiltceco beldur çaretenec, ciñezco bicitce berrian sartceco bidea.

HALABIZ

J. CHRISTOREN

Evangelio Saindua
San Matthaeoren arauera

I. Cap.

[1] Jesus Christo Daviden semearen eta Abrahamen semearen jenderacionearen liburua. [2] Abrahamec jenderatu çuen Isàac; Isaac-ec jenderatu çuen Jacob; Jacobec jenderatu çuen Juda eta haren anayac. [3] Judac jenderatu çituen Thamarrenganic Phares eta Zara; Pharesec jenderatu çuen Esron; Esronec jenderatu çuen Aram. [4] Aramec jenderatu çuen Aminadab; Aminadabec jenderatu çuen Naason; Naasonec jenderatu çuen Salmon. [5] Salmonec jenderatu çuen Booz Rahaben ganic; Boozec jenderatu çuen Obed Ruthen ganic; Obedec jenderatu çuen Jese eta Jesec jenderatu çuen David, erregue ondoan içan cena.

[6] David erregueac jenderatu çuen Salomon, Uriasen emaste içan cena ganic. [7] Salomonec jenderatu çuen Roboam; Roboamec jenderatu çuen Abias; Abiasec jenderatu çuen Asa. [8] Asac jenderatu çuen Josaphat; Josaphatec jenderatu çuen Joram; Joramec jenderatu çuen Oziaz. [9] Oziazec jenderatu çuen Joatham; Joathamec jenderatu çuen Achaz; Achazec jenderatu çuen Ezechiaz. [10] Ezechiazec jenderatu çuen Manasse; Manassec jenderatu çuen Amon; Amonec jenderatu çuen Josias. [11] Josiasec jenderatu çuen Jechonias eta hunen anayac, juduac Babyloniarat eramanac içan ciren demboratsuan.

[12] Eta Babyloniarat eramanac içan ciren ondoan, Jechoniassec jenderatu çuen Salathiel; Salathielec jenderatu çuen Zorobabel. [13] Zorobabelec jenderatu çuen Abiud; Abiudec jenderatu çuen Eliacim; Eliacimec jenderatu çuen Azor. [14] Azorec jenderatu çuen Sadok; Sadokec jenderatu çuen Achim; Achimec jenderatu çuen Eliud. [15] Eliudec jenderatu çuen Eleazar; Eleazarec jenderatu çuen Mathan; Mathanec jenderatu çuen Jacob. [16] Eta Jacobec jenderatu çuen Joseph, Mariaren esposa, ceiñaganic sorthu baida Jesus, Christo deitcen dena.

[17] Badire, beraz, guciz Abraham ganic Dabiden ganaco artean hamalau jenderacione; Daviden ganic, berriz, Babyloniarat judutarrac eramanac içan ciren artean hamalau jenderacione; eta Babyloniarat eramanac içan cirenetic Jesus Christo ganaco artean hamalau jenderacione.

[18] Bada Jesus Christoren sortcea nola [1] içan cen: Maria haren ama esposatua celaric Josephequien aurkhitu cen içorra, elkharganat citezquen baino lehenago; concebitu baitçuen bere sabelean Izpiritu Sainduaren berthutez. [19] Eta nola Joseph haren senharra justua baitcen eta ez baitçuen nahi desohoratu, secretuqui utci nahi içan çuen. [20] Baiñan gogoeta hortan cegoela, aguertu citçayon ametsetan Jaunaren aingueru bat eta erran cioen: "Joseph, Daviden Semea, ez duçula beldurric Maria çure emastea çure ganat hartceaz, ecen haren baitan sorthu dena Izpiritu Saindua ganic da. [21] Erdico da, bada, seme batez, ceina deithuco baiduçu Jesus, ecen harc libratuco du bere populua bere bekhatuetaric". [22] Eta hau gucia eguin içan da, compli cedintçat Jaunac prophetaz erran içan duena: [23] Virgina batec concebituco du sabelean eta erdico da seme batez, ceinari emanen baidiote icena Emanuel; erran nahi da, Jaincoa gurequien. [24] Josephec, bada, iratçarri [2] cenean, eguin çuen aingueruac manatu cioen beçala eta hartu çuen berequien bere emastea, [25] eta ez çuen eçagutu bere seme lehenbici jajoaz erdi cenean, ceinari eman baitcioen icena Jesus.

1. Hala dio eskuizkribuak; badirudi *horla* edo *hunla* behar lukeela; Dassance-Harrietek *hunela* diote, Leizarragak bezalaxe.
2. Ez dago garbi lehen letra zein den, *e* ala *i*; bestetan *iratçarri* dio; ikus Mt. VIII, 25.

II. Cap.

[1] Sorthu cenean, bada, Jesus Bethleèm [3] Judeaco hirian Herodes erregueren demboran, ethorri ciren orientetic magoac Jerusalemerat, [2] galdez cebitçala [4]: "Non da judutarren erregue sorthu berria? Icussi dugu ecen haren içarra orientean eta haren adoratcera heldu gare". [3] Hori adituric Herodes erreguea altaratu içan cen eta Jerusalemeco hiri gucia ere harequien batean. [4] Eta billaraciric aphecen prince guciac eta populuaren escribaüac, galdez cegocoten hea non sorthu behar othe çuen Christoc. [5] Eta hec erran cioten Bethleèm Judeacoan sorthu beharra cela, ecen hunela da escribatua prophetaz: [6] "Eta hi Bethleèm Judeaco leihorra, ez haiz ttipiena Judeaco hiri principalen artean; ecen higanic ilkhico duc Israelgo ene populua gobernatuco duen buruçaguia".

[7] Orduan Herodessec ichillic erakharriric Magoac, galdeguin çaroen artha handirequien içarra aguertu citçayeneco dembora. [8] Eta Bethlemerat egortceracoan erran çaroen: "Çoazte, informa çaitezte arthosqui haur hartaz, eta aurkhitu duqueçuenean, adiaraz dieçadaçue nathorren ni ere haren adoratcerat". [9] Erregue horla mintçatcen aditu ondoan, goan ciren; eta orduan orientean icussi içan çuten içarra aitciñean cioacoten, haurra cen toquiaren gaiñean arribaturic, gueldi citequen artean. [10] Icussi çutenean, bada, içarra boztu içan ciren handizqui. [11] Eta etchean sarthu cirenean, aurkhitu çuten haurra bere ama Mariarequien, eta ahuspez jarriric adoratu çuten; guero bere thresorac çabalduric offrendatu ciotçaten presentac, urrea, insensua eta mirrha. [12] Eta lotan abisu içanic ez ceitecela bihur Herodessen ganat, goan ciren bere herrirat bertce bide batez.

[13] Hec partitu eta, Jaunaren aingueru bat aguertu citçayoen Josephi lo cegoela eta erran cioen: "Jaiqui çaite, har çaçu haurra eta bere ama eta çoaz ihessi Egiptorat eta çaude han nic erran dieçaqueçudan artean. Ecen Herodes ibillico da haurraren bilha hilaraci nahiz". [14] Jaiqui cen Joseph eta hartu cituen haurra eta bere ama gauaz eta goan cen Egiptorat. [15] Eta egon cen han Herodes hil citequen artean, compli cedintçat Jaunac prophetaz erran çuena: "Egiptotic erakharri dut ene Semea". [16] Orduan Herodes, icussiric magoac hartaz trufatu cirela, hassarratu cen borthizqui eta igorri çuen Bethleemen eta hango inguru gucietan hiltcerat bi urthetaco eta gutiagotaco ciren haur guciac, magoetaric jaquin demboraren araue-

3. Hemen bezala bi *–ee–* elkarren ondoan gertatzen direnean bakarrik, eta ez beti, ifintzen du azentua.

4. Hala dio, baina *cebiltçala* behar du, agian; ikus beheraxeago Mt. II, 20.

ra. [17] Orduan complitu cen Jeremias Prophetac erran içan çuena: [18] "Habarrots handi bat aditu içan da Raman, nigar eta marrubiazcoa; Rachel dagoela auhenez bere haurren gaiñean eta consolatu ere nahigabez, ceren ez diren".

[19] Hil içan cenean bada Herodes, aguertu citçayoen Josephi Egiptoan lo çatçala Jaunaren aingueru bat [20] eta erran cioen: "Jaiqui çaite, har çacitçu haurra eta bere ama eta çoaz Israelgo lurrerat; hil dire ecen haurra galaraci nahiz cebiltçanac". [21] Jaiqui cen Joseph eta hartu cituen haurra eta bere ama, eta ethorri ciren Israelgo lurrerat. [22] Adituric ordean Archelaussec erreguiñatcen çuela Judean Herodes bere aita cenaren orde, beldurtu cen harat goateaz, eta lotan abisu içanic, aldaratu cen Galileaco parterat. [23] Eta ethorri cen egoterat [5] Nazareth ceritçan hiri batetarat, complitua içan cedingatic prophetaz errana içan cena: "Deithua içanen da Nazarendarra".

5. *Igoterat* dirudi ikusi batera, baina ez; ikus *egoterat ethorri*: Mt. IV, 13.

III. Cap.

[1] Dembora hetan, bada, ethorri içan cen Joannes Baptista Judeaco mortuan predicatcerat, [2] erraten çuela: "Eguiçue penitencia, hurbil da ecen ceruetaco erresuma. [3] Hura da Isaiaz prophetaz aiphatua içan dena, erran içan duenean: Boz bat da desertuan oihuz dagoenarena: Aphain çatçue Jaunaren bideac; chuchen çacitçue haren bidezcac".

[4] Joannessec çuen, bada, bestimenda camelu illezcoa cen eta larruzco guerrico batez cen guerricatua, eta haren janharia ciren larrepotac eta bassa estiac. [5] Orduan heldu ciren haren ganat Jerusalem eta Judea gucia, bai eta Jordan inguruco herri gucia; [6] eta bathayoa errecibitcen çuten haren ganic bere bekhatuac confessatcen cituztelaric.

[7] Icussiric, bada, pharisauetaric eta saducearretaric haiñitz heldu cirela haren bathayorat, erran içan çaroen: "Bipera sugueèn casta, norc iracatsi darotçue mehatchatcen çaituzten colerari ihes eguiten? [8] Eguitçue, beraz, penitenciazco fruitu behar beçalacoac, [9] eta beguirautçue ceben baitan erratetic: Abraham guc aita dugu. Erraten darotçuet ecen gai dela Jaincoa harri hautaric beretaric ere sorarazteco umeac Abrahami. [10] Jadan ecen haizcora arruntçatua da arbolaren erroaren gaiñean. Hala, beraz, fruitu onic ekhartcen ez duquen arbola gucia içanen da ebaquia eta surat arthiquia. [11] Nitaz denaz beçanbatean, bathayatcen çaituztet urean penitencia eguin deçaçuentçat; baiñan ene ondoan ethorrico dena ni baiño botheretsuago da, eta ez naiz gai haren oiñetacoac ekhartceco ere; hura da Izpiritu Sainduan eta suan bathayatuco çaituztena, [12] ceiñac escuan baidu bere bahea eta garbituco du ungui bere bihitoquia; bilduco du bere bihia bere bihitoquietarat; lastoac ordean erreco ditu behin ere iraungui ez daitequen su batean".

[13] Orduan Jesus ethorri içan cen Galileatic Jordanerat Joannesen ganat, hartaz bathayatua içateco. [14] Bainan Joannesec guibelatcen çuen ciotsola: "Ni behar naiz çutaz içan bathayatua eta çu heldu çare ene ganat?". [15] Jesusec ordean ihardetsi cioen: "Utz naçaçu orai horla eguiterat, ecen horla da conbeni compli deçagun justicia gucia". Orduan Joanesec utzi çuen eguiterat. [16] Bathayatu cenean bada Jesus, ilkhi cen berehala uretic eta ordu berean çabaldu citçaizcon ceruac; icussi çuen Jaincoaren Izpiritua jausten cela usso baten idurian eta bere gaiñerat heldu citçayoela; [17] eta horrequien batean jautsi cen boz bat cerutic cioena: "Horra non den ene Seme maitea, ene atseguin gucia eguiten duena".

IV. Cap.

[1] Orduan Jesus eramana içan cen Izpirituaz morturat, han deabruaz tentatua içan cedin gatic. [2] Eta barurtu baitcen berrogoi egunez eta berrogoi gauez, ondoan gosetu cen. [3] Eta tentatçailleac hurbilduric, erran cioen: "Baldin Jaincoaren Semea baçare, erraçu harri hauc ogui bilhaca daitecela". [4] Baiñan Jesusec ihardetsi cioen: "Escribatua duc: Ez da ogui choillez bici guiçona, baiñan Jaincoaren ahotic ilkhitcen den hitz guciaz".

[5] Orduan eraman çuen deabruac hiri saindurat eta eçarri çuen templuaren gorenean, [6] eta erran cioen: "Baldin Jaincoaren Semea baçare, etcha çaite hor behera; escribatua da ecen: Bere aingueruei manatu diote çutaz artha içan deçaten eta escuetan altcha çaitçaten, çure oinac jo ez deçan cembait harriren contra". [7] Jesusec ihardetsi cioen: "Halaber escribatua ere duc: Ez duçu tentatuco çure Jainco Jauna".

[8] Deabruac berriz eraman çuen mendi haguitz gora batetarat eta eracutsi ciotçan munduco erresuma guciac eta hequien gloria handia, [9] eta erran içan cioen: "Emanen darozquitçut horiec guciac, baldin ahuspez jarriric adoratcen banauçu". [10] Orduan Jesusec erran cioen: "Hoaquit, Satana, escribatua duc ecen: Çure Jainco Jauna duçu adoratuco eta hura choilqui duçu cerbitçatuco". [11] Orduan deabruac utci çuen; eta dembora berean aingueruac hurbildu citçaizcon eta cerbitçatcen çuten.

[12] Aditu baitçuen, bada, Jesusec presso emana içan cela Joannes, aldaratu cen Galilearat. [13] Eta Nazaretheco hiria utciric, ethorri içan cen egoterat Capharnaum itsas basterrecoan, Zabulongo eta Nephtalico mugarritan; [14] complitua içan cedin gatic Isaias prophetac erran içan çuena: [15] "Zabulongo leyhorra eta Nephtalico leyhorra, Jordanez haratago itsassoraco bidea, gentillen Galilea; [16] ilhunbetan çatçan populu harc icussi içan du argui handi bat eta heriotcearen itçaleco herrian ceudecenei sorthu çaye arguia". [17] Ordutic hassi cen Jesus predicatcen, ciotsala: "Eguiçue penitencia, hurbil da ecen ceruetaco erresuma".

[18] Jesusec, bada, Galileaco Itsas basterrean cebillala, icussi cituen bi anaya, Simon Piarres çaritçana eta Andres haren anaya, sareac itsasoan etchatcen cituztela, ecen arraiñ çaleac ciren, [19] eta erran çaroen: "Jarraiq çaquizquidate eta eguiñaracico çaituztet guiçonen arrançale". [20] Eta hec berehala sareac utciric, jarraiqui citçaizcon. [21] Handic aitciñago goan eta, icussi cituen bertce bi abride, Jacques Zebedearen semea eta Joannes haren anaya, barcu batean bere aita Zebedeare-

quin, bere sareen antolatcen hari cirela; eta deithu cituen. [22] Hec ere dembora berean bere sareac eta bere aita utciric, jarraiqui citçaizcon.

[23] Eta Jesus bacebillan Galilea gucian hequien sinagoguetan iracasten çuela eta predicatcen Erresumaco Evangelioa eta sendatcen cituela languidura eta eritassun guciac populuaren artean. [24] Eta nola haren fama barrayatu baitcen Siria gucian, ekhartcen ciotçaten eri ciren guciac eta languidura bai tormenta haiñitz suertez hartuac cirenac, deabruaz possedituac, ilhargui-aldiac cituztenac eta paralyticoac, eta sendatcen cituen. [25] Eta ondotic çarraizcon haiñitz jende tropela Galileatic, Decapolitic, Jerusalemetic, Judeatic, eta Jordanez haratagotic.

V. Cap.

[1] Jesusec icussi çuenean, bada, jende oste hura gucia, igan cen mendi baten gaiñerat eta, han jarri cen ondoan, hurbildu citçaizcon bere dizcipuluac. [2] Eta bere ahoa idequiric, irakhasten çaroen ciotsotela:

[3] "Dohatsu izpirituz pobre direnac, cerengatic hequiena baida ceruetaco Erresuma. [4] Dohatsu estiac, cergatic lurraren jabe içanen baidire. [5] Dohatsu nigarrez daudecenac, cergatic consolatuac içanen baidire. [6] Dohatsu justiciaren gossea eta egartsua dutenac, ceren içanen baidire sassiatuac. [7] Dohatsu urricalcor direnac, ceren berec ere misericordia ardietsico baidute. [8] Dohatsu bihotz garbitacoac, ceren hec baidute icussico Jaincoa. [9] Dohatsuac baquetiarrac, cergatic hec deithuco baidire Jaincoaren umeac. [10] Dohatsu persecucionea jassaten dutenac justiciarentçat, cerengatic hequiena baida ceruetaco Erresuma. [11] Dohatsu çaitezquete guiçonec madaricatuco çaituztenean, persecutatuco çaituztenean eta gaitzqui suerte guciac falsoqui erraten dituztenean çuen contra ene gatic. [12] Aleguera çaitezte orduan eta bozcaria çaitezte, ceren golardo handi bat baidago çuentçat ceruetan, ecen horla persecutatu ere dituzte çuen aitciñean içan diren prophetac.

[13] Çuec çarete lurreco gatça. Baldin gueçatcen bada gatça, certan gacituco dute bera? Deussetaco guehiago ez da on, camporat etchatua eta guiçonez osticatua içateco baicen. [14] Çuec çarete munduaren arguia. Hiri bat ecin daiteque estalia, mendi baten gaiñean denean, [15] eta lampa bat ez dute bizten erreguaren azpian emateco, bainan ematen dute candeleraren gaiñean, argui detçantçat etchean diren guciac. [16] Hala distia beça çuen arguiac guiçonen aitciñean, icus detçatentçat çuen obra onac eta glorifica deçaten çuen Aita ceruetan dagoena.

[17] Ez deçaçuela uste içan ethorri naitequela [6] leguea edo propheten desseguiterat; ez naiz ethorri hec desseguiterat, aitcitic bai complitcerat. [18] Erraten darotçuet ecen eguia: cerua eta lurra lehen iraganen dire, ecen ez leguean direnetaric iota bat edo pontu bat utcico baida, guciac complituac içan gabe. [19] Norc ere, bada, hautsico baidu manamendu hetaric chumeenetaric ere bat eta horla baidaroe eracutsico guiçonei, behatua içanen da ceruetaco Erresuman azquenecoa beçala; baiñan hec beguiratuco dituena eta beguiratcen iracatsico duena, içanen da handi ceruetaco Erresuman. [20] Erraten darotçuet ecen, baldin çuen justutassuna ez

6. Ez dago garbi zer dioen: hori ala *naicela, naitçuela...* Ikus Mt. X, 34. Leizarragak "ethorri naicela".

bada francoqui handiagoa escriuau eta pharisauena baiño, ez çarete sarthuco ceruetaco Erresuman.

[21] Aditu duçue erran citçayela lehenagocoey: Ez duçu hillen, eta norc ere heriotceric eguiñen baidu, mereci içanen du condemnatua içatea juyamenduaz. [22] Bada nic erraten darotçuet: bere anayaren contra hassarratuco ere denac, mereci içanen du condemnatua içatea juyamenduaz. Bere anayari erraten dioenac Raca, mereci içanen du condemnatua içatea conseilluaz. Eta erraten dioenac Erroa[7], merecituco du ifernuco surat condemnatua içatea. [23] Baldiñetariac, bada, aldarean çure ofrenda presentatcen duçunean, orhoitcen baçare çure anayac baduela cerbait çure contra, [24] utzaçu han çure ofrenda aldarearen aitciñean eta çohaz lehenic baquetcerat çure anayarequien eta ondoan ethorrico çare çure ofrenda eguiterat. [25] Accorda çaite lehen bai lehen çure partidarequien, harequien bidean çareiño, libra ez çaitçan juyeari eta juyeac libra ez çaitçan justiciaco ministreari eta presso emana içan ez çaitecen. [26]Erraten darotçut eguia: Ez çare ilkhico handic, non ez duçun pagatcen azquen cornaduraiñocoa.

[27] Aditu duçue erran içan citçayela lehenagocoei: Ez duçu adulterioric eguiñen. [28] Bada nic erraten darotçuet: Norc ere behatuco baidio emastequi bati haren ganaco hirrits gaixto batequien, jadan adulterioa eguin duquela bere bihotcean. [29] Baldiñetariac çure begui escuiñac escandalisatcen baçaitu, iraz çaçu eta arthic urrun çu ganic; hobe duçu ecen çure membrotaric bat galtcea, ecen ez çure gorphutz gucia içan dadin arthiquia ifernurat. [30] Eta baldin çure escu escuiñac scandalisatcen baçaitu, ebaqui çaçu eta arthic urrun çure ganic; hobe da ecen çuretçat gal dadin çure membrotaric bat, ecen ez çure gorphutz gucia içan dadin arthiquia ifernurat.

[31] Errana içan da oraiño: Norc ere utcico baiduque bere emastea, eman dioçala utzten duelaco escribu bat. [32] Eta nic darotçuet erraten: Norc ere utcico baidu bere emastea, adulterioaren casuz landan, adulterioa eguiñaracitcen dio; eta senharraz utcia den bat bere emastetçat hartcen duenac, adulterioa eguiten du.

[33] Aditu duçue oraiño erran içan citçayela lehenagocoei: Ez çare goanen eguin duqueçun juramentuaren contra, bainan bihurtuco dioçu Jaunari juramentuz aguindu duçuna. [34] Eta nic darotçuet erraten: Ez deçaçuela eguin juramenturic batere, ez ceruaz, ceren gatic Jaincoaren thronua baida, [35] ez lurraz, ceren haren oiñetaco alkhia baida, ez Jerusalemez, cergatic erregue handiaren hiria baida. [36] Ez duçu juramenturic eguiñen çure buruaz, ceren ecin çure ille izpi bat churiaraz edo beltçaraz baideçaçuque. [37] Baiñan içan bedi hunelacoa çuen hizcuntça: Bai, hala da; edo ez, ez da hala; ecen guehiagoco dena gaixtotic heldu da.

[38] Aditu duçue errana içan dela: Beguia beguiaren orde, eta hortça hortçaren orde. [39] Bada nic erraten darotçuet: ez çaiteztela bihurri eguiten çaitçuen gaixquiaz; aitcitic norbaitec jotcen baçaitu escuiñeco matraillan, phara dioçoçu bertcea

7. Maiz egiten du *–rh– > –rr–*, ez beti ordea. Bietara datoz idatziak: *erhoa* eta *erroa; erhia* eta *erria*, eta abar.

ere. [40] Eta çurequien haucitan hari nahi duenari eta arroba eraman nahi dautçunari [8], utz dioçoçu çure capa ere. [41] Eta nihorc bortchatu nahi baçaitu harequien goaterat milla pausu, çohazco bertce bi milla pausu ere. [42] Galdetcen darotçunari emoçu, eta ez dioçoçula ihes eguin prestamuz galde eguin nahi darotçunari.

[43] Aditu duçue errana içan dela: Maitatuco duçu çure lagun proximoa eta higuinduco duçu çure etsaya. [44] Eta nic darotçuet erraten: Maita çatcitçue çuen etsayac; eguioçue ungui higuin çaituztenei eta eguiçue othoitz persecutatcen çaituztenentçat eta gaixqui çarabiltçatenentçat, [45] içan çaiteztentçat çuen Aita ceruetan denaren umeac, ceiñec altcharazten baidu bere iguzquia onen eta gaixtoen gaiñean eta erorarazten uria justuen eta injustuen gaiñerat. [46] Ecen maitatcen baditutçue choilqui çuec maitatcen çaituztenac, cer esquer içanen duçue? Publicanoec ere ez dute hori eguiten? [47] Eta çuen lagunei baicen agur eguiten ez badioçue, cer eguiten duçue hortan bertcec baiño guehiago? Paganoec ez baidute nasqui hori eguiten? [48] Içan çaitezte beraz perfet, çuen Aita ceruetacoa perfet den beçala.

8. *Dautçunari* dio hemen, baina *darotçunari* bitan bi bertsotxo beherago (42.).

VI. Cap.

[1] Beguirautçue çuen obra onac eguitetic guiçonen aitcinean, hetaz icussiac içatea gatic; bertcela ez duçue içanen sariric çuen Aita ceruetan dena ganic. [2] Noiz ere, bada, eguinen baiduçu amoiña, ez deçaçula joaraz trompeta çure aitciñean, hypocritec eguiten duten beçala, sinagoguetan eta carriquetan guiçonez ohoratuac içatea gatic. Erraten darotçuet eguia: Içatu dute haiñec bere golardoa. [3] Çuc, bada, eguiñen duçunean amoiña, ez deçan jaquin çure escu ezquerrac cer eguiten duquen çure escuiñeco escuac. [4] Çure amoina içan bedi secretuan; eta çure Aita, gorderic eguiten dena icusten duenac, emanen darotçu saria.

[5] Halaber othoitça eguiten duçuenean, ez çaitezten içan hypocritac beçala, ceiñec lakhet baidute sinagoguetan eta carriquen cantoiñetan chutic daudecela othoitçac eguitea, guiçonez icussiac içatea gatic; erraten darotçuet eguia: Errecibitu dute hec bere saria. [6] Bainan çu, çure othoitça eguiñen duqueçunean, sar çaite çure guelan eta, athea çarraturic, othoitz çaçu çure Aita secretuan; eta çure Aita, secretuan iragaten dena icusten duenac, emanen darotçu saria. [7] Çuec othoitçac eguitean, bada, ez deçaçuela haiñitz eras, paganoec eguiten duten beçala; uste dute ecen, bere erassia handiaren gatic direla entçunac içanen. [8] Ez çareten, beraz, hequien idurico; badaqui ecen çuen Aitac ceren çareten behar, galdeguin ere dioqueçuen baiño lehenago.

[9] Hunela, beraz, eguiñen dioçue çuec othoitz: Gure Aita ceruetan çarena, erabill bedi sainduqui çure icena, [10] ethor bedi çure Erresuma, eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurrean ere; [11] eman dieçaguçu egun gure egunoroco oguia, [12] eta barkha dietçagutçu gure çorrac, guc gure ganat çordun direnei barkhatcen darostegun beçala, [13] eta ez gaitçatçula utz tentacionean erortcerat, aitcitic beguira gaitçatçu gaitzetic. Hala biz. [14] Ecen baldiñetariac barkhatcen badiotçatçue guiçonei hec çuen contra eguiten ditusten hobenac, çuei ere barkhatuco darozquitçue çuen Aita ceruetacoac çuen bekhatuac. [15] Baiñan ez badioçue barkhatcen guiçonei, çuen Aitac ere ez darozquitçue barkhatuco çuen bekhatuac.

[16] Behintçat barurtcen çaretenean, ez çaiteztela içan triste, hypocritac beçala; dezbiztatcen dituzte ecen bere bisayac, guiçonei aguertcea gatic barurtcen direla. Erraten darotçuet eguia, içatu duquetela hec bere saria. [17] Baiñan çuc, barurtcen çarenean, gantçu çaçu çure burua eta garbi çure bisaya, [18] ez aguertcea gatic guiçonei barur çarela, baicen choilqui çure Aita gordea dagoenari; eta çure Aita, gauça gordeenac ere icusten dituenac, emanen darotçu saria.

[19] Ez detçatçuela bill çuen thresorac lurrean, ceinetan herdoillac eta harrec

jaten baidituzte eta ohoiñec atheratcen eta ebasten. [20] Baiñan bill çatcitçue çuen thresorac ceruan, non ez herdoillac eta ez harrec ez baidituzte jaten, non ohoinic ez baida ebatsico eta eramanen dituenic. [21] Ecen non ere baida çure thresora, eta han diteque çure bihotça.

[22] Çure gorphutçaren arguiçaguia çure beguia da; baldin çure beguia simple bada, çure gorphutz gucia arguitsu içanen da. [23] Baiñan baldin çure beguia gaixtoa bada, çure gorputz gucia illhunbetsu içanen da; ordean çure baitan den arguia ilhunbe baldin bada, ilhunbeac berac nolacoac içanen dire, bada?

[24] Nihorc ecin cerbitça detçaque bi naussi, ecen edo bata higuin içanen du eta bertcea du maitatuco, edo bata obedituco du eta bertcea du mezpreçatuco. Ecin cerbitça detçaquetçue Jaincoa eta intressa.

[25] Hargatic darotçuet erraten: Ez duçuela griñaric bicitcecoaz, nondic içanen duçuen jatecoa eta nondic içanen duçuen çuen gorphutçaren beztitcecoa; bicia ez da guehiago jatecoa baiño eta gorputça beztitcecoa baiño? [26] Beha dioçoçue aireco hegastinei, ez baidute hec eguiten hacillic ez uztaric eta bihitoquietarat deussic biltcen; eta halaric ere çuen Aita ceruetacoac hazten ditu. Ez çarete çuec haiñitz guehiagocoac hec baiño? [27] Nor da çuetaric bere pensa ahal guciequien ere besso batez bere thailla handi deçaquena? [28] Cergatic, bada, griñetan ematen çarete jauntzcuraz? Considera çatçue larretaco liliac nola handitcen diren; ez dire hec hari lanean, ez iruten. [29] Bada erraten darotçuet Salomon bere gloria gucian ez dela egundaiño hetaric bat beçala bestitua içatu. [30] Beraz larreco belhar bat egun chutic dena eta bihar laberat arthiquia ditequena Jaincoac hala beztitcen badu, cembatenaz hobequi eguiñen çaituzte çuec, o fede gutitaco guiçonac? [31] Ez çareten beraz griñatsu, eta ez derraçuela: Cer janen dugu, edo cer edanen dugu, edo cer jauntcico dugu, [32] ecen paganoac dire penetan horien gucien gaiñean; badaqui ecen çuen Aitac horien gucien beharra duçuela. [33] Bilha çaçue, beraz, lehenbicicoric Jaincoaren Erressuma eta haren justicia, eta horiec guciac emanen çaizquitçue bertce alde. [34] Hargatic, bada, ez çareten grinatsu biharamunecoaz; ecen biharamunac içanen du beretçat bere artha. Egun bakhoitxac asqui du bere gaitza.

VII. Cap.

[1] Ez deçaçuela juya, juyatuac içan ez çaiteztentçat. [2] Cer ere juyamenduz juyatuco baiditutçueque bertceac, juyamendu beraz içanen çarete çuec ere juyatuac; eta cer ere neurri eguin baidioqueçue bertcei, eta neurri bera eguinen çaitçue çuei ere. [3] Cergatic icusten othe duçu fitsa çure anayaren beguian, eta ez baiduçu icusten laça çeurean? [4] Edo nola erraten dioqueçu çure anayari: utz naçaçu khen dieçaçudan fits bat beguitic, laz bat ceronec duçularic çure beguian? [5] Hypocrita, khen çaçu lehenic laça çure beguitic eta orduan icussico duqueçu nola khen fitsa çure anayaren beguitic.

[6] Beguira duçula gauça sainduac oçarrei ematetic, eta ez detçatçula etcha çure perlac urdeen aitciñerat, beldurrez ostica detçaten eta çure contra oldarturic çathica ez çaitçaten.

[7] Galde çaçue eta emanen çaitçue; bilha çaçue eta aurkhituco duçue; jo çaçue athea eta idequico çaitçue. [8] Ecen galdetcen duen guciac içaten du eta bilhatcen duenac aurkhitcen du eta athea jotcen duenari idequico çayo. [9] Eta cein da ere çuen artean guiçona, bere semeac oguia galdetcen badio, harri bat emanen dioquena? [10] Edo galdetcen badio arraiña, emanen othe dioque suguea? [11] Baldiñetariac bada çuec, gaitxtoac çaretelaric, badaquiçue gauça onen ematen çuen umeei, cembatenaz hobequi çuen Aita ceruetan denac emanen bide darozte eguiazco gauça onac galdetcen diotçatenei? [12] Cer ere, beraz, nahi baiduçue eguin dieçaçuen [9] çuei guiçonec, eta hec guciac eguin diotçatçue çuec ere hei; hortan dauntça ecen leguea eta prophetac.

[13] Sar çaitezte athe hertsitic, ceren athe largoa eta bide largoa baida galtcerat daramana, eta haiñitçac dire hartan sartcen direnac. [14] Ala chumea baida athea eta hertsia bidea bicitcerat daramana, eta gutiac baidira hura aurkhitcen dutenac.

[15] Beguira çaitezte profeta falsoetaric, ceiñac ethortcen baitçaizquitçue ardien larruz bestituac, eta barnean baidire otxo arrapatçailleac. [16] Eçagutuco ditutçue bere fruituetaric. Bill othe daitezque elhorrietaric mahatsac edo laharretaric ficoac? [17] Hala, ona den arbola guciac ekhartcen ditu fruitu onac eta gaitxtoa den arbola guciac fruitu gaitxtoac ditu ekhartcen. [18] Arbola onac ecin ekhar detçaque fruitu gaixtoac eta arbola gaixtoac ecin ekhar detçaque fruitu onac. [19] Fruitu onac ez dakharzqueten arbola guciac ebaquiac içanen dire eta surat arthiquiac. [20] Eçagutuco ditutçue, beraz, bere fruituetaric.

9. Ez dakit ez ote lukeen *dieçaçueten* behar: ik. Lc. VI, 31.

[21] "Jauna, Jauna" oihuz darozquidanac ez dire hargatic sarthuco guciac ceruetaco Erresuman; baiñan norc ere eguiten baidu ene Aita ceruetan denaren borondatea, eta hura sarthuco da ceruetaco Erresuman. [22] Haiñitcec erranen darotet egun hartan: Jauna, Jauna, ez ditugu guc çure icenean eguin profeciac, khassatu deabruac eta eguin haiñitz miracuillu? [23] Eta nic orduan declaratuco daroet: Egundaiño ez çaituztet eçagutu; çohazte ene ganic, gaitxtaqueriaco languilleac.

[24] Norc ere, bada, entçuten baiditu ene hitz hauc eta obretan ematen, eta hura içanen da guiçon çuhur baten pare, ceiñec bastitu baiduque bere etchea harriaren gaiñean. [25] Eta abiatu içan denean uria, ethorri direnean ibayac, altchatu direnean haiceac eta egoxi [10] direnean etche haren contra, ez da erori içan etchea, ceren fundatua baitcen harriaren gaiñean. [26] Eta norc [11] aditcen baiditu ene hitz hauc eta ez eguiten, eta hura içanen da guiçon erho baten pare, ceiñac bastitu baiduque bere etchea harearen gaiñean. [27] Eta erori içan denean uria, abiatu direnean ibayac, altchatu direnean haiceac eta jautsi direnean etche haren gaiñerat, erori içan da etchea eta handia ere içan da haren eroricoa".

[28] Akhabatu çuenean, bada, Jesusec solhas hori, miretsiac ceudecen populuac haren dotrinaren gaiñean; [29] hari citçayen ecen iracasten bothere içanez beçala, eta ez hequien escriuau eta pharisauac beçala.

10. Hala dago idatzirik, nahiz bi bertsotxo beherago (27) *jautsi* dioen eta bestea berriz *egotzi* idatzi ohi duen (ik. Mt. VIII, 12).

11. Bi bertsotxo gorago (24.) esanarekin alderatuz gero, hemen *ere* falta dela esan behar.

VIII. Cap.

[1] Jesus, bada, jautsi cenean menditic, jende tropa haiñitz jarraiqui citçaizcon, [2] eta lepradun batec ethorriric, adoratcen çuen ciotsola: "Jauna, nahi baduçu garbi naçaçuque". [3] Eta Jesusec escua hedaturic uquitu çuen ciotsola: "Nahi dut, içan çaite garbitua". Eta ordu berean garbitua içan cen haren lepra. [4] Eta erran cioen Jesusec: "Beguirautçu nihori erratetic; baiñan çohaz, aguer çaquizco apheçari eta offrenda çaçu horlaco ordutaco Moisec exlegitu [12] içan duena, hori balia daquioten lekhucotasuntçat".

[5] Jesus sarthu cenean bada Capharnaumen, ehun guiçonen capitain bat ethorri citçayoen othoizten çuela, [6] eta erraten cioela: "Jauna, ene sehia etchean dagot ohatua eta paralysyaz hartua eta soffritcen du handizqui". [7] Jesusec erran cioen: "Ethorrico naiz eta sendatuco dut". [8] Baiñan capitain harc ihardetsi içan cioen: "Jauna, ez naiz ni gai çu ene etchean sar çaitecen; baiñan erraçu choilqui hitz bat eta sendatua içanen da ene sehia; [9] ecen ni ere guiçon bat naiz bertceren manuaren azpian eçarria, soldaduac neure azpico ditudana; eta erran dioçadan bati, Çohaz horrat, badoha; erran dioçadan bertceari, Çato hunat, heldu da; eta ene muthillari, Eguiçu hau, eta eguiten du". [10] Jesus horiec aditceaz jarri cen espantutan, eta erran çaroen jarraiqui citçaizcon jendei: "Erraten darotçuet eguia: Ez dut aurkhitu horren fede handiric Israel gucian. [11] Erraten ere darotçuet, hainitz ethorrico direla orientetic et(a) occidentetic eta jarrico çeruetaco Erresuman Abraham eta Isaac eta Jacobequien; [12] eta Erresumaco umeac egotziac içanen dire campoco ilhunbetarat; eta han içanen dire nigarrac eta hortz carrascatceac". [13] Orduan Jesusec erran cioen ehun [13] guiçonetaco capitaiñari: "Çohaz eta eguin bequiçu sinhetsi duçun arabera". Eta sendatua içan cen haren sehia oren berean.

[14] Eta ethorri cenean Jesus Piarressen etcherat, icussi çuen haren amaguiñarraua ohean çatçala sukharrarequin. [15] Uquitu cioen escua eta utci çuen sukharrac; eta berehala jaiquiric eman cen hequien cerbitçuan. [16] Arratsa ethorri cenean, ekharri ciotçaten hainitz pressuna deabruaz possedituac cirenac, eta khendu ciotçaten izpiritu gaixtoac bere hitçaz eta sendatu cituen eri guciac, [17] complitua içan cedintçat Isaiaz profetaz erran içan dena: "Berac hartu içan ditu gure flaquitateac eta garrayatu içan ditu gure errasunac [14].

12. Beste askotan *exleitu* dio: ik. Mt. XIX, VII.
13. Hemen *egun* idatzi lehenik eta gero *ehun* zuzendu du; baina Mt. XXVII, 54-ean ez.
14. Hau eta *eritassunac*, biak darabiltza: ik. Mt. IX, 35. Baita *erhassun-* ere: ik. Mc. III, 15.

[18] Icusiric, bada, Jesusec jende aralde hainitz bere inguruan, manatu çaroen bere dizcipuluei iragan ceçatela lacuaren bertce alderat. [19] Orduan escribau bat hurbildu citçayoen eta erran cioen: "Naussia, jarraiquico natçaitçu çohacen toqui gucietarat". [20] Eta Jesusec ihardetsi içan cioen: "Acheriec badituzte bere cilhoac [15] eta aireco hegaztiñec ohatceac; baiñan Guiçonaren Semeac ez du non burua pausa". [21] Bere dizcipuluetaric bertce batec erran cioen: "Jauna, permeti dieçadaçu lehenic nohan ene aita ehorzterat". [22] Baiñan Jesusec erran cioen: "Jarraiq çaquizquit niri eta utzcitçu hillac bere hillen ehortztera".

[23] Eta sarthu cen barcuan bere dizcipuluac berequien cituela. [24] Eta berehala itsasoa handitu cen halaco maneraz, non uhiñec estaltcen baitçuten barcua; eta orduan hura lo cegoen. [25] Dizcipuluac, bada, hurbildu citçaizcon eta iratçarri çuten, erraten ciotela: "Jauna, salba gaitçatçu; galtcen hari gare". [26] Jesusec ihardetsi çaroen: "Cergatic icitcen çarete, guiçon fede aphurretacoac?". Eta dembora berean jaiquiric, manatu çaroen haicei eta itsasoari, eta eguin cen calma handi bat. [27] Orduan jarri ciren espantituac han ciren guiçonac erraten çutela: "Nor othe diteque hau, haiceec eta itsasoac obeditcen baidute?".

[28] Iragan cenean Jesus itsasoaren bertce alderat Gerassendarren herrirat, ethorri citçaizcon aitciñerat bi guiçon possedituac, thombetaric ilkhiac, eta hain furiosac, non ez baitcen nihor ausartatcen bide hartaric iragaterat. [29] Eta hassi citçaizcon oihuz erraten ciotela: "Cer dohatçu çuri gutaz, Jesus Jaincoaren Semea, dembora baiño lehen ethorri baitçare gure tormentatcerat?". [30] Cen, bada, hetaric ez urrun urdalde handi bat bazcan çaudecenac; [31] eta deabruec othoizten çuten ciotsotela: "Baldin hemendic khasatcen bagaitutçu, igor gaitçatçu urdalde hortarat". [32] Erran çaroen: "Çohazte". Eta hec ilkhiric goan ciren urde aldetarat; dembora berean tropela hura gucia abiatu cen lausterrez itsasoan behera eta itho ciren urean. [33] Orduan urde-çaiñac goan ciren ihessi eta hirirat ethorriric condatu cituzten horiec guciac eta deabruez possedituac cirenei guerthatu citçayena ere. [34] Dembora berean hiri gucia ilkhi citçayoen Jesusi aitcinerat eta icussi çutenean, othoiztu çuten aldara cedin hequien basterretaric.

15. Ikus *chillotic* ere: Mt. XIX, 24.

IX. Cap.

[1] Jesus barcurat iganic iragan cen lakhuaren bertce alderat eta ethorri bere hirirat. [2] Eta aitciñerat eman baitcioten paralytico bat ohean etçana, Jesusec icussiric hequien fedea, erran cioen paralyticoari: "Ene haurra, eguiçu curaye; barkhatcen çaizquitçu çure bekhatuac". [3] Iscribauetaric cembaitec erraten dute bere baitan: "Guiçon horrec blasphemioa eguiten du". [4] Baiñan Jesusec eçaguturic gogoan cer çarabillaten, erran çaroen: "Cergatic darabiltçatçue gogoeta gaixtoac çuen bihotcetan? [5] Cer da errechago erratea: Barkhatcen çaitzquitçu çure bekhatuac, ala erratea: Altcha çaite eta ibill çaite? [6] Bada daquiçuentçat Guiçonaren Semeac baduela bothere lurrean barkhatceco bekhatuac, erran cioen orduan paralyticoari: "Altcha çaite, eramaçu çure ohea eta çohaz çure etcherat". [7] Eta altchatu cen eta goan cen bere etcherat. [8] Icussiric bada hori, balditu cen populua eta jarri cen gloria bihurtcen Jaincoari, ceiñac horlaco botherea eman baitçaroen guiçonei.

[9] Eta handic iragatean, icusi çuen Jesusec guiçon bat jarria bureuean, Mathiu ceritçana, eta erran cioen: "Segui naçaçu". Eta berehala altchaturic jarraiqui citçayoen. [10] Eta Jesus guiçon haren mahainean cegoela, hainitz publicano eta bekhatore ethorriric, jarri ciren mahainean Jesusequien eta haren dizcipuluequien. [11] Hori icussiric pharisauec erran cioten haren dizcipuluei: "Cergatic jaten du çuen nausiac publicanoequien eta guiçon bekhatorosequien?". [12] Baiñan Jesusec adituric hori, erran çaroen: "Ez dute sendoec miricu beharric, bai ordean eriec. [13] Çohazte, bada, eta ikhas çaçue cer erran nahi duen hunec: Nahiago dut urricalmendua ecen ez sacrificioa; ez naiz ecen ethorri justuen deitcerat, baiñan bai bekhatoreen".

[14] Orduan hurbildu citçaizcon Joannesen dizcipuluac, erraten ciotela: "Cergatic pharisauac eta gu barurtcen gare maiz eta çure dizcipuluac ez dire barurtcen?". [15] Eta Jesusec ihardetsi çaroen: "Esposaren adisquideac içan othe daitezque triste, esposa hequiequien deiño? Bainan ethorrico da dembora esposa khenduco çayoena eta orduan dire barurtuco. [16] Nihorc ez bide dio ematen oihal berrizco pedaçuric tresna çahartu bati. Eraman lioçoque ecen bere [16] pusca tresna çahartuari eta guehiago hauts ere leçaque. [17] Ez dute halaber ematen arno berria çahagui çaharretan, ceren horla eguiñez hausten baidire çahaguiac, arnoa issurtcen baida eta çahaguiac galtcen baidire. Baiñan arno berria ematen dute çahagui berrietan eta biac conserbatcen dire".

16. Ez dago batere garbi *bere* idatzi duen ala zer.

[18] Hauc hei erraten çarozten orduan, ethorri citçayon sinagogaco prince bat eta adoratu içan çuen ciotsola: "Jauna, orai doy doya hill çait ene alaba; baiñan çato, emaçu çure escua haren gaiñean et(a) biztuco da". [19] Eta Jesus altchaturic, jarraiqui citçayoen bere dizcipuluequien batean.

[20] Dembora berean emaste bat hamabi urte hartan odol issuri batez penatua cena, hurbildu citçayoen guibeletic eta uquitu çuen haren arroba pertala. [21] Cioen ecen bere baitan: "Uqui ahal badeçat choilqui haren arroba, sendatua naiteque". [22] Jesusec orduan itçuliric eta hura icussiric, erran içan cioen: "Animo har çaçu, ene haurra; çure fedeac sendatu çaitu". Eta ordu beretic sendatua içan cen emastea.

[23] Ethorri cenean Jesus Sinagogaco princearen etcherat eta icussi cituenean chirolariac et(a) jende multço bat habarrots handitan, erran çaroen: [24] "Aldara çaitezte, ez da ecen hilla nescatcha hau, baiñan lo datça". Eta trufatcen ciren hartaz. [25] Aldararaci cirenean bada jende hec, sarthu içan cen eta hartu cioen escua eta nescatcha hura altchatu cen. [26] Eta gauça hunen famac jo çuen herri gucia.

[27] Handic ilkhitcen cela Jesus, jarraiqui citçaizcon bi itsu, oihuz erraten ciotela: "Urrical gaitzquitçu, Dabiden Semea". [28] Eta ethorri cenean etcherat, itsu hec hurbildu citçaizcon eta Jesusec erran içan çaroen: "Sinhesten duçue eguin ahal dieçaqueçuedala hori?". Erraten diote hec: "Bai, Jauna". [29] Orduan uquitu ciotçaten beguiac, erraten çaroela: "Eguin bequiçue çuen fedearen arauera". [30] Eta berehala idequi ciren hequien beguiac eta Jesusec debecatu çaroen borthizqui erranic: "Beguirautçue nihorc jaquin ez deçan". [31] Baiñan hec ilkhi eta banatu çuten haren fama herri hartan gucian.

[32] Hec ilkhi cirenean, ekharri içan cioten guiçon bat mutua, deabruaz posseditua cena. [33] Eta deabrua khendu citçayoenean, mutua mintçatu cen eta populua jarri cen miretsia erraten çutela: "Ez ahal da egundaiño icussi Israelen hunelacoric". [34] Ordean Pharisauec cioten contrarat: "Deabruen princeaz khentcen ditu deabruac".

[35] Eta Jesus bacebillan bazter gucietan hirietarat eta herrietarat, iraçasten çuela hequien sinagoguetan eta predicatcen çuela Erresumaco Evangelioa eta sendatcen ere cituela languidura eta eritassun guciac.

[36] Icussiric, bada, jende tropela hec guciac, urricaldu citçaizcon, ceren unhatuac eta nekhatuac baitciren eta etçanac hor hemen artçainic ez duten ardiac beçala. [37] Diotsate orduan bere dizcipulei: "Eguiazqui usta handia da, ordean laneguille da guti. [38] Othoitz çaçue, beraz, uztaren naussia, igor detçan languilleac bere ustarat".

X. Cap.

[1] Orduan Jesusec deithuric bere hamabi dizcipuluac, eman çaroen bothere izpiritu lohien gaiñean hequien cassatceco, bai eta languidura eta errassun gucien sendatceco.

[2] Hamabi Apostoluen icenac, bada, hauc dire: lehenbicicoa Simon, ceina deithcen baida Piarres, eta Andres haren anaya, [3] Jacobe Zebedearena eta Joannes haren anaya, Philipe eta Bartholome, Thomas eta Mathieu publicanoa, Jacobe Alphearena et(a) Thaddee, [4] Simon Canaangoa et(a) Judas Iscariotes, ceiñac traditu ere baitçuen.

[5] Hamabi horiec igorri cituen Jesusec, meçu hauc emanic eta erranic: "Ez çohaztela gentilletaco alderat eta ez çaiteztela sar Samaritanoen hirietan. [6] Aitcitic çohazte lehenago Israelgo etcheco ardi galduetarat. [7] Eta goaten çareten lekhuetan predica çaçue erraten duçuela: Hurbildu da ceruetaco Erresuma. [8] Eriac senda çatçue, hillac bitz çatçue, lepradunac garbi çatçue, deabruac khassa çatçue. Dohainic eman çaitçuena dohainic emaçue. [9] Ez duçuela guraric içateco urreric, ez cilharric, ez diruric çuen carpetan, [10] ez çakhuric bidecotz, ez bigarren aldagarriric, ez çapataric, ez makhillaric; mereci du ecen languilleac bere jana.

[11] Cein ere hirietan, bada, edo herrietan sarthuco baitçarete, informa çaitezte nor ditequen han gai çuen errecibitceco; eta egon çaitezte han, goan behar çaitezqueten artean. [12] Etchean sartcean ordean, eguiçue agur erranic: Baquea dela etche huntan. [13] Etche harc merecitcen badu, ethorrico da çuen baquea haren gainerat; eta merecient ez bada, çuen baquea bihurtuco da çuen ganat. [14] Eta norbaitec errecibitu nahi ez çaituztenean eta çuen hitçac aditu nahi ez dituenean, etchetic edo hiritic ilkhitçearequien batean, iharros çaçue çuen oiñetaco herrautsa. [15] Erraten darotçuet eguia: juyamenduco egunean Sodomaco eta Gomorrhaco lurrari baiño gutiago barkhatuco çayo hiri hari.

[16] Horra non igortcen çaituztedan ardi batçu beçala otsoen arterat. Içan çaitezte, beraz, prudent sugueac beçala eta simple ussoac beçala. [17] Baiñan beguira çaitezte guiçonetaric. Eramanen çaituzte ecen bere batçarretarat eta açotaracico çaituzte bere sinagoguetan. [18] Eramanac içanen çarete ene ariaz gobernadoreen eta erregueen aitcinerat, lekhucotassuntçat baliatceco hei eta nacionei. [19] Eçartcen çaituztenean, bada, hequien escuetan, ez çaiteztela gogoetan jar, nola edo cer erranen dioçuen; emanen çaitçue ecen orduan berean hei cer erran. [20] Ez çarete ecen çuec mintço çaretenac, baiñan çuen Aitaren Izpiritua daiteque çuen baitan mintço dena. [21] Libratuco du, bada, anayac anaya heriotcerat eta aitac semea, eta altchatuco dire umeac burassoen contra eta hillaracico dituzte; [22] eta gaitxesiac

içanen çarete guiçonez ene icenaren gatic; baiñan norc ere iraunen baidu akhabantçaraiño, eta hura içanen da salbatua. [23] Noiz ere, bada, persecutatuco baitçaituzte hiri batean, çohazte ihessi bertce batetarat. Erraten darotçuet eguia: Ez duçue akhabatuco Israelgo hiri guciac iracasteaz, Guiçonaren Semea ethor daitequen arteraiño.

[24] Dizcipulua ez da equi naussiaz gorago eta sehia bere jaunaz gorago. [25] Asqui da dizcipuluarentçat içatea bere naussia beçala eta sehiarentçat içatea bere jauna beçala. Baldin familiaco aita deithu içan badute Beelzebuth, çenbatenaz guehiago desohoratuco bide dituzte haren sehiac?

[26] Ez çareten, beraz, hequien beldur; deusere ecen ez da estaliric aguertu beharco ez duenic; deusere gorderic eçagutua içan behar ez duenic. [27] Nic ilhumbean erraten darotçuedana erraçue çuec arguitan eta orai beharrirat erraten çaitçuena predica çaçue etche gaiñetan. [28] Ez duçuela beldurric gorphutça hiltcen dutenez eta arima ecin hill deçaquetenez; baiñan çareten beldur hobequi bai arima eta bai gorputça ifernuan galaraz detçaquenaz. [29] Ez da eguia bi garrayo cornadu batean saltcen direla? Eta hala ere hetaric batere ez da erortcen lurraren gaiñerat çuen Aitaren nahia gabe. [30] Bada çuen buruco illeac ere guciac condatuac dire. [31] Eta hala, ez duçuela beldurric; hainitz etche-choric baiño guehiago duçue balio.

[32] Norc ere, beraz, ni eçagutuco bainau guiçonen aitciñean, nic ere hura eçagutuco dut ene Aita ceruetan denaren aitcinean. [33] Eta norc ere nitaz ukhatuco baidu guiçonen aitciñean, nic ere hura arnegatuco dut ene Aita ceruetan denaren aitciñean.

[34] Ez deçaçuela uste içan ethorri içan naicela bakea ekhartcerat lurrerat; ez naiz ethorri içan baquea [17] ekhartcerat, aitcitic bai ezpata ekhartcerat. [35] Ethorri içan naiz ecen separatcerat guiçona bere aita ganic eta nescatcha bere ama ganic eta erraiña bere amaguiñarraua ganic. [36] Eta guiçonac bere etchean dituen jendeac ditezque haren etsayac. [37] Norc ere maiteago baidu bere aita edo bere ama ni baiño, eta haina ez da ona enetçat; eta norc [18] maiteago baidu bere semea edo bere alaba ni baiño, haiña ez da gai enetçat. [38] Bere gurutcea hartcen ez duena eta niri seguitcen [19] ez çaitana ez da on enetçat. [39] Norc ere beguiratcen baidu bere bicia, eta harc galduco du; eta norc ere galduco baiduque bere bicia ene amorea gatic, eta harc du aurkhituco. [40] Norc ere çuec hartcen baitçaituzte, eta harc ni hartcen nau; eta ni hartcen nauenac hartcen du ni igorri nauena. [41] Profeta bat errecibitcen duenac profetaren icenean, içanen du profetaren saria; eta justu bat errecibitcen duenac justuaren icenean, içanen du justuaren saria. [42] Eta norc ere emanen baidio chumeen hautaric bati beyra bat ur hotz choilqui, ene dizcipulua delacoan, erraten darotçuet eguia: Ez du galduco bere pena".

17. *Bakea* eta *baquea* elkarren ondoan.

18. Hemen ere (ik. VII, 26) *ere* idaztea ahaztu zaiola esan behar. Ikus bestela bertsotxo honen beronen hasiera.

19. Ez dago garbi zer idatzi duen: *seguitcen* ongi letorke pasartearekin, baina *nor-nori* adizki horrek *(niri... çaitana)* atzera eragiten digu. Ikus lehen, izan ere, *segui naçaçu* (IX, 9).

XI. Cap.

[1] Jesus, akhabatu ondoan eracuspen horiec emateaz bere hamabi dizcipuluei, goan cen handic iracasterat eta predicatcerat inguruetaco hirietan. [2] Joannesec, bada, adituric cephoetan çagoen lekhutic Jesuschristoren obrez mintçatcen, igorri içan cituen bere dizcipuluetaric bia, [3] hari erratera: "Çu çare ethorri behar çarena ala bertceric iguriqui behar othe dugu?". [4] Eta Jesusec ihardetsi çaroen: "Çohazte, erroçue Joannesi çer aditu eta cer icussi içan duçuen. [5] Itsuec icusten dute, mainguac badabiltça, lepratsuac garbituac dire, gorrec aditcen dute, hillac bizten dire, pobreei Evangelioa iracasten çaye; [6] eta dohatsu diteque nitzaz scandalaric hartcen ez duena". [7] Hec goan cirenean, bada, hassi cen Jesus populuari erraten Joannesez: "Ceren icusterat goan othe çarete desertuan? haiceac darabillan sesca baten? [8] Ordean, ceren icusterat goan çarete? Guiçon guriqui eta ederqui bestitu baten icusterat? Guriqui bestitcen direnac erregueen etchetan ohi dire. [9] Ceren icusterat, beraz, goan çarete? Profeta baten? Bai, erraten darotçuet, eta profeta baiño guehiago den baten. [10] Hortaz içan da ecen escribatua: Huna non igortcen dudan ene ainguerua çure aitcinean, ceiñec aphainduco baidu çure bidea çure aitciñean.

[11] Erraten darotçuet eguia: Emastetatic sorthu içan direnen artean, jayo ez da Joannez Baptizta baiño handiagoric; ordean ceruco Erresuman den chumeena handiago da hura baiño. [12] Joannes Baptistaren demboratic hunat, bada, bortchac darama ceruetaco Erresuma, eta bortchatiarrec daramate. [13] Profeta guciac ecen eta legueac Joannes ethorri arteraiño ethorquiçunaz mintçatu ican dire. [14] Eta nahi baduçue ungui hartu, hori bera da ethorri beharra cen Elias hura. [15] Beharriac dituenac aditceco, adi deçala.

[16] Baiñan cer iduri duela jenderacione hunec erranen dut? Haur batçuen pare da, ceinac plaça batean jarriac bere lagunei oihuz baidagozte, [17] erraten daroela: Cantatu darotçuegu eta ez çarete dantçatu; auhenac eguin ditugu eta ez duçue nigarric issuri. [18] Ethorri içan da ecen Joannes jaten ez edaten ez çuela, eta diote: Deabruaz posseditua da. [19] Guiçonaren Semea, berriz, ethorri da jaten eta edaten duela eta diote: Horra guiçon bat jale eta edaille handia, publicanoen eta jende bekhatorossen adisquidea. Baiñan çuhurtcia justificatua diteque bere umeez".

[20] Orduan hassi citçayen erantçuten hiriei, ceiñetan eguin içan baitcituen hainitz miracuillu, ceren ez çuten eguiten penitencia: [21] "Çorigaitz hiretçat, Corozain; çorigaitz hiretçat, Bethsaida! Ceren Tyren eta Sidonen eguin içan balire çuetan eguin içan diren miracuilluac, aspaldi eguiñen baitçuten penitencia çakhu

eta hautspean. [22] Hargatic darotçuet erraten: Juyamenduco egunean Tyr eta Sidon ez direla hain garraxqui tratatuac içanen nola çuec. [23] Eta hi, Capharnaum: bethi haiz, bada, ceruraiño altchatuco? Ifernuraiño beheratua içanen haiz; ceren Sodoman eguin içan balire hi baitan eguin içan diren miracuilluac, benturaz osso iganen baitcen egungo eguneraiño. [24] Hargatic darotçuet erraten, juyamenduco egunean ez dela hain garraxqui içanen tratatua Sodomaco herria nola hi".

[25] Dembora hartan Jesusec erran cituen hitz hauc: "Esquerrac darozquitçut, ene Aita, ceruaren eta lurraren Jauna, ceren estali diotçotçuten hauc munduco çuhurrei eta prudentei eta eracutsi diotçotçuten simpleei eta chumeei. [26] Baiqui, ene Aita; hori heldu da, ceren horla nahi içan baiduçu. [27] Ene Aitac niri eman darozquit gauça guciac; eta nihorc ez du eçagutcen Semea Aitac baicen, eta nihorc ez du eçagutcen Aita Semeac baicen eta Semeac eracutsi içan nahi dioenac baicen.

[28] Çatozte ene ganat enconiatuac eta cargatuac çareten guciac, eta nic descantsatuco çaituztet. [29] Har çaçue ene ustarria ceuen gaiñerat eta ikhas çaçue ene ganic manso eta humill naicela bihotçez eta aurkhituco duçue çuen arimen sossegua. [30] Ene ustarria estia da ecen eta ene carga ariña".

XII. Cap.

[1] Dembora hartan Jesus ciohan oguipetic larunbat egun batez eta haren dizcipuluac gosse içanez, hassi ciren ogui buru hausten eta jaten. [2] Pharisauec, bada, hori icussiric erran cioten: "Horra non eguiten duten çure dizcipuluec larunbat egunetan eguitea cilhegui ez dena". [3] Baiñan harc erran çaroen: "Ez duçue iracurri cer eguin içan çuen Davidec, bera eta bere lagunac gosse içan ciren batez, [4] nola sarthu içan cen Jaincoaren etchean eta jan cituen offrendaco oguiac, ceiñetaric ez baitcitçayoen cilhegui, ez harequien cirenei ere jatea, aphez choillei baicen? [5] Ala ez duçue iracurri leguean, larunbat egunetan aphecec templuan larunbata hausten dutela eta hala ere hoben gabe direla? [6] Erraten darotçuet, bada: Templua baiño cerbaitago da hemen dena. [7] Baciñaquite cer erran nahi duen hunec: Nahiago dut urricalmendua ecen ez sacrificioa, ez bide cinituzten seculan condemnatuco innocentac. [8] Naussi da ecen Guiçonaren Semea larunbataren ere".

[9] Eta handic aldaratu eta, ethorri içan cen hequien Sinagogarat, [10] ceiñetan aurkhitu baitcen guiçon bat escu bat elcortua çuena, eta galdez cegozcon, hura cerbaitetan accusatu nahiz, hea cillegui cen larumbat egunetan nihor sendatcea. [11] Ihardetsi çaroen harc: "Cein diteque çuen artean guiçona ardi bat luquena eta, hura erortcen baçayo larunbat egun batez putçu batean, harturic handic athera ez leçaquena? [12] Bada cembatez ez da baliosagoa guiçona ardia baiño? Beraz cilhegui da ungui eguitea larunbat egunetan". [13] Orduan erran içan cioen guiçon hari: "Heda çaçu çure escua". Hedatu çuen eta eguin citçayoen bertcea beçain sendo. [14] Baiñan pharisauac ilkhiric, hassi ciren conseillu atchiquitcen haren contra, nola hura gal othe çeçaqueten.

[15] Hori jaquinic, bada, Jesus aldaratu cen handic eta haiñitz pressuna jarraiqui citçaizcon eta guciac sendatu cituen. [16] Eta manatu çaroen, ez ceçatela hura aguer. [17] Complitua içan cedintçat Isaiaz profetac erran çuena: [18] "Huna non den ene cerbitçaria, hautatu içan dudana, ene maitea, ceiñetan eçarri baidut ene complacencia gucia; pausatuco dut ene Izpiritua horren gaiñean eta iracatsico diote nacioneei justutassuna. [19] Ez du iharduquico, ez eguinen oihuric, eta nihorc ez du adituco horren boça carriquetan. [20] Ez du hautsico sesca arraillatua eta ez du iraunguituco oraiño khea duquen mitcha, bictoriarat athera deçaquen artean juyamendua. [21] Eta haren icenean içanen dute nacioneec esperantça".

[22] Orduan ekharri cioten aitciñerat deabruaz posseditua cen bat, itsua eta mutua, eta sendatu çuen halaco maneraz, non hassi baitcen mintçatcen eta icusten.

[23] Eta populu gucia jarri cen espantitua, eta cioten: "Ez othe da hau Daviden Semea?". [24] Baiñan pharisauec hori adituric erran çuten: "Hunec ez ditu deabruac khentcen Beelzebut deabruen princearen berthutez baicen". [25] Jesusec, bada, eçaguturic hequien gogoramenduac, erran içan çaroen: "Bera beraren contra partitua ditequen erresuma gucia iraulia içanen da eta bera beraren contra partitua ditequen hiriac edo etcheac ecin iraunen du. [26] Baldin Satanec Satan khentcen badu, bere contra partitua da; nola, bada, iraunen du haren erresumac? [27] Eta baldiñ nic Beèzebuten [20] berthutez khentcen baditut deabruac, çuen umeec noren berthutez dituzte khentcen? Horren gatic, bada, içanen dire hec berac çuen juye. [28] Baldiñetariac ordean nic Jaincoaren izpirituaz khentcen baditut deabruac, beraz çuetaraino heldu içan da Jaincoaren Erresuma. [29] Baiñan nola sar ahal daiteque nihor borthitçaren etchean eta eraman ahal detçaque haren armac eta haren gauçac, non ez duen lehenic amarratcen borthitça, guero ondoan arrobatceco haren etchea? [30] Enequien ez dena ene contra daiteque eta enequien biltcen ez duena barrayatcen hari da.

[31] Hargatic darotçuet erraten: Cer nahi den bekhatu eta blasphemio barkhatua içanen çaye guiçonei, baiñan Izpiritu Sainduaren contraco blasphemioa ez çaye barkhatuco. [32] Nor nahi mintçatu ditequen Guiçonaren Semearen contra barkhatuco çayo; bainan baldin nihor mintçatu bada Izpiritu Sainduaren contra, ez çayo barkhatuco ez mende huntan eta ez ethorquiçuneco mendean. [33] Edo erraçue arbola bat ona dela eta haren fruitua ere ona dela, edo erraçue arbola gaixtoa dela eta haren fruitua ere gaixtoa dela; ecen fruitutic eçagutcen da arbola. [34] Bipera casta, nola erran ahal detçaquetçue gauça onac cebonec gaixtoac çareten demboran? Bihotçaren franquiatic mintço da ecen ahoa. [35] Guiçon onac bere thresor onetic ditu atheratcen gauça onac eta guiçon gaixtoac bere thresor gaixtotic ditu atheratcen gauça gaixtoac. [36] Bada erraten darotçuet: Guiçonec erran duqueten hitz alfer guciaz contu emanen dute juyamenduco egunean. [37] Ecen ceure hitcetaric içanen çare justificatua eta ceure hitcetaric içanen çare condenatua".

[38] Orduan ihardetsi içan cioten escribauetaric eta pharisauetaric cembaitec eta erran: "Naussia, cembait miracuillu nahi guinduque icussi çure ganic". [39] Baiñan ihardetsi içan çaroen harc eta erran: "Casta gaixto eta adulterios [21] hunec miracuillu bat galdetcen du eta etçayo emanen bertceric Jonas profetarena baicen. [40] Ecen Jonas içan cen beçala balearen sabelean hirur egun eta hirur gauez, hala Guiçonaren Semea ere lurraren bihotcean hirur egunez eta hirur gauez egonen da.

[41] Ninivitarrac altchatuco dire juyamenduco egunean arraça hunen contra eta condenatuco dute, ceren hec penitencia eguin baidute Jonassec predicatcearequin batean; eta bizquitartean hemen dena Jonas baiño guehiagocoa da. [42] Hegoaco Erreguiña altchatuco da juyamenduco egunean arraça hunen contra eta du conde-

20. Hiru bertsotxo gorago ez bezala (ik. 24) hemen -/- itzuri zaio.

21. Hemen, eta gauza bera Mt. XVI, 4-ean, ez daki batek azken bi letrak horko horiek diren ala *-oz, -ar* ala bestelakoak.

natuco; ceren hura ethorri içatu baida lurraren bertce basterretic Salomonen çuhurtcia aditcerat; eta bizquitartean Salomon baiño guehiagocoa hemen da.

[43] Izpiritu lohia ilkhia ditequenean guiçon baten ganic, badoha lekhu agorretarat descantsu bilha dabillala eta ez du aurkhitcen. [44] Orduan erraten du: Bihurtuco naiz neure etcherat, ceiñetaric ilkhi içan bainaiz. Eta ethorriric caussitcen du hutsa, garbitua eta antolatua. [45] Dembora berean badoha, hartcen ditu berequien bertce çazpi izpiritu bera baiño gaixtoagoac eta sarthuric guelditcen dire han; eta guiçon haren azqueneco estatua gaixtoagoa diteque are lehenbicicoa baiño. Horla guerthatuco çayo arraça gaixto huni ere".

[46] Oraiño populuari mintço citçayoela, ethorriric haren ama eta haren anayac, campoan çeudecen harequien mintçatu nahiac [22]. [47] Erran içan cioen bada norbaitec: "Horra non daudecen campoan çure ama eta çure anayac çure galdez". [48] Baiñan hori erraten cioenari ihardetsi içan cioen eta erran: "Nor da ene ama et(a) nor dire ene anayac?". [49] Eta hedaturic bere escua bere dizcipuluetarat: "Huna", diotsa, "ene ama eta ene anayac. [50] Norc ere ecen eguiten baidu ene Aita ceruetan denaren borondatea, hura diteque ene anaya, ene arreba eta ene ama".

22. Ezin jakin hori dioen ala *nahiaz*. Ikus ordea Lc. VIII, 20; XXIII, 8.

XIII. Cap.

[1] Egun hartan berean etchetic ilkhiric Jesus cegoen jarria itsas basterrean. [2] Eta bildu ciren haren ganat jende aralde haiñitz; horren gatic barcu batetarat iganic jarri cen han, populu gucia urbasterrean cegoela. [3] Eta mintçatu citçayen hainitz gaucez paraboletan erraten çaroelaric: "Huna non ilkhi içan den ereille bat ereinterat. [4] Eta ereinten hari dela ereintçaren parte bat erori cen bidearen basterrerat eta aireco choriec ethorriric jan çuten. [5] Bertce parte bat erori cen toqui legartsuetarat, ceiñetan ez baitçuen bihiac lur hainitzic; eta berehala ilkhi cen, ceren hura cen lurrac ez baitçuen loditassunic. [6] Baiñan iguzquia altchatu eta, errea içan cen eta, nola ez baitçuen eguin erroric, ihartu cen. [7] Bertce parte bat erori içan cen otheperat eta otheac handitu ciren eta itho çuten. [8] Bertce parte [23], bada, erori içan cen lur onerat eta ekharri içan çuen bihi batec ehunca, bertceac hirur hogoyca, bertceac hogoi eta hamarca. [9] Beharriac dituenac aditceco, adi deçala".

[10] Bere dizcipuluec hurbilduric erran cioten: "Cergatic mintço çaizte hitz estalitan?". [11] Eta ihardetsi çaroen eta erran: "Ceren çuei eman içan baitçaitçue ceruetaco Erresumaco misterioac eçagutcea, baiñan hei ez baitçaye emana içan. [12] Duenari ecen emanen çayo eta içanen du franquiaz; baiñan ez duenari duena ere khenduco çayo. [13] Horren gatic mintço natçaye hei parabolatan, ceren icusten dutelaric ez baidute icusten eta aditcean ez baidute aditcen, ez comprenitcen. [14] Eta complitcen da hequien baitan Isaias profetac erraten duena: Aditcez adituco duçue eta ez duçue comprenituco, eta icustez icussico duçue eta ez duçue icussico; [15] loditu da ecen populu hunen bihotça eta aditce gogorra eguin çaye eta bere beguiac çarratu dituzte, beguiez ez icussi nahiz, beharriez aditu ez nahiz, bihotcez conpreni ez deçaten eta conberti ez daitecen eta senda ez detçadan. [16] Baiñan dohatsu dire çuen beguiac, ceren icusten baidute, eta çuen beharriac, ceren aditcen baidute. [17] Erraten darotçuet ecen eguia: Haiñitz profetec eta justuec dutela desiratu icustea çuec icusten duçuena eta ez baidute icussi, eta aditcea çuec aditcen duçuena eta ez baidute aditu.

[18] Çuec, bada, adi çaçue ereillearen parabola. [19] Norc ere aditcen baidu Erresumaco hitça eta ez baidu hartcen ungui, heldu da izpiritu gaixtoa eta arrapatcen du haren bihotcean erein içan dena; hura diteque bidearen basterrean erein içan dena. [20] Toqui harritsuan erein içan dena, berriz, hura da hitza aditcen

23. Ez ote da hor *bat* falta?

duena eta berehala bozcariorequien errecibitcen duena; [21] ordean ez du barnean erroric eta ez da dembora batetaco baicen. Ecen heldu çayoenean atsecaberic eta persecucioneric hitçaren ariaz, berehala behaztopatcen da eta erortcen. [22] Elhorripean erein içan dena, hura da hitça aditcen duena, baiñan mende huntaco antsiac eta aberatstassunen engañioac ithotcen dute haren baitan hitz hura eta fruitu gabecoa edireten da. [23] Aitcitic lur onean erein içan dena, hura da hitça aditcen duena eta ungui hartcen duena eta fruitua ekhartcen duena: batac ehun, bertceac hirur hogoy, eta bertceac hogoi eta hamar".

[24] Bertce parabola proposatu çaroen, erraten çaroelaric: "Ceruetaco Erresuma guiçon baten iduritaco eguin da, ceiñec erein içan baiduque haci ona bere landan. [25] Baiñan etche guiçonac lo ceudecela, ethorri cen haren etsaya eta erein çuen iraca haren oguiaren erdian eta goan cen. [26] Handitu cenean, bada, belharra eta burutu lastoa, hassi cen iraca ere aguertcen. [27] Orduan familiaco aitari ethorri citçaizcon bere sehiac erraterat: Jauna, haci ona ez duçu çuc erein çure landan? Nondic dire, bada, hemen iracac? [28] Ene etsai den guiçon batec eguin du hori. Eta bere sehiec erran cioten: Nahi duçu goacen eta bil deçagun? [29] Ihardetsi çaroen: Ez, beldurrez iraca biltcearequien batean athera deçaçuen bihi ona ere. [30] Utzatcitçue bata eta bertcea handitcerat uztaraiño, eta uztaren demboran erranen daroet ogui ephailleei: Bil çaçue lehenic iraca eta amarra çaçue çametan erretceco; ordean oguia bil çaçue ene soillarurat".

[31] Proposatu çaroen berriz bertce parabola bat, erraten çaroelaric: "Ceruetaco Erresuma mustarda haciaren idurico da, ceiña guiçon batec hartu eta ereinten baidu bere landan. [32] Haci hura [24] haci gucietaric chumeena; ordean handitu ditequenean, handiago da bertce belhar guciac baiño eta eguiten da arbola bat, halaco moldez non aireco hegaztiñac ethortcen baidire haren adarretan pausatcerat".

[33] Erran çaroen oraiño bertce parabola bat ere: "Ceruetaco Erresuma lemamiaren pare da, ceiña emaste batec harturic, estaltcen baidu hirur neurri iriñetan, orre [25] gucia altcha ditequen artean".

[34] Horiec guciac hitz estalietan erran ciotçaten Jesusec populuari eta ez citçayen mintço parabolaric gabe, [35] complitua içan cedintçat profetaren errana: "Idequico dut ahoa paraboletan mintçatçeco; iracatsico ditut mundua creatua içan denetic gordeac ceudecen gauçac".

[36] Orduan populua utciric, ethorri cen Jesus etcherat eta dizcipuluac hurbildu citçaizcon erraten ciotela: "Explica dieçaguçu landaco iracaren parabola". [37] Ihardetsi çaroen eta erran: "Haci ona ereinten duena da Guiçonaren Semea; [38] landa da mundua, haci ona berriz Erresumaco umeac dire eta iraca izpiritu gaixtoaren umeac dire. [39] Etsaya, bada, hec erein dituena da, deabrua. Uzta da munduaren akhabantça eta bihi ephailleac dire aingueruac. [40] Iracac, beraz, nola biltcen baidire eta suan erretcen, hala guerthatuco da munduaren akhabantçan ere. [41] Igorrico

24. Hemen ere badirudi *da* utzi duela ezarri gabe.
25. Lehen esana (ik. V, 22) gertatzen da hemen: *orhe* > *orre*. Ikus *orhantçatic*, Mt. XVI, 6.

ditu Guiçonaren Semeac bere aingueruac eta bilduco dituzte haren Erresumatic scandala emaille guciac eta gaixtaqueria eguiten duten guciac. [42] Eta egotzico dituzte suzco laberat; han içanen dire nigarrac eta hortz carrascac. [43] Orduan justuec distiatuco dute iguzquiac beçala bere Aitaren Erressuman. Beharriac dituenac aditceco, adi deçala.

[44] Ceruetaco Erresumac iduri du thresor bat landa batean gordea dena; hura aurkhitu duen guiçonac gordetcen du eta, hartaz duen bozcarioarequien badoha, dituen guciac saltcen ditu eta erosten du landa hura.

[45] Ceruetaco Erresumac iduri du oraiño guiçon bat tratuan hari dena eta perla ederren bilha dabillana. [46] Aurkhituric, bada, perla bat balio handitacoa, goan cen saltcerat cituen guciac eta erossi içan çuen perla hura.

[47] Ceruetaco Erresuma oraiño, itsasoan arthiquitcen den sare baten pare da, ceiñac arrain suerte gucietaric hartcen baidu. [48] Bethea ditequenean, thiratcen dute arrantçalec uraren basterrerat eta, han jarriric, berezten dituzte eta ematen onac otharretan eta etchatcen gaixtoac camporat. [49] Hori guerthatuco da mendeen akhabantçan; ilkhico dire aingueruac eta aldaratuco dituzte gaixtoac justuen artetic. [50] Eta arthiquico dituzte suzco laberat; han içanen dire nigarrac eta hortzcarrascac.

[51] Comprenitu ditutçue hauc guciac?". Erran cioten hec: "Bai, Jauna". [52] Harc berriz erran çaroen: "Hargatic, bada, scribau ceruetaco Erresuman jaquintsun den gucia, familiaco aita baten pare da, ceiñec atheratcen baiditu bere thresoretic gauça berriac eta çaharrac".

[53] Eta akhabatu cituenean Jesusec parabola horiec, goan cen handic. [54] Eta ethorriric bere herrirat iracasten çaroen bere sinagoguetan, halaco maneraz non miretsiric erraten baitçuten: "Nondic othe ditu hunec çuhurtcia hori eta miracuillu horiec? [55] Hau ez da harotz baten semea? Hunen ama ez da Maria deitcen eta hunen anayac, Jacobe, Joseph, Simon eta Juda? [56] Eta hunen arrebac ez dire guciac gure artean? Non [26] ditu, beraz, hunec horiec guciac?". [57] Eta scandalisatcen ciren haren sujetean. Baiñan Jesusec erran içan çaroen: "Ez da profeta bat ohoreric gabe bere herrian baicen eta bere etchean baicen". [58] Eta ez çuen eguin han miracuillu hainitcic, hequien sinhets-gogortassuna cela causa.

26. Ez ote luke *Nondic* behar? Vulgatak ere *Unde* dio. Ikus, gainera, bi bertsotxo gorago: *Nondic othe ditu...?* Leizarragak ere "Nondic bada...?".

XIV. Cap.

[1] Dembora hartan aditu çuen Herodes tetrarchac Jesusen fama, [2] eta erran çaroen bere officialeei: "Hori equi Joannes Baptista da; hura biztu diteque hilletaric; hargatic miracuilluac eguiten dire haren escuz". [3] Herodesec ecen, harraracic Joannes, estecaraci çuen eta eçarraraci presondeguian, Herodias bere anayaren emastea gatic. [4] Joannesec erraten cioen: "Ez çaitçu cilhegui emaste hori içatea". [5] Eta hilaraci nahi baitçuen Herodessec, populuaren beldurtcen [27], cergatic profeta batentçat baitçeducaten. [6] Herodessen sor egunean, bada, dantçatu içan cen Herodiasen alaba gorthearen erdian eta agradatu citçayoen Herodesi, [7] halaco moldez, non juramenturequien aguindu baitcioen emanen cioela galde cioçoquen gucia. [8] Eta harc, aitcinetic bere amac iracatsi cioen beçala: "Indaçu", diotsa, "hemen berean plat batean Joannes Baptistaren burua". [9] Tristatu içan cen erregue galde hortaz, baiñan hala ere, eguin içan çuen juramentua gatic eta mahaiñean harequien cirenen gatic manatu çuen eman cequioela. [10] Igorri cituen dembora berean Joannes Baptistari presondeguian burua ebaquitcerat. [11] Ekharri cioten haren burua plat batean eta eman cioten nescatcha hari eta harc eraman cioen bere amari. [12] Haren dizcipuluac ethorriric guero, hartu çuten haren gorphutça eta ehortci çuten eta ethorri ciren Jesusi erraterat.

[13] Aditu çuenean hori, goan cen Jesus handic barcu batean, aldaratu nahiz lekhu desertu batetarat, eta populuac hori jaquin çuenean, jarraiqui citçaizcon oiñez hainitz hirietaric. [14] Barcutic ilkhitcean, icussi çuen jende bilduma handi bat, urricaldu citçaizcon eta sendatu cituen hequien eriac. [15] Arratsa ethorri cenean, ethorri citçaizcon bere dizcipuluac erraterat: "Lekhu mortu bat da hau eta muga jaucia ere da; igorracitçu jendeac, dohacen herrietarat eta eros deçaten jateco behar dutena". [16] Baiñan Jesusec erran çaroen: "Ez da mengoaric dohacen; emoçue çuec jaterat". [17] Ihardetsi içan cioten hec: "Ez ditugu hemen bortz ogui eta bi arrain baicen". [18] Erran çaroen: "Ekhar dietçadatçue niri hec hunat". [19] Eta jende tropela hei manaturic jar citecela belharraren gainean, hartu cituen bortz oguiac eta bi arraiñac eta, altchaturic beguiac cerurat, benedicatu cituen eta çathituric oguiac eman çiotçaten [28] dizcipuluei et(a) dizcipuluec jende hei. [20] Jan çuten

27. Hemen eta bestetan (ik. Mc. VI, 20) *beldur cen* eta antzekoak horrela ematen ditu.

28. Oso ilun da zer dioen hemen, lehen idatziaren gainean berridatzi baitu; baina ikus beherago (Mt. XIV, 35), nahiz bata 'hark haiei' den eta bestea 'haiek hari'. Ikus ere XV, 36 ('hark haiei'); eta oso adizki desberdina duen XXVII, 3 *(çazcoten)*.

guciec eta asse ciren eta altchatu cituzten gaiñeracoetaric hamabi sasqui puscaz betheac. [21] Bada jan içan çutenen nombrea cen bortz milla guiçonetacoa, emasteez eta haur chumeez landan.

[22] Handic berehala hertchatu cituen Jesusec bere dizcipuluac barcu batetarat igaterat eta hura baiño lehenago iragaterat uraren bertce bazterrerat, populua igor ceçaquen bizquitartean. [23] Eta populua igorri çuen ondoan, igan cen mendi batetarat bera bakharric othoitcean egoterat eta, arratsa ethorri cenean, berbera cen han bakharric.

[24] Barcua bizquitartean itsasoaren erdian tiraiñez cehatua cebillan, ecen haicea contra çuten. [25] Baiñan gauazco laurgarren goardian ethorri citçayen Jesus uraren gaiñean cebillala. [26] Eta icusi çutenean uraren gaiñean cebillala, altaratu ciren eta erran çuten: "Fantasma diteque". Eta icialduraren podorez hassi ciren oihuz. [27] Berehala Jesus mintçatu citçayen eta erran çaroen: "Duçuen fidantcia; ni naiz; ez çaiteztela ici". [28] Piarresec ihardetsi cioen eta erran: "Jauna, baldin çu baçare, mana çaçu ethor nadin çure ganat uraren gaiñean". [29] Jesusec erran cioen: "Çato". Eta Piarres barcutic jautsiric, abiatu cen uraren gaiñean Jesusen ganat goateco. [30] Baiñan icusiric haice borthitça cela, icitu cen eta, hassi baitcen ondorat goaten, eguin cioen oihu eta erran: "Jauna, salba naçaçu". [31] Eta berehala Jesusec escua hedaturic hartu çuen eta erran cioen: "Guiçon fede gutitacoa, cergatic jarri ere haiz dudatan?". [32] Eta igan cirenean barcurat, guelditu cen haicea. [33] Barcuan cirenac, bada, hurbildu citçaizcon eta adoratu çuten, erraten ciotela: "Eguiazqui Jaincoaren Semea çare".

[34] Eta uraren bertce alderat iraganic, ethorri içan ciren Genesargo lurrerat. [35] Eçagutu çutenean lekhu hartaco guiçonec, gastiatu çuten inguru hartaco herri gucietarat eta ekharri ciotçaten eri guciac, [36] othoizten çutelaric, utz cioçoten bere arrobaren pertalac bederen uquitcerat; eta uquitu cituzten guciac sendatuac içan ciren.

XV. Cap.

[1] Orduan hurbildu citçaizcon Jerusalemetic heldu ciren scrivau eta pharisau batçu eta erran cioten: [2] "Cergatic çure dizcipuluac dohaz çaharren tradicionearen contra, ez dituzte ecen escuac garbitcen jateracoan?". [3] Ihardetsi çaroen harc eta erran: "Cergatic çohazte cebonec Jaincoaren manuaren contra, çuen tradicionea seguitcea gatic? Ecen Jaincoac erran içan du eta manatu: [4] Ohora çatcitçu çure aita eta ama; eta oraiño: Bere aitari edo amari hitz gaixtoac erraten diotçana, içan dadillala heriotcez punitua. [5] Eta çuec aitcitic dioçue: Norc ere erranen baidio bere aitari edo amari: Nic Jaincoari offrendatcen diodan gucia çuen probetchuco diteque, [6] egon ahal daiteque haiña bere aita edo ama lagundu gabe. Eta manera hortan ezeztatcen duçue Jaincoaren manamendua, çaharrec utciricaco errana dela causa. [7] Hypocritac, ala ungui pensatu içan baidu çuetaz Isaiasec erran içan duenean: [8] Populu hunec ezpainez ohoratcen nau; hauquien bihotça ordean urrun da ene ganic, [9] bada alferric ohoratcen naute, guiçonen doctrinac eta ordenuac iracazten dituztenean".

[10] Eta deithuric bere ganat populua, erran çaroen: "Adi çaçue hau eta har çaçue ungui. [11] Ez du ahoan sartcen denac liçuntcen guiçona, baiñan ahotic ilkhiltcen [29] denac lohitcen du guiçona". [12] Orduan hurbildu citçaizcon bere dizcipuluac eta erran cioten: "Badaquiçu pharisauac hitz hori adituric scandalisatu direla?". [13] Baiñan harc ihardetsi çaroen eta erran: "Ene Aita ceruetacoac landatu ez duquen landare gucia erroetaric atheratua icanen da. [14] Utçatçue horiec, itsuac dire eta itsuen guidariac; bada itsu batec guidatcen badu bertce bat, biac erortcen dire hosiñean".

[15] Piarresec hitça harturic, erran içan cioen: "Explica dieçaguçu parabola hori". [16] Jesusec ihardetsi cioen: "Oraiño çuec ere adimendu gabe çarete? [17] Ez duçue comprenitcen ahoan sartcen den gucia sabelerat dohala eta secretetarat [30] etchatcen dela? [18] Baiñan ahotic ilkhitcen direnac bihotcetic heldu dire eta hec lohitcen dute guiçona. [19] Bihotcetic heldu dire ecen gogoeta gaixtoac, guiçon hiltceac, adulterioac, lohiqueriac, ebascoac, falso testimonioac, blasphemioac. [20] Horiec dire guiçona liçuntcen dutenac; bainan escuac garbitu gabe jateac ez du guiçona lohitcen".

29. Hala dio, baina *ilkhitcen* behar du.

30. Ez da batere ongi irakurtzen, baina hori dio ene ustez: ik. Mc. VII, 19. Leizarragak "retreitera".

[21] Jesus handic ilkhiric, aldaratu cen Tyrgo eta Sidongo partetarat. [22] Eta emaste chanaandar bat, baster hetaric ilkhia, hassi citçayoen oihuz, erraten cioela: "Nauçun urricari, Jauna, Daviden Semea; ene alaba dut haguitz tormentatua deabruaz". [23] Baiñan ez cioen hitçic ihardetsi eta, hurbilduric bere dizcipuluac, jarri citçaizcon othoizten, erraten ciotela: "Eguioçu galdetcen duena eta igorraçu, ceren oihuz baidarraicu ondotic". [24] Ihardetsi çaroen eta erran: "Ez naiz igorria Israelgo etcheco ardi galduetarat baicen". [25] Baiñan hura hurbildu citçayoen eta adoratu çuen, erraten cioela: "Jauna, heltçaquizquit". [26] Ihardetsi cioen eta erran: "Ez da justu haurren oguia hartcea eta oçarrei ematea". [27] Harc berriz erran cioen: "Hala da, Jauna; ordean potcho chumeèc ere bederen jaten dute bere naussien mahaiñetic erortcen diren papurretaric". [28] Orduan Jesusec ihardetsi içan cioen eta erran: "O emastea, handia dun hire fedea; eguin bequin desiratcen dunana". Eta sendatua içan cen haren alaba ordu berean.

[29] Jesus handic aldararuric, ethorri cen Galileaco itsas-basterretic eta mendi baten gaiñerat iganic, jarri cen han. [30] Ethorri citçaizcon hainitz jende aralde, berequien çakharzquetela mutuac, itsuac, mainguac, hebainduac eta hainitz bertce eri suerte, ceiñac etchatu baitcituzten haren oiñetarat eta sendatu cituen; [31] halaco maneraz, non miretsiac jarri baitciren jende hec, icussiric mutuac mintço cirela, mainguac chuchen çabiltçala, itsuec icusten çutela; eta handiexten çuten Israelen Jaincoa.

[32] Jesusec, bada, bilduric bere ganat bere dizcipuluac, erran çaroen: "Urricaltcen çaizquit jende hauc, ceren hirur egun huntan enequien baidaudez eta ez baidute jatecoric; eta ez ditut nahi jan gabe igorri, bidean flaca ez daitecen". [33] Dizcipuluec ihardetsi içan cioten: "Nondic içanen dugu desertu huntan oguiric asqui horrenbertce jende assetçeco?". [34] Jesusec berriz erran çaroen: "Cembat ogui ditutçue?". Ihardetsi içan cioten hec: "Çazpi eta cembait arrain chume". [35] Orduan Jesusec manatu çuen populua jar cedillala lurraren gaiñean. [36] Guero harturic çazpi oguiac eta ciren arraiñac eta, esquerrac bihurturic, hautsi cituen eta eman ciotçaten bere dizcipuluei, eta dizcipuluec eman ciotçaten populuari. [37] Guciec jan içan çuten eta asse ciren; eta sobra guelditu ciren pusquetaric eraman cituzten çazpi otharre betheac. [38] Ciren, bada, jan içan çutenac laur milla guiçon, haur cheheac eta emasteac bertce alde. [39] Populua despeitu ondoan, igan cen Jesus barcu batetarat eta ethorri içan cen Magedango bazterretarat.

XVI. Cap.

[1] Orduan pharisauac eta saducearrac ethorri citçaizcon tentatcera eta eguin cioten othoitz, eracuts cioçatela cembait seiñale ceruticaco. [2] Baiñan ihardetsi çaroen: "Arratsean erraten duçue: dembora ederra içanen da, gorri da ecen cerua. [3] Eta goicean erraten duçue: gaur dembora charra eguiñen du, gorricara da ecen eta goybeldua cerua. [4] Badaquiçue, beraz, ceruaren iduritic juyatcen eta ez daquiçue, bada, eçagutcen Jaincoaz marcatuac diren demboren seinaleac? Arraça gaixto eta adulterios [31] hunec seiñale bat galdetcen du eta ez çayo bertceric emanen, Jonas profetarena baicen". Eta goan cen hec utciric.

[5] Ahantci citçayen, bada, haren dizcipuluei oguien hartcea, uraren bertce alderat iragatean. [6] Jesusec erran çaroen: "Beguirautçue behintçat pharisauen eta saducearren orhantçatic". [7] Bainan hei gogorat ethorri citçayen eta cioten bere baitan: "Ez dugu hartu oguiric". [8] Jesusec ordean hori eçaguturic, erran içan çaroen: "Cergatic darassaçue ceben baitan ez duçuela hartu oguiric, guiçon fede aphurretacoac? [9] Ez duçue oraiño comprenitcen eta ez çarete orhoitcen bortz ogui bortz milla guiçonentçat asqui içan çirenez? Eta cembat sasqui eraman cinituzten? [10] Eta ez, çazpi ogui laur milla guiçonentçat asqui içan cirenez? Eta cembat otharre eraman cinituzten? [11] Nola ez duçue comprenitcen ez nitçaitçuela oguiz mintço, erratean: Beguira cineçaçuela pharisauen lemamitic eta sadducearren altchagarritic?". [12] Orduan comprenitu çuten ez çaroela erran, beguira çutela oguiaren orhantçatic, baiñan bai pharisauen eta sadducearren dotrinatic.

[13] Ethorri cen, bada, Jesus Caesar Philipeco parteetarat eta interrogatu cituen bere dizcipuluac, erraten çaroela: "Nor diote guiçonec dela Guiçonaren Semea?". [14] Ihardetsi içan cioten hec: "Batçuec Joannes Baptista, bertceec Eliaz, bertce batçuec berriz Jeremias edo profetetaric cembait". [15] Jesusec erran içan çaroen: "Eta çuec nor naicela dioçue?". [16] Simon Piarressec hitça harturic erran cioen: "Çu baitçare Christo, Jainco biciaren Semea". [17] Jesusec, bada, ihardetsi içan cioen eta erran: "Dohatsu çare, Simon Joannessen semea, ceren ez baidarotçu hori iracatsi haraguiac ez odolac, bainan bai ene Aita ceruetan denac. [18] Bada nic çuri erraten darotçut Piarres çarela eta harri horren gaiñean bastituco dudala ene Eliça eta ifernuco atheac ecin hari garaituco çaizcola. [19] Emanen darozquitçut ceruetaco Erresumaren gakhoac. Cer ere çuc estecatuco baiduçu lurraren gaiñean, eta hura estecatua içanen da ceruetan ere; eta cer ere çuc lechatuco baiduçu

31. Hala dio.

lurraren gaiñean, eta hura lechatua içanen da halaber ceruetan ere". [20] Dembora berean manatu çaroen bere dizcipuluei ez cioçatela nihori erran hura cela Jesus Christo.

[21] Ordutic hassi citçayen Jesus bere dizcipuluei eracutzten goan beharco çuela Jerusalemerat eta hainitz pairatu hango aitcin guidarien partetic, scribauetaric eta aphecen princeetaric; hillen çutela eta hirur garren egunean biztuco cela. [22] Eta aparterat harturic, hassi citçayoen Piarres erantçuten, ciotsolaric: "Baldinba ez, Jauna, ez bide çaitçu guerthatuco horlacoric". [23] Baiñan itçuliric erran içan cioen Jesusec Piarressi: "Çohaz ene ganic, Satana, scandala çaitut nic çu, cergatic ez baiduçu gusturic Jaincoaren gaucentçat, aitcitic bai lurrecoentçat".

[24] Orduan Jesusec erran içan çaroen bere dizcipuluei: "Nihorc nahi badu ethorri ene ondotic, eguin bioça ukho bere buruari eta jassan beça bere gurutcea eta jarraiq bequit niri. [25] Norc ere ecen nahico baidu bere burua salbatu, eta harc galduco du; eta norc ere galduco baidu bere burua ene gatic, eta harc aurkhituco du. [26] Cer probetchu luque ecen guiçonac mundu gucia ere irabaztea, baldin bere arima galtcen badu? Edo cer eman deçaque bere arimaren ordain? [27] Ecen Guiçonaren Semea ethorrico da bere Aitaren glorian bere aingueruequien; eta orduan bihurtuco dio batbederari bere obren arauera. [28] Erraten darotçuet eguia: Badire hemen direnetaric cembait, heriotcea frogatuco ez dutenac, icus deçaqueten artean Guiçonaren Semea bere Erresuman heldu dela".

XVII. Cap.

[1] Handic sei egunen buruan Jesusec harturic berequien Piarres eta Jacobe eta Joannes, haren anaya, eraman cituen apart mendi gora batetarat. [2] Eta tranfiguratua [32] içan cen hequien aitciñean. Haren bisayac distiatcen çuen iguzquiac beçala eta haren bestimendac eguin ciren churi elhurra beçala. [3] Betbetan aguertu citçaizten Moysez eta Elias harequien mintço cirela. [4] Piarressec, bada, erran içan cioen Jesusi: "Jauna, on da hemeи içatea; placer baduçu, eguitcigun hemen hirur etchola, bata çuretcat, bertcea Moiserentçat eta bertcea Eliasentçat. [5] Mintço cen oraiño, eta betbetan [33] hedoi arguitsu batec estali içan cituen; betbetan boz bat ilkhi cen hedoypetic erraten çuena: "Hauche da ene Seme maitea, ceiñetan baita ene atseguin gucia; hau adi çaçue". [6] Dizcipuluac hori adituric, erori ciren bissayaz lurrerat eta icialdura handi batez sessituac içan ciren. [7] Baiñan Jesus hurbildu citçayen, uquitu cituen eta erran çaroen: "Altcha çaitezte eta ez duçuela beldurric". [8] Orduan beguiac altchatu eta, ez çuten icussi nihor Jesus berbera baicen. [9] Eta menditic jausten hari cela, manatu çaroen Jesusec eta erran: "Ez dioçoçuela nihori erran cer icussi duçuen, Guiçonaren Semea hilletaric bitz daitequen artean".

[10] Orduan dizcipuluec galdeguin cioten eta erran: "Cergatic, bada, scriuauec erraten dute, Eliassec lehenago ethorri behar duela?". [11] Baiñan Jesusec ihardetsi içan çaroen eta erran: "Eguia da Elias ethorri beharra dela eta gauça guciac bere staturaco dituela. [12] Baiñan erraten darotçuet nic: Elias jadan ethorri içan dela eta ez dute eçagutu; aitcitic, eguin dute haren gaiñean nahi çuten gucia; hala soffriaracico ere diote Guiçonaren Semeari". [13] Orduan comprenitu çuten dizcipuluec Joannes Baptiztaz mintçatu citçayela.

[14] Eta ethorri içan cenean populua ganat, hurbildu citçayoen guiçon bat eta haren aitciñean belhaunico [34] jarriric, erran cioen: "Jauna, urrical bequiçu ene semea, ceren ilhargui-aldiac baiditu eta hainitz soffritcen baidu; ecen maiz erortcen da surat eta urerat ere. [15] Ekharri içan diotet çure dizcipuluei eta ecin sendatu dute". [16] Jesusec bada ihardetsi içan cioen eta erran: "O jenderacione sinhets gogorra eta gaizcoatua; noiz artean içanen naiz çuequien? noiz artean soffrituco çaituztet? Ekhar dieçadaçue hura niri hunat". [17] Eta Jesusec mehatchaturic deabrua, ilkhi cen haren ganic eta sendatu cen haurra ordu beretic. [18] Orduan

32. Hala dio.
33. Idatzi ondoren ezabatua dirudi, hurrengo lerroan berriz ageri delako edo.
34. *Belhaunico* hemen eta gehiagotan, baina *belhauricatu* Mt. XXVII, 29-an eta bestetan.

hurbildu citçaizcon dizcipuluac ichillic Jesusi eta erran içan cioten: "Cerengatic othe guc ecin khendu dugu deabru hura?". [19] Jesusec erran çaroen: "Çuen sinhets gogortassuna dela causa. Erraten darotçuet ecen eguia: Baldin bacindute sinave [35] hacia beçanbateco fedea, erran cinioçoquete mendi horri: Aldara çaite hemendic horrat, eta aldaratuco liteque, eta deusere ez litçaiquetçue ecin eguinic. [20] Baiñan deabru suerte horiec ez dire khentcen oracioneaz eta baruraz baicen".

[21] Galilean cirela, bada, erran içan çaroen Jesusec: "Guiçonaren Semea libratua içan beharra da guiçonen escuetarat. [22] Hillaracico dute eta hirur garren egunean bitztuco da hilletaric". Eta tristatu içan ciren hortaz handizqui.

[23] Eta ethorri içan cirenean Capharnaumerat, hurbildu citçaizcon Piarressi didrachmen tributua hartcen çutenac, eta erran cioten: "Çuen naussiac ez ditu pagatcen bidrachmac [36]?". [24] Erran cioen harc: "Bai, bada". Eta etchean sarthu cenean aitcindu citçayoen Jesus erraterat: "Cer çaitçu [37], Simon? Lurreco erregueec noren ganic hartcen dute cerguera? bere umeenganic ala atceetaric?". [25] Ihardetsi cioen harc: "Atceetaric". Erran içan cioen Jesusec: "Beraz hartaric libro dire umeac? [26] Bainan scandalisa ez detçagun jende horiec, çohaz itsasorat eta etcha çaçu amua eta lehenbici atçamanen den arraiña har çaçu eta, ahoa çabaldu dioqueçunean, aurkhituco dioçu laur drakmaco bat; hura harturic emoçute enetçat eta çuretçat".

35. *Seneve* edo *sineve* edo *sinave,* halako zerbait irakurgaitz dio; latinez *sinapis.* Leizarragak "mustarda" darabil. Ikus hau bera lehen: XIII, 31.

36. Bertsotxo berean *didrachmen* eta *bidrachmac?* Hala dirudi.

37. *Cer iduri çaitçu,* alegia. Maiz ageri da horiela, elipsia eginik. Ikus Mt. XVIII, 12; XXI, 28; XXVII, 65; etab.

XVIII. Cap.

[1] Dembora hartan hurbildu ciren dizcipuluac Jesusen ganat eta erran cioten: "Nor othe da ceruetaco erresuman handiena?". [2] Eta Jesusec erakharriric haur chume bat, eçarri çuen hequien erdian [3] eta erran çaroen: "Erraten darotçuet eguia: Baldin ez baçarete conbertitcen eta eguiten haur chume batçu beçala, ez çarete sarthuco ceruetaco Erresuman. [4] Nor ere, beraz, humiliatuco baida eta eguiñen haur chume hau beçala, hura diteque handiena ceruetaco Erresuman. [5] Eta norc [ere] errecibituco baidu hunelaco haur chume bat ene icenean, ni neroni nauque errecibitcen. [6] Eta baldin nihorc escandalisatcen badu ene baitan sinhesten duten chume hautaric bat, hobe liçate harentçat eman dioçoten errota harri bat lephotic dilindan eta etcha deçaten itsassoan behera. [7] Çorigaitz munduarentçat scandalengatic, mengoa da ecen guertha daitecen scandalac. Ordean çorigaitz guiçon harentçat, ceiñen ganic heldu baida scandala.

[8] Baldiñetariac, bada, çure escuac edo çure oiñac scandalisatcen baçaitu, ebaqui çatcitçu eta egotz urrun çure ganic. Hobe da çuretçat bicitcean sar çaitecen manchar[38] edo maingu, ecen ez bi escuac edo bi çangoac ditutçula etchatua içan çaitecen su eternalerat. [9] Eta baldin çure beguiac scandalisatcen baçaitu, iraz çaçu eta arthik urrun çuganic; hobe da çuretçat begui bakhar batequien sar çaitecen bicitcean, ecen ez bi beguiac ditutçula arthiquia içan çaitecen ifernuco surat.

[10] Beguirautçue chume hautaric bat ere mezpreçatcetic; erraten darotçuet ecen horien aingueruec ceruetan bethi dutela icusten ene Aita ceruetan denaren bisaya. [11] Ecen Guiçonaren Semea ethorri içan da galdua cena salbatcerat. [12] Cer çaitçue? Baldin guiçon batec balitu ehun ardi eta hetaric bat errebelatcen balitçayo, ez lioaque laur hogoy eta hemeretciac mendietan utciric bilhatcerat errebelatu içan çayoena? [13] Eta guerthatcen baldin bada aurkhi deçan, erraten darotçuet eguia: Bozkario guehiago duela hartaz, ecen ez laur hogoy eta hemeretci errebelatu ez direnez. [14] Hala ez da çuen Aita ceruetan denaren borondatea gal dadin chume hautaric batere.

[15] Baldiñetariac, bada, çure anayac bekhatu eguiten badu çure contra, çohaz eta eracuts dioçoçu bere falta çure eta haren artean particularrean. Aditcen baçaitu, irabaci duqueçu çure anaya. [16] Baiñan aditcen ez baçaitu, har çatçu oraiño ceure-

38. *Man-* eta *-har* silaben arteko letra edo silaba ezin daiteke irakur. *Manu ihar* ote dio? Leizarragak ez digu ezer argitzen, "...mainguric edo escu bakoitzdun..." baitio; eta Lhandek ez dakar *manchar.*

quien pressuna bat edo bia, gauça gucia egon dadin bi edo hirur lekhucoen ahoan. [17] Baldinetariac hec ere aditcen ez baditu, erroçu Eliçari; eta aditcen ez badu Eliça ere, beha dioçoçu pagano bati eta publicano bati beçala. [18] Erraten darotçuet eguia: Cer ere amarratuco baiduçue lurraren gaiñean, eta hura amarratua içanen da ceruan ere; eta cer ere desamarratuco baiduçue lurraren gaiñean, eta hura desamarratua içanen da ceruan ere.

[19] Berriz ere darotçuet erraten, baldinetariac çuetaric bia acort badire elkharrequien lurraren gaiñean, cer nahi galdetuco duquetenen gauçaren gaiñean, ardietxico dutela ene Aita ceruetan dena ganic. [20] Non ere ecen içanen baidire bia edo hirur bilduac ene icenean, han naiteque hequien erdian".

[21] Orduan hurbildu cen Piarres haren ganat eta erran cioen: "Jauna, cenbat alditaraiñocoan offensatu nauenean ene anayac barkhatu beharco diot? çazpitarainocoan?". [22] Jesusec ihardesten dio: "Ez darotçut erraten çazpitaraiñocoan, baiñan hirur hogoi eta hamarretan çazpitaraiñocoan.

[23] Hargatic da ceruetaco Erresuma comparatua erregue batequien, ceiñec nahi içan baitçaroen contu errendaraci bere sehiei; [24] eta contuen hartcen hassi cenean, ekharri cioten aitciñerat bat, ceiñac çor baitciotçan hamar milla talentu. [25] Nola bada ezbaitçuen bihurtcecoric, manatu içan çuen haren naussiac sal ceçatela hura, haren emastea, haren haurrac eta harc cituen guciac, eta bihuraraz cioçotela çor çuena. [26] Sehi harc bere burua haren oiñetarat etchaturic othoizten çuen, erraten cioela: Jauna, har dieçadaçu passientcia [39] eta guciac pagatuco darozquitçut. [27] Sehi haren naussiac, bada, urricalmendu harturic hartaz, utci çuen goaterat eta barkhatu içan cioen bere çorra.

[28] Ilkhitcean bada handic sehi hura, aurkhitu çuen bere sehi lagun bat ehun denario çor ciotçana, eta lephotic itho hurrena çarabillan, erraten cioela: Bihur dieçadac çor darotacana. [29] Eta sehi lagun harc bere burua haren oiñetarat arthiquiric, othoizten çuen erraten cioela: Duçun aphur bat passientcia eta guciac pagatuco darozquitçut. [30] Baiñan harc ez çuen nahi içan aditu ere; aitcitic goan cen eta emanaraci çuen presso, bihur cioçoquen artean çor cioena. [31] Icussiric, bada, haren sehi lagunec cer iragaten cen, pena handi bat hartu çuten eta ethorri citçaizcon bere naussiari erraterat iragan ciren guciac. [32] Orduan erakharri çuen bere naussiac eta erran cioen: Sehi gaixtoa, barkhatu içan daroat çor ninduan gucia, ceren othoiztu içan nauan. [33] Ez citçaican, bada, hiri ere urricaldu behar hire sehi laguna, niri hi urricaldu hatçaitan [40] beçala? [34] Eta hassarraturic eman içan çuen bere naussiac burreuen escuetarat, çor cioen gucia paga cioçon artean. [35] Horlache eguiñen darotçue çuei ere ene Aita ceruetacoac, baldinetariac çuetaric bat bederac barkhatcen ez badioçue çuen anayari bihotz onez".

39. *Passientcia:* hala dago hemen eta bestetan idatzia. Ikus hiru bertsotxo beherago: 29.
40. *Hatçaitan* ala *hatçaidan?* Zuzendua dago, baina lehena gelditu dela dirudi.

XIX. Cap.

[1] Jesus, akhabatu ondoan solhas horiec, goan içan cen Galileatic; eta ethorri cen Judeaco basterretarat Jordango bertce alderat. [2] Jarraiqui citçaizcon jende tropela hainitz eta sendatu içan cituen hequien eriac. [3] Hurbildu citçaizcon, bada, pharisauac ere hura tentatu nahiz eta erran içan cioten, hea cilhegui othe citçayoen guiçon bati bere emastea uztea cernahiren gatic. [4] Ihardetsi içan çaroen eta erran: "Ez duçue iracurri, hastetic guiçona eguin çuenac guiçona eta emastea eguin cituela eta erran içan çaroela: [5] Arroçoin horren gatic utcico ditu guiçonac bere aita eta ama eta atchiquico du bere emastearequien eta içanen dire biac bat haragui batean? [6] Eta hala gaurgoro ez dire bia, baiñan haragui bat; beraz Jaincoac juntatu içan duena guiçonac ez beça aparta". [7] Hec berriz erran cioten: "Cergatic, bada, exleitu içan du [41] eman daquioela emasteari separacioneco escribua eta utz dadilla?". [8] Ihardetsi çaroen: "Çuen bihotcen gogortassuna dela causa permetitu içan darotçue Moisec çuen emasteac utztea; baiñan hastetic ez da horla içatu. [9] Bada erraten darotçuet: Norc ere utzten baidu bere emastea, adulterioaren casuz landan, eta hartcen baidu bertce bat, adulterioa eguiten duela; eta bertce batez utcia içan denarequien ezcontcen denac ere, adulterioa eguiten duela". [10] Bere dizcipuluec erraten diote: "Guiçonaren condicionea emastearen alderat horlacoa baldin bada, ez da on ezcontcea". [11] Erran içan çaroen: "Ez dire guciac gai hortacotz, haiñac baicen, ceinei eman içan baitçaye cerutic. [12] Badire ecen ebaquiac bere amaren sabelean danic halaco sorthu direnac; badire ebaquiac, guiçonec hala eguin dituztenac, eta badire berac ebaquitçat eguin içan direnac ceruetaco Erresuma irabaztea gatic. Har ahal deçaquenac hori, har deçala".

[13] Orduan ekharri ciotçaten haur chume batçu, escuac pausa ciotçaten amoreagatic buruen gaiñean, eta hequientçat othoitz eguin ceçan gatic; eta dizcipuluec arbuyatcen baitcituzten, [14] Jesusec erran içan çaroen: "Utçatçue haur horiec eta ez detçatçuela debeca ene ganat ethortcetic; horlacoena da ecen ceruetaco Erresuma". [15] Eta escuac hei pausatu ondoan, goan cen handic.

[16] Dembora berean guiçon gaste bat hurbildu citçayoen eta erran cioen: "Naussi ona, cer ungui eguin behar nuque bicitçe eternala ardiexteco?". [17] Jesusec ihardetsi içan cioen: "Cergatic deitcen nauçu ona? Jaincoa bera da bakharra ona dena; nahi baduçu, bada, bicitcean sarthu, beguira çatçu manamenduac". [18] Galdeguin cioen: "Cein manamendu?". Jesusec erran cioen: "Ez duçu nihor hillen, ez

41. Hemen *Moysec* edo itzuri zaio, agian.

duçu eguinen adulterioric, ez duçu ebatsico, ez duçu erranen faltso testimonioric, [19] ohora çatcitçu çure aita eta çure ama eta maita çaçu çure lagun proximoa çeure burua beçala". [20] Erran cioen guiçon gaste harc: "Horiec guciac goardatu ditut ene gastedassunetic; cer dut oraiño escas?". [21] Jesusec erran içan cioen: "Nahi baduçu içan perfet, çohaz, sal çatçu ditutçunac eta emotçute pobreei, eta içanen duçu thresor bat ceruan; eta guero çato, jarraiq çaquizquit niri". [22] Aditu çuenean, bada, guiçon gaste harc hitz hori, goan cen guciz tristatua, ceren ontassun handien jabe baitcen.

[23] Eta Jesusec erran çaroen bere dizcipuluei: "Erraten darotçuet eguia: Aberats bat nekhez sarthuco dela ceruetaco Erresuman. [24] Berriz ere darotçuet erraten: Errechago da camelu bat iragatea orratz baten chillotic, ecen ez aberats bat sartcea ceruetaco Erresuman". [25] Adituric horiec, Apostoluac balditu içan ciren handizqui, cioten ecen: "Nor salba ahal daiteque, beraz?". [26] Jesusec, bada, behaturic erran çaroen: "Guiçonentçat hori ecin eguina da; ordean Jaincoarentçat guciac eguinquidin dire".

[27] Orduan Piarressec hitça harturic, erran içan cioen: "Huna guc non utci ditugun guciac eta jarraiqui gaitzquitçun; cer içanen dugu bada sari?". [28] Jesusec bada erran çaroen: "Erraten darotçuet eguia; çuec, niri jarraiqui çaizquidatenac, Regeneracioneco demboran, Guiçonaren Semea jarrico denean bere Majestatearen thronuan, jarrico çaretela çuec ere hamabi thronuen gaiñean eta juyatuco ditutçuela Israelgo hamabi leinuac. [29] Eta norc ere utcico baiditu bere etchea edo bere anayac edo arrebac edo bere aita edo ama edo bere emaztea edo bere haurrac edo bere lurrac ene icena gatic, haiñac içanen duela ehunetan hainbertce eta bicitce eternalaren jabe içanen dela. [30] Hainitz, bada, içanen dire lehenbici cirenac azquen eta azquen cirenac lehenbici".

XX. Cap.

[1] Ceruetaco Erresuma comparatcen da familiaco aita batequien, ceina ilkhi baitcen goiz goicetic languilleac eguiterat bere mahatsticotz. [2] Eta languilleèquien accordaturic denario batean egunecotz, igorri içan cituen bere mahastirat. [3] Ilkhiric oraiño hirurgarren orentsuan, icussi cituen bertce batçu plaçan alfer ceudecenac, [4] eta erran çaroen: "Çohazte çuec ere ene mahastirat eta emanen darotçuet behar dena". [5] Eta goan ciren. Ilkhi cen, bada, berriz ere seigarren orentsuan eta bederatci garrenean ere eta gauça bera eguin içan çuen. [6] Fiñean ilkhi içan cen hamecagarren orenaren inguruan, eta aurkhituric bertce batçu han ceudecenac deus eguin gabe, erran çaroen: "Cergatic çaudete hemen egun gucian alfer deus eguin gabe?". [7] Ihardetsi cioten hec: "Nihorc ez baigaitu eraman". "Çohazte", erran çaroen, "çuec ere ene mahastirat". [8] Arratsa ethorri denean, bada, mahastiaren jabeac erraten dio bere etcheguiçonari: "Deit çatcitçu languilleac eta emoçute jornala, hassi azquenecoetaric eta lehenbicicotaraiño". [9] Hamecagarren orensuan ethorri cirenec, bada, içatu çuten denario bana. [10] Lehenbicicoac berriz ethorri cirenean, uste içatu çuten içanen çutela guehiago, baiño [42] hec ere ez çuten içatu denario bana baicen. [11] Eta hura hartcean, erantçuten çuten familiaco aitaren contra, [12] ciotela: "Azqueneco hauc ez dire haritu lanean oren batez baicen eta gure berdin eguiten ditutçu, ceiñec jassan içan baidugu egunaren eta beroaren carga". [13] Baiñan harc errepustatçat erran içan cioen hetaric bati: "Adisquidea, ez darotçut eguiten bidegaberic; ez çare accordatu enequien eguneco denario batean? [14] Har çaçu çure dena eta çohaz; nic nahi diot eman azqueneco huni ere çuri beçambat; [15] ala ez çait cilhegui nahi dudana eguitea? ala ceren naicen ni on, çare çu bekhaizti? [16] Horlache içanen dire azquenac lehen eta lehenac azquen; hainitzac dire ecen deithuac, gutiac ordean hautatuac".

[17] Jerusalemerat ciohala bada Jesus, hartu cituen hamabi dizcipuluac aparterat eta erran çaroen: [18] "Huna non goacen Jerusalemerat eta Guiçonaren Semea libratua içanen çaye aphecen princeei eta scribauei, ceinec condenatuco baidute heriotcerat. [19] Eta libratuco diote gentillei hartaz burla eguin deçatentçat eta açota deçatentçat eta gurutcefica deçatentçat; eta bitztuco da hilletaric hirur garren egunean".

[20] Orduan hurbildu citçayoen Zebedearen semeen ama bere bi semeequien eta adoratu içan çuen, marcaturic cerbait nahi cioquela galdetu. [21] Erran içan

42. *Baiño* idatzi du hemen, ez *bainan*, ez *baina*.

cioen: "Cer nahi duqueçu?". "Erraçu", diotso harc, "ene bi seme hauc içan daitecen jarriac bata çure escuiñean eta bertcea çure ezquerrean çure Erresuman". [22] Ihardetsi çaroen, bada, Jesusec eta erran: "Ez daquiçue cer galdetcen duçuen. Edan deçaqueçue nic edan behar dudan calixetic?". Erran cioten hec: "Edan deçaquegu". [23] Harc berriz erran çaroen: "Hala da. Ene calixetic edanen duçue; ordean ene escuiñean edo ezquerrean jartcea ez da ene baitan çuei ematea, baiñan hainentçat içanen da, ceinei preparatu baidaroe ene Aitac". [24] Eta hori adituric bertce hamarrec, hassarratu ciren bi anayen contra. [25] Jesusec, bada, erakharri cituen bere ganat eta erran çaroen: "Badaquiçue gentillen princeac naussitcen çaiztela eta hequien artean handien direnec escudantciarequien tratatcen dituztela. [26] Ez da hala içanen çuen artean; baiñan norc ere nahico baidu içan çuen artean handien, içan bedi haiña çuen cerbitçari; [27] eta norc ere nahico baidu içan çuen artean lehenbicico, içan bedi haiña çuen sehi. [28] Hala nola Guiçonaren Semea ez baida ethorri içan cerbitçatua içaterat, baiñan bai cerbitçatcerat eta bere bicia ematerat hainitcen erresquetamenduarentçat".

[29] Jerichotic ilkhitcen hari cirela, jarraiqui citçaizcon jende aralde hainitz. [30] Eta bi itsu basterrean ceudecenac adituric Jesus iragaten cela, hassi citçaizcon oihuz erraten ciotela: "Jauna, Daviden Semea, gaitçatçun [43] urricari". [31] Populuac, bada, mehatchatcen cituen ichillaraci nahiz, baiñan hec oraino oihua gorago çaramaten erraten ciotela: "Jauna, Daviden semea, gaitutçun urricari". [32] Orduan Jesus tricatu cen eta erakharriric, erran çaroen: "Cer nahi duçue eguin dieçaçuedan?". [33] "Jauna", erran cioten hec, "gure beguiac argui daitecen". [34] Urricaldu citçaizcon bada Jesusi, uquitu ciotçaten beguiac eta berehala bista ethorri citçayen eta jarraiqui citçaizcon.

43. Hemen *gaitçatçun* eta hurrengo bertsotxoan *gaitutçun*? Biek ondoan *urricari* dutenez gero, hizkuntzaren lege zaharrez bat okertzat jotzekotan lehena jo behar. Ikus Mt. XV, 22: *nauçun* urricari. Baina ikus Mc. IX, 21 ere, non *gaitçatçun urricari* irakurtzen baitugu berriz. Beraz hor ez da okerrik, baizik biak zuzen Haranederren hizkeran. Diodan bide batez gure *errukitu*-k eta Haranederren *urricaldu*-k *nor-nori*-koak trukatzen dituztela. Alegia, *Maritxu errukitu zitzaion Peruri* Haranederrek honela esango luke: *Peru urricaldu citçaion Maritxuri.* Bestela esan, *errukitu* "tener compasión de" baldin bada, *urricaldu* "inspirar compasión a" da. Ikus lau lerro beherago (34): "Urricaldu citçaizcon bada Jesusi"; Lk. XVII, 13 ("urrical gaquizquitçu"), etab.

XXI. Cap.

[1] Hurbildu içan cirenean Jerusalemerat eta ethorri Bettphagerat, Oliuetaco mendiaren ondorat, Jesusec igorri içan cituen bi dizcipulu, [2] erraten çaroelaric: "Çohazte çuen aitcinean den herrisca hortarat eta berehala aurkhituco duçue astaca bat eta haren umea harequien; lecha çaçue eta ekhar dieçadaçue. [3] Eta nihorc deussic erraten badarotçue, erroçue Jaunac hequien beharra duela eta berehala utcico darozquitçue". [4] Hori gucia, bada, eguin içan da, compli cedintçat profetaz errana içan cena, cioenean: [5] "Erroçu Siongo alabari: Huna çure Erregue non heldu çaitçun esti eta manso, astaca baten gaiñean jarria eta ustarriaren azpian dabillanaren umearen gaiñean".

[6] Dizcipuluac, bada, goan ciren eta eguin içan çuten Jesusec manatu çaroen beçala. [7] Eta ekharriric asto emea eta haren umea, eman cituzten hequien gaiñean bere arrobac eta jarraraci çuten gaiñean. [8] Jende tropa handi batec ere hedatu cituzten bere bestimendac bidearen gaiñean; bertce batçuc berriz arboletaric adarrac hautsiric, etchatcen cituzten harc iragan behar çuen biderat. [9] Jende hec guciac, bada, bai aitciñean cioaçonac eta bai ondotic heldu cirenac, oihuz ceudecen erraten çutelaric: "Hosanna, agur eta ohore Daviden Semeari. Benedicatua dadillala Jaunaren icenean heldu dena. Hosanna, agur eta gloria duela ceruetaco gorenean". [10] Eta sarthu içan cenean Jerusalemen altaratu içan cen hiri gucia, erraten çutelaric ecen: "Nor othe da hau?". [11] Populuec, bada, cioten: "Horiche da Jesus profeta Galileaco Nazarethecoa".

[12] Sarthu cen Jesus templuan eta cassatu cituen templuan saltcen eta erosten hari ciren guciac eta aurthiqui cituen moneda gambiatçailleen mahaiñac eta usso saltçailleen cadirac. [13] Eta erran çaroen: "Escribatua da: Ene etchea deithua içanen da othoitceco etchea; çuec ordean eguin duçue hartaz ohoin bancu bat".

[14] Eta ethorri citçaizcon itsuac eta mainguac templurat eta sendatu cituen. [15] Icussiric, bada, aphecen princeec eta scribauec harc eguin içan cituen miracuilluac eta haurrac oihuz cegozcola templuan eta erraten ciotela: "Hosanna, agur eta gloria Daviden Semeari", hassarratu içan ciren, [16] eta erran cioten: "Aditcen duçu cer erraten duten horiec?". Jesusec ihardetsi çaroen: "Bai bada; eta çuec ez duçue egundaiño iracurri nola den errana: Haur chumeetaric eta bulharrecoetaric athera duqueçu laudarioric perfetena?". [17] Eta hec han utciric, goan cen hiriaz camporat Bethaniarat eta egon cen han biharamuneraiño.

[18] Biharamun goicean, bada, hirirat bihurtcen cela, gossetu cen [19] eta icussiric fico ondo bat bide basterrean, goan cen haren alderat eta, ez baitcioen aurkhitu

ostoric baicen, erran cioen: "Sor ez dadillala hire ganic seculan fruitu garabic". Eta ihartu cen berehala fico ondoa.

[20] Hori icussiric harritu ciren dizcipuluac eta erran çuten: "Nola berehala ihartu içan othe da fico ondo hori?". [21] Orduan Jesusec erran çaroen: "Erraten darotçuet eguia: baldin fedea baduçue eta ez baçarete cordocatcen çuen gogoetan, ez solamente eguiñen duçue fico ondoaz eguiten icussi duçuena, baiñan erraten badioçue halaber mendi horri: Khen adi hortic eta arthiq adi itsassorat, eguiñen da. [22] Eta cer nahi othoitcean fedearequien galdeguiñen duçuen, gucia ardietsico duçue".

[23] Ethorri içan cenean templurat, hurbildu citçaizcon aphecen printceac eta populuaren cargudunac iracasten hari cen demboran eta erran cioten: "Cer authoritatez eguiten ditutçu gauça horiec? eta norc eman darotçu bothere hori?". [24] Jesusec ihardetsi içan çaroen eta erran: "Galde bat dut nic ere çuei eguiteco, ceiñaren gaiñean erraten badoratatçue [44] behar dena, nic ere erranen darotçuet cer authoritatez horiec eguiten ditudan. [25] Joannessen bathayoa nondicacoa cen? ceruticacoa ala guiçoneticacoa?". Bainan hec gogoetan ceudecen, ciotsatelaric bere baitan: [26] "Baldin ihardesten badugu cerutic cela, erranen darocu: Cergatic, beraz, ez duçue hura sinhetsi? Ihardezten baldin badugu berriz guiçonetaric cela, beldur içateco dugu populuaren". Guciec ecen Joannes profeta batentçat çaducaten. [27] Ihardetsi içan cioten, bada, Jesusi eta erran: "Ez daquigu". Eta harc ere hei ihardetsi içan çaroen: "Nic ere ez darotçuet erranen cer botherez eguiten ditudan horiec.

[28] Cer çaitçueque [45], bada, erratera nohatçuenaz? Guiçon batec cituen bi seme eta lehenbicicoari adreçaturic erran içan cioen: Ene semea, çohaz gaurco huntan ene mahastian lanean haritcerat. [29] Seme harc ihardetsi cioen eta erran: Ez dut nahi goan. Ondoan ordean urriquituric goan cen. [30] Ethorriric, bada, bertce semeaganat, erran içan cioen gauça bera; baiñan harc ihardetsi içan cioen: Banoha, Jauna. Eta ez cen goan. [31] Bi hetaric ceiñec eguin içan du aitaren nahia?". "Lehenbicicoac", diotsate. Jesusec berriz erran çaroen: "Erraten darotçuet, eta hala içanen da, publicanoac eta emaste galduac aitcinduco çaitzquitçuela Jaincoaren Erresumarat. [32] Ethorri içan çaitçue ecen Joannes justiciaren bideaz eta ez duçue sinhetsi; publicanoec eta emastequi galduec aitcitic sinhetsi dute; eta çuec hori icussi arren, ez duçue içan urriquiric ondoan, ez sinhesteric.

[33] Adi eçaçue bertce parabola bat [46]: Guiçon bat familiaco aita, ceiñec landaturic mahasti bat, inguratu içan baitçuen hessi batez eta eguin baitcituen lurrean barna han dolareac eta bastitu içan baitçuen dorre bat; guero mahastiçain batçuei allocaturic, goan içan cen atce herri batetarat. [34] Hurbildu cenean, bada, fruituen dembora, igorri içan cituen bere sehiac mahasti çaiñetarat, mahastico fruituen altchatcerat. [35] Baiñan mahasti çainec harturic haren sehiac, cehatu içan çuten

44. Hala dio, baina agian *badaro-* behar du izan.
45. Ikus Mt. XVII, 24; XVIII, 12; XXVII, 65.
46. Hemen ere *bacen* edo *cen* soila, agian, idatzi gabe utzi du.

bat, hill çuten bertce bat eta harricatu bertce bat. [36] Igorri içan cituen bertce sehi batçu, lehenbicicoac baiño guehiago are, eta manera berean tratatu içan cituzten hec ere. [37] Azquenean igorri içan çaroen bere semea bere baitan cioelaric: Aguian errespetatuco dute ene semea. [38] Baiñan mahastiçainec icussiric semea, erran içan çuten bere artean: Huna primua; çatozte, hill çagun eta horren primuaren jabe içanen gare. [39] Eta harturic arthiqui çuten mahastiaz camporat eta hil çuten. [40] Ethorrico ditequenean, beraz, mahastiaren jabea, cer eguiñen othe daroe mahastiçain hei?". [41] Ihardesten daroe hec: "Gaixto hec galaracico baiditu dohacabequi eta bere mahastia allocatuco baidaroe bertce mahastiçain batçuei, hango fruituac bere demboretan bihurtuco diotçatenei". [42] Jesusec erran çaroen berriz: "Ez duçue egundaiño iracurri Escrituretan errana: Bastitcen hari cirenec arbuyatu içan duten harri hura bera eguin içan da horma bethetçat; Jaunaz eguina içan da hori eta miragarri ere çaye gure beguiei?

[43] Hargatic darotçuet erraten khenduco çaitçuela Jaincoaren Erresuma çuei eta emanen çayoela populu bati, hango fruituac ekharrico dituenari. [44] Harri haren gaiñerat erorico dena hautsico da; eta nori ere erorico baitçayo berriz hura gaiñerat, eta haiña lehertuco du". [45] Aditu cituztenean aphecen princeec eta pharisauec Jesusen parabolac, eçagutu çuten hetaz mintço cela, [46] eta hartu nahi baitçuten, populuaren beldur içan ciren, ceren profeta batentçat baitçaducaten.

XXII. Cap.

[1] Jesusec oraiño paraboletan mintço cela, erran içan çaroen: [2] "Ceruetaco Erresuma comparatcen da erregue batequien, ceiñec eguin içan baitcituen bere semearen estayac [3] eta igorri bere cerbitçariac, estayetarat gombidatuac cirenac erakhartcerat; baiñan hauc ez çuten nahi içan ethorri. [4] Berriz ere igorri içan cituen bertce sehi batçu eta erran çaroen: Erroçue gombidatuac direnei: Ene bazcaria preparatua dut, ene idiac eta guicenaraci ditudan gauçac hillac dire eta gauça guciac prest; çatozte estayetarat. [5] Baiñan hec casuric eguin gabe, goan ciren, bata bordarat, bertcea bere mercatalgorat, [6] bertceec berriz hartu cituzten haren sehiac eta affruntuz bethe ondoan, hill cituzten. [7] Erreguec bada hori adituric, iraquitu çuen coleraz eta, bere armadac igorriric, suntsiaraci cituen guiçon hiltçaille hec eta erre çuen hequien hiria. [8] Orduan erran çaroen bere sehiei: Estayac bada preparatuac dire, baiñan gombidatuac cirenac ez ciren digne ethortceco. [9] Çohazte beraz bide cantoiñetarat, eta aurkituco [47] dituzquetçuen guciac erakhatçue estayetarat. [10] Eta haren sehiac ilkhiric bideetarat, bildu cituzten aurkhitu içan cituzten guciac, onac eta gaixtoac, eta estayetaco sala bethe içan cen arrotcez. [11] Sarthu cen, bada, erregue mahaiñean cirenen icusterat eta, icussiric han guiçon bat estayetaco arropaz bestitua ez cena, [12] erran cioen: Adisquidea, nola sarthu çare hemen estay arroba gabe? Eta guiçon hura guelditu cen mutu. [13] Orduan erran içan çaroen erreguec bere jendei: Escuac eta çangoac amarraturic arthic çaçue campoco ilhunbeetarat; han içanen dire nigarrac eta hortz carrascac. [14] Hainitçac dire ecen deithuac eta gutiac hautatuac".

[15] Orduan goan ciren pharisauac eta hartu çuten chedea, hura bere hitcetaric atcematecoa. [16] Igorri ciotçaten, bada, bere dizcipuluac herodiarrequien batean erraterat: "Naussia, badaquigu eguiatia çarela eta Jaincoaren bidea eguiaz iracasten duçula, nihortaz antsia içan gabe; ez duçu ecen eguiten guiçonen artean pressunen berezcoric. [17] Erraguçu beraz çure iduria: Cilhegui çaicu Caesarri [48] pagatcea tributua ala ez?". [18] Jesusec ordean eçaguturic hequien malecia, erran çaroen: "Hypocritac, cergatic tentatcen nauçue? [19] Eracuts dieçadaçue tributuarentçat ematen duçuen dirua". Eta hec eracutsi içan baitcioten denario bat, [20] Jesusec erran çaroen: "Norena da imagina hau eta gaiñean escriuatua den icena?". [21] "Caesarena", diotsate hec. Orduan Jesusec erran çaroen: "Bihur diotçatçue, beraz, Caesari

47. Beste guztietan *aurkhitu* dio.
48. Hemen *Caesarri* dio; aldiz lerro batzu beherago *Caesarena* eta *Caesari*.

Caesari dagozconac eta Jaincoari Jaincoari dagozconac". [22] Eta aditu çutenean hori, miretsi çuten haren errepusta eta goan ciren hura utciric.

[23] Egun hartan berean igorri içan citçaizcon sadducearrac, ceiñec baidiote ez dela hillen bitzteric, eta eguin cioten galde bat, [24] erraten ciotelaric: "Naussia, Moisec exleitu içan du norbait hiltcen baldin bada haurric içan gabe, esposa deçala haren anayac haren emastea eta eman diotçala haurrac bere anaya cenari. [25] Ciren, bada, gure artean çazpi anaya eta lehenbicicoa emaste batequien ezcondu eta hill cen eta, ez baitçuen haurric, utçi içan cioen bere emastea bere anayari. [26] Gauça bera içan cen bigarrenaz, hirurgarrenaz eta çazpitaraiñoco guciez. [27] Azquenic eta gucien ondoan hill içan da emaste hura. [28] Hillen bitztea ethorrico denean, beraz, çazpietaric ceiñena içanen da emastea? Ecen guciena içatu da". [29] Jesusec, bada, ihardetsi içan çaroen eta erran: "Enganatcen çarete ez jaquinez Escriturac eta cer den Jaincoaren botherea. [30] Hillac bitztuco diren ondoan ecen, ez dute içanen guiçonec emasteric, ez emasteec senharric, baiñan içanen dire Jaincoaren aingueruac beçala ceruan. [31] Hillen bitzteaz denaz beçambatean, ez duçue iracurri nola erran içan darotçuen Jaincoac: [32] Ni naiz Abrahamen Jaincoa, Isaaquen Jaincoa eta Jacoben Jaincoa? Bada Jaincoa ez da hillen Jaincoa, bai ordean biciena". [33] Eta populuac hori adituric, miresten çuen haren doctrina.

[34] Baiñan pharisauec, adituric sadducearrac ichilaraci cituela, bildu ciren elkhar ganat, [35] eta hetaric batec, legueco dotor ere cenac, eguin içan cioen galde hau hura atceman nahiz: [36] "Naussia, cein da legueco manamendu handia?". [37] Jesusec ihardetsi içan cioen: "Maitatuco duçu çure Jainco Jauna çure bihotz guciaz, çure arima guciaz eta çure izpiritu guciaz. [38] Hori da manamenduetaric handiena eta lehena. [39] Bigarrena, berriz, eta horren parecoa dena da: Maitatuco duçu çure lagun proximoa, ceure burua beçala. [40] Bi manamendu horietan çarratcen dire legue gucia eta profetac".

[41] Bilduac baitciren bada pharisauac, eguin çaroen Jesusec galde hau, [42] erraten çaroela: "Cer uste duçue Christoz, noren semea dela?". Ihardetsi cioten hec: "Davidena". [43] Eta bada erran çaroen: "Nola, bada, Davidec Izpirituz deitcen du bere Jauna, dioelaric: [44] Jaunac erran içan dio ene Jaunari: jar çaite ene escuineco aldean, eçar detçaquedan artean çure etsayac çure oiñen azpico escabeltçat? [45] Baldin, beraz, hura deitcen badu bere Jauna, nola diteque haren semea?". [46] Eta nihorc ecin ihardetsi cioen hitz bat eta egun hartaz guerostic nihor ez cen atrebitu guehiago hari galderic eguiterat.

XXIII. Cap.

[1] Orduan Jesus mintçatu citçayen populuari eta bere dizcipuluei, [2] erraten çaroelaric: "Moiseren cadiran jarriac dire escribauac eta pharisauac. [3] Beguira çatcitçue eta eguitçue, beraz, hec erraten darozquitçueten guciac; ordean ez çaçuela eguin hec eguiten dutena, ecen erraten dute cer eguin behar den eta berec ez eguiten. [4] Amarratcen dituzte ecen carga pissuac eta ecin jassanezcoac eta eçartcen guiçonen soiñetarat; berec ordean ez dituzte nahi erriaz [49] higuitu ere. [5] Bere obra guciac eguiten ere dituzte, guiçonez behatuac içatea gatic; ekhartcen dituzte ecen bergamio cherrendac bertceèc baiño çabalagoac, eta arroben pertaletaco franjac bertceec baiño luceagoac. [6] Lakhet dute jancorretan lehenbicico plaçac içatea eta sinagoguetan lehenbicico cadirac, [7] plaça bethean agurrac errecibitcea eta guiçonez naussitçat deithuac içatea. [8] Çuec ordean ez deçaçuela desira deith çaitçaten naussiac; naussi bat baicen ez duçue ecen, eta çuec guciac anayac çarete. [9] Ez çaçuela deith nihor lurraren gaiñean çuen aita; Aita bat baicen ez duçue ecen, ceiña baida ceruetan. [10] Ez detçatçuela utz ceben buruac deitcerat naussiac, cergatic çuen naussi bakharra Christo baida. [11] Çuen artean handien dena içanen da çuen cerbitçari. [12] Ecen nor ere goratuco baida, eta hura beheititua içanen da; eta nor ere beheitituco baida, eta hura içanen da altchatua.

[13] Çorigaitz bada çuentçat, escribau eta pharisau hypocritac, cergatic çarratcen baidioçue guiçonei ceruetaco Erresuma; ecen ez çarete sartcen cebonec eta ez ditutçue uzten sartcerat sarthu nahi luquetenac. [14] Çorigaitz çuentçat, escribau eta pharisau hypocritac, ceren iresten baiditutçue allargunen [50] etcheac, çuen oracione luceen atcequian; horren gatic duçue içanen juyamendu garratçago bat. [15] Çorigaitz çuentçat, escribau eta pharisau hypocritac, ceren itsassoz eta leyhorrez baitçabiltçate judu berri bat eguitea gatic; eta eguin ditequenean, errendatcen baiduçue ifernuco seme, cebonec baiño dobleaz areago.

[16] Çorigaitz çuentçat, guidari itsuac, ceiñec erraten baiduçue: Baldiñetariac nihorc eguiten badu juramentu tenpluaz, hori ez da deussic; ordean baldin eguiten badu juramentu templuco urreaz, çor duque. [17] Errhoac [51] eta itsuac, cer da ecen guehiagocoa, urrea ala templua, urrea santificatcen duena? [18] Eta bardin dioçue: Nihorc eguiten badu juramentu aldareaz, hori deussic ez da; ordean eguiten badu

49. Gorago (ik. V, 22) esan bezala, *erhiaz* > *erriaz*; ikus Mt. XIII, 33 ere.
50. *-rh-* > *-rr-* bezala *-lh-* ere > *-ll-*: ikus *alhargun*, Mc. XII, 40.
51. Lehen (V, 22) *erhoa* > *erroa* aipatu dugu; hemen *errhoac* idatzi du.

juramentu aldarearen gaiñean den offrendaz, çor du. [19] Itsuac, cer da handiago, offrenda ala aldarea, emaitça santificatcen duena? [20] Norc ere, beraz, eguiten baidu juramentu aldareaz, eguiten du juramentu hartaz eta haren gaiñean den guciaz. [21] Eta norc ere eguiten baidu juramentu templuaz, eguiten du juramentu hartaz eta bere egoitça han eguiten duenaz. [22] Eta ceruaz juramentu eguiten duenac, eguiten du juramentu Jaincoaren thronuaz eta hartan jarria dagoenaz. [23] Çorigaitz çuentçat, escribau eta pharisau hypocritac, ceiñec pagatcen baiditutçue mendaren, milhuaren eta cuminaren hamarrenac, eta uzten legueac dituen gauçaric importantenac, justicia eta misericordia eta fedea; hauc behar ciren eguin, ordean bertceac utci gabe. [24] Guidari itsuac, çuen edatecoa irazten duçuenac, uli chume bat iresteco beldurrez, eta camelu bat iresten duçuenac!

[25] Çorigaitz çuentçat, pharisau eta escribau hypocritac, ceren chahutcen baiduçue choperaren eta plataren campoco aldea, barrenean ordean betheac baitçarete ohoinqueriaz eta lohiqueriaz. [26] Pharisau itsua, chahu çaçu lehenic choperaren eta plataren barneco aldea, campoco aldea ere içan dadintçat chahua. [27] Çorigaitz çuentçat, pharisau eta escribau hypocritac, ceren thomba churitu batçuen pare baitçarete, ceiñac campotic guiçonei ederrac iduritcen baitçaizte, eta barnean betheac baidire hillen heçurrez eta haxqueria suerte guciez. [28] Hala çuec ere campotic iduritcen çaizte guiçonei justuac; barnean ordean betheac çarete hypocrisiaz eta gaixtaqueriaz. [29] Çorigaitz çuentçat, escribau eta pharisau hypocritac, ceinec bastitcen baidiotçatçue tombac profetei eta berreguintcen baiditutçue justuen ehortzlekhuac, [30] eta erraten baiduçue: Gu içan baguine gure aiten demboretan, ez guinduen hec beçala issurico profeten odola. [31] Hortic beretic lekhucotassuna bihurtcen duçue ceben buruen contra, profetac hill içan dituztenen umeac çaretela. [32] Hala akhaba çaçue mucuratceaz ere çuen aiten neurria.

[33] Sugue biperen arraçac, nola escapa çaitezquete ifernurat condenatuaç içatetic? [34] Hargatic, bada, banohazquitçue igortcerat profetac, çuhurrac eta escribauac, eta hetaric batçu hillen ditutçue, bertceac gurutceficatuco ditutçue, bertce batçu açotatuco ditutçue çuen sinagoguetan eta perseguituco ditutçue hiriz hiri, [35] ethor dadintçat çuen gaiñerat lurraren gaiñean issuri içan den odol innocent gucia, hassi Abel justuaren odoletic eta Zachariaz, Barachiasen semearen, odolerainocoa, ceiña hill içan baiduçue templuaren eta aldarearen artean. [36] Erraten darotçuet eguia; Horiec guciac ethorrico dire jenderacione hunen gaiñerat.

[37] Jerusalem, Jerusalem, profetac hiltcen ohi ditunana eta hire ganat igortcen direnac harricatcen ditunana. Cembat aldiz nahi içan ditiñat biribilcatu hire umeac, oillo batec bere chitoac bere hegalen azpirat biltcen dituen beçala, eta hic ez dun nahi içatu? [38] Sarri, bada, guelldituco çaitçue etchea nihor gabe. [39] Erraten darotçuet ecen, ez nauçuela icussico gaur [52] guehiago, erran deçaqueçuen artean: Benedicatua dela Jaunaren icenean heldu dena".

52. Erdi ezabatua dago hitz hau.

XXIV. Cap.

[1] Jesus templutic ilkhiric ciohala, hurbildu citçaizcon bere dizcipuluac hari eracutsteco templuaren assentu ederrac. [2] Baiñan ihardetsi içan çaroen eta erran: "Icusten ditutçue horiec guciac? Erraten darotçuet eguia: halaco maneraz deseguiñac içanen dire, non ez baida guelldituco harria harriaren gaiñean". [3] Eta Olivetaco mendiaren gaiñean cegoela jarria, hurbildu citçaizcon bere dizcipuluac bakhartassunean eta erran içan cioten: "Erraguçu noiz guerthatuco diren gauça horiec eta cer içanen den seiñalea çu ethortcecoa eta mendeen akhabantçarena". [4] Ihardetsi içan çaroen Jesusec eta erran: "Beguirautçue cembaitec engana ez çaitçaten; [5] ethorrico dire ecen hainitz ene icenaren azpian, erraten dutelaric: Ni naiz Christo, eta enganatuco dute hainitz jende. [6] Adituco ere ditutçue guerlac et(a) guerlen ospeac; beguirautçue ordean altara ez çaitezten, ecen horiec arribatu beharrac dire, baiñan ez diteque oraiño akhabantça. [7] Altchatuco dire ecen populua populuaren contra eta erresuma erresumaren contra, eta içanen dire içurritceac, gosseteac eta hainitz lekhuetan lur ikharatceac. [8] Horiec guciac ditezque ondicoen hasteac. [9] Orduan libratuco çaituzte tormentatuac içateco, hillaracico çaituzte eta nacione guciez gaitcetsiac içanen çarete ene icenaren ariaz. [10] Dembora hartan hainitçac içanen dire erorico direnac; guiçonec tradituco dute eta higuinduco elkhar. [11] Eta altchatuco dire hainitz profeta falso, ceiñec enganatuco baidituzte hainitz presuna. [12] Eta nola gaixtaqueria handia içanen baida, halaber hotztuco da hainitcen caritatea. [13] Norc ere, bada, iraunen baidu azqueneraiño, eta hura içanen da salbatua. [14] Eta predicatua içanen da Erresumaco Evangelio hau mundu universo gucian, lekhucotassuntçat balia daquientçat nacione guciei, eta orduan içanen da akhabantça.

[15] Icussico duçuenean, bada, desolacionezco abominacionea, Daniel profetac aitciñetic errana lekhu Sainduan –iracurtcen duenac adi deçala–, [16] orduan Judean direnec ihes eguin beçate mendietarat, [17] etche estalquiaren gaiñean dena ez bedi jauts etchetic deussen eramaterat [18] eta larrean içanen dena ez bedi bihur bere arrobaren hartcerat. [19] Çorigaitz, ordean, emaste içorrentçat eta haurrac eredosquiten duquetenentçat[53] egun hetan. [20] Eguiçue bada othoitz, çuen ihescoa guertha ez dadin neguan edo sabbato egunean. [21] Içanen da ecen orduco tribulacionea hain handia, non ez baida içatu halacoric munduaren hastetic huneraiño eta ez içanen ere seculan. [22] Baldin laburtuac içan ez balire egun hec, ez cen salbatu-

53. Ikusi batera *dituzquetenentçat* –ikus adizki hau beheraxeago (33.)– behar lukeela dirudi. Eta aurrean *eredosquiten* ala *eradosquiten?* Ez dago garbi.

co guiçon garabic; ordean hautatuen amoreagatic laburtuac içanen dire egun hec. [23] Baldin orduan cembaitec erraten badarotçue: Huna Christo hemen da et(a) horra hor da, ez deçaçuela sinhetx, [24] ceren altchatuco baidire christo falsoac eta profeta falsoac, ceiñec eguiñen baidituzte hain prodigio handiac eta gauça espantagarriac, non enganatuac içan bailitezque, possible balitz, hautatuac berac ere. [25] Behintçat abisatcen çaituzquetet aitciñetic. [26] Baldiñetariac, beraz, erraten badarotçuete: Huna non den desertuan, ez çaiteztela ilkhi harat goateco. Baldin erraten badarotçuete: Huna non den etchearen choco batean, ez deçaçuela sinhetx, [27] ecen orientetic ilkhitcen den chismista bat occidenteraiño nola aguertcen da, eta hala içanen da Guiçonaren Semearen ethortcea. [28] Non ere içanen baida gorphutça, eta harat bilduco dire arranoac ere.

[29] Tribulacionezco egun hequien ondoan berehala iguzquia goibelduco da eta ilharguiac ez du emanen bere arguia; içarrac erorico dire cerutic eta ceruetaco bothereac cordocatuco dire. [30] Eta orduan aguertuco da Guiçonaren Semearen seiñalea ceruan; orduan lurreco populu guciac nigarretan eta auhenetan egonen dire eta icussico dute Guiçonaren Semea ethortcen ceruetaco hedoyetan, bothere eta majestate handirequien. [31] Eta igorrico ditu bere aingueruac trompeta soiñu eta habarrots handirequien, ceiñec bilduco baidituzte haren hautatuac munduaren laur cantoiñetaric, ceruco baster batetaric hassi eta bertceraiño.

[32] Ikhas çaçue, bada, parabola bat fico-arbolatic hartua; haren adarrac ja samurrac direnean eta direnean ostatcen, eçagutcen duçue uda hurbill dela. [33] Hala çuec ere horiec guciac icusten dituzquetçuenean, jaquiçue Guiçonaren Semea hurbill eta athean ere ditequela. [34] Erraten darotçuet eguia, ez dela akhabatuco jenderacione hau, non ez diren horiec guciac complitcen. [35] Cerua eta lurra iraganen dire, baiñan ene hitçac ez dire iraganen.

[36] Egun hura ordean eta oren hura nihorc ez daqui, ene Aitac berac baicen, ez eta ceruetaco aingueruec ere. [37] Noeren demboran guerthatu içan cena, bada, guerthatuco da Guiçonaren Semea dathorquenean. [38] Ecen nola uholdearen aitciñeco egunetan hari baitciren jendeac jaten eta edaten, ezcontcen eta bere umeen ezconaracitcen, Noe arcan sar citequen artean, [39] eta ez baitçuten eçagutu uholdearen ethortceco muga ethor citequen artean eta guciac eraman cetçaquen artean, hala içanen da Guiçonaren Semea dathorquenean ere. [40] Landan içanen diren bi guiçonetaric bata içanen da hautetsia eta bertcea utcia. [41] Errotan ehotcen hari diren bi emastetaric bata içanen da hautatua eta bertcea utcia. [42] Çaudete beraz atçarriac, ceren ez baidaquiçue cer orenez ethorrico den çuen Jauna.

[43] Jaquiteco duçue ecen, familiaco aitac baleaqui [54] cer mugaz ethorrico ditequen ohoiña, atçarria bide legoquela, eta ez leçaquela utz bere etchea cilhatcerat. [44] Hargatic, bada, çuec ere çaudete bethiere prest, ceren çuec uste ez duçuen orenean ethorrico baida Guiçonaren Semea.

[45] Ceiñ uste duçu dela cerbitçari leyala eta prudenta, bere naussiac eçarri

54. Ala *baliaqui* dio? Ez dago garbi. Liburuan barrena biak ageri dira.

duquena bere familiaren gaiñean, hei jaterat emateco bere demboran? [46] Dohatsua diteque cerbitçari hura, ceiña aurkhituco baidu bere naussiac horla hari dela. [47] Erraten darotçuet eguia, haiña bere ontassun gucien gaiñean ibenico duela. [48] Baldiñetariac, ordean, erraten badu cerbitçari gaixto harc bere baitan: Ez dago oraiño ethorriric ene naussia, [49] eta hasten bada cehatcen bere sehi lagunac eta jaten eta edaten hordiequien, [50] ethorrico da cerbitçari haren naussia iguriquitcen ez duen egunean eta harc ez daquien orenean, [51] eta aldaratuco du eta emanen dio bere partayatçat hypocritequien punitua içatea; han içanen dire nigarrac eta hortz carracadurac".

XXV. Cap.

[1] "Orduan ceruetaco Erresuma içanen da comparatua hamar Virginequien, ceiñac bere lampac harturic goan baitcitçaizten esposei aitcinerat. [2] Ciren, bada, hetaric bortz erhoac [55] eta bortz çuhurrac. [3] Bortz erhoec bere lampac hartcean ez çuten hartu olioric berequien. [4] Çuhurrec ordean hartu içan çuten olioa bere jarroetan lampequien batean. [5] Berantcen baitçuen, bada, esposac ethortcerat, logaletu ciren guciac eta loharcatu. [6] Baiñan gau erditan eguin içan cen oihu handi bat: Huna esposa non heldu den, çohazcote aitciñerat. [7] Orduan berehala altchatu ciren virgina hec guciac eta aphaindu cituzten bere lampac. [8] Erhoec, bada, erran cieten çuhurrei: Iguçue çuen oliotic; ceren gure lampac iranguitcen baitçaizquigu. [9] Çuhurrec ihardetsi cioten eta erran: Beldurrez guc duguna ez dadin asqui içan guretçat eta çuentçat, çohazte aitcitic salçailletarat eta eros çaçue behar duqueçuena. [10] Cihoacen bizquitartean, ethorri içan cen esposa eta prest cirenac sarthu ciren harequien estayetarat eta çarratua içan cen athea. [11] Noizbait, bada, ethorri içan ciren bertce virginac ere eta erran cioten: Jauna, Jauna, idecguçu. [12] Baiñan ihardetsi çaroen harc eta erran: Erraten darotçuet eguia: ez çaituztet eçagutcen. [13] Çaudete beraz atçarriac, ceren ez baidaquiçue eguna ez orena".

[14] "Jaunac eguiten du ecen guiçon batec beçala, ceiñac herriz camporat urrun goan behar eta, erakharri baitcituen bere cerbitçariac eta eman hequien escuetan bere ontassunac. [15] Bati eman ciotçan bortz talentu, bertceari bia eta bertce bati bat, batbederari bere gaidassunaren arauera; eta partitu cen berehala. [16] Goan cen, bada, bortz talentuac içan cituena, traficatu çuen diru harequien eta irabaci cituen bertce bortz. [17] Halaber bia içan cituenac ere irabaci cituen bertce bia. [18] Ordean bat baicen içatu ez çuena goan cen lurrean cilho bat eguiterat eta gorde çuen han bere naussiaren dirua. [19] Dembora handiaren buruan ethorri içan cen cerbitçari hequien naussia eta contu errendaraci çaroen. [20] Ethorriric bortz talentu errecibitu cituena, presentatu ciotçan bertce bortz ere erraten cioelaric: Jauna, eman içan darozquidatçu escuetan bortz talentu; huna hec eta bertce bortz irabaci içan ditudanac. [21] Erran cioen bere naussiac: Biondaguiçula, cerbitçari ona eta leyala; ceren gauça gutiren gaiñean leyal içan çaren, ibenico çaitut hainitcen gainean; sar çaite çure Jaunaren bozcarioan. [22] Ethorri cen guero bi talentu errecibitu içan cituena eta erran cioen: Jauna, bi talentu eman içan darozquidatçu

55. Ikus hemen lehen (XXIII, 17) ez bezala idatzirik.

escuetan; huna hec eta bertce bia guehiago irabaci içan ditudanac. [23] Erran çioen bere naussiac: Biondaguiçula, cerbitçari ona eta leyala, ceren gauça gutiren gaiñean leyal içan çaren, hainitcen gaiñean ifinico çaitut; sar çaite çure Jaunaren bozcarioan. [24] Ondoan ethorri cen talentu bakhar bat errecibitu içan çuena ere eta erran cioen: Jauna, badaquit guiçon çorrotz bat çarela, uztatcen duçula erein ez duçun toquian eta biltcen duçula deussic eman ez duçun toquian; [25] eta hala beldurturic goan naiz eta gordea atchiqui dut çure talentua lurrean barnea; huna non duçun çurea. [26] Baiñan ihardetsi içan cioen bere naussiac eta erran: Cerbitçari gaixtoa eta lachoa, baciñaquien uztatcen dudala erein ez dudan toquian eta biltcen dudala deussic arthiqui ez dudan lekhuan; [27] arren eman behar cinduen, beraz, ene diruan [56] gambiadoreen escuetan, ethorri eta erretiratuco bainuen irabaciarequien. [28] Khen dioçoçue, bada, hor duen talentua eta emoçue hamar talentuac dituenari, [29] ecen duen guciari emanen çayo eta içanen du franco; baiñan ez duenari duela diruriena ere khenduco çayo. [30] Eta arthicaçue cerbitçari alfer hori campoco ilhunbeetarat; han içanen dire nigarrac eta hortz carrascadurac.

[31] Noiz ere, bada, ethorrico baida Guiçonaren Semea bere majestatean aingueru guciac berequien dituela, jarrico da bere gloriaren thronuan. [32] eta bilduco dire nacione guciac haren aitcinerat eta apartatuco ditu batçu bertceen ganic, artçain batec ardiac akherren ganic aldaratcen dituen beçala, [33] eta eçarrico ditu ardiac bere escuiñeco aldean, akherrac berriz ezquerreco aldean. [34] Orduan erranen daroe erreguec bere escuiñecoei: Çatozte, ene aitaren benedicatuac; goça çaitezte munduaren hastetic preparatua içan çaitçuen Erresumaz. [35] Içan naiz ecen gosse eta eman darotaçue jaterat; içan naiz egarri eta eman darotaçue edaterat; içan naiz arrotz eta hartu nauçue etcherat; [36] nintcen bilhucia eta bestitu içan nauçue; nintcen eria eta bisitatu içan nauçue; nintçen pressondeguian eta ethorri çaizquidate icusterat. [37] Orduan ihardetsico dioquete justuec eta erranen: Jauna, noiz icussi çaitugu guc çu gosse ciñela eta eman darotçugu jaterat; egarri cinela eta eman darotçugu edaterat? [38] Noiz icussi içan çaitugu lekhortar [57] eta çaitugu hartu içan etcherat, edo bulhucia eta çaitugu bestitu? [39] Edo noiz icussi içan çaitugu eri edo presondeguian eta gaizquitçu ethorri icusterat? [40] Eta ihardetsico daroe erreguec: Erraten darotçuet eguia: noiz eta ere eguin içan baidioçue hori ene anaya chumeèn hautaric bati, niri neroniri eguin içan darotaçueque. [41] Ondoan, berriz, erranen daroe haren ezquerreco aldean içanen direnei: Çohazte ene ganic, madaricatuac, su eternalerat, ceiña preparatua içan baida deabruarentçat eta haren aingueruentçat. [42] Içan naiz ecen gosse eta ez darotaçue eman jaterat; içan naiz egarri eta ez darotaçue eman edaterat. [43] Içan naiz bideante eta ez nauçue hartu etcherat; nintcen bilhucia eta ez nauçue bestitu; nintcen eri eta pressondeguian eta ez çaizquidate ethorri icusterat. [44] Orduan ihardetsico dioquete hec ere eta erranen: Jauna, noiz icussi içan çaitugu guc çu gosse edo egarri edo arrotz edo

56. Hala dio, *dirua* esan beharrean.
57. Hala irakurtzen dut, gero (ik. Mt. XXVII, 7) *lekhortiarren* garbi dioen arren.

bilhucia edo eri edo presondeguian eta ez çaitugu lagundu? [45] Baiñan harc ihardetsico daroe: Erraten darotçuet eta hala da: noiz eta ere utci baiduçue chumeen hautaric bat lagundu gabe, ni neroni utci nauçueque. [46] Eta orduan goanen dire hauc suplicio eternalerat; justuac berriz bicitçe eternalerat".

XXVI. Cap.

[1] Jesusec akhabatu içan cituenean solhas horiec, erran çaroen bere dizcipuluei: [2] "Badaquiçue bi egunen ondoan içanen dela Bazco eta Guiçonaren Semea libratua içanen dela gurutceficatua içateco". [3] Orduan bildu ciren aphecen princeac eta populuaren arteco çaharrac aphez handi Caiphaz çaritçanaren salarat [4] eta atchiqui çuten batçarra Jesus fiñeciaz hartceco eta hillarazteco. [5] Cioten bada: "Ez da hori eguin behar bestaco demboran, beldurrez cerbait altaramendu içan ez dadin [58] populuaren artean".

[6] Bethanian cela, bada, Jesus Simon lepratsuaren etchean, [7] hurbildu cen haren ganat emastequi bat, alabaztrazco jarro bat escuan çuela unguentu preciatu batez bethea, eta mahaiñean jarria cegoela, issuri içan cioen buruaren gaiñerat. [8] Icussiric hori dizcipuluec hassarratu ciren eta erran çuten: "Certaco hori gal horla? [9] Sal citequen ecen unguentu hori garastia eta eman pobreei". [10] Ordean Jesusec hori jaquinic erran çaroen: "Cergatic eguiten dioçue damu emastequi huni? Obra on bat eguin du ene alderat. [11] Berdin bethi dituzquetçue pobreac çuequien; ordean ni ez nauçue bethi içanen. [12] Ecen hunec unguentu hori ene gorphutcerat arthiquitcean ene ehortzteari dagocala eguin içan du. [13] Erraten darotçuet eguia: Evangelio hau predicatua içanen den lekhu gucietan, erran nahi da mundu gucian, errana içanen da hunec eguin içan duena hunen orhoitçapenetan eta laudoriotan".

[14] Orduan goan cen hamabietaric bat Judas Iscariotez çaritçana aphecen princeetarat, [15] eta erran çaroen: "Cer nahi darotaçue niri eman, eta nic hura çuei emanen darotçuet escuetarat?". Eta hec condatu ciotçaten hogoi eta hamar denario. [16] Eta gueroztic atiçaren bilha cebillan hura hequien escuetarat emateco.

[17] Azimetaco lehenbicico egunean, bada, ethorri citçaizcon dizcipuluac Jesusi eta erran cioten: "Non nahi duçu prepara dieçaçugun Bazcoa jateco behar dena?". [18] Jesusec ihardetsi çaroen: "Çohazte hirirat hunelacoren ganat eta erroçue: Naussiac dio: Ene dembora hurbill da; çure etcherat heldu naiz ene dizcipuluequien Bazcoa eguiterat". [19] Eguin çuten dizcipuluec Jesusec manatu çaroen beçala eta preparatu içan çuten Bazcoarentçat behar cena.

[20] Arratsa ethorri cenean, bada, eman cen mahainean bere hamabi dizcipuluequien, [21] eta jaten hari cirela, erran çaroen: "Erraten darotçuet eta hala içanen

58. Ezabatua dagoela irudi lezake *ez* horrek, baina ikus Mt. XXVII, 64.

da; Çuetaric batec tradituco nau". [22] Tristaturic hortaz handizqui, hassi citçaizcon cein bere alde erraten: "Ni othe naiz, Jauna?". [23] Ihardetsi çaroen eta erran: "Enequien escua platerat ematen duena daiteque ni tradituco nauena. [24] Guiçonaren Semea behintçat badoha, hartaz escribatua içan den beçala; bainan çorigaitz guiçon harentçat, ceiñetaz traditua içanen baida Guiçonaren Semea. Hobe liteque haiñarentçat ez licen jayo egundaiño". [25] Hitça harturic bada Judassec, cein baitcen hura traditcen çuena, erran cioen: "Naussia, ni othe naiz?". Ihardetsi içan cioen Jesusec: "Erran duqueçu".

[26] Affaitan hari cirela, hartu çuen Jesusec oguia eta benedicaturic hautsi çuen eta eman çaroen bere dizcipuluei, çiotsotela: "Har çaçue eta jan çaçue: hau da ene gorphutça". [27] Ondoan harturic calixa, esquerrac bihurtu cituen eta eman çaroen, ciotsotela: "Edan çaçue huntaric guciec; [28] hau da ene odola ecen, aliencia berricoa, ceiña issuria içanen baida haiñitcentçat bekhatuen barkhamendutan. [29] Erraten darotçuet, bada, ez dudala edanen hemendic harat mahastico fruitu huntaric, çuequien berriro hura ene Aitaren Erresuman edanen duquedan eguneraiño".

[30] Eta esquer errendatceco hymnoa cantaturic, goan ciren Oliuetaco mendirat. [31] Orduan erraten daroe Jesusec: "Çuec guciac escandalisatuco çaite [59] ene gatic gau huntan; escribatua da ecen: Joẽn [60] dut artçaiña, eta barrayatuco dire arthaldeco ardiac. [32] Ordean hilletaric biztuco naicen ondoan, goanen naiz çuen aitciñean Galilearat". [33] Hitça harturic, bada, Piarressec erran cioen: "Guciac escandalisa balitez ere, ni ez naiz çutaz seculan escandalisatua içanen". [34] Erran cioen Jesusec: "Erraten darotçut eguia: gau huntan oillarrac jonen duen baiño lehen, hiruretan arnegatuco nauçu". [35] Baiñan Piarressec erran cioen: "Behar banu ere hill çurequien, ez dut çutaz ukhatuco". Gauça bera erran cioten dizcipulu guciec ere.

[36] Aphur baten buruan goan cen Jesus hequiequien Getsemani deitcen cen lekhu batetarat eta erran çaroen bere dizcipuluei: "Çaudezte [61] hemen, horra honaraiño othoitça eguiterat nohan bizquitartean". [37] Eta harturic berequien Piarres eta Zebedearen bi semeac, hassi cen tristatcen eta doloratua içaten. [38] Orduan erran içan çaroen: "Triste da ene arima heriotceraiñocoan; çaudezte hemen atçarriac enequien". [39] Eta urruncheago goanic, jarri cen bissaya lurraren contra othoitz eguiten, erraten çuela: "Ene Aita, baldin possible bada, aldara bedi calix hau ene ganic; halaric ere ez bedi eguin nic nahi dudana, baiñan bai çuc nahi duçun beçala". [40] Ondoan ethorri cen bere dizcipuluetarat eta aurkhituric lo çauntçala, erran cioen Piarressi: "Ecin egon çarete, bada, oren batez enequien atçarriac? [41] Çaudezte erne eta eguiçue othoitz, eror ez çaitezten tentacionean;

59. Halaxe dago idatzirik garbi asko, *çaite*; hemen bakarrik esango nuke; bestetan *çarete*.

60. Lau letra baizik ez ditu ageri hitz horrek, idatzia dagoen moduan: *Joen*; baina *e*-ren gainean ~ sudur ikurra ezarri duelakoan nago, *n*- tartean ipintzeko lekurik ez izanik. Ikus, gainera, hiru bertsotxo beherago *jonen* garbi idatzia. Halere geroxeago, 75-ean, nik *joren* irakurtzen dut.

61. Hemen bost bertsotxotan barrena —36, 38, 41— hirutan agertzen da *çaudezte*, nahiz bi lehenek *ceudezte* gehiago diruditen. Lehen berriz (XXIV, 42 eta 44) *çaudete*.

Izpiritua hala da[62] atçar da, baiñan haraguia flaco". [42] Goan cen berriz bigarrenean othoitz eguiterat erraten çuela: "Ene Aita, baldiñetatariac ecin iragan banedi calix hau edan gabe, eguin bedi çure borondatea". [43] Ethorri cen guero hequien ganat eta aurkhitu cituen lo çauntçala. Ecen beguiac pissu cituzten. [44] Eta hec utciric, goan cen oraiño berriz hirurgarrenean othoitz eguiterat, hitz berac erraten cituela. [45] Ondoan guero ethorri içan cen bere dizcipuluetarat eta erran çaroen: "Eguiçue lo orai eta pausa çaitezte. Huna non hurbiltcen den orena, eta Guiçonaren Semea libratua içaterat doha bekhatorossen escuetarat. [46] Altcha çaitezte, goacen; huna non den hemendic hurbill ni traditu behar nauena".

[47] Oraiño mintço cela, etorri içan cen Judas hamabietaric bat eta harequien batean jendetce handi bat armequien eta makhillequien, aphecen princeez eta populuaren cargudunez igorriac içan cirenac. [48] Hura traditcen çuenac, bada, eman içan caroen seiñalea erraten çaroela: "Ceini ere mussu nic emanen baidiot, eta hura diteque; çatchezcate hari". [49] Eta berehala hurbilduric Jesusi, erran cioen: "Agur, naussia". Eta mussu eman cioen. [50] Jesusec ihardetsi içan cioen: "Adizquidea, certarat ethorri çare hunat?". Orduan hurbilduric harequien cirenac, etchatu ciren Jesusen gaiñerat eta hartu çuten. [51] Eta Jesusequien cirenetaric batec, escua hedaturic, athera çuen bere ezpata, jo çuen aphecen princearen muthilla eta ebaqui cioen beharri bat. [52] Orduan erran cioen Jesusec: "Emaçu çure ezpata bere toquian; ecen ezpata hartuco duten guciac ezpataz hillen dire. [53] Uzte duçue ez deçaquedala othoitz ene Aita eta ez lietçaquedala igor orai berean aingueruzco hamabi legione baiño guehiago? [54] Nola complituco dire, beraz, Escriturac, ceiñec baidiote horiec horla guerthatu beharrac direla?". [55] Ordu hartan berean erran çaroen Jesusec jende hei: "Ohoin baten ganat beçala ethorri çarete hunat, ezpatequien eta makhillequien ene hartcerat. Egun oroz çuen erdian nindagoen, templuan iracasten nuela, eta ez nauçue orduan hartu! [56] Hau gucia, bada, eguin içan da profetec escribatu içan dutena compli cedintçat. Orduan dizcipulu guciac hura utciric goan ciren ihessi.

[57] Eta jende hec harturic Jesus, eraman çuten Caiphaz aphecen princea ganat, ceiña baitan bilduac baitciren escribauac eta populuco çaharrac. [58] Piarres bada jarraiqui citçayoen urrundic aphecen princearen etcheco escaratceraiño, eta barnat sarthuric jarri cen sehiequien gauçaren akhabantça icusteco. [59] Arte hortan aphecen princeac eta batçar gucia lekhucotassun falso baten bilha cebiltçan Jesusen contra hura hillaracitcecotçat. [60] Ordean ez çuten aurkhitcen nahi beçalacorican, hainitz lekhuco falso ethorri ciren arren; azquenean bada ethorri içan ciren bi lekhuco falso. [61] Eta erraten çuten: "Hunetchec erran içan du: Desseguin deçaquet Jaincoaren templua eta hirur egunen buruco berriz eguin deçaquet". [62] Orduan altchatu cen aphecen princea eta erran cioen: "Ez duçu deus ihardesten hauc çure contra declaratcen dituztenen gaiñean?". [63] Baiñan Jesus ichillic cegoen.

62. Iluna pasartea. Hori ez badio, zer ote dio? Markoren pasarte paraleloak (XIV, 38) ez dit ezer argitzen, honek *agudo da* dio garbi garbi.

Orduan aphecen princeac erran içan cioen: "Errequeritcen çaitut Jainco biciaz erran dieçaguçun hea çu çaren Christo Jaincoaren Semea". [64] Ihardetsi cioen Jesusec: "Erran duçu, ni naiz; eta hala erraten darotçuet: Egun batez icussico duçue Guiçonaren Semea Jaincoaren majestatearen escuiñean jarria, heldu dela ceruco hedoyen gainean". [65] Orduan aphecen princeac hautsi cituen bere bestimendac cioelaric: "Blasphematu du. Certaco behar dugu guehiagoco lekhucoric? Horra non aditu duçuen cebonec blasphemioa. [66] Cer çaitçue?". Ihardetsi çuten hec eta erran: "Mereci du heriotcea". [67] Orduan thu eguin cioten bisayarat eta jaçarri cioten ukhabilloz, bertceec berriz ematen ciotçaten çapardalacoac [63], [68] erraten ciotela: "Asma dieçaguc, Christo, nor den macelacoz jo hauena".

[69] Arte hortan Piarres campoan cegoen escaratcean jarria eta hurbildu citçayon nescato bat ciotsalaric: "Çu ere Jesus Galileacoarequien ciñen". [70] Baiñan harc ukhatu çuen gucien aitciñean ciotsalaric: "Ez daquit cer dioçun". [71] Eta ilkhitcen hari cela atheaz camporat, icussiric bertce nescato batec, erran çaroen han cirenei: "Hau ere Jesus Nazarethecoarequien cen". [72] Berriz ere ukhatu çuen juramenturequien erranic: "Ez dut eçagutcen guiçon hori". [73] Aphur baten buruan hurbildu ciren han çeudecenac eta erran cioten Piarressi: "Segurqui çu ere horietaric çare, ecen çure hitzcuntçatic seiñale çare". [74] Orduan hassi cen arneguz eta juramentuz erraten, ez çuela eçagutcen guiçon hura; eta berehala oillarrac jo çuen. [75] Eta orhoitu cen Piarres Jesusec erran içan cioen hitçaz: Oillarrac joren [64] duen baiño lehen, hiruretan arnegatuco nauçu; eta camporat ilkhiric, nigar eguin çuen minqui.

63 Ez dago garbi hala dioen, baina Mc. XIV, 65 ikusirik hori hautatzen dut; hemen, han ez bezala, *-h-* gabe.

64. Lehen esan bezala (ik. XXVI, 31) *joren* idatzi bide du hemen.

XXVII. Cap.

[1] Goiça ethorri içan cenean, batçarra atchiqui çuten aphecen princec eta populuaren arteco çaharrec Jesusen contra, hura hillaracitceco. [2] Ondoan amarraturic eraman çuten eta eman Poncio Pilate bere gobernadorearen escuetan. [3] Orduan icussiric Judas, hura traditu çuenac, condenatua cela, urriquitu citçayon eta ekharri çazcoten [65] hogoi eta hamar denarioac aphecei eta çaharrei, [4] ciotsotelaric: "Bekhatu eguin dut, traditu baidut justuaren odola". Baiñan hec ihardetsi içan cioten: "Cer dohacu guri? Hiri dagoc icustea". [5] Eta arthiquiric diru hec templuan, aldaratu cen eta goan bere burua urkhatcerat. [6] Aphecen princeec bada harturic dirua, erran içan çuten: "Ez da cilhegui hori ematea thresorean, cergatic odolaren precioa baida". [7] Eta elkharren artean batçar eguinic, erossi çuten diru hartaz eltce eguille baten landa lekhortiarren [66] ehorzteco. [8] Horren gatic da deithua landa hura Haceldama, erran nahi da Odol landa, egungo egunean oraiño. [9] Orduan içan cen complitua Jeremias profetac erran içan çuena: "Errecibitu dituzte hogoy eta hamar diru peça, ceiñac baitciren mercaduriatua içan denaren precioa eta Israelgo umeec mercaduriatu çutenarena. [10] Eta eman içan dituzte elce eguille baten landa erosteco, Jaunac exleitu içan daroten beçala". [11] Jesus presentatua içan cen, bada, gobernadorearen aitciñean eta interrogatu çuen gobernadoreac ciotsola: "Çu çare judutarren Erreguea?". Ihardetsi içan cioen Jesusec: "Dioçuna naiz". [12] Eta acusatcen baitçuten aphecen princeec eta populuco çaharrec, ez çaroen deussic ihardetsi. [13] Orduan erran cioen Pilatussec: "Ez duçu aditcen cenbat gaucez acusatcen çaituzten?". [14] Baiñan ez cioen deussic ihardetsi erran ciotçoqueten gauça garaben gaiñean, halaco maneraz non miretsia bait cegoen handizqui gobernadorea.

[15] Bazcoco besta handian, bada, ohitça çuen gobernadoreac populuari utzteco presonyeretaric nahi çuqueten bat; [16] eta çuen orduan presonyer famos bat Barrabas ceritçana. [17] Guciac bildu cirenean, bada, erran çaroen Pilatussec: "Cein nahi duçue larga dieçaçuedan, Barrabas ala Jesus, Christo deitcen dena?". [18] Baçaquien ecen inbidiaz eman çutela haren escuetarat.

[19] Bizquitarte hortan bere cadiran jarria cegoela, igorri içan cioen bere emasteac erraterat: "Ez duçun eguitecoric justu horrequien; hainitz soffritua nago ecen egun, horren suyetean içatu dudan amets batean".

65. *Çazcoten* hau berria da; hori orain arte *ciotçaten* esan du: ikus XIV, 19 eta 35; eta XV, 36.
66. Ikus lehengo (XXV, 38) *lekhortar* hura.

[20] Baiñan aphecen princeec eta çaharrec burutaratu cioten populuari Barrabas galde ceçatela eta Jesus galaraz ceçatela. [21] Erran çaroen bada gobernadoreac: "Çein nahi duçue bietaric larga dieçaçuedan?". Bainan hec ihardetsi cioten: "Barrabas". [22] Pilatusec erran çaroen: "Cer eguiñen dut, beraz, Jesus Christo erraten diotenaz?". [23] Ihardetsi cioten guciec: "Gurutcefica bedi". Erran çaroen gobernadoreac: "Cer gaizqui eguin duque, bada?". Baiñan hec oihua gorago çaramaten, ciotsatelaric: "Gurutcefica bedi".

[24] Icussiric, bada, Pilatussec ez çuela probetchuric, aitcitic alboratamendua handituaz cihoala, ura erakharriric garbitu içan cituen escuac populuaren aitciñean, ciotsalaric: "Inocent naiz ni justu hunen odoletic; çuec ihardetsi beharco duçue". [25] Eta populu guciac ihardetsi cioen: "Dela horren odola gure gaiñean eta gure umeen gaiñean". [26] Orduan utci çaroen Barrabas eta eman Jesus, açotaraciric gurutcefica ceçatentçat.

[27] Dembora berean gobernadorearen soldaduec eramanic Jesus Palacioaren escaratcerat, bildu çuten banda gucia haren alderat, [28] eta bere arrobac khenduric, estali çuten escarlatazco capa batez. [29] Guero arantce ezpartçatuz eguinic khoroa bat, eman içan cioten buruaren gaiñean eta sesca bat escuiñeco escuan; eta haren aitciñean belhauricaturic, trufatcen ciren hartaz ciotsotelaric: "Agur Judutarren Erreguea". [30] Eta bisayarat thu eguiñic, hartcen cioten sesca et(a) jotcen hartaz burua. [31] Hartaz burlatu ondoan horla, khendu cioten escarlatazco capa hura, eta bere tresnez bestituric, eraman çuten gurutcefícatcerat.

[32] Ilkhiten hari cirela, bada, aurkhitu çuten guiçon bat Cirenacoa Simon çaritçana eta bortchatu çuten Jesusen gurutcea garrayatcerat. [33] Eta ethorri içan ciren Golgotha deitcen cen lekhurat, ceina baida Calbarioco lekhua. [34] Han eman cioten arnoa edaterat miñarequien nahastatua, baiñan dastatu ondoan, ez çuen edan nahi içatu. [35] Gurutcefícatu çutenean, bada, partitu cituzten haren tresnac çortherat etchaturic, complitua içan cedintçat profetaren erran hau: "Partitu içan dituzte bere artean ene tresnac eta arthiqui içan dute ene arroba çortherat". [36] Eta jarriric, haren goardan ceudecen. [37] Eman içan ere çuten haren buruco gaiñean escribuz haren condenacionearen sujeta, hitz hautan: "Hau da Jesus judutarren Erreguea". [38] Dembora berean gurutcefícatu cituzten harequien bi ohoiñ, bata haren escuiñetaric eta bertcea ezquerretaric. [39] Eta handic iragaten cirenec, blasphemioz bethetcen çuten, burua higuituric, [40] ciotsotelaric: "Hea bada, hic Jaincoaren templua desseguiten duan horrec eta hirur egunez berriz bastitcen, salba çac heure burua. Baldin Jaincoaren Semea bahaiz, jauts hadi gurutcetic". [41] Manera berean aphecen princeac ere burlatcen ciren hartaz, escribauequien eta çaharrequien batean ciotsatelaric: [42] "Bertceac ditu salbatu eta bere burua ecin salba deçaque. Baldin Israelgo Erreguea bada, jauts bedi oraintche gurutcetic eta sinhetsico dugu honen baitan. [43] Fida da Jaincoa baitan; libra beça bada Jaincoac, baldin maite badu, bacioen ecen: Haren Semea naiz ni". [44] Erantçute bera eguiten cioten harequien gurutcefícatuac ciren ohoiñec ere.

[45] Seigarren orenetic, bada, bederatcigarreneraiñocoan lurra estalia içan cen

gucia ilhunbez, [46] eta bederatcigarren orenaren inguruan eguin içan [67] Jesusec oihu handi bat, erraten çuelaric: "Eli, Eli, lamma sabathani?; erran nahi da: Ene Jaincoa, ene Jaincoa, cergatic nauçu utci?". [47] Han cirenetaric cenbaitec, bada, hori adituric cioten: "Elias deithcen du hunec". [48] Eta berehala laster eguin çuen hetaric batec esponya bat miñagrez bethetcerat eta sesca baten puntan eçarriric eman cioen edaterat. [49] Bertceec berriz cioten: "Utçaçueya [68], icus deçagun hea ethorrico othe den Elias horren libratcerat". [50] Baiñan Jesusec berriz ere oihu gora bat eguiñic, hill cen.

[51] Dembora berean templuco beloa erdiratu içan cen bi çathitarat gaiñetic hassi eta behereraiño; lurra ikharatu cen; harriac erdiratu ciren; [52] thombac idequi ciren eta hainitz saindu hillac cirenen gorphutçac bitztu içan ciren; [53] eta hobietaric ilkhiric hura bitztu cen ondoan, ethorri içan ciren hiri saindurat eta aguertu citçaizcoten baiñitcei. [54] Bizquitartean egun [69] guiçonen capitaiña eta harequien Jesusen beguiratcen ceudecenac icussiric lur ikharatce eta bertce iragaten ciren guciac, icitu ciren haguitz eta erran içan çuten: "Eguiazqui Jaincoaren Semea cen hori".

[55] Ciren, bada, han emastequi hainitz urrundic beha ceudecenac, ceiñac Jesusi jarraiqui baitcitçaizcon Galileatic, hura cerbitçatcen çutela, [56] ceiñen artean baitciren Maria Magdalena, Maria Jacoberen eta Josephen ama eta Zebedearen haurren ama.

[57] Arratsaren gaiñerat ethorri içan cen guiçon aberats bat Arimatheacoa Joseph ceritçana, hura ere Jesusen dizcipulu içana. [58] Goan cen Pilatusen ganat eta escatu cioen Jesusen gorphutça eta berehala Pilatusec manatu çuen eman cequioela. [59] Harturic bada gorphutça Josephec, eçarri çuen mihisse churi batean barna, [60] eman çuen bere thomba berrian, ceiña baitçuen eguiña arroca bat cilhaturic hartan, eta harri handi bat thombaren atherat irauliric, goan cen. [61] Eta ceudecen Maria Magdalena eta bertce Maria jarriac sepulturaren aldean.

[62] Biharamunean, bada, ceiña baitcen sabbathoco preparacionea erraten diotenaren ondoco eguna, ethorri ciren aphecen princeac eta pharisauac elkhar harturic Pilatussen ganat, [63] eta erran cioten: "Jauna, orhoitu gare; suernatçaille harc bici cela erraten ohi çuen: Hirur egunen buruan biztuco naiz hillen artetic. [64] Mana çaçu, beraz, goardatua içan dadin thomba hirur garren eguneraiño, beldurrez ecen haren dizcipuluac ethor ez daitecen ebasterat haren gorphutça eta erran ez dioçaten populuari: Bitztu da hilletaric; eta gaixtoago liteque are azqueneco enganio hori lehenbicicoa baiño". [65] Ihardetsi çaroen Pilatussec: "Baditutçue goardac; çohazte, beguiraci [70] çaçue, çaitçuen [71] beçala". [66] Goan ciren, bada, eta sepultura seguratceco ciguillatu içan çuten harria eta goardac eman cituzten.

67. Adizki laguntzailea *[çuen]* utzi du hor idatzi gabe, ene ustez.
68. Hemen eta bestetan *-ya* berretzen dio aginterazko adizkiari: ik. Mc. XIII, 1.
69. Lehengo hartan (ik. VIII, 13) *egun* gero *ehun* zuzendu du; hemen ez.
70. *Beguiraci* dioen ez da kontu garbia, baina hala dirudi.
71. *Çaitçuen beçala* delako hori behin baino gehiagotan ageri den *Cer çaitçu* eta antzekoen pareko da, ene ustez. Ikus, adibidez: Mt. XVII, 24; XVIII, 12; XXI, 28 (çaitçueque). Guzti horietan *iduri(tcen)* isilik gelditu dela esango nuke, Vulgata begiratuz.

XXVIII. Cap.

[1] Aste hura akhabatu cenean, bada, ondocoaren lehenbicico eguna doy doya arguitcearequien batean, ethorri içan ciren Maria Magdalena eta Maria bertcea sepultura icusterat. [2] Eta betbetan eguin içan cen lur ikharatce handi bat, ecen Jaunaren ainguerua jautsi cen cerutic, eta hurbilduric aldaratu çuen sepultura çarratcen çuen harria, eta jarri cen haren gaiñean. [3] Cen, bada, haren behacundea distiant chismista beçala eta haren bestimendac churi elhurra beçala. [4] Eta hain icialdura handiac sessitu cituen goardac, non eguin baitciren hilac beçala. [5] Mintço citçayela, bada, ainguerua emastequiei erran çaroen: "Ez duçuela beldurric çuec; badaquit ecen Jesus gurutceficatua içatu denaren bilha çabiltçatela. [6] Ez da hemen, ecen bitztu da, erran içan çuen beçala. Çatozte, eta icus çaçue Jauna eçarria içan cen lekhua. [7] Eta laster eguiçue erraterat haren dizcipuluei bitztu dela; eta huna, badoha çuen aitciñean Galilearat, han duçue icussico. Huna non erran darotçuequedan aitciñerat".

[8] Ilkhi ciren berehala emastequi hec thomba cen lekhutic, beldurcunde eta bozcario handirequien, eta goan ciren lasterca berri horren ematerat haren dizcipuluei. [9] Dembora berean Jesus bathu çitçayen bere aitciñean eta erran çaroen: "Agur". Eta hec hurbilduric lothu citçaizcon oiñetaric eta adoratu içan çuten. [10] Orduan erran çaroen Jesusec: "Ez duçuela beldurric. Çohazte, erroçue ene anayei dohacela Galilearat, han naute icussico".

[11] Hec goan eta, goardetaric cembait ethorri içan ciren hirirat eta condatu ciotçaten aphecen princeei iragan ciren guciac. [12] Orduan elkharganat bilduric eta batçarra eguinic çaharrequien, eman çaroen soldaduei diru summa handi bat, [13] ciotsotela: "Erraçue, haren dizcipuluac gauaz ethorri içan direla eta ebatsi dutela haren gorphutça, çuec lo ciñaudeztela. [14] Baldin hori jaquiten badu ere gobernadoreac, guc goguatuco [72] dugu eta gueriçatuco çaituztegu". [15] Soldaduec dirua hartu eta eguin çuten erran citçayen beçala, eta omen hori barrayatua içan cen eta dirau egungo eguneraiño juduen artean.

[16] Hameca dizcipuluac goan ciren Galilearat Jesusec exleytu içan çaroen mendirat. [17] Eta han icussi çutenean, adoratu çuten; batçu, bada, dudetan jarri ciren. [18] Baiñan hurbilduric Jesus mintçatu citçayen ciotsotela: "Niri eman çait bothere gucia ceruan eta lurrean. [19] Çohazte, beraz, eta iracats çatçue jende

72. Lehengoaren gainean berridatzi du hura zuzenduz eta ez da ongi irakurtzen. Hori ote dio? Vulgatak honela: "nos suadebimus ei".

guciac, bathayatcen ditutçuelaric, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren icenean, [20] iracasten diotçuelaric nic manatu içan darozquitçuetedan gucien beguiratcen; eta segura çaitezte bethi ere çuequien içanen naicela mendeen akhabantçaraiño".

J. CHRISTOREN
Evangelio Saindua
San Marc-en arauera

I. Cap.

[1] Jesus Christo Jaincoaren Semearen Evangelioaren hastapena, [2] hala nola baida escribatua Isaias profetaren baitan: "Huna non dudan igortcen ene ainguerua çure aitciñean, ceinec aphainduco baidarotçu çure bidea çure aitciñean. [3] Adituco da desertuan oihuz dagoenaren boça: Aphain çaçue Jaunaren bidea, chuchen çatçue haren bidescac". [4] Joannes cen desertuan, bathayatcen hari cela eta predicatcen penitenciazco bathayoa bekhatuen barkhamenduarentçat. [5] Judeaco herri gucia eta jerusalendar guciac baçohacen haren ganat, eta bere bekhatuac confesatcen cituztelaric, bathayoa errecitcen [1] çuten Jordango ibayan. [6] Eta cen Joannes bestitua camelu illez, larruzco guerrico bat çuen guerrian, chartalez eta bassa eztiz bici cen, eta predicatcen çuen cioelaric: [7] "Heldu da ene ondoan ni baiño borthitçago den bat; eta ni ez naiz gay lurrerat beheitituric haren çapata lokharrien lechatceco. [8] Nic bathayatu çaituztet urez, baiñan harc bathayatuco çaituzte Izpiritu Sainduaz".

[9] Dembora hartan berean ethorri içan cen Jesus Nazareth Galileacotic eta içan cen bathayatua Joannesez Jordanean. [10] Uretic ilkhi cen beçain sarri, icussi içan cituen ceruac çabalduac eta Izpiritua usso baten ançuran jausten cela eta haren gaiñean guelditcen. [11] Eta boz bat aditu cen cerutic: "Çu çare ene Seme maitea; çure baitan dut ene gogo gucia".

[12] Ondoan berehala Izpirituac butatu içan çuen morturat. [13] Eta egon cen han berrogoy egunez eta gauez; tentatua içan cen Satanez; bici cen han bestien artean eta aingueruec çuten cerbitçaten.

[14] Joannes presso emana içatu cen, bada; ethorri cen Jesus Galilearat Jaincoaren Erresumaco Evangelioa predicatcen çuela, [15] erraten çuelaric: "Complitu da dembora eta Jaincoaren Erresuma hurbil da; eguiçue penitencia eta sinhets çaçue Evangelioa".

[16] Galileaco itsasso basterrean cebillan ordu batez, icussi içan cituen Simon eta Andres, haren anaya, sareac itsassorat etchatcen cituztela, arrantçaleac ciren

1. *-bi-* idaztea ahaztu zaio.

ecen. [17] Eta erran çaroen Jesusec: "Çatozte ene ondotic eta eguiñaracico çaituztet guiçonen arrantçale". [18] Berehala utciric bere sareac jarraiqui citçaizcon. [19] Handic aphur bat aitciñatu eta, icussi içan cituen Jacobe Zebedearen semea eta Joannes, haren anaya, hec ere bere sareen antolatcen hari cirela barcu batean; [20] eta berehala deithu içan cituen eta hec, utciric bere aita Zebedea barcuan bere languilleequien, seguitu çuten.

[21] Ethorri ciren guero Capharnaumat eta berehala sarthu cen Jesus sabbato egunean sinagogan; han hari cen iracasten. [22] Eta espantituac çeudecen haren dotrinaz, iracasten baitçaroen ecen [2] autoritate çuen guiçon batec beçala eta ez escribauec guisa. [23] Cen, bada, hequien sinagogan guiçon bat izpiritu lohiaz posseditua; eta jarri cen oihuz, [24] erraten çuelaric: "Cer duçu çuc gurequien, Jesus Nazarethecoa? Gure galtcerat ethorri çare, Jaincoaren Saindua?". [25] Baiñan mehatchatu içan çuen Jesusec, erraten cioelaric: "Ichil adi eta ilkhi adi guiçon horren baitaric". [26] Orduan izpiritu lohia, guiçon hura porroscaturic eta oihu handi bat eguinic, ilkhi içan cen harenganic. [27] Eta espantitu ciren guciac halaco maneraz, non bere artean galdez baitceudecen ciotsotelaric: "Cer othe da hau? Cer othe da dotrina berri hau? Buruperequien manatcen baidaroe izpiritu lohiei eta hec obeditcen ere baidiote". [28] Eta dembora berean jo çuen haren famac Galilea gucian.

[29] Sinagogatic ilkhi eta berehala ethorri ciren Simon eta Andressen etcherat Jacobe eta Joanesequien. [30] Cetçan, bada, Simonen amaguiñarraua ohean helgaitcequien eta berehala mintçatu citçaizcon hartaz. [31] Eta hurbilduric alcharaci [3] çuen eria escutic harturic; eta betbetan utci çuen sukharrac eta eman cen hequien cerbitçatcen.

[32] Iguzquia sarthu eta arratsean ekharri içan ciotçaten eri guciac eta deabruaz possedituac cirenac. [33] Eta bildua cen hiri gucia athe aitciñerat. [34] Sendatu cituen haiñitz pressuna eritassun differentez tormentatuac cirenac eta khendu cituen hainitz deabru; ordean ez cituen uzten deabruac mintçatcerat eta erraterat nor cen bacequitela.

[35] Biharamunean haguitz goiz jaiquiric, ilkhi cen eta goan bakhar lekhu batetarat, eta jarri içan cen othoitcean. [36] Eta jarraiqui citçaizcon Simon eta harequien ciren bertceac. [37] Eta aurkhitu içan çutenean, erran cioten: "Guciac çure bilha dabiltça". [38] Ihardetsi içan çaroen: "Goacen hurbilleco herrietarat eta hirietarat, hetan ere predica deçadan; hartacotz ethorria naiz ecen". [39] Eta hari cen predicatcen hequien sinagoguetan eta Galilea gucian eta deabruen khencen.

[40] Dembora hartan ethorri içan citçayoen lepratsu bat errequerimenduz, eta haren aitciñean belhauricaturic erran içan cioen: "Baldin nahi baduçu, garbi naçaqueçu". [41] Urricaldu citçayoen, bada, Jesusi eta escua hedaturic uquitu çuen eta

2. Ez dut uste bestetan agertzen denik hemen bezala *bait-* eta *ecen* —edo berdin da, *ecen* eta *bait*— batera; irakurlea honez gero ohartu baita agian Haranederrek, eta beste idazle lapurtar askok, ez dutela *ecen* beti mendeko perpausaren hasieran ipintzen. Zernahi gisa, *ecen* + *bait-* ez dut inoiz inon irakurri uste, hemendik kanpo, kausal balioa izanik.

3. *Altcha-* idatzi ohi du ia beti, baina ikus Mc. V, 41 ere.

erran cioen: "Nahi dut; çaren garbi". [42] Hori erran içan çuen beçain sarri, goan citçayoen bere ladretassuna [4] eta garbitua ediren cen. [43] Eta berehala igorri çuen handic mehatchaturic, [44] ciotsola: "Beguirautçu nihori erratetic. Baiñan çohaz eta eracuts dioçaçu çure burua aphecen princeari eta offrenda çaçu çure garbitcearentçat, Moisec exleytu içan duena lekhucotassuntçat balia daquientçat". [45] Baiñan hura ilkhiric, hassi cen erraten gauça eta banatcen halaco maneraz, non Jesus ecin guehiago sar baitceitequen hirian agueriric; aitcitic campoan baitcegoen bakhar lekhuetan eta harat ere ethortcen citçaizcon alde gucietaric jendeac.

4. *-tassuna*-ren aurrean bost letra daudela dirudi, *ladre-* agian.

II. Cap.

[1] Berriz ere sarthu cen Capharnaumen cembait egunen buruan. [2] Eta aditu çutenean etchean cela, bildu ciren hambat jende, non ecin iduqui baitceçaquen etcheac, ez eta athe inguruec ere; eta hari citçayen Jaincoaren hitça predicatcen. [3] Ordu hartan ekharri içan cioten paralitico bat, laur guiçonec garrayatcen çutena, [4] eta nola ecin hurbil baitceçaqueten Jesusen aitciñerat jendetcearen fuertzaz, urratu çuten etchearen estalquia, eta idequidura handi bat eguinic, erautsi içan çuten behererat paraliticoa cetçan ohea. [5] Icussiric, bada, Jesusec hequien fedea, erran cioen paraliticoari: "Ene haurra, barkhatcen çaizquitçu çure bekhatuac". [6] Eta ciren han jarriac escribauetaric cembait, ceiñec erasten baitçuten bere bihotcetan: [7] "Cer darassa hunec? Blasphematcen du. Norc barkha ahal detçaque bekhatuac Jaincoac berac baicen?". [8] Jesusec berehala eçaguturic bere Izpirituaz cer gogoeta cerabillaten bere barrenean, erran çaroen: "Cergatic darabiltçatçue gogoeta horiec çuen bihotcetan? [9] Cer da errechago? Ala erratea paraliticoari: Barkhatcen çaizquitçu çure bekhatuac, ala erratea: Altcha çaite, eramaçu çure ohea eta ibill çaite? [10] Daquiçuentçat, bada, Guiçonaren Semeac baduela bothere lurrean bekhatuen barkhatceco", erran içan cioen paraliticoari: [11] "Çuri nagotzu [5]: altcha çaite, eramaçu çure ohea eta çohaz çure etcherat". [12] Altchatu cen betbetan eta bere ohea harturic, abiatu cen gucien aitciñean; halaco maneraz, non espantitu baitciren guciac eta glorificatcen baitçuten Jaincoa, ciotsatelaric: "Egundaiño icussi ez dugu hunelacoric".

[13] Handic bihurtu cen berriz itsasso alderat; eta populu gucia heldu baitcitçayoen, instruitcen cituen. [14] Eta iragaitean icussi içan çuen Levi Alphearen semea, bureuean cegoela jarria eta erran cioen: "Jarraiq çaquizquit". Jaiqui cen eta seguitu çuen. [15] Eta Jesus haren mahaiñean eman baitcen, jarri içan ciren halaber haiñitz publicano eta bekhatoros Jesusequien eta haren dizcipuluequien, haiñitz ciren ecen jarraitquitcen citçaizcoenac. [16] Escribauec eta pharisauec icussiric publicano eta bekhatorosequien jaten çuela, e..an çaroten haren dizcipuluei: "Nondic heldu da, publicano eta bekhatorosequien jaten eta edaten baidu çuen naussiac?". [17] Hori adituric Jesusec, erran çaroen: "Ez dute sendo direnec miricu beharric, baiñan bai eri direnec; ez naiz ecen ethorri justuen deithcerat, baiñan bai bekhatoreen".

[18] Joannesen eta pharisauen dizcipuluac, bada, barurtiarrac baitciren, ethorri

5. *Nagotzu* horretan bestetan ez bezalako *-tzu* grafia itzuri zaio, Mateorenean (ik. X, 34) *bakea* bezala.

citçaizcon eta erran cioten: "Cergatic barurtcen dire Joannesen eta pharisauen dizcipuluac eta çureac ez dire eguiten?". [19] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Estayetaco jendeac barur ahal othe daitezque esposa hequiequien deiño? Equi, esposa berequien duteiño ecin barur daitezque. [20] Baiñan ethorrico dire egunac, ceiñetan idequico [6] baitçaye esposa eta orduan dire barurtuco.

[21] Nihorc ez dio josten oihal berrizco pedaçu bat arroba çahar bati. Ezperen, pedaçu berriac eramaten dio çaharrari cembait çathi eta arroba guehiago hautxten da. [22] Halaber nihorc ez du ematen arno berria çahagui çaharretan; ezperen, leher eraguiten daroe arnoac çahaguiei, eta issurico da arnoa eta galduco ere dire çahaguiac; baiñan arno berria eman behar da çahagui berrietan".

[23] Guerthatu içan cen oraiño Jauna iragaten cela eraintcetan gaindi sabbato egun batez, haren dizcipuluac bidean cihoacela, hassi citecen ogui buruca hausten eta hartcen. [24] Erran cioten bada Pharisauec: "Icussaçu; horra nola eguiten duten çure dizcipuluec, sabbato egunean eguitea cilhegui ez dena". [25] Ihardetsi içan çaroen: "Ez duçue egundaiño iracurri cer eguin içan çuen Davidec, beharrean aurkhitu cenean, bera eta harequien cirenac gossez hertchatuac içan ciren batez? [26] Nola sarthu içan cen Jaincoaren etchean, Abiathar aphez handiaren demboran, eta jan içan cituen proposicioneco oguiac, ceiñetaric jatea ez baitcitçayen cilhegui aphecei baicen, eta nola eman içan ciotçaten harequien cirenei ere?".

[27] Erran çaroen oraino: "Sabbatoa guiçonarentçat eguiña içan da eta ez guiçona sabbatoarentçat. [28] Bada Guiçonaren Semea sabbathoaren ere naussi da".

6. *Idequico* idatzi du, baina hau ez da bestetango (ik. Mt. VII, 7-8) hura bera, baizik idazle zaharrek, Etxeparegandik hasita, *edequi* ziotena, hots *kendu*: ik. Lc. VI, 9.

III. Cap.

[1] Sarthu içan cen Jesus bertce aldi batez ere sinagogan eta cen han guiçon bat escua elcortua çuena. [2] Eta beguira cegozcon hea sabbatho egunean sendatuco çuqueen, hartaz guero hura acusatceco. [3] Orduan erran cioen escua elcortua çuen guiçonari: "Altcha çaite gucien erdirat". [4] Guero erran içan çaroen hei: "Cilhegui othe da sabbatho egunean ungui eguitea? bicia salbatcea ala idequitcea [7]?". Baiñan hec ichillic ceudecen. [5] Baiñan Jesusec alde gucietarat behatce hassarratu bat etchatcen çaroela, notatua baitcen hequien bihotcetaco itsumenduaz, erran cioen guiçon hari: "Heda çaçu escua". Hedatu çuen eta sendatu citçayoen escua. [6] Ilkhiric bada berehala pharisauac, jarri ciren batçar eguiten haren contra herodianoequien, nola galduco othe çuten.

[7] Baiñan Jesus bere dizcipuluequien aldaratu cen itsasso parterat eta jarraiqui citçayoen jendetce handi bat Galileatic eta Judeatic, [8] Jerusalemetic, Idumeatic eta Jordanez bertce aldetic; eta Tyrgo eta Sidongo inguruetan cirenetaric ere ethorri citçayoen aralde handi bat, adituric harc eguiten cituen gauçac. [9] Eta erran çaroen bere dizcipuluei iduc cioçotela han barcu bat cerbitça ahal cequioena, jendetce harc leher ez ceçan. [10] Ecen nola haiñitz sendatcen baitçuen, cerbait plaga çuten guciac etchatcen ciren haren gaiñerat, hura uquitu bederen nahiz. [11] Eta izpiritu lohiec hura icusten çutenean bere buruac arthiquitcen cituzten haren oiñetarat, ciotsatelaric oihuz: [12] "Çu çare Jaincoaren Semea". Baiñan harc mehatchatcen cituen handizqui ez ceçatentçat aguer.

[13] Igan cen guero mendi batetarat, eta deithu cituen bere ganat berac nahi cituenac; eta ethorri citçaizcon. [14] Bereci içan cituen hamabi harequien içateco eta predicatcerat igortceco. [15] Eta eman çaroen botherea erhassunen [8] sendatceco eta deabruen khassatceco. [16] Hec ciren Simon, ceiñari eman baitcioen icengoitia Piarres; [17] eta Jacobe Zebedearena eta Joannes Jacoberen anaya, ceiñei eman baitçaroen icengoititçat Boanergez, erran nahi da Ihurçuriaren semeac; [18] Andres, Philipe, Bartholome, Mathiu, Thomas, Jacobe Alphearena, Thadee, Simon Cananearra, [19] eta Judas Iscariotez, ceiñec bera traditu ere baitçuen.

[20] Eta ethorri içan cirenean etcherat, bildu cen berriz harat oste handia, non ecin har ere baitcetçaqueten bere othruntçac. [21] Hori adituric, ethorri ciren haren ahaideac haren hartcerat, erraten çuten ecen çoratu cela.

7. Ikus lehenxeago (Mc. II, 20) esana.
8. Ikus lehen Mateorenean esanak: VIII, 17 eta IX, 35.

[22] Jerusalemetic ethorri içan ciren escribauec, berriz, cioten Beelzebuth çuela barnean eta deabruen princearen partez cassatcen cituela deabruac. [23] Baiñan harc erakharriric hec bere alderat, erraten çaroen paraboletan: "Nola Satanec cassa ahal deçaque Satana? [24] Baldin erresuma bat partitcen bada bera beraren contra, ecin iraun deçaque erresuma harc. [25] Eta baldin etche bat partitcen bada bera beraren contra, ecin iraun deçaque etche harc. [26] Beraz baldin Satana altchatcen bada bera beraren contra, partitua diteque, ecin iraunen du, baiñan akhabo da hartaz.

[27] Nihorc ecin eraman detçaque borthitz baten armac haren etchean sarthuric, non ez duen lehenic borthitça estecatcen, guero ondoan haren etchea arrobatceco.

[28] Erraten darotçuet eguia: Barkhatuco çaizte guiçonen umei eguiñen dituzqueten bekhatu eta blasphemio guciac, [29] baiñan norc ere blasphematuco baidu Izpiritu Sainduaren contra, eta harc ez du ardietxico seculan barkhamenduric; aitcitic hobenduri içanen da seculan iraganen ez çayoen bekhatu batez". [30] Erraten baitçuten ecen izpiritu lohia berequien çuela.

[31] Ethorri ciren, bada, haren ama eta haren anayac eta campotic ceudecela igorri çuten norbeit [9] haren bilha. [32] Eta cegoen jendetce bat jarria haren inguruan, eta erran cioten: "Horra non daudecen çure ama eta çure anayac campo hortan çure galdez". [33] Orduan ihardetsi içan çaroen eta erran: "Nor da ene ama eta nor dire ene anayac?". [34] Eta behaturic bere ingurutacoei, "Horra", diotsa, "ene ama eta ene anayac. [35] Norc ere ecen eguiñen baidu Jaincoaren borondatea, hura diteque ene anaya, ene arreba eta ene ama".

9. Zenbait lekutan ezin asma daiteke zein bokal idatzi duen; hemen, eta gehiagotan, *norbeit* dioela dirudi; gehienetan ordea *norbait* dio.

IV. Cap.

[1] Guero berriz hassi cen iracasten itsas bazterrean; eta hain jendetce handia bildu cen haren alderat, non barcu batetarat iganic, han jarri baitcen, mundu gucia leihorrean itsas bazterrean cegoela. [2] Eta iracasten çaroen paraboletan hainitz gauça, eta erraten çaroen bere doctrinan:

[3] "Adi çaçue. Ilkhi içan cen ereille bat ereinterat. [4] Eta ereiten hari cela, ereintçaren parte bat erori cen bide bazterretarat eta aireco choriec ethorriric jan çuten hura. [5] Bertce parte bat erori cen lekhu harritsuetarat, ceiñetan bihiac ezbaitçuen lur haiñitcic; eta berehala ilkhi cen cer [10] ezbaitçuen lurrac loditassunic. [6] Eta iguzquia goratu cenean, erre cen, eta nola ez baitçuen erroric, ihartu cen. [7] Bertce parte bat erori içan cen elhorriperat eta elhorriec handituric itho çuten hura, eta ez çuen ekharri fruituric. [8] Bertce parte bat berriz erori içan cen lur onerat eta eman çuen fruitu; burutu cen eta handitu, bihi batçuc ematen çutela batentçat hogoi eta hamar, bertceec hirur hogoi eta bertceéc ehun". [9] Eta erraten çaroen: "Beharriac dituenac aditceco, adi deçala".

[10] Baiñan bakharric içan cenean, galdeguin cioten harequien ciren hamabiec parabolaren sensua. [11] Eta erran çaroen: "Çuei eman içan çaitçue Jaincoaren Erresumaco mysterioen eçagutcea, baiñan campoan direnentçat hitz eztalitan dohaz guciac, [12] halaco moldez, non beguiz icussiric ere ez baidute icusten, eta beharriz adituric ere ez baidute aditcen, conberti ez daitecen eta bere bekhatuac barkha ez daquizcoten".

[13] Eta bada erran çaroen: "Oraiño ez daquiçue parabola hori? Nola beraz jaquinen ditutçue parabola guciac? [14] Ereillea da hitça ereinten duena. [15] Dire bada bide bazterretan direnac [11], ceiñetan erein içan baida hitça, ceiñec entçun duquetenecotz, berehala heldu baida Satana eta arrapatcen baidu hequien bihotcetan ereina içan cen hitz hura. [16] Dire halaber lekhu harritsuetarat hacia errecibitcen dutenac haiñac, ceiñec ençutean hitça, berehala bozcariorequien hartcen baidute; [17] ordean ez baidute erroric bere baitan, iraupen gutitaco dire eta guero, heldu çayenean ezaldarteric eta atsecaberic, hitçaren ariaz berehala behaztopatcen dire. [18] Dire berriz elhorriperat hacia errecibitcen dutenac haiñac, ceiñec entçuten baidute hitça; [19] baiñan mundu huntaco antsiac eta aberatstassunen enganioac eta bertce gaiñeraco passioneac hequien gogoan barna sarthuric, ithotcen dute

10. Hala dio, baina *ecen* esan nahi zuen, edo *ceren* segurkiago.
11. Hemen ez du ondoko bertsotxoetan bezala *hainac* ezarri erlatiboaren aurrean. Ahaztu ote?

hitça eta fruitu gabe bihurtcen. [20] Fiñean lur onerat hacia hartcen dutenac dire haiñac, ceiñec entçuten baidute hitça eta errecibitcen eta ekhartcen fruitua, batac hogoy eta hamar, bertceac hirur hogoy eta bertceac ehun batentçat".

[21] Erraten çaroen halaber: "Candela ekhartcen othe da gaitciru edo ohe azpian emateco? Aitcitic ez othe da candelerean eçartceco ekhartcen? [22] Deusere ez da ecen gorderic aguertu beharco ez ditequenic, eta ez da guericean eguin denic, camporaco ez denic. [23] Beharriac dituenac entçuteco, entçun deçala". [24] Erraten çaroen oraiño: "Goardia emaçue cer aditcen duçuen; ecen cer ere neurriz neurthu baidiequeçue bertcei [12], eta neurri beraz neurthuco caitçue cebei ere, eta oraiño berretuco ere çaitçue. [25] Ecen duenari emanen cayo eta ez duenari duena ere khenduco çayo".

[26] Guehiago erraten çaroen: "Jaincoaren erresumaz diteque, guiçon batec hacia lurrerat arthiquitcen balu beçala. [27] Ala dagoen lo, ala dabillan jaiquia gauaz eta egunaz, hacia ilkhitcen da eta hazten da, harc nola ez daquiela. [28] Bere baitaric ecen ekhartcen du lurrac lehenic belharra, guero burua, guero ogui bihi bethea buruan. [29] Eta ondu ditequenean bihia, berehala eçartcen çayo ihiteya, ceren ethorri baiditeque uztaren dembora".

[30] Erraten çuen oraiño: "Ceren pare dela erranen dugu Jaincoaren Erresuma edo cer comparacionez comparatuco dugu? [31] Compara daiteque mustarda haciarequien, ceiña lurrean ereinten denean, lurrean diren haci gucietaric chumeena baida; [32] baiñan erein den ondoan, garatcen da eta eguiten belhar gucietaric handiena; hain adar handiac ekhartcen ditu, non aireco hegastiñac egon ahal baiditezque haren itçalean".

[33] Horlaco hainitz errefauetan mintço citçayen, adi ahal ceçaqueten arauera; [34] eta parabola gabe ez citçayen mintçatcen. Baiñan bakharric cirenean, bere dizcipuluei guciac çarozten explicatcen.

[35] Egun hartan berean erran çaroen arratsa ethorri cenean: "Iragan gaitecen uraren bertce alderat". [36] Eta populua utciric, eraman çuten cen barcuan; eta baciren bertce barcuac ere harequien. [37] Orduan altchatu cen haice chirimola handi bat eta uhiñac sartcen ciren barcuan hura bethetceraiñocoan. [38] Bizquitartean Jesus lo çatçan chopa gaiñean, bururdi baten gaiñean, eta iratçarri çuten ciotsotelaric: "Naussia, ez duçu antsiaric? Galtcerat goaz". [39] Iratçarri eta, bada, mehatchatu çuen haicea eta erran cioen itsassoari: "Ichil adi eta calma". Eta berehala haicea guelditu cen eta calma handi bat eguin cen. [40] Eta erran çaroen: "Cergatic çarete horren icicor? Nola ez duçue oraiño federic?". Eta hec, icialdura handi batec hartuac, ciotsoten batac bertceari: "Nor othe da hau?, haiceac eta itsassoac obeditcen baidute".

12. Hau esan nahi bide du: "zuek inori neurriz neurtu *zerbait* eta zuei ere *hura* neurri beraz neurtuko zaizue". Ala "nik zuri neurtu dizut" ote zioen Haranederrek? Gaitz da sinesten, baina ikus Lk. XXIII, 8 eta Jo. V, 19. Leizarragak bitara dio: "cer neurriz neurturen baituçue, neurturen çaiçue, eta...", erabat Vulgatari lotuz.

V. Cap.

[1] Ethorri cirenean itsassoaren bertce alderat Gerassendarren herrirat, [2] jauzten hari cela Jesus barcutic, ilkhi citçayon guiçon bat izpiritu lohiaz posseditua thombetaric, [3] ceiñetan eguiten baitçuen bere egoitça, eta nihorc ecin esteca ceçaquena gatheéz ere. [4] Ecen haiñitcetan cephoez eta gathez estecatua içan baitcen, hautsi içan cituen gatheac eta çathicatu cepoac, eta ecin nihorc heci ceçaquen. [5] Gau eta egun bethi thombetan eta mendietan cegoen oihuz eta bere burua harriz porroscatcen çuela. [6] Icussiric bada Jesus urrundanic, ethorri citçayoen lausterca eta adoratu içan çuen, [7] oihu gora batequien erraten cioela: "Cer duçu çuc enequien, Jesus Jaungoicoaren Semea? Jaincoaz çaitut errequeritcen, ez naçaçula tormenta". [8] Erraten cioen ecen Jesusec: "Ilkhi adi, izpiritu lohia, guiçon horren ganic". [9] Eta galdeguin içan cioen: "Nola deithcen haiz?". Ihardetsi cioen harc: "Legionea deitcen naiz, ceren hainitz baigare". [10] Eta othoizten çuen handizqui, arren ez ceçan khassa herri hartaric camporat. [11] Cen, bada, han urdalde handi bat mendiaren aldapetan bazcatcen cena. [12] Eta izpiritu gaixto hec errequeritcen çuten, erraten ciotelaric: "Igor gaitçatçu urde horietarat, sar gaitecen horietan". [13] Jesusec permetitu içan çaroen berehala; eta ilkhiric izpiritu lohi hec posseditua cegocaten guiçona ganic, sarthu ciren urdetarat; eta arthalde gucia baitcen bi millen ingurua, arthiqui içan cen itsorat [13] eta itho ciren han. [14] Urdeac bazcatcen cituztenac, bada, goan ciren ihessi, eta eraman çuten berri hori hirirat eta campoetarat; eta ilkhi ciren jendeac icusterat cer eguin içan cen. [15] Ethorri ciren guero Jesusen ganat eta icussi çuten deabruaz tormentatua ohi cen hura, jarria, bestitua eta bere sensu onean; eta icitu ciren. [16] Eta icussi çutenec condatu baitçieten cer guerthatu citçayoen deabruaz posseditua ohi cenari eta cer, berriz, urdaldeari, [17] berehala hassi citçaizcon othoitcez, arren ciohan hequien basterretaric. [18] Barcurat igaten hari cela, bada, jarri citçayon othoitcez deabruaz tormentatua içan ohi cena, arren permeti cioçan harequien içan cedin. [19] Baiñan Jesusec ez çuen nahi içan hartu; aitcitic erran cioen: "Çohaz çure etcherat, çure hurcoetarat, eta conda dioçoçute cein gracia handiac eguin darozquitçun Jaunac eta nola urricaldu çaizcon". [20] Goan cen, eta hassi cen predicatcen Decapolissen, cein gracia handiac eguin ciotçan Jesusec; eta guciac miretsiac ceudecen.

[21] Iragan baitcen berriz Jesus barcuan itsassoaren bertce alderat, jendetce handi bat bildu cen haren ganat itsas basterrerat. [22] Ethorri citçayoen harat sina-

13. *-as-* idaztea ahaztu zaio: *itsasorat,* alegia.

gogaco buruçagui bat, Jairus ceritçana, eta icussi çuenecotz arthiqui çuen bere burua haren oiñetarat. [23] Eta othoiztu çuen handizqui, erraten cioela: "Ene alaba hurren dut; çato, pausa dioçoçu escua gaiñean, senda dadintçat eta bici dadin". [24] Goan cen Jesus harequien; eta jarraiqui citçayoen oste handi bat, ceiñec hainitz hertsten baitçuten alde gucietaric.

[25] Eta emaste bat, hamabi urthe hetan odol issuriarequien cena, [26] miricu hainitcetaric haiñitz soffritu çuena eta cituen guciac despendatu cituen arren, batere probetchatu ez cena, aitcitic gaixquiago aurkhitcen cena, [27] adituric mintçatcen Jesusez, ethorri cen jendetce haren artean guibeletic, eta uquitu çuen haren bestimenda; [28] cioen ecen: "Baldin uqui ahal badeçat bederen haren arroba, sendatua içanen naiz". [29] Eta ordu berean agortu cen haren odol-ithurria, eta sentitu çuen bere gorphutcean sendatua cela plaga hartaric. [30] Eta berehala Jesusec bere baithan eçagutu baitçuen haren ganic ilkhi cen berthutea, itçuli cen tropelaren alderat, eta erran çuen: "Norc uquitu du ene arroba?". [31] Erran içan cioten bere dizcipuluec: "Icusten duçu jende multçoac hertxten çaituela, eta dioçu norc uquitu çaituen?". [32] Eta beha cegoen inguruetarat icusteco hori eguin çuena. [33] Baiñan emaste hura icituric eta ikharaturic, baitçaquien cer iragan cen haren baithan, ethorri cen eta bere burua aurthiquiric haren aitciñean, aithortu cioen cen gucia. [34] Harc berriz erran cioen: "Ene haurra, çure fedeac salbatu çaitu; cohaz baquearequien eta çaren sendatua çure plagatic".

[35] Oraiño mintço cela, ethorri ciren sinagogaco buruçaguia baitaric hari errateratat: "Çure alaba hill da; cergatic nekhatcen duçu guehiago naussia?". [36] Jesusec bada adituric hec ciotena, erran cioen sinagogaco buruçaguiari: "Ez duçula beldurric; sinhets çaçu solamente". [37] Eta ez çuen nahi nihor jarraiq cequion, Piarres eta Jacobe eta Joannes, Jacoberen anaya, baicen. [38] Ethorri cirenean sinagogaco buruçaguiaren etcherat, icussi çuen jende tropela bat nigarrez eta deihagoraz ceudecenac. [39] Eta sarthu cenean, erran çaroen: "Cergatic altaratcen çarete, eta nigar eguiten duçue? Nescatcha hau ez da hilla, baiñan lo datça". [40] Eta burlatcen ciren hartaz; baiñan harc guciac khenduric, hartu cituen nescatcharen aita eta ama eta berequien eraman cituenac, eta sarthu cen nescatcha cetçan lekhurat. [41] Eta harturic nescatcharen escua, erran cioen: "Thalita cumi"; erran nahi baida: "Nescatcha, nic diotsut, alcha [14] çaite". [42] Altchatu cen berehala nescatcha eta hassi cen ibiltcen, hamabi urthetacoa cen ecen; eta espantitu içan ciren handizqui. [43] Baiñan manatu içan çaroen hertsiqui beguira çutela nehorc jaquin ceçan, eta erran çaroen eman cioçatela jaterat nescatchari.

14. Ikus lehen esana: I, 31.

VI. Cap.

[1] Jesus handic ilkhi eta goan cen bere herrirat eta jarraiqui citçaizcon bere dizcipuluac. [2] Eta sabbatho eguna ethorri cenean, hassi cen iracasten sinagogan; eta entçuten çutenetaric hainitz miretsiric haren jaquintassunaz, cioten: "Nondic heldu çaizco huni horiec guciac? Cer othe da huni eman cayoen çuhurcia hori? eta, Hunelaco miracuilluac eguiten baidire hunen escuz. [3] Hau ez da harotz hura, Mariaren semea, Jacoberen, Josephen, Judasen eta Simonen anaya? Hunen arrebac ere ez dire hemen gure artean?". Eta escandalisatuac ciren haren ariaz. [4] Baiñan Jesusec erraten çaroen: "Ez ahal da profeta bat ohore gabe bere herrian baicen, bere etchean eta bere hurcoen artean baicen". [5] Eta ecin eguin çuen han miracuilluric batere, lekhat cembait eri bakhoitz escuac hequien gaiñean emanic baitcituen sendatu.

[6] Hala miretsia cegoen hequien sinhets-gogortassunaz; hargatic bacebillan ingurutaco herrisquetan iracasten. [7] Eta deithuric hamabiac, hassi cen hequien igortcen birazca; eta eman çaroen botherea izpiritu lohien gaiñean. [8] Manatu çaroen ez ceçatela deussic eraman bidecotz, bere makhilla baicen; ez çakhuric, ez oguiric, ez eta çarpan diruric; [9] baiñan ciohaçela bere çapatac oiñetan eta ez çaitecela besti arroba doblez. [10] Erran çaroen halaber: "Cein ere etchetan sarthuco baitçarete, çaudete han lekhu hartaric ilkhi çaitezqueten arteraiño. [11] Eta ez baitçaituzte errecibituco, ez aditu nahico, handic ilkhitcean iharrosaçue çuen oiñetaco herrautsa, lekhucotassuntçat balia dadintçat hequien contra. [12] Abiatu ciren, bada, eta predicatcen cioten populuei penitencia eguin ceçatela. [13] Deabru hainitz khencen çuten eta eri hainitz gantçutcen çuten olioz eta sendatcen.

[14] Aditu çuen, bada, erregue Herodessec mintçatcen Jesusez, ecen haren icena jadan famatua cen, eta cioen: "Joannes Baptista bitztu diteque hilletaric; hargatic eguiten dire hambat miracuillu haren escuz". [15] Bertcec cioten: "Elias diteque". Bertcec berriz cioten: "Profeta bat diteque edo lehenagoco profetetaric bat beçalacoa". [16] Horiec adituric, Herodessec erran çuen: "Nic [15] ebaquiaraci diodan Joannes hura da, hilletaric bitztu ditequena".

[17] Ecen Herodes hunec jendeac igorriric harraraci içan çuen Joannes eta estecaturic emanaraci presondeguian, Herodias bere anaya Philiperen emastea cela causa, ceiña hartu baitçuen emastetçat; [18] ceren erraten baitcioen Joanessec Herodessi: "Ez çaitçu cilhegui çure emastetçat içatea çure anayaren emastea". [19] Ho-

15. Perpaus honek ez dirudi osorik esana. Ez ote du *[burua]* edo falta?

rrengatic citçayoen aiher Herodias eta nahi çuqueen hillaraci; ordean ecin çaguiquen. [20] Ecen Herodes beldurtcen [16] Joannessentçat, baitçaquien guiçon justua eta saindua cela; errespetatcen ere çuen, eta hura entçunic hainitz gauça eguiten çuen eta gogotic entçuten ere çuen. [21] Ethorri cen bada halaco egun bat, ceiñetan Herodessec bere sor-eguneco banqueta ematen baitçaroen bere gortheco handiei, armadaco officiale lehenbicicoei eta Galileaco principalei. [22] Eta sarthuric Herodiassen alaba, dantçatu cen eta agradatu citçayoen hambatetaraiñocoan Herodessi, bai eta harequien mahaiñean cirenei, non erreguec erran içan baitcioen: "Galde dieçadaçu nahi duçuna eta emanen darotçut". [23] Eta juramentu ere eguinic erran cioen: "Bai equi; cer ere galdetuco baidarotaçu, eta hura gucia emanen darotçut, licela ere ene erresumaren erdia". [24] Hura ilkhiric, goan citçayon bere amari erraterat: "Cer galdetuco othe dut?". Amac ihardetsi cioen: "Joannes Baptistaren burua". [25] Eta berehala sarthuric lauster handitan erregue cen lekhurat: "Galdetcen darotçut", diotsa, "orai berehala eman dieçadaçun plat batean Joannes Baptistaren burua". [26] Tristatu cen hortaz erregue, baiñan hala ere eguin içan çuen juramentua gatic eta mahaiñean harequien cirenen gatic, ez cioen nahi içan eguin damuric. [27] Hala bere goardetaric bat igorri çuen meçuarequien ekhar cioçala Joannessen burua plat batean. Goardac ebaqui içan cioen burua presondeguian. [28] Eta ekharri çuen plat batean eta eman cioen nescatchari eta nescatchac eman cioen bere amari. [29] Hori adituric, ethorri ciren haren dizcipuluac eta eraman çuten haren gorphutça eta eçarri thomba batean.

[30] Arte hartan bilduric Apostoluac Jesusen ganat, condatu ciotçaten eguin içan cituzten guciac eta iracatsi içan cituztenac. [31] Eta erran çaroen: "Çatozte aparterat bakhar lekhu cembaitetarat eta pausa çaitezte aphur bat". Hainitz ciren ecen haren ganat heldu cirenac, batçu bertceén ondoan, eta ez çuten jateco astiric ere. [32] Sarthu ciren bada barcu batean, eta aldaratu ciren lekhu desertu batetarat. [33] Baiñan cembaitec icussi baitcituzten goaten eta bertce hainitçec berriz eçagutu baitçuten hori, lauster eguin çuten harat oiñez hurbilleco hiri gucietaric, eta arribatu ere ciren hec baiño lehen.

[34] Ilkhitcen hari cela, icussi çuen Jesusec jendetce handi bat eta urricaldu citçaizcon, ceren artçaiñic gabeco ardiac beçala baitciren; eta jarri cen hainitz gauça hei iracasten. [35] Baiñan berandua ere baitcen, ethorri citçaizcon bere dizcipuluac età erran cioten: "Lekhu hau desertu bat da eta muga jauzia ere da; [36] igorratçu horiec hurbilleco bordetarat eta herriscaterat [17], jateco behar dutena erosterat". [37] Ihardetsi içan çaroen harc eta erran: "Emoçue cebonec jaterat". Hec berriz erran cioten: "Goanen othe gare erosterat berrehun cornaduren oguia, horiei jaterat emateco?". [38] Jesusec erran çaroen: "Cembat ogui ditutçue? Çohazte, icusaçue". Eta jaquin çutenean, erran cioten hec: "Bortz ogui ditugu eta bi arrain". [39] Orduan manatu cituen jarraraz cetçatela salerca belhar ferdearen gaiñean. [40] Eta

16. Ikus horrelaxe idatzia lehen (Mt. XIV, 5) *beldur cen* egin ordez.
17. Hala dio, baina *herrisquetarat* behar du agian: ikus Mc. VI, 6; VI, 56; VIII, 27.

jarri içan ciren herrunquetan, ehunazca eta berrogoy eta hamarnazca. [41] Hartu cituen, bada, Jesusec bortz oguiac eta bi arrainac, eta beguiac altchaturic cerurat, benedicatu cituen eta hautsiric oguiac eman çarozten bere dizcipuluei, hec berriz eman ciotçatentçat populuari aitciñerat; eta bi arraiñac ere partitu çarozten guciei. [42] Jan içan çuten guciec, eta asse ciren. [43] Eta eraman cituzten hamabi otharre betheac, guelditu ciren çathietaric eta arraiñetaric. [44] Ciren, bada, jan çutenac bortz milla guiçonetaraiño.

[45] Eta berehala bortchatu içan cituen bere dizcipuluac barcuan sartcerat eta haren aitciñean goaterat uraren bertce alderat, Bethsaidaco parterat, berac populua despei ceçaquen bizquitartean. [46] Eta jendeac igorri içan cituenean, goan cen mendirat othoitz eguiterat. [47] Gaua ethorri cenean, barcua cen itsassoaren erdian eta hura bakharric leyhorrean. [48] Eta icussiric bere dizcipuluac nekhe handirequien hari cirela arrauquetan, haicea çuten ecen contra, gauazco laurgarren goardiaren inguruan, ethorri citçayen itsassoaren gaiñean cebillala eta nahi citçayen iragan aitciñat. [49] Baiñan hec icussi çutenean itsassoaren gaiñean cebillala, uste içan çuten phantasma bat cela eta oihu handi bat eguin çuten. [50] Icussi çuten ecen guciec eta altaratu içan ciren. Baiñan berehala mintçatu citçayen eta erran çaroen: "Sossega çaitezte; ni naiz; ez duçuela beldurric". [51] Guero igan cen hequienganat barcurat eta guelditu içan cen haicea; eta hec are guehiago espantitu ere ciren bere baithan. [52] Ez çuten ecen gogoan ungui hartu oguiez eguin çuen miracuillua, itsutua baitcen hequien bihotça.

[53] Eta iragan cirenean bertce alderat, ethorri ciren Genesarethgo leyhorrerat eta han portu hartu çuten. [54] Barcutic ilkhi cirenecotz, eçagutu çuten hango jendeec. [55] Eta curritu cituzten inguru hartaco herriac eta hassi ciren ekhartcen alde gucietatic ohetan eriac, non cen aditcen çuten toqui gucietarat. [56] Eta non ere sartcen baitcen herrietan, herrisquetan edo hirietan, eçartcen cituzten eriac plaça publicoetan eta errequeritcen çuten utz cetçala haren bestimendaren pertalac bederen uquitcerat; eta uquitcen çuten guciac ciren sendatcen.

VII. Cap

[1] Pharisau batçu eta Jerusalemetic ethorriac ciren escribauetaric cembait ethorri ciren elkhar harturic Jesusen ganat [2] eta icussiric haren dizcipuluetaric cembait escu lohiequien, erran nahi da garbitu gabeéquien, jaten hari cirela, erassi çuten hequien contra. [3] Pharisauec ecen eta judutar guciec ere ez dute jaten escuac maiz garbituric baicen, aitcinecoen eracuspena goardatcen dutela. [4] Eta mercatutic heldu direnean ere ez dute jaten, non ez diren garbitcen; bertce hainitz gauça ere badire beguiratceco eman çaiztenic, hala nola oporren eta elcéen, cobrezco bacheren eta oheèn garbitcea. [5] Galdeguiten cioten bada Pharisauec eta escribauec: "Cergatic ez dabiltça çure dizcipuluac aitcinecoen emancarien arauera, baiñan escu lohiequien dute jaten?". [6] Baiñan harc ihardetsi içan çaroen eta erran: "Ordu onez profetisatu içan çuen Isaiasec çuetaz, hypocritez, escribatua den beçala: Populu hunec ezpaiñez nau ni ohoratcen, ordean horien bihotça urrun da ene ganic; [7] eta alferretan ohoratcen ere naute, guiçonen eracuspenac eta ordenamenduac iraçasten dituztela, [8] ecen Jaincoaren manamenduac utciric, guiçonen eracuspena duçue beguiratcen, elceac eta ophorrac garbitcen ditutçuela eta bertce horlaco hainitz gauça ere eguiten ditutçuela".

[9] Erraten çaroen halaber: "Bide daquiçue Jaincoaren manamenduen ezeztatcen çuen tradicioneari atchiquitceco, [10] ecen Moisec erran içan du: Ohora çatcitçu çure aita eta çure ama; eta bere aita edo ama ahapaldiztatuco duena heriotcez punitua içanen da [11] Çuec dioçue aitcitic: Guiçon batec erraten badio bere aitari edo amari: Ene ganic ditequen corbona, erranahi da offrenda, çuri ere balia daquiçula, complitcen du leguea. [12] Eta ez duçue uzten deus ere guehiagocoric eguin deçan bere aitarentçat edo amarentçat, [13] ezeztatcen duçuela manera hortan Jaincoaren manamendua cebonec asmatu duçuen tradicione batez; eta horlaco bertce hainitz gauça ere eguiten ditutçue".

[14] Jesusec erakharriric berriz populua erran çaroen: "Adi naçaçue ungui guciec eta har çaçue ungui nic darotçuedana. [15] Ez da deussere guiçonaz campocoric, haren barnean sartceaz hura hidoizta ahal deçaquenic; baiñan guiçonaren baitharic ilkhitcen direnac dire hura lohitcen dutenac. [16] Nihorc baldin beharriac baditu aditceco, adi deçala". [17] Guero sarthu cenean etchean, galdeguin cioten bere dizcipuluec hea cer erran nahi çuen parabola harc. [18] Eta erran içan çaroen: "Çuec ere horren tontoac çarete? Ez duçue, bada, comprenitcen campotic guiçonaren barnerat sartcen den deussec ecin hura hidoizta deçaquela; [19] ceren hura ez baida sartcen haren bihotcerat, baiñan baidoha sabelerat, handic secretetarat, bere-

quien daramala janari guciec lohi duquetena? [20] Baiñan", ciotsoten, "guiçona baitharic ilkhitcen direnac dire hura liçuntcen dutenac, [21] ecen guiçonen barnetic eta bihotcetic ilkhitcen ohi dire pensamendu gaixtoac, adulterioac, fornicacioneac, guiçon hiltceac, [22] ebascoac, abariciac, gaixtaqueriac, tromperiac, lohiqueriac, begui gaizcoatua, blasphemioa, orguilleria, çoramendua. [23] Horiec guciac barnetic heldu dire eta horiec dute liçuntcen guiçona".

[24] Eta handic altchaturic, goan cen Tyrgo eta Sidongo parterat eta, etche batean sarthu baitcen, ez çuen nahi nihorc jaquin ceçan, baiñan ecin gorde cen. [25] Ecen han cela adituric, emaste bat, ceiñaren alaba posseditua baitcen izpiritu gaixto batez, sarthu cen berehala eta arthiqui cen haren oiñetarat. [26] Emaste hura cen paganoa eta ethorquiz Syrophenissiarra, eta othoitcez cegocon, arren khassa ceçan deabrua haren alaba ganic. [27] Baiñan Jesusec erran içan cioen: "Utçacu sassia deitecen behin haurrac, ecen ez da ungui haurren oguia hartcea eta chacurrei etchatcea". [28] Harc berriz ihardetsi cioen eta erran: "Hala da, Jauna, baiñan chacur chumeac ere mahain azpian jaten dute bederen haurren ogui papurretaric". [29] Orduan erran içan cioen: "Hitz horrengatic, bada, çohaz; ilkhi da deabrua çure alaba ganic". [30] Eta goan cenean bere etcherat, aurkhitu çuen ilkhi cela deabrua eta alaba ohe gaiñean cetçala.

[31] Jesus berriz ilkhiric Tyrgo basterretaric, ethorri cen Sidonen gaindi Galileaco itsaso alderat, Decapolisco basterren erditic iragaten cela. [32] Eta ekharri cioten guiçon bat gorra eta mutua, eta errequeritu çuten haren gaiñean paussatceaz escua. [33] Orduan Jesusec jende artetic aparterat hura eramanic, eçarri cituen bere erriac [18] haren beharrietan, eta thu eguiñic uquitu cioen mihia. [34] Eta beguiac cerurat altchaturic, eguin çuen suspira bat eta erran içan cioen: "Ephpheta"; erran nahi da,"ideq çaite". [35] Berehala idequi ciren haren beharriac eta lechatu cen haren mihia eta mintço cen trebequi. [36] Jesusec manatu çaroen nihori ez errateaz, baiñan cembatenaz harc guehiago debecatcen baitçaroen, eta hambatenaz hec guehiago camporatcen çuten. [37] Eta cioten hainitz miresten çutelaric: "Ungui eguin ditu gauça guciac; adiaraci daroe gorrei eta mintçaraci ditu mutuac".

18. Alegia, *erhiac*: ikus Mt. V, 22 eta XXIII, 4.

VIII. Cap.

[1] Egun hetan nola jendetce handi bat baitcen Jesusequien eta ez baitçuten jatecoric, deithu içan cituen bere dizcipuluac eta erran çaroen: [2] "Urricaltcen çait populu hau, ecen badu ja hirur egun enequien daudecela eta ez dute jatecoric. [3] Eta baldin igortcen baditut baruric bere etchetarat, flacatuco dire bidean; ecen horietaric cembait urrundic ethorriac dire". [4] Ihardetsi içan cioten bere dizcipuluec: "Nola aurkhi ahal liteque ere oguiric asqui desertu huntan hauquien assetceco?". [5] Eta galdeguin çaroen: "Cembat ogui ditutçue?" Ihardetsi cioten hec: "Çazpi". [6] Orduan manatu çuen populua jar cedillala lurraren gaiñean; eta harturic çazpi oguiac, esquerrac errendatu eta hautsi cituen, eman çarozten bere dizcipuluei, hec populuari partitceco; eta partitu içan ciotçaten. [7] Bacituzten halaber arrain guti batçu ere, ceiñac benedicatu baitcituen, eta manatu cituen parti ciotçatela populuari. [8] Jan çuten, bada, eta asse ciren; eta altchatu cituzten çazpi otharre betheac guelditu içan ciren çathitaric. [9] Baciren jan çutenac laur milla presunen ingurua; eta igorri cituen. [10] Handic berehala sarthuric barcu batean bere dizcipuluequien, ethorri cen Dalmanuthaco parterat.

[11] Eta ethorriric pharisauac, hassi ciren harequien iharduquitcen eta hura tentatu nahiz, galdetu cioten cerbait seiñale cerutic eracuts cioçatela. [12] Baiñan Jesusec bihotçaren barnetic hatsbeherapen bat eguinic erran içan çuen: "Cergatic dagot nacione hau seinale galdez? Erraten darotçuet eguia, ez çayoela emanen jenderacione huni seiñaleric". [13] Eta hec han utciric, sarthu cen berriz barcuan eta iragan cen bertce alderat.

[14] Ahantci citçayen, bada, dizcipuluei oguiac hartcea eta ogui bakhar bat baicen ez çuten berequien barcuan. [15] Eta Jesusec eman baitçaroen manu hau: "Beguira çaitezte ungui Pharisauen altchagarritic eta Herodessen levamitic", [16] uste çuten hec eta elkharri ere erraten çaroen: "Equi hori, oguiric ceren ez dugun". [17] Eta hori eçaguturic Jesusec, erran içan çaroen: "Cergatic darassaçue çuen gogoan oguiric ez duçuela? Oraino ez duçue eçagutçaric, ez adimenduric? Oraiño gogorquitua duçue çuen bihotça? [18] Beguiac ditutçuelaric ez duçue icusten, beharriac ditutçuelaric ez duçue aditcen. Eta ez çarete guehiago orhoitcen. [19] Bortz ogui hautsi içan nituenean bortz milla guiçonentçat, cembat sasqui altchatu cinituzten çathiz betheac? "Erran cioten hec: "Hamabi". [20] Eta çazpi ogui hautsi içan nituenean laur milla guiçonentçat, cembat otharre altchatu cinituzten, puscaz betheac? "Çazpi", diotsate hec. [21] Eta erran çaroen: "Nolatan, bada?. Ez duçue, bada, oraiño comprenitcen cer erran nahi dudan?".

[22] Ethorri cirenean bada Bethsaidarat, ekharri içan cioten itsu bat eta othoiztu çuten, arren uqui ceçan. [23] Hartu çuen itsua escutic, eta eramanic herriaz camporat, eguin cioen thu beguietarat, eta escuac haren gaiñean emanic, galdeguin cioen hea deussic icusten çuen. [24] Itsuac behaturic erran cioen: "Icusten ditut guiçonac dabiltçala haritçac balire beçala". [25] Guero berriz ere eman ciotçan escuac beguien gaiñean eta hassi cen icusten hobequi eta sendatu cen hain ungui, non claroqui icusten baitcituen gauça guciac. [26] Eta igorri içan çuen bere etcherat, erraten cioelaric: "Cohaz çure etcherat, eta baldin sartcen baçare herrian, ez dioçaçula erran nihori hunelacoric".

[27] Goan cen handic Jesus bere dizcipuluequien Philipe Cesareaco herrisquetarat; eta bidean eguin çaroen galde hau bere dizcipuluei: "Nor naicela diote guiçonec?". [28] Ihardetsi cioten hec eta erran: "Batçuc Joannes Baptista, bertceec Elias, bertceec berriz lehenagoco profetetaric beçalaco bat". [29] Orduan erran içan çaroen: "Eta bada çuec, nor naicela dioçue?". Piarressec ihardetsi cioen eta erran: "Cu çare Christo". [30] Eta mehatchurequien debecatu çaroen, ez cioçatela nihori erran hartaz hori.

[31] Dembora berean hassi citçayen declaratcen halabeharra cela guiçonaren Semeac soffri ceçan hainitz, içan cedin erreprobatua cargudunez, aphecen princeez, eta escribauez içan cedin hillaracia; eta hirur egunen buruan bitz cedin hilletaric. [32] Eta mintço cen hortaz agueriqui. Orduan Piarressec harturic aparterat, erantçuten hassi citçayoen. [33] Baiñan itçuliric eta bere dizcipuluei behaturic, errepreniru çuen garrazqui Piarres, erraten cioelaric: "Çohaz, aldara çaite ene ganic, Satana, ceren ez baiduçu gusturic Jaincoaren gaucentçat, aitcitic bai lurrecoentçat".

[34] Eta erakharriric populua bereganat bere dizcipuluequien batean, erran çaroen: "Baldin nihorc nahi badu ene ondoan ethorri, eguin bioço ukho bere buruari, eta ekhar beça bere gurutcea eta jarraiq bequit niri. [35] Norc ere ecen nahico baidu bere burua salbatu, galduco du; eta norc ere galduco baidu bere burua ene gatic eta Evangelioa gatic, salbatuco du. [36] Eta cer probetchu luque guiçonac, irabaz baleça ere mundu gucia, baldin galtcen balu bere burua? [37] Edo cer eman deçaque guiçonac bere buruaren ordaintçat? [38] Ecen nihor ahalcatcen bada nitaz eta ene hitçaz arraça adultera eta bekhatoros hunen artean, Guiçonaren Semea ere ahalque içanen da hartaz, noiz eta ere ethorrico baida bere Aitaren glorian bere aingueru sainduequien". [39] Hau ere erran çaroen: "Erraten darotçuet eguia, badirela hemen direnetaric cembait hillen ez direnic, icussi içan gabetacoric arribatcen Jaincoaren Erressuma bere botherearequien".

IX. Cap.

[1] Handic sei egunen buruan Jesusec harturic Piarres, Jacobe eta Joannes eraman cituen mendi gora batetarat hec bakharric berequien aparterat, eta tranfiguratu içan cen hequien aitciñean. [2] Haren bestimendac eguin ciren arguia beçain distiant eta elhurra beçain churi; hain churi bai, non ez bailiteque possible bolaçalec lurraren gaiñean hain churiric eguin leçan. [3] Eta aguertu çitçaizten Elias eta Moyses Jesusequien mintço cirela. [4] Orduan Piarressec hitça harturic, erran cioen Jesusi: "Naussia, ungui gare hemen; eguitcigun hemen hirur etchola, bata çuretçat, bertcea Moiserentçat eta bertcea Eliasentçat". [5] Ez çaquien ecen cer erraten çuen; hain ciren ecen icituac eta harrituac. [6] Dembora berean hedoy batec estali cituen eta ethorri cen boz bat hedoipetic, erraten çuena: "Hauche da ene Seme maite maitea; hau adi çaçue". [7] Eta berehala behatu baitçuten alde gucietarat, nihor guehiago ez çuten icussi Jesus bera baicen cela hequiequien. [8] Menditic jausten hari cirela, manatu çaroen nihori ez ciotçatela erran icussi cituzten gauçac, Guiçonaren Semea hilletaric bitztuco denean baicen.

[9] Eta hec gauça bere baithan gordea atchiqui çuten, elkharri galdeguiten çaroelaric, cer erran nahi othe çuen errate hunec: hilletaric biztuco denean. [10] Guero galdeguin çioten eta erran: "Cer erraten dute, bada, Pharisauec eta escribauec, Elias ethorri beharra dela lehenago?" [11] Ihardetsi içan çaroen Jesusec: "Eguia da, Elias ethorrico da lehenago eta gauça guciac bere estaturaco ditu eta Guiçonaren Semeaz escribatua içan den beçala, harc ere soffrituco du hainitz; gaitcetsia eta mespreçatua içanen da. [12] Baiñan erraten darotçuet çuei, Elias bera jadan ethorri içan dela, eta haren gaiñean eguin içan dutela nahi çuten gucia, hartaz escribatua içan den beçala. [13] Ethorri içan cenean bere bertce dizcipuluetarat, icussi çuen jende mulço handi bat hequien inguruan eta escribauac hequiequien ciharducatela.

[14] Eta berehala populu gucia espantitu cen eta icitu Jesus icustean, eta lauster eguinic haren ganat, salutatu çuten. [15] Orduan galdeguin çaroen: "Certaz diharducaçue çuen artean?". [16] Eta jendetce haren artetic batec hitça harturic, erran cioen: "Naussia, ekharri içan dut ene semea çureganat, ceina posseditua baida izpiritu mutu batez. [17] Hartcen duen gucian arthiquitcen du lurraren contra, eta haurrari arrapoa dario, hortçac carrascatcen ditu, eta ihartcen hari da gucia; othoiztu ditut çure dizcipuluac, arren khen dioçaten izpiritu gaixto hura, eta ecin eguin dute". [18] Ihardetsi çaroen Jesusec eta erran: "O jende sinhexte gabeac, noiz arteraiño pairatuco çaituztet? Ekharraçue haurra ene ganat". [19] Ekharri içan cioten eta Jesus icussi çuenecotz izpirituac, iharrosi çuen haurra, eta lurrerat eroriric

itçulica cebillan haguna çarioela. [20] Jesusec galdeguin cioen haurraren aitari: "Cembat dembora du hori guerthatcen çayoela?". Eta harc erran cioen: "Bere haurtassunetic. [21] Eta maiz aurthiqui içan du surat eta bai urerat, galaraci nahiz; baiñan deussic ahal badaguiçu, gaitçatçun urricari [19] eta lagun gaitçatçu". [22] Jesusec ihardetsi cioen: "Baldin sinhetx ahal badeçaçu, gauça guciac ahalcor çaizco sinhexten duenari". [23] Berehala haurraren aitac erran cioen oihuz eta nigarrez cegoelaric: "Sinhexten dut, Jauna; hel çaquizquit ene sinhetxgogorrean". [24] Eta icussiric Jesusec populua tropelaca heldu cela, mehatchatu çuen izpiritu lohia erraten cioelaric: "Izpiritu gorra eta mutua, nic manatcen haut: ilkhi adi [20] haur horren ganic eta guehiago ez hadin [20] sar horren baithan". [25] Orduan izpiritu hura ilkhi cen oihu handi bat eguinic eta haurra hainitz porroscaturic; eta eguin cen haurra hilla beçala, halaco maneraz non hainitcec baitcioten hill ere cela. [26] Baiñan Jesusec escutic harturic altchatu çuen eta jaiqui cen haurra. [27] Jesus sarthu cenean etchean, bere dizcipuluec galdeguin cioten apartean: "Cergatic ecin guc cassatu duquegu deabru hura?" [28] Jesusec ihardetsi çaroen: "Deabru suerte horiec ecin khen daitezque oracionez eta barurez baicen". [29] Handic ilkhiric goan ciren Galilean gaindi eta ez çuen nahi nihorc jaquin ceçan.

[30] Bizquitartean iracasten çaroen bere dizcipuluei eta erraten: "Guiçonaren Semea libratua içanen da guiçonen escuetarat eta hillen dute eta biztuco da hillen denetic hirurgarren egunean". [31] Baiñan hec ez çuten deussic comprenitcen hizcuntça hortan eta ici ciren hari galdeguiterat horren explicacionea. [32] Ondoan ethorri ciren Capharnaumerat eta etcherat cirenean, galde eguin çaroen: "Certaz minço ciñeten elkharren artean bidean?".

[33] Hec ordean ichillic ceudecen, ceren bidean iharduqui içan baitçuten elkharren artean, cein citequen hetaric handiena. [34] Eta jarri cenean, erakharri cituen hamabiac eta erran çaroen: "Baldin nihorc nahi badu içan lehenbicico, içanen da gucietaric azquena eta gucien cerbitçaria". [35] Guero hartu çuen haurtcho bat eta hequien erdian emanic, bessarcatu çuen eta erran çaroen: [36] Norc ere errecibituco baidu hunelaco haurtchoetaric bat ene icenean, ni errecibitcen nauque; eta norc ere ni errecibitcen bainau, eta harc ez nau ni choilqui errecibitcen, baiñan bai ni igorri içan nauena". [37] Orduan Joannessec hitça harturic, erran cioen: "Naussia, icussi dugu guiçon bat çure icenean deabruac khentcen dituena, ceiña ez baida gureetaric, eta debecatu dugu".

[38] Baiñan Jesusec ihardetsi cioen: "Ez deçaçuela debeca; ez da ecen nihor, ene icenean miracuillu bat eguin duquenean, berehala nitaz gaizqui minça ahal daitequenic. [39] Ecen çuen contra ez dena, çuen alde da. [40] Hala norc ere emanen baidarotçue beyra bat ur ene icenean, ceren Christorenac çareten, erraten darotçuet eguia, ez duela galduco bere saria. [41] Eta baldin nihorc escandalisatcen

19. Ikus Mt. XX, 30; hemen ere *gaitçatçun urricari.*

20. Hemen *adi* eta *hadin* ditugu elkarren ondoan. Batetik *h-* kontua eta bestetik agintekera eta subjuntiboa.

badu ene baithan sinhesten duten chume hautaric bat, hobe luque haiñac,errota harri bat lephoan amarraturic, etcha leçaten itsassoan behera.

[42] Baldin çure escuac trebecaratcitcen baçaitu, ebaqui çaçu; hobe da çuretçat sartcea bicitcean escu bakhoitzdun, ecen ez bi escu ditutçula goatea ifernurat, behinere iraunguituco ez den surat; [43] ceiñetan hequien harra ez baida hiltcen eta sua ez baida iraunguitcen. [44] Eta baldin çure oiñac behatztoparazten baçaitu, ebaqui çaçu; hobe da çuretçat maingu ere sartcea bicitce eternalean, ecen ez bi oiñac ditutçula arthiquia içatea ifernurat, behiñere iraunguituco ez den surat; [45] ceiñetan hequien harra ez baida hiltcen eta sua ez baida iraunguitcen. [46] Baldin çure beguiac baçaitu escandalisatcen, iraz çaçu; hobe da çuretçat okher sartcea Jaincoaren erresuman, ecen ez bi beguiac ditutçula arthiquia içatea ifernuco surat; [47] ceiñetan hequien harra ez baida hiltcen eta sua ez baida iraunguitcen. [48] Ecen guciac suaz gacituac içan beharrac dire, hala nola bictima guciec gatçaz gacituac içan behar baidute.

[49] Gauça ona da gatça; baldin ordean gatça gueçatcen bada, certaz gacituco duçue? Içan çaçue ceben baithan gatça, eta duçuen baquea elkharren artean".

X. Cap.

[1] Jesus handic abiaturic ethorri içan cen Judeaco bazterretarat Jordanaz bertce alderat, eta tropelac bildu içan baitciren berriz haren ganat, hassi cen ohi beçala berriz ere hei iracasten. [2] Eta Pharisauac ere harat ethorriric, galdez cegozcon hura tentatcea gatic, hea cilhegui çayoen guiçonari bere emastea uztea. [3] Baiñan ihardetsi çaroen eta erran: "Cer manatu içan darotçue Moisec?". [4] Hec berriz erran cioten: "Moisec permetitu içan du separacioneco escribu bat eguinic emastea uztea". [5] Jesusec ihardetsi çaroen eta erran: "Çuen bihotceco gogortassuna gatic eman darotçue ordenamendu hori. [6] Baiñan creacionearen hastetic Jaincoac guiçon bat eta emaste bat eguin cituen. [7] Horren gatic du utcico guiçonac bere aita eta bere ama, eta da egonen bere emastearequien. [8] Eta dire içanen biac haragui bat eta hala gaur guehiago ez dire bia, baiñan haragui bat. [9] Jaincoac bat eguin içan duena, beraz, ez beça guiçonac separa". [10] Etcherat cenean,bada, bere dizcipuluec galdeguin cioten gauça hortaz beraz, [11] eta erran çaroen: "Norc ere utzten baidu bere emastea eta bertce bat esposatcen, adulterioa eguiten du haren contra. [12] Eta baldin emasteac utzten badu bere senharra eta bertce batequien ezcontcen bada, adulterioa eguiten du".

[13] Orduan ekharri ciotçaten haurtcho batçu uqui cetçantçat eta dizcipuluec arbuyatcen baitcituzten mehatchurequien hequien presentatçailleac, [14] Jesusec hori icussiric, damu hartu çuen eta erran çaroen: "Utçatcitçue haurtchoac ethortcerat ene ganat, eta ez detçatçuela debeca; horlacoena da ecen Jaincoaren erressuma. [15] Erraten darotçuet eguia: Norc ere ez baidu errecibituco Jaincoaren erresuma haurtcho baten antçura, ez dela han sartuco". [16] Eta bessarcaturic haurtcho hec eta escuac hequien gaiñean emanic, benedicatu cituen.

[17] Ilkhitcen hari cela bideari emateco, ethorri citçayoen lausterrez presuna bat eta haren aitcinean belhauricaturic galdeguin cioen: "Naussi ona, cer eguin behar dut bicitce eternala ardiexteco?". [18] Jesusec ihardetsi cioen: "Cergatic deithcen nauçu ona? Ez da nihor onic, Jaincoa bera baicen. [19] Manamenduac badaquiztçu: Ez deçaçula eguin adulterioric, ez deçaçula nihor hill, ez deçaçula ebats, ez derraçula falso testimonioric, ez dioçoçula eguin nihori bidegaberic, ohora çatçu çure aita eta ama". [20] Eta harc ihardetsi cioen: "Naussia, horiec guciac beguiratu içan ditut neure gastetassunetic". [21] Jesusec bada behaturic, onetsi çuen eta erran cioen: "Gauça bat escas duçu oraiño: Çohaz, ditutçun guciac sal çatcitçu, eta emotçute pobreei,eta içanen duçu thresor bat ceruan; çato guero eta segui naçaçu ni". [22] Baiñan guiçon hura hitz horrec tristaturic goan cen gucia doloratua, cergatic ontassun hainitcen jabe baitcen.

[23] Orduan Jesusec ingurutarat behaturic, erran çaroen bere dizcipuluei: "Ala nekhez sarthuco baidire Jaincoaren Erresuman diru hainitz dutenac". [24] Eta espantituac baitciren hitz horietaz dizcipuluac, Jesusec berriz erran çaroen: "Ene haurrac, ala gaitx baida aberatstassunetan bere fidantcia ematen dutenac sartcea Jaincoaren Erresuman. [25] Errechago da camelu bat orratz baten cilhotic iragatea, ecen ez aberats bat Jaincoaren Erresuman sartcea". [26] Eta are guehiago mirexten çuten, ciotelaric: "Eta nor, beraz, salba ahal diteque?". [27] Baiñan Jesusec hei behaturic, erran çaroen: "Hori guiçonen baithan impossiblea da; ez ordean Jaincoa baithan, guciac ecen possible dire Jaincoarentçat".

[28] Orduan Piarres hassi citçayoen erraten: "Huna guc utçi içan ditugu guciac eta jarraiqui gaitzquitçu çuri". [29] Jesusec ihardetsi cioen: "Erraten darotçuet eguia: Nihor ez da utci duquenic etchea edo bere anaya edo bere arrebac edo bere aita edo bere ama edo bere haurrac edo bere lurrac ene gatic eta Evangelioa gatic, [30] ceiñec ez baidu errecibituco ehunetan hambat oraindanic mende huntan berean, etche eta anaya eta arreba eta ama eta haur eta lur, atsecabequien batean; eta ethorquissuneco [21] mendean bicitce eternala ere. [31] Ordean lehenbicico cirenetaric hainitz içanen dire azqueneco eta hainitz azqueneco cirenetaric berriz lehenbicico".

[32] Eta bidean cihoacela Jerusalemerat igateco, aitciñean cihoacoten Jesus eta espantituac eta icituac cihoacen haren ondotic. Jesusec hartu cituen berriz ere hamabiac aparterat, eta hassi citçayen erraten cer arribatu behar citçayon: [33] "Huna non goacen Jerusalemerat, eta Guiçonaren Semea libratua içanen çaye aphecen princeei eta escribauei eta cargudunei; eta condenatuco dute heriotcerat eta libratuco paganoen escuetarat. [34] Eta trufa eguiñen diote, thu eguinen diote bisayarat, açotatuco dute eta hillaracico dute eta hilletaric biztuco da hirurgarren egunean.

[35] Orduan ethorri citçaizcon Jacobe eta Joannes Zebedearen semeac eta erran cioten: "Naussia, nahi guinduque guc, galdetu gogo darotçuguna eguin ciñeçagun". [36] Ihardetsi çaroen: "Cer nahi duçue eguin dieçaçuedan?". [37] "Eman dieçaguçu", diotsate, "bata çure escuiñeco aldean eta bertcea çure ezquerrecoan jar gaitecen çure glorian". [38] Baiñan Jesusec erran çaroen: "Ez daquiçue cer galdetcen duçuen. Edan deçaqueçue nic edan behar dudan calixa, eta nic bathatua [22] içan behar dudan bathayoan içan ahal çaitezquete bathayatuac". [39] Ihardetsi cioten hec: "Eguin deçaquegu hori". Jesusec berriz erran çaroen: "Nic edan behar dudan calixa edanen duçue, hala da; eta nic bathayatua içan behar dudan bathayoaz bathayatuac içanen çarete. [40] Ordean ene escuineco edo ezquerreco aldean jartcea, ez dagot niri çuei ematea, baiñan haiñei emanen çaye, ceinei preparatua içan baitçaye".

[41] Eta hori adituric, bertce hamarrac hassi ciren hassarratcen Jacoberen eta Joannessen contra. [42] Baiñan Jesusec bere ganat erakharriric erran çaroen: "Bada-

21. Honelaxe idatzia, bai, hemen eta gehiagotan, lehen *passientcia* (Mt. XVIII, 16) bezala.

22. Hemen, eta beste hiruzpalautan, *bathatua* idatzi du eta hurrengo lerroan berriz *bathayatuac*; lehena noiz edo behin gainean zuzendu eta osatu du, *bathayatu* ipinirik, batzutan, ordea, bere hartantxe utzi du, hemen bezala.

quiçue populuen gaiñean authoritate dutenec eracusten dutela hequien gaiñean bere naussitassuna, eta hequien princeéc bere manuco dagozcatela hec. [43] Ordean ez da horla içanen çuen artean; aitcitic norc ere nahico baidu içan handiena, eta harc beharco du içan çuen muthill. [44] Eta norc ere nahico baidu içan çuetaric lehenbicico, eta beharco du içan gucien cerbitçari. [45] Ecen Guiçonaren Semea ere ez da ethorri içan cerbitçatua içaterat, aitcitic bai cerbitçatcerat eta bere bicia ematerat hainitcen erresquetamenduarentçat".

[46] 0ndoan ethorri ciren Jerichorat eta Jerichotic ilkhitcen hari cela bere dizcipuluequien eta jendetce handi batequien, itsu bat Bartimeo, Timeoren semea, cegoen jarria bide basterrean esque; [47] eta adituric Jesus Nazarethecoa cela, hassi cen oihuz erraten: "Jesus, Daviden Semea, nauçun [23] urricari". [48] Eta mehatchuz cegozcon hainitz, cegoela ichillic; bainan harc oihua haguitz çaraman gorago: "Daviden Semea, nauçun urricari". [49] Orduan Jesus guelditu cen; eta manatu çuen erakhar ceçatela; eta deithu çuten erraten ciotelaric: "Eguiçu curaye; altcha [24] çaite; deitcen çaitu". [50] Eta hura bere capa etchaturic, altchatu cen eta ethorri Jesusen ganat. [51] Jesusec hitça harturic, erran içan cioen: "Cer nahi duçu eguin dieçaçudan?". Itsuac ihardetsi cioen: "Naussia, eguiçu icus deçadan". [52] Jesusec, bada, erran cioen: "Çohaz, çure fedeac salbatu çaitu". Eta instant berean hassi cen icusten eta jarraiqui citçayon Jesusi bidean.

23. Ikus hemen ere eta hurrengo bertsotxoan *nauçun urricari*, eta ez *naçaçun*: ik. goraxeago Mc. IX, 21.

24. Orain *altcha* dio, lehen ez bezala: ik. Mc. V, 41.

XI. Cap.

[1] Jerusalemerat hurbildu cirenean eta Bethaniarat Olibetaco mendiaren aldetic, igorri cituen bere dizcipuluetaric bia, [2] eta erran çaroen: "Çohazte çuen aitçiñean den herrisca hortarat eta han sarthu çaretenecotz, aurkhituco duçue asto ume bat estecatua, ceiñaren gaiñean nihor ez baida oraino jarri içan; lecha çaçue eta ekhar dieçadaçue. [3] Eta baldin nihorc erraten badarotçue: Cer hari çarete?, erraçue: Jaunac baidu horren beharra. Eta berehala utcico du hunat ekhartcerat". [4] Goan ciren, bada, eta aurkhitu çuten asto umea estecatua campoan, athe aitciñean, bi bideen erdian, eta lechatu çuten. [5] Eta han cirenetaric cembaitec, erran çaroen: "Cer hari çarete, asto ume hori lechatcen baiduçue?". [6] Ihardetsi içan çaroen hec Jesusec manatu içan çaroen beçala; eta utci çaroen eramaterat. [7] Ekharri cioten, bada, asto umea Jesusi, estali içan çuten bere tresnez eta jarri cen haren gaiñean. [8] Haiñitcec halaber hedatu cituzten bere bestimendac bidean, bertcec berriz adarrac ebaquiric arboletaric hedatcen cituzten hura iragaten cen toquian. [9] Eta hala aitciñean cihoacenac, nola ondotic heldu cirenac, oihuz ceudecen erraten çutelaric: "Hosanna, agur eta gloria. [10] Benedicatua dela Jaunaren icenean heldu dena. Benedicatua dela gure aita Daviden Erresuma heldu çaicuna. Hosanna, agur eta gloria ceruen gorenean". [11] Sarthu cen guero Jesus Jerusalemen eta goan cen templurat eta alde gucietarat behatu ondoan, berandua ere baitcen jadan, goan cen Bethaniarat hamabi Apostoluequien.

[12] Biharamunean Bethaniatic ilkhitcen cirela, gossetu cen. [13] Eta icussiric urrundic fico ondo bat ostoac cituena, ethorri cen hea deussic aurkhituco othe çuen hartan; eta hurbildu cenean, ez çuen aurkhitu ostoric baicen, ez cen ecen ficoen dembora. [14] Orduan Jesusec erran cioen fico ondoari: "Hemendic harat guehiago seculan hire ganic nihorc jan ez deçala fruituric". Eta aditu çuten haren dizcipuluec hori.

[15] Jerusalemerat ethorri eta sarthu cen templuan, eta hassi cen khentcen handic saltcen eta erosten hari cirenac eta arthiqui cituen gambiadoreèn mahaiñac eta usso colomba salçailleèn alkhiac. [16] Ez çuen ere uzten nihor, erabill ceçan gauçaric batere templutic. [17] Eta hari citçayen iracasten, erraten çaroelaric: "Escribatua ez da ene etchea othoitceco etchea içanen dela deithua nacione gucietan? Bizquitartean çuec eguin duçue hura ohoiñen gordelekhu bat". [18] Hori adituric, aphecen princeac eta escribauac bilha cebiltçan nola galaraz othe ceçaqueten; beldur citçaizcon ecen, ceren populu gucia espantutan baitcegoen haren dotrinaz. [19] Arratsaren gaiñerat ilkhitcen cen hiritic.

[20] Biharamun goicean iragaten cirela, icussi çuten fico ondoa erroetaric ihartua. [21] Eta orhoituric, Piarressec erran cioen: "Naussia, huna çuc madaricatu içan duçun fico ondoa non den ihartua". [22] Jesusec hitça harturic erran çaroen: "Duçuen Jaincoa baithan fidancia. [23] Erraten darotçuet eguia: Norc ere erranen baidioque mendi huni: Khen adi hortic eta arthic adi itsassorat, eta hori bere bihotcean dudaric gabe, baiñan sinhetsiric erran duquen gucia eguiñen dela, hala eguinen çayo. [24] Hargatic darotçuet erraten: Cer ere othoitcez galdetuco baiduçue, sinhetxaçue ardietxico duçuela, eta hala helduco çaizquitçue ere. [25] Ordean othoitcean jartcen çaretenean, baldin deussic nihoren contra baduçue, barkha dioçoçue, çuen Aita ceruetan denac ere çuei barkha dietçatçuentçat çuen bekhatuac. [26] Ecen baldin çuec barkhatcen ez baduçue, çuen Aita ceruetan denac ere ez darozquitçue barkhatuco çuen bekhatuac".

[27] Ondoan ethorri ciren berriz Jerusalemerat; eta tenpluan cebillala, ethorri citçaizcon aphecen princeac, escribauac eta cargudunac. [28] Eta erran cioten: "Cer authoritatez eguiten ditutçu gauça horiec eta norc eman darotçu bothere horien eguiteco?". [29] Jesusec, bada, ihardetsi içan çaroen eta erran: "Nic ere gauça bat nahi darotçuet galdeguin. Ihardets dieçadaçue eta ondoan erranen darotçuet cer authoritatez eguiten ditudan gauça horiec. [30] Joannessen bathayoa cerutic cen ala guiçonetaric? Ihardets dieçadaçue". [31] Baiñan hec elkharren artean arroçoinatcen çuten ciotelaric: "Baldin erraten badugu cerutican cela, erranen darocu: cergatic, beraz, ez duçue hura sinhetsi: [32] Erraten badugu berriz guiçonetaric cela, beldur içateco gare populuarentçat". Ecen guciec çaducaten Joannes eguiazqui cela profeta. [33] Eta hala ihardetsi cioten Jesusi eta erran: "Ez daquigu". Jesusec berriz erran çaroen hei: "Nic ere ez darotçuet erranen cer authoritatez eguiten ditudan horiec".

XII. Cap.

[1] Guero hassi citçayen Jesus paraboletan erraten: "Guiçon batec landatu içan çuen mahasti bat, inguratu çuen hessiz eta eguin çuen lurrean putçu bat dolhareèntçat, bastitu çuen dorre bat, eta laborariei alocaturic mahastia, goan cen lekhu urrun batetarat. [2] Sassoiña ethorri cenean, igorri çaroen mahastiçainei bere cerbitçari bat, hequien ganic errecibitceco mahastico fruituetaric çor ciotena. [3] Baiñan hec hura harturic cehatu çuten eta igorri hutsic. [4] Berriz igorri içan çaroen bertce cerbitçari bat, eta hura buruan çaurthu içan çuten eta injurio suerte guciac eguin ciotçaten. [5] Bertce bat oraiño igorri içan çuen; hura hill çuten, eta bertce hainitz ere igorri baitçarozten ondoan, hetaric batçuec cehatu eta bertceac berriz hill cituzten. [6] Fiñean seme bakhoitz eta maite bat içan eta hura ere igorri içan çaroen azquenecotz, erraten çuelaric ecen: Aguian ene semearentçat içanen dute cerbait icustate. [7] Baiñan mahastiçaiñec bere artean erran çuten: Huna primua; çatozte, hill çagun eta guretçat içanen da ontassuna. [8] Harturic, bada, hill çuten eta arthiqui mahastitic camporat. [9] Cer eguiñen othe du, beraz, mahastiaren jabeac? Ethorrico da, galaracico ditu mahastiçaiñ hec eta emanen daroe bere mahastia bertcei. [10] Escrituraco erran hau ez duçue iracurri: Bastitçailleec arbuyatu içan duten harria eguin içan da cantoineco harri burua; [11] Jaunaz eguiña içan da hori eta da gauça miragarria gure beguietan?". [12] Aiher ciren bada haren guelditcerat, baiñan beldur populuarentçat, eçagutu çuten ecen hetaz minço cela parabola hortan; eta hura han utciric, goan ciren handic.

[13] Guero igorri içan ciotçaten pharisauetaric eta herodiarretaric cembait, hura bere hitcetan atceman nahiz. [14] Eta hec ethorriric, erran içan cioten: "Naussia, badaquigu eguiatia çarela eta nihoren antsiaric ez duçula, ecen ez dioçu behatcen guiçonaren iduriari, baiñan eguiazqui iracasten duçu Jaincoaren bidea. Cilhegui da tributua pagatcea Caesari?". [15] Eta harc eçaguturic hequien hypocrisia erran çaroen: "Cergatic tentatcen nauçue? Ekhar dieçadaçue denario bat icus deçadan". [16] Ekharri cioten eta harc erran çaroen: "Norena da figura hau eta escribu hau?". "Caesarena", diotsate hec. [17] Jesusec ihardetsi içan çaroen eta erran: "Errenda diotçatçue, beraz, Caesaren direnac Caesari eta Jaincoaren direnac Jaincoari". Eta miretsi çuten haren errepusta.

[18] Ondoan ethorri citçaizcon sadducearrac, ceiñec erraten baidute ez dela hillen bizteric, eta galde hau eguin cioten: [19] "Naussia, Moisec escribuz utci içan darocu: Baldin norbeiten[25] anaya hiltcen bada eta uzten badu emastea haurric

25. Ikus lehen esana: Mc. III, 31.

gabe, har deçala haren anayac haren emastea, bere anaya cenari leynu eguiteco. [20] Ciren, bada, çazpi anaya eta lehenbicicoa ezcondu cen emaste batequien, eta hiltcen [26] haurric utci gabe. [21] Bigarrenac hartu içan çuen emaste hura, eta hiltcen, eta harc ere ez çuen utci haurric; hirurgarrenac ere gauça bera. [22] Eta horla horla çazpiec içatu çuten bere emastetçat eta batec ere ez çuen içan haurric haren ganic; gucien ondoan hiltcen emaste hura ere. [23] Erresurrecionean, bada, hilletaric biztuco direnean, hetaric ceiñen emaste içanen da? Çazpic ecen içan dute emaste". [24] Jesusec ihardetsi çaroen eta erran: "Ez duçue icusten enganatcen çaretela, ceren ez baitdaquizquitçue Escriturac, ez eta cer den Jaincoaren botherea. [25] Ecen hillac biztuco direnean, ez dire ezconduco ez guiçonac, ez emazteac, baiñan içanen dire ceruetan aingueruac diren beçala. [26] Hillen bizteaz denaz beçanbatean, ez duçue iracurri Moiseren liburuan, nola erran içan cioen Jaincoac berroaren erdian: Ni naiz Abrahamen Jaincoa, Isaaquen Jaincoa, eta Jacoben Jaincoa? [27] Ez da bada hillen Jaincoa; baiñan bai biciena. Beraz haguitz trompatcen çarete".

[28] Orduan escribauetaric bat, ceiñec aditu içan baitçuen nola ciharducaten, icussiric Jesusec ungui ihardetsi içan çaroela, hurbildu citçayoen eta galdeguin cioen: "Cein da manamendu gucietaco lehena?". [29] Jesusec bada ihardetsi cioen: "Manamendu gucietaco lehena baida: Adi çaçu, Israel; çure Jainco Jauna, Jainco bakharra da. [30] Eta, Maitatuco duçu çure Jainco Jauna çure bihotz guciaz, çure arima guciaz, çure izpiritu guciaz, eta çure indar guciaz. Hori da lehenbicico manamendua. [31] Bigarrena berriz horren iduricoa da: Maitatuco duçu çure lagun proximoa çure burua beçala. Ez da bertce manamenduric horiec baiño handiagoric". [32] Eta erran cioen escribauac: "Hala da, Naussia; eguia erran duçu Jainco bakhar bat dela eta hartaz bertceric ez dela; [33] eta hura maitatcea bere bihotz guciaz, bere adimendu guciaz, bere arima guciaz, eta bere indar guciaz eta maitatcea lagun proximoa bere burua beçala, guehiago dela holocausta eta sacrificio guciac baiño". [34] Jesusec, bada, icussiric çuhurqui ihardetsi çuela, erran içan cioen: "Ez çare urrun Jaincoaren Erresumatic". Eta gueroztic nihor ez cen atrebitcen hari galderic eguiterat.

[35] Ondoan Jesusec erraten çaroen templuan iracasten hari cela: "Nola erraten dute escribauec Christo Daviden semea dela? [36] David bera manera huntan mintçatu da ecen, Izpiritu Sainduaren inspiracionez: Erran içan dio Jaunac ene Jaunari: Jar çaite ene escuineco aldean, eçar detçadan artean çure etsayac çure oiñen azpico alkhitçat? [37] Beraz Davidec berac deitcen du hura bere Jauna. Eta nondic da haren semea?". Eta populuaren parte handi batec gogo onez aditcen çuen.

[38] Eta erraten çaroen bere iracasteco maneran: "Beguirautçue escribauetaric, ceiñec lakhet baidute arroba luceèquien ibiltcea eta plaça publicoetan agurrac içatea, [39] bai eta sinagoguetan lehenbicico cadiretan eta banquetetan lehenbicico

26. Alegia, *hil cen*: ik. Mc. VI, 20: *beldurtcen*. Gauza bera duzu ondoko bi bertsotxoetan.

placetan jartcea; [40] ceiñec iresten baidituzte alhargunen etcheac, oracione luceac eguiten dituztelaco atcequian. Halacoec condenacione garratçago bat içanen duquete".

[41] Eta Jesus jarriric cegoela thresoraren aitciñean, beha cegoen nola populuac etchatcen çuen dirua harat eta nola hainitz aberatsec ematen çuten haiñitz. [42] Ethorri cen, bada, alhargun pobre bat eta eman cituen bi cornadu chume, ceiñec eguiten baiçuten ardit bat. [43] Orduan bere dizcipuluac bere ganat deithuric erran çaroen Jesusec: "Erraten darotçuet eguia, alhargun pobre horrec eman duela guehienic thresorerat eman duten gucietaric. [44] Ecen bertce guciec franquiaz çutenetic eman dute; horrec ordean bere pobreciatic eman du çuen gucia".

XIII. Cap.

[1] Eta templutic ilkhitcen hari cela, erran cioen bere dizcipuluetaric batec: "Naussia, beha çaçuya [27] nolaco harriac eta nolaco assentuac diren". [2] Baiñan Jesusec ihardetsi cioen eta erran: "Icusten ditutçu assentu handi horiec guciac? Ez da guelldituco harria harriaren gaiñean destruitua içanen ez denic".

[3] Ondoan jarria cegoela Olibetaco mendian templuaren biztan, galdeguin içan cioten Piarressec, Jacobec, Joannessec eta Andresec: [4] "Erraguçu noiz horiec guerthatuco diren eta cer seiñale içanen den gauça horiec guciac complitu beharco direnean". [5] Horren gaiñean Jesus hassi citçayen erraten: "Beguirautçue nihorc engana ez çaitçaten. [6] Ethorrico dire ecen ene icenean hainitz erranen dutenac: Ni naiz Christo. Eta enganatuco dituzte haiñitz. [7] Noiz ere, bada, adituco baiduçue mintçatcen guerlez eta guerla hotsez, ez çaiteztela ici; ecen horiec hala beharrac dire, baiñan ez diteque oraiño akhabantça. [8] Altchatuco da ecen populua populuaren contra eta erresuma erresumaren contra, eta içanen dire lur ikharatceac lekhu haiñitcetan eta gosseteac. Horiec ditezque doloreèn hastapenac.

[9] Ordean çuec goardia emoçue çuen buruei; eramanen çaituzte ecen juyeèn batçarretarat, açotaracico çaituzte sinagoguetan, eta presentatu beharco duçue ene ariaz gobernadoreèn eta erregueèn aitciñean han nitaz lekhucotassun bihurtceco. [10] Ordean lehenago behar du içan Evangelioac predicatua nacione guciei. [11] Eta eramanen çaituztenean hequien escuetarat libratceco, ez çaiteztela aitciñetic gogoanbehar cer erranen dioçueten; bainan cer ere ordu hartan berean emanen baitçaitçue, eta hura erraçue; ez çarete ecen çuec içanen mintçatuco çaretenac, baiñan bai Izpiritu Saindua. [12] Orduan libratuco du anayac anaya heriotcerat eta aitac semea; altchatuco ere dire umeac burasoen contra eta hillaracico dituzte. [13] Eta gaitxetsiac içanen çarete mundu guciaz ene icena gatic; baiñan azqueneraiño iraunen duena içanen da salbatua.

[14] Icussico duçuenean, bada, desolamenduzco abominacionea behar ez den lekhuan ifinia —iracurtcen duenac adi deçala—, orduan Judean içanen direnec eguin beçate ihes mendietarat; [15] etche gaiñean ditequena ez bedi jauts etcherat, ez barnerat sar, cerbait eramateco guraz. [16] Eta landan ditequena ez bedi bihur guibelat bere tresnen hartcerat. [17] Çorigaitz ordean emaste içorrentçat eta unhi-

27. Lehen ere (ik. Mt. XXVII, 49) atera zaigu *Utçaçueya*. Horrelako atzizkia ezaguna da behenafarreraz eta zubereraz, baina zenbait galderatan, ez agintezko adizkietan. Ataunen bai esaten omen da: *Etoi zaateya, etxekook!* Gauza bera ote? Eta zer? Ikus ere beheraxeago: Mc. XV, 36. Baina ez darabil beti; ikus Mc. XIV, 6; noiz bai eta noiz ez?

deentçat egun hetan. [18] Eguioçue othoitz Jaincoari horiec guertha ez daitecen neguan. [19] Ecen içanen dire egun hec halaco tribulacionezcoac, non Jaincoac lehenbici creaturac eguin cituenetic hunat ez baida içan halacoric, ez içanen ere seculan. [20] Eta baldin Jaunac laburtu ez balitu egun hec, nihor ez liteque salbatuco ere; baiñan hautatu içan dituen bereciengatic gutitu ditu egun hec. [21] Orduan baldin nihorc erraten badarotçue: Huna non den Christo, edo, Horra non den, ez deçaçuela sinhetx. [22] Altchatuco dire ecen Christo falso batçu eta profeta falso batçu, ceiñec eguiñen ere baidituzte miracuilluac eta gauça espantagarriac, enganatcea gatic possible balitz hautatuac berac ere. [23] Beguirautçue beraz çuec; huna non erraten darozquitçuedan ecen guciac aitciñetic.

[24] Baiñan afliccionezco egun hequien ondoan, iguzquia ilhunduco da eta ilharguiac ez du emanen bere arguia. [25] Içarrac erorico dire cerutic eta ceruetan diren bothereac ikharatuco dire. [26] Orduan icussico dute Guiçonaren Semea hedoypean dathorquela bothere eta gloria handirequien. [27] Eta igorrico ditu bere aingueruac bere hautatuen biltcerat munduaren laur cantoiñetaric, lurraren basterretic ceru basterreraiño.

[28] Bada ikhasaçue horren gaiñean comparacione bat fico ondotic hartua: haren adarrac jadan ustertcen hasten direnean eta ostoac aguertcen çaizconean, eçagutcen duçue uda hurbill dela. [29] Hala çuec ere icusten ditutçuenean gauça horiec arribatcen, jaquin çaçue Guiçonaren Semea hurbillean ditequela eta athe athean. [30] Erraten darotçuet eguia, ez dela iraganen jenderacione hau, non ez diren complitcen horiec guciac. [31] Cerua eta lurra iraganen dire, baiñan ene hitçac ez dire iraganen. [32] Egun hartaz eta orenaz denaz beçambatean, nihorc hura ez daqui, ez ceruan diren aingueruec, ez Semeac ere, Aitac berac baicen.

[33] Beguirautçue; çaudete atçarriac, eta eguiçue othoitz, ez daquiçue ecen noiz ditequen dembora hura. [34] Hala nola camporat dohan guiçon batec uzten baidu bere etchea bere cerbitçarien artharen azpian, hei ceinei bere eguin behar duten obra exleyturic, eta manatcen baidio athalçaiñari dagoela atçarria. [35] Çaudete beraz atçarriac, ez daquiçue ecen noiz ethorrico ditequen etcheco jauna, arratsean ala gauerditan ala oillarritean ala goicean; [36] uste gabean ethor ditequenean, aurkhi ez çaitçaten lohakhatuac [28]. [37] Eta çuei erraten darotçuedana, guciei erraten dioquetet: çaudete [29] atçarriac".

28. Halaxe dio garbi garbi, Lhandek ez badakar ere. Ikus, aldiz, beheraxeago, Mc. XIV, 40.
29. Hemen bost bertsotxotan barrena hirutan dio *çaudete*: ik. Mt. XXVI, 36.

XIV. Cap.

[1] Cen, bada, Bazco eta ogui levami gabecoen besta bi egunen buruan; eta aphecen princeac eta escribauac cebiltçan bilha, nola Jesus fiñeciaz atcemanen çuten eta hillaracico çuten. [2] Cioten ordean: "Ez da hori eguin behar besta egunean, cerbait alborotamendu altcha ez dadin populuaren artean".

[3] Jesus, bada, Bethanian cela Simon lepratsuaren etchean eta mahaiñean cegoela, ethorri içan cen emastequi bat, jarro bat nardo burutuzco unguentu preciatuz bethea çakharquena; eta jarroa hautsiric, issuri içan çuen haren buruaren gaiñerat. [4] Ciren, bada, cembait hori bere baithan gaitxetsi çutenac eta ciotenac: "Certaco galdu behar cen unguentu hori horla? [5] Sal ahal citequen ecen unguentu hori hirur ehun denario baiño guehiagotan eta eman pobreei". Eta baçarassaten emaste haren contra. [6] Baiñan Jesusec erran çaroen: "Utçaçue [30] gachoa; cergatic damu eguiten dioçue? Obra on bat eguin du ene alderat. [7] Bethiere ecen pobreac çuequien dituzquetçue eta nahi duçuenean hei ungui eguin ahal dioçoqueçue; ordean ni ez nauçue bethi içanen. [8] Ahal duena hunec eguin du; gantçutu du aitciñerat ene gorphutça ehortz orduco. [9] Erraten darotçuet eguia: non ere predicatua içanen baida Evangelio hau mundu universo gucian, hunec eguin duena ere condatua içanen da hunen laudoriotan".

[10] Orduan Judas Iscariotez hamabietaric bat goan cen aphecen princeétarat Jesus hei libratceco chedez. [11] Hec hori aditceaz atseguin hartu çuten eta aguindu ere cioten dirua emateco eta ordutic atiça bilha cebillan hura hei libratceco.

[12] Levami gabeco oguien lehenbicico egunean, bada, ceinetan Bazcoco bildotsa sacrificatcen baitçuten, erran içan cioten bere dizcipuluec: "Norat nahi duçu goacen eta prepara dieçaçugun Bazcoa jateco behar dena?". [13] Igorri cituen bere dizcipuluetaric bia eta erran çaroen: "Çohazte hirirat eta bathuco çaitçue guiçon bat pegar bat ur daramana; jarraiq çaquizcote hari. [14] Eta non ere sarthuco baida, erroçue etcheco jaunari: Naussiac dio: Non da ene dizcipuluequien Bazcoa janen duquedan lekhua? [15] Eracutsico darotçue harc guela handi bat aphaindua; eta han prepara dieçaguçue behar dena". [16] Goan ciren haren dizcipuluac eta ethorri içan ciren hirirat eta harc erran beçala aurkhitu çuten eta preparatu çuten Bazcoco behar citequena.

[17] Arratsa ethorri cenean, bada, ethorri cen harat hamabiequien. [18] Eta mahaiñean ceudecela eta jaten hari cirela, erran çaroen Jesusec: "Erraten darotçuet

30. Ikus lehen esana: Mc. XIII, 1.

eguia, çuetaric batec tradituco nauela, ceiñec enequien jaten baidu". [19] Eta hec hassi ciren tristatcen eta batec bertcearen ondoan galdetcen: "Ni othe naiz?". [20] Ihardetsi içan çaroen: "Hamabietaric bat da, ceiñec escua platean enequien ematen baidu. [21] Guiçonaren Semea badoha alabainan, hartaz escribatua içan den beçala: baiñan çorigaitz guiçon hainarentçat, ceinetetaz [31] Guiçonaren Semea içanen baida traditua; hobe liteque guiçon harentçat egundaiño sorthu ez balitz".

[22] Jaten hari cirela, hartu içan çuen Jesusec oguia eta benedicaturic hautsi çuen eta eman çaroen, erraten çaroelaric: "Har çaçue, hau ene gorphutça da". [23] Ondoan harturic Calixa, esquerrac errendatu eta, eman çaroen eta edan çuten guciec hartaric. [24] Eta erran çaroen: "Hau ene odola da, testament berricoa, ceiña issurico baida haiñitcentçat. [25] Erraten darotçuet eguia, ez dudala edanen hemendic harat mahastico fruitu huntaric, hura berriric Jaincoaren Erresuman edanen dudan eguneraiño".

[26] Eta esquerren emateco hymno bat cantatu ondoan, goan ciren Olibetaco mendirat. [27] Orduan erran çaroen Jesusec: "Guciac escandalisatuco çarete nitaz gau huntan, escribatua da ecen: Jonen [32] dut arçaiña eta barrayatuco dire ardiac. [28] Baiñan hilletaric biztuco naicenean, goanen naiz çuen aitciñean Galilearat". [29] Piarressec bada erran cioen: "Guciac escandalisa balitez ere çutan, ni ordean ez naiz eguiñen". [30] Jesusec erran cioen: "Erraten darotçut eguia, çuc ceronec gaurco gau huntan berean, oillarrac bietan cantatuco duquen baiño lehen hirur aldiz arnegatuco nauçula". [31] Baiñan harc are lehia guehiagocorequien ciotson: "Çurequien hill behar banu ere, ez çaitut arnegatuco". Eta orobat erraten çuten guciec ere.

[32] Ondoan ethorri ciren Gethsemani deitcen cen lekhu batetarat eta han erran çaroen bere dizcipuluei: "Jar çaitezte hemen, ene othoitça eguin duquedan artean". [33] Harturic bada Piarres, Jacobe eta Joannes berequien, hassi cen icitcen eta enconiatcen. [34] Eta erran çaroen: "Tristatua da ene arima heriotceraiñocoan; çaudete hemen atçarriac". [35] Eta urruncheago goanic, arthiqui çuen bere burua lurrerat othoitcez cegoela, baldin eguin bacitequen, urrun cedin haren ganic oren hura. [36] "Ene Aita, ene Aita", ciotsan; "gauça guciac possible dire çuretçat; aldara çaçu calix hau ene ganic; halaric ere, bada, eguin bedi çure borondatea eta ez enea". [37] Ethorri cen guero bere dizcipuluetarat, eta aurkhituric lo çauntçala, erran cioen Piarressi: "Simon, lo çauntça? Ecin egon çare oren batez atçarria? [38] Çaudete atçarriac eta eguiçue othoitz, sar ez çaitezten tentacionean; izpiritua agudo da, ordean haraguia flaco". [39] Eta berriz ere goanic, eguin çuen othoitz solhas bera çaucala. [40] Guero ethorriric, berriz ere aurkhitu cituen oraino lokhartuac, hequien beguiac ecen cargatuac ciren eta ez çaquiten cer ihardets ahal cioçoqueten. [41] Ethorri cen oraiño hirurgarrenean eta erran çaroen: "Eguiçue lo orai eta pausa çaitezte; asqui da; ethorri da orena; huna non Guiçonaren Semea

31. Hala dio, baina badirudi *ceinetaz* behar zela.
32. Hemen garbiro irakurtzen da hori. Ikus Mt. XXVI, 31.

dohan libratua içaterat bekhatorossen escuetarat. [42] Altcha çaitezte, goacen; huna non den ni traditcen nauena hemendic hurbill".

[43] Eta oraiño minço celaric, ethorri cen Judas Iscariotes hamabietaric bat eta harequien batean jende tropa handi bat ezpatequien eta garrotequien, aphecen princeèz, escribauez eta cargudunez igorriac. [44] Eman çaroen, bada, traidoreac seiñalea, erraten çaroela: "Nori ere nic mussu emanen baidiot, eta hura diteque; çatchezcate hari eta eramaçue segurqui". [45] Eta ethorri cenean, berehala hurbilduric Jesusen ganat, erran cioen: "Agur, Naussia". Eta eman cioen mussu. [46] Orduan hec escua gaiñean eman cioten eta hartu çuten. [47] Han cirenetaric batec ezpata atheraturic, jo çuen aphez handiaren muthilla eta ebaqui cioen beharria. [48] Jesusec hitça harturic, erran çaroen: "Ohoin baten ondoan beçala heldu çarete ene ganat, ezpatequien eta makhillequien ene hartcerat. [49] Egun oroz çuen artean nintcen templuan iracasten hari nintcela, eta ez nauçue hartu; baiñan complitu behar dute Escriturec". [50] Orduan bere dizcipuluec utci çuten eta goan ciren guciac ihessi. [51] Guiçon gaste bat, bada, jarraiqui citçayoen mihisse bat baicen soinean ez çuela; eta hartu nahi baitçuten, [52] mihissea utciric, itçuri citçayen bulhuzgorria.

[53] Eraman çuten Jesus aphez handia ganat eta bildu ciren harat aphez guciac eta escribauac eta cargudunac. [54] Piarres, bada, jarraiqui citçayoen urrundic aphez handiaren etcheco escaratz barneraiño eta jarri cen sehiequien su basterrean berotcen. [55] Bizquitartean aphecen princeac eta batçar gucia lekhucotassun bilha cebiltçan Jesusen contra hura hillaracitceco, eta ez çuten aurkhitcen. [56] Hainitcec ecen lekhucotassun falsoac bihurtcen cituzten haren contra; ordean hequien lekhucotassunac ez ciren accort batçuec bertcenequien. [57] Batçuc bada altchaturic, ekharri çuten lekhucotassun falso bat haren contra, erraten çutelaric: [58] "Aditu baidugu guc hau erraten: Desseguiñen dut nic templu escuz eguin hori eta hirur egunez bertce bat bastituco dut, escuz eguiña içanen ez dena". [59] Baiñan hequien testimonio hori ere ez cen balia citequena. [60] Orduan aphez handiac gucien arterat jaiquiric, galdeguin cioen Jesusi erraten cioelaric: "Ez duçu deussic ihardesten hauc çure contra ekhartcen dituzten testimonioen gaiñean?". [61] Baiñan Jesus ichillic cegoen eta ez çuen deussere ihardetsi. Berriz galdeguin cioen aphez handiac eta erran: "Çu çare Christo Jainco benedicatuaren Semea?". [62] Jesusec erran cioen: "Ni naiz; eta icussico duçue Guiçonaren Semea jarria Jaincoaren majestatearen escuiñean, heldu dela ceruco hedoyen gaiñean". [63] Orduan aphez handiac bere tresnac hautsiric, erran çaroen: "Certaco behar dugu gaiñeraco lekhucoric? [64] Aditu duçue blasphemioa. Cer çaitçue?" [33] Guciec condenatu çuten hiltcea mereci çuela. [65] Dembora berean hassi citçaizcon batçu bissayarat thu eguiten eta beguiac estaliric çaphardalaco ematen, erraten ciotelaric: "Pensa çac norc jo hauen". Eta muthillec macelacoac ematen ciotçaten.

33. Ikus Mt. XXVII, 65.

[66] Arte hartan Piarres beherean baitcen escaratcean, ethorri cen harat aphez handiaren nescatoetaric bat, [67] eta icussiric Piarres berotcen cegoela, beha beha jarriric, erran cioen: "Çu ere Jesus Nazarethecoarequien ciñen". [68] Baiñan harc ukhatu çuen eta erran: "Ez dut eçagutcen ere eta ez daquit cer erran nahi duçu" [34]. Eta ilkhi cen camporat escaratçaren aitciñerat; eta oillarrac jo çuen. [69] Eta nescato batec ondoan oraiño han icussi baitçuen, erran çaroen berehala han cirenei: "Hau jende hetaric diteque". [70] Baiñan harc ukhatu çuen berriz ere. Eta handic aphur baten buruan berriz han cirenec ere erran cioten Piarressi: "Segurqui çu hetaric çare, ecen galilearra çare". [71] Hura orduan hassi cen arneguz eta juramentuz erraten: "Ez dut eçagutcen ere çuec dioçuen guiçon hori". [72] Eta berehala jo çuen oillarrac bigarren aldico eta orhoitu cen Piarres Jesusec erran içan cioen hitçaz: "Oillarrac bietan jonen [35] duen baiño lehen, hiruretan ukhatuco duçu nitaz". Eta jarri cen nigarrez.

34. Azken *-n* ez du idatzi.
35. Hemen ere *jonen* bide dio: ik. Mc. XIV, 27.

XV. Cap.

[1] Eta goiz goicean berehala, batçarra atchiquiric aphecen princeec cargdunequien eta escribauequien eta conseillu guciarequien batean, estecaturic Jesus eraman çuten eta eman Pilatusen escuetarat. [2] Pilatusec galdeguin cioen: "Çu çare judutarren erreguea?". Jesusec ihardetsi cioen eta erran: "Çuc dioçuna naiz". [3] Bizquitartean hainitz gaucez acusatcen çuten aphecen princeec. [4] Pilatusec, bada, berriz ere galdeguin cioen eta erran: "Ez duçu deus ihardesten? Icusaçu cembat gaucez acusatcen çaituzten". [5] Baiñan Jesusec ez çuen deussic ihardetsi guehiago; halaco maneraz non miretsia baitcegoen Pilatus.

[6] Bazcoco bestetan, bada, largatcen ohi çaroen presonyeretaric nahi çuqueten bat. [7] Eta cen orduan bat Barrabas çaritçana sedicioneco lagun batçuequien presso eçarria, ceiñec sedicionean eguin ere baitçuen heriotce bat. [8] Ethorri cenean, bada, populua palacioaren aitciñerat, hassi citçaizcon galdetcen eguin cioçatela bethiere eguiten ohi ciotena. [9] Pilatussec, bada, ihardetsi çaroen eta erran: "Nahi duçue larga dieçaçuedan judearren erreguea?". [10] Baçaquien ecen inbidiaz eman çutela aphecen princeèc haren escuetan. [11] Ordean aphecec ciricatu çuten populua galdetcerat larga cioçatela lehenago Barrabas. [12] Pilatussec, bada, berriz ere ihardetsi çaroen eta erran: "Cer nahi duçue, beraz, eguin deçadan judutarren erregueaz?". [13] Baiñan hec berriz ere erran cioten oihuz: "Gurutcefica çaçu hori". [14] Pilatussec erraten çaroen: "Ordean cer gaizqui eguin du?". Eta hec are orduan oihua gorago çaramaten erraten çutelaric: "Gurutcefica çaçu hori". [15] Pilatussec, bada, populuaren gogara eguin nahiz, largatu çaroen Barrabas; eta Jesus açotaturic eman çaroen escuetarat gurutceficatceco.

[16] Orduan soldaduec eraman çuten palacioco salarat eta bildu çuten compaiñia gucia. [17] Eta bestitu ondoan escarlatazco capa batez, eman cioten arantce bihurcatuz eguiñicaco khoroa bat. [18] Ondoan hassi citçaizcon salutatcen erraten ciotelaric: "Agur, judearren erreguea". [19] Jotcen cioten burua canabera batez; eta thu eguiten cioten bisayarat eta belhaunicaturic adoratcen çuten. [20] Horla trufatu ondoan hartaz, khendu cioten escarlatazco capa hura eta bestituric bere soiñecoz, eraman çuten gurutceficatcerat.

[21] Eta guiçon bat Simon Cirenacoa çaritçana, Alexandreren eta Rufusen aita, borda batetaric heldu cela han iragaten cena, bortchatu çuten haren gurutcea eramaterat. [22] Guero eramanic Golgotha daritçan lekhu batetarat, ceiñec erran nahi baidu Calbariaco lekhua, [23] eman cioten edaterat arno mirharequien nahastatua; baiñan ez çuen hartu nahi içatu. [24] Eta gurutceficatu içan çutenean, partitu

çituzten haren bestimendac, çortherat etchaturic norc cer eramanen çuen. [25] Cen, bada, egunaren hirurgarren orena, hura gurutceficatu çutenean. [26] Eta cen haren condenacionearen causa escribatua manera huntan: "Judearren erreguea". [27] Gurutceficatu cituzten harequien bi ohoin ere, bata haren escuiñetaric eta bertcea ezquerretaric. [28] Eta horla complitua içan cen Escriturac erran çuena: "Gaixtaguiñen herruncan eçarria içan da". [29] Handic iragaten cirenec ceraunsoten blasphemioz, burua higuitcen çutelaric eta erraten ciotelaric: "Hea bada, Jaincoaren templua urratcen duana, eta hirur egunic barnean berriz bastitcen duana. [30] Salba çac hire burua gurutcetic jautsiric". [31] Halaber aphecen princeèc ere escribauequien batean trufa eguiten çutelaric, cioten: "Bertceac ditu salbatu eta bere burua ecin salba deçaque. [32] Christo Israelgo erreguea jauts bedi orai gurutcetic, icus deçaguntçat eta sinhets deçaguntçat". Harequien gurutceficatuac cirenec ere laidoztatcen çuten orobat.

[33] Eguberdia ethorri cenean, ilhumbeèc estali çuten lur gucia bederatci garren oreneraiño. [34] Eta bederatci garren orenean Jesusec eguin çuen oihu handi bat, erraten çuelaric: "Eloi, eloi, lama sabahtani"; ceiñac erran nahi baidu: "Ene Jaincoa, ene Jaincoa, cergatic abandonatu nauçu?". [35] Eta han cirenetaric cembaitec hori adituric cioten: "Oriçue, Elias deithcen du". [36] Dembora berean goan cen bat lausterca esponya bat minagrez bethetcerat, eta hura sesca bati iretchiquiric presentatu cioen, erraten çuelaric: "Utçaçueya[36], icusagun hea ethorrico den Elias hori gurutcetic khentcerat". [37] Jesusec, bada, oihu handi bat eguinic, errendatu çuen izpiritua. [38] Dembora berean templuco bela eguin cen bi çathi, gaiñetic hassi eta behereraiño. [39] Eta icussiric han aitcinean çegoen ehun guiçonen capitaiñac oihugora hura eguiñic hill cela, erran çuen: "Eguiazqui guiçon hori Jaincoaren Semea cen". [40] Baciren halaber han emastequiac urrundic beha ceudecenac, ceiñen artean baitcen Maria Magdalena, María, Jacobe gastearen eta Josephen ama, eta Salome; [41] ceiñac jarraiquitcen baicitçaizcon Galilean cenean eta ceiñec laguntcen ere baitçuten bere ontassunetaric; eta baciren oraiño bertce haiñitz ere harequien Jerusalemerat ethorri içan cirenac.

[42] Arratsa ethorri cenean, ceren sabbatoaren bezpera eta preparacioneco egu-na baitcen, [43] ethorri içan cen Joseph Arimathiacoa, ceina baitcen cargudun ohorezco bat eta ceiñac halaber iduriquitcen baitçuen Jaincoaren erresuma, eta goan cen ausarqui Pilatussen ganat Jesusen gorphutça galdetcerat. [44] Pilatussec miretsiric hain lauster hill othe cen, erakharri içan çuen centeneroa eta galdeguin cioen hea jadan hiltcen[37]. [45] Eta hill cela jaquin eta centeneroa ganic, eman cioen gorphutça Josephi. [46] Josephec, bada, mihisse bat erossiric, erautsi çuen Jesus gurutcetic, eta mihisseaz estaliric eçarri çuen arroca bat cilhaturic eguina cen thomba batean eta itçuli çuen harri bat thombaren bocanerat. [47] Maria Magdalena, bada, eta Maria Josephen ama beha ceudecen, non ematen cen.

36. Ikus Mc. XIII, 1, eta *-ya* gabe Mc. XIV, 6.
37. Ikus Mc. XII, 20.

XVI. Cap.

[1] Sabbato eguna iragan cenean, Maria Magdalenac eta Maria Jacoberen amac, eta Salomec, erossi içan cituzten aromatac Jesus hetaz gantçutcerat ethortceco. [2] Eta goiz goicean partituric astearen lehenbicico egunean, ethorri ciren thombarat iguzquia atheratcean. [3] Cioten ordean elkharren artean: "Norc khenduco darocu harria thombaren athetic?". [4] Baiñan behatcearequien batean icussi çuten harri hura khendua, eta haguitz baitcen ere handia. [5] Eta thombarat sarthuric, icussi çuten guiçon gaste bat jarria escuiñetaric, arroba churi batez bestitua; eta icitu ciren. [6] Baiñan harc erran çaroen: "Ez çaiteztela ici; Jesus Nazarethecoaren bilha çabiltçate, gurutceficatua içatu denaren; biztu da; ez da hemen; huna lekhua hura eçarri çutena. [7] Baiñan çohazte eta erroçue haren dizcipuluei eta Piarressi, badohala çuen aitciñean Galilearat; han icussico duçue erran içan darotçuen beçala". [8] Emastequi hec ilkhiric thombatic, abiatu ciren ihessi, ikharac hartu cituen ecen eta icialdurac; eta ez cioten deussic erran nihori; hain ciren ecen icituac.

[9] Bizturic bada Jesus, astearen lehenbicico egun goicean aguertu citçayon lehenic Maria Magdalenari, ceiña ganic khendu baitcituen çazpi deabru. [10] Hura goan citçayen erraterat harequien ohi cirenei, ceiñac dolamenez baiceudecen eta nigarrez. [11] Baiñan hec aditu çutenean bici cela eta harc icussi çuela, ez çuten sinhetxi.

[12] Horren ondoan berriz aguertu citçayen bertce iduri baten azpian hetaric biei, borda batetarat ciohacela. [13] Eta hec ethorriric erran cioten bertce dizcipuluei, baiñan hec ere ez cituzten sinhetsi.

[14] Azquenean aguertu citçayen hamequei mahaiñean ceudecela; eta erreportchu eguin çaroen bere sinhetx gaitztassunaz eta bihotceco gogortassunaz, ceren ez baitcituzten sinhetsi hura biztu cela icussi içan çutenac. [15] Ondoan erran çaroen: "Çohazte mundu gucirat; predica dioçoçue Evangelioa creatura guciei. [16] Sinhetsico duena eta bathayatua içanen dena salbatua içanen da; baiñan sinhetsico ez duena, condenatua içanen da. [17] Sinhetsico duquetenei jarraiquico çaizte miracuillu hauc: ene icenean khassatuco dituzte deabruac, lengoaya berriez mintçatuco dire; [18] sugueac khenduco dituzte; baldin cerbait edarihillgarri edan baleçate ere, ez diote calteric eguiñen; erien gaiñean escuac paussatuco dituzte eta sendatuco dire".

[19] Eta Jesus Jauna hunela hei mintçatu ondoan, altchatu cen cerurat eta jarria dago Jaincoaren escuiñetaric. [20] Hec berriz goan ciren predicatcerat lekhu gucietan, Jaunac hequiequien obratcen çuela eta bere hitça indarztatcen çuela hari çarraizcon miracuilluez.

J. CHRISTOREN

Evangelio Saindua

San Luc-en araüera

I. Cap.

[1] Nola hainitz presuna lehiatu içan baidire escribuz ematerat gure artean complitu diren gaucen hystorioa, [2] hastetic berec icussi içan dituztenec eta hitçaren ekharçaille içan ere direnec condatu içan darocutenaren arauera, [3] uste içatu dut, ó Theophile guciz excellenta, nic ere jaquin ondoan gauça horiec bere hastapenetik, guciac cerbait arrimurequien escribuz eman behar darozquitçudala, [4] eçagut deçaçuntçat iracatsi içan çaizquitçun gaucen eguia.

[5] Herodes Judeaco Erregueren demboran çen aphez bat Zachariaz ceritçana, Abia apheçaren alditan templuan cerbitçatcen çuena; eta haren emastea ere Aaronen leinuticacoa cen Elisabeth deitcen cena. [6] Biac ciren justuac Jaincoaren aitciñean, Jaincoaren manamendu eta ordenantça gucietan erratecoric gabe çabiltçanac. [7] Eta ez çuten haurric, ceren agorra baitcen Elizabeth eta biac baitciren adin handitacoac.

[8] Guerthatu cen, bada, Zachariaz bere aldian hari cela Jaincoaren aitciñean apheztassuneco funcionea eguiten. [9] Aphecen artean cen ohitçaren arauera, çorthea eror cequion Jaunaren templuan sarturic [1] incensua offrendatceco. [10] Eta populu gucia campotic cegoen othoitcean incensua erretcen hari cen denboran. [11] Aguerthu citçayon, bada, Jaunaren aingueru bat cegoela incensutako aldarearen escuiñetic, [12] eta Zachariaz altaratu cen hura icustean, eta icialdura batec hartu çuen. [13] Baiñan aingueruac erran cioen: "Ez çaitecela ici, Zachariaz, ceren entçuna içan baida çure othoitça, eta Elizabeth çure emastea erdico çaitçu seme batez, ceiñari emanen baidioçu icena Joannes. [14] Boztuco çare eta alegueratuco, eta hainitz presuna bozcariatuco dire haren sorcean. [15] Handia içanen da ecen Jaunaren aitciñean; mahats arnoric, ez bertce arnoric ez du edanen eta bere amaren sabeleandanic bethea içanen da Izpiritu Sainduaz. [16] Israelgo umeétaric hainitz ditu conbertituco bere Jainco Jaunaren ganat. [17] Eta hura ibillico da haren aitciñean Eliasen izpirituarequien eta berthutearequien, itçultceco burassoen bihotçac

1. *Sarturic* dio hemen, inoiz gutxitan bezala; bestetan ia beti *-thu-*: ikus hogei bertso beherago (28).

bere umeén alderat eta izpiritu sinhetx gogorrac justuen çuhurtciarat, Jaunari preparatceco populu perfet bat". [18] Zachariasec ihardetsi cioen aingueruari: "Nondic hori jaquinen dut segurqui? Ecen ja çaharra naiz eta ene emastea adinean aitciñaratua da". [19] Aingueruac erran içan cioen: "Ni naiz Gabriel, Jaincoaren aitciñean nagoena, eta igorria içan naiz çuri mintçatcerat eta berri horren ematerat, [20] Eta orai beretic mututcerat çohaz eta ecin mintçatuco çare, hauc arriba daitezquen eguneraino, ceren ez duçun sinhetsi nic erran darotçudana, ceina complituco baida bere demboran". [21] Bizquitartean populua cegoen Zachariasen beguira eta miretsia, ceren cegoen templuan hainbertce dembora. [22] Ilkhi cenean, bada, ecin mintça cequiqueyen eta eçagutu çuten cenbait icuscari icussi içan çuela templuan equi; ecen kheinuac eguiten ciotçaten eta mutu guelditu cen.

[23] Haren officio eguiteco egunac complitu cirenean, goan cen bere etcherat. [24] Handic cembait egunen buruan Elizabeth haren emastea içorra guerthatu cen eta bortz ilhabetez egon cen gordea, ciotsalaric: [25] "Gracia hau eguin nahi içatu darot Jaunac dembora huntan, ceiñetan behatu baidarot guiçonen artean jassaten nuen laidoa khentceco."

[26] Seigarren ilhabetean cela bada Elisabeth, igorria içan cen Jaunaz Gabriel ainguerua Galileaco hiri batetarat, Nazareth deitcen cenerat, [27] Virgina baten ganat, ceiñac baitçuen espostçat guiçon bat Daviden etcheticacoa, Joseph ceritçana, eta Virgina harc çuen icena Maria. [28] Sarthuric ainguerua hura cen lekhuan, erran cioen: "Agur, graciaz bethea, Jauna da çurequien, benedicatua çare emasteen artean". [29] Aingueruaren hitz horiec adituric, trublatu cen eta jarri cen gogoetan, cer othe citequen agur hori eta salutatce hori. [30] Aingueruac erran cioen: "Ez çaitecela ici, Maria, aurkhitu duçu ecen gracia Jaincoa baithan. [31] Concebitcerat çohaz çure sabelean eta emanen duçu mundurat seme bat, ceiñari emanen baidioçu icena Jesus. [32] Hura içanen da handi eta içanen da deithua Jaungoicoaren Semea; hari emanen dio Jainco Jaunac bere aita Daviden thronua; erreguiñatuco du eternitateaz Jacoben etchearen gaiñean [33] eta haren erresumac ez du içanen akhabantçaric". [34] Orduan Mariac erran cioen aingueruari: "Nola hori eguiñen da, ecen ez dut eçagutcen guiçonic?" [35] Aingueruac ihardetsi cioen, eta erran: "Izpiritu Saindua ethorrico da gaiñetic çure baitarat eta Jaungoicoaren berthuteac estalico çaitu bere itçalaz; eta hargatic da içanen çure ganic sorthuco den Saindua deithua Jaincoaren Semea. [36] Horra non Elisabeth çure cusiña ere den içorra seme batez bere çahartcean, eta seigarren ilhabetean da; [37] ezda ecen deussere impossible denic Jaincoarentçat". [38] Orduan Mariac erran cioen: Huna non naicen Jaunaren cerbitçaria; eguin bequit çure erranaren arauera". Eta goan cen haren ganic ainguerua.

[39] Dembora hartan berean goan cen lausterrez Maria mendietarat Judaren leinuco hiri batetarat; [40] eta sarthuric Zachariasen etchean, salutatu çuen Elizabeth. [41] Elisabethec aditu çuenecotz Mariaren agurra, hassi citçayon haurra jaucica bere sabelean eta bethea içan cen bera Izpiritu Sainduaz; [42] eta jarri cen oihuz erraten: "Benedicatua çare emaste gucien artean eta benedicatua da çure sabeleco

fruitua. [43] Eta nondic heldu çait çorion hau, ene Jaunaren ama heldu baida ene ganat? [44] Ecen çure boça, salutatu nauçunean, ene beharrietarat heldu içan den beçain sarri, bozcarioz saltoca hassi çait haurra ene sabelean. [45] Eta dohatsua çare, sinhetsi baiduçu Jaincoaren partez erran çaizquitçunac complituco direla". [46] Orduan erran çuen Mariac:

"Glorificatcen du Jauna ene arimac, [47] eta ene izpiritua boztua da ene Jaincoa eta Salbatçaillea baithan; [48] ceren behatu baidio bere cerbitçariaren aphaltassunari, ecen hemendic harat dohatsua erranen darotet mende gucietaco jendeéc. [49] Ceren gauça handiac eguin baiditu ene baithan guciz botheretsu denac; Saindua ere da haren icena. [50] Eta haren misericordia isurtcen da jenderacionetic jenderacionerat haren beldur direnen gaiñerat. [51] Eracutsi du bere bessoaren indarra; barrayatu ditu superbioec bere gogoetan çarabiltçaten desseiñuac. [52] Ero-raraci ditu botheretsuac bere thronuetaric eta altchatu ditu beheratuac cirenac. [53] Jatecoric ez çutenac bethe ditu ontasunez eta aberatsac igorri ditu hutsic. [54] Hartu du artha Israel bere cerbitçariaz, orhoituric bere urricalmenduaz; [55] gure aitei aguindu içan çaroen beçala, Abrahami eta haren ondocoei bethicotçat. [56] Egotu cen, bada, Maria hirur ilhabetez Elizabethequien eta guero bihurtu içan cen bere etcherat.

[57] Bizquitartean ethorri citçayon Elizabethi erditceco muga eta erdi cen seme batez. [58] Adituric haren hauçoec eta ahaideec seíñalatu çuela Jaunac handizqui bere misericordia haren gaiñean, bozten ciren harequien. [59] Eta çortcigarren egunean ethorri ciren haurraren circoncisatcerat eta icendatcen çuten Zachariaz bere aitaren icenaz. [60] Baiñan ihardetsi çaroen haren amac eta erran: "Ez bada, baiñan Joanes deithuco da". [61] Erran içan cioten hec: "Ez da eta nihor çure ahaideetan icen hortaz deithcen denic". [62] Kheiñu eguin cioten, bada, haren aitari marca cioçatela cer icen nahi çuen eman cequioen haurrari. [63] Escaturic tableta batçu, escribatu çuen hetan, cioelaric: "Horren icena Joannes da". Eta guciac espantitu ciren. [64] Dembora berean idequi cen haren ahoa eta libratu haren mihia eta mintçatu cen benedicatcen çuelaric Jaincoa. [65] Icialduraz bethe ciren alde hetaco jende guciac, eta gauça horiec guciac famos eguin ciren Judeaco mendietaco herri gucietan. [66] Aditu cituzten guciec ecen, gogoan hartu cituzten cinqui, erraten çutelaric: "Cer içanen othe da haur hori?". Ecen Jaunaren escua harequien cen.

[67] Eta Zachariaz haren aita bethea içan cen Izpiritu Sainduaz eta inspiratua içanic erran çuen: [68] "Benedicatua dela Israelen Jainco Jauna, ceren bisitatu baidu eta erresquetatu bere populua; [69] eta altchatu baidarocu salbamenduco antepara bat David bere cerbitçariaren etchean, [70] bere profeta saindu bethidanic içatu direnen ahoz aguindu içan duen beçala; [71] libratuco guinituela gure etsayen escuetaric eta gu gaitxesten gaituzten gucienetaric, [72] gure aitei misericordia eguitea gatic eta bere aliencia sainduaz; [73] gure aita Abrahami eguin cioen juramentuaz, eguinen çarocula gracia hori, [74] gure etsayen escuetaric atheraric, hura cerbitça guineçantçat beldurric gabe, [75] saindutassunean eta justician haren aitciñean gaudecela gure bicico egun gucietan. [76] Eta çu haurtchoa, deithua içanen çare

Jaungoicoaren profeta; ibillico çare ecen Jaunaren aitcinean haren bideen aphaintcen, [77] emateco haren populuari salbamenduco scientcia hequien bekhatuen barkhamendutan, [78] gure Jaincoaren urricalmenduzco errayez, ceinez bisitatu içan baigaitu goratic ilkhiric, [79] arguitcerat ilhunbepean eta heriotcearen itçalpean dauntçanac eta gu ematerat baquearen bidean".

[80] Haurra, bada, handitcen hari cen eta Izpirituz borthizten eta cegoen desertuetan, Israelgo populuaren aitciñean aguertu behar çuquen artean.

II. Cap.

[1] Guerthatu cen, bada, publica cedin meçu bat Caesar Augustorena, haren imperioco jende gucien contua escribuz hartceco. [2] Condagune hori içan cen lehena, Cirinus Syriaco gobernadoreac eguin çuena. [3] Eta bacioacen guciac bere icenen ematerat cein bere hirietarat. [4] Goan cen, bada, Joseph ere Galileatic Judean Nazaretheco hiritic Daviden hirirat, cein deitcen baitcen Bethleém, ceren cen Daviden etchecoa eta familiacoa, [5] bere icena escribuz ematerat, Maria bere esposarequien batean, ceiña baitcen içorra. [6] Lekhu hartan çeudecela, guerthatu ciren haren erditceco egunac betheac. [7] Eta erdi cen bere Seme lehen jayoaz, eta oihalez trochaturic, eçarri çuen manyadera batean, ceren ez baitcen toquiric hequientçat ostatuan.

[8] Ciren inguru hartan artçain batçu gauac campoan çaramatçatenac, ceinec bere goardia alditan bere athaldea[2] beguiratcen baitçuten. [9] Betbetan Jaincoaren aingueru bat aguertu cen hequien aldean, ceruco clartassun batec inguratu cituen eta icitu ciren handizqui. [10] Baiñan aingueruac erran çaroen: "Ez duçuela beldurric; ecen berri handi bat ematerat heldu natçaitçue, ceiña bozcario handi baten sujeta içanen baida populu guciarentçat. [11] Sorthu çaitçue ecen egun Daviden hirian Salbatçaille bat, ceiña baida Christo Jauna. [12] Eta huna seiñalea hura eçagutaracico darotçuena: aurkhituco duçue haur bat trochatua, manyadera batean eçarria". [13] Dembora berean jarri cen armada cerucoaren aralde handi bat aingueruarequien Jaincoa laudatcen eta erraten: [14] "Gloria Jaincoari ceru gorenetan eta baquea lurrean guiçon bihotz çucenetacoei".

[15] Goan cirenean aingueruac hequien ganic cerurat, artçainec erran cioten elkharri: "Goacen Bethlemeéraiño eta icusagun cer eguin den eta cer eracusten darocun Jaunac". [16] Goanic bada lausterrez harat, aurkhitu cituzten Maria eta Joseph eta haurra manyaderan etçana. [17] Eta hala icussi çuten bere beguiz aingueruac haur hartaz erran çaroena hala cela. [18] Eta aditu çuten guciac espantitu ciren artçainec condatu ciotçaten gaucez. [19] Mariac, bada, baçagozcan eta baçarabiltçan horiec guciac bere gogoan. [20] Eta bihurtu ciren artçainac glorificatcen eta laudatcen çutelaric Jaincoa aditu eta icussi içan cituzten gauça guciez, hala nola erran baitçitçayen.

[21] Complitu cirenean çortci egunac haurraren circumcidatceco, eman cioten icena Jesus, cein baitcen amaren sabelean concebitu baiño lehen aingueruac marcatu çuen icena.

2. *-r-* idaztea ahaztu bide zaio.

[22] Eta complitu cirenean amaren purificationeco egunac, Moiseren Leguearen arauera eraman çuten Jerusalemerat Jaunari presentatcecotçat, [23] Jaunaren leguean escribatua den beçala: "Amaren sabeletic lehenbici ilkhitcen den muthilla consecratua içanen çayo Jaunari", [24] eta sacrificiotçat offrendatçeco, Jaunaren leguean errana den beçala, "usso tortoilla pare bat edo bi usso colomba ume".

[25] Cen orduan Jerusalemen guiçon bat, Simeon ceritçana; eta cen guiçon hura justua eta Jaincoaren beldurtia, Israelen consolamenduaren beguira cegoena eta Izpiritu Saindua haren baithan cen. [26] Jaquin ere çuen Izpiritu Sainduaren eracuspenez ez cela hillen, non lehenago ez çuen icusten Christo Jaunarena. [27] Ethorri cen templurat inspiracione bat içanic eta Jesus haurra bere burassoec çakharquetela, harentçat complitceco legueac exleitu içan çuena, [28] hartu çuen bere bessoetan eta benedicatu Jaincoa, ciotsalaric: [29] "Oraintche, Jauna, uzten duçu baquean hiltcerat çure cerbitçaria, çure hitçaren arauera; [30] icussi baidute ene beguiec çuc ematen darocuçun Salbatçaillea, [31] populu gucien biztarat aguertcen duçuna, [32] nacione guciac arguituco dituen arguiçaguia eta Israel çure populuaren gloria".

[33] Eta haren aita eta ama miretsiac ceudecen hartaz erraten cirenen gaiñean. [34] Simeonec benedicatu cituen hec ere eta erran cioen Maria haren amari: "Haur hori daiteque hainitcen galtçapeneco eta hainitcen salbamenduco Israelen eta herresatçat [3] guiçonen contrestari paratua içateco. [35] Eta ceronec ere arima içanen duçu ezpata batez beçala iragana, aguer daitecentçat hainitcen bihotcetaco gogoetac".

[36] Bici cen halaber orduan Anna profetiazco dohaiña çuena, Phanuelen alaba, Aseren leinuticacoa, adiñean hainitz aitcinatua, çazpi urthez bici içan cena nescatcha cenetic senhar içan çuenarequien. [37] Guelditu cen alargun laur hogoy eta laur urtetarainocoan, templutic ilkhitcen ez cela eta gauac eta egunac baruretan eta othoitçetan çaramatçala. [38] Hura ere ordu hartan berean ethorriric, eman cen Jaunaren laudatcen eta mintço ere citçayen haur hartaz Israelen erresquetamenduaren beguira ceudecen guciei.

[39] Akhabatu çutenean, bada, Jaunaren legueaz exleytua cen gucia, bihurtu ciren Galilearat, Nazaretheco hirirat, ceinetan egoten baitciren. [40] Bizquitartean haurra handitcen hari cen eta indarztatcen; çuhurtciaz bethea cen eta Jaincoaren gracia harequien cen.

[41] Goaten ciren haren burassoac urthe guciez Jérusalemerat Bazcoco bestan, [42] eta heldu içan çenean hamabi urthetarat, goan baitciren Jerusalemerat, bestan goaten ohi ciren beçala. [43] Bestaren egunac iragan eta bihurtçen cirela, guelditu içan cen Jesus haurra Jerusalemen haren burassoec ez çaqui tela. [44] Ustez ecen, bada, compaiñiaco lagun cembaitequien heldu ahal cela, eguin çuten egun baten bidea eta haren bilha cebiltçan bere ahaidèen eta eçagunen artean. [45] Baiñan aurkhitu ez çutenean, bihurtu ciren Jerusalemerat haren bilha cebiltçala. [46] Guerthatu cen aurkhi ceçaten hirur egunen buruan templuan dotoren erdian jarria,

3. Ez dago batere garbi idatzia, baina hori dirudi: ikus hitz bera 2 Kor. V, 5.

hequien aditcen eta interrogatçen hari cela. [47] Eta miretsiac ceudecen hura aditcen çuten guciac haren çuhurtciaz eta haren errepustez. [48] Espantitu ciren hura hala icusteaz eta erran cioen bere amac: "Semea, cergatic horla eguin darocuçu? Huna çure aita eta ni non ibilli garen doloratuac çure bilha" [49] Ihardetsi içan çaroen: "Cergatic ciñabiltçaten ene ondoan? Ez ciñaquiten ene aitari behatcen çaizcon gaucetan behar dudala içan ocupatua?" [50] Baiñan hec ez çuten conprenitu harc erran çaroena.

[51] Ondoan abiatu cen hequiequien eta ethorri Nazaretherat eta sumetitua cegocoten eta haren amac gogoan çatchezcan [4] horiec guciac eta bihotcean. [52] Eta Jesus aitciñatuz ciohan çuhurtcian, adiñean eta gracian Jaincoaren eta guiçonen aitciñean.

4. *Atxekitzen zituen*, alegia. Maiz agertzen dira aditz honen forma sintetikoak. Ez ordea, gehienetan bederen, *nor-nork* erakoak hemen bezala, baizik *nori* dutenak; ik. *çatchezcate hari* (Mc. XIV, 44). Bi gauza esan nahi baitu: *gorde, eduki* eta *itsatsi, lotu.*

III. Cap.

[1] Tiberio Caesaren emperadorecoaren hamabortzgarren urthean, bada, Pontio Pilate Judeaco gobernadore cela, Herodes Galileaco tetrarcha, Philipe berriz haren anaya Itureaco eta Trachoniten herrico tetrarcha eta Lisanias Abilenaco tetrarcha cela, [2] Anna eta Cayphaz aphecen prince cirela, adiaraci citçayon Jaincoaren hitça desertuan Joannes Zachariasen semeari; [3] eta ethorri cen Jordango aldeco herri gucietarat, predicatcen çuela penitenciaren bathayoa bekhatuen barkhamendutaco, [4] escribatua den beçala Isaiaz profetaren erranen liburuan: "Boça da mortuan oihuz dagoenarena: aphain çaçue Jaunaren bidea, chuchen çatcitçue haren bidezcac. [5] haran guciac betheco dire eta mendi eta mendizca guciac beheratuac içanen dire, makhur direnac chuchenduco dire eta bide gaitxac celhay bihurtuco, [6] eta guiçon guciec icussico dute Jaincoa ganic heldu den salbamendua".

[7] Erraten çaroen, bada, hartaz bathayatuac içaterat araldeca heldu cirenei: "Bipera casta, norc abisatu çaituzte ihesi eguiteaz çuen gaiñerat erortcerat dohan colerari? [8] Eguitçue, beraz, penitenciazco fruitu behar beçalacoac eta ez çaiteztela has erraten: "Abraham aita dugu". Erraten darotçuet ecen, harri horietaric ere Jaincoac soraraz diotçoquela haurrac Abrahami. [9] Jadan haizcora arruntçatua da arbolen erhoen [5] gaiñerat eta hala fruitu onic ekhartcen ez duen arbola gucia picatua içanen da eta surat arthiquia".

[10] Eta galdeguiten baitcioten jende hec eta erraten: "Cer eguiñen dugu, beraz?", [11] harc ihardesten çaroen: "Bi aldagarri dituenac eman bioça bat ez duenari eta jatecoric duénac eguin beça gauça bera". [12] Ethorri çiren, bada, publicanoac ere bathayatuac içaterat eta erran cioten: "Naussia, cer da guc eguin behar duguna?" [13] Erran çaroen harc: "Ez deçacuela deusere eguin manatu çaitçuenaz guehiagocoric". [14] Soldaduec ere halaber galdeguiten cioten: "Eta guc cer eguin behar dugu?". Eta harc ihardesten caroen: "Ez dioçoçuela eguin nihori bortcharic, ez gaixtaqueriaric; eta contenta çaitezte çuen pagaz".

[15] Uste baitçuen, bada, populuac eta guciec bere gogoetan baitçarabillaten Joannesez, ez othe cen hura Christo, [16] Joannesec declaratu içan çaroen eta erran guciei: "Nitaz denaz beçambatean, nic urez bathayatcen çaituztet; ethorrico da ordean ni baiño botheretsuago bat, ceiñaren çapata lokharrien lechatceco ni ez bainaiz gay; harc bathayatuco çaituzte Izpiritu Sainduaz eta suz. [17] Cethabea escuan duque eta chahutuco du bere bihiteguia; bilduco du bihia bere toquitarat

5. Maiz agertu da *erho* > *erro* (ik. Mt. V, 22 eta XXIII, 4); orain atzekoz aurrera: *erro* > *erho*.

eta erreco ditu lastoac behiñere iraunguitu ez den su batez". [18] Bertce haiñitz gauça ere iracasten ciotçan populuari bere exortetan.

[19] Baiñan nola Joannessec erantçuten baitcioen Herodes tetrarchari Herodias bere anayaren emastearen sujetean eta eguin cituen hainitz bertce gaixtaquerien gatic, [20] Herodessec horien gucien gaiñerat hau ere iretchequi çuen: çarraraci baitçuen Joannes presondegui batean.

[21] Populu guciac, bada, bathayoa errecibitcen çuen orduan, Jesusec ere errecibitu baitçuen; othoitcean cegoela çabaldu cen cerua, [22] eta jautsi cen Izpiritu Saindua haren gaiñerat figura agueri cen baten azpian, usso colomba bat beçala; eta aditu çuten cerutic boz hau: "Çu çare ene Seme maitea; çure baithan edireten dut ene atseguiña".

[23] Jesus orduan citequen hogoy eta hamar urtheren ingurutaco adiñean eta iragaten cen Josephen semetçat, ceiñ baitcen Eliren seme, cein baitcen Mathaten seme, [24] cein baitcen Leviren seme, cein baitcen Melchiren seme, cein baitcen Jannaren seme, cein baitcen Josephen seme, [25] cein baitcen Mathatiaren seme, cein baitcen Amosen seme, cein baitcen Nahumen seme, cein baitcen Hesliren seme, cein baitcen Naggeren seme, [26] cein baitcen Mahathen seme, cein baitcen Mathatiassen seme, cein baitcen Semeiren seme, cein baitcen Josephen seme, cein baitcen Judaren seme, [27] cein baitcen Joannaren seme, cein baitcen Resaren seme, cein baitcen Zorobabelen seme, cein baitcen Salathielen seme, cein baitcen Neriren seme, [28] ceiñ baitcen Melchiren seme, cein baitcen Addiren seme, cein baitcen Cosanen seme, ceiñ baitcen Elmadanen seme, cein baitcen Heren seme, [29] cein baitcen Jesusen seme, cein baitcen Elieseren seme, cein baitcen Joriren seme, cein baitcen Mataten seme, cein baitcen Leviren seme, [30] cein baitcen Simeonen seme, cein baitcen Judaren seme, cein baitcen Josephen seme, cein baitcen Jonaren seme, cein baitcen Eliaquimen seme, [31] cein baitcen Melearen seme, cein baitcen Mennaren seme, cein baitcen Mathatharen seme, cein baitcen Nathatanen [6] seme, cein baitcen Daviden seme, [32] cein baitcen Jesseren seme, cein baitcen Obeden seme, cein baitcen Boozen seme, cein baitcen Salmonen seme, cein baitcen Nassonen seme, [33] cein baitcen Aminadaben seme, cein baitcen Aramen seme, cein baitcen Esronen seme, cein baitcen Pharesen seme, cein baitcen Judaren seme, [34] cein baitcen Jacoben seme, cein baitcen Isaacen seme, cein baitcen Abrahamen seme, cein baitcen Thareren seme, cein baitcen Nachoren seme, [35] cein baitcen Sarugen seme, cein baitcen Ragauren seme, cein baitcen Phalegen seme, cein baitcen Heberen seme, cein baitcen Saleren seme, [36] cein baitcen Cainanen seme, cein baitcen Arfaxaden seme, cein baitcen Semen seme, cein baitcen Noeren seme, cein baitcen Lamechen seme, [37] cein baitcen Mathusaleren seme, cein baitcen Henochen seme, cein baitcen Jareden seme, cein baitcen Malaleélen seme, cein baitcen Cainanen seme, [38] cein baitcen Henosen seme, cein baitcen Sethen seme, cein baitcen Adamen seme, cein baitcen Jaincoaz creatua.

6. *Nathanen* edo *Natanen* behar zuen.

IV. Cap.

[1] Jesus, bada, Izpiritu Sainduaz bethea partitu cen Jordanetic eta goan araci çuen Izpirituac deserturat [2] berrogoi egunetacotçat eta han tentatua içatu cen deabruaz. Egun hetan gucietan ez çuen jan deussere; eta hec iragan eta, gossetu cen. [3] Orduan erran içan cioen deabruac: Baldin Jaincoaren [7] baçare, erroçu harri huni eguin dadillala ogui". [4] Jesusec ihardetsi cioen: "Escribatua duc, ez dela oguiz choilqui bici guiçona, bainan Jaincoaren hitz guciaz". [5] Eraman çuen deabruac mendi gora baten gaiñerat eta eracutsi ciotçan instant batez munduco erresuma guciac. [6] Erran cioén: "Emanen darotçut puchança hori gucia eta erresuma horien gloria; niri eman çaizquit ecen, eta nic nahi dudanari ematen diotçat; [7] baldin adoratcen banauçu, guciac çure içanen dire". [8] Jesusec ihardetsi cioen eta erran: "Escribatua duc: Çure Jainco Jauna duçu adoratuco eta hura bakharra cerbitçatuco". [9] Eraman çuen guero Jerusalemerat; ibeni çuen templuaren gainean eta erran cioen: Baldin Jaincoaren Seme baçare, etçha çaite hemendic behera; [10] escribatua da ecen, aingueruei çutaz gomendatu daroela, beguira çaitçatentçat, [11] eta escuetan erabillico çaituztela, çure oinez jo ez deçaçun cembait harriren contra". [12] Bainan Jesusec ihardetsi içan cioen: "Errana duc: Ez duçu tentatuco çure Jainco Jauna". [13] Deabruac akhabatu ondoan bere tentacione guciac, utci çuen dembora batetaraiño.

[14] Handic goan cen Jesus Izpirituaren mobimenduz Galilearat eta haren fama banatu cen herri hartan gucian. [15] Hassi cen iracasten hequien sinagoguetan eta cen guciez ohoratua.

[16] Ethorriric bada Nazaretherat, ceinetan hacia içatu baitcen, sarthu içan cen ere ohitçaren arauera sabbato egunean sinagogan eta altchatu cen iracurtcerat. [17] Eman cioten Isaiaz profetaren liburua eta idequi çuenean aurkhitu çuen hitz hauc escribatuac ciren lekhua: [18] "Jaunaren Izpiritua ene gainean da; horrengatic nau gantçutu eta consecratu; igorri içan nau pobrei Evangelioa predicatcerat, bihotça çathitua dutenac sendatcerat, [19] gathiboei librantçaren berria ematerat eta itsuei bizta erakhartcerat; gaitzez hebainduac descansuan eçartcerat; Jaunaren çorionezco urthea eta haren justicia eguinen den eguna publicatcerat".

[20] Ondoan liburua plegaturic, bihurtu cioen ministreari eta jarri cen. Sinagogaco gucien beguiac hari cegozcon harmatuac. [21] Hassi citçaien bada erraten:

7. Hemen *seme* ahaztu bide zaio.

"Egun ditezque complituac aditu ditutçuen Escrituraco hitz horiec". [22] Guciec aithorra ematen cioten eta, miretsiric haren ahotic ilkhitcen ciren hitz graciazcoez, "Ez da", ciotsaten, "Josephen semea?".

[23] Horren gaiñean harc erran çaroen: "Equi erranen derautaçue errefau hau: Miricua, senda çaite ceroni. Capharnaumen eguin ditutçula aditu ditugun beçain gauça handiac eguincitçu hemen ere çure herrian. [24] Erraten darotçuet eguia", diotsa oraiño: "profetaric batere ez da ungui errecibituric bere herrian. [25] Eguiaz erraten darotçuet: haiñitz alhargun baciren Eliasen demboran Israelen, çarratua içatu cenean cerua hirur urthe eta erdiz eta gossete handi bat içan cenean mundu gucian. [26] Bizquitartean hetaric batere ere [8] ganat ez cen igorria içan Elias eta bai Sarepta Sidongoan cen emaste alhargun baten ganat. [27] Halaber hainitz lepratsu baciren Israelen Eliseé profetaren denboran eta hala ere hetaric batere ez cen içan sendatua eta bai Naaman, cein baitcen Siriacoa". [28] Sinagogan ciren guciac hori adituric sumindu ciren, [29] eta altchaturic cassatu çuten hiritic camporat eta eraman mendi baten puntarat, ceiñaren gaiñean baitcen bastitua hequien hiria, hura handic behera arthiquitceco. [30] Baiñan goan cen, hequien erditic iragaten cela.

[31] Jautsi cen Capharnaumerat, cein baitcen Galileaco hiri bat, eta han hari citçayen iracasten sabatto egunetan. [32] Eta espantituac ceudecen haren doctrinaz, cergatic autoritaterequien minço baitcen. [33] Guerthatu içan cen sinagogan guiçon bat izpiritu lohi batez posseditua, ceiñec oihu handi bat eguinic, [34] erran baitçuen: "Utz gaitçatçu gu. Cer dugu guc çurequien, Jesus Nazarethecoa? Gure galtcerat ethorri çare? Badaquit equi nor çaren, Jaincoaren Saindua baitçare". [35] Baiñan Jesusec mehatchaturic erran cioen: "Ago ichillic eta ilkhi adi horren ganic". Deabruac arthiqui çuen guiçon hura lurrerat gucien erdian eta ilkhi cen haren ganic calteric eguin gabetacoric. [36] Guciac espantitu ciren eta minço ciren elkharri erraten caroelaric: "Cer othe da hau, burupequien eta naussitassunequien manatcen baidaroe izpiritu lohiei eta ilkhitcen baidire berehala?" [37] Eta haren fama banatu cen herri gucian.

[38] Ilkhiric, bada, Jesus sinagogatic, sarthu cen Simonen etchean eta Simonen amaguinarraua sukhar handi batequien baitcetçan, othoitztu çuten hel çaquioela. [39] Haren alderat ethorriric, manatu cioen sukharrari, eta sukharrac utci çuen eta hura berehala jaiquiric abiatu cen hequien cerbitçatcen.

[40] Iguzquia sarthu cenean eriric çuten guciec, cer nahi erhasun suerte çuten, ekharri ciotçaten eta harc sendatcen cituen cein bere aldian escuac gaiñean eçarriric. [41] Ilkhitcen ciren deabruac haiñitcen ganic, oihuz erraten çutelaric: "Çu çare equi Jaincoaren Semea". Baiñan harc mehatchaturic ichilarazten cituen, ceren çaquiten hura cela Christo.

8. Halaxe dio; batetik bi *ere*, bestetik kasu atzizkia *(-ganat)* lehen osagaiak, *bat*-ek, hartu beharrean konposatu osoak hartu du. Modu berean, esaterako, *deusseretan*: ik. Lk. XIX, 8.

[42] Arguitu cenean ilkhi cen eta goan cen desertu batetarat. Jendeac abiatu ciren tropelaz haren bilha eta aurkhitu çuten eta, nola guelditu nahi baitçuten, beldurrez utz cetçan, [43] erran çaroen: Bertce hiriei ere predicatu behar daroet Jaincoaren Erresumaco Evangelioa, hartaco naiz ecen igorria". [44] Eta hari cen predicatcen Galileaco sinagoguetan.

V. Cap.

[1] Guerthatu cen, bada, egun batez Jesus Genesaretheco lakhuaren bazterrean cegoela, hainitz hersten baitçuten jende aralde batçuc Jaincoaren hitça aditceco çuten lehiaz, [2] icussi içan cituen bi barcu lakhuaren bazterrean gueldituac, ceiñetaco arrançaleac baitciren jautsiac eta hari baitciren sareèn garbitcen. [3] Iganic barcu hetaric batetarat, ceiña baitcen Simonena, othoiztu çuen urrun ceçala aphur bat leyhorretic; eta jarriric instruitcen çuen populua barcu gainetic. [4] Mintçatcetic guelditu cenean, erran cioen Simoni: Eraman gaitçatçu ur handirat eta larga çatçue sareac arraiñen atcemateco". [5] Simonec ihardetsi cioen: "Naussia, gau gucian nekhatu gare deussic atceman gabe; baiñan hala ere erraten darotaçunez gueroztic, hedatuco dut sarea". [6] Hori eguin çutenean, hartu çuten arrainez hain quantitate handia, non hausten baitcitçayen sarea. [7] Eta seiña eguin cioten bertce barcuan ciren lagunei: "Çatozte laguntcerat". Ethorri ciren hec eta bethe cituzten bi barcuac hambat, non ondoratcen baitciren. [8] Hori icussi çuenean Simon Piarresec, erran cioen Jesusi [9]: "Urrun çaite ene ganic, Jauna, ceren guiçon bekhatoros bat bainaiz". [9] Ecen hartu cituzten arraintcearen icusteac icialduraz bethe cituen hura eta bai harequien ciren guciac, [10] bai halaber Jacobe eta Joannes, Zebedearen semeac ere, cein baitciren Simonen lagun; baiñan erran cioen Simoni Jesusec: Ez duçula beldurric; hemendic harat harico çare guiçonen atcematen". [11] Eta bertce barcua leyhorrerat ethorri ondoan, guciac utciric jarraiqui citçaizcon Jesusi.

[12] Jesus alde hetaco hirietaric batean cela, lepraz bethea cen guiçon batec icussiric, aurthiqui çuen bere burua lurrerat eta othoitz eguin cioen, erraten cioelaric: "Jauna, baldin nahi baduçu, garbi naçaqueçu". [13] Eta Jesusec escua hedaturic uquitu çuen, ciotsolaric: "Nahi [10] içan çaiten garbi". Eta betbetan goan citçayon lepra. [14] Manatu çuen nihori ez cioçala erran; baiñan "Çohaz", diotsa, "eracuts dioçaçu çure burua apheçari eta offrenda çaçu garbitcearentçat Moisec exleytu içan duena, frogatçat balia daquien". [15] Eta nola haren fama gueroago eta guehiago banatcen baitcen, jendetce handi batçu bilcen ciren haren aditcerat eta bere eritassunetaric sendatuac içaterat. [16] Hura ordean erretiratcen cen deserturat eta han egoten cen othoitcean.

9. Horrelako (△) ikur bat ezarri du leku horretan –beste noizbait ere bai– zerbait idaztea ahaztu bait litzaio. Vulgatari begiratuz *belhaunicaturic* edo ahaztu zaiola esan behar. Leizarragak: "...egotz ceçan bere burua Iesusen belhaunetara...".

10. Hemen ere *dut* itzuri bide zaio.

[17] Egun batez, bada, jarria cegoela iracasten, ciren han jarriac pharisauac eta legueco doctorac ere, Galileaco eta Judeaco herrizca gucietaric eta Jerusalemetic ere ethorri cirenac; eta Jaunaren berthutea cen agueri erien sendatcean. [18] Orduan jende batçu ethorri ciren guiçon bat çakharquetela paralyticoa ohe batean eta cebiltçan sarthu nahiz eta hura Jesusen aitciñean eman nahiz. [19] Baiñan ecin aurkhituz nondic sararaz, jendetce handia cela causa, igan ciren etche gainerat eta jautsi çuten theylletaric bere ohearequien gucien erdirat Jesusen aitciñerat, [20] ceiñec hequien fedea icussiric erran baitcioen: "Guiçona, barkhatcen çaizquitçu çure bekhatuac". [21] Orduan escribauac eta pharisauac hassi ciren bere baithan erraten: "Nor da blasphemio erraille hau? Norc barkha ahal detçaque ecen bekhatuac Jaincoac berac baicen?". [22] Eçaguturic, bada, Jesusec hequien gogoramenduac, ihardetsi çaroen eta erran: "Cer gogoeta darabillaçue çuen bihotcetan? [23] Cer da errechago? Ala erratea: Barkhatcen çaizquitçu çure bekhatuac, ala erratea: Altcha çaite eta ibill çaite? [24] Bada jaquin deçaçuentçat Guiçonaren Semeac baduela botherea lurrean barkhatceco bekhatuac", erran cioen paralyticoari: "Nic darotçut erraten: altcha çaite, eramaçu çure ohea eta çohaz çure etcherat". [25] Altchatu cen guiçona berehala hequien aitciñean eta harturic çatçan ohea, goan cen bere etcherat Jaincoari gloria bihurtcen cioela. [26] Orduan guciac jarri ciren espantu handi batean Jaincoaren handitassunac publicatcen eta icialduraz betheric ciotsaten: "Ala guc gauça miragarriac baiditugu icussi egungo egunean".

[27] Horien ondoan ilkhi cen Jesus, eta icussiric publicano bat Levi deitcen cena burreuean jarria, erran cioen: "Jarraiq çaquizquit". [28] Eta hura gauça guciac utciric, jaiqui cen bere lekhutic eta jarraiqui citçayon. [29] Eguin ere cioen banquet handi bat bere etchean, eta ciren publicanozco et bertce halaco jendetce tropela handi bat mahaiñean jarriac hequiequien. [30] Eta baçarasaten pharisauec eta escribauec, haren dizcipuluei erraten ciotelaric: "Cergatic publicanoequien eta bekhatorosequien jaten duçue?". [31] Jesusec hitça harturic, erran çaroen: "Sendo direnec ez dute miricuren beharric, baiñan bai eri direnec. [32] Ez naiz ethorri justuac deitcerat, baiñan bai bekhatorossac penitenciarat deitcerat".

[33] Ordean hec erran cioten: "Cergatic Joanesen dizcipuluac eta bai pharisauenac ere dire barurtcen eta oracionetan egoten, eta çureac hari dire jaten eta edaten?". [34] Ihardetsi caroen: "Barurraraz othe detçaquetçue esposaren adisquideac esposa hequiequien deiño? [35] Baiñan ethorrico dire egunac, ceinetan esposa khenduco baitçaye, eta orduan dire barurtuco". [36] Comparacione bat eguin ere çaroen: "Nihorc ez bide dio ematen oihal berritic pedaçua soiñeco çaharrari, ezperen berriac hausten du çaharra, eta oihal berriticaco pedaçu hura ez dagoco ungui çaharrari. [37] Eta nihorc ez bide du ematen mahats arno berria çahagui çaharretarat, ezperen mahats arno berriac hausten ditu çahaguiac eta issurtcen da eta çahaguiac galtcen dire. [38] Baiñan mahats arno berria eman behar da çahagui berrietarat eta bata eta bertcea dire salbatcen. [39] Eta ez da nihor arno çaharra edaten duenean nahi luquenic berehala berritic; erraten baidu ecen: Çaharra hobea da".

VI. Cap.

[1] Guerthatu cen, bada, sabbato egun batean, ceiñi erraten baitcioten bigarrren lehena, iragaten cela Jesus oguipean gaindi, haren dizcipuluec hauts cetçaten ogui burucac eta jan cetçaten escuz bihituric. [2] Eta pharisau batçuc erraten cioten: "Cergatic eguiten duçue sabbato egunean cilheguy ez dena?". [3] Jesusec hitça harturic, erran çaroen: "Ez duçue iracurri cer eguin içan çuen Davidec, gosse içan cenean bera eta harequien cirenac? [4] Nola sarthu içan cen Jaincoaren etchean eta hartu cituen eta jan proposicioneco oguiac eta eman harequien cirenei, ceinetaric jatea ez baitcitçayen cilheguy aphecei baicen? [5] Guiçonaren Semea", diotsote oraino, "naussi da sabbathoaren ere".

[6] Guerthatu cen bertce sabbatho egun batez, sar cedin Jesus sinagogan; eta jarri cen iracasten eta cen han guiçon bat escu escuiña ihartua çuena. [7] Beha cegozcon, bada, escribauac eta pharisauac, hea sabbatho egunean sendatuco othe çuen, aurkhitu nahiz nondic hura accusa. [8] Baiñan harc, baitcequien gogoan cer çarabillaten, erran içan cioen escua ihartua çuen guiçonari: "Altcha çaite eta eman çaite hor erdi hortan". Altchatu cen eta eman cen han. [9] Guero Jesusec erran çaroen hei: "Galde bat dut çuei eguiteco: cilhegui da sabbatho egunetan ungui eguitea ala gaixqui eguitea, guiçon bati bicia salbatcea ala idequitcea [11]?". [10] Eta guciei behatu ondoan ingurutarat, erran cioen guiçon hari: "Heda çaçu çure escua". Hedatu çuen eta sendatu citçayoen ossoqui. [11] Hec guciac baldituac guelditu ciren eta baçarassaten elkharren artean cer eguiñen othe çuten Jesusen contra.

[12] Dembora hartan goan cen Jesus mendirat othoitz eguiterat eta egon cen han gau gucian othoitz eguiten Jaincoari. [13] Eta eguna ethorri cenean, deithu içan cituen bere dizcipuluac eta hetaric bereci cituen hamabi, ceiñac deithu ere baitcituen Apostoluac. [14] Simon, ceini eman baitcioen icena Piarres, eta Andres haren anaya, Jacobe eta Joannes, Philipe eta Bartholomeè, [15] Mathieu eta Thomas, Jacobe Alphearena eta Simon, zeloz bethea deitcen dena, [16] Juda Jacoberen anaya, eta Judas Iscariotes, cein içan baitcen traidorea.

[17] Guero hequiequien jautsiric, guelditu cen lekhu celhai batean eta harequien haren dizcipuluen araldea, eta jendetce handi bat Judeaco, Jerusalemeco eta Tyrgo eta Sidongo itsas basterretaco populuetaric, [18] ceiñac ethorri içan baitciren haren aditcerat eta bere eritassunetaric sendatcerat; izpiritu lohiaz possedituac

11. Ikus Mc. II, 20.

cirenac ere sendatcen ciren. [19] Eta populu gucia hura uquitu nahiz cebillan, cergatic haren ganic ilkhitcen baitcen berthute bat guciac sendatcen cituena.

[20] Orduan beguiac altchaturic bere dizcipuluen alderat, ciotsan: "Dohatsu çarete pobre çaretenac, ceren çuena baida Jaincoaren Erresuma. [21] Dohatsu orai gosse çaretenac, ceren sassiatuco baiçarete. Dohatsu orai nigar eguiten duçuenac, ceren hirri eguinen baiduçue. [22] Dohatsu içanen çarete guiçonec gaitxetsico çaituztenean, aldaratuco çaiztunean [12], affruntatuco çaituztenean, eta çuen icena ere gaixtotçat arbuyatuco dutenean Guiçonaren Semearen ariaz. [23] Orduan çaitezte aleguera eta bozcaria, horra ecen golardo handi bat çuentçat dagoena ceruan; horla tratatcen ohi cituzten profetac ere horien aitec. [24] Baiñan çorigaitz çuentçat, aberatsac, ceren baiduçue çuen consolacionea mundu huntan. [25] Çorigaitz çuentçat, sassiatuac çaretenac, ceren içanen baitçarete gosse. Çorigaitz çuentçat, orai hirriz çaudetenac, ceren eguinen baiduçue nigar. [26] Çorigaitz çuentçat guiçonec laussengatuco çaituztenean; horla eguiten cioten ecen ohi, profeta falsoei ere horien aitec.

[27] Baiñan erraten darotçuet aditcen nauçuenei: Maita çatçue çuen etsayac; eguioçue ungui çuec higuin çaituztenei. [28] Benedica çatcitçue çuec madaricatcen çaituztenac eta eguiçue othoitz gaizqui erabiltcen çaituztenentçat. [29] Macela batean jotcen çaituenari para dioçoçu bertcea ere, eta çure capa eramaten darotçuna ez deçaçula debeca arroba ere eramatetic. [30] Eman dioçoçu escatcen darotçun guciari, eta çure eramaten darotçunari ez dioçoçula galde. [31] Fiñean nola ere nahi baiduçue eguin dieçaçueten çuei guiçonec, eta hala eguin dioçoçue çuec ere hei. [32] Baldin ez baditutçue maite çuec onesten çaituztenac baicen, cer esquer duqueçue?. Ecen bekhatorosec ere maite dituzte hec maitatcen dituztenac. [33] Eta baldin ungui eguiten badioçue çuei ungui eguiten darotçuetenei, cer esquer duqueçue? Bekhatorossec ere ecen hori eguiten dute. [34] Baldin prestatçen badioçue, bihurtuco darotçuela iduriquitcen duçuenei, cer merecimendu duqueçue? Bekhatorossec ere prestatcen diote bekhatorossei, ordaiñez hequien ganic hainbertce içateagatic. [35] Çuec, bada, maita çatçue çuen etsayac; unguia eguiçue eta presta çaçue handic deussere iduriqui gabe, eta içanen da çuen golardoa handia, eta içanen çarete Jaungoicoaren umeac, cergatic hura ona baida ingratentçat eta gaixtoentçat ere. [36] Içan çaitezte, beraz, urricalmendutsu, çuen aita urricalmendutsu den beçala.

[37] Ez deçaçuela juya eta ez çarete juyatuac içanen. Ez deçaçuela condena eta ez çarete condenatuac içanen. Barkha çaçue eta barkhatuco çaitçue. [38] Emaçue eta emanen çaitçue; issurico çaitçue çuen altçorat neurri ona, ungui çapatua eta higuitcean gaindiz [13] dohana; ecen cebonec neurthuco duçuen neurri beraz neurthuco çaitçue [14]".

12. Adizki horrek *çaituztenean* izan behar zuen.
13. *Gain-* ala *gan-* dioen ez dago garbi, baina *gain-* behar du izan.
14. Ikus honen pasarte kidea: Mc. IV, 24. Hemen Leizarragak: "..., neurthuren çaiçue çuey-ere aldiz".

[39] Comparacione hau ere eguiten çaroen: "Itsu batec itsua guida deçaque? Ez dire biac hobirat erortcen? [40] Dizcipulua ez ahal da naussiaz gorago, baiñan perfeta diteque bere naussia beçalacoa den gucia. [41] Cergatic, bada, icusten duçu fitsa çure anayaren beguian eta laça ez duçu icusten ceurean? [42] Edo nola erran dioçoqueçu çure anayari: Anaya, utz naçaçu khen dieçaçudan fits bat çure beguitic, ceronec ceure beguian duçun laça icusten ez duçun demboran? Hypocrita, khen çaçu lehenic laça ceure beguitic eta orduan icussico duçu nola khen fitsa çure anayaren beguitic.

[43] Ez da ecen arbola ona fruitu gaixtoac ekhartcen dituena, ez eta arbola gaixtoa fruitu onac ekhartcen dituena. [44] Ecen arbola bacoitha [15] bere fruitutic eçagutcen da. Ez dituzte ecen elhorrietaric biltcen ficoac, ez hain guti laharretaric mahatsac. [45] Guiçon onac bere bihotceco thresor onetic atheratcen ditu gauça onac; eta guiçon gaixtoac thresor gaixto batetaric gaixtoac atheratcen ditu; bihotceco franquiatic ecen minço da ahoa.

[46] Cergatic, bada, erraten darotaçue: "Jauna, Jauna", eta ez duçue eguiten nic erraten dudana? [47] Eracusterat nohatçue noren idurico den ene ganat heldu den guiçon gucia eta ene erranac aditcen eta obretan ematen dituena. [48] Guiçon bat diduri, ceiñec bastitcen baidu etche bat eta barna haintçurturic eçarri baiduque cimendua harriaren gaiñean; uholde abiaturic ibayac jaçarri dio etche hari eta ecin higuitu duque, ceren cen fundatua arrocaren gaiñean. [49] Ene erranac aditcen dituena berriz eta obretan ematen ez dituena guiçon baten idurico da, ceiñec bastitcen baidu bere etchea lur gaiñean cimenduric gabe; ibaya heldu da etche hari jaçartcerat eta berehala erori dateque etchea, eta barrayadura handi bat eguin da hartaz".

15. *Bacoitça* (ik. Lc. VII, 12) edo *bakhotcha* (ik. Lc. IX, 14) idazten ohi du komunzki.

VII. Cap.

[1] Akhabatu çuenean, bada, Jesusec populuari errateaz errateco cituenac, sarthu cen Capharnaumen. [2] Eta centenero baten sehia hainitz maite çuena cen eri, hill hurrena. [3] Eta aditu baitçuen mintçatcen Jesusez, igorri içan ciotçan judutarren cargudunac othoitz eguiterat, ethor cedin haren sehia sendatcerat. [4] Ethorriric, bada, hec Jesusen ganat, othoizten çuten lehiatuqui erraten ciotelaric: "Mereci du hori eguin dioçoçun, [5] maite du ecen gure nacionea eta sinagoga bat ere bastitu darocu berac". [6] Goan cen, bada, Jesus hequiequien eta etchetic urrun handi ez cela, igorri ciotçan centeneroac bere adisquide batçu erraterat: "Jauna, ez çaitecela nekha, ez naiz ecen digne çu ene etchean sar çaitecen. [7] Hargatic ere neure burua ez dut gay estimatu çure ganat ethortceco; baiñan erraçu hitça eta ene sehia sendatua içanen da. [8] Ecen guiçon bat naicen arren bertceren azpicoa, nic ere baditut soldaduac neure azpico; erran dioçadan batari: çohaz, badoha; eta bertceari: çato, heldu da; eta ene sehiari: eguiçu hau, eguiten du". [9] Hori adituric Jesus sarthu cen espantuetan, eta itçuliric ondotic çarraizcon jendetarat, erran çaroen: "Erraten darotçuet eguia: Israelen ere ez dut aurkhitu hain fede handiric". [10] Eta bihurtu cirenean igorriac içan cirenac etcherat, aurkhitu çuten sendatua eri içan cen sehia.

[11] Ondoan goan cen Jesus Naim deitcen cen hiri batetarat eta goan ciren harequien haren dizcipuluac eta jendetce handi bat. [12] Hurbiltcen cela, bada, hirico portaletarat, huna non çaramaten gorphutz bat bere ama alhargunaren seme bacoitça eta hiritic akua [16] handi bat ciohan harequien; [13] ceiña icussi içan çuenean Jaunac, urricalmendu harturic hartaz erran baitcioen: "Ez deçaçula eguin nigarric". [14] Eta hurbilduric uquitu çuen katabuta; hura çaramatenac guelditu ciren, bada, eta erran çuen: "Guiçon gastea, altcha çaite, nic darotçut erraten". [15] Altchatu cen berehala jartcerat hilla cena; eta hassi cen mintçatcen eta Jesusec bihurtu cioen bere amari. [16] Guciac, bada, sessitu cituen icialdurac eta hassi ciren Jaincoa glorificatcen erraten çutela: "Profeta handi bat altchatu da gure artean eta Jaincoac bisitatu duque bere populua". [17] Eta aria hortaz erraten çutena hartaz banatu cen Judea gucian eta ingurutaco herri gucietan.

[18] Erran baitciotçaten Joannesi bere dizcipuluec horiec guciac, [19] deithu içan cituen Joannessec bere dizcipuluetaric bia eta igorri cituen Jesusen ganat hari

16. Zaila da hitz hau irakurtzen. Azpian *jendetce* zuen idatzia, dirudienez, eta horren gainean *akua* edo ezarri du. Lhandek *ahaku* dakar; OEH-k, berriz, *ahakoa, ahaku, ahuku,* besteak beste.

erraterat: "Çu çare ethorri behar duçuna ala bertce bat behar dugu iguriqui? [20] Ethorri cirenean, bada, Jesusen ganat guiçon hec, erran cioten: "Joannes Baptistac igorri gaitu çure ganat, çuri galdeguiterat hea çu othe çaren ethorri behar dena, ala bertce bat iguriqui behar dugun?" [21] Eta ordu berean Jesusec sendatu içan cituen hainitz presuna eritassunetaric eta plaguetaric, bai eta izpiritu gaixtoetaric eta hainitz itsuei bizta eman içan çaroen. [22] Guero errepustatçat erran çaroen: "Çohazte erraterat Joannessi cer aditu duçuen eta cer icussi duçuen: itsuec icusten dutela, mainguac ibiltcen direla, lepratsuac garbituac direla, gorrec aditcen dutela, hillac bizten direla, Evangelioa çayela pobrei predicatcen [23] eta dohatsu ditequela ene sujetean escandalisatuco ez dena".

[24] Goan cirenean Joannesen mandatariac, hassi citçayen Joannesez erraten populuari: "Ceren icusterat goan othe çarete deserturat? sesca haiceac erabiltcen duen baten? [25] Ordean, ceren icusterat goan çarete? Guiçon guriqui bestitu baten? Icusten duçue tresna ederrac darabiltçatenac eta atseguinpean bici direnac erregueen etchetan ohi direla. [26] Ceren icusterat, bada, ilkhi çarete? Propheta baten? Baiqui, erraten darotçuet, eta profeta baino guehiagocoaren. [27] Hartaz da escribatua: Horra non igortcen dudan ene ainguerua çure aitciñean bidea aphainduco darotçuna.

[28] Erraten darotçuet ecen: Emastetaric jayo direnen artean profeta handiagoric Joannes Baptista baiño nihor ez da. Ordean Jaincoaren erresuman chumeen dena handiago da are hura baiño". [29] Eta populu guciac hori adituric eta bai publicanoec ere justificatu çuten Jaincoaren conduita, bathayatuac baitciren Joannesen bathayoaz. [30] Ordean pharisauec eta legueco doctorec mespreçatu çuten Jaincoac hequien alderat çuen desseiñua, ez baitciren bathatuac [17] hartaz.

[31] Erran içan çaroen, bada, Jaunac: "Norequien, bada, comparatuco ditut jenderacione huntaco guiçonac eta nor didurite? [32] Haur batçu didurite, ceiñac plaça publico batean jarriac mintço baitçaizco elkharri diotsatelaric: "Jo darotçuegu chirola eta ez çarete dantçatu; cantatu darozquitçuegu auhenac eta ez duçue eguin nigar. [33] Ethorri içan da ecen Joannes Baptista oguiric jaten ez duela eta arnoric edaten ez duela eta dioçue: Deabrua du berequien. [34] Ethorri içan da Guiçonaren Semea, jaten duela eta edaten duela eta dioçue: Huna guiçon bat jancorrean dabillana eta arno edaillea, publicanoen eta bekhatorossen adisquidea. [35] Baiñan justificatua içan da çuhurtcia bere ume guciez".

[36] Othoiztu çuen, bada, pharisau batec harequien jaterat goateaz eta sarthuric pharisauaren etchean, jarri cen mahaiñean. [37] Dembora berean hirico emastequi gaixqui bici cen batec, jaquinic mahainean cela pharisau haren baithan, ekharri çuen jarro bat urrin onezco unguentuz bethea, [38] eta jarriric guibeletic haren oinetan, hassi cen bere nigarrez haren oinac bustitcen; eta bere buruco illeaz cituen chukhatcen, mussu ematen çaroen eta gantçutcen cituen unguentuz. [39] Icussiric, bada, hura gombidatu içan çuen pharisauac, erran çuen bere baithan

17. Ikus Mc. X, 38: *bathayatuac*, alegia.

çarasalaric: "Baldin hau profeta balitz, baleaquique equi nor eta nolacoa den emastequi hori, uquitcen duena; gaixqui bici dena baida". [40] Orduan Jesusec hitça harturic erran içan cioen: "Simon, cerbait dut çuri errateco". Eta ihardetsi cioen: "Naussia, erraçu". [41] Bi çordun cituen hartcecodun batec; batac cioen çor bortz ehun denario eta bertceac berrogoy eta hamar. [42] Ez baitçuten pagatçecoric, barkhatu çaroen biei. Çure ustez ceiñec du maite guehienic?" [43] Simonec ihardetsi cioen eta erran: "Ene ustez haiñac, ceiñari guehiago baidio barkhatu". Jesusec erran cioen: "Ungui juyatu duçu". [44] Eta emastequia ganat itçuliric erran cioen Simoni: "Icusten duçu emaste hau? Sarthu naiz çure etchean, uric ez darotaçu eman ene oiñen garbitceco; hunec aitcitic bere nigarrez busti ditu ene oiñac eta bere illeèz ditu chukhatu. [45] Mussu bat ez darotaçu eman, baiñan hau sarthu denetic hunat, ez da guelditu ene oinei mussu ematetic. [46] Olioz burua ez darotaçu gantçutu, baiñan hunec unguentuz ditu gantçutu ene oiñac. [47] Hargatic darotçut erraten barkhatcen çaizcoela hainitz bekhatu, ceren duen hainitz maitatu; bainan gutiago barkhatcen çayoenac gutiago du maitatcen". [48] Erran cioen, bada, emastequi hari: "Barkhatcen çaizquitçu çure bekhatuac". [49] Eta hassi ciren harequien mahaiñean cirenac erasten bere baithan: "Nor othe da hau, bekhatuac ere barkhatcen baiditu?" [50] Jesusec, bada, erran cioen emastequi hari: "Çure fedeac salbatu çaitu; çohaz baquearequien".

VIII. Cap.

[1] Guero ondoan goan cen hiriz hiri eta herriz herri predicatcen çuela eta iracasten Jaincoaren Erresuma, eta hamabiac harequien ciren. [2] Bai eta emastequi batçu ere sendatuac içan cirenac izpiritu gaixtoetaric eta eritassunetaric: Maria, Magdalena çaritçana, ceiña ganic ilkhi içan baitciren çazpi deabru; [3] Joanna, Herodessen intendant Chusa ceritçanaren emastea; Susanna eta bertce hainitz bere ontassunetaric bere beharretan fornitcen ciotenac.

[4] Jendetce handi bat, bada, bildu baitcen eta hirietaric mundu handi bat heldu baitcitçayon, erran içan çaroen parabolez: [5] "Ilkhi içan cen ereille bat bere bihia ereinterat eta ereiten hari cela, bihi parte bat erori cen bide basterretarat, osticatua içan cen eta jan çuten aireco choriec. [6] Bertce parte bat erori cen harritarat, eta sorthu eta berehala ihartu cen, ceren ez baitçuen hecetassunic. [7] Bertce bat berriz erori cen elhorriperat eta elhorriac bihiarequien handituric itho çuten. [8] Bertce parte bat erori cen lur onerat eta sorthuric ekharri çuen batençat ehun". Horiec erratean oihuz cegoen: "Beharriac dituenac aditceco, adi deçala".

[9] Galdeguin cioten, bada, bere dizcipuluec cer erran nahi çuen parabola horrec. [10] Eta erran çaroen: "Çuei eman çaitçue Jaincoaren erresumaco mysterioaren eçagutcea; bertcei ordean hitz estalitan baicen ez; halaco maneraz, non icustean ez baidute icusten eta aditcean ez baidute aditcen.

[11] Huna, bada, cer den parabola. Hacia da Jaincoaren hitça. [12] Bide basterretan direnac, daitezque hitça entçuten dutenac; ordean guero ethortcen da deabrua eta eramaten du hitz hura hequien bihotcetic, beldurrez ecen sinhetsiric salba daitecen. [13] Lekhu harritsuetacoac dire hitçaençunic errecibitcen dutenac bozcariorequien; ordean erroric ez dute, dembora batetacotz dute sinhexten eta tentacioneco demboran ihessi dohaz. [14] Elhorriperat erortzen denac marcatcen ditu hitça entçuten dutenac; ordean ithotcerat uzten dutenac bicitce huntaco ansiez, aberastassunez eta atseguiñez, eta fruituric ekhartcen ez dutenac. [15] Fiñean lur onerat erortcen denac ditu marcatcen, entçunic bihotz on eta excellent batequien hitça, guelditcen eta beguiratcen dutenac eta passientciaz fruitua ekhartcen dutenac.

[16] Nihor ez bide da, lampa bat biztu ondoan, jarro batez estaltcen duenic edo ohe azpian ematen duenic; aitcitic ematen dute candeler baten gaiñean, sartcen direnec arguia icus deçaten gatic. [17] Ez da ecen secreturic aguertcen ez denic, ez gauça gorderic jaquiten ez denic eta camporatcen ez denic. [18] Goardia emoçue, beraz, nola aditcen ducuen; ecen duenari emanen çayo, eta ez duenari khenduco çayo duela uste duena ere".

[19] Ethorri ciren, bada, haren ganat haren ama eta haren anayac, eta ecin hurbill cequizcon jendetcearen fuertsaz. [20] Eta erran cioten: "Çure ama eta çure anayac campoan daudez çu icussi nahiac [18]". [21] Baiñan ihardetsi içan çaroen eta erran: "Ene ama eta ene anayac haiñac dire, ceiñec aditcen baidute eta obretan ematen Jaincoaren hitça".

[22] Egun batez iganic barcu batetarat bere dizcipuluequien erran çaroen: "Iragan gaitecen lakhuaren bertce alderat". Eta abiatu ciren. [23] Iragaten hari cirela loharcatu [19] cen eta eguin cen lakhua gaiñean haice chirimola bat hain handia, non urez bethetcen baitcen barcua eta hirriscutan baitciren. [24] Ethorri citçaizcon, bada, eta iratçarri çuten erraten ciotelaric: "Naussia, galtcen hari gare": Baiñan harc jaiquiric mehatchatu cituen haiceac eta itsassoco tempesta, eta eguin cen calma handi bat. [25] Guero erran içan çaroen: "Non da çuen fedea?". Hec berriz icituac ceudecen eta miretsiric erran cioten elkharri: "Nor othe da hau? Haicèei eta itsasoari manatcen baidaroe eta hec obeditcen baidute".

[26] Irabaci çuten guero Gerasendarren herrirat, ceiña baida Galileaz bertce aldean. [27] Jautsi cenean Jesus leyhorrerat, bathu citçayon guiçon bat aspalditic deabruaz posseditua cena eta bulhucia çabillana, thombaz bertce egoitçaric ez çuena. [28] Jesus icussi çuenecotz arthiqui çuen bere burua haren oiñetarat eta oihu handi batequien erran cioen: "Cer dut nic çurequien, Jesus Jaungoicoaren Semea? Othoi, ez naçacula tormenta". [29] Manatcen çuen ecen izpiritu lohia ilkhi cedillala guiçon haren ganic, ecen maiz sessitcen çuen biolentciarequien; gathez estecaturic eta burdiñac oiñetan emanic goarda ceçaten arren, estecaillu guciac hautsiric eramaten çuen deabruac deserturat. [30] Galdeguin cioen, bada, Jesusec eta erran: "Cer da hire icena?". Harc erran cioen: "Legionea"; cergatic deabru hainitz sarthu içan baitciren haren baithan. [31] Eta othoiztu çuten deabru hec, arren ez cetçan mana lecerat ciohacela. [32] Cen, bada, han urdalde handi bat mendian bazcatcen cirenac eta othoitz eguin cioten deabruec arren permeti cioçaten hetan sar çaitecen; eta permetitu çaroen. [33] Ilkhi ciren, bada, deabruac guiçon haren ganic eta sarthu ciren urdéetan. Dembora berean urdaldea abiatu cen lausterrez lakhuan behera eta itho ciren. [34] Hori icussiric urdeçaiñec ihessi eguin çuten eta goan ciren berria ematerat hiririat eta herrietarat. [35] Ilkhi ciren, bada, icusterat cer guerthatu othe cen; ethorri ciren Jesusen ganat eta aurkhitu çuten guiçon hura, ceiñaren ganic ilkhi baitciren deabruac, jarria haren oinetan, bestitua eta bere sensu onean; eta icitu ciren. [36] Erran ere cioten gauça icussi içan çutenec nola libratua içatu cen deabruzco legionetic. [37] Orduan othoitztu çuten Gerasendar guciec, arren urrun cedin hetaric; ceren icialdura handi batec hartuac baitciren. Igan cen, bada, barcurat eta goan cen bertce alderat. [38] Guiçon hura, ceiñetaric deabruac ilkhi baitciren, othoitcez cegocon harequien içan nahiz. Baiñan Jesusec igorri içan çuen erraten cioelaric: [39] "Bihur çaite çure etcherat eta conda

18. Hemen garbi dago *nahiac*. Ikus Mt. XII, 46 eta Lc. XXIII, 8.
19. Lehen ordea (ik. Mc. XIII, 36) *lohakhatuac*. Baita *lokhartu-* ezagunagoa ere: Mc. XIV, 40.

çaçu cer fagore eguin darotçun Jaincoac". Eta goan cen hiri gucian banatcen çuela Jesusec eguin içan cioen fagorea.

[40] Bihurtu içan cenean Jesus, errecibitu çuten jendetce handi batec, guciac ecen haren beguira ceudecen. [41] Berehala ethorri citçayoen sinagogaco buruçagui bat, Jaire deitcen cena, eta bere burua arthiquiric Jesusen oiñetarat othoitztu çuen ethortceaz haren etcherat, [42] ceren alaba bat baitçuen bakharra hamabi urthe cituzquena, eta hura hiltcen hari baitcitçayoen. Guerthatu cen, Jesus harat ciohala, içan cedin tropelez herstua. [43] Eta emaste bat hamabi urthe hartan odol issuri batez eri cena, miricuetan bere ontassun guciac despendatu içan cituena eta batec ere ecin sendatu içan çuena, [44] hurbildu citçayon guibeletic eta uquitu çuen haren arrobaren pertala eta berehala guelditu citçayon bere odol issuria. [45] Jesusec erran çuen: "Nor da ni uquitu içan nauena?". Guciec, bada, ukhatcen baitçuten, Piarresec eta harequien cirenec erran cioten: "Naussia, jende tropec butatcen çaituzte eta hurren lehertcen, eta dioçu norc uquitu çaituen?". [46] Jesusec ihardetsi çuen: "Uquitu nau norbaitec, eçagutu dut ecen berthute bat athera içan dela ene ganic". [47] Icussiric, bada, emaste harc ecin gorde cela, ethorri cen ikharan, arthiqui çuen bere burua haren oiñetarat eta mundu guciaren aitciñean declaratu çuen cerengatic uquitu içan çuen eta nola berehala sendatua içan cen. [48] Orduan erran cioen Jesusec: "Ene haurra, çure fedeac salbatu çaitu; çohaz baquearequien". [49] Oraiño mintço cela, ethorri citçayon norbait sinagogaco principalari erraterat: "Hil da çure alaba; ez deçaçula nekharaz naussia". [50] Jesusec, bada, hitz hori adituric, eran cioen nescatcharen aitari: "Ez duçula beldurric; sinhets çaçu solamente eta salbo içanen da". [51] Eta etcherat ethorri cenean ez çuen utci berequien sartcerat nihor, lekhat Piarres, Jacobe, Joannes eta nescatcharen aita eta ama baicen. [52] Nigarrez ceudecen guciac eta auhenez, baiñan erran çaroen: "Ez çaçuela eguin nigarric. Ez da hilla nescatcha, baiñan lo datça". [53] Eta trufatcen ciren hartaz, baitçaquiten hilla cela. [54] Jesusec, bada, escua harturic eguin cioen oihu erraten cioelaric: "Nescatcha, altcha çaite". [55] Arima bihurtu citçayoen gorphutcerat eta jaiqui cen berehala eta manatu çaroen eman cioçatela jaterat. [56] Espantitu ciren haren aita eta ama, eta Jesusec debecatu çaroen nihori ez cioçatela erran cer guerthatu cen.

IX. Cap.

[1] Jesusec erakharriric hamabi Apostoluac, eman çaroen indarra eta botherea deabru gucien gaiñean, bai eta eritassunen sendatcecoa ere. [2] Guero igorri cituen predicatcerat Jaincoaren Erresuma eta eriac sendatcerat. [3] Eta erran caroen: "Ez deçaçuela deus ere eraman bidecotz, ez makhillaric, ez moltsaric, ez oguiric, ez diruric; eta ez duçuen bigarren aldagarriric. [4] Cein ere etchetan sarthuco baitçarete, han egon çaitezte eta ez çaiteztela ilkhi handic. [5] Baldin ez baçaituzte hartcen, hiri hartaric ilkhitcean çuen oiñetaco herrautsa ere iharros çaçue hequien contraco lekhucotassuntçat". [6] Abiaturic bacebiltçan herriz herri Evangelioa predicatcen çutela eta eriac sendatcen cituztela lekhu gucietan.

[7] Aditu çuen, bada, Herodes tetrarchac mintçatcen Jesusec eguiten cituen guciez, eta ez çaquien cer pensa; batçuc erraten baitçuten Joannes biztu cela hilletaric; [8] bertceec berriz Elias aguertu cela eta bertce batçuc profeta lehenagocoetaric bat cela, mundurat bihurtua. [9] Eta cioen Herodessec: "Joannesi nic burua picaraci diot; nor da bada hau, ceiñetaz horlaco gauçac baiditut aditcen?". Eta nahi çuquen icussi.

[10] Bihurtu cirenean Apostoluac condatu ciotçaten Jesusi eguin içan cituzten gauça guciac, eta hec berequien harturic goan cen aparterat lekhu desertu batetarat, Bethsaidaco ondorat. [11] Jendetceèc hori jaquin çutenean, jarraiqui citçaizcon eta Jesusec hartu cituen; mintço citçayen Jaincoaren Erresumaz eta sendatceco beharra çutenac sendatçen cituen.

[12] Eguna hassi cen, bada, beheratcen eta ethorri citçaizcon hamabiac erraterat: "Igorracitçu jende hauc, dohacen ostatatcerat inguruetaco herrietan eta herrisquetan, eta ediren deçaten jateco behar dutena, ecen hemen lekhu desertu batean gare". [13] Jesusec erran çaroen: "Emoçue cebonec jaterat". Hec berriz ihardetsi cioten: "Ez dugu bortz ogui eta bi arrain baiño guehiago, non ez garen nasqui goaten erosterat jende hauc gucientçat jatecoa". [14] Baciren ecen bortz milla guiçon edo. Erran çaroen, bada, bere dizcipuluei: "Jarraraz çatçue salerca[20], berrogoi eta hamar saler bakhotchean". [15] Eguin çuten hala eta jarraraci cituzten guciac. [16] Jesusec, bada, harturic bortz oguiac eta bi arraiñac eta behaturic cerurat, benedicatu cituen eta eman çarozten bere dizcipuluei, cerbitça ciotçatentçat jende hei. [17] Jan çuten guciec eta sassiatu ciren eta sobratu citçayenetic eraman cituzten hamabi sasqui çathiz betheac.

20. *Salerca* eta *saler* elkarren ondoan. Hiztegietan ez dira ageri, ez eta Lhanderenean ere. Ikus gainera Mc. VI, 39.

[18] Ondoan bakhartassunean othoitcean cegoela, harequien baitciren haren dizcipuluac ere, galdeguin çaroen eta erran: "Nor diote naicela jendéec?" [19] Ihardetsi cioten hec: "Batçuc Joannes Baptista çarela; bertcec Elias, bertce batçuc berriz profeta lehenagocoetaric bat biztu dela". [20] Erran çaroen, bada: "Eta çuec nor naicela dioçue?". Simon Piarressec ihardetsi içan cioen eta erran: "Christo Jaincoarena". [21] Baiñan Jesusec dichidaturic debecatu çaroen nihori hori ez erratea, [22] erraten çuelaric: "Halabeharra da Guiçonaren Semeac soffri deçan hainitz, içan dadin condenatua cargudunez, eta aphecen princéez eta escribauez içan dadin hillaracia, eta hirurgarren egunean bitz dadin".

[23] Guero erran çaroen han ciren guciei: "Baldin nihorc nahi badu ene ondotic ethorri, eguin bioça ukho bere buruari, garraya beça bere gurutcea egun oroz eta jarraiq bequit niri; [24] ecen bere bicia salbatu nahi duquenac galduco du; eta aitcitic bere bicia galdu duquenac ene gatic, salbatuco du. [25] Cer probetchu du ecen guiçonac mundu gucia irabaztea ere, bere burua galtcen badu eta bere caltetan hari bada? [26] Nor ere nitaz ahalque içanen baida eta ene hitcez, Guiçonaren Semea ere ahalque içanen da hartaz ethorrico denean bere majestatean, Aitarenean eta aingueru saindueneán. [27] Erraten darotçuet bada eguia: badire hemen present direnetaric hillen ez direnac, icussi içan gabetacoric Jaincoaren Erresuma".

[28] Hitz horiec erran ondoan, çortci egunen buruan edo, hartu cituen berequien Piarres, Jacobe eta Joannes eta igan cen mendi batetarat othoitz eguiterat. [29] Othoitcean cegoela, eguin cen haren bisaya bertce bat eta haren bestimenda churi eta distiant. [30] Eta betbetan aguertu ciren bi guiçon, harequien mintço cirenac; ciren, bada, hec Moises eta Elias, [31] majestatez betheac aguertcen cirenac; eta çuten erraten nola behar cituen finatu bere egunac Jerusalemen. [32] Piarres ordean eta harequien cirenac logalez pissatuac ciren; iratçartcean icussi çuten Jesusen gloria eta harequien ceudecen bi guiçonac ere icussi içan cituzten. [33] Eta hec haren ganic partitcerat cioacela, erran cioen Piarressec Jesusi: "Naussia, on da guretçat hemen içatea; eta hala eguitcigun hirur etchola, bat çuretçat, bat Moiserentçat eta bertce bat Eliasentçat". Ez çaquien ecen cer erraten çuen. [34] Horien erraten hari cela, ethorri cen hedoy bat, ceiñec estali baitcituen eta icitu ciren hedoypean hec sarthu cirenean [35] Dembora berean ilkhi cen hedoypetic boz bat erraten çuena: "Hauche da ene Seme maitea: hau adi çaçue". [36] Boz harc oraiño cirauela, Jesus aurkhitu cen bera bakharric eta hec atchiqui çuten hau secretuan, nihori deussic erran gabe dembora hartan icussi içan cituzten gaucetaric.

[37] Biharamunean menditic jausten cirela, jendetce handi bat ilkhi citçayen biderat. [38] Guiçon bat jendetce haren artetic hassi citçayon oihuz erraten: "Naussia, othoitz eguiten darotçut: beha çaçu ene semea ganat, ecen hori dut ene haur bakharra. [39] Eta izpiritu gaixtoac sessitcen du eta betbetan oihu handi batçu eguin aratcitcen diotça, arthiquitcen du, iharrosten du arrapoa ahotic darioela, eta nekhez uzten du çathicatu duen ondoan ere. [40] Othoitz eguin daroet çure dizcipuluei khen dioçatela eta ecin eguin dute". [41] Jesusec ihardetsi çaroen: "Ó nacio sinhetx

gaitxa eta gaizcoatua! Noiz artean içanen naiz ni çuequien eta jassanen çaituztet? Ekharraçu hunat çure semea". [42] Eta hurbiltcen hari cela haurra, arthiqui çuen deabruac lurrerat eta iharrossi çuen borthizqui. [43] Baiñan Jesusec mehatchaturic izpiritu lohia, sendatu çuen haurra et bihurtu cioen bere aitari. [44] Guciac espantitu ciren Jaincoaren handitassunaz, eta guciac miretsiac baitceudecen harc eguiten cituen guciez, erran çaroen bere dizcipuluei: "Har çaçue ungui gogoan erraterat nohatçuena; ethorrico da ecen egun bat, ceiñetan Guiçonaren Semea emana içanen baida guiçonen escuetarat". [45] Baiñan hec ez çuten comprenitcen hizcuntça hori; gauça estali bat cen hequientçat hala, non ez baitçuten deussic comprenitcen eta ici ciren ere horren gaiñean hari deussic galdetcerat.

[46] Ethorri citçayen, bada, gogoeta bat, hea cein othe cen hequien artean handiena. [47] Baiñan Jesusec icussiric hequien bihotceco gogoetac, hartu içan çuen haur bat eta hura bere aldean eçarriric, [48] erran çaroen: "Norc ere errecibituco baidu haur hau ene icenean, ni nauque errecibitcen, eta ni errecibitcen nauenac duque errecibitcen ni igorri nauena, ecen çuen gucien artean chumeèn dena diteque handiena".

[49] Harturic bada hitça Joannesec, erran cioen: "Naussia, icussi dugu guiçon bat çure icenean deabruac khentcen dituena, eta debecatu içan dugu, ceren ez baida gurequilacoetaric". [50] Eta Jesusec erran cioen: "Ez deçaçuela debeca, ecen çuen contra ez dena çuen alde diteque".

[51] Complitu hurren cenean dembora mundutic goan behar çuena, hartu çuen aire seguratu bat Jerusalemerat goateco, [52] eta igorri çituen mandatariac bere aitciñean abisu ematerat. Goan ciren eta sarthu ciren Samaritanoen hiri batean hari behar cena preparatceco. [53] Baiñan ez cituzten hartu, ceren agueri baitcen Jerusalemerat cihoala. [54] Icussi çutenean, bada, hori haren dizcipulu Jacobec eta Joannesec, erran cioten: "Jauna, nahi duçu erragun jauts dadillala sua cerutic eta irets detçala horiec?" [55] Baiñan itçuliric erreprenitu cituen erraten çaroelaric: "Ez daquiçue cer Izpiritutaco çareten; [56] Guiçonaren Semea ez da ethorri içan guiçonei bicia khentcerat, aitcitic bai ematerat". Eta goan ciren bertce herri batetarat.

[57] Guerthatu cen, bada, bidean cihoacela erran cioçan guiçon batec: "Jarraiquico natçaitçu çohacen lekhu gucietarat". [58] Ihardetsi cioen Jesusec: Aceriec badituzte bere cilhoac eta ceruco hegastinec bere ohatceac; Guiçonaren Semeac, ordean, ez du non pausa bere burua". [59] Erran cioen, bada, bertce bati: "Jarraiq çaquizquit". Eta harc ihardetsi içan cioen: "Jauna, permeti dieçadaçu lehenago, nohan ene aita ehorzterat". [60] Jesusec berriz erran cioen: "Utçatçu hillec ehortz detçaten bere hillac, bainan çu çohaz predicatcerat Jaincoaren Erresuma". [61] Bertce batec berriz erran cioen: "Jauna, jarraiquico natçaitçu; ordean permeti dieçadaçu lehenago desseguin nadin etchean ditudanez". [62] Ihardetsi cioen hari Jesusec: "Nihor escuz lothu ondoan goldeari guibelat beha jartcen denic, ez da propi Jaincoaren Erresumacotçat".

X. Cap.

[1] Horien ondoan bereci içan cituen Jaunac hirur hogoi eta hamabi bertce dizcipulu eta igorri cituen birazca bere aitciñean berac goan gogo çuen hiri eta lekhu gucietarat. [2] Eta ciotsoten: "Uzta handia da, ordean languille da guti. Eguioçue, beraz, othoitz uztaren naussiari igor detçala languilleac bere uztarat. [3] Çohazte; horra non igortcen çaituztedan otsoen arterat bildots batçu beçala. [4] Ez daramaçuela sakhuric [21] ez molsaric ez oiñetacoric, eta nihor ez deçaçuela bidean saluta. [5] Cein nahi etchetan sar çaitezten, berehala erraçue: Baquea dela etche huntan. [6] Eta baldin edireten bada han baquezco umeric, pausatuco da çuen baquea haren gaiñean; bertcela bihurtuco da çuen ganat. [7] Etche berean egon çaitezte jaten duçuela eta edaten hequien baithan denetic; mereci du ecen languilleac bere saria. Ez çabiltçatela etche batetic bertcerat. [8] Eta cein nahi hirietan sar çaitezten, baldin hartcen baçaituzte, jan çaçue aitciñerat emanen darotçuetena. [9] Senda çatçue han ditezquen eriac eta erroçuete: Hurbildu da çuen ganat Jaincoaren Erresuma. [10] Ceiñ nahi hirietan berriz sar çaitezten, baldin hartcen ez baçaituzte, ilkhi çaitezte carriquetarat eta erraçue: [11] Çuen hiritic lothu çaiquegun herrautsa ere iharrosten dugu çuen contra. Jaquin eçaçue ordean Jaincoaren Erresuma hurbil dela. [12] Erraten darotçuet Sodomarrac egun hartan emequiago içanen direla tratatuac hiri hura baiño.

[13] Çorigaitz hiretçat, Corozaim; çorigaitz hiretçat, Bethsaida!, cergatic Tyrgo hirian edo Sidongoan eguin içan balire çuetan eguin içan diren miracuilluac, aspaldi eguinen baitçuten penitentcia cilicioan eta hautspean çaunçala. [14] Halaber Tyri eta Sidoni emequiago goanen çaye juyamenduco egunean ecen ez çuei. [15] Eta hi, Capharnaum, ceruraiño goratu haicena, ifernuetaraiño beheratua içanen haiz. [16] Çuec aditcen çaituztenac ni aditcen nauque eta çuec mespreçatcen çaituztenac ni nau mespreçatcen; ni mespreçatcen nauenac berriz, ni igorri nauena du mespreçatcen".

[17] Bihurtu içan ciren, bada, hirur hogoy eta hamabiac bozcariorequien erraten ciotelaric: "Jauna, deabruac ere sumetitcen çaizquigu çure icenean". [18] Eta Jesusec erran çaroen: "Icusten nuen Satana chismista bat beçala erortcen cerutic. [19] Hona non eman içan darotçuedan botherea osticatceco sugueèn eta scorpionen, bai eta etsayaren indar gucien ere, eta deussec ez darotçue eguinen daiñuric. [20] Halarican ere ez çaiteztela bozcaria, ceren izpirituac sumetitcen çaizquitçuen; bozcaria çaitezte aitcitic, ceren çuen icenac escribatuac diren ceruetan".

21. Halaxe dago idatzia, ez *çakhu-*. Ez haatik beheraxeago: Lc. XXII, 35.

[21] Ordu hartan berean Jesusec içan çuen alegrantcia bat Izpiritu Saindua ganicacoa eta erraten çuen: "Esquerrac darozquitçut, ene Aita, ceruco eta lurreco Jauna, gauça hec estali baidiotçatçute çuhurrei eta jaquinei eta aguertu baidiotçatçute chumei. Baiqui, ene Aita, ceren den horla çure placera. [22] Gauça guciac eman darozquit niri ene Aitac eta nihorc ez daqui nor den Semea Aitac baicen, ez nor den Aita Semeac baicen eta nori ere Semeac aguertu nahico baidio, eta harc baicen".

[23] Eta bere dizcipuluetarat itçuliric, erran çaroen: "Dohatsuac beguiac, çuec dacussaçuena icusten dutenac. [24] Erraten darotçuet ecen, hainitz profetec eta erregueèc nahi içan dutela icussi çuec icusten duçuena eta ez baidute icussi, eta aditu nahi içan dutela çuec aditcen duçuena eta ez baidute aditu".

[25] Orduan altchatu cen legueco dotor bat hura tentatu nahiz, eta erran cioen: "Naussia, cer eguiñen dut bicitce eternala içateco?". [26] Jesusec ihardetsi cioen: "Leguean cer da escribatua? cer iracurtcen duçu?" [27] Harc errepusta eman cioen: "Maitatuco duçu çure Jainco Jauna çure bihotz guciaz, çure arima guciaz, çure indar guciez eta çure izpiritu guciaz, eta çure lagun proximoa ceure burua beçala". [28] Erran cioen Jesusec: "Ungui ihardetsi duçu; eguiçu hori eta bicico çare". [29] Harc berriz, nahiz guiçon prestutçat aguertu, erran cioen Jesusi: "Eta nor da ene lagun proximoa?". [30] Hitça harturic, bada, Jesusec erran cuen: "Guiçon bat cihoan Jerusalemetic Jericorat eta erori cen ohoinen escuetan, ceiñec bilhuci baitçuten eta colpez çaurthu ondoan, goan ciren hill hurrena utciric. [31] Guerthatu cen, bada, aphez bat iragaten bide beraz eta hura hala icussi arren, iragan cen tricatu gabe. [32] Manera berean levita bat hurbill celaric eta icussi çuelaric, iragan cen hura ere. [33] Baiñan samaritano bat bidean cihoala, ethorri cen guiçon hura cen lekhurat eta icussiric urricaldu citçayon. [34] Hurbildu citçayon eta lothu ciotçan bere çauriac, olioa eta arnoa hetarat issuriric; eta bere abrearen gaiñean eçarriric, eraman çuen ostatu batetarat eta hartaz artha içan çuen. [35] Biharamunean athera cituen bi diru peça eta eman ciotçan ostalerari ciotsolaric: Artha içan çaçu guiçon huntaz eta cer ere guehiago despendatuco baiduçu, eta hura nic emanen darotçut bihurtcen naicenean. [36] Hirur horietaric cein daritçaçu içan dela ohoiñen escuetarat erori içan cenaren proximoa?". [37] Harc ihardetsi içan cioen: "Hartaz urricalmendu içan duena". Horren gaiñean erran cioen Jesusec: "Çohaz eta çuc ere eguiçu gauça bera".

[38] Egun batez, bada, Jesus bidean cihoala bere dizcipuluequien, sarthu cen herri batean eta emaztequi Martha ceritçan batec errecibitu içan çuen bere etchean. [39] Eta hunec çuen aizpa bat Maria deitcen cena, ceiña jarriric baitcegoen Jaunaren oiñetan haren hitçaren aditcen. [40] Martha, bada, hari cen lehia handirequien hainitz cerbitçuren preparatcen; eta ethorriric Jesusen aitcinerat erran ican cioen: "Jauna, ez duçu consideratcen ene aizpac neroni utzten nauela bakharric cerbitçatcerat? Erran dioçoçu, beraz, lagun naçala". [41] Baiñan ihardetsi içan cioen Jaunac eta erran: "Martha, Martha, khechatua çare eta altaratcen çare hainitz gaucen arthaz; [42] bizquitartean gauça bat da bakharra necessario dena. Mariac parteric hoberena du hautatu, ceiña ez baitçayo khenduco".

XI. Cap.

[1]Egun batez lekhu batean cegoela othoitcean, akhabatu çuenean bere othoitça, erran içan cioen bere dizcipuluetaric batec: "Jauna, iracats dieçaguçu othoitz eguiten, Joannessec ere iracatsi daroen beçala bere dizcipuluei". [2] Eta erran çaroen: "Othoitz eguiten duqueçuenean erraçue: Aita, santifica bedi çure icena, ethor bedi çure Erresuma; [3] iguçu egun oroz gure eguneco oguia; [4] barkha dietçagutçu gure bekhatuac, guc gueronec ere barkhatcen deroztegunaz gueroz guri çor darocuten guciei; eta ez gaitçatçula utz tentacionerat". [5] Erran çaroen oraiño: "Baldin çuetaric norbaitec balu adisquide bat eta balihoaco hura gau erditan erraterat: Adisquidea, presta dietçaquidatçu hirur ogui, [6] ceren ene adisquide bat bidean cihoana ethorri baitçait etcherat eta ez dut deussic hari jaterat emateco; [7] eta harc etche barnetic ihardets balioça eta erran: Ez naçaçula importuna, jadan ene athea çarratua da, eta ene haurrac eta ni ohean gare; ecin jaiqui naiteque ematerat, [8] baldinetariac hala ere baleago athea jotcen, erraten darotçuet, ematen ez baliotça ere jaiquiric ceren den haren adisquidea, haren muthiricoa dela causa bederen jaiqui litequela eta eman liotçoquela cembat ere behar baiditu, eta hec. [9] Eta hala nic ere erraten darotçuet: Galde çaçue eta emanen çaitçue; bilha çaçue eta edirenen duçue; jo çaçue eta idequico çaitçue; [10] ecen galdetcen duen guciac içaten du; bilhatcen duenac edireten du eta athea jotcen duenari idequico çayo. [11] Ceiñ ahal da çuen artean aita, bere semeac oguia galdetcen dioenean harri bat eman lioçaquena? Edo arraiña escatcen dioenean, arraiñaren orde sugue bat eman lioçaquena? [12] Edo escatcen badio arroltcea, scorpion bat eman lioçaquena? [13] Bada çuec gaixtoac çaretelaric daquiçuenaz gueroz gauça onac ematen çuen emeèi [22], cembatenaz are hobequi çuen Aita cerucoac emanen bide daroe Izpiritu ona galdetcen diotenei?".

[14] Egun batez Jesus hari cen deabru baten khentcen eta hura cen mutua; eta khendu içan çuenean deabrua, minçatu cen mutua eta miretsi çuen populu guciac. [15] Cembaitec, bada, hetaric erran içan çuten: "Beelzebuth deabruen princearen bidez ditu khentcen deabruac". [16] Eta bertce batçu berriz, hura tentatu nahiz, ceruticaco cerbait seiñaleren esque cegozcon. [17] Baiñan harc icussiric gogoan hec çarabillatena erran içan çaroen: "Bera beraren contra partitua den erresuma gucia desolatua içanen da eta etchea etchearen gaiñerat erorico da. [18] Beraz Satana ere,

22. *emeèi*: hala dio, baiña *umeèi* behar du. Ikus goraxeago, Lc. X, 6, *Filium* itzultzeko, *umeric*, eta kap. honetanxe (19) ere bai.

bera beraren contra partitua bada, nola iraunen du haren erresumac? Erraten baiduçue Beèlzebuthen bidez khentcen ditudala nic deabruac. [19] Baldinetaric, bada, nic Beèlzebuthen bidez khentcen baditut deabruac, çuen umeèc noren bidez khentcen othe dituzte? Hargatic dire içanen hec berac çuen juje. [20] Ordean Jaincoaren erriaz [23] khentcen baditut nic deabruac, dudaric gabe da Jaincoaren Erresuma ethorria dela çuen ganat. [21] Guiçon borthitz eta ungui armatu batec beguiratcen duenean bere escaratça, segurean dire harc dituen guciac. [22] Baldin ordean hura baiño borthitçago den bat heldu bada hura garaitcen duena, eramanen diotça bere arma guciac, ceiñetan baitcen fida, eta partituco ditu haren tresnac. [23] Enequien ez dena ene contra diteque eta enequien biltcen hari ez dena, barrayatcen hari da. [24] Izpiritu lohia ilkhi daitequenean guiçon baten ganic, badoha lekhu idorretarat errepausu bilha eta edireten ez duenean, erraten du: Bihurtuco naiz ene etcherat, ceiñetaric ilkhi içan bainaiz. [25] Eta ethorri ditequenean, aurkhitcen du erkhatcez garbitua eta aphaindua. [26] Orduan goaten da eta hartcen ditu bertce çazpi izpiritu berequien bera baiño gaixtoagoac, sartcen dire eta egoten dire han, eta guiçon haren azqueneco estatua gaixtoagoa edireten da lehenbicicoa baiño".

[27] Horla minço çela, oihua altchaturic emastequi batec jende artetic erran cioen: "Dohatsu sabela çu ekharri çaituena eta dohatsuac bulharrac çuc edozqui ditutçunac". [28] Baiñan Jesusec erran cioen hari: "Aitcitic dohatsuac presunac Jaincoaren hitça entçuten dutenac eta obretan ematen dutenac".

[29] Jendetceac, bada, biltcen hari baitciren, hassi cen erraten: "Nacione hau nacione gaixto bat da; seinale esque dago, eta seinaleric ez çayo emanen Jonas profetaren seiñalea baicen. [30] Ecen Jonas içatu cen beçala seinale bat Ninivitarrentçat, hala içanen da Guiçonaren Semea ere nacione hunentçat. [31] Hegoa parteco erreguina altchatuco da jujamenduco egunean nacione huntaco guiçonen contra eta condenatuco ditu, ceren hura ethorri içan baida munduaren bertce bazterretic Salomonen çuhurtcia aditcerat; eta huna hemen Salomon baiño guehiagocoa. [32] Ninivitarrac altchatuco dire jujamenduco egunean nacione hunen contra eta condenatuco dute, cergatic hec penitencia eguin baitçuten Jonassec predicatu içan çaroen pontutic; eta huna hemen Jonas baiño guehiagocoa.

[33] Nihorc ez du iraçaquitcen lampa bat lekhu estali batean edo gaitciru azpian emateco; bainan ematen dute candeler gaiñean, etchean sartcen direnec arguia icus deçatentçat. [34] Çure gorphutçaren arguiçaguia da çure beguia. Baldin çure beguia garbia bada, çure gorphutz guciac içanen du argui; baldin ordean gaizcoatua bada, halaber çure gorphutça ilhunbean içanen da. [35] Beguirautçu, beraz, çure baithan den arguia içan ez dadin ilhumbea bera. [36] Baldin, beraz, çure gorphutça gucia arguitua bada eta ez badu ilhumberic cembait parteètan, içanen den [24] gucia arguitsu eta arguiçagui distiant batec beçala darotçu arguituco".

[37] Mintço cen demboran pharisau batec othoiztu çuen ciohala bazcaitarat

23. Beste askotan bezala (ik. Mt. V, 22 eta XXIII, 4) *erhi* > *erri*.
24. *içanen da* ez ote du behar izan? Leizarragak: "...argui içanen duc gucia,...".

harequien; goan cen eta jarri cen mahaiñean. [38] Pharisaua, bada, hassi cen bere baithan erasten, cergatic ez othe cen garbitu Jesus bazcal aitciñean. [39] Baiñan erran cioen Jaunac: "Orai çuec, pharisauac, choperaren eta plataren campoco aldea garbitcen duçue; çuen barnea ordean bethea da arrapaqueriaz eta gaixtaqueriaz. [40] Erroac [25], campocoa eguin duenac ez du eguin barnecoa ere? [41] Guciarequien ere eguiçue amoiña eta guciac garbi içanen ditutçue. [42] Ordean, çorigaitz çuentçat, pharisauac, ceren pagatcen baiduçue detchima mendarena, arroda belharrarena [26] eta belhar suerte guciena, eta utzten baiduçue justutassuna eta Jaincoaren amudioa; hauc bada behar ciren eguin, hec utci gabetaric. [43] Çorigaitz çuentçat, pharisauac, ceren lakhet baiduçue sinagoguetan lehenbicico cadirac içatea eta plaça handietan agurrac errecibitcea. [44] Çorigaitz çuentçat, ceren thomba agueri ez diren batçuec beçala baiçarete, ceiñen gaiñean guiçonac baidabiltça jaquin gabe thombac direla".

[45] Horren gaiñean hitça harturic legueco dotor batec, erran cioen: "Naussia, gu ere desohoratcen gaitutçu horla mintçatceaz". [46] Baiñan Jesusec erran içan cioen: "Çorigaitz çuentçat ere, legueco dotorac, ceren cargatcen baiditutçue guiçonac ecin jassan detçaqueten carguez eta cebonec erriaz [27] ere ez baiditutçue uquitcen. [47] Çorigaitz çuentçat, ceiñec bastitcen baiditutçue profeten thombac; bizquitartean çuen aitec hillaraciac dire. [48] Eguiazqui ceboc duçue aguertcen aprobatcen duçuela çuen aitec eguin içan dutena; halaz eta hec hillaraci dituztenaz gueroz [28] profetac, eta çuec bastitcen ditutçuenaz gueroz hequien thombac. [49] Hargatic erran içan ere du Jaincoaren çuhurtciac: Igorrico ditut hequien ganat profetac eta apostoluac eta hetaric hillaracico dituzte batçu eta persecutatuco bertceac, [50] galde daquioentçat nacione huni contu munduaren creacioneaz gueroztic issuri içan den profeta gucien odolaz, [51] hassi Abelen odoletic eta Zachariasen odoleraiño, ceiña hill içan baitçuten aldarearen eta templuaren artean. Baiqui erraten darotçuet: galdetuco çayo hortaz contu nacione huni. [52] Çorigaitz çuentçat, legueco dotorac, ceren eraman baiduçue scienciaren gakhoa; cebonec ez baitçarete sarthu eta sartcerat cihoacenac debecatu içan baiditutçue". [53] Horiec erraten çaroztenean, bada, pharisauac eta legueco doctorac hassi citçaizcon haguitz hertsten eta galdea galdearen gaiñean eguinez nekhatcen, [54] cerbaitetan hura atceman nahiz eta ahotic hari cerbait idaroqui nahiz, ondoan hartaz accusatcecotçat.

25. *Erhoac*, alegia. Ik. Mt. V, 22; XXIII, 4. Baina *erhotu*: Jo. X, 20; *erhoa*: Lc. XII, 20.
26. *Belharranera* idatzi du.
27. Berriz ere *erhi* > *erri*: ik. Lk. XI, 20.
28. *Halaz eta...* + *-ez gueroz*: zergatikoa adierazten du hemen eta bestetan: Lk. XX, 42; Jo. IX, 16. Leizarragak, aldiz, *ecen* darabil.

XII. Cap.

[1] Bizquitartean jende tropela handi batçu bildu baitciren Jesusen alderat, batçuec bertceac lehertceraiñocoan, hassi citçayen erraten bere dizcipuluei: "Beguirautçue pharisauen levamitic, ceiña baida hypocrisia. [2] Deus ere ez da estaliric aguertuco ez denic, ez gorderic jaquiñen ez denic. [3] Ecen ilhumbean erran dituzquetçuenac erranen dire egun clarean, eta gueletan beharrirat erran duqueçuena condatuco da etche gaiñetan. [4] Erraten darotçuet, bada, çuei ene adisquideei: Ez duçuela beldurric gorphutça hiltcen dutenentçat, ceiñec guero ez baidute deussere guehiagocoric çuei eguiteco. [5] Baiñan eracusterat nohatçue norentçat içan behar duçuen beldur. Içan çaitezte beldur, bicia idequi [29] ondoan bothere duenarentçat ifernurat igortceco. Baiqui erraten darotçuet: harentçat içan çaitezte beldur. [6] Ez da eguia bortz etche-chori saltcen direla bi tolosanotan? Bizquitartean hetaric batere ez baida ahantcia Jaincoaren aitciñean. [7] Aitcitic çuen buruco illeac ere guciac dire condatuac; ez duçuela beraz beldurric; hainitz etche-choric elkharrequien baiño guehiago duçue çuec balio. [8] Erraten darotçuet, bada: Nor ere declaratuco baida ene alde guiçonen aitciñean, Guiçonaren Semea ere declaratuco da haren alde Jaincoaren aingueruen aitciñean. [9] Ordean ni guiçonen aitciñean ukhatuco nauena, ukhatua içanen da Jaincoaren aingueruen aitciñean. [10] Nihorc erraten badu cerbait Guiçonaren Semearen contra, hari barkhatuco çayo; ordean Izpiritu Sainduaren contra blasphematcen duenari ez çayo barkhatuco. [11] Noiz ere, bada, eramanen baitçaituzte sinagoguetarat, cargudunetarat eta bothere dutenetarat, ez duçuela griñaric nola edo cer ihardetsico duçuen edo cer erranen duçuen; [12] ecen Izpiritu Sainduac iracatsico darotçue ordu hartan berean cer erran beharco duçuen".

[13] Orduan erran cioen jende artecoetaric [30] batec: "Naussia, erroçu ene anayari eman dieçadala neure partea primeçatic". [14] Baiñan Jesusec erran cioen: "Guiçona, norc eçarri nau ni juje edo partitçaille çuen artean?". [15] Guero erran çaroen: "Hara bada, beguira çaitezte abaricia gucietaric, ceren eta cer nahi abundancian içan dadin guiçon bat, ez baidatça haren bicia ontassunezco franquian".

[16] Ondoan ekharri çaroen comparacione bat ciotsalaric: "Guiçon aberats batec çuen landa bat choill hainitz eman cioena; [17] eta gogoetan cegoen bere baithan

29. Hemen ere *kendu* esan nahi du. Ik. Lk. VI, 9.

30. Hitz horren lehen hiruzpalau letra zail da irakurtzen, baina *jende artecoetaric* hori ongi dator Leizarragarenarekin: *gendetzecoetaric*.

erraten çuelaric: Cer eguiñen othe dut, ecen ez dut non çarra bildu ditudanac? [18] Diotsa, bada: Eguiñen dut hauche: urratuco ditut neure bihitoquiac eta eguiñen ditut handiagoac eta emanen ditut hetan bildu ditudanac eta ene ontassun guciac. [19] Eta erranen diot neure buruari: Baduc ontassun franco bildua hainitz urthetaco; errepausa hadi, jan çac, edan çac eta eguic bombacia. [20] Ordean Jaincoac erran cioen: Erhoa, gau huntan hire bicia galdetcerat dohazquic, eta guerocotz daduzcanac norentçat içanen dire? [21] Gauça bera da, beretçat thresor biltcen hari denaz eta Jaincoa baithan aberats ez denaz.

[22] Hargatic darotçuet erraten", diotsate bere dizcipuluei: "Ez duçuela griñaric ez çuen bicitcecoarentçat, cer janen othe duçuen, ez eta çuen gorphutçarentçat, certaz bestituco othe çareten. [23] Bicitcea guehiagocoa da jatecoa baiño, eta bai gorphutça jaunzcura baiño. [24] Considera çatcitçue beleac; ez baidute hec ereinten, ez biltcen, ez baidute sotoric, ez bihiteguiric, eta halere Jaincoac hazten baiditu. Eta cembatez ez çarete çuec guehiagocoac hec baiño? [25] Eta ceiñ da çuetaric bere artha guciarequien ere bere thaillari besso baten goratassuna iretcheq ahal dioçoquena? [26] Baldin, beraz, ecin badaguiqueçue gauçaric gutiena, cergatic çarete griñatsu gaiñeracoez? [27] Considera çatçue loreac nola handitcen diren. Ez dire lanean hari, ez iruten. Bizquitartean nic darotçuet erraten: Salomon bera bere gloria gucian ez cen hain berreguin nola hetaric bat. [28] Baldin, beraz, lore bat, egun landan belhar dena eta bihar laberat arthiquico dena, Jaincoac horla badu beztitcen, cembatenaz guehiago ez du eguiñen çuentçat, fede aphurretaco jendeac? [29] Eta hala ez duçuela griñaric cer janen duçuen edo cer edanen duçuen eta ez çaiteztela gogoetan jar; [30] ecen horiez guciez munduco jendeac dire griñetan eta çuen Aitac badaqui horien beharra duçuela. [31] Aitcitic bilha çaçue lehenic Jaincoaren Erresuma eta haren justicia eta horiec guciac emanen çaizquitçue guehiago. [32] Ez duçuela beldurric, arthalde chumea, ecen çuen Aitaren atseguiña da çuei ematea bere Erresuma. [33] Sal çatcitçue ditutçuenac eta ematcitçue amoiñetan. Eguiçue içaterat moltsa batçu çahartcen ez direnac, thresor bat ceruetan behiñere ahitcen ez dena, ohoiñac hurbiltcen ez çaizcoena eta harrec gastatcen ez dutena; [34] ecen non ere baida çuen thresora, eta han diteque halaber çuen bihotça.

[35] Den çuen guerria guerricoz herstua eta ditutçuen lampa iraçaquiac çuen escuetan; [36] eta içan çaitezte guiçon batçuen pare, ceiñac baidaudez bere naussiaren beguira noiz bihurtuco den estayetaric; dathorquenean eta athea jo duquenean berehala idequitceco. [37] Dohatsuac cerbitçariac, naussiac dathorquenean atçarriac aurkhituco dituenac. Erraten darotçuet eguia: bere arropa iztergoraturic jarraracico dituela haiñac mahaiñean eta ibillico dela hequien cerbitçatcen. [38] Eta baldin ethortcen bada bigarren goardian edo hirurgarren goardian, eta hala aurkhitcen baditu, dohatsuac ditezque cerbitçari hec. [39] Jaquin çaçue, bada, hau: baldin baleaqui aita familiacoac cer mugaz ohoina ethorrico den, atçarria bide legoquela, eta ez leçaquela utz cilhatcerat bere etchea. [40] Eta hala, çaudete çuec ere prestatuac, cergatic çuec uste ez duçuen orduan ethorrico baida Guiçonaren Semea".

[41] Erran içan cioen, bada, Piarressec: "Jauna, guretçat erraten duçu parabola hori ala gucientçat?". [42] Ihardetsi cioen Jaunac: "Nor uste duçu dela despensari leyala eta çuhurra, ceiña eçarri baiduque naussiac bere familiaren gaiñean, behar denean batbederari emateco bere neurri oguia? [43] Dohasua diteque cerbitçaria, naussiac dathorquenean horla hari dela aurkhituco duena. [44] Ciñ ciñez darotçuet erraten: dituen ontassun gucien gaiñean eçarrico duela haiña. [45] Baldin ordean erraten badu cerbitçari harc bere gogoan: Berantcen du ene naussiac ethortcerat; eta hasten bada cehatcen mutillac eta nescatoac, jaten, edaten eta horditcen, [46] ethorrico da cerbitçari haren naussia harc iguriquitcen ez duen egunean eta ez daquien orenean, khenduco du eta saritçat emanen du infidelen baltsan. [47] Cerbitçari haiña, bada, ceiñac jaquin baidu naussiaren borondatea eta ez baida egon prestatua eta ez baidu eguin harc nahi çuen beçala, cehatua içanen da garrazqui. [48] Jaquin ez duena, ordean, eta gastigua mereci duqueten gauçac eguin dituzquena, gutiago içanen da cehatua.Hainitz eman içan çayoenari hainitz galdetuco çayo eta cembatenaz gauça guehiago fidatu baitçayo norbaiti, eta hambatenaz guehiagoco contua bihurraracico çayo.

[49] Sua ematerat ethorri içan naiz ni lurrerat, eta cer nahi nuque iraçaqui dadin baicen? [50] Bathayo batez, bada, behar dut içan bathayatua, eta cer hersturatan ez naiz, hura compli dadiquen artean? [51] Uste duçue baquea dela ni ethorri içan naicena ematerat lurraren gaiñean? Ez, seguratcen çaituztet, baiñan aitcitic targa. [52] Ecen hemendic harat bortz presuna direnean etche batean, içanen dire batçuec bertceèn ganic aldaratuac; içanen dire hirur bien contra eta bia hiruren contra. [53] Abiatuco dire aita semearen contra eta semea bere aitaren contra; ama alabaren contra eta alaba amaren contra; amaguiñaurraua bere erreiñaren contra eta erreiña bere amaguiñaurraren [31] contra".

[54] Erraten çaroen guero jendetceèi ere: "Icusten duçuenean hedoy bat altchatcen iguzqui sartcetic, berehala erraten duçue: Uria heldu da; eta hala guerthatcen ere da. [55] Eta icusten duçuenean hegoa abiatcen, erraten duçue: Bero eguinen du; eta hala eguiten ere du. [56] Hypocritac, badaquiçue eçagutcen ceruco eta lurreco iduricunde differentec cer marcatcen duten; dembora hau, bada, nola ez duçue eçagutcen? [57] Eta cergatic ceben burutaric ere ez duçue jujatcen justu dena? [58] Noiz ere, bada, baitçohaz çure partidarequien jujea ganat, essaya çaite bidean harequien eguitecoetaric ilkhitcerat, beldurrez bortchaz eraman ez çaitçan jugea ganat eta jugeac eman ez çaitçan seryentari eta seryentac eçar ez çaitçan presondeguian. [59] Erraten darotçut: ez çare handic ilkhico azqueneco pelataraiñocoa pagatu duqueçun artean".

31. *-aurrauaren* behar luke eta aurreko lerroan *-arraua,* ez *-aurraua:* ikus Mt. X, 35; Lk. IV, 38.

XIII. Cap.

[1] Dembora hartan berean aurkhitu ciren han jende batçu condatu ciotenac Galilear hequien eguitecoa, ceiñen odola Pilatussec balsatu içan baitçuen hequien sacrificioequien. [2] Horren gaiñean Jesusec erran içan çaroen: "Uste duçue Galilear hec cirela Galilea gucico guiçonic gaixtoenac, ceren horla içan diren tratatuac? [3] Aitcitic, erraten darotçuet: Baldin penitencia eguiten ez baduçue, guciac galduco çarete hec beçain ungui. [4] Hala nola hemeçortci hec, ceiñen gaiñerat erori baitcen Siloeco dorrea eta hill baitcituen, uste duçue hobendunago cirela hec Jerusalemeco habitant guciac baiño? [5] Seguratcen çaituztet, aitcitic; baiñan penitencia eguiten ez baduçue, guciac galduco çarete hec beçain ungui".

[6] Erran çaroen bada parabola hau: "Guiçon batec çuen fico ondo bat landatua bere mahastian eta haren fruituen bilha ethorri eta ez çuen aurkhitu. [7] Erran cioen bada mahastiçainari: Jadan hirur urthe hautan heldu naiz fico ondo huntaco fruitu bilha, eta ez dut atcematen batere; pica çaçu, beraz. Cergatic lurra ere occupatcen du? [8] Mahastiçaiñac ihardetsi içan cioen: Jauna, utçaçu oraiño urthe huntan ere haintçur deçadan oiñetan eta ongarria eman dioçadan, [9] eta icussico duçu hea fruituric ekharrico duen ordu onean, ezberen guero picatuco duçu".

[10] Hari cen, bada, iracasten hequien sinagogan sabbatho egunetan. [11] Eta egun batez aurkhitu cen han emastequi bat izpiritu batec hemeçortci urthe hartan languiaraci çuena; gucia makhurtua ere cen eta niholere ecin beha ceçaquen goiti. [12] Jesusec icussiric erakharri içan çuen bere ganat eta erran cioen: "Emastequia, emparatua çare çure erhassunetic". [13] Pausatu ciotçan escuac gaiñean eta dembora berean chuchendu cen eta Jaincoari gloria bihurtu cioen. [14] Baiñan sinagogaco buruçagui batec gaitzetsiric ceren sabbatho egunean sendatu çuen Jesusec, erran cioen populuari: "Sei egun badire laneco; hetan çatozte sendatcerat eta ez sabbatho egunean". [15] Hitça bidalduric, bada, hari Jaunac erran içan çaroen: "Hypocritac, çuetaric batbederac ez du lechatcen sabbato egunean bere idia edo bere astoa eta establiatic atheraturic eramaten edaraterat? [16] Eta bada Abrahamen alaba hau Satanec hemeçortci urthe huntan estecatua çaducana, ez cen behar lechatu estecadura hortaric sabbato egunean?". [17] Solhas horrec ahalquez gorriaraci cituen haren etsai guciac, eta populu gucia berriz cen bozcariatua eguiten icusteaz hambat gauça gloriagarri.

[18] Ciotsan bada oraiño: "Ceren pare othe da Jaincoaren Erresuma eta cerequien comparatuco duquet? [19] Mustarda hacia du iduri, ceiña harturic guiçon batec etchatu içan baidu bere baratcean. Haci hura handitu cen eta eguin cen

arbola handi bat halaco maneraz, non ceruco choriac pausatcen baitciren haren adarretan".

[20] Berriz ere oraiño erran çuen: "Cerequien comparatuco duquet Jaincoaren Erresuma? [21] Lebamia du iduri, ceiña harturic emaste batec ematen baidu eta estaltcen hirur neurri iriñetan, gucia orhatu ditequen artean".

[22] Bizquitartean baciohan Jesus hiriz hiri eta herriz herri iracasten çuela eta Jerusalemeco bidea çaramala; [23] eta norbaitec erran baitcioen: "Jauna, gutiac othe dire salbatuco direnac?, ihardetsi içan çaroen harc: [24] "Lehia çaitezte sartcerat athe hertsitic; erraten darotçuet ecen: Hainitz ibillico dire sarthu nahiz eta ecin sarthuco baidire. [25] Noiz ere, bada, sarthuco baiditeque familiaco aita eta çarratu baiduque athea, hassico çarate campotic caudeztela athea jotcen, dioçuelaric: Jauna, idec dieçaguçu; eta errepustatçat erranen darotçue: Ez daquit nor çareten, ez nongoac çareten. [26] Orduan hassico çarete erraten: Jan dugu eta edan dugu çurequien eta iracatsi içan duçu gure carriquetan. [27] Eta erranen darotçue: Ez daquit nor çareten, ez nongoac çareten. Çohazte guciac ene ganic, gaixtaqueriaco languilleac. [28] Han içanen dire nigarrac eta hortz carrascatceac, icussico ditutçuenean Abraham, Isaac, Jacob eta profeta guciac Jaincoaren Erresuman eta çuec camporat arthiquiac. [29] Ethorrico dire orientetic eta occidentetic, nortetic eta hegoatic jarrico direnac mahaiñean Jaincoaren Erresuman. [30] Eta orai dire azquen lehen içanen direnac eta dire lehen azquen içanen direnac".

[31] Egun hartan berean ethorri citçaizcon pharisauetaric cembait ciotsotela: "Ilkhi çaite eta çohaz hemendic, cergatic Herodessec hillaraci nahi baitçaitu". [32] Ihardetsi içan çaroen: "Çohazte eta erroçue aceri hari: Huna non ditudan deabruac khassatcen eta diotedan ossassuna ematen eriei gaur eta bihar, eta etci finatuco naiz. [33] Halaric ere ibilli behar dut gaur eta bihar eta etci; alabaiñan ez du behar profeta batec hill Jerusalemez campoan.

[34] Jerusalem, Jerusalem, profetac hillaratcitcen ohi ditunana eta hiri igortcen çaizcanac harricatcen ditunana! Cembat aldiz nahi içatu ditiñat biribilcatu hire haurrac, chori batec biltcen dituen beçala bere umeac bere hegalen azpirat, eta ez dun nahi içatu! [35] Huna non çuen etchea utcico çaitçuen abandonatua. Erraten darotçuet, bada, ez nauçuela guehiago icussico guertha daitequen arteraiño erran deçaçuen: Benedicatua dela Jaunaren icenean heldu dena".

XIV. Cap.

[1] Sabbatho egun batez sarthu içan cen Jesus pharisau principal baten etchean othruntçatcerat eta hec celetan cegozcon. [2] Cen, bada, haren aitciñean guiçon bat hydropicoa. [3] Eta adreçaturic legueco dotorei eta pharisauei, erran çaroen Jesusec: "Cilhegui othe da sabbatho egunean sendatcea?" [4] Baiñan hec ichillic egon ciren eta harc harturic eria, sendatu çuen eta igorri. [5] Ondoan erran çaroen: "Ceiñ da çuetaric bere astoa edo idia erortcen çayoenean putçu batetarat berehala atheratcen ez duena sabbatho egunean ere?" [6] Eta ez çaquiten cer ihardets gauça horren gaiñean.

[7] Icussiric, bada, nola gombidatuec hautatcen cituzten lehenbicico plaçac, ekharri çaroen parabola hau eta erran: [8] "Gombidatua içanen çarenean estayetarat, ez çaitecela jar lehenbicico plaçan, guertha ez dadin çu baiño ohoratuago bat halaber gombidatua, [9] eta ethorriric çu eta hura gombidatu çaituztena, erran ez dieçaçun: Emoçu huni lekhu hori; eta orduan jar ez çaitecen ahalqueriarequien azqueneco lekhuan. [10] Baiñan gombidatua içanen çarenean çohaz, jar çaite azqueneco plaçan, çu gombidatu çaituena ethortcen denean erran dieçaçuntçat: Ene adisquidea, igan çaite gorago. Orduan duqueçu ohore çurequien mahaiñean jarriac direnen aitçiñean. [11] Ecen bere burua goratcen duquen gucia beheratua içanen da; eta bere burua beheratcen duena goratua".

[12] Erraten cioen halaber gombidatu çuenari: "Emanen duçunean bazcaitarat edo afaitarat, ez detçatçula gombida ez çure adisquideac, ez çure anayac, ez çure ahaideac, ez çure hauçoac aberats direnac, hec ere berriz çu gombida ez çaitçatentçat eta horla ordaiña bihur ez daquiçun. [13] Baiñan ematen duçunean othruntça bat, gombida çatcitçu pobreac, hebainduac, mainguac eta itsuac. [14] Eta dohatsu içanen çare, ceren ez baidute çuri ordainez ematecoric; içanen duçu ecen çure golardoa justuen piztean".

[15] Horiec aditu cituenean mahaiñean cirenetaric batec erran içan cioen: "Dohatsua oguia janen duena Jaincoaren Erresuman". [16] Baiñan Jesusec erran cioen: Guiçon batec eman çuen afari handi bat eta gombidatu içan cituen hainitz jende. [17] Eta igorri içan çuen bere cerbitçaria afaitaco mugan erraterat gombidatuac cirenei cetocela, ceren orduco guciac prest baitciren. [18] Baiñan elkhar aditu balute beçala, hassi ciren esencusatcen. Lehenbicicoac erran cioen: Borda bat erossi dut eta, bada eta ez bada, goan behar dut haren icusterat; othoi essencusa naçaçu. [19] Bigarrenac erran içan cioen: Bortz idi ustarri erossi ditut eta hequien frogatcerat noha; othoi essencusa naçaçu. [20] Hirurgarrenac berriz erran cioen: Ezcondu

naiz, eta hala ecin ethor naiteque. [21] Bihurtu cen cerbitçaria eta horiec guciac condatu ciozcan naussiari; orduan hassarraturic aita familiacoa, erran cioen bere cerbitçariari: Çohaz berehala hirico placetarat eta carriquetarat, eta pobreac, hebainduac, itsuac eta mainguac erakharatcitçu hunat. [22] Ondoan erran cioen cerbitçariac: Jauna, eguin da çuc manatu duçun beçala eta bada oraiño jarlekhu. [23] Erran cioen naussiac cerbitçariari: Çohaz bideetarat eta berro ondotarat et(a) bortcharaz çatçu [32] jendeac sartcerat bethe dadin ene etchea. [24] Erraten darotçuet, bada, deithuac ciren guiçon hetaric batec ere ez duela dastatuco ene afaritic".

[25] Jende tropela handi batçu baitcioacen Jesusequien, hequien alderat itçuliric erran içan çaroen: [26] "Baldin nihor badathor ene ganat eta gaixesten ez baditu bere aita eta ama, bere emastea, bere haurrac, bere abrideac eta ondoan oraiño bere presuna propioa ere, ecin içan daiteque ene dizcipulu. [27] Eta bere gurutcea garrayatcen ez duena eta niri jarraiquitcen ez çaitana, ecin içan daiteque ene dizcipulu. [28] Cein da ecen çuetaric, baldin dorre bat bastitu nahi badu, jartcen ez dena aitciñetic contu eguiten hartan despendatu beharco dituenez, hea içanen othe duen akhabatcecoric, [29] beldurrez, cimendua etchatu duquen ondoan eta ecin akhabatu duquenean, icusten duten guciac has ez ditecen hartaz trufatcen, [30] diotelaric: Guiçon hori hassi içan da bastitcen eta ecin akhabatu baidu? [31] Edo cein da erreguea, guerla ematerat dohanean bertce erregue bati, jartcen ez dena pensatcen hea hamar milla guiçonequien ilkhi ahal daquiqueycoen, haren ganat hogoi millequien heldu den etsai bati? [32] Bertcela hura oraiño urrundic dagoela, igortcen diotça embachadoreac eta galdetcen dio baquea. [33] Hala, beraz, çuetaric norc ere ez baidaroe ukho eguiten dituen guciei, haiña ecin içan daiteque ene dizcipulu. [34] Gauça on bat da gatça; baldin ordean gatça gueçatcen bada, cerequien sassoatuco dute hura? [35] Ez lurretaco, ez ongarritaco da gay, camporat arthiquitceco baicen. Beharriac dituenac aditceco, adi deçala".

32. Maiz *çatcitçu* esan ohi du.

XV. Cap.

[1] Heldu citçaizcon, bada, Jesusi publicanoac eta bekhatorosac aditcerat. [2] Eta baçarassaten pharisauec eta escribauec ciotsatela: "Bai eta hunec hartcen baiditu bekhatorossac eta jaten ere baidu hequiequien". [3] Horren gaiñean Jesusec ekharri içan çaroen parabola hau: [4] "Cein da çuetaric guiçona, ehun ardi lituela, baldinetaria hetaric bat galtcen badu, utz ez letçaquena laur hogoi eta hemeretciac desertuan, eta ez lihoaquena galdu den haren ondoan, aurkhitu duquen artean? [5] Eta aurkhitu duquenean, ematen du bere sorbalden gaiñean alegueraric, [6] eta etcherat denean, biltcen ditu bere adisquideac eta hauçoac erraten daroelaric: Bozcaria çaitezte enequien, ceren eta aurkhitu içan baidut ene ardi galdu nuena. [7] Erraten darotçuet, bada, hala hala bozcario guehiago içanen dela ceruan penitencia eguiten duen bekhatoros baten ariaz, ecen ez laur hogoi eta hemeretci justu penitenciaren beharric ez dutenentçat.

[8] Edo ezberen, cein da emastequia hamar dragma dituzquena, baldinetaria hetaric bat galtcen badu, lampa iraçaquitcen ez duena, etchea garbitcen ez duena eta artha handirequien bilhatcen ez duena, aurkhi deçaquen artean? [9] Eta aurkhitu duquenean, biltcen ditu bere adisquideac eta hauçoac, erraten daroelaric: Boz çaitezte enequien, ceren aurkhitu içan baidut galdu nuen dragma. [10] Hala erraten darotçuet alegrancia bat dela Jaincoaren aingueruen artean bekhatoros bakhar batec ere penitencia eguiten duenean".

[11] Erran içan çaroen oraiño: "Guiçon batec cituen bi seme, [12] eta erran cioen hetaric gazteénac aitari: Aita, indaçu çure ontassunetic heldu çaitan partea. Eta aitac partitu çaroen bere ontassuna. [13] Egun gutiren barnean guciac bilduric, seme gasteèna goan cen atce herri urrun batetarat eta han iriondu içan çuen bere ontassuna debochquerian. [14] Guciac urmariatu içan cituen ondoan, guerthatu içan cen gossete handi bat herri hartan eta hassi cen peitu içaten. [15] Goan cen, bada, eta jarri cen hiri hartaco burjessetaric baten cerbitçuan, ceiñac igorri içan baitçuen bere bordarat urdèen bazcatcerat. [16] Han nahi çuquen asse urdeèc jaten çutenetaric, baiñan nihorc ez cioen ematen. [17] Sarthuric, bada, bere baithan erran içan çuen: Cembat sehi dire ene aitaren etchean oguia franquiaz dutenac, eta ni hemen gossez hiltcen hari bainaiz. [18] Banoha; goanen naiz ene aita ganat eta erranen diot: Aita, bekhatu eguin dut ceruaren eta çure contra; [19] gaurguero ez dut mereci deithua içatea çure semea; trata naçaçu çure muthilletaric bat beçala. [20] Eta abiaturic ethorri içan cen bere aita ganat. Oraiño urrun cela, bada, icussi çuen bere aitac eta urricalmenduz uquitua goan cen agudoqui haren ganat, bessar-

catu çuen eta mussu eman cioen. [21] Erran cioen semeac: Aita, bekhatu eguin dut ceruaren eta çure contra; gaurgoro ez dut mereci çure semea deithua içatea. [22] Orduan aitac erran çaroen bere cerbitçariei: Berehala ekharaçue hunen leheneco aldagarria eta jauntz dioçoçue; emoçue errestun bat errian [33], eta çapatac oiñetan. [23] Ekharaçue chahal guicena eta hill çaçue; eta jan çagun eta eguigun bombacia, [24] ceren ene seme hau hill baitcen eta pitzberritu baida, galdu cen eta aurkhitu da. Eta jarri ciren bombacia eguiten.

[25] Cen, bada, haren seme çaharrena landan, eta heldu cela eta etcherat hurbiltcen cela, aditu cituen canta eta dantça. [26] Eta deithuric cerbitçarietaric bat, galdeguin cioen hea cer ciren hec. [27] Cerbitçariac ihardetsi içan cioen: Çure anaya ethorri da eta çure aitac hillaraci du chahal guicena, ceren hura salboric icusten duen. [28] Gaitzitu citçayon hori çaharrenari eta ez çuen nahi sarthu. Ilkhiric, bada, bere aita hassi citçayoen othoitcez. [29] Baiñan harc ihardetsi içan cioen aitari eta erran: Hambat urthe huntan çaitut cerbitçatcen eta egundaiño ez çaitut dessobeditu manatu içan darotaçun [34] gaucetan; bizquitartean egundaiño ez daiño [35] ez darotaçu eman bitiña bat ene adisquideequien jateco. [30] Baiñan çure seme hau, bere ontassuna emaste galduequien iretsi duena, ethorri içan den beçain lauster, hillaraci duçu hunentçat chahal guicena. [31] Orduan aitac erran cioen: Ene semea, çu bethi enequien çare eta diren guciac çure dire; [32] baiñan banquet eguin behar cen eta alegueratu behar cen, ceren çure anaya hau hill baitcen eta biztu içan baida; galdu baitcen eta aurkhitu içan baida".

33. *Erhi* > *erri* beste askotan bezala: ik.Lk. XI, 46.
34. Agian horrek pluralgilea falta du.
35. Hala dio, eta hala da Lafitteren ustez.

XVI. Cap.

[1] Jesusec erraten çaroen halaber bere dizcipuluei: "Guiçon bat cen aberatsa, ceiñec baitçuen despentcer bat eta hau acusatua içan cen haren aitciñean haren ontassunen funditçaille bat beçala. [2] Deithu çuen, bada, eta erran cioen: Cer aditcen dut nic hau çutaz? Eman dieçadaçu contu ene ontassun erabilli ditutçunez, ecen gaurgoro ecin guehiago erabillico ditutçu. [3] Horren gaiñean despensariac erran içan çuen bere baithan: Cer eguiñen dut nic, ene naussiac khentcen darotanaz gueroz ene despentçargoa? Haintçurrean ecin hari naiteque; ahalque naiz esque ibiltcerat. [4] Badaquit cer eguinen dudan khentcen nautenean despentçargotic, cembaitec errecibi naçatententçat [36] bere etchetarat. [5] Erakharriric, bada, batbanaca haren naussiari çor ciotenac, erran cioen lehenbicicoari: Cembat dioçu çor ene naussiari? [6] Ihardetsi içan cioen harc: Ehun barrill olio. Harc berriz erran cioen: Har çaçu çure obligantça; jar çaite hor berehala eta eguiçu bertce bat berrogoy eta hamarrecoa. [7] Guero bertce bati erran içan cioen: Eta çuc cembat duçu çor? Harc ihardetsi cioen: Ehun neurri ogui. Har çaçu, diotsa huni, çure billeta eta eguiçu bat laur hogoiecoa. [8] Eta laudatu içan çuen naussiac despentsari desleyal hura, ceren habilqui eguin içan çuen; ecen mundu huntaco haurrac habillago dire bere eguitecoen erabiltçan, ecen ez arguico haurrac. [9] Nic ere darotçuet erraten: Eguitcitçue adisquideac aberastassun gaixtoez, faltacerat heldu çaretenean errecibi çatçaitentçat [37] egoitça eternaletan. [10] Gauça chumeènetan leyal dena handiagoetan ere orobat diteque eta chumeènetan desleyal dena, handiagoetan ere desleyal içanen da. [11] Baldinetariac, beraz, aberastassun gaixtoetan leyal içan ez baçarete, eguiazcoac norc fidatuco darozquitçue? [12] Eta baldin bertceren gauçan leyal içan ez baçarete, çuen ditequena norc emanen darotçue? [13] Sehi garabec ecin cerbitça detçaque bi naussi; edo ecen bat gaitzetsico duque eta bertcea onetsico, edo batarequien du iduquico eta bertcea du mezpreçatuco. Ecin cerbitça detçaquetçue Jaincoa eta dirua".

[14] Aditcen cituzten, bada, horiec pharisauec ere, ceiñac baitciren choil abariciosac eta trufatcen ciren hartaz. [15] Eta erran içan çaroen: "Çuec çarete guiçonen aitciñean saindutçat iragan nahi duçuenac; ordean Jaincoac eçagutcen ditu çuen bihotçac, ecen guiçonei handi çayena lastima bat da Jaincoaren aitçiñean. [16] Leguea eta profetac ciren Joannes arteraiño; hartaz gueroz Jaincoaren Erresuma

36. *-ten-* bat aski zen.
37. *çaitça-* behar zen, ez *çatçai-*.

predicatcen da eta batbederac hari dio bortcha eguiten. [17] Errechago da, bada, cerua eta lurra iragan daitecen, ecen ez leguetic pontu choil bat eror dadin. [18] Bere emastea uzten duquen guciac eta bertce batequien ezcontcen denac, adulterioa eguiten du. Eta bere senharraz utcia den batequien ezcontcen denac halaber adulterioa eguiten du.

[19] Guiçon bat cen aberatsa escarlatez eta tela fiñez bestitcen cena eta egun guciez othruntça magnificoac eguiten cituena. [20] Eta cen halaber pobre bat Lazaro ceritçana, haren athean çatçana çauriz gucia bethea. [21] Desiratcen çuquen assetcea aberatsaren mahaiñetic erortcen ciren papurrez, eta nihor [38] ez cioen ematen; aitcitic potchoac ere heldu citçaizcon bere çaurien limicatcerat. [22] Ethorri cen, bada, hiltcerat pobre hura eta eraman çuten aingueruec Abrahamen galtçarrerat; hiltcen [39], bada, aberatsa ere eta ehortcia içan cen ifernuan. [23] Altchaturic, bada, goiti beguiac tormentetan cegoela, icussi içan çuen Abraham urrunetic eta Lazaro haren galtçarrean. [24] Eta oihuz hassiric, erran cioen: Aita Abraham, nauçun urricari eta igor dieçadaçu Lazaro erriaren [40] mocoa bustiric urean eta fresca dieçadan mihia, ceren haguitz sofritcen baidut su eta khar hautan. [25] Baiñan Abrahamec erran içan cioen: Haurra, orhoit çaite ontassunic asco içan duçula çure bician eta Lazaroc berriz ez duela içan gaitxic baicen; orai ordaiñez hau descantsuan da eta çu tormentetan. [26] Guciarequien ere lece handi bat da gure eta çuen artean halaco moldez, non hemendic nahi luquetenec iragan çuen ganat edo hortic ethorri hunat ecin bailaiquiquete. [27] Aita, ihardetsi cioen aberatsac, othoitz eguiten darotçut, beraz, igor deçaçun ene aitaren etcherat; [28] baditut ecen bortz anaya eta abisa detçan, hec berac ere ethor ez daitecen tormentetaco lekhu huntarat. [29] Abrahamec berriz erran cioen: Badituzte Moise eta profetac; entçun betçate hec. [30] Ez, diotsa harc, aita Abraham; baiñan baldin hilletaric norbait goaten baçaye, eguiñen dute penitencia. [31] Erran içan cioen, bada, Abrahamec: Baldiñetaria Moise eta profetac aditcen ez badituzte, ez eta norbait hilletaric bitz baledi ere ez dute sinhetsico".

38. *Nihorc* behar du noski.
39. Hots, *hil cen*. Ik. Mc. XII, 20; XV, 44.
40. *Erhiaren*, alegia. Ikus Lk. XV, 22.

XVII. Cap.

[1] Jesusec erran çaroen egun batez bere dizcipuluei: "Impossible da ez dathocen escandalac; baiñan çorigaitz haiñarentçat, ceiñez ethortcen baidire. [2] Hobe liçate harentçat eman lequioen errota harri bat lephotic eta arthiq leçaten itsassoan behera, ecen ez escandalisa deçan chume hautaric bat. [3] Emoçue goardia; baldin offentsatcen baçaitu çure anayac, errepreni çaçu; eta baldin urriquitcen baçayo, barkha dioçaçu. [4] Eta egunean çazpitan offentsatcen baçaitu ere eta çazpitan egunean heldu baçaitçu eta erraten badarotçu: Damu dut eguin dudanaz, barkha dioçaçu".

[5] Orduan Apostoluec erran cioten Jaunari: "Berre dieçaguçu fedea". [6] Erran çaroen bada Jaunac: "Baldin bacindute fedea mustarda bihia beçanbatecoa, erran ciñoçoquete mora ondo huni: Athera adi erroetaric eta birlanda adi itsassoan; eta obedi cintçaquete. [7] Ceiñ da çuetaric, duenean sehi bat laboratcen edo abre bazcatcen hari dena, hura landatic dathorquenean erran lieçoquena: Çohaz berehala; eman çaite mahaiñean, [8] aitcitic erran ez lioçoquena: Prepara dieçadaçu affaria; guerrica çaçu çure arroba eta cerbitça naçaçu jan eta edan duquedan artean,ondoan çuc janen duçu eta edanen? [9] Esquer içan behar othe dio sehi hari, ceren eguin içan duen manatu ciona? [10] Ez dut uste. Hala çuec ere eguin dituzquetçuenean manatu içan çaizquitçuen guciac, erraçueque: Cerbitçari inutil batçu gare; eguin behar guinduena eguin dugu".

[11] Egun batez Jesus ciohala Jerusalemerat eta iragaten cela Samariaren eta Galilearen erditic, [12] eta sartcerat ciohala herrisca batean, bathu citçaizcon hamar lepratsu, ceiñac urrundic ceudecela, [13] jarri baitcitçaizcon oihugoraz erraten: "Jesus, gure naussia, urrical gaquizquitçu". [14] Eta cituenean icussi, erran çaroen: "Çohazte, eracuts diotçatçue ceben buruac aphecei". Eta ciohacen demboran, sendatuac ediren ciren. [15] Hetaric bat, icussi çuenean garbitu cela, bihurtu içan cen oihugoraz Jaincoa laudatcen çuela. [16] Eta arthiqui cen ahuspez Jesusen oiñetarat esquerrac bihurtcen ciotçala; eta haina cen samaritanoa. [17] Orduan Jesusec erran içan çuen: "Hamar ez dire sendatu direnac? Non dire bada bertce bederatciac? [18] Ez da ediren bihurtu denic eta Jaincoari gloria bihurtu dioenic, campotar hau baicen". [19] Guero erran içan cioen: "Altcha çaite; çohaz; çure fedeac salbatu çaitu".

[20] Egun batez galdeguin içan baitcioten pharisauec noiz ethorrico othe cen Jaincoaren Erresuma, ihardetsi çaroen eta erran: "Ez da Jaincoaren Erresuma ethorrico ostendarequien; [21] eta ez dute erranen: Huna non den edo horra non den; jadanic ecen Jaincoaren Erresuma çuen erdian da". [22] Ondoan erran çaroen

bere dizcipuluei: "Ethorrico da dembora desiratuco duçuena Guiçonaren Semearen egunetaric bat icustea eta ez baiduçue icussico. [23] Orduan erranen darotçuequete: Huna non den edo horra non den; baiñan ez çohaztela harat eta ez çarraiztela hei. [24] Ecen nola chismistac, distiatcen duenean ceruaren azpico baster batetaric, hedatcen baidu bere claritatea behere huntaraiño, hala aguertuco da Guiçonaren Semea bere egunean. [25] Lehenago, ordean, mengoa da hainitz deçan soffri eta içan dadin arbuyatua nacio huntaz. [26] Noeren demboran guerthatu içan cena guerthatuco da Guiçonaren Semearen demboran ere. [27] Jaten çuten eta edaten; hari ciren ezcontcen, eta ezcontçaz ematen Noe arcan sar citequen eguneraiño; orduan ethorri citçayen uholdea eta suntsiaraci cituen guciac. [28] Hala nola oraiño Loten demboran ere guerthatu içan baitcen; hari ciren jaten eta edaten, erosten eta saltcen; hari ciren landatcen eta etche eguiten; [29] ordean Lot Sodomatic ilkhi içan cen egunean, suzco eta suffrezco uri bat erori cen cerutic eta suntsiaraci cituen guciac. [30] Horla guerthatuco da, bada, Guiçonaren Semea aguertuco den egunean ere. [31] Ordu hartan etche gaiñean ditequena eta bere mubleac etchean dituena, ez bedi jauts hequien eramaterat; eta landan ditequena ez bedi bihur guibelat. [32] Orhoit çaitezte Loten emasteaz. [33] Nor ere harico baida bere bicia goardatcerat, eta harc galduco du; eta norc ere galduco baiduque, eta harc du salbatuco. [34] Erraten darotçuet: gau hartan içanen dire bi guiçon ohe batetan; bata içanen da hartua eta bertcea utcia. [35] Bi emastequi harico dire elkharrequien ehotcen; bata içanen da hartua eta bertcea utcia; bi presuna içanen dire landa batetan; bata içanen da hartua eta bertcea utzia". [36] "Non, Jauna, hori?", erran içan cioten hec. [37] Ihardetsi caroen: "Non ere içanen baida gorphutça, eta harat bilduco dire arranoac".

XVIII. Cap.

[1] Iracatsi caroen halaber parabola batez bethi behar dela eguin othoitz, eta ez unhatu eguitetic, [2] ciotsotelaric: "Juye bat cen hiri batean, ceiñec ez baitçuen Jaincoaren beldurric, ez guiçonez antsiaric. [3] Alargun bat cen berriz hiri hartan maiz cebilcona erraten cioelaric: Eguin dieçadaçu justicia ene partidaren contra. [4] Eta egon cen dembora handiaz eguin nahi gabe. Ordean ondoan erran cuen bere baithan: Jaincoaz ez naicen arren beldur, ez guiçonez antsia, [5] hala ere, ceren bethi darraitan alhargun hori, eguiñen diot justicia, beldurrez azquenean ere ethor ez daquidan cembait affruntu eguiterat". [6] Dio bada Jaunac: "Adi çaçue cer dioen juye gaixto harc; [7] Jaincoac ez daroe, bada, justicia eguiñen bere hautatuei egunaz eta gauaz oihuz dagozcolaric; eta luçatcen harico da hequien alderat? [8] Nic darotçuet erraten eguiñen daroela lauster justicia. Ordean Guiçonaren Semea ethorrico denean, uste duçue aurkhituco duen federic lurraren gaiñean?"

[9] Erran çaroen berriz parabola hau bere buruaz fida ciren batcuei, Sainduac içan balire beçala, eta bertceac mespreçatcen cituztenei. [10] "Bi guiçon igan ciren templurat han othoitz eguiterat: bat pharisaua eta bertcea publicanoa. [11] Pharisaua chutic cegoela hari cen bere baithan othoitz hunen eguiten: Ene Jaincoa, esquerrac darozquitçut, ceren ez naicen bertce guiçonac beçalacoa, ceinac baidire ohoiñac, injustuac, adulteroac, eta publicano hori beçalacoa ere. [12] Barurtcen naiz astean bietan, ematen ditut ditudan gucien hamarrenac. [13] Publicanoa berriz urrundic cegoela ez cen atrebitcen ere beguiac cerurat altchatcerat, baiñan bere bulharrac jotcen cituen ciotsalaric: Ene Jaincoa, nauçun urricari ni bekhatorossa. [14] Erraten darotçuet hau justificatua bihurtu [41] etcherat eta ez bertcea, cergatic bere burua goratcen duen gucia beheratua içanen baida, eta bere burua beheratcen duena goratua".

[15] Ekhartcen ere ciotçaten, bada, haur chumeac uqui cetçantçat eta hori icussiric dizcipuluec arbuyatcen cituzten. [16] Jesusec, bada, haur hec erakharriric erran içan çuen: "Utçatçue haurrac ethortcerat ene ganat eta ez detçatçuela debeca, horlacoena da ecen Jaincoaren Erresuma. [17] Eguiaz darotçuet erraten: Norc ere ez baidu errecibituco Jaincoaren Erresuma haur batec beçala, ez da han sarthuco".

[18] Orduan herrico principaletaric batec galde hau eguin içan cioen: "Naussi ona, cer eguinic ardiets deçaquet bicitce eternala?" [19] Jesusec ihardetsi içan cioen, bada: "Cergatic deitcen nauçu ona? Ez da Jaincoa bera bakharra baicen onic.

41. Hor *cela* falta dela esan behar.

[20] Manamenduac badaquizquitçu? Ez duçu hillen, ez duçu adulterioric eguiñen, ez duçu ebatsico, ez duçu faltso testimonioric erranen; ohora çatcitçu çure aita eta ama". [21] Harc ihardetsi cioen: "Horiec guciac beguiratu içan ditut gastetassunetic". [22] Hori adituric Jesusec, erran cioen berriz: "Oraiño gauça bat duçu escas: ditutçun guciac sal çatcitçu eta emotçute pobreei eta içanen duçu thresor bat ceruan; eta guero çato, jarraiq çaquizquit niri". [23] Horiec adituric tristatu cen gucia, ceren haguitz baitcen aberatsa. [24] Icussi çuenean, bada, Jesusec hura hala tristatua, erran içan çuen: "Ala gaitz baida diru haiñitz dutenac sar ditecen Jaincoaren Erresuman! [25] Errechago da ecen camelu bat iragan dadin orhatçaren [42] cilhotic, ecen ez aberats bat sar dadin Jaincoaren Erresuman". [26] Aditcen çutenec erran içan cioten: "Eta beraz,nor salba ahal daiteque? [27] Ihardetsi caroen: "Guiçonentçat impossible direnac possible dire Jaincoarentçat". [28] Erran cioen, bada, Piarressec: "Huna non utci içan ditugun guciac guc eta jarraiqui gaizquitçu". [29] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Erraten darotçuet eguiaz: ez da nihor utci duquenic bere etchea, edo burassoac, edo bere abrideac, edo bere emastea, edo bere haurrac Jaincoaren Erresuma gatic, [30] ceiñec ez baiduque errecibituco haiñitz guehiago dembora huntan eta ethorquissuneco mendean bicitce eternala".

[31] Hartu içan cituen, bada, Jesusec hamabiac eta erran caroen: "Huna non goacen Jerusalemerat, eta profetec Guiçonaren Semeaz escribatu içan dituzten guciac complituco dire. [32] Libratua içanen çaye ecen gentillei, escarniatuco dute, açotatuco dute, thu eguiñen diote bisayarat, [33] eta açotatu duqueten ondoan, hillaracico dute eta hirurgarren egunen biztuco da". [34] Baiñan hec ez çuten deussere comprenitu horietan gucietan; gauça estali bat cen ecen hequientçat solhas hori eta ez çuten comprenitcen cer erraten çaroen.

[35] Guerthatu içan cen, bada, Jerichotic hura hurbill cela, aurkhi cedin itsu bat bide basterrean jarria cegoena, amoina esquez; [36] eta adituric iragaten cen jendetcearen habarrotsa, galdeguin içan çuen cer cen hura. [37] Ihardetsi içan cioten, bada, Jesus Nazarethecoa iragaten cela. [38] Dembora berean jarri cen oihuz erraten çuela: "Jesus, Daviden semea, nauçun urricari". [39] Eta aitciñean cihoacenac mehatchuz cegozcon cegoela ichillic. Harc ordean are oihua gorago eguiten çuen: "Dabiden Semea, nauçun urricari". [40] Orduan Jesus guelditu cen eta manatu çuen erakhar cioçatela eta hurbildu içan cenean galdeguin cioen, [41] eta erran: "Cer nahi duçu eguin dieçadaçudan [43]?". Itsuac ihardetsi içan cioen: "Jauna, icus deçadan". [42] Jesusec erran cioen: "Icussaçu; çure fedeac salbatu çaitu". [43] Eta berehala icussi içan çuen eta jarraiqui citçayoen Jaincoari gloria bihurtcen cioela. Populu guciac ere hori icussi çuenean, laudatu içan çuen Jaincoa.

42. *Orratça*, alegia. Ik. Lk. III, 9; han bezala, *-rr-* > *-rh-*. Aldiz *orratz* idatzi du Mc. X, 25ean.
43. Badirudi *dieçaçudan* behar duela.

XIX. Cap.

[1] Jesus sarthuric Jerichon, hiritic iragaten hari cen. [2] Eta cen han guiçon bat Zacheo erraten ciotena, publicanoen buruçaguia eta choil aberatsa, [3] Jesus icussi nahiz cebillana hea nor othe cen; eta ecin ceçaquen jendetcea cela causa, cergatic hainitz baitcen chume. [4] Aitciñat goanic, bada, lausterrez igan cen sycomoro ondo baten gaiñerat hura icustea gatic, ceren handic behar baitçuen iragan. [5] Ethorri cenean Jesus harat, behatu çuen goiti, eta icussiric hura, erran içan cioen: "Zacheo, lauster eguiçu, jauts çaite ceren gaur çure etchean behar baidut ostatatu". [6] Zacheo jautsi cen berehala, eta errecibitu içan çuen bozcariorequien. [7] Mundu gucia hori icussiric hassi cen erasten, erraten çutelaric ecen guiçon bekhatoros baten ganat goan cela ostatatcerat. [8] Chutic cegoela, bada, Zacheoc erraten dio Jaunari: "Huna, ene ontassunen erdia, Jauna, ematen daroet pobreei; baldin nihori bidegaberic eguin badioquet deusseretan [44], bihurtcen diot halacoric laur". [9] Jesusec erran cioen: "Salbamenduco egun bat da egungo eguna etche hunentçat, ceren hau ere Abrahamen umea baida; [10] ecen Guiçonaren Semea ethorri içan da galdua cenaren bilhatcerat eta salbatcerat".

[11] Hauquien aditcen ceudecela, erran çaroen guehiago parabola hau ere, Jerusalemeco hurbillean baitcen eta uste baitçuten Jaincoaren Erresuma berehala aguertuco cela. [12] Erran çaroen, bada: "Guiçon bat cen ethorqui handitacoa ciohana atce herri urrun batetarat erresuma baten jabe eguiterat, guero bihurtcecotan. [13] Eta erakharriric bere cerbitçarietaric hamar, eman çarozten hamar marcu diru eta erran çaroen: Baliaraci çatçue nathorren artean. [14] Bere herricoec ordean higuin baitçuten, igorri cituzten deputatuac haren ondotic erraterat: Ez dugu nahi hori gure erreguetçat. [15] Bizquitartean bere erresumaz jabe eguin ondoan, bihurtu cen eta erakharri cituen bere cerbitçariac, ceinei eman içan baitçaroen dirua, jaquiteco norc cer irabaci cioen. [16] Ethorri cen, bada, lehenbicicoa ciotsalaric: Jauna, çure marcuac irabaci ditu hamar marcu. [17] Eta harc erran cioen: Ungui da, cerbitçari ona; ceren içan çaren leyal gauça aphurrean, içanen duçu bothere hamar hiriren gaiñean. [18] Ethorri cen bigarrena erraten çuelaric: Jauna, çure marcuac irabaci ditu bortz marcu. [19] Huni erran cioen: Çu ere içan çaite bortz hiriren gaiñean manatçaille. [20] Bertce bat berriz ethorri cen ciotsalaric: Oriçu, Jauna, çure marcua, ceiña iduqui baidut mocanes batetan gordea; [21] Ecen çure beldur içatu naiz, cergatic guiçon çorrotz bat baitçare; galdetcen duçu eman ez duçuna eta

44. Ikus Lk. IV, 26.

biltcen erein ez duçuna. [22] Naussiac ihardetsi içan cioen: Çure ahotic hartcen çaitut, sehi gaixtoa. Baciñaquien guiçon çorrotz bat naicela, galdetcen dudala eman ez dudana eta biltcen erein ez dudana; [23] cergatic, beraz, ez duçu eman ene dirua irabacian, ethortcen nintcenean erretira neçantçat intressequien? [24] Eta erran çaroen han cirenei: Khen dioçoçue marcua eta eman hamar marcuac dituenari. [25] Ihardetsi içan cioten: Jauna, baditu eta hamar marcu. [26] Nic bada,diotsa, darotçuet erraten, duen guciari emanen çayoela eta içanen duela gaindiro; ez duenari ordean idequico [45] çayoela duena ere. [27] Ene etsayez denaz beçambatean, ceiñec ez baitçuten nahi içan nendin hequien erregue, erakharatcitçue hunat eta hill çatcitçue ene biztan".

[28] Horiec erran eta abiatu cen aitciñean Jerusalemeco alderat. [29] Eta hurbildu içan cenean Bethphagerat eta Bethaniarat, Olibetaco deitcen cen mendirat, igorri içan cituen dizcipuluetaric bia, [30] erraten çaroelaric: "Çohazte hor aitciñean den herrisca hortarat; han sartcean aurkhituco duçue astocume bat estecatua, ceiñen gaiñean nihor ez baida igan egundaiño; lecha çaçue eta ekhar dieçadaçue. [31] Eta nihorc galdeguiten badarotçue hea cergatic lechatcen duçuen, ihardetsico dioçue: Ceren Jaunac horren beharra baidu". [32] Goan ciren, bada, igorri içan cituenac eta aurkhitu çuten astocumea harc erran beçala. [33] Lechatcen hari cirela astocumearen, erran içan çaroen haren jabeac: "Cergatic lechatcen duçue astocume hori?" [34] Hec ihardetsi içan çaroen: "Ceren Jaunac hunen beharra baidu". [35] Ekharri cioten, bada, Jesusi eta bere tresnac eçarriric astocumearen gaiñean, iganaraci çuten Jesus haren gaiñerat. [36] Hala ciohala, hedatcen cituzten hec bere tresnac bide gaiñetan. [37] Hurbildu cenean ja Olibetaco mendiaren ondorat, hassi cen haren dizcipulutze gucia bozcarioz Jaincoa laudatcen icussi içan cituzten miracuillu gucien gaiñean, [38] ciotsatelaric: "Benedicatua dela erregue beçala Jaunaren icenean heldu çaicuna. Baquea dela ceruan eta gloria lekhu gorenetan".

[39] Horren gaiñean jendetzearen artean ciren pharisauetaric cembaitec erran içan cioten: "Naussia, ichillaraz çatcitçu çure dizcipuluac". [40] Ihardetsi çaroen harc: "Nic darotçuet erraten, hauc ichiltcen balire ere, harriec berec oihu eguin leçaquetela".

[41] Jerusalemerat hurbildu cenean, icussiric hiria, nigar eguin çuen haren gaiñean ciotsalaric: [42] "Ochala çorionezco egun huntan bederen eçagutu bahitu baquea hiri emateco gai ciren gauçac; baiñan orai estaliac ditun hire beguietaric hauc guciac. [43] Ethorrico çaizquin ecen egun dohacabeac, inguratuco baihaute etsayec trencharez, çarratuco baihaute eta herstuco alde gucietaric. [44] Arrasatuco çaituzte hi eta hire habitantac, eta ez darone utcico harria harriaren gaiñean, ceren ez dunan eçagutu Jaincoac bisitatu hauen dembora".

[45] Eta templuan sarthu cenean, hassi cen khassatcen handic han saltcen eta erosten hari cirenac, [46] erraten çaroelaric ecen: "Escribatua da ene etchea othoi-

45. *Kenduko*, alegia. Ikus Lk. XII. 5.

tcezco etche bat dela eta çuec hartaz eguin duçue ohoin bancu bat". [47] Eta egun guciez iracasten hari cen templuan. Bizquitartean aphecen princeac, escribauac eta populuaren buruçaguiac hura galaraci nahiz cebiltçan. [48] Ez çuten ordean aurkhitcen bideric haren contra deussic eguiteco, populu gucia ecen charmatua cegoen hura mintçatcen aditcean.

XX. Cap.

[1] Egun hetaric batez templuan populuari iracasten hari cela eta Evangelioa predicatcen, bildu içan ciren aphecen princeac eta escribauac cargudunequien batean, [2] eta mintçatu citçaizcon manera huntan: "Erran dieçaguçu: cer authoritatez eguiten ditutçu horiec edo norc eman darotçu çuri authoritate hori?" [3] Ihardetsi çaroen, bada, Jesusec eta erran: "Nic ere çuei galde bat eguiñen darotçuet. Ihardets dieçadaçue: [4] Joannesen bathayoa ceruticacoa cen ala guiçoneticacoa?" [5] Baiñan hec bere baitan arroçoiñatcen çuten eta cioten: "Erraten badugu ceruticacoa cela, erranen darocu: cergatic bada ez duçue hura sinhetsi? [6] Erraten badugu berriz guiçoneticacoa cela, populu guciac harricatuco gaitu, segur daducate ecen Joannes profeta cela". [7] Ihardetsi cioten, bada, ez çaquitela nondicacoa cen. [8] Eta Jesusec erran içan çaroen: "Nic ere ez darotçuet erranen cer authoritatez horiec ditudan eguiten".

[9] Hassi cen, bada, erraten populuari parabola hau: "Guiçon batec çuen landatu mahasti bat eta hura mahastiçain batçuei alocaturic, goan cen bera atce herritarat, ceiñetan egon baitcen dembora lucez. [10] Sassoiñean igorri içan çaroen mahastiçainei bere sehi bat, eman cioçatentçat mahastico fruituetaric; baiñan hec cehaturic igorri çuten. [11] Igorri içan çaroen oraiño bertce sehi bat; baiñan hec hura ere cehaturic eta gaizqui trataturic, igorri çuten hutsic. [12] Hirugarren bat ere oraiño igorri çaroen, baiñan colpatu çuten eta egotci camporat. [13] Erran içan çuen, bada, mahastiaren jabeac: Cer eguiñen dut? Igorrico daroet ene seme maitea; aguian hau icusten dutenean, errespetu içanean dute hunentçat. [14] Baiñan mahastiçaiñec hura icussi çutenean, bere baitan eguin çuten eta erran çaroen elkharri: Hau da primua; hil çagun, ontassuna gure içan dadin. [15] Eta hura arthiquiric mahastiaz camporat, hill içan çuten. Cer eguiñen othe daroe, beraz, hei mahastiaren jabeac? [16] Ethorrico da, galaracico ditu mahastiçain hec, eta emanen daroe mahastia bertce batçuei". Hori aditu çutenec erran cioten: "Jaincoari nahi ez daquioela!". [17] Baiñan Jesusec hei behaturic erran içan çaroen: "Cer da, bada, escribatua den hau: Bastitçailleèc arbuyatu içan duten harria da cantoiñeco horma bethetçat eguin dena; [18] harri haren gaiñerat erorico den gucia çathitua içanen da eta nori ere erorico baitçayo gaiñerat, eta hura chehatuco du?". [19] Aphecen prince eta escribauac aiher ciren orduan bere escuac haren gaiñean eçartcerat; ordean populuaren ciren beldur, eçagutu çuten ecen hequientçat erran içan çuela comparacione hura.

[20] Hala ephaitçan cegozcon hurbilletic eta igorri içan ciotçaten pressuna gueriçatu batçu, aleguia hec justuac, hura cembait hitçetan hea atceman ahal ceçaque-

ten, cargudunen escuetan edo gobernadorearenetan emateco. [21] Hauc eguin içan cioten galde hau: "Naussia, badaquigu ez duçula erraten eta iracasten justu diren [46] gauçaric baicen; ez duçula presunetarat behatcen, bainan eguiaren arauera iracasten duçula Jaincoaren bidea. [22] Cilhegui çaicu tributua pagatcea Caesari ala ez?" [23] Jesusec, bada, icusten baitçuen hequien fiñecia, erran içan çaroen: "Cergatic tentatcen nauçue? [24] Eracuts dieçadaçue diru peça bat. Noren figura ekhartcen du eta icena?". Ihardetsi içan cioten hec: "Caesarena". [25] Orduan harc erran çaroen: "Bihur diotçotcue, beraz, Caesaren direnac Caesari, eta Jaincoaren direnac Jaincoari". [26] Ecin atceman çuten harc erran çuenaren gaiñean populuari erratecoric, eta miretsiac haren errepustaz, ichildu içan ciren.

[27] Ethorri içan citçaizcon guero sadducearretaric cembait, ceiñec ez baidaducate erresurrectioneric badela, eta eguin içan cioten galde hau: [28] "Naussia", diotsate, "Moisec utci içan darocu escribuz, baldinetaria norbaiten anaya ezcondua citequena heldu bada hiltcerat haurric gabe, har deçala anayac haren emastea eta eguin dioçala leiñu bere anaya cenari. [29] Ciren, bada, çazpi anaya eta lehenbicicoa ezcondu cen emaste batequien eta hiltcen [47] haurric gabe. [30] Bigarrena ezcondu cen emaste berarequien eta hiltcen hura ere haurric gabe. [31] Hirurgarrena ere ezcondu cen harequien eta orobat çazpiac ere eta guciac hill içan ciren haurric içan gabe. [32] Hec gucien ondoan hiltcen emaste hura ere. [33] Erresurrectioneco demboran, bada, hetaric ceiñen emaste içanen da haiña hura? Ecen çazpiac ezconduac içan dire harequien". [34] Jesusec ihardetsi çaroen: "Mundu huntaco umeac ezcontcen dire eta ematen ezcontçaz; [35] baiñan bertce mundu hartaco eta erresurrectioneco gai edirenen direnez beçanbatean, ez da içanen ezcontçaric hequientçat, [36] ecen guehiago ecin hillen dire, aingueruen pare baiditezque eta Jaincoaren ume, erresurreccioneco ume diren pontutic. [37] Hillac biztuco direla, bada, Moisec berac ere eracutsi içan du berro ondoan deithu içan duenean Jauna Abrahamen Jaincoa, Isaac-en Jaincoa eta Jacob-en Jaincoa. [38] Bada Jaincoa ez da hillen Jaincoa, baiñan bai biciena, guciac bici baitçaizco hari".

[39] Harturic, bada, hitça escribauetaric cembaitec erran içan cioen: "Naussia, ungui erran duçu". [40] Eta orduz gueroztic ez ciren guehiago atrebitcen deusseren gaiñean galderic hari eguiterat. [41] Baiñan berac erran içan çaroen: "Nola erraten dute Christo Daviden Semea dela, [42] halaz eta [48] Davidec beraz erraten duenaz gueroz psalmoen liburuan: "Erran içan dio Jaunac ene Jaunari: Jar çaite ene escuineco aldean, [43] eçar detçaquedan artean çure etsayac çure oiñetaco alkhitçat? [44] Davidec beraz deithcen du bere Jauna; eta nola içan daiteque haren semea?"

[45] Ondoan populu guciac aditcen çuela, erran içan çaroen bere dizcipuluei: [46] "Beguira çaitezte escribauetaric, ceiñec lakhet baidute arropa luceèquien ibil-

46. Hala dio, ez *den*.

47. *Hil cen*, alegia. Orobat hurrengo bertsoan eta bi beherago. Ik. Lk. XVI, 22.

48. *Halaz eta...* + *az gueroz*: zergatikoa. Ik. Lk. XI, 48. Horko eta beheraxeagoko (44) *beraz* horiek agian *berac* behar lukete izan.

tcea eta plaça publicoetan agurrac errecibitcea, sinagoguetan lehenbicico cadirac eta banquetetan lehenbicico plaçac içatea; [47] ceiñec iresten baidituzte alhargunen etcheac othoitz luceac eguiten dituztelaco itchuran; hec condenacione garratçago bat errecibituco bide dute".

XXI. Cap.

[1] Beha cegocoten, bada, Jesus egun batez bere offrendac templuco thresorean ematen cituzten aberatsei [2] eta icussi içan çuen alhargun pobretto bat ere bi moneda peçatcho ematen cituena. [3] Eta erran çuen: "Eguiaz darotçuet erraten alhargun pobre hunec guehiago eman içan duela bertce guciec baiño, [4] ecen horiec guciec franquiaz dutenetic eman içan diote Jaincoari; ordean hunec bere pobreciatic doi-doya bicitceco çuen gucia eman içan du".

[5] Eta cembaitec erraten baitcioten templuaz, harri ederrez eguiña cela eta emaitça ederrez aberatstua, ihardetsi içan çaroen: [6] "Ethorrico da dembora bat icusten ditutçuen horietaric gucietaric ez baida guelldituco harria harriaren gaiñean, non ez den desseguiñen".

[7] Galdeguin içan cioten, bada, eta erran: "Naussia, noiz hori guerthatuco da eta cer seiñale içanen da horiec complitcen hassico direnecoa?" [8] Erran çaroen Jesusec: "Beguirautçue enganatuac içan ez çaitezten; ethorrico dire ecen hainitz ene icenean erranen dutenac "ni naicela", eta "dembora hurbill da"; ez çohaztela, bada, hequien ondotic. [9] Adituco duçuenean, bada, mintçatcen guerlaz eta alboratamenduz, ez çaiteztela espanti; horiec lehenic arribatu beharrac dire, ordean akhabantça ez da oraiño hain laster içanen". [10] Orduan ciotsoten: "Altchatuco da populua populuaren contra eta erresuma erresumaren contra. [11] Içanen dire alde gucietan lur ikharatce handiac, içurritceac eta gosseteac; eta aguertuco dire cerutic gauça ikharagarri batçu eta seiñale handi batçu.

[12] Baiñan horiec guciac baiño lehenago emanen darozquitçue escuac gaiñean eta persecutatuco çaituzte sinagoguetarat eramaten çaituztela erregueen eta gobernadoreèn aitciñerat ene icena dela causa. [13] Eta hori guerthatuco çaitçue lekhucotçat çaiquidatentçat[49]. [14] Har çaçue, bada, ungui çuen gogoan aitcinetic ez pensatcea nola beharco duqueçuen ihardetsi; [15] nic emanen darotçuet ecen minço bat eta çuhurtcia bat, ceinei ecin buru eguinen baidiote eta ez contrestatuco çuen etsay guciec ere. [16] Tradituac içanen ere çarete ceuben burassoez, ceuben abrideèz, ceben ahaidez, ceben adisquideez; çuetaric haiñitz hillaracico ere dituzte. [17] Eta mundu guciaz gaitzetsiac içanen çarete ene icenaren ariaz. [18] Eta hala ere çuen buruco ille izpi bat ez da galduco. [19] Çuen passientciaz çuen arimen jabe içanen çarete.

49. Ez ote du *çaizqui-* behar?

[20] Icussico duçuenean, bada, Jerusalem armada batec inguratcen duela, jaquin çaçue hurbill ditequela haren desolacionea. [21] Orduan Judean direnec ihes eguin beçate mendietarat eta herriaren erdian direnac biohaz [50] urrun eta ingurutaco herritan direnac ez daitecela han sar; [22] ceren mendecuzco egunac baiditezque orduan, complituac içan daitecentçat escribatuac içan ohi diren guciac. [23] Çorigaitz ordean içorra edo unhide guerthatuco ditezquenentçat egun hetan, ecen herstura handian içanen da herri gucia eta colera da erorico populu hunen gaiñerat. [24] Iraganen dituzte ezpataren ahotic eta eramanen dituzte esclabo nacione gucietarat eta Jerusalem osticatua içanen da gentillez, compli daitezquen artean nacioneèn demborac.

[25] Orduan içanen dire seiñaleac iguzquian, ilharguian eta içarretan, eta lurraren populu guciac içanen dire hertsturan, itsassoaren eta uhiñen orroac [51] emanen duten altaramenduan. [26] Hartaraiño bai, non ihartuco ere baidire guiçonac icialduraz eta mundu guciari ethorri beharco çaizcon gaitzen iguripenez [52], ecen ceruco birthuteac iharrosico dire. [27] Orduan dute icussico Guiçonaren Semea ethortcen hedoy baten gaiñean bothere handi batequien eta majestate handi batean. [28] Gauça horiec hasten direnean bada heltcen, idec çatcitçue beguiac eta altcha buruac, cergatic hurbill baiditeque çuen erresquetamendua".

[29] Ekharri ere çaroen comparacione hauche: "Icussaçue fico ondoa eta bai arbola guciac; [30] ja fruitua camporatcen hasten denean, eçagutcen duçue uda hurbill dela. [31] Hala çuec ere icusten dituzquetçuenean gauça horiec guerthatcen, jaquiçue hurbill ditequela Jaincoaren Erresuma. [32] Erraten darotçuet eguiaz ez dela iraganen jenderacione hau, non ez diren guciac complitcen. [33] Cerua eta lurra iraganen dire; ene hitçac ordean ez dire iraganen.

[34] Goardia iducaçue, bada, ceuben gaiñean, pissa ez ditecen çuen bihotçac jan eta edan sobraz eta bicitce huntaco griñez eta uste gabean ethor ez daquiçuen egun hura. [35] Ecen sare batec beçala ditu atcemanen lurraren gaiñean ditezquen guciac. [36] Çaudete, beraz, atçarriac dembora guciez othoitz eguiten duçuela, mereci deçaçuentçat guerthatuco diren gaitz horiei guciei itçurcea eta Guiçonaren Semearen aitciñean aguertcea".

[37] Hari cen, bada, egunaz iracasten templuan; gauez ordean ilkhitcen cen Olibetaco çaritçan mendian egoterat. [38] Eta populu gucia goiz goicetic heldu citçayon templuan hura aditcerat.

50. Hots, *bihoaz*.
51. *Orroec* behar luke izan.
52. Ez *iduri-*. Biak, *d* eta *g* daude elkarren gainean ezarriak. Vulgatak "expectatione".

XXII. Cap.

[1] Hurbil cen, bada, lemami gabeco oguien besta, ceiñi erraten baidiote Bazco. [2] Eta cebiltçan aphecen princeac eta escribauac nola Jesus hillaraz othe ceçaqueten; beldur ciren ordean populuaren.

[3] Sarthu içen cen, bada, Satana Judassen baithan, ceiñac baitçuen icengoitia Iscariotes eta ceiñ baitcen hamabietaric bat. [4] Goan cen eta mintçatu cen aphecen printceèquien eta cargudunequien, nola cioqueten libratuco hura. [5] Hec atseguin hartu çuten eta accordatu ciren diru suma batez hari ematecotçat. [6] Harc ere aguindu çaroen eta attiçaren bilha cebilllan jendeèc habarrotsic eguin gabe hura hei libratceco.

[7] Ethorri cen, bada, lemami gabeco oguien eguna, ceiñetan behar baitcen Bazcoa immolatu. [8] Jesusec igorri içan cituen Piarres eta Joannes erraten caroelaric: "Çohazte, prepara dieçaguçue Bazcoa jan deçagun". [9] Erran içan cioten hec: "Non nahi duçu prepara deçagun?". [10] Eta harc ihardetsi çaroen: "Oriçue; hirian sarthu eta bathuco çaitçue guiçon bat pegar bat ur daramala; jarraiq çaquizcote hari sartcen ditequen etcherat; [11] eta erranen dioçue etche haren jabeari: Naussiac gastiatcen darotçu: non da neure dizcipuluequien Bazco janen dudan lekhua? [12] Eta harc eracutsico darotçue sala handi bat mublatua; hanche prepara dieçaguçue behar dena". [13] Goan ciren, bada, eta aurkhitu çuten harc erran beçala eta preparatu çuten Bazcoco behar cena. [14] Eta ethorri cenean muga, jarri cen mahaiñean eta jarri ciren harequien hamabi Apostoluac. [15] Erran çaroen ere: "Desira handi bat nuen Bazco hau jateco çuequien, sofri deçaquedan baiño lehen; [16] erraten darotçuet ecen gaur guehiago ez dudala Bazcoric janen, compli dadiquen artean Jaincoaren Erresuman".

[17] Eta harturic calixa, esquerrac errendatu içan çituen eta erran çaroen: "Har çaçue eta parti çaçue çuen artean. [18] Erraten darotçuet ecen, ez dudala edanen mahats arnoric Jaincoaren Erresuma ethor daitequen arteraiño". [19] Guero harturic oguia esquerrac errendatu cituen, hautsi çuen eta eman çaroen erraten çuelaric: "Hau da ene gorphutça çuentçat ematen dena; hau eguiçueque ene orhoitçapenetan". [20] Hala hala hartu çuen calixa ere affaldu ondoan, erraten çuelaric: "Hau da calixa, ene odolaren testament berria, çuentçat issuria içaterat dohanarena [53].

[21] Bizquitartean horra non ematen duen ni trahitcen nauenac enequien escua platean. [22] Alabaiñan Guiçonaren Semea badoha, exleyitua içan den beçala; bai-

53. Hala dioela dirudi.

ñan çorigaitz guiçon haiñarentçat, ceiñetaz içanen baida trahitua". [23] Eta hec hassi ciren elkharri galdeguiten cein othe cen hetaric hori eguiñen çuquena.

[24] Altchatu ere cen liscar bat hequien artean hetaric cein othe cen handiena. [25] Erran çaroen, bada, Jesusec: "Nacionetaco erregueèc manatcen dute naussi beçala eta hequien gaiñean autoritate dutenec ungui eguilleèn icena hartcen dute. [26] Çuen artean ordean ez da hala içanen; aitcitic çuetan den handiena eguin bedi mendreènea [54] beçala eta aitcindari dena cerbitçatcen hari dena beçala; [27] ecen cein da handiago? Mahaiñean jarria dagoena ala cerbitçatcen hari dena? Mahaiñean jarria dagoena ez othe? Eta ni bizquitartean naiz çuen artean cerbitçatcen hari dena beçala. [28] Çuec çarete, bada, enequien iraun duçuenac ene atsecabeetan. [29] Halaber nic ere preparatcen darotçuet Erresuma, Aitac niri preparatu içan darotan beçala, [30] jan eta edan deçaçuentçat ene mahaiñean ene Erresuman eta jar çaiteztentçat thronu gaiñean Israelgo hamabi leinuac jugeatceco".

[31] Ondoan Jaunac erran içan çuen: "Simon, Simon! Satanac galdetu içan çaitu baheatcecotçat oguia baheaz beçala; [32] ordean nic othoitz eguin dut çuretçat falta ez dadin çure fedea. Çuc ere conbertituco çarenean, noizbeit borthitz çatcitçu çure anayac". [33] Piarresec ihardetsi içan cioen: "Jauna, prest naiz çurequien goaterat bai presondeguirat eta bai heriotcerat ere". [34] Baiñan Jesusec erran cioen: "Erraten darotçut, Piarres; ez du gaur jonen [55] oillarrac, non ez duçun hirur aldiz ukhatuco eçagutcen nauçula". Guero berriz erran çaroen: [35] "Igorri içan çaituzdanean [56] çakhuric gabe, moltsaric gabe, oiñetacoric gabe, escastu çaitçueque deussic?". [36] "Deussic ere", ihardetsi cioten hec. Erran çaroen, bada, Jesusec: "Ordean orai çakhu bat duenac har beça hura, bai halaber moltsa ere; eta ez duenac sal beça bere arroba eta eros ezpata bat; [37] erraten darotçuet ecen, oraiño complitua behar dela içan ene baitan escribatua içan den hau ere: Gaixtaguiñen nombrean condatua içan da, ecen nitazco gauçac akhabatcerat dohaz". [38] Ihardetsi içan cioten hec: "Jauna, huna hemen bi ezpata". Jesusec erran çaroen: "Asco da".

[39] Guero ilkhiric abiatu cen, ohi beçala, Olibetaco mendirat eta jarraiqui citçaizcon dizcipuluac ere. [40] Heldu cirenean lekhu hartarat, erran çaroen: "Eguiçue othoitz, sar ez çaiteztentçat tentacionean". [41] Eta urrunduric hetaric harri arthiqui bat dohacoraiñocoan, jarri cen belhaunico othoitz eguiten, [42] erraten çuela: "Aita, baldin nahi baduçu, aldara çaçu calix hau ene ganic; halarican ere ez bedi eguin ene nahia, baiñan bai çurea". [43] Orduan aguertu içan citçayon aingueru bat cerutic borthizten çuena eta hagonian jarriric othoitcez cirauen gueroago eta guehiago. [44] Eta ethorri citçayon icerdi bat odol çortac çarizcola lurreraiño. [45] Altchaturic bere othoitça eguin cuenean, ethorri içan cen bere dizcipuluetarat eta aurkhitu cituen tristez lohakhartuac [57]. [46] Eta erran çaroen: "Cergatic çaudete lo? Altcha çaitezte eta eguiçue othoitz sar ez çaiteztentçat tentacionean".

54. Hala dio; *mendreèna* behar zuen noski.
55. Hala dio, ene ustez: ik. Mc. XIV, 72.
56. *Çaituztedanean* behar luke noski.
57. Ikus Lk. VIII, 23.

47 Oraiño mintço cela, huna jende tropela bat; eta hamabietaric bat, Judas erraten ciotena, çuten aitcindari, ceiña hurbildu baitcitçayon Jesusi mussu emateraat. 48 Jesusec erran cioen: "Judas, mussuaz traditcen duçu Guiçonaren Semea?". 49 Icussiric, bada, haren aldean cirenec cer arribatcerat ciohan, erran cioten: "Jauna, jonen [58] othe ditugu ezpataz?". 50 Eta jo çuen hetaric batec aphecen princearen muthilla eta ebaqui cioen escuiñeco beharria. 51 Baiñan Jesusec hitça harturic erran çaroen: "Çaudete gueldiric". Eta uquituric haren beharria sendatu çuen. 52 Erran çaroen, bada, Jesusec haren ganat ethorri ciren aphez principalei, templuco cargudunei eta populuco çaharrei: "Ohoin baten ganat beçala ethorri içan çarete ezpatequien eta makhillequien. 53 Egun guciez çuequien nintcelaric templuan, ez darotaçue escua eman gaiñean; baiñan hau da çuen orena eta ilhunbeèn botherea".

54 Harturic dembora berean, eraman çuten aphez handiaren etcherat; eta Piarres jarraiqui citçayon urrundic. 55 Biztu çutenean, bada, sua sotoan, jarri ciren haren ingurutan eta Piarres ere hequien artean. 56 Hura icussi çuenean nescato batec jarria suaren aitcinean eta ungui behatu cioenean, erran çuen: "Hau ere harequien cen". 57 Baiñan harc ukhatu çuen Jesusez, erraten çuelaric: "Emastequia, ez diñat eçagutcen ere". 58 Aphur baten buruan bertce norbaitec icussiric, erran içan cioen: "Çu ere hetaric çare". Piarresec berriz erran cioen: "Guiçona, ez nauc hetaric". 59 Handic oren baten buruan edo, bertce batec berriz seguratuqui erran çuen: "Eguiazqui hau ere harequien cen; ecen Galilearra ere da". 60 "Guiçona", diotsa Piarresec, "ez çaquiat cer erraten duan". Eta orduan berean oraiño hura mintço cela, jo çuen oillarrac. 61 Eta itçuliric behatu içan cioen Jaunac Piarresi. Orduan orhoitu cen Piarres Jaunaren hitçaz, nola erran içan cioen: Oillarrac jonen [59] duen baiño lehen, hiruretan ukhatuco duçu nitaz. 62 Eta camporat ilkhiric, jarri cen nigar miñetan.

63 Bizquitartean Jesus çaducaten guiçonac trufatcen ciren hartaz cehatcen çutelaric. 64 Beguiac estali ciotçaten eta bisayan colpeac ematen ciotçatela erraten cioten: "Pentsa çac norc jo hauen". 65 Eta bertce hainitz injurio eta blasphemio erraten cioten.

66 Arguitu cenean, bildu ciren populuco çaharrac, aphecen princeac eta escribauac, eta erakharriric Jesus bere batçarrerat erran içan cioten: "Baldin çu baçare Christo, erraguçu". 67 Ihardetsi çaroen: "Erraten badarotçuet, ez nauçue sinhetsico; 68 nic berriz çuei cembait galde eguiten badarotçuet, ez darotaçue ihardetsico, hain guti nauçue utcico goaterat. 69 Hemendic harat, bada, Guiçonaren Semea jarria içanen da Jainco guciz botheretsuaren escuineco aldean". 70 Orduan guciec erran cioten: "Çu çare, beraz, Jaincoaren Semea?". Ihardetsi içan çaroen: "Eguia dioçue ni naicela". 71 Horren gaiñean erran çuten hec: "Certaco behar dugu guehiagoco lekhucoric, gueronec aditu diogunaz gueroz bere aho propiotic erraten?".

58. Ikus arestian, Lk. XXII, 34. Hemen ere *jonen* dio garbi-garbi.
59. Ikus lehenxeagoko biak: Lk. XXII, 34 eta 49.

XXIII. Cap.

[1] Han bilduac ciren guciac altchaturic eraman çuten Pilatussen ganat. [2] Eta hassi ciren haren accusatcen erraten çutela ecen: "Guiçon hau aurkhitu dugu gure nacionea gaixtatcen duela, eta debecatcen tributua Caesari pagatcetic, eta dioela bera dela Christo erreguea". [3] Pilatussec, bada, galdeguin cioen eta erran: "Çu çare juduen erreguea?". Jesusec ihardetsi içan cioen: "Çuc dioçu". [4] Erran çaroen bada Pilatussec aphecen princeei eta populuari: "Ez dut nic aurkhitcen guiçon hunen baitan condenatceco sujetic batere". [5] Baiñan hec lehiatcen citçaizcon erraten ciotelaric: "Alboratatcen du populua, iracasten hari dela Judea gucian, hassi Galileatic eta huneraiño". [6] Pilatussec adituric aiphatcen Galilea, galdeguin içan çuen hea Galilearra cen Jesus. [7] Eta jaquin çuenean Herodessen iurisdiccionecoa cela, igorri içan çuen Herodessen ganat, ceiña halaber baitcen Jerusalemen egun hetan.

[8] Herodessec atseguin handi bat hartu çuen Jesusen icusteaz, ecen aspalditic hura icussi nahia[60] cen, ceren hainitz gauça aditu baitcituen hartaz erraten eta esperantça baitçuen icussico cioela[61] cembait miracuillu eguiten. [9] Galdeguin ciotçan, bada, hainitz gauça; baiñan Jesusec ez cioen deussere ihardetsi. [10] Bizquitartean aphecen princeac eta escribauac han ceudecen muthiriqui hura accusatcen çutela. [11] Baiñan Herodessec bere gortheco jendeequien batean mespreçatu içan çuen eta trufaturic hartaz, bestiaraci çuen arroba churi batez eta igorri Pilatussen ganat. [12] Eta egun hartan berean adisquidetu ciren Herodes eta Pilatus, ecen aitciñago etsai ciren.

[13] Pilatussec, bada, erakharriric aphecen princeac, cargudunac eta populua, [14] erran içan çaroen: "Presentatu darotaçue guiçon hau populuaren nahastçaille bat beçala, eta huna nic çuen aitciñean interrogatu ondoan, ez dut aurkhitcen guiçon hunen baitan hobenic batere çuec accusatcen duçuenetaric; [15] ez eta Herodesec ere, ecen igorri içan çaituztet haren ganat eta heriotcea mereci duelaco deussic ez çayo eguin içan. [16] Gastigatu eta, beraz, utcico duquet".

[17] Behar çaroen ecen utci besta egun hartan presonyer bat. [18] Jarri ciren, bada, oihuz betbetan jendetze gucia ciotsatelaric: "Khen dieçaguçu hori, eta utz dieçaguçu Barrabas". [19] Hau cen presondeguian eçarria hirian altcharaci içan çuen

60. Ikus Lk. VIII, 20.

61. Halaxe dio dudarik gabe: ik. ere Jo. V, 19; Lk. VI, 38. Hemen Leizarragak honela dio: "eta sperança çuen cembeit signo ikussiren çuela harçaz eguiten".

sedicione batengatic eta eguin içan çuen heriotce batengatic. [20] Berriz ere mintçatu citçayen Pilatus, nahiz libratu Jesus, [21] baiñan hec heyagoraz jarri ciren erraten çutela: "Gurutcefica çaçu, gurutcefica çaçu hori". [22] Harc berriz erran çaroen hirurgarren aldian: "Cer gaixqui eguin du, bada, hunec? Nic ez dut deussere aurkhitcen hunen baitan heriotcea mereci duenic; corregitu [62] dut, beraz, eta utcico guero". [23] Baiñan hec lehiatcen citçaizcon oihu goraz galdetcen ciotela gurutcefica cedin Jesus; eta gueroago eta oihua gorago çaramaten.

[24] Orduan Pilatussec ordenatu içan çuen eguin cedilla hec galdetcen çutena. [25] Libratu içan çaroen, bada, heriotcea gatic eta alboratamendua gatic presondeguian emana içan cena, ceina galdetcen baitçuten, eta eman çaroen Jesus, nahi çutena hartaz eguin ceçatela. [26] Hura çaramatela, hartu çuten Simon çaitçan [63] bat Cyrenacoa landetaric heldu cena, eta eman cioten gurutcea sorbalden gaiñerat Jesusen guibeletic ekhartceco.

[27] Eta çarrayon ondotic jendetze handi bat populuz eta emastequiz, auhenez eta nigarrez çagozconac. [28] Itçuliric, bada, hetarat erran içan çaroen Jesusec: "Jerusalemeco nescatchac, ez çaçuela eguin nigarric ene gaiñean; aitcitic cebonen gaiñean eguiçue nigar eta ceben umeèn gaiñean. [29] Ecen horra non heldu den dembora, ceiñetan erranen baidute: Dohatsuac emaste agorrac eta haurric ekharri ez duten sabelac eta haci ez duten bulharrac. [30] Orduan dire hassico erraten mendiei: Eror çaitezte gure gaiñerat; eta larrainei: Estal gaitçatçue; [31] ecen baldinetariac egur heceari hau eguiten badiote, cer ez çayo eguinen iharrari?".

[32] Baçaramatçaten, bada, bertce bi guiçon gaixtaguin harequien batean hillarazterat. [33] Eta ethorri içan cirenean Calvara erraten cioten lekhurat, gurutcefícatu çuten han Jesus bi ohoin hequiequien, bata escuiñetic eta bertcea ezquerretic cituela. [34] Eta Jesusec erraten çuen: "Aita, barkha dioçoçute, ez daquite ecen cer hari diren". Guero partitu içan cituzten haren bestimendac eta eman çortherat.

[35] Populua han cegoen beha; eta trufaz cegozcon cargudunac populuarequien batean ciotsatelaric: "Bertceac ditu salbatu; bere burua ere salba beça orai, baldin hori bada Christo Jaincoaren berecia". [36] Soldaduac ere trufaz cegozcon hurbillerat ethorriric, eta presentatcen cioten minagrea, [37] erraten ciotelaric: "Baldin çu baçare Juduen erreguea, salba çaçu ceure burua". [38] Cen, bada, escribatua haren buruco gainaldean grequez, latinez eta erdaraz: Hau da Juduen Erreguea.

[39] Gurutcefícatuac ciren ohoiñetaric bat berriz blasphemioz cegoen haren contra erraten çuelaric: "Baldin çu baçare Christo, salba çaçu ceure burua, eta salba gaitçatçu gu ere". [40] Baiñan bertceac ihardesten cioelaric, erreportchu eguiten cioen eta erraten: "Ez çare Jaincoaren beldur, çu ere suplicio berean baitçaude condenatua? [41] Oraiño guri justuqui eguin darocute, merecitu içan duguna baidugu pairatcen; horrec ordean deussere ez du eguin gaixquiric". [42] Guero Jesusi erraten cioen: "Jauna, orhoit çaite nitaz çure erresuman sarthu çaitezquenean".

62. *Corregituco* izan behar zuen.
63. Hemen eta beste batzuetan *çaritçan* horrela ageri da.

[43] Ihardetsi cioen Jesusec: "Erraten darotçut eguiaz: gaur enequien içanen çare parabisuan".

[44] Cen, bada, egunaren seigarren orena beçala eta ilhunbe handi batçu eguin içan ciren lur guciaren gaiñean bederatcigarren orenerainocoan. [45] Iguzquia goibeldu içan cen eta templuco bela çathitu erditic. [46] Eta oihu handi bat eguinic Jesusec erran içan çuen: "Aita, çure escuetarat ematen dut ene izpiritua". Eta hori erratearequien hill içan cen.

[47] Icussiric, bada, centeneroac cer iragan içan cen, Jaincoari gloria errendatu cioen ciotsalaric: "Eguiazqui guiçon hau justua cen". [48] Icuscari horri beha egon ciren jendetze guciac eta cer arribatu içan cen consideratcen çutenac, bere bulharrei[64] joca hari cirela ciohacen handic. [49] Jesusen eçagun guciac berriz ceudecen urrundic, bai eta Galileatic jarraiqui citçaizcon emastequiac ere, beha çeudecela cer iragaten cen.

[50] Eta huna guiçon bat Joseph ceritçana, carguduna, guiçon prestua eta justua, [51] juduen desseinuan ez eguincarian parteric ez çuena, Judeaco hiri Arimathea ceritçanecoa eta ceiña baitcegoen halaber Jaincoaren Erresumaren beguira. [52] Ethorri cen hau Pilatussen ganat eta escatu cioen Jesusen gorphutça. [53] Erautsiric estali çuen mihisse batez eta eman thomba batetan, cein baitcen arroca cilhaturic eguina, eta ceiñetan ez baitcen oraiño nihor eman içatu.

[54] Egun hura cen sabbatoaren bezpera eta sabbato eguna hasterat ciohan. [55] Jesusequien Galileatic ethorriac ciren emastequiac goan baitciren ondotic, icussi çuten thomba eta nola cen Jesusen gorphutça han emana. [56] Eta bihurturic preparatu içan cituzten urrin onac eta unguentuac; eta sabbato egunean egon ciren gueldiric leguearen arauera.

64. *Bulharrei joca*: hala dio, ez *bulharrac*; baina eskuizkribuan garbi ageri da *eman* idatzirik bi hitz horien artean eta ezabaturik.

XXIV. Cap.

[1] Astearen lehenbicico egunean, bada, goiz goicetic goan ciren emastequi hec berequien çakharzquetela tombarat preparatu içan cituzten urrin onac. [2] Eta aurkhitu içan çuten harria thombatic aldaratua. [3] Sarthu ciren barnat eta ez çuten han aurkhitu Jesus Jaunaren gorphutça. [4] Hortaz harrituac ceudecela, betbetan bi guiçon aguertu ciren hequien aldean arroba distiant batçuequien, [5] eta nola icitu baitciren eta beguiac beheititu baitcituzten, erran içan çaroten: "Cergatic bilhatcen duçue hillen artean bicia dena? [6] Ez da hemen, baiñan biztu da. Orhoit çaitezte nola mintçatu içan çaitçuen oraiño Galilean cenean, [7] erraten baitçarotçuen Guiçonaren Semeac libratua behar çuela içan guiçon bekhatorosen escuetarat, içan behar çuela gurutceficatua eta phiztu behar çuela hirurgarren egunean". [8] Orhoitu ciren berehala haren erranez.

[9] Eta thombatic bihurturic, condatu çarozten hauc guciac hameca Apostoluei eta bertce guciei. [10] Ciren, bada, Maria Magdalena, Joanna eta Maria Jacoberena eta hequien bertce lagunac, gauça hauc Apostoluei erraten ciotçatenac. [11] Baiñan hei eldarnio bat beçala iduritcen citçaizten erran horiec eta ez cituzten sinhetsi. [12] Piarres, bada, altchaturic goan cen lausterrez thombarat eta beheytituric, behatu ondoan ez cituen icussi mihisseac baicen beregain eçarriac, eta bihurtu içan cen bere baitan miretsia guerthatu içan cenaz.

[13] Egun berean hetaric bia ciohacen herri batetarat, ceina baitcen Jerusalemetic hirur hogoi stadioren distantcian Emmauz ceritçana. [14] Mintço ciren elkharren artean iragan içan ciren guciez. [15] Eta elkharrequien solhassez eta arroçoinamenduz ceudecela, Jesus bera juntatu cen hequiequien bide beraz ciohala. [16] Hequien beguiac ordean çarratuac beçala ciren halaco maneraz, non ez baitçuten eçagutcen. [17] Eta erran içan çaroen: "Cer solhas darabiltçatçue hor elkharren artean bidean goatean, eta cer duçue, horren triste baitçarete?". [18] Hitça harturic hetaric batec Cleophas ceritçanac erran cioen: "Çu çare bakharra Jerusalemen hain arrotz çarena, non ez baidaquizquitçu han egun hautan arribatu diren gauçac?". [19] Erran çaroen harc: "Cer gauça?". Hec berriz ihardetsi içan cioten: "Jesus Nazarethacoaren sujetean iragan direnac, cein baitcen profeta bat obretan eta hitcetan botheretsua Jaincoaren eta populu guciaren aitciñean. [20] Nola libratu içan duten aphecen princeèc eta gure cargudunec heriotcerat condenatua içateco, eta nola gurutceficatu içan duten. [21] Guc, bada, esparantça guinduen hura içanen cela Israel erresquetatuco çuena; eta horiec guciequien ere, ja egun hirurgarren eguna doha gauça horiec iragan direla. [22] Eguia da, guretaricaco emastequi batçuc espantatu ere gaituzte, ecen içan dire arguitu baiño lehen thombarat [23] eta, ez baidute

han aurkhitu haren gorphutça, ethorri çaizquigu erraterat icussi ere içan dituztela aingueru batçu, ceiñec erran baidaroe bici dela. [24] Gure artecoetaric cembait goan içan dire thombarat eta aurkhitu dituzte gauçac emasteec erran beçala, bainan bera ez dute aurkhitu".

[25] Jesusec orduan erran içan çaroen: "O adimendu gabeac eta profetec erran içan dituzten gauça gucien sinhesterat bihotz herabe çaretenac! [26] Halabeharra ez cen Christoc soffri cetçan horiec eta horla sar cedin bere glorian?". [27] Eta hassi Moise ganic eta profeta gucietaric, explicatu çarozten Escritura gucietan hartaz erranac içan cirenac. [28] Hurbill içan cirenean ciohacen herritic, eguin çuen iduri hura urrunago goaqui.

[29] Baiñan guelditu çuten bortchaz beçala erraten ciotelaric: "Çaude gurequien, cergatic berandua baida eta ja eguna beheratua". Eta sarthu içan cen hequiequien. [30] Hequiequien mahaiñean cegoela, hartu içan çuen oguia, benedicatu çuen eta hautsiric eman çaroen. [31] Dembora berean idequi ciren hequien beguiac eta eçagutu içan çuten; bainan hura goan citçayen beguietaric. [32] Orduan erran içan cioten elkharri: "Gure bihotça ez cen gucia iraçaquia gure barnean, hura bidean mintço citçaicunean eta Escriturac explicatcen çarozquigunean?". [33] Altchaturic, bada, orduan berean bihurtu ciren Jerusalemerat; eta aurkhitu cituzten hameca Apostoluac eta hequiequien çaducatenac elkharganat bilduac, [34] ceiñec baitcioten: "Jauna phiztu da eguiazqui eta aguertu ere çayo Simoni". [35] Hec ere bere aldetic condatu içan çuten cer bidean guerthatu citçayen eta nola çuten eçagutu oguiaren haustean.

[36] Horla mintço cirela presententatu [65] cen Jesus hequien erdian eta erran çaroen: "Baquea dela çuequien; ni naiz; ez çaiteztela ici". [37] Baiñan hec guciac altaratuac eta ikharatuac imaginatcen ciren izpiritu bat çutela icusten, [38] eta erran çaroen Jesusec: "Cergatic altaratcen çarete, eta cergatic heldu çaizquitçue horrenbat gogoeta bihotcetarat? [39] Icussatcitçue ene escuac eta ene oinac, ni eta bera naicela. Uqui naçaçue eta mira. Izpiritu batec ez du ez haraguiric ez heçurric, eta icusten duçue nic badudala". [40] Eta hori erran ondoan, eracutsi çarozten bere escuac eta oiñac. [41] Oraiño ordean hec ez baitçuten sinhexten eta miretsiac baiceudecen bozcarioaren fuertsaz, erran çaroen: "Baduçue hemen deussere jatecoric?" [42] Eta hec ekharri içan cioten arrain ere [66] pusca bat eta ezti orrace batetaric. [43] Jan çuen hequien aitciñean, eta harturic gelditu içan cen gaiñeracoa, eman çaroen hei, [44] eta erran çaroen: "Hauc dire nic ohi erraten nauzquitçuenac oraiño çuequien nintcenean, complitu beharrac cirela Moiseren leguean, profetetan eta psalmoetan nitaz escribatuac içan diren guciac".

[45] Orduan ernatu çaroen izpiritua Escrituren aditceco, [46] eta erran içan çaroen: "Hunela da escribatua eta hunela behartcen [67] Christoc soffri ceçan eta hirurgarren

65. Horko *-ten-* horren beharrik ez zen.
66. Hala dio, baina *erre* behar du izan, noski.
67. *Behar cen,* alegia. Ikus berebat idatzirik *hiltcen,* Lk. XX, 29.

egunean phitz cedin hillen artetic, [47] eta predicatua içan cedin haren icenean penitencia eta bekhatuen barkhamendua nacione gucien artean, hassiric Jerusalemetic. [48] Çuec, bada, çarete lekhuco gauça horietaz. [49] Eta ni igortcerat nohatçue ene Aitac aguindua çuen gaiñerat. Bizquitartean çaudete çuec hirian, içan çaitezqueten artean beztituac goraticaco indarraz".

[50] Eraman cituen guero camporat Bethaniarat eta escuac altchaturic benedicatu içan cituen. [51] Eta hei benedicionea ematearequien batean, goan cen hequien ganic eta igan cen cerurat. [52] Hec berriz hura adoratu eta bihurtu ciren Jerusalemerat bozcario handirequien; [53] eta bethi ciren tenpluan, Jaincoa laudatcen eta benedicatcen çutelaric. Amen.

J. CHRISTOREN

Evangelio Saindua

Jondoni Jauniren arauera

I. Cap.

[1] Haste hastean cen Verboa eta Verboa cen Jaincoa baitan eta Jainco cen Verboa. [2] Hura cen haste hastean Jaincoa baitan. [3] Gauça guciac hartaz içan dire eguiñac eta eguin içan denic deussere hura gabe ez da eguin içatu. [4] Haren baitan cen bicitcea eta bicitcea cen guiçonen arguia. [5] Arguiac du ilhunbeètan arguitcen eta ilhunbeèc ez dute hura hartu içan. [6] Içan cen guiçon bat Jaincoaz igorria, Joannes ceritçana. [7] Ethorri içan cen hura lekhucotçat, arguiari lekhucotassuna bihurtceco, guciec hartaz sinhetx ceçatentçat. [8] Ez cen hura arguia, baiñan cen arguiari lekhucotassuna errendatcerat ethorria. [9] Cen argui eguiazcoa, ceiñac arguitcen baidu mundu huntarat heldu den guiçon gucia. [10] Munduan cen eta mundua hartaz eguiña içan da eta munduac ez du eçagutu. [11] Bereètarat ethorri içan da eta bereèc ez dute hura errecibitu içan. [12] Baiñan errecibitu içan duten guciei eman içan daroe botherea Jaincoaren haur içateco, haiñei ceiñec sinhexten baidute haren icenean; [13] ceiñac ez baidire sorthu odoletic, ez haraguiaren nahicundetic, ez eta guiçonaren nahitic, baiñan bai Jaincoa ganic. [14] Eta Verboa haragui eguin içan da eta egon da gure artean graciaz eta eguiaz bethea; eta icussi ere içan dugu haren gloria, Aitaren Seme bakhotcharen gloria den beçalacoa. [15] Joannesec lekhucotassuna errendatcen du hartaz eta du oihu eguiten diotsalaric: "Hau cen nic erraten nuena: Ene ondoan ethorrico dena ni baiño lehen da, ceren ni baiño aitcinagocoa baida". [16] Eta horren bethetassunetic dugu errecibitu guc guciec eta gracia graciarentçat. [17] Ecen leguea Moisez emana içan da; ordean gracia eta eguia Jesus Christoz içan da ekharria. [18] Jaincoa egundaiño nihor[1] ez du icussi içan; Seme bakhotchac, Aitaren galtçarrean denac, berac darocu eçagutaraci.

[19] Eta hau da Joannesen lekhucotassuna, juduec Jerusalemetic apheçac eta levitac igorri içan ciotçatenecoa, galde hunen eguiterat: "Nor çare çu?" [20] Aithortu çuen ecen eta ez çuen ukhatu, eta erran çuen haltoqui: "Ez naiz ni Christo".

1. *Nihorc* behar zuena *nihor* idatzi du.

[21] Galdeguin içan cioten: "Cer, bada? Elias çare?". Eta harc erran çaroen: "Ez naiz hura". Hec berriz: "Profeta çare?". Eta harc ihardetsi çaroen: "Ez". [22] Erran içan cioten, bada: "Nor çare?, errepusta eman dioçotegun igorri içan gaituztenei. Cer dioçu çure buruaz?". [23] "Ni naiz", diotsote, "boça desertuan oihuz dagoenarena: chuchen çaçue jaunaren bidea, Isaiaz profetac erran içan duen beçala".

[24] Eta igorri içan citçaizcoenac ciren pharisauetaric. [25] Galdeguin çioten berriz ere eta erran: "Cergatic, bada, hari çare bathayatcen [2], baldin ez baçare ez Christo ez Eliaz eta ez profeta?". [26] Ihardetsi içan çaroen Joannesec eta erran: "Ni hari naiz bathatcen urezco bathayoz; çuen erdian da ordean batçuec eçagutcen ez duçuena. [27] Hura da ene ondoan ethorrico dena, ni baiño lehen dena, ceiñaren çapata lokharria lechatceco ere ez bainaiz ni digne". [28] Hauc ciren iragan Bethanian, Jordanaz bertce aldean, non hari baitcen Joannes bathayatcen.

[29] Biharamunean icussi içan çuen Joannesec Jesus haren ganat heldu cela eta erran içan çuen: "Horra Jaincoaren bildotsa; horra munduaren bekhatua khentcen duena. [30] Hortaz erran içan dut: Ene ondoan heldu da guiçon bat ni baiño lehen dena, ceren ni baiño aitciñagocoa baida. [31] Nic ez naquien hori cen, baiñan Israelen hori eçagut deçatentçat ethorri içan naiz ni, urezco bathayo bat ematerat". [32] Eta lekhucotassuna errendatu içan çuen Joannesec, erraten çuelaric: "Icussi içan dut Izpiritua jausten usso colomba bat beçala cerutic eta horren gaiñean guelditu içan da. [33] Nic ez naquien hori çela, baiñan ni igorri içan nauenac urezco bathayoa ematerat, berac erran içan darot: Noren ere gaiñerat icussico baiduqueçu Izpiritua jausten eta haren gaiñean egoten, eta hura diteque Izpiritu Sainduaren bathayoa ematen duena. [34] Neronec icussi dut hori eta lekhucotassuna errendatu dut hori dela Jaincoaren Semea".

[35] Ondoco egunean berriz han baitcegoen oraiño Joannes bere bi dizcipuluequien, [36] icussiric Jesus iragaten, erran içan çuen: "Horra Jaincoaren bildotsa". [37] Eta bi dizcipuluac hura adituric horla mintçatcen, jarraiqui citçaizcon Jesusi. [38] Itçuli içan cen, bada, Jesus eta icussiric hec çarraitçala, erran çaroen: "Ceren bilha çabiltçate?". Ihardetsi içan cioten hec: "Rabbi (ceiñac erran nahi baidu Naussia), non egoten çare?". [39] "Çatozte", diotsote harc, "eta icussaçue". Goan ciren eta icussi çuten non egoten cen eta haren baitan guelditu ciren egun hartan. Orduan egunaren hamargarren orena beçala citequen. [40] Cen bada Andres, Simon Piarresen anaya, hetaric bat ceiñec aditu baitçuten Joannesec cioena eta ceiñac jarraiqui baitcitçaizcon Jesusi. [41] Aurkhitu içan çuen hunec berehala Simon bere anaya eta erran cioen: "Aurkhitu dugu Messiaz", ceiñec erran nahi baidu Christo. [42] Eta erakharri içan çuen Jesusen ganat. Behaturic bada hari Jesusec, erran cioen: "Çu çare Simon Jonaren semea; çu içanen çare deithua Cephas", ceiñec erran nahi baidu Harria.

[43] Biharamunean Jesusec goan gogo baitçuen Galilearat, aurkhitu içan çuen

2. Lehen (Mc. X, 38) esan bezala, batzutan *bathatu* lehenik idatzia gero osatu egin du hemen bezala, baiña beste batzutan ez; hala nola hurrengo bertsotxoan (26).

Philipe eta erran cioen: "Jarraiq çaquizquit". [44] Cen bada Philipe Bethsaidacoa, Andresen eta Piarresen herricoa. [45] Philipec aurkhitu içan çuen Nathanael eta erran cioen: "Moisec leguean eta profetec bere escribuetan hambat aiphatu içan dutena aurkhitu dugu, Jesus Nazarethecoa, Josephen semea". [46] Eta erran cioen Nathanaelec: "Nazarethecoric içan ahal daiteque deussere onic?". Philipec erran cioen: "Çato eta icussaçu". [47] Icussi baitçuen Jesusec Nathanael haren ganat heldu cela, erran çuen hartaz: "Horra eguiazco israelita bat, ceiñaren baitan ez baida enganioric". [48] Erran içan cioen Nathanaelec: "Nondic eçagutcen nauçu?". Jesusec ihardetsi cioen eta erran: "Philipec deithu içan baiño lehen icussi içan çaitut fico ondoaren azpian". [49] Ihardetsi cioen Nathanaelec eta erran: "Naussia, çu çare Jaincoaren Semea, çu çare Israelgo erreguea". [50] Erran cioen Jesusec: "Ceren erran darotçudan, Icussi çaitut fico ondoaren azpian, duçu sinhexten? Hori baiño handiagoric icussico bide duçu". [51] Eta erran çuen guehiago: "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: icussico duçue cerua idequiric eta Jaincoaren aingueruac igaten eta jausten Guiçonaren Semearen gaiñerat".

II. Cap.

[1] Handic hirur egunen buruan eguin içan ciren estay batçu Cana Galileacoan; eta han cen Jesusen ama. [2] Gombidatua içan cen, bada, Jesus ere bere dizcipuluequien. [3] Eta escastu baitcitçayen arnoa, erran içan cioen Jesusi bere amac: "Arnoric ez dute". [4] Ihardetsi cioen Jesusec: "Emastea, cer dohatçu çuri eta bai niri ere? Ez da oraino ethorri ene orena". [5] Erran çaroen, bada, haren amac cerbitçatcen hari cirenei: "Cer ere erranen baidarotçue, eta hura eguiçue". [6] Ciren, bada, han sey khuba harrizcoac ifiniac juduen garbicarientçat, çaducatenac bakhotchac bia edo hirur neurri handi. [7] Erran çaroen Jesusec: "Bethe çatçue khubac urez". Eta bethe cituzten gaineraiño. [8] Orduan erran çaroen Jesusec: "Erauts çaçue orai eta eramaçue estayetaco naussiari". Eta eraman cioten. [9] Hunec, bada, dastatu içan çuenean ura arnorat gambiatua, eta ez baitceaquien [3] nondic cen (ordean bacequiten [3] ura erautsi içan çuten sehiec), deitu içan çuen esposa, [10] eta erran cioen: "Mundu guciac lehenic arno ona ematen du eta, jendeac unguizco edanac direnean, orduan ematen dute hain ona ez dena; baiñan çuc goardatu duçu arno ona orai arteraiño". [11] Miracuilluen haste hori eguin içan çuen Jesusec Cana Galileacoan eta hortic çuen eçagutaraci bere gloria eta haren dizcipuluec sinhetsi çuten haren baitan.

[12] Ondoan goan cen bere amarequien, anayequien eta dizcipuluequien Capharnaumat eta egun gutiz egon ciren han. [13] Ecen hurbill baitcen juduen Bazcoa, goan cen Jesus Jerusalemerat. [14] Eta aurkhitu baitcituen templuan jendeac idien, chikhiroen eta usso colomben saltcen hari cirenac eta diru gambiatçailleac jarriac, [15] eguin içan çuen açote bat beçala cordelez eta cassatu cituen guciac templutic, chikhiroequien eta idiequien; arthiqui çuen lurrerat gambiatçailleèn dirua eta irauli cituen hequien mahaiñac. [16] Eta usso colomba saltçailleèi erran içan çaroen: "Khen çatçue horiec hemendic eta ez deçaçuela eguin ene Aitaren etcheaz mercaduriaco etche bat". [17] Orhoitu içan [4] orduan haren dizcipuluac escribatua dela: "Çure etchearen zeloac jaten nau". [18] Hitça harturic, bada, juduec erran cioten: "Cer miracuillu eracusten darocuçu horlaco gaucen eguiteco?". [19] Ihardetsi çaroen Jesusec eta erran: "Desseguin çaçue templu hau eta hirur egunic barnean nic dut berestaturaco". [20] Erran cioten bada juduec: 'Berrogoy eta sey urthez içan da

3. *Ceaquien* eta *cequiten*: bigarren honek ez ote du *-a-* eskas? Ez da gauza segurua, ezen nahas darabiltza; ikus, esate baterako, *çaquien*, Jo. V, 13.

4. Hemen *ciren* idatzi gabe utzi bide du.

bastitua templu hau eta çuc duçu altchatuco hirur egunic barnean?". [21] Hura ordean mintço cen bere gorphutçaren templuaz. [22] Biztu içan cenean bada hilletaric, orhoitu ciren haren dizcipuluac hori cela harc erraten çaroena eta sinhetsi çuten Escritura, bai eta Jesusec erran çaroena. [23] Jerusalemen cenean, bada, Bazco bestaren demboran, hainitcec sinhetsi içan çuten haren icenean, icussiric harc eguiten cituen miracuilluac. [24] Jesus bera ordean ez citçayen fidatcen hei, guciac eçagutcen baitcituen, [25] eta ez baitçuen mengoaric nihorc lekhucotassunic errenda cioçan guiçonez; baceaquien ecen berac guiçonaren baitan cer cen.

III. Cap.

[1] Pharisauetaric bat Nicodeme ceritçana, juduen artean guiçon behatua, [2] ethorri içan cen Jesusen ganat gauaz eta erran cioen: "Naussia, badaquigu Jaincoaz igorria çarela iracasterat; ecen nihorc ecin eguin detçaque çuc eguiten ditutçun miracuillu horiec, baldinetariac Jaincoa harequien ez bada". [3] Ihardetsi içan cioen Jesusec eta erran: "Eguiaz eguiaz darotçut erraten, nihorc ecin icus deçaquela Jaincoaren Erresuma, baldin berriro berriz sortcen ez bada". [4] Erran cioen Nicodemec: "Nola sor daiteque guiçon bat ja çahar dena? Ala sar ahal othe daiteque berriz ere bere amaren sabelean, bigarren aldi batez sortceco?". [5] Jesusec ihardetsi cioen: 'Eguiaz eguiaz darotçut erraten, guiçon baldinetariac berriro sortcen ez bada urez eta Izpiritu Sainduaz, ecin sar daitequela Jaincoaren Erresuman. [6] Haraguitic sorthu dena haragui da eta Izpiritutic sorthu dena Izpiritu da. [7] Ez deçaçula mirets, ceren erran darotçudan berriz ere sorthu beharrac çaretela. [8] Izpirituac nahi duen toquirat darauntsa eta aditcen duçu haren hotsa; ordean ez daquiçu nondic heldu den, ez norat dohan; gauça bera da Izpirituz sorthu ditequen guciaz". [9] Erran içan cioen Nicodemec: "Nola eguin ahal ditezque horiec?". [10] Ihardetsi cioen Jesusec: "Naussitçat çare Israelen eta hori ez daquiçu? [11] Eguiaz eguiaz darotçut erraten, daquigunaz gu mintço garela eta icussi dugunaz errendatcen dugula lekhucotassuna eta hala ere gure lekhucotassuna ez duçue errecibitcen. [12] Baldinetariac lurreco lengoayaz mintço natçaitçuenean ez banauçue sinhexten, nola sinhetxico nauçue ceruco lengoayaz mintçatuco natçaitçuenean? [13] Halaber nihor ez da igan içan cerurat, cerutic jautsi içan dena baicen, erran nahi da Guiçonaren Semea, ceiña baida ceruan. [14] Eta nola ere Moisec altchatu içan baitçuen suguea desertuan, hala da mengoa içan dadin altchatua Guiçonaren Semea, [15] haren baitan sinhexten duenic batere gal ez dadintçat, aitcitic içan deçantçat bicitce eternala. [16] Halaco maneraz ecen Jaincoac maitatu içan du mundua, non eman içan baidu bere seme bakhotcha, haren baitan sinhexten duena gal ez dadintçat; aitcitic içan deçantçat hainac bicitce eternala. [17] Ez du ecen igorri içan Jaincoac bere Semea mundurat mundua juya deçantçat; aitcitic bai mundua hartaz salbatua içan dadintçat. [18] Haren baitan sinhexten duena ez da condemnatua, ordean sinhexten ez duena ja condenatua da, ceren ez baidu sinhexten Jaincoaren Seme bakhotcharen icenean. [19] Eta condenacionearen sujeta da, arguia ethorri içan baida mundurat eta guiçonec maitatu içan baidituzte guehiago ilhunbeac ecen ez arguia; ceren gaixtoac baitciren hequien obrac. [20] Ecen gaixqui eguiten duen guciac gaitxesten du arguia eta ez da ethor-

tcen arguirat, beldurrez ecen haren obrac aguer daitecen; [21] baiñan eguiaren arauera hari dena ethortcen da arguirat, aguer daitecentçat haren obrac, cergatic Jaincoaren arauera eguiñac baidire".

[22] Horien ondoan Jesus eta bere dizcipuluac ethorri ciren Judearat; egon cen han hequiequien cembait demboraz eta hari cen bathatcen [5]. [23] Hari cen, bada, Joannes ere bathayatcen Ennonen, Salingo ondoan, ceren ur hainitz baitcen han, eta heldu ciren harat jende hainitz bathayatuac içaterat, [24] ecen ez cen oraiño orduan Joannes emana içan presondeguian. [25] Iharduqui çuten, bada, Joannesen dizcipuluetaric cembaitec juduequien bathayoaren gainetic. [26] Eta ethorriric Joannes ganat erran cioten: "Naussia, Jordango bertce aldean çurequien cena, ceinari çure lekhucotassuna bihurtu baidioçu, huna non hari den bathayatcen eta guciac haren ganat dohaz". [27] Ihardetsi çaroen Joannesec eta erran: "Nihorc ecin har deçaque beretçat, cerutic emana içan çayoena baicen. [28] Cebonec lekhucotassuna errendatcen darotaçue, erran dudala: ez naiz ni Christo, bainan igorria içan naicela haren aitcinerat. [29] Esposa da bainan [6] ceiñaren baida Esposa; ordean esposaren adisquidea, haren aditcen dagoena, bozcarioz bethea da, ceren aditcen duen esposaren boça; eta horra cerc eguiten duen ene bozcarioa ecin guehiagocoa. [30] Harc behar du handitu, nic berriz chumetu. [31] Goratic ethorri içan dena gucien gaineco da; lurretic heldu dena lurrecoa da eta lurreco beçala mintço da; cerutic ethorri dena gucien gaineco da. [32] Eta cer ere icussi eta aditu baidu, eta hartaz lekhucotassuna errendatcen du; ordean nihorc ez du errecibitcen haren lekhucotassuna. [33] Haren lekhucotassuna errecibitu duenac seiñalatu duque Jaincoa eguiatia dela. [34] Ecen Jaincoac igorri içan duenac Jaincoaren hitz berac erraten ditu; ceren ez baidio hari neurriz ematen Jaincoac bere Izpiritua. [35] Aitac maite du Semea eta eman diotça gauça guciac escuetarat. [36] Semea baitan sinhexten duenac badu bicitce eternala; baiñan Semea sinhexten ez duenac ez du icussico bicitcea, aitcitic Jaincoaren colera haren gaiñean dago".

5. Ikus lehen esana: Jo. I, 25. Ondoko lerroan, aldiz, osorik eman du.

6. Hau oker aldatu du Robinek itxura guztien arabera. Vulgatak honela dio: "Qui habet sponsam, sponsus est". Robin-ek Haranederren eskuzko *haina bainan* irakurri du. Leizarragak laburkiago eman du: "Sposa duena sposo da". Haranederrentzat ordea *esposa* biak dira: senarra eta emaztea. Ikus Mt. I, 16; XXV, 5 etab.; baiña ez beti: ik. Apokal. XVIII, 23.

IV. Cap.

[1] Eçagutu içan çuenean, bada, Jesusec aditu çutela pharisauec dizcipulu guehiago eguiten çuela eta bathayatcen çuela ecen ez Joannesec, [2] Jesus hari ez cen arren bathayatcen, baiñan bai haren dizcipuluac, [3] utci içan çuen Judea eta goan cen berriz ere Galilearat. [4] Iragan behar çuen bada Samariatic, [5] eta arribatu cen Samariaco hiri Sichar ceritçan batetarat, Jacobec bere seme Josephi eman içan cioen putçuaren hurbillerat. [6] Cen, bada, han Jacoben ithurria eta Jesus bidean unhatua baitcen, jarri cen berehala ithurri haren gaiñean. Orena cen egunaren seigarrena beçala. [7] Ethorri içan cen emastequi bat Samariacoa ur erausterat eta Jesusec erran içan cioen: "Indaçu edaterat". [8] (Ecen haren dizcipuluac goanac ciren hiririat jateco erosterat). [9] Ordean emaste samaritano harc erran cioen: "Nola çuc judutarra çarelaric niri galdetcen darotaçu edaterat, ni bainaiz emaste samaritarra?". Ecen ez dute erquidetassunic judutarrec samaritanoequien. [10] Jesusec ihardetsi içan cioen eta erran: "Baldin eçagutcen bacindu Jaincoaren dohaiña eta nor den çuri erraten darotçuna, Indaçu edaterat, ceronec galdetuco bide ciñoen hari eta emanen baitçarotçun ur bici batetaric". [11] Erran cioen emastequi harc: "Jauna, ez duçu eta certan erauts eta putçua behera da; nondic cinduqueen beraz ur bici hura? [12] Ala çu handiago çare gure aita Jacob baiño, ceinac eman içan baidarocu putçu hau eta berac edan içan baidu huntaric, eta bai haren umeèc eta haren abreèc ere?". [13] Ihardetsi cioen Jesusec eta erran: "Ur huntaric edan duen gucia egarrituco da berriz ere; ordean nic emanen diodan uretic edanen duena seculan ez da egarrituco. [14] Baiñan nic emanen diodan ura eguinen da haren baitan bicitce eternaleraino jauciz dohan urezco ithurri bat". [15] Erran cioen emaste harc: "Jauna, indaçu ur hartaric, guehiago egarri ez nadin eta ethor ez nadin hunat erausterat". [16] Erran cioen Jesusec: "Çohaz, deit çaçu çure senharra eta çato hunat". [17] Ihardetsi içan cioen emaste harc eta erran: "Nic ez dut senharric". Erran cioen Jesusec: "Ungui erran duçu ez duçula senharric, [18] ecen bortz senhar içatu ditutçu eta orai duçuna ez da çure senharra; hori eguia erran duçu". [19] Erran cioen emaste harc: "Jauna, icusten dut profeta çarela. [20] Gure aitec adoratu içan dute mendi huntan eta çuec dioçue Jerusalemen dela lekhua, ceinetan behar baida adoratu". [21] Erran cioen Jesusec: "Emastea, sinhetx naçaçu heldu dela ordua eta orena, non ez baiduçue guehiago adoratuco Aita ez mendi huntan eta ez Jerusalemen. [22] Çuec adoratcen duçue eçagutcen ez duçuena; guc adoratcen dugu eçagutcen duguna, ecen salbamendua juduetaric heldu da. [23] Baiñan heldu da ordua eta ethorri ere da, ceiñetan eguiazco adoratçailleec adoratuco

baidute Aita Izpirituz eta eguiaz; ecen ene Aitac halaco adoratçailleac bilhatcen ditu. [24] Jaincoa Izpiritu da eta hura adoratcen dutenec Izpirituz eta eguiaz behar dute adoratu". [25] Ihardetsi içan cioen emaste harc: "Badaquit Messias, erran nahi da Christo, ethortceco dagoela. Dathorrenean, bada, harc iracatsico darozquigu gauça guciac". [26] Erran cioen Jesusec: "Ni neroni naiz, çurequien mintço naicena". [27] Momentu hartan ethorri ciren haren dizcipuluac eta miretsi çuten ceren emastequi batequien minço cen. Halaric ere nihorc ez cioen erran: Cer galdetcen dioçu edo certaz mintço çare horrequien? [28] Utci çuen, bada, han emaste harc bere pegarra; goan cen hirirat eta erran çaroen hango jendeei: [29] "Çatozte eta icussaçue guiçon bat, ceiñac erran baidarozquit egundaino eguin içan ditudan guciac; hura ez othe da Christo?". [30] Ilkhi ciren, bada, hiritic eta abiatu ciren haren ganat. [31] Bizquitartean othoitcez cegozcon dizcipuluac ciotsotelaric: "Naussia, jan çaçu". [32] Ordean harc erran çaroen: "Nic janari bat badut jateco, çuec ez daquiçuena". [33] Ciotsoten bada dizcipuluec elkharri: "Nihorc ekharri othe dio jaterat?". [34] Erran çaroen Jesusec: "Ene jatecoa da eguitea ni igorri içan nauenaren borondatea eta akhabatcea haren obra. [35] Cebonec ez duçue erraten ez direla laur ilhabete baicen uztarat? Nic darotçuet bada erraten: Altcha çatçue çuen beguiac eta icussatcitçue basterrac ja asqui direla churituac uztaren biltceco. [36] Uzta biltcen duenac errecibitcen du saria eta biltcen ditu fruituac bicitce eternalecotçat, ereiten duena bozcaria dadintçat, bai eta biltcen duena ere. [37] Huntan ecen eguiazcoa guerthatcen da ohico erran hau: Batac du ereiten eta bertceac du biltcen. [38] Nic igorri içan çaituztet biltcerat cebec landu ez duçuena; bertcec landu dute eta çuec sarthu çarete hequien lan eguiñetan".

[39] Hiri hartaco samaritanoetaric hainitcec sinhetxi içan çuten haren baitan emastequi haren erranaren ariaz, ceinac seguratcen baitcituen erran içan ciotçala egundaiño eguin içan cituen guciac. [40] Ethorri içan cirenean, bada, haren ganat samaritanoac, jarri citçaizcon othoitcez egon cedilla cembait demboraz hequien hirian; eta egon cen han bi egunez. [41] Eta hainitz guehiagoc sinhetxi çuten are, ceren bera aditu çuten mintçatcen. [42] Erraten ere cioten emaste hari: "Gaurgoro ez bide dugu çure errana gatic sinhexten; gueronec ecen aditu dugu eta badaquigu hau dela eguiazqui munduaren salbatçaillea".

[43] Bi egunen buruan ilkhi cen handic eta goan cen Galilearat, [44] ecen Jesusec berac declaratu içan du profeta bat ez ohi dela bere herrian ohoratua. [45] Ethorri cenean bada Galilearat, eguin cioten beguitarte galilearrec, icussi içan baitcituzten harc bestaco demboran Jerusalemen eguin cituen guciac; hec ere ecen harat goanac ciren bestacotçat.

[46] Goan cen, bada, bigarren aldian Cana Galileacorat, ceiñetan gambiatu içan baitçuen ura arnorat, eta cen han jaun bat, ceinaren semea baitcen eri Capharnaumen. [47] Hunec aditu çuenean ethorri cela Jesus Judeatic Galilearat, goan citçayon eta othoiztu çuen ethor cequioela bere semea sendatcerat, ecen hiltcen hari cen. [48] Erran cioen bada Jesusec: "Non ez ditutçuen icusten miracuilluac eta gauça ohiz campocoac, ez deçaqueçue sinhetx". [49] Erran cioen jaun harc: "Jauna,

çato, othoi, ene semea hill baiño lehen". [50] Erran cioen Jesusec: "Çohaz, çure semea bici da". Sinhetxi çuen guiçonac Jesusec erran cioena eta goan cen. [51] Bidean ciohala bathu citçaizcon bere cerbitçari cembait eta erran cioten haren semea sendo cela. [52] Galdeguin çaroen, bada, cer orenez unguitu içan cen eta hec erran cioten: "Atço çazpigarrenean[7] orenean utci içan baidu sukharrac". [53] Eçagutu çuen aitac oren hura bera cela, ceiñetan erran içan baitcioen Jesusec, Çure semea bici da, eta sinhetxi içan çuen eta bai haren etche guciac ere. [54] Hori da bigarren miracuillua, Jesusec eguin içan çuena ethorri cenean Judeatic Galilearat.

7. Hemen *-ean* ipini du batere beharrik gabe.

V. Cap.

[1] Horien ondoan juduen bezta bat ethorri baitcen, goan cen Jesus Jerusalemerat. [2] Da, bada, Jerusalemen ardien garbilekhu bat, hebraicoz Bethsaida daritçana, bortz aldamiotacoa[8]. [3] Hetan cetçan eriz nombre handi bat, itsu, maingu, hebaindu cirenac, ura noiz higuituco cen beguira ceudecenac. [4] Ecen Jaunaren ainguerua jausten cen dembora batçutan piscina hartarat eta ura higuitcen cen; eta piscinarat lehenbici jauxten cena ura higuitu ondoan, sendatcen cen cernahi eritassun çuqueen. [5] Cen, bada, guiçon bat han hogoy eta hemeçortci urthe hartan errassunac çaducana. [6] Hau icussi içan çuenean Jesusec etçana, baitceaquien ja aspaldidanic cela eri, erraten dio: "Nahi duçu sendatu?". [7] Ihardetsi cioen eriac: "Jauna, nihor ez dut ura higui ditequenean piscinarat arthiq naçaquenic, ecen ni harat nohaquen bizquitartean, bertce norbait jauxten da ni baiño lehen". [8] Erraten dio Jesusec: "Altcha çaite, eramaçu çure ohea eta ibill çaite". [9] Eta berehala sendatu içan cen guiçon hura; eta harturic bere ohea abiatu cen.

Cen, bada, egun hartan sabbatoa. [10] Ciotsoten, bada, judutarrec sendatu içan cen hari: "Sabbatho eguna da egun; ez çaitçu cilhegui çure ohea eramatea". [11] Ihardetsi çaroen harc: "Sendatu nauenac berac erran darot: Eramaçu çure ohea eta ibill çaite". [12] Galdeguin cioten, bada: "Cein da guiçon hura, ceiñec erran içan baidarotçu: Eramaçu çure ohea eta ibill çaite?". [13] Ordean sendatua içan cenac ez çaquien nor cen, ecen Jesus aldaratu içan cen lekhu hartan cen jendetce artetic. [14] Guero ondoan aurkhitu içan çuen Jesusec guiçon hura templuan eta erran cioen: "Horra non çaren sendatua; bada guehiago bekhaturic ez deçaçula eguin, gaixtoagocoric cerbait guertha ez daquiçun". [15] Goan cen guiçon hura eta condatu çaroen juduei Jesus cela hura sendatu içan çuena. [16] Eta horren ariaz çuten persecutatcen Jesus juduec, ceren gauça horiec eguiten cituen sabbatho egunean. [17] Jesusec ordean erraten çaroen: "Ene Aita bethi hari da eta bai ni ere". [18] Horren gatic, bada, ciren juduac guehiago aiher hura hillaraci nahiz, ceren ez choilqui hausten baitçuen sabbatho eguna, baiñan oraiño erraten ere baitçuen bere Aita çuela Jaincoa, bere burua Jaincoaren pare eguiñic.

Horren gaiñean ihardetsi içan çaroen Jesusec eta erran: [19] "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: ecin daguique Semeac deussere bere ganic; ez du eguiten Aitari

8. Lehenik *galdamio-* idatzia zuen, baina gainekoak *Aldamio-* dirudi. Ikus hau garbiro Jo, X, 23-ean. E. Knörr-ek bere tesian, "Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet", honela dio: "Tampoco este ejemplo [*baranda*] lo hemos localizado en el ms. de Harriet, quien por cierto no incluye la palabra *galdamioa*" (I, 124. or.). Harriet-ek ez ote dakar *aldamio*? Lhandek eta Muxikak bai.

eguiten icusten dioena[9] baicen; ecen Aitac eguiten duen gucia du halaber eguiten Semeac ere. [20] Cergatic Aitac maite baidu Semea eta eracusten baidiotça berac eguiten dituen guciac; eta eracutsi diotça hauc baiño obra handiagoac ere oraiño, çuec mirets deçaçuentçat. [21] Ecen nola Aitac bizten baiditu hillac eta ematen baidaroe bicitcea, hala Semeac ere bicia ematen daroe nahi dituenei. [22] Aitac ez du jugeatcen nihor, bainan jugeatceco bothere gucia eman içan dio Semeari, [23] guciec ohora deçatentçat Semea, Aita ohoratcen duten beçala; Semea ohoratcen ez duenac ez du ohoratcen Aita, ceiñec igorri içan baidu hura. [24] Cin ciñez darotçuet erraten, ene hitça entçuten duenac eta ni igorri içan nauena sinhexten duenac, baduela bicitce eternala; eta haiña ez da erortcen condenacionean, aitcitic iragana diteque heriotcetic bicitcerat. [25] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten, heldu dela dembora eta ja ethorri ere dela, ceiñetan hillec entçunen baidute Jaincoaren Semearen boça, eta entçunen duquetenac bicico dire; [26] ecen nola Aitac bere baitan baidu bicitcea, hala eman içan dio Semeari ere bere baitan içan deçan bicitcea. [27] Eta eman içan dio botherea jugeatceco, ceren den Guiçonaren Semea. [28] Ez deçaçuela mirets hori, cergatic heldu baida dembora, ceiñetan thombetan diren guciec entçunen baidute Jaincoaren Semearen boça. [29] Eta goanen dire ungui eguin içan dutenac bicitceco erresurreccionerat, ordean gaixqui eguin içan dutenac condenacioneco erresurreccionerat. [30] Nic ecin daguiquet neure baitharic deussere; nola aditcen baidut, eta hala jugeatcen dut eta ene jugeamendua justua da; ceren ez baidut bilhatcen ene nahia, baiñan bai ni igorri içan nauenarena. [31] Baldiñetaric[10] nic errendatcen badut lekhucotassuna neure buruaz, ene lekhucotassuna ez da leyala. [32] Bertce bat bada lekhucotassuna errendatcen duena nitaz; eta badaquit leyala dela harc nitaz ematen duen lekhucotassuna. [33] Çuec igorri içan duçue Joannesen ganat eta harc lekhucotassuna errendatu içan dio eguiari. [34] Nic ordean ez dut guiçonetaric errecibitcen lekhucotassuna; baiñan hauc erraten ditut çuec salbatuac içan çaiteztentçat. [35] Hura cen lampa iraçaqui bat eta argui eguiten çuena; çuec, bada, nahi içan duçue ordu batetaraiño alegueratu haren arguian. [36] Nic ordean badut lekhucotassun bat handiagoa Joannesena baiño, ecen Aitac eguiterat eman darozquidan obrec, nic eguiten ere ditudan obra hec berec dute lekhucotassuna errendatcen nitaz, Aitac igorri içan nauela ni. [37] Eta ni igorri içan nauen Aitac berac lekhucotassuna errendatu içan du nitaz. Haren boça egundaiño ez duçue aditu, ez eta deussere icussi haren iduria dakharquenic. [38] Eta haren hitça ez duçue goardatcen ceben baitan, ceren eta harc igorri içan duena ez baiduçue sinhexten. [39] Iracurtcen ditutçue arthosqui Escriturac, ceren uste baiduçue hequien bidez içanen duçuela bicitce eternala. Eta bizquitartean hec dire lekhucotassuna errendatcen dutenac nitaz. [40] Ordean çuec ez duçue nahi ethorri ene ganat, bicitcea duçuentçat. [41] Gloriaric nic ez dut nahi guiçonetaric.

9. Aski bitxia dirudi honako honek: "...Aitari eguiten icusten dio-", baina halaxe dio. Ikus gainera oso antzekoa: Lk. XXIII, 8. Leizarragak, aldiz: "...baldin ikusi ezpadu Aitá obratzen".

10. Oraino beti, oker ez banago, *baldinetariac* esan du.

[42] Baiñan çuec eçagutcen çaituztet, ecen Jaincoaren amudioric ez duçuela çuen baitan. [43] Ni ethorri içan naiz ene Aitaren icenean eta ez nauçue errecibitcen; baldiñetariac bertce bat ethor badadi bere icenean berean, hura errecibituco duqueçue. [44] Nola sinhetx ahal deçaqueçue çuec, ceiñec lakhet baiduçue batac bertcea ganic gloria errecibitcea, eta ez baiduçue bilhatcen Jaincoa bera ganic heldu den gloria? [45] Ez deçaçuela uste içan, ecen nic çaituztedala accusatuco çuec Aitaren aitcinean; baduçue accusatcen çaituzten bat, Moise, ceina baitan baiduçue çuec esperantça. [46] Ecen baldinetariac sinhesten bacindute Moise, sinhetx nintçaqueçue aguian ni ere, nitaz ecen harc escribatu içan baidu. [47] Baldin ordean haren liburuentçat ez baduçue sinhexteric, nola içanen duçue ene erranentçat?"

VI. Cap.

[1] Horien ondoan goan cen Jesus Galileaco itsassoaz bertce alderat Tyberiaco parterat. [2] Eta baçarraicon jende oste handi bat, ceren icusten baitcituzten eri cirenen gaiñean eguiten cituen miracuilluac. [3] Igan cen, bada, Jesus mendi batetarat eta jarri cen han bere dizcipuluequien. [4] Eta hurbill cen Bazco, juduen bezta egun handia. [5] Goititu cituenean, bada, beguiac Jesusec eta icussi içan çuenean jendetze handi bat heldu cela haren ganat, erran cioen Philiperi: "Nondic erossico ditugu oguiac hauei guciei jaterat emateco?". [6] Hori ordean erraten çuen hura tentatcea gatic, baçaquien ecen berac cer eguiterat ciohan. [7] Ihardetsi içan cioen Philipec: "Berrehun denarioren oguia ez liteque asqui bakhotchari den gutiena ere emateco". [8] Erran içan cioen bere dizcipuluetaric batec, Andres Simon Piarressen anayac: [9] "Bada hemen muthilco bat, ceiñec baiditu bortz ogui garagarrezco eta bi arrain; ordean horiec cer dire hunenbertce mundurentçat?". [10] Erran çaroen bada Jesusec: "Jarraraz çatçue jende horiec". Cen sorho handi bat lekhu hartan eta jarri ciren bortz milla guiçon edo. [11] Hartu cituen Jesusec oguiac eta bihurtu ondoan esquerrac, partitu çarozten jarriac cirenei; halaber arrainetaric ere eman çaroen nahi çuten beçambat. [12] Sassiatu içan cirenean, erran çaroen bere dizcipuluei: "Bil catçue sobratu diren puscac, gal ez daitecen". [13] Bildu içan cituzten, bada, eta bethe cituzten hamabi sasqui bortz ogui garagarrezco çathiz, jan cituztenei sobratu citçaiztenetaric. [14] Eta guiçon hec icussi ondoan Jesusec eguin içan çuen miracuillua, erraten çuten: "Hau diteque segurqui mundurat ethortceco cegoen profeta". [15] Jesusec, bada, eçagutu içan çuen ethorrico cirela haren altchatcerat hura erregue eguiteco eta goan cen ihessi berriz ere mendirat bera bakharric. [16] Arratsa ethorri cenean, goan içan ciren haren dizcipuluac itsasso basterrerat; [17] eta barcu batetarat iganic, iragan ciren itsassoaz bertce alderat Capharnaumeco parterat; eta ja ilhundu ere cen eta Jesus hequien ganat ez baitcen ethorri. [18] Bizquitartean haice handia baitcen, hassi cen itsassoa handitcen. [19] Eta arrauquetan eguin ondoan hogoi eta bortz edo hogoi eta hamar stadio beçala, icussi çuten Jesus uraren gaiñean cebillala eta hequien barcurat hurbiltcen cela; eta icitu ciren. [20] Harc bada erraten daroe: "Ni naiz, ez çaiteztela ici". [21] Nahi içatu çuten, bada, hartu barcurat eta berehala barcua arribatu cen hec ciohacen leyhorrerat.

[22] Biharamunean itsassoaren bertce aldean guelditu cen jendetzeac icussi çuen ez cela han eta ez cela sarthu içan Jesus bere dizcipuluequien barcu hartan,

aitcitic haren dizcipuluac berac goan cirela; içatu bertce barcuric, bat hura baicen. [11] [23] baiñan bertce barcu batçu ethorri içan baitciren Tiberiadatic lekhu haren alderat, ceinetan oguia janaraci baitçaroen Jaunac esquerrac bihurtu ondoan, [24] icussiric jende hec Jesus ez cela han, ez eta haren dizcipuluac ere, igan ciren barcu hetarat eta ethorri ciren Capharnaumerat Jesusen bilha. [25] Eta aurkhitu çutenean itsassoaz bertce aldean, erran içan cioten: "Naussia, noiz ethorri çare hunat?"

[26] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Ciñ ciñez darotçuet erraten: Ene bilha çabiltçate, ez ceren icussi ditutçuen miracuilluac, baiñan bai ceren jan duçuen oguietaric eta asse içan çareten. [27] Çaquizcote ez galtcen den oguiari, baiñan bicitce eternaleraiño irauten duen oguiari, ceiña emanen baidarotçue Guiçonaren Semeac, hura ecen seiñalatu içan du Jainco Aitac".

[28] Erran cioten bada hec: "Cer eguiñen dugu Jaincoaren obrac eguiteco?". [29] Ihardetsi içan çaroen Jesusec eta erran: "Hauche da Jaincoaren obra, sinhets deçaçuen harc igorri içan duena baitan". [30] Erran cioten berriz hec: "Cer miracuillu eguiten duçu, bada, icus deçaguntçat eta sinhets çaitçaguntçat? Cer obra eguiten duçu? [31] Gure aitec jan içan dute Manna desertuan, escribatua den beçala: Ceruticaco oguia eman içan daroe jaterat". [32] Erran çaroen bada Jesusec: "Ciñ ciñez darotçuet erraten: ez darotçue Moisec eman içan ceruticaco oguia, baiñan ene Aitac ematen darotçue ceruticaco ogui eguiazcoa. [33] Ecen Jaincoaren oguia da cerutic jautsi dena eta munduari bicitcea ematen dioena".

[34] Erran cioten berriz hec: "Jauna, iguçu bethiere ogui hura". [35] Erran çaroen bada Jesusec: "Ni naiz bicitcearen oguia; ene ganat heldu dena ez da gossetuco eta ene baitan sinhexten duena ez da egarrituco behinere. [36] Baiñan erran darotçuet ja: icussi nauçue eta ez nauçue sinhexten. [37] Aitac niri ematen darotan gucia ene ganat ethorrico da eta ene ganat dathorquena ez dut nic camporat arthiquico; [38] Ceren jautsi içan bainaiz cerutic ez neure nahia eguiteco, baiñan bai ni igorri içan nauenarena. [39] Ni igorri içan nauen Aitaren borondatea hauche da, bada: harc eman içan darotan gucitic deussere gal ez deçadan, aitcitic pitzberri deçadan hura azqueneco egunean. [40] Hau da ecen ni igorri içan nauen Aitaren nahia: Semea icusten duen guciac eta haren baitan duenac sinhexten, içan deçan bicitce eternala, eta nic pitzberrituco dut haina azqueneco egunean".

[41] Baçarasaten bada juduec hartaz, ceren erran çuen: "Ni naiz ogui bicia, ceruti jautsi içan naicena", [42] eta cioten: "Ez da hori Jesus Josephen semea, ceinaren aita eta ama eçagutcen baiditugu? Nolatan dio, beraz, horrec cerutic jautsia dela?" [43] Ihardetsi çaroen Jesusec eta erran: "Ez deçaçuela eras horla elkharren artean. [44] Nihor ecin dathorque ene ganat, baldin ni igorri içan nauen Aitac ez badu erakhartcen; eta nic dut hura phiztuco azqueneco egunean. [45] Escribatua da profetetan: Içanen dire guciac Jaincoaren ikhasdiarrac [12]. Norc ere,

11. Horrelaxe dago idatzirik, baina ikur batzu ezarri ditu (Δ^3, Δ^2, Δ) adierazirik hitzen ordena honela aldatu behar dela: azkeneko "içatu bertce barcuric, bat hura baicen" gora eramanez "...ez cela han" hitzen ondora.

12. Ez dakit ez ote zuen *ikhasliarrac* idatzi nahi izan.

beraz, aditu içan baidu Aitaganic eta ikhasi, heldu da hura ene ganat. [46] Ez Aita icussi duelacoan nihorc, hainac baicen ceina heldu baida Jaincoa ganic; ecen hura da Aita icussi içan duena. [47] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Ene baitan sinhexten duenac badu bicitce eternala

[48] Ni naiz bicitcearen oguia. [49] Çuen aitec jan içan dute Manna desertuan eta hill içan dire. [50] Hau da oguia cerutic jautsia, huntaric jaten duena hill ez dadintçat. [51] Ni naiz ogui bicia, cerutic jautsi içan naicena. [52] Baldin norbaitec jaten badu ogui huntaric, bicico da hura eternitatean; eta nic emanen dudan oguia ene haraguia da, munduaren bicitcearentçat emanen dudana".

[53] Ciharducaten bada juduec elkharren artean, erraten çutelaric ecen: "Nola eman ahal dieçaquegu hunec bere haraguia jaterat?". [54] Erran içan çaroen bada Jesusec: "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: baldiñetariac ez baduçue jaten Guiçonaren Semearen haraguia eta edaten haren odola, ez duçue içanen bicitcea ceben baitan. [55] Ene haraguia jaten duenac eta ene odola edaten duenac badu bicitce eternala eta nic dut pitzberrituco azqueneco egunean. [56] Ene haraguia ecen eguiazqui da janharia eta ene odola eguiazqui da edaria. [57] Ene haraguia jaten duena eta ene odola edaten duena ene baitan egoten da eta ni nago haren baitan. [58] Nola ni igorri bainau Aita bici denac eta ni bici bainaiz Aitarentçat, hala ni jaten nauena ere bicico da enetçat. [59] Hau da oguia cerutic jautsi içan dena; ez çuen aitec beçala, ceiñec jan içan baitçuten Manna eta hill baitciren; ogui hau jaten duena bicico da eternitatean". [60] Hauc dire Jesusec erran içan cituenac sinagogan, iracasten hari cela Capharnaumen.

[61] Haren dizcipuluetaric, bada, hainitcec horiec adituric erran içan çuten: "Dorphea da solhas hori, eta norc adi ere deçaque?". [62] Baiñan Jesusec bere baitan baitceaquien baçarasatela hortaz haren dizcipuluec, erran içan çaroen: "Horrec escandalisatcen çaituzte? [63] Icusten bacindute, bada, Guiçonaren Semea igaten lehen cen lekhurat? [64] Izpiritua da biciaracitcen duena, haraguia ez da deussetaco. Nic çuei erraten darozquitçuedan hitçac Izpiritu eta bicitce dire. [65] Ordean badire çuetaric batçu sinhexten ez dutenac". Baceaquien ecen haste hastetic Jesusec nor ciren sinhexten ez çutenac, eta bai cein cen hura trahituco çuena ere. [66] Eta ciotsan: "Hargatic erran içan darotçuet nihor ecin dathorquela eneganat, baldinetariac eman ez baçayo ene Aitaz".

[67] Ordudanic haren dizcipuluetaric hainitz goan ciren guibelat eta ez çabiltçan harequien guehiago. [68] Erran çaroen bada Jesusec hamabiei: "Ez duçue nahi goan çuec ere?". [69] Ihardetsi içan cioen Simon Piarresec: "Jauna, norenganat guinohazque? Bicitce eternalaren hitçac ditutçu eta [70] guc sinhetxi içan dugu eta bai eçagutu ere çu çarela Christo Jaincoaren Semea". [71] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Ez çaituztec nic hamabi hautatu çuec? Eta bizquitartean çuetaric bat deabru da". [72] Mintço cen Judas Iscariote Simonenaz, ceren hau baitcen hura trahituco çuena, hamabietaric bat cen arren.

VII. Cap.

[1] Ondoan, bada, abiatu cen Jesus Galilean ibiltcen, ez baitçuen nahi goan Judearat, ceren juduac hura hillaraci nahiz baitcebiltçan. [2] Baiñan hurbill baitcen juduen besta Tabernacleena, [3] erran içan cioten bere anayec: "Abia çaite hemendic eta çohaz Judearat, çure dizcipuluec icus deçaten gatic ere çuc eguiten ditutçun obrac. [4] Nihorc ecen ez du deussic gordeca eguiten, bera aguertu nahiz dabillanec; horlaco gauçac eguiten ditutçunaz gueroz, aguer çaquizco ceroni munduari". [5] Haren anayec ere ecen ez çuten sinhexten haren baitan. [6] Erran çaroen bada Jesusec: "Ene dembora ez da oraiño ethorri; baiñan çuentçat bethi da muga. [7] Munduac ecin çaituzquete çuec higuin, baiñan ni gaitxesten nau, ceren haren contra lekhucotassuna bihurtcen baidut, haren obrac gaixtoac direla. [8] Çohazte çuec besta huntarat; ni ez noha besta huntarat, ceren ene dembora ez baida oraiño bethe". [9] Horiec horla erranic, guelditu cen bera Galilean. [10] Goan cirenean bada haren anayac, goan cen orduan bera ere bestarat ez agueriqui, baiñan gordeca beçala. [11] Juduac, bada, haren bilha cebiltçan besta hartan eta cioten: "Non othe da hura?" [12] Eta erasia handi bat cen populuaren artean hartaz. Batçuc cioten ecen: "Guiçon prestu bat da". Bertceec berriz cioten: "Ez, aitcitic populua enganatcen du". [13] Hala ere ordean nihor ez cen agueriqui mintço hartaz juduen beldurrez. [14] Besta ja erdi iragan cenean, igan cen Jesus templurat eta hari cen iracasten.

[15] Miretsiac ceudecen Juduac ciotsatelaric: "Nola du guiçon hunec jaquintassun hau estudiatu gabe? [16] Ihardetsi içan çaroen Jesusec eta erran: "Ene jaquintça ez da enea, baiñan bai ni igorri nauenarena. [17] Haren borondatea eguin nahi dutenec eçagutuco dute, hea dotrina hau Jaincoaganic den ala ni neure baitaric mintço naicen. [18] Bere baitaric mintço dena bere gloria propialaren bilha dabilla; baiñan norc ere bilhatcen baidu hura igorri içan duenaren gloria, eta hura da eguiatia eta injusticiaric haiñaren baitan ez da. [19] Ez darotçue Moisec eman çuei leguea? Eta çuetaric batec ere ez baidu obretan ematen leguea. [20] Cergatic çabiltçate ni hillaraci nahiz?". Ihardetsi cioen populuac: "Deabruaz posseditua çare çu; nor dabilla çu hillaraci nahiz?". [21] Ihardetsi içan çaroen Jesusec eta erran: "Gauça bat eguin dut choilqui eta guciac çaudezte miretsiac. [22] Guciarequin ere, ceren Moisec ordenatu içan darotçuen circoncisicionea [13] (patriarchen ganic heldu den arren eta ez Moise ganic), circoncidatcen duçue guiçona sabbatho egunean ere.

13. Behar zen baino silaba bat gehiago idatzi du hemen, dirudienez: ikus hurrengo bertsotxoa (23.).

[23] Baldinetariac circuncisionea errecibitcen badu guiçonac sabbatho egunean Moiseren leguea hauts ez dadintçat, cergatic niri sumintcen çaizquidate, ceren guiçon bat gucia sendatu içan dudan sabbatho egunean? [24] Ez deçaçuela juya campoco iduriaren arauera, baiñan jugea çaçue justutassunaren arauera".

[25] Erraten çuten, bada, Jerusalemdar batçuc: "Hau ez da hillaraci nahiz dabiltçan hura? [26] Huna non mintço den mundu guciaren aitciñean eta deus ez diote erraten. Eçagutu othe dute buruçaguiec eguiazqui hau dela Christo? [27] Baiñan hau badaquigu nongoa den; Christo ordean dathorquenean, nihorc ez du jaquiñen nongoa den". [28] Oihuz cegoen, bada, Jesus templuan iracasten hari cela eta ciotsala: "Badaquiçue bai nor naicen eta bai nongoa naicen; ez naiz bada neure baitaric ethorri, baiñan eguiatia da ni igorri içan nauena, ceina ez baiduçue çuec eçagutcen. [29] Nic eçagutcen dut hura, ceren harenganicacoa bainaiz eta harc igorri bainau". [30] Çabiltçan bada hura hartu nahiz; eta hala ere nihorc ez çuen escua eçarri haren gaiñean, cergatic ez baitcen oraiño haren muga ethorri. [31] Bizquitartean han cirenetaric haiñitcec sinhetsi çuten haren baitan eta cioten: "Christoc ethortcen denean miracuillu guehiago eguiñen othe du, hunec eguiten duen baiño?". [32] Pharisauec aditu içan cituzten populuac hartaz çaduzcan solhas horiec eta aphecen princeèc eta pharisauec igorri cituzten archerac haren hartcerat. [33] Erran çaroen bada Jesusec: "Oraiño dembora guti batetacotz çuequien naiz eta banoha guero ni igorri içan nauena ganat. [34] Ibillico çarete ene bilha eta ez nauçue aurkhituco; eta ni naitequen lekhurat çuec ecin çathozquete". [35] Horren gaiñean juduec erran çuten elkharren artean: "Norat goanen othe da hau, ez baidugu aurkhituco? Ala goanen othe da mundu gucian barrayatuac diren gentilletarat eta predicatuco othe daroe gentillei? [36] Cer erran nahi du solhas hunec: Ibillico çarete ene bilha eta ez nauçue aurkhituco eta ni naitequen lekhurat çuec ecin çathozquete?".

[37] Bestaren azqueneco egun handian, bada, cegoen Jesus oihuz ciotsalaric: "Baldin nihor egarri bada, bethor ene ganat eta edan beça. [38] Norc ere ene baitan sinhexten baidu, Escriturac dioen beçala haren sabeletic ilkhico dire ur bicizco ibayac". [39] Eta hori erraten çuen haren baitan sinhetxico çutenec errecibituco çuten Izpirituaz; ez cen ecen oraiño Izpiritua emana içatu, ceren Jesus ez baitcen oraiño glorificatu.

[40] Han ciren jendeètaric, bada, hainitcec solhas horiec aditu eta erran çuten: "Hau eguiazqui profeta da". [41] Bertceec erraten çuten: "Hau Christo da". Bertce batçuc berriz erraten çuten: "Nasqui Galileatic ethorrico baida Christo? [42] Ez du erraten Escriturac Daviden leyñutic eta Bethelengo herritic, David cegoenetic, ethorrico dela Christo?". [43] Eta hala escatima cen populuaren artean haren ariaz. [44] Eta hetaric cembaitec nahi çuqueten hartu; ordean nihorc ez çuen eçarri escuric haren gaiñean.

[45] Bihurtu ciren, bada, archerac aphecen princeen eta pharisauen ganat eta hec erran çaroen: "Cergatic ez duçue ekharri hura?". [46] Ihardetsi içan çaroen archerec: "Egundaiño guiçonic ez da hala mintçatu, nola guiçon hori". [47] Erran

çaroen bada pharisauec: "Nasqui çuec ere irabaciac çarete? [48] Ala buruçaguietaric nihorc sinhetxi du haren baitan edo pharisauetaric batec ere? [49] Baiñan jende chehe horiec, leguea cer den ezdaquiten horiec, madaricatu batçu dire". [50] Erran çaroen Nicodemec, haren ganat gauaz ethorri içan cen harc, cen [14] baitcen hetaricaco bat: [51] "Ala gure legueac jugeatcen du guiçon bat, non ez duen bera lehenago entçuten eta non ez duen jaquiten harc cer eguin duen?". [52] Ihardetsi içan cioten hec eta erran: "Nasqui çu ere galilearra çare? Mira çatcitçu ungui Escriturac eta jaquin eçaçu Galileatic ez dela ilkhi profetaric". [53] Eta bihurtu ciren cein bere etchetarat.

14. Hala dio, baina *cein* behar du, noski.

VIII. Cap.

[1] Jesus berriz goan cen Olibetaco mendirat [2] eta arguiaren beguico bihurtu cen templurat; eta populu gucia ethorri baitcen haren ganat, jarri cen hei iracasten. [3] Ekharri içan cioten, bada, escribauec eta pharisauec emaste bat adulterioan atcemana içan cena eta eçarri çuten populuaren erdian, [4] eta erran cioten: "Naussia, emaste hau orai doy doya atceman dute adulterioan. [5] Leguean Moisec ordenatu içan darocu hunelacoac harrica detçagula; çuc, bada, cer dioçu?". [6] Hori erraten çuten hura çundatu nahiz cerbaitez accusatcea gatic. Jesus ordean beheiti makhurturic, hassi cen erriaz [15] lurrean escribatcen. [7] Nola bada muthirituac baitcegozcon galdez, chuchendu içan cen eta erran çaroen: "Çuetaric bekhatu gabe denac arthiq bioça lehenic harria". [8] Eta berriz ere makhurturic eman cen escribatcen lurrean. [9] Hori aditu çutenean, bada, goan ciren bata bertcearen ondoan çaharrenetaric hassiric eta guelditu cen Jesus bera bakharric eta emaste hura lekhuaren erdian chutic cegoela. [10] Orduan Jesus goititu cen eta erran cioen: "Emastea, non dire çure accusatçailleac? Nihorc ez çaitu condemnatu?". [11] Erran çioen emaste harc: "Nihorc, Jauna, ez nau condenatu". Jesusec ihardetsi cioen: "Nic ere bada ez çaitut condenatuco. Çohaz eta ez deçaçula guehiago eguin bekhaturic".

[12] Bertce aldi batez mintçatu citçayen Jesus eta erran çaroen: "Ni naiz munduaren arguia; niri darraitana ez dabilla ilhunbean; aitcitic içanen du bicitcearen arguia". [13] Erran cioten bada pharisauec: "Çuc ceronec lekhucotassuna errendatcen duçu çure buruaz; çure lekhucotassuna ez da sinhextecoa". [14] Ihardetsi çaroen Jesusec eta erran: "Neronec lekhucotassuna errendatcen diodan arren neure buruari, eguiazcoa da ene lekhucotassuna; ceren baidaquit nondic ethorri naicen eta norat nohan; çuec ordean ez daquiçue nondic ethorri naicen, ez norat nohan. [15] Çuec jugeatcen duçue haraguiaren arauera, nic ez dut nihor jugeatcen. [16] Eta baldinetariac jugeatcen badut ere, ene jugeamendua leyala da, ceren ez bainaiz bakharra, baiñan ni eta ni igorri içan nauen Aita. [17] Eta çuen leguean escribatua da bi guiçonen lekhucotassuna eguiazcoa dela. [18] Ni naiz lekhucotassuna errendatcen dudana neure buruaz, eta lekhucotassuna bihurtcen du nitaz ni igorri içan nauen Aitac ere". [19] Erraten cioten bada hec: "Non da çure Aita?". Ihardetsi çaroen Jesusec: "Ez daquiçue ez ni nor naicen, ez ene Aita nor den; baciñaquite ni nor naicen, aguian jaquin ciñeçaquete halaber ene Aita nor den".

15. *Erhi* > *erri*: ik. Mt. XXIII, 4; Lk. XVI, 24. Baina ikus ere *erhi*, Jo. XX, 27.

[20] Gauça horiec erran çarozten Jesusec thresorą cen lekhuan iracasten hari cela; eta nihor ez citçayon lothu, ceren ez baitcen oraiño ethorri haren muga.

[21] Erran çaroen, bada, bertce aldi batez Jesusec: "Ni banoha eta ibillico çarete ene bilha eta çuen bekhatuan hillen çarete; ni nohan lekhurat çuec ecin çathozquete". [22] Cioten bada juduec: "Bere burua hillen othe du berac, baidio: ni nohan lekhurat çuec ecin çathozquete?". [23] Eta harc erraten çaroen: "Çuec behere huntacoac çarete, ni goracoa naiz; çuec mundu huntacoac çarete, ni ez naiz mundu huntacoa. [24] Erran darotçuet, bada, çuen bekhatuan hillen çaretela, ecen baldinetariac sinhexten ez baduçue ni naicela, hillen çarete çuen bekhatuan". [25] Erraten cioten hec: "Nor çare çu?". Jesusec ihardetsi çaroen: "Guciez lehenagocoa, ni çuei mintço natçaitçuena. [26] Hainitz gauça dut çuetaz errateco eta çuen baitan condenatceco; baiñan ni igorri içan nauena eguiatia da eta nic haren ganic aditu içan ditudanac berac erraten ditut munduan". [27] Eta ez çuten concebitu Jaincoa ciotsala çuela bere Aita. [28] Erran çaroen bada Jesusec: "Goititu duqueçuenean Guiçonaren Semea, orduan duçue eçagutuco nor naicen eta neure buruz deussere ez dudala eguiten; baiñan nola ere iracatsi baidarot Aitac, eta hala mintço naicela. [29] Ni igorri içan nauena enequien da eta ez nau utci bakharric, cergatic nic bethi harc placer duena eguiten baidut". [30] Solhas horren ariaz hainitcec sinhetxi çuten haren baitan.

[31] Erraten çaroen, bada, Jesusec haren baitan sinhetxi içan çuten juduei: "Baldinetariac egoten baçarete ene hitcean, eguiazqui ene dizcipuluac içanen çarete, [32] eta eçagutuco duçue eguia ete eguiac eguiñen çaituzte libro". [33] Ihardetsi cioten hec: "Abrahamen hacitic gare gu eta egundaiño ez gare nihoren esclabo içatu. Nolatan dioçu çuc: libro içanen çarete?". [34] Ihardetsi içan çaroen Jesusec: "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten, bekhatu eguiten duen gucia bekhatuaren esclabo dela. [35] Bada gathiboa ez dago bethicotz etchean; ordean semea bethicotz dago etchean. [36] Baldinetariac beraz çuec Semeac libratcen baçaituzte, eguiazqui libro içanen çarete. [37] Badaquit Abrahamen umeac çaretela; ordean ni hillaraci nahiz çabiltçate, ceren ene hitça ez baida errecibitua çuen artean. [38] Nic ene Aitaren baitan icussi dudana erraten dut eta çuec çuen aitaren baitan icussi ditutçuenac eguiten ohi ditutçue". [39] Ihardetsi cioten hec eta erran: "Gure aita Abraham da". Erran çaroen bada Jesusec: "Baldin Abrahamen umeac baçarete, eguitçue Abrahamen obrac. [40] Orai ordean ni hillaraci beharrez çabiltçate, ni ceiñec baidarotçuet erraten eguia, Jaincoaren ganic ikhassi içan dudana. Ez da hori Abramamec [16] eguin içan duena. [41] Çuec eguiten ohi ditutçue çuen aitaren obrac". Erran cioten bada hec: "Gu ez gare obra gaixtotaric sorthuricaco umeac; aita bat dugu eta hura Jaincoa". [42] Erran çaroen bada Jesusec: "Baldin Jaincoa balitz çuen aita, maite ninduçueque ni, ceren Jaincoa ganic sorthu bainaiz eta ethorri; ecen ez naiz neure buruz ethorri, baiñan harc igorri içan nau. [43] Cergatic ene hizcuntça ez duçue

16. Halaxe idatzi du.

eçagutcen? Ceren ecin adi baideçaqueçue ene hitça. [44] Çuec deabruaren umeac çarete eta çuen aitaren gogara nahi duçue eguin. Hura guiçon hilltçaille içan da haste hastetic et(a) ez du iraun içan eguian, ceren ez baida eguia haren baitan; gueçurra erraten duenean bere funtsetic mintço da, ceren gueçurtia baida eta gueçurraren aita. [45] Baiñan nic eguia erraten baidarotçuet, ez nauçue sinhexten. [46] Çuetaric ceiñec emanen darot niri irau? Baldinetariac eguia erraten badarotçuet, cergatic ez nauçue sinhexten? [47] Jaincoa ganic denac Jaincoaren hitçac aditcen ditu; hargatic çuec ez ditutçue aditcen, ceren ez baitçarete Jaincoa ganic".

[48] Ihardetsi cioten, bada, juduec eta erran: "Ez dugu arroçoin errateco samaritano bat çarela çu eta deabruaz posseditua?". [49] Ihardetsi içan çaroen Jesusec: "Ez naiz ni deabruaz posseditua, bainan ohoratcen dut ene Aita; eta çuec nauçue ni desohoratcen. [50] Nic ordean ez dut bilhatcen neure gloria propioa; bilhatuco du bertce batec eta justicia eguiñen darot. [51] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Baldin nihorc goardatcen badu ene hitça, ez du seculan icussico heriotcea". [52] Erran cioten bada juduec: "Orai dugu eçagutcen deabruaz posseditua çarela. Abraham hill içan da, bai eta profetac ere hill içan dire eta dioçu çuc: Nihorc baldin beguiratcen badu ene hitça, ez du seculan dastatuco heriotcea. [53] Nasqui çu handiago baiçare gure aita Abraham baiño, ceiña hill içan baida? Profetac ere hill içan dire; norentçat passaraci nahi duçu ceure burua?". [54] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Baldin nic glorificatcen badut neure burua, ene gloria ez da deus. Ene Aita da ni glorificatcen nauena, ceina baidioçue çuec çuen Jaincoa dela. [55] Bizquitartean ez duçue eçagutcen hura. Nic ordean eçagutcen dut hura eta baldin erraten banu ez dudala eçagutcen, çuec beçalacoa ninteque, gueçurtia. Baiñan eçagutcen dut eta haren hitça beguiratcen dut. [56] Abrahamen [17] çuen aita lehiatu da icussi nahiz ene eguna; icussi içan du eta bozcariatu içan da". [57] Erran içan cioten bada juduec: "Berrogoy urthe oraino ez ditutçu eta Abraham duçu icussi?". [58] Erran çaroen Jesusec: "Eguiaz darotçuet erraten, Abraham jayo baiño lehen ni banaiz". [59] Horren gaiñean hartu cituzten harriac hari arthiquitceco; Jesus ordean estali cen eta ilkhi cen templutic.

17. *Abraham* behar du noski.

IX. Cap.

[1] Jesusec iragatean icussi içan çuen guiçon bat sortcetic itsu cena. [2] Eta galdeguin cioten bere dizcipuluec: "Naussia, ceinec eguin othe du bekhatu, hunec ala hunen burassoec, hau hunela sortceco itsu?". [3] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Ez du hunec eguin bekhatu, ez eta hunen burassoec; baiñan hori guerthatu da aitcitic aguer daitecen gatic Jaincoaren obrac hunen baitan. [4] Mengoa da eguin detçadan ni igorri içan nauenaren obrac, eguna deiño; heldu da hor gaua, ceinetan nihor ecin obran hari baiditeque. [5] Munduan naiceiño, munduaren arguia naiz". [6] Horiec erran ondoan, eguin çuen thu lurrerat eta eguinic basa bere thuarequien, gantçutu cituen basa hartaz itsuaren beguiac. [7] Eta erran cioen: "Çohaz, garbi çaite Siloeco mainhoan" (ceiñec erran nahi baidu Igorria). Goan cen, bada, garbitu cen eta ethorri içan cen icusten çuela; [8] halaco moldez, non hauçoec eta lehenago esque bici cela icusten çutenec erraten baitçuten: "Ez da hau jarria cegoen hura eta esquez bici cena?". Batçuc cioten: "Hura da". [9] Bertcec berriz: "Ez da hura, baiñan haren iduritaco bat da". Harc ordean erraten çaroen: "Ni neroni naiz". [10] Erraten cioten bada hec: "Nola idequi çaizquitçu beguiac?". [11] Harc ihardetsi çaroen: "Jesus erraten dioten guiçon harc, eguinic basa gantçutu darozquit hartaz beguiac eta erran darot: Çohaz Siloeco mainhorat eta garbi çaite. Eta goan içan naiz, garbitu naiz eta icusten dut". [12] Erran içan cioten hec: "Non da hura?". Harc ihardetsi çaroen: "Ez daquit".

[13] Eraman çuten guero pharisauetarat itsu içatu cen hura. [14] Cen, bada, sabbatho eguna Jesusec basa eguin içan çuena eta beguia [18] arguitu içan ciotçana. [15] Berriz ere galdeguin cioten pharisauec nola icussi içan çuen, eta harc erran çaroen: "Basa eman içan darot beguien gaiñean, garbitu naiz eta icusten dut". [16] Cioten bada pharisauetaric cembaitec: "Ez da guiçon hori Jaincoa ganicacoa, halaz eta [19] sabbathoa beguiratcen ez duenaz gueroztic". Bertcec berriz cioten: "Nola eguin ahal detçaque guiçon bekhatoros batec miracuillu horiec?". Eta escatima cen hequien artean. [17] Erran cioten, bada, berriz ere itsuari: "Çuc cer dioçu beguiac idequi darozquitçun hartaz?". Ihardetsi çuen harc: "Profeta bat baida". [18] Horri çagocala ez çuten sinhetxi nahi juduec itsua içatu cela eta bista içan çuela [20], erakharri cituzqueten artean haren burassoac, [19] ceinei galdeguin baitça-

18. Hala dio, baina *beguiac* behar du izan.
19. *Halaz eta* honi buruz ikus lehen esana: Lk. XX, 42.
20. Ez da ongi irakurtzen, baina hori bide dio.

roen eta erran: "Hau da çuen semea itsu sorthu içan dela dioçuena? Nola bada icusten du orai?". [20] Ihardetsi çaroen haren burassoec: "Badaquigu hau dela gure semea eta itsu sorthu içan dela, [21] baiñan nola orai icusten duen ez daquigu, edo norc idequi diotçan beguiac guc ez daquigu; galde dioçoçue berari; adinic asqui badu; bera mintça bedi beretçat". [22] Errepusta hori eman çuten haren burassoec, cergatic juduen beldur baitciren, ja ecen elkhar hartuac ciren juduac, baldin nihorc aithortcen baçuen Jesus cela Christo, khassatua içanen cela haiña sinagogatic. [23] Horren gatic erran çuten haren burassoec: Adinic asqui badu, galdeguioçue berari. [24] Erakharri çuten, bada, bigarren aldi batez itsu içatu cen guiçon hura eta erran cioten: "Errenda dioçoçu Jaincoari gloria; guc badaquigu guiçon hura bekhatoros bat dela". [25] Harc ihardetsi çaroen: "Ez daquit nic bekhatorosa den; gauça bat daquit, itsu nintcelaric orai icusten dudala". [26] Erran cioten hec oraiño: "Cer eguin içan darotçu? Nola idequi darozquitçu beguiac?". [27] Harc ihardetsi çaroen: "Erran darotçuet ja eta aditu duçue; cergatic berriz nahi duçue aditu? Ala çuec ere haren dizcipulu eguin nahi duçue?". [28] Orduan iroiztatu çuten eta erran cioten: "Hi içan hadillala haren dizcipulu; gutaz denaz beçambatean Moiseren dizcipulu gaituc. [29] Guc baceaquiagu Moiseri mintçatu içan çayoela Jaincoa; hori ordean ez ceaquiagu nondicacoa den". [30] Ihardetsi çaroen guiçon harc eta erran: "Hori da bada harrigarri, çuec ez baidaquiçue hura nondicacoa den eta idequi baidarozquit harc niri beguiac. [31] Badaquigu ordean bekhatorosac ez dituela Jaincoac entçuten; baiñan nihorc Jaincoa cerbitçatcen badu eta haren nahia eguiten, hura duela entçuten Jaincoac. [32] Egundaiño ez ahal da aditu nihorc idequi içan dituela itsu sorthu içan den baten beguiac. [33] Baldin hori ez balitz Jaincoa ganicacoa, ecin leguique deussic". [34] Ihardetsi cioten hec eta erran: "Bekhatutan sorthua haiz gucia eta iracasten hari atçaicu guri?". Eta khendu çuten camporat.

[35] Aditu çuen Jesusec khendu cutela camporat eta aurkhitu içan çuen batez erran cioen: "Sinhexten duçu Jaincoaren Semea baitan?". [36] Ihardetsi içan cioen harc eta erran: "Nor da, Jauna, sinhetx deçadantçat haren baitan?". [37] Erran cioen Jesusec: "Icussi içan duçu eta çurequien mintço dena bera da". [38] Harc berriz ihardetsi içan cioen: "Sinhexten dut, Jauna". Eta haren oiñetarat bere burua arthiquiric, adoratu içan çuen. [39] Orduan Jesusec erran içan cioen: "Justicia eguiterat ethorri içan naiz ni mundu huntarat, icusten ez dutenec icus deçaten gatic eta icusten dutenac itsu daitecen gatic". [40] Aditu içan çuten hori harequien ciren pharisauetaric cembaitec eta erran içan cioten: "Nasqui gu ere itsuac baigare?". [41] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Itsuac baciñete, ez cinduquete bekhaturic; orai ordean dioçue icusten duçuela eta hargatic beraz dagotçue bekhatua çuen baitan".

X. Cap.

[1] "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Ardien arthaldean athetic sartcen ez dena, bainan bertce alde batetaric igaten dena, ohoiñ bat da eta arrapatçaille bat. [2] Ordean athetic sartcen dena ardien artçaiña da. [3] Huni athaltçaiñac idequitcen dio eta ardiec hunen boça aditcen dute; eta bere ardi propioac deithcen ditu, ceiñ bere icenaz, eta ilkhi arazten. [4] Eta ilkhiaraci dituzquenean bere ardi propioac, goaten da hequien aitciñean, eta ardiac jarraiquitcen çaizco, ceren eçagutcen baidute haren boça. [5] Arrotz bati ordean ez çaizco jarraiquitçen, aitcitic ihessi dohaz haren ganic, ceren ez baidute eçagutcen arrotcen boça". [6] Parabola hori erran çaroen Jesusec; ordean hec ez çuten comprenitu cer erraten çaroen.

[7] Erran çaroen, bada, berriz ere Jesusec: "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten, ni naiz ardien athea. [8] Ethorri içan diren guciac ohoinac dire eta arrapatçailleac eta ardiec ez dituzte aditu. [9] Ni naiz athea. Nitaric norbait sartcen baldin bada, salbatuco da, sarthuco da, ilkhico da eta bazcac edirenen ditu. [10] Ohoiña ez da ethortcen, lekhat ebasteco, hiltceco eta galtceco baicen; baiñan ni ethorri içan naiz bicia içan deçatengatic eta are franquia guehiagorequien içan deçatengatic.

[11] Ni naiz artçain ona. Artçain onac bere bicia ematen du bere ardientçat. [12] Soldatacoac ordean eta ez denac artçain eta ardiac bereac ez dituenac icusten duenean otsoa ethortcen, uzten ditu ardiac eta goaten da ihessi; eta otsoac eramaten ditu ardiac eta barrayatcen. [13] Eta soldatacoa ihessi goaten da, ceren den soldatacoa eta ez baidu antsiaric ardiez. [14] Ni naiz artçain ona eta eçagutcen ditut ene ardiac eta ene ardiec eçagutcen naute ni. [15] Aitac ni eçagutcen nauen beçala, nic ere eçagutcen dut Aita eta ene bicia ematen dut ene ardientçat. [16] Baditut oraiño bertce ardiac ere arthalde huntaco ez direnac; hec ere erakharri behar ditut eta ene boça adituco dute; eta eguinen da arthalde bat eta artçain bat. [17] Hargatic nau maite ene Aitac, ceren nic ematen baidut ene bicia berriz hartcecotan. [18] Nihorc ez darot eramaten, baiñan neronec ematen dut neure baitaric; eta badut bothere haren emateco eta bothere berriz hura hartceco. Manu hori errecibitu dut ene Aita ganic".

[19] Escatima bat berriz ere içatu cen juduen artean solhas horren ariaz. [20] Hetaric hainitcec erraten çuten ecen: "Deabruaz posseditua da eta erhotu [21] da; cergatic hori aditcen duçue?". [21] Bertcec cioten: "Hitz horiec ez dire deabruaz posseditua den batenac; ala deabruac ideq detçaque itsuen beguiac?".

21. Hemen *erho-*, beste askotan *erro-*: ik. Lk. XI, 40.

[22] Jerusalemen orduan eguiten çuten dedicacionearen besta eta cen negua. [23] Eta cebillan Jesus passayetan templuan Salomonen aldamioan. [24] Inguratu çuten, bada, juduec eta erran cioten: "Noiz artean daducaçu gure izpiritua balentçan? Baldin çu baçare Christo, erraguçu garbiqui". [25] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Mintço natçaitçue eta ez duçue sinhexten; nic ene Aitaren içenean eguiten ditudan obrec lekhucotassuna ematen dute nitaz; [26] baiñan çuec ez duçue sinhexten, ceren ez baitçarete ene ardietaric. [27] Ene ardiec ene boça aditcen dute eta nic eçagutcen ditut hec eta hec jarraiquitcen çaizquit niri. [28] Nic ematen daroet hei bicitce eternala eta ez dire galduco seculan; nihorc ez ditu arrapatuco ene escutic. [29] Ene Aitac niri eman darotana guciez gaiñecoa da eta nihorc ecin arrapa deçaque ene Aitaren escutic. [30] Ni eta Aita bat gare". [31] Horren gaiñean juduec hartu cituzten harriac hura harricatceco. [32] Erran çaroen Jesusec: "Hainitz obra on eracutsi içan darozquitçuet ene Aitaren berthutez eguinac; obra hetaric ceiñen gatic othe nauçue harricatcen?". [33] Ihardetsi içan çioten juduec: "Ez çaitugu obra onen gatic harricatcen, baiñan çure blasphemioa gatic eta, ceren guiçon çarelaric, çeure burua Jainco eguiten baiduçu". [34] Erran çaroen berriz Jesusec: "Ez da escribatua çuen leguean: Erran dut, jaincoac çarete? [35] Baldinetariac haiñac jainco deitcen baditu, ceiñei Jaincoa mintço baitcitçayen, eta ecin desseguin baditeque Escritura, [36] ni, Aitac sanctificatu nauena eta mundurat igorri nauena, dioçue blasphemiatcen hari naicela, ceren erran içan dudan: Jaincoaren Semea naiz? [37] Baldin eguiten ez baditut ene Aitaren obrac, ez naçaçuela sinhetx. [38] Baldin ordean eguiten baditut, ni ez banauçue ere sinhetsi nahi, sinhetx çatçue ene obrac, eçagut deçaçuentçat eta sinhetx deçaçuentçat Aita ene baitan dela eta ni Aita baitan naicela". [39] Cebiltçan bada hura hartu nahiz, baiñan itçuri cen hequien escuetaric.

[40] Eta goan cen berriz ere Jordanaz bertce alderat, lehen Joannes bathayatcen hari cen lekhu hartarat eta egon cen han. [41] Hainitz jende ethorri citçaizcon harat, ceiñec erraten baitçuten: "Joannesec miracuilluric batere ez du eguin içan; [42] ordean Joannesec huntaz erran içan dituen guciac ciren eguiac". Eta hainitcec sinhetxi içan çuten haren baitan.

XI. Cap.

[1] Cen bada guiçon bat eri, Lazaro çaritçana, Bethaniacoa, Maria eta Martha bere aizpa ceudecen herricoa. [2] Maria cen berriz Jaunaren gaiñerat issuri içan çuena unguentu urrin onezco bat eta bere illeèz oiñac chucatu içan ciotçana, ceiñaren anaya baitcen Lazaro orduan eri cena. [3] Haren arrebec gastiatu cioten, bada, Jesusi ciotsatelaric: "Jauna, huna non den eri çuc maite duçuna". [4] Hori adituric Jesusec erran içan çaroen: "Eritassun hori ez da hiltcecoa, baiñan da Jaincoaren gloriacotçat eta glorificatua içan dadintçat Jaincoaren Semea horren ariaz". [5] Maite cituen ecen Jesusec Martha eta haren aizpa Maria eta Lazaro. [6] Aditu içan çuenean bada eri cela, egon cen hala ere bi egunez orduan cen lekhuan. [7] Guero ondoan erran içan çaroen bere dizcipuluei: "Bihur gaitecen berriz ere Judearat". [8] Erraten diote dizcipuluec: "Naussia, oraiño doy doya cebiltçan juduac çu harricatu nahiz eta berriz ere çohaz harat?". [9] Ihardetsi içan çaroen Jesusec: "Egunac ez ditu hamabi oren? Egunaz dabillana ez da trebecatcen, ceren icusten baidu mundu huntaco arguia. [10] Baldin ordean gauaz ibiltcen bada, trebecatcen da, ceren ez baidu arguiric". [11] Horla mintçatu citçayen eta horren ondoan erran çaroen: "Lazaro, gure adisquidea, lo datça, baiñan banoha lotaric iratçar deçadan". [12] Erran içan cioten, bada, bere dizcipuluec: "Jauna, baldin lo badatça, sendatuco da". [13] Ordean Jesus haren heriotceaz mintço citçayen eta hec çuten uste lo egoteaz mintço cela. [14] Orduan, bada, Jesusec erran çaroen clarqui: "Lazaro hill da. [15] Eta atseguin dut çuen gatic eta çuec sinhetx deçaçuen gatic, ceren ez nintcen han; bainan gohacen haren ganat". [16] Horren gaiñean Thomas Didime ceritçanac erran çaroen bere lagun dizcipuluei: "Gohacen gu ere, horrequien hill gaitecen".

[17] Ethorri cen Jesus eta aurkhitu çuen laur egun ja baçuela Lazaro thomban cela. [18] Cen, bada, Bethania Jerusalemeco aldean, handic hamabortz stadiotan beçala. [19] Eta juduetaric hainitz ethorriac ciren Martharen eta Mariaren ganat, hec bere anayaren heriotceaz consolatcerat. [20] Martha, bada, adituric Jesus heldu cela, goan citçayon aitcinerat; Maria ordean etchean guelditu cen. [21] "Jauna", erran cioen Marthac Jesusi, "hemen içan baciñe, ene anaya ez cen hilla içanen. [22] Bainan orai ere badaquit cer nahi galdetuco dioçun Jaincoari, emanen darotçula Jaincoac çuri". [23] Erran cioen Jesusec: "Biztuco da çure anaya". [24] Ihardetsi cioen Marthac: "Badaquit biztuco dela erresurreccionean azquen egunean". [25] Erran cioen berriz Jesusec hari: "Ni naiz erresurreccionea eta bicitcea; ene baitan sinhexten duena, hilla baldin bada ere, bicico da. [26] Eta nor ere bici baida

eta sinhexten baidu ene baitan, ez da hillen seculan. Sinhexten duçu hori?". [27] Ihardetsi içan cioen: "Bai, Jauna, sinhetxi içan dut çu çarela Christo, Jainco biciaren Semea, mundu huntarat ethorri içan çarena".

[28] Eta horiec erran eta, goan cen eta deithu çuen ichillic Maria bere aizpa, erraten cioelaric: "Naussia hemen da eta çure galdea du". [29] Hura, aditu çuen beçain sarri, altchatu cen eta goan cen haren ganat. [30] Ez cen ecen ethorri oraiño Jesus herri barnerat, baiñan cen oraiño Martha bathu citçayon lekhu hartan. [31] Orduan harequien etchean ciren juduac eta haren consolatcen hari cirenac, icussi çutenean Maria hain fitetz altchatu cela eta ilkhi, jarraiqui citçaizcon erraten çutelaric: "Thombarat dohaque han nigarrez egoterat". [32] Baiñan Maria ethorri cenean Jesus cen toquirat eta hura icussi çuenean, arthiqui cen haren oinetarat eta erran cioen: "Jauna, hemen içan baciñe, ez cen hilla içanen ene anaya". [33] Jesusec, bada, icussi çuenean hura nigarrez cegoela eta harequien ethorri ciren juduac ere nigarrez ceudecela, içan çuen barrenean latztura bat eta altaratu çuen bere burua. [34] Guero erran çuen: "Non eman duçue?". Ihardetsi cioten hec: "Jauna, çato eta icussaçu". [35] Orduan nigar eguin çuen Jesusec. [36] Erran çuten bada juduec: "Horra nola çuen maite". [37] Ordean hetaric batçuc erran çuten: "Ecin debeca ceçaquen, bada, hunec hura hiltcetic, hunec ceiñec idequi içan baiditu itsu sorthu cen baten beguiac?".

[38] Jesus, bada, berriz ere lazturic bere barrenean, ethorri içan cen thombarat (toqui bat cen arrocan barna cilhatua) eta cen harri bat haren gaiñean emana. [39] Erran çaroen Jesusec: "Khen çaçue harria". Erran cioen Marthac, hilla cenaren arrebac: "Jauna, ja ussaindua[22], laur egun badu ecen hor dela". [40] Ihardetsi içan cioen Jesusec: "Ez darotçut nic erran, baldinetariac sinhexten baduçu icussico duçula Jaincoaren gloria?". [41] Khendu çuten, bada, harria eta Jesusec altchaturic goiti beguiac, erran içan çuen: "Aita, esquerrac darozquitçut ceren entçun bainauçu. [42] Baneaquien, bada, bethi entçuten nauçula, baiñan hemen inguratcen nauen populua gatic erran dut hori, sinhetx deçatentçat çuc nauçula igorri". [43] Horiec erran ondoan, boz goraz oihu eguin çuen: "Lazaro, çato camporat". [44] Eta berehala ilkhi cen hilla cena, oinac eta escuac estecatuac cituela lokharriz eta bisaya çuela estalia oihal batez. Erran çaroen bada Jesusec: "Lecha çaçue eta utçaçue goaterat".

[45] Horri dagocala, Mariaren eta Martharen ganat ethorri ciren juduetaric eta Jesusec eguin çuena icussi çutenetaric hainitcec sinhetxi çuten haren baitan. [46] Hetaric cembait bertce berriz goan ciren pharisauetarat eta erran çaroen cer eguin içan çuen Jesusec. [47] Bildu çuten, bada, batçarra aphecen printceèc eta pharisauec eta cioten: "Cer hari gare gu?, guiçon hunec miracuillu hainitz eguiten baidu. [48] Baldinetariac horla utzten badugu, guciec sinhetxico dute horren baitan eta ethorrico dire erromarrac eta arrassatuco dute gure herria eta bai gure nacio-

22. Hor *[da]* idatzi gabe utzi duela esan behar.

nea". [49] Hetaric batec ordean, Caiphas ceritçanac, urthe hartaco aphez handia baitcen, erran çaroen: "Çuec ez daquiçue deussic [50] eta ez duçue pentsatcen hobe duçuela guiçon bakhar bat hill dadin populuarentçat eta gal ez dadin nacione gucia". [51] Hori ordean ez çuen bere baitaric erran; bainan nola aphez handi baitcen urthe hartaco, profetisatu içan çuen Jesus hillen cela nacionearentçat, [52] eta ez choilqui nacione harentçat, bainan halaber Jaincoaren ume barrayatuac cirenac batetarat biltcecotçat. [53] Egun hartaz gueroztic, bada, gogoan hartua çuten hura hillaraci behar çutela.

[54] Hargatic ez cebillan guehiago Jesus agueriqui juduen artean, aitcitic goan ere cen desertuaren aldeco parterat, Ephrem erraten cioten hiri batetarat, eta egon cen han bere dizcipuluequien. [55] Hurbill cen, bada, juduen Bazcoa eta goan ciren parte hartaric jende hainitz Jerusalemerat, Bazco aitcinean bere buruac santificatcerat. [56] Eta cebiltçan Jesusen bilha eta elkharren artean erraten çuten templuan ceudecela: "Cer çaitçue [23], ez baida ethorri besta egun huntarat?". Emana çuten ecen aphecen princeèc eta pharisauec meçua, baldin nihorc jaquiten baçuen non citequen, eracuts cioçaten har ceçatentçat.

23. Ikus Mt. XVII, 24.

XII. Cap.

[1] Jesus, bada, Bazco baiño sei egun aitcinetic ethorri içan cen Bethaniarat, non hill içan baitcen Lazaro, harc biztu içan çuena. [2] Han eman cioten afaitarat; Martha cerbitçatcen hari cen eta Lazaro cen berriz mahaiñean harequien cirenetaric bat. [3] Mariac, bada, hartu çuen libera bat unguentu nardo eguiazco balios batetaric, gantçutu cituen hartaz Jesusen oiñac eta chukhatu bere illeèz; eta etchea bethe cen unguentu haren urrin onaz. [4] Orduan erran çuen haren dizcipuluetaric batec, Judas Iscariotec, hura trahitu behar çuenac: [5] "Cergatic unguentu hori ez da saldu hirur ehun diru pecetan eta eman pobreèi?". [6] Eta hori erran çuen ez pobrez antsia içanez, baiñan ceren ohoina baitcen eta moltsa harc atchequitcen baitçuen eta hartarat ematen cena harc baitçarabillan. [7] Erran çuen bada Jesusec: "Utçaçue ene ehortz eguna [24] goarda deçan hori. [8] Pobreac ecen bethi baditutçue cebequien, ni ordean ez nauçue bethi içanen". [9] Jaquin çuten, bada, juduetaric jendetze handi batec han cela eta ethorri ciren harat, ez Jesusen gatic choilqui, baiñan Lazaro icustea gatic ere, ceina biztu içan baitçuen hilletaric. [10] Gogora citçayen, bada, aphecen princeèi Lazaro ere hillaraci behar çutela, [11] cergatic juduetaric hainitz baitçiohazcoten haren gatic eta sinhexten baitçuten Jesusen baitan.

[12] Biharamunean are besta egunerat ethorri içan ciren jendetze handi batec aditu baitçuten heldu cela Jesus Jerusalemerat, [13] hartu cituzten palma adarrac eta goan citçaizcon aitciñerat oihu eguiten çutelaric: "Hosanna, benedica dadillala Israelgo Erreguea, Jaunaren içenean heldu çaicuna". [14] Eta aurkhitu baitçuen Jesusec astocume bat, jarri cen haren gaiñean, escribatua içan den beçala: [15] "Ez duçula beldurric, Siongo alaba; huna çure Erregue non heldu çaitçun, asto ume baten gaiñean jarria". [16] Gauça hauc ez cituzten eçagutu berehala haren dizcipuluec; baiñan sarthu içan cenean Jesus bere glorian, orduan orroitu [25] ciren horiec hartaz içan cirela escribatuac eta arribatu ere citçaizcola. [17] Hala lekhucotassuna errendatcen cioten Lazaro thombatic deithu içan çuenean eta hilletaric biztu çuenean harequien guerthatu ciren jendeèc. [18] Hargatic aitciñerat ethorri ere citçayon hambat jende, aditu baitçuten miracuillu hura eguin çuela; [19] halaco maneraz, non pharisauec erran baitcioten elkharri: "Icusten duçue deussere ez dugula probetchuric. Horra, mundu gucia horren ondoan dabilla".

24. *Arteraino* edo falta da hor, dirudienez: "in diem sepulturae meae", dio Vulgatak.
25. Lehengo (ik. Jo. VIII, 6) aldaketa bera dugu hemen: *orhoitu* > *orroitu*.

[20] Ciren, bada, gentill batçu besta egunean adoratcerat ethorri içan cirenetaric, [21] eta hec ethorri citçaizcon Philiperi, cein baitcen Galilean den Bethsaidacoa, eta othoiztu çuten ciotsotelaric: "Jauna, Jesus nahi guinduque icussi". [22] Philipe goan citçayon erraterat Andresi; Andresec berriz eta Philipec erran cioten Jesusi. [23] Jesusec, bada, ihardetsi içan çaroen eta erran: "Ethorri da ordua Guiçonaren Semeac glorificatua içan behar duena. [24] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Baldin ogui bihia lurrerat eroriric hiltcen ez bada, bera bakharric guelditcen da; baldin ordean hilltcen bada, fruitu hainitz ekhartcen du. [25] Bere bicia maite duenac hura galduco du eta bere bicia mundu huntan higuin duenac, bicitce eternalecotz du hura conserbatcen. [26] Baldin norbaitec ni cerbitçatcen banau, jarraiq bequit niri; eta ni non ere içanen bainaiz, eta han içanen da ene cerbitçaria ere. Baldin nihorc ni cerbitçatcen banau, ohoratuco du haiña ene Aitac. [27] Oraintche ene arima altaratua da; eta cer erranen dut? Aita, salba naçaçu oren huntaric; ordean hortaracotz ethorri içan naiz oren huntarat. [28] Aita, glorifica çaçu çure icena". Ethorri içan cen bada boz bat cerutic: "Ja glorificatu dut eta berriz ere glorificatuco dut". [29] Eta han cen jendetzeac eta habarrotsa aditu çuenac cioen igortciria eguin cela. Bertcec berriz cioten: "Aingueru bat mintçatu çayoque". [30] Ihardetsi içan çuen Jesusec eta erran: "Ez da ene gatic boz hori ethorri, bainan bai çuen gatic. [31] Orai da munduaren jugeamendua; orai doha munduaren princea camporat arthiquia içaterat. [32] Eta ni goititua içanen naicenean, lurretic guciac thiratuco ditut ene ganat. [33] Hori erraten çuen bada adiaracitceco cer heriotcez hill behar çuen. [34] Ihardetsi içan cioen populuac: "Guc aditu içan dugu leguetic Christoc bethicotz egon behar duela, eta nolatan dioçu çuc: Guiçonaren Semeac goratua içan behar du? Nor da Guiçonaren Seme hura?". [35] Erran çaroen bada Jesusec oraiño: "Oraino aphur bateco arguia çuequien da. Ibill çaitezte arguia duçueiño, illhunbeèc atceman ez çaitçatentçat. Illhunbean dabillanac ez daqui norat dohan. [36] Arguia duçueino sinhetx çaçue arguian, arguiaren umeac içan çaiteztentçat. Horiec erran cituen Jesusec eta guero goan cen eta gorde citçayen.

[37] Ordean hambat miracuillu eguin çuen arren hequien aitciñean, ez çuten sinhexten haren baitan, [38] Isaias profetaren erran hau compli cedintçat: "Jauna, norc sinhetxi içan du guri erraten aditu darocutena?[26] Eta Jaunaren bessoa nori eçagutaraci çayo?". [39] Hargatic ecin sinhetx ceçaqueten Isaiasec oraino erran içan duenaren arauera: [40] "Itsutu ditu horien beguiac eta gogortu içan du horien bihotça, icus ez deçaten beguiz eta compreni ez deçaten bihotcez eta comberti ez daitecen eta senda ez detçadan". [41] Horiec ditu erran Isaiasec, icussi içan duenean haren gloria eta mintçatu içan denean hartaz. [42] Hala ere, bada, principaletaric hainitcec ere sinhetxi içan çuten haren baitan; ordean pharisauen gatic ez ciren

26. Lehen (Lc. X, 16) hau irakurri dugu: "Çuec aditcen çaituztenac ni aditcen nauque". *Aditu*-k *nor-nork*, alegia. Hemen aldiz "guri erraten aditu" daukagu. Ba du honek zerrikusirik agian beste bi haiekin: Lc. XXIII, 8 eta Jo. V, 19. Leizarragak Vulgataren "quis credidit auditui nostro?", errazturik honela itzuli du: "norc sinhetsi vkan du gure hitza...?".

declaratcen, sinagogatic camporat eman cetçaten beldurrez; [43] maiteago çuten ecen guiçonen ganic heldu den gloria ecen ez Jaincoa ganic heldu dena.

[44] Jesusec, bada, altchatu çuen boça eta erran: "Ene baitan sinhexten duenac ez du ene baitan sinhexten, bainan bai ni igorri içan nauena baitan. [45] Eta ni icusten nauenac icusten du ni igorri içan nauena. [46] Ni, cein bainaiz arguia, mundurat ethorri içan naiz, ene baitan sinhexten duena ilhunbeètan egon ez dadintçat. [47] Baldinetariac nihorc aditcen baditu ene hitçac eta ez hec goardatcen, ez dut nic hura jugeatcen; ecen ez naiz ethorri mundua jugeatcea gatic, aitcitic bai mundua salbatcea gatic. [48] Ni arbuyatcen nauenac eta ene hitçac errecibitcen ez dituenac, baduque bere jugea; nic erran içan ditudan gaucec berec jugeatuco duquete azquen egunean. [49] Ceren ni ez bainaiz neure baitaric mintçatu; baiñan ni igorri içan nauenac, Aitac berac, exlegitu içan darot cer erran behar dudan eta certaz mintçatu behar dudan. [50] Eta badaquit haren meçua bicitce eternala dela. Nic erraten ditudanac, beraz, ene Aitac niri erran darozquidan beçala erraten ditut.

XIII. Cap.

[1] Bazco bestaren aitciñean, baitceaquien Jesusec ethorri cela haren orena iragateco mundu huntaric Aita ganat, nola maitatu baitcituen bereac, munduan cirenac, fiñeraiño maitatu içan ditu. [2] Eta affalondoan, deabruac ja issuri baitçuen Judas Iscariote Simonen semearen bihotcean chedea hura trahitceco, [3] baitceaquien Jesusec gauça guciac eman ciotçala Aitac escuetarat eta Jaincoa ganic ilkhi cela eta Jaincoa ganat ciohala, [4] altchatu cen mahaiñetic, utci cituen bere bestimendac eta harturic lonyera bat, guerricatu cen hartaz. [5] Guero emanic ura baciña batetarat, hassi cen dizcipuluen oiñac garbitcen eta guerritic çuen lonyeraz chukhatcen. [6] Ethorri cen bada Simon Piarresen ganat, baiñan Piarresec erran cioen: "Jauna, çuc niri oiñac garbi?". [7] Ihardetsi cioen Jesusec eta erran: "Nic cer eguiten dudan çuc ez daquiçu orai; jaquinen duçu ordean guerorat". [8] Erraten dio Piarresec: "Seculan ez darozquidatçu oiñac garbituco". Ihardetsi cioen Jesusec: "Baldinetariac garbitcen ez baçaitut, ez duçu içanen enequien parteric". [9] Orduan erran cioen Simon Piarresec: "Jauna, ez choilqui ene oiñac, baiñan escuac ere eta burua". [10] Erraten dio Jesusec: "Ja garbitua denac ez du beharric oiñac garbitceco baicen, bainan da gucia chahu; eta çuec chahu çarete, ordean ez guciac". [11] Baceaquien ecen nor cen hura trahituco çuena; hargatic erran çuen: Ez çarete guciac chahu.

[12] Garbitu cituen ondoan, bada, hequien oiñac eta hartu bere bestimendac, jarri cen berriz ere mahaiñean eta erran çaroen: "Othe daquiçue cer eguin darotçuedan? [13] Çuec deithtcen nauçue ni Naussia eta Jauna, eta ungui erraten duçue, hala naiz ecen. [14] Baldinetariac, beraz, garbitu içan badarozquitçuet oiñac çuei nic, Jauna eta Naussia naicelaric, çuec ere halaber garbitu behar diotçatçue oiñac batac bertceari. [15] Exemplua eman darotçuet ecen, nola ere nic çuei eguin baidarotçuet, eta çuec ere hala eguin deçaçuen gatic. [16] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Ez da cerbitçaria handiago bere naussia baiño, ez eta apostolua hura igorri içan duena baiño. [17] Baldin horiec badaquizquitçue, dohatsu içanen çarete, baldin ordean eguiten baditutçue.

[18] Ez naiz mintço çuec guciez; badaquit nic cein ditudan mereci [27]; baiñan complitua behar du içan Escrituraco erran hunec: Enequien oguia jaten hari denac altchatuco du ene contra bere oindagora. [19] Oraidanic darotçuet erraten, gauça eguin ditequen baiño lehen, eguin ditequenean sinhetx deçaçuen ni naicela.

27. *Bereci* beharrean hori idatzi du: ik. Jo. XV, 19; Vulgatak "quos elegerim".

[20] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Nic igorri duquedana errecibitcen duenac, ni nau errecibitcen; ni errecibitcen nauenac berriz, du errecibitcen ni igorri içan nauena".

[21] Horiec erran ondoan, altaratua içan cen Jesus bere barrenean eta declaratu cen agueriqui eta erran çuen: "Eguiaz eguiaz darotçuet erraten çuetaric batec trahituco nauela". [22] Beha cegozcon bada elkharri dizcipuluac, dudetan içanez ceiñetaz mintço othe cen. [23] Eta dizcipuluetaric bat Jesusec maite çuena, baitcegoen etçana Jesusen bulharren alderat, [24] eguin cioen huni kheiñu Simon Piarresec eta erran: "Nortaz mintço othe da?". [25] Harc, bada, Jesusen bulharren gaiñerat bere burua etçanic, erran cioen: "Jauna, nor othe da haiña hura?". [26] Ihardetsi cioen Jesusec: "Haiña da nic oguia bustiric emanen dioquedana". Eta oguia bustiric eman cioen Judas Iscariote Simonen semeari. [27] Judassec hura jan çuenecotz, sarthu cen Satana haren baitan eta erran cioen Jesusec: "Eguin gogo duçuna eguiçu fitetzenerat". [28] Ordean mahaiñean cirenetaric batec ere ez çuen comprenitu certarat erran içan cioen hori. [29] Batçuc ecen uste çuten, nola Judassec baitçuen moltsa, erran içan cioela Jesusec eros cetçala besta egunecotçat behar cituztenac edo ezberen pobreei cerbait eman cioçatela. [30] Judas bada pocin hura hartu eta ilkhi cen berehala; eta gaua cen ere.

[31] Hura ilkhi cenean, erran çuen Jesusec: "Orainche glorificatu da Guiçonaren Semea eta Jaincoa da glorificatu haren baitan. [32] Bãdin Jaincoa glorificatua bada haren baitan, halaber Jaincoac ere hura glorificatuco du bere baitan, eta lauster du glorificatuco. [33] Ene haur maiteac, oraiño aphur bateco çuequien naiz. Ene bilha ibillico çarete, eta juduei erran içan diotedan beçala: Ni nohan lekhurat çuec ecin çathozquete, hala erraten darotçuet çuei ere orai presentean. [34] Manu berri bat ematen darotçuet, cein baida, elkhar maita deçaçuen; nic çuec maitatu çaituztedan beçala, çuec ere maita deçaçuen batac bertcea. [35] Hortan eçagutuco dute guciec ene dizcipuluac çaretela, baldin amudio baduçue elkharren ganat".

[36] Erraten dio Simon Piarresec: "Jauna, norat çohaz othe?". Ihardetsi cioen Jesusec: "Ni nohan lekhurat ecin jarraiq çaiquizquet orai; ordean jarraiquico çaizquit guero ondoan". [37] "Jauna", diotsa Piarresec, "cergatic ecin jarraiq naquiqueçu orai? Ene bicia emanen dut çuretçat". [38] Ihardetsi cioen Jesusec: "Çuc emanen duçula çure bicia enetçat? Cin cinez darotçut erraten: ez du jonen [28] oilharrac, non ez bainauçu arnegatuco hiruretan".

28. Hemen ere *jonen* dio: ikus Mc. XIV, 27.

XIV. Cap.

[1] "Ez dadillala altara çuen bihotça; sinhexten duçue Jaincoa baitan, ene baitan ere sinhetx çaçue. [2] Ene Aitaren etchean hainitz egoitça dire. Bertcela erranen narotçuequen banohala çuei lekhua preparatcerat. [3] Eta goan naitequenean eta lekhua preparatu darotçuequedanean, berriz ethorrico naiz eta hartuco çaituztet ene ganat, ni naitequen toquian çuec ere içan çaiteztentçat. [4] Eta ni norat nohan badaquiçue eta bidea badaquiçue".

[5] Erraten dio Thomasec: "Jauna, ez daquigu eta norat çohacen, eta bidea nondic jaquin ahal deçaquegu?". [6] Erraten dio Jesusec: "Ni naiz bidea eta eguia eta bicitcea; nihor ez da ethortcen Aita ganat nitaz baicen. [7] Baldinetariac eçagutu baninduçue ni, ene Aita ere eçagutuco bide cinduten; eçagutuco duçue bada lauster, eta ja icussi ere duçue".

[8] Erraten dio Philipec: "Jauna, eracuts dieçaguçu çure Aita eta hori asqui dugu". [9] Ihardetsi cioen Jesusec: "Hambat dembora du çuequien naiçela eta ez nauçue eçagutu? Philipe, ni icusten nauenac icusten du ene Aita ere. Nola dioçu çuc: eracuts dieçaguçu çure Aita? [10] Ez duçue sinhexten ni Aita baitan naicela eta Aita ene baitan dela? Nic erraten darozquitçuedanac ez darozquitçuet ene baitaric erraten, alabaiñan ene Aitac, ene baitan dagoenac berac, eguiten ditu ene obrac. [11] Ez duçue sinhexten ni Aita baitan naicela eta ene Aita ene baitan dela? Bederen eguiten ditudan obren beren gatic ere sinhetx çaçue. [12] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: ene baitan sinhexten duenac, nic eguiten ditudan obrac, harc ere ditu eguinen eta are handiagoac ere ditu eguinen, ceren ni Aita ganat bainoha. [13] Eta cer ere galdetuco baidioçue Aitari ene icenean, eta hura eguiñen dut, glorificatua içan dadintçat Aita Semearen baitan. [14] Baldinetariac cerbait galdetcen badarotaçue ene icenean, hura eguinen dut. [15] Baldin ni maite banauçue, ene manamenduac beguiratçatçue; [16] eta nic othoiztuco dut Aita eta bertce consolatçaille bat emanen darotçue, egon dadintçat çuequien bethierecotz: [17] Izpiritu eguiazcoa, munduac ecin errecibi deçaquena, cergatic ez baidu icusten eta ez baidu eçagutcen. Çuec ordean eçagutuco duçue, ceren çuen baitan egonen baida eta çuequien içanen baida. [18] Ez çaituztet çurtz utcico; ethorrico naiz çuen ganat. [19] Oraiño aphur bat eta munduac ez nauque icussico; çuec ordean icussico nauçue, cergatic bicia içanen bainaiz eta çuec ere biciac içanen baitçarete. [20] Egun hartan çuec eçagutuco duçue ni Aita baitan naicela, eta çuec ene baitan eta ni çuen baitan. [21] Ene manamenduac daquizquiena eta beguiratcen dituena da ni maitatcen nauena. Berriz ni maitatcen nauena içanen da maitatua ene Aitaz eta nic ere maitatuco dut haiña eta aguertuco diot ene burua".

[22] Erran cioen Judassec, ez Iscariote harc: "Jauna, nondic heldu da, aguertuco baidarocuçu guri ceure burua eta ez munduari?". [23] Ihardetsi cioen Jesusec eta erran: "Baldin nihorc maitatcen banau ni, ene hitça beguiratuco du eta ene Aitac maitatuco du haiña, eta haren ganat ethorrico gare eta haren baitan gure egoitça eguinen dugu. [24] Ni maite ez nauenac ene erranac ez ditu eguiten; bada aditu içan duçuen hitça ez da enea, baiñan bai ni igorri içan nauen Aitarena. [25] Gauça hauc erran darozquitçuet oraiño çuequien nagoela. [26] Consolatçaillea ordean, Aitac ene icenean igorrico duen Izpiritu Saindua, içanen da gauça guciac iracatsico darozquitçuena; harc ohartaracico çaituzte nic erran darozquitçuedan guciez. [27] Baquea darotçuet uzten, ene baquea darotçuet ematen; ez darotçuet munduac ematen ohi duen beçala nic ematen çuei. Ez bedi altara çuen bihotça, eta ez ici. [28] Aditu duçue nola erran darotçuedan: Banoha eta heldu naiz berriz çuenganat. Baldin ni maite baninduçue, atseguin cinduquete, ceren nohan Aita ganat; cergatic Aita handiago baida ni baiño. [29] Bada orai darotçuet erraten gauça eguin dadin baiño lehen, eguin ditequenean sinhetx deçaçuentçat. [30] Gaurgoro ez naiz hainitz mintçatuco çuequien; heldu da ecen mundu huntaco princea eta ez baidu icusquiçunic ene baitan. [31] Baiñan eçagut deçantçat munduac maite dudala nic ene Aita eta nola manatu içan baidarot Aitac, eta hala eguiten dudala, altcha çaitezte, gohacen hemendic".

XV. Cap.

[1] "Ni naiz mahasti eguiazcoa eta ene Aita da mahastiçaina. [2] Ene baitan fruitu ekhartcen ez duen aihen gucia khenduco du eta fruitu ekhartcen duen gucia garbituco du, fruitu guehiago ekhar deçan gatic. [3] Ja çuec garbiac çarete nic erran darozquitçuedan hitcen gatic. [4] Egon çaitezte ene baitan eta ni naiz egonen çuen baitan. Aihenac ecin ekhar deçaquen beçala fruituric bere baitaric, non ez dagoen jossia mahats ondoari, hala çuec ere ecin ekhar deçaqueçue, non ez çaudezten jossiac niri. [5] Ni naiz mahats ondoa, çuec aihenac. Nor ere baidago ene baitan eta ceinen baitan bainago ni, harc ekhartcen du fruitu hainitz, ceren ni gabe deussere ecin baidadiqueçue. [6] Baldin norbait ene baitan ez badago, arthiquia içanen da camporat chirmendua beçala eta ihartuco da eta bilduric emanen dute suan eta erreco da. [7] Baldinetariac egoten baçarete ene baitan eta ene hitçac çuen baitan badaudez, nahi duçuen gucia galdetuco duçue eta eguinen çaitçue. [8] Huntan diteque glorificatua ene Aita, fruitu hainitz ekhar deçaçuen eta eguin çaitezten ene dizcipulu. [9] Ene Aitac ni maitatu içan nauen beçala, nic ere çaituztet çuec maitatu. Egon çaitezte ene amudioan. [10] Baldin ene manamenduac beguiratcen baditutçue, egonen çarete ene amudioan, hala nola nic ere ene Aitaren manamenduac baiditut beguiratu eta bainago haren amudioan. [11] Horiec erran içan darozquitçuet, ene atseguina içan dadintçat çuen baitan eta çuen atseguina içan dadin complia.

[12] Hauche da ene manamendua: maita deçaçuen elkhar, nic çuec maitatu çaituztedan beçala. [13] Amudio handiagoric ez diteque bere bicia ematea baino bere adisquideentçat. [14] Çuec ene adisquideac çaitezquete, baldin eguiten baditutçue nic manatcen darozquitçuedanac. [15] Hemendic harat ez çaituztet deithuco cerbitçariac; ceren cerbitçariac ez baidaqui cer eguiten duen haren naussiac. Baiñan deithu çaituztet adisquideac, ceren ene Aita ganic aditu içan ditudan guciac iracatsi baidarozquitçuet cuei. [16] Ez nauçue çuec ni hautatu, bainan nic çaituzte tçuec hautatu eta eçarri, ibill çaitezten gatic eta fruitu ekhar deçaçuen gatic eta çuen fruituac iraun deçan gatic, cer ere galdetuco baidioçue ene Aitari ene icenean, eta hura eman dieçaçuentçat. [17] Nic çuei exlegitcen darotçuedana da, maita deçaçuen elkhar.

[18] Baldinetariac munduac gaitxesten baçaituzte, jaquin çaçue çuec baiño lehen ni gaitxetsi nauela. [19] Baldin munduco içan baciñete, munduac haren citequena maitatuco çuen; ceren ordean munduco ez çareten, aitcitic nic çaituztedan bereci mundutic, horren gatic çaituzte higuin munduac. [20] Orhoit çaitezte nic erran içan

darotçuedan hitçaz: Ez da cerbitçaria bere naussia baiño handiago. Baldin ni persecutatu içan banaute, çuec ere persecutatuco çaituzte; baldin ene erranac eguin badituzte, çuenac eguinen dituzte. [21] Ordean horiec guciac eguiñen darozquitçue ene icenaren gatic; ceren ez baidute eçagutcen ni igorri içan nauena. [22] Baldin ethorri ez banintz ni eta mintçatu ez banintçaye, ez luquete duten bekhatua; orai ordean ezencusaric ez dute bere hobenaz. [23] Ni higuin nauenac ene Aita ere higuin du. [24] Baldin eguin ez banitu horien artean obra batçu, nihorc bertcec eguin içan ez dituenac, ez luquete duten bekhatua; orai ordean icussi içan dituzte eta naute higuin, eta bai ene Aita ere. [25] Compli dadintçat erran hau, horien leguean escribatua dena; Gaitxetsi naute nic mereci gaberic. [26] Dathorrenean ordean nic Aitaren galtçarretic igorrico darotçuedan consolatçaillea, Izpiritu eguiazcoa, cein heldu baida Aita ganic, harc lekhucotassuna errendatuco du nitaz, [27] eta çuec ere lekhucotassuna errendatuco duçue, ceren haste hastetic enequien baitçarete".

XVI. Cap.

[1] "Gauça horietaz natçaitçue mintçatu escandalisa ez çaitezten gatic. [2] Sinagoguetaric khenduco çaituzte; alabaiñan ethorri da ordua, çuec hillaracico çaituztenec usteco baidute endreçu eguiten dioquetela Jaincoari. [3] Eta horiec darozquitçuete eguiñen, ceren ez baidute eçagutcen ene Aita, ez eta ni ere. [4] Baiñan horietaz mintçatu natçaitçue, dathorquenean horien muga orhoit çaitezten gatic erran içan darozquitçuedala. [5] Horiec ordean hastetic ez darozquitçuet erran, ceren çuequien bainintcen. Orai banoha ni igorri içan nauena ganat eta çuetaric nihorc ez darot galdeguiten: norat çohaz? [6] Baiñan ceren horietaz mintçatu içan natçaitçuen, tristeciaz bethe da çuen bihotça. [7] Hala ere erraten darotçuet nic eguia: çuen probetchua da ni nohan; ecen baldin ni goaten ez banaiz, consollatçaillea[29] ez da ethorrico çuen ganat; baldin ordean goaten banaiz, igorrico darotçuet nic. [8] Eta hura dathorquenean, bentçutuco duque mundua bekhatuaren gatic, justiciaren gatic eta jugeamenduaren gatic. [9] Bekhatuaren gatic, ceren ez duten sinhetxi ene baitan. [10] Justiciaren gatic berriz, ceren ni ene Aita ganat bainoha, eta ez bainauçue icussico guehiago. [11] Eta jugeamenduaren gatic, ceren mundu huntaco princea ja jugeatua baida. [12] Oraiño hainitz gauça badut çuei errateco, baiñan ecin jassan detçaquetçue orai. [13] Dathorquenean ordean Izpiritu eguiazco hura, iracatsico darozquitçue harc eguia guciac; ez da ecen mintçatuco bere baitaric, bainan cer ere aditu baiduque, eta hura du erranen, eta eçagutaracico darozquitçue ethortceco direnac. [14] Harc nau ni glorificatuco, cergatic ene denetic baidu errecibituco eta eçagutuco[30] baidarotçue. [15] Ene Aitac duen gucia enea da; horren gatic erran dut ene denetic duela errecibituco eta eçagutaracico darotçuela. [16] Dembora gutiric barnean ez nauçue guehiago icussico eta handic aphur baten buruan berriz icussico nauçue, ceren bainoha ene Aita ganat".

[17] Cioten, bada, haren dizcipuluetaric cembaitec elkharren artean: "Cer erraten darocu hori: dembora gutiric barnean ez nauçue icussico eta dembora gutiric barnean berriz icussico nauçue eta ene Aita ganat bainoha? [18] Cioten, bada: "Cer erran nahi othe du dembora gutiric barnean dioen hortaz? Ez dugu comprenitcen cer erraten duen".

[19] Eçagutu çuen Jesusec interrogatu nahi çuquetela eta erran çaroen: "Elkharri galdez çagozcote, ceri darrayoela erran othe dudan: dembora gutiric barnean ez

29. *Consola-* aski litzateke: ikus aurreko kap. 26. eta abar.
30. Garbi dago *eçagutaracico* behar zuela idatzi. Ikus hurrengo bertsotxoa (15).

nauçue icussico eta dembora gutiric barnean berriz nauçue icussico. [20] Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Nigar eta auhen eguiñen duçue çuec; mundua berriz alegueratuco da. Çuec bada tristatuco çarete; ordean çuen tristecia gambiatuco da bozcariotarat. [21] Emaste batec erdi behar duenean soffritcen du, ceren ethorri baida haren muga; erdi denean ordean seme batez, ez da guehiago orhoitcen bere miñez bozcarioren fuertsaz, ceren jayo den guiçon bat mundurat. [22] Çuec ere, bada, orai eguiazqui tristecian çarete; berriz ordean icussico çaituztet eta alegueratuco da çuen bihotça eta çuen bozcarioa nihorc ez darotçue khenduco. [23] Orduan ez darotaçue deussez galderic eguiñen. Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: Baldin cerbait escatcen badioçue ene Aitari ene icenean, emanen darotçue. [24] Orai arteraiñocoan ez duçue escatu deussere ene icenean. Galde çaçue eta içanen duçue, çuen bozcarioa içan dadintçat complia. [25] Gauça horiec erran darozquitçuet paraboletan; heldu da dembora guehiago paraboletan mintçatuco ez natçaitçuena; aitcitic mintçatuco natçaitçue clarqui ene Aitari behatcen çaizcon gaucez. [26] Orduan duçue galdetuco ene icenean eta ez darotçuet erraten othoiztuco dudala nic ene Aita çuentçat, [27] ecen ene Aitac berac çaituzte çuec maite, ceren çuec ni maite nauçuen eta sinhetxi duçuen Jaincoa ganic ilkhi naicela. [28] Ilkhi naiz Aita ganic eta ethorri içan naiz mundurat; uzten dut berriz mundua eta banoha Aita ganat".

[29] Erraten diote bere dizcipuluec: "Orai clarqui mintço çare eta hitz estaliric batere ez duçu erraten. [30] Orai eçagutcen dugu badaquizquitçula gauça guciac eta ez duçula mengoa nihorc interroga çaitçan; horren gatic dugu sinhexten Jaincoa ganic ilkhi çarela". [31] Ihardetsi içan çaroen Jesusec: "Orai duçue sinhexten? [32] Huna non heldu den dembora, eta ja ethorri ere da, barrayatuco baitçarete cein bere toquitarat eta neroni bakharric utcico bainauçue; baiñan ez naiz bakharric, ceren ene Aita enequien baida. [33] Gauça hauc erran darozquitçuet ene baitan içan deçaçuentçat baquea. Munduan pena hainitz içanen duçue jassateco, bainan duçuen gogoa on; nic garaitu dut mundua".

XVII. Cap.

[1] Jesusec horiec erran eta altchaturic beguiac cerurat erran çuen: "Aita, ethorri da ordua; glorifica çaçu çure Semea, çure Semeac çu glorifica çaitçantçat, [2] hala nola eman baidioçu bothere guiçon gucien gaiñean, çuc hari eman diotçatçun guciei harc eman dioçatentçat bicitce eternala. [3] Bicitce eternala ecen hau da: eçagut çaitçaten çu eguiazco Jainco bakharra eta Jesus Christo, çuc igorri içan duçuna. [4] Nic çu glorificatu içan çaitut lurraren gainean; akhabatu dut obra, eguiteco eman darotaçuna. [5] Beraz orai glorifica naçaçu çuc ere ni, ene Aita, çure baitan gloria hartaz, ceiña içan baidut çure baitan mundua creatu içan den baiño lehen.

[6] Eçagutaraci daroet çure icena çuc niri mundutic eman darozquidatçun guiçonei. Çureac ciren eta niri darozquidatçu eman eta çure errana eguin dute. [7] Orai dute eçagutcen niri eman darozquidatçun guciac çure ganic direla, [8] Ceren niri eman darozquidatçun hitçac eman baidaroztet nic hei. Errecibitu içan dituzte eta eçagutu dute eguiazqui çure ganic ilkhi naicela eta sinhetxi dute çuc igorri nauçula. [9] Nic hequientçat dut othoitz eguiten. Ez dut othoitz eguiten munduarentçat, baiñan bai çuc niri eman darozquidatçunentçat, ceren çureac baidire. [10] Eta ene diren guciac çure dire eta çureac dire ene; eta glorificatua naiz hetan.

[11] Gaur guehiago ez naiz munduan; ordean hauc munduan dire eta ni çure ganat heldu naiz. Aita saindua, beguira çatcitçu çure icenean niri eman içan darozquidatçunac, içan daitecentçat gauça bat eta bera, gu garen beçala. [12] Hequiequien nintcenean beguiratcen nituen nic çure icenean. Niri eman içan darozquidatçunac beguiratu içan ditut eta nihor hetaric ez da galdu içan, galdu beharzco [31] umea baicen, Escritura compli cedintçat. [13] Orai bada çure ganat heldu naiz; eta gauça hauc ditut erraten munduan, içan deçatentçat ene bozcarioa complia bere baitan. [14] Nic eman daroet çure hitça eta munduac ditu gaitzetsi, ceren ez diren munduco, hala nola ni ere ez bainaiz munduco. [15] Ez çaitut othoizten khen detçatçun mundutic, baiñan beguira detçatçun gaitzetic. [16] Ez dire munduco, hala nola ni ere ez bainaiz munduco. [17] Sanctifica çatçu [32]; çure hitça eguia bera da. [18] Nola ere çuc ni igorri bainauçu mundurat, nic ere hala igorri içan ditut horiec mundurat. [19] Horientçat naiz neroni sanctificatcen, horiec berac ere içan daitecentçat sanctificatuac eguian.

31. Hala dio.
32. *Çatcitçu* arruntaren ondoan ageri da noizbehinka: ik. Lk. XIV, 23.

[20] Ez dut ordean horientçat choilqui othoitz eguiten, baiñan oraiño hainentçat ere, ceiñec sinhetxico baidute ene baitan, horien hitça adituric. [21] Guciac bat içan daitecentçat, hala nola çu, Aita, ene baitan baitçare eta ni bainaiz çure baitan; hec ere içan daitecen bat gure baitan, sinhetx deçantçat munduac çuc nauçula ni igorri. [22] Eta nic eman daroet hei parte çuc niri eman içan darotaçun gloriatic, içan daitecentçat gauça bat eta bera, gu ere gauça bat eta bera garen beçala. [23] Ni hauquien baitan naiz eta çu çare ene baitan, içan daitecentçat perfetqui bat eguiñac, eta eçagut deçantçat munduac çuc nauçula ni igorri, eta maitatu içan ditutçula hauc, neroni maitatu nauçun beçala. [24] Ene Aita, nahi dut ni non ere bainaiz, eta han içan daitecen enequien çuc niri eman içan darozquidatçunac, icus deçatentçat çuc niri eman darotaçun gloria, ceren maitatu bainauçu munduaren creacionea baiño lehendanic. [25] Aita justua, munduac çu ez çaitu eçagutu; ordean nic eçagutu çaitut eta hauc eçagutu dute çuc nauçula ni igorri. [26] Nic ere eçagutaraci daroet çure icena eta eçagutaracico ere; çuc ni maitatu nauçun amudioa içan dadin hauquien baitan eta ni ere içan nadin hauquien baitan".

XVIII. Cap.

[1] Horiec erran ondoan, ilkhi cen Jesus bere dizcipuluequien eta goan cen Cedrongo ibayaz bertce alderat, non baitcen baratce bat, ceinetan sarthu baitcen bera eta bere dizcipuluac. [2] Baceaquien lekhu hura Judassec ere, ceiñec trahitcen baitçuen, ceren maiz içan baitcen harat Jesus bere dizcipuluequien. [3] Judas, bada, harturic soldadu tropela bat eta aphez handien baitaric eta pharisauen ganic jende batçu, ethorri içan cen harat lanternequien, çuciequien eta armequien. [4] Bizquitartean Jesusec, baitceaquizquien haren gaiñean guerthatu behar ciren guciac, hartu çuen aitciñerat eta erran çaroen: "Noren bilha çabiltçate?". [5] Ihardetsi cioten hec: "Jesus Nazarethecoaren". Erraten daroe Jesusec: Ni naiz". Judas hura trahitcen çuena ere hequiequien cen. [6] Erran çaroenecotz bada Jesusec, Ni naiz, abiatu ciren guibelerat eta erori lurrerat. [7] Berriz ere galdeguin çaroen oraiño: "Noren bilha çabiltçate?". Eta hec erran cioten: "Jesus Nazarethecoaren". [8] Ihardetsi çaroen Jesusec: "Erran darotçuet ni naicela. Baldinetariac, beraz, ene bilha baçabiltçate, utçatçue hauc goaterat". [9] Complitua içan cedintçat erran içan çuen hitça: Niri eman içan darozquidatçunetaric batere ez dut galdu. [10] Simon Piarresec, bada, baitçuen ezpata bat, athera çuen, jo çuen hartaz aphez handiaren muthill bat eta ebaqui cioen escuiñeco beharria; eta çuen icena muthill harc Malchus. [11] Baiñan erran cioen Jesusec Piarresi: "Emaçu çure ezpata maguiñean; ala ez dut edanen ene Aitac eman darotan calixa?" [12] Soldaduec, bada, eta hequien capitainec eta juduec igorriricaco jendeec hartu içan çuten Jesus eta amarratu.

[13] Eraman çuten Anasen ganat lehenic; cen ecen Caiphasen aitaguinarraua, cein baitcen urthe hartaco aphez handia. [14] Cen, bada, Caiphas conseillu eman çaroena juduei, on cela guiçon bakhar bat hill cedin populuarentçat. [15] Jarraiqui citçayon Jesusi Simon Piarres eta bai bertce dizcipulu bat ere; eta dizcipulu hura aphez handiaren eçaguna baitcen, sarthu içan cen Jesusequien aphez handiaren etchean. [16] Piarres ordean campoco aldean baitcegoen, ilkhi cen bertce dizcipulu hura, aphez handiaren eçaguna, eta atheçain cegoen nescatoari erranic, sarraraci içan çuen Piarres. [17] Erraten dio, bada, Piarresi nescato atheçain cegoenac: "Ez çare çu ere guiçon horren dizcipuluetaric?". Ihardesten dio harc: "Ez naiz hetaric". [18] Ceudecen muthillac eta Jesus hartu içan çuten jendeac su bazterrean, ceren hotz hari baitcen, eta Piarres ere hequiequien cegoen berotcen.

[19] Aphez handiac, bada, galdeguin cioen Jesusi bere dizcipuluez eta bere doctrinaz. [20] Ihardetsi içan cioen Jesusec: "Ni aguerian mintçatu natçayo mun-

duari; nic bethi iracatsi içan dut sinagogan eta templuan, ceiñetarat judutar guciac biltcen ohi baidire, eta guericean deussere ez dut erran. [21] Cergatic niri darotaçu galdeguiten? Galde eguioçute ni aditu içan nautenei, hea cer erran dioquetedan". [22] Horiec erratearequien batean, han ciren officialetaric batec eman cioen macelaco bat Jesusi erraten cioelaric: "Horla dioçu ihardesten aphez handiari?". [23] Ihardetsi içan cioen Jesusec: "Baldin gaizqui mintçatu banaiz, eracuts çaçu cer gaizqui erran dudan; baldin ordean ungui banaiz mintçatu, cergatic nauçu cehatcen?". [24] Eta igorri çuen Annasec estecatua Caiphaz aphez handia ganat.

[25] Cegoen, bada, Simon Piarres chutic berotcen eta cembaitec erran cioen: "Ez othe çare çu ere horren dizcipuluetaric?". Ukhatu çuen harc eta erran: "Ez naiz hetaric". [26] Erraten dio aphez handiaren sehietaric batec, Piarresec beharria ebaqui cioenaren ahaideac: "Ez çaitut nic çu icussi baratceac [33] horrequien?". [27] Berriz ere ordean ukhatu içan çuen Piarresec; eta berehala oillarrac jo çuen.

[28] Eraman çuten, bada, Jesus Caiphas baitaric gobernadorea baitarat; goiça ere cen eta hec ez ciren sarthu palacioan, lohi citecen beldurrez eta Bazcoa jan ceçaqueten gatic. [29] Ilkhi citçayen Pilatus campoco alderat eta erran çaroen: "Cer accusu dakharqueçue guiçon hunen contra?". [30] Ihardetsi cioten hec eta erran: "Baldiñetariac içan ez balitz hau gaixtaguina, ez guinduen equi çure escuetarat emanen". [31] Erran çaroen bada Pilatusec: "Har çaçue cebonec eta çuen leguearen arauera jugea çaçue". Juduec ihardetsi cioten: "Guri ez çaicu cilhegui nihoren hillaracitcea". [32] Compli cedintçat Jesusec erran içan çuena, aditcerat emateco cer heriotcez hill [34] cen.

[33] Sarthu cen, bada, Pilatus berriz palacioan eta, erakharriric Jesus, erran içan cioen: "Çu çare Juduen erreguea?". [34] Ihardetsi cioen Jesusec: "Ceure baitaric hori erraten othe duçu, ala bertcec erran othe darotçute nitaz?". [35] Erran cioen berriz Pilatussec: "Nasqui ni judutarra bainaiz? Çure nacioneac eta aphecen princeèc çaituzte eman ene escuetarat; cer eguin duçu?". [36] Ihardetsi içan cioen Jesusec: "Ene erresuma ez da mundu huntacoa; baldin mundu huntaco balitz ene erresuma, ene jendeac guduca litezque ni ez uzteco juduen escuetan erortcerat; ordean ene erresuma ez da hemengoa". [37] Orduan erran içan cioen Pilatussec: "Beraz erregue çare çu?". Ihardetsi cioen Jesusec: "Ceronec dioçu erregue naicela; ni hortacotz sorthu içan naiz eta ethorri mundurat, lekhucotassuna errendatcecotçat eguiaren alde [35]; eguiaren alde ditequen guciac entçuten du ene boça". [38] Erraten dio Pilatussec: "Cer da eguia?". Eta hori erran eta, ilkhi cen bigarrenean juduetarat eta erran çaroen: "Nic ez dut aurkhitcen hunen baitan condenacioneco sujetic batere. [39] Baiñan ohicundea baida utz dieçaçuedan criminel bat Bazcoco bestan, nahi duçue larga dieçaçuedan juduen erreguea?". [40] Jarri ciren berriz guciac oihuz erraten çutelaric: "Ez, hori ez, aitcitic bai Barrabas". Cen bada Barrabas ohoin bat.

33. *Baratcean* behar du noski.

34. Hemen *behar* ahaztu zaio idaztea. Leizarragak: "...cer herioz hil behar luen". Vulgatac "...esset moriturus".

35. Hala idatzi du, baina gero badirudi ezabatu eta *eguiari* utzi nahi izan duela.

XIX. Cap.

[1] Orduan, bada, hartu çuen Pilatusec Jesus eta açotaraci çuen. [2] Eta soldaduec eguinic khoroa bat arantce bilhucatuz, eman cioten buruaren gaiñean eta escarlatezco capa batez estali çuten. [3] Guero hurbilduric haren ganat erraten cioten: "Agur, juduen Erreguea". Eta ahutcecoz jotcen çuten. [4] Ilkhi içan cen, bada, berriz ere Pilatus camporat eta erran çaroen juduei: "Huna non ekhartcen darotçuedan camporat, eçagut deçaçuentçat nic ez dudala aurkhitcen hunen baitan hobenic". [5] Ilkhi cen, bada, Jesus çakharquela arantcezco khoroa bat eta escarlatezco bestimenda eta Pilatussec erraten daroe: "Huna guiçona". [6] Icussi içan çutenean aphecen princeèc eta hequien jendeèc, hassi ciren oihuz erraten: "Gurutcefica çaçu hori, gurutcefica çaçu hori". Erraten daroe Pilatussec: "Har çaçue cebonec eta gurutcefica çaçue; ecen nic ez dut aurkhitcen hunen baitan certaz hau condemna". [7] Ihardetsi cioten juduec: "Guc badugu leguea eta leguearen arauera hill behar du, ceren Jaincoaren Semea eguiten baidu bere burua".

[8] Aditu çuenean bada Pilatussec hitz hori, are guehiago cen icitu; [9] eta sarthuric berriz bere palacioan, erran cioen Jesusi: "Nongoa çare çu?". Jesusec ordean errepustaric ez cioen eman. [10] Erraten dio bada Pilatussec: "Niri ez çaizquit mintçatcen? Ez daquiçu bothere badudala çu gurutceficaratcitceco eta bothere halaber çu libratceco?". [11] Ihardetsi cioen Jesusec: "Ez cinduque bothereric ene contra batere, baldin eman içan ez balitçaitçu gaiñetic; hargatic da, beraz, ni çuri libratu nauenaren falta handiagoa". [12] Handic harat Pilatus hura libratu nahiz cebillan; juduac ordean heyagoraz cegozcon ciotsotela: "Baldinetariac hori libratcen baduçu, ez çare Caesaren adisquidea; ecen bere burua erregue eguiten duen gucia Caesaren contra jartcen da".

[13] Pilatusec, bada, aditu cituenean hitz horiec, eraman çuen camporat Jesus eta jarri cen bere tribunalean, grequez Lithostrotos eta hebraicoz Gabbatha erraten dioten lekhuan. [14] Bazcoco sabbathoaren bezpera cen eta seigarren orentsua; eta erraten daroe juduei: "Huna çuen Erregue". [15] Hec berriz oihuz ceudecen: "Khen çaçu hori, khen çaçu, gurutcefica çaçu!". Erraten daroe Pilatusec: "Cuen erregue gurutceficatuco dut?". Ihardetsi cioten aphecen printceèc: "Ez dugu erregueric, Caesarez landan". [16] Orduan, bada, eman çaroen gurutceficatua içateco. Hala hartu çuten Jesus eta eraman çuten.

[17] Eta bere gurutcea çakharquela, ethorri cen Calbaria erraten cioten lekhu hartarat, hebraicoz Golgotha deitcen denerat, [18] ceinetan gurutceficatu baitçuten eta harequien batean bertce bia bi aldetaric, eta Jesus bien erdian. [19] Eguiñaraci

çuen ere Pilatusec escribu bat eta emanaraci gurutcearen gaiñean; eta cen escribatua: Jesus Nazarethecoa, juduen Erreguea. [20] Escribu hori, bada, iracurri çuten judu hainitcec, ceren hurbill baitcen hiritic Jesus gurutceficatu çuten lekhua eta escribatua baitcen hebraicoz, grequez eta latinez. [21] Ciotsaten bada Pilatusi aphecen princeèc: "Ez deçaçula escriba: Juduen Erreguea, baiñan berac erran duela: juduen Erreguea naiz". [22] Ihardetsi çaroen Pilatussec: "Escribatu dudana escribatu duquet".

[23] Soldaduec gurutceficatu içan çutenean Jesus, hartu cituzten haren bestimendac eta eguin cituzten laur parte, soldadu bakhotcharentçat parte bat. Hartu içan çuten halaber haren tunica ere eta, jostura gabecoa baitcen gainetic behera batean ehoa, [24] erran cioten elkharri: "Ez deçagula hauts hori, aitcitic emagun çortherat norentçat içanen den". Complitua içan cedintçat Escriturac erran içan duena: "Partitu içan dituzte ene bestimendac bere artean eta ene arroba eman içan dute çortherat". Horra cer eguin çuten soldaduec.

[25] Ceudecen, bada, gurutcearen aldean Jesusen ama eta haren amaren aizpa Maria, Cleophasen emastea, eta Maria Magdalena. [26] Icussi çuenean Jesusec bere ama eta haren aldean maite çuen dizcipulua, erraten dio bere amari: "Emastea, horra çure semea". [27] Ondoan erraten dio dizcipuluari: "Horra çure ama". Eta ordudanic hartu çuen dizcipuluac bere ganat.

[28] Guero ondoan Jesusec baitceaquien guciac complitu cirela, compli cedintçat Escritura, erran içan çuen: "Egarri naiz". [29] Cen, bada, han jarro bat binagrez bethea, eta soldaduec belogui bat betheric biñagrez eta emanic hyssopa adar batean inguru, ekharri cioten ahorat. [30] Hartu çuenean bada Jesusec biñagrea, erran içan çuen: "Akhabo da". Eta burua beheraturic errendatu çuen izpiritua.

[31] Juduec, bada, ceren cen sabbathoaren bezpera, egon ez citentçat [36] gurutcean gorphutçac sabbatho egunean, egun handi bat cen ecen sabbatho egun hura, othoiztu çuten Pilatus hautsaraz çitçala hequien çangoac eta khenaraz cetçala handic. [32] Ethorri ciren, bada, soldaduac eta hautsi cituzten lehenbicicoaren çangoac eta bai harequien gurutceficatua içan cen bertcearenac ere. [33] Guero ethorri cirenean Jesusen ganat eta icussi çutenean ja hilla cela, ez cituzten hautsi haren çangoac, [34] baiñan soldaduetaric batec dardo batez idequi cioen sahetsa eta berehala ilkhi cen handic odola eta ura. [35] Icussi duenac du errendatcen huntaz lekhucotassuna eta eguiazcoa da haren lekhucotassuna; eta harc badaqui eguia erraten duela, çuec ere sinhetx deçaçuentçat. [36] Gauça horiec ecen eguin içan dire Escritura içan cedin gatic complitua: Heçurric ez dioçue hautsico hari. [37] Eta bertce lekhu batean berriz Escriturac erraten du: Icussico dute cilhatu dutena.

[38] Horien ondoan, bada, escatu cioen Pilatusi Joseph Arimathiacoac, cein baitcen Jesusen dizcipulu, ichillacoa ordean, juduen beldur baitcen, utz cioçala eramaterat Jesusen gorphutça; eta utci cioen Pilatusec. Ethorri cen, bada, eta eraman çuen Jesusen gorphutça. [39] Ethorri cen halaber Nicodeme, Jesusen ganat

36. *Citecentcat* behar luke, agian. Ikus Apost. Eguinc. V, 15.

gauaz lehenago ethorri ohi cena, çakharquela ehun liberen ingurua mirrazco eta aloezco baltsamu batetaric. [40] Hartu çuten, bada, Jesusen gorphutça eta troçatu çuten mihisse oihal batçutan urrin onequien, juduec ohitça duten beçala ehorzteco. [41] Cen, bada, hura gurutceficatua içan cen lekhuan baratce bat eta baratce hartan thomba berri bat, ceiñetan oraino nihor ez baitcen eman içan. [42] Han bada, juduen sabbathoaren bezpera ceren cen eta hurbillean baitcen thomba hura, eçarri çuten Jesus.

XX. Cap.

[1] Sabbathoaren biharamunean Maria Magdalena ethorri cen goiz goicetic eta oraiño arguitu gabe thombarat eta icussi çuen harria sepulturatic khendua. [2] Goan cen, bada, lausterrez Simon Piarresen ganat eta bertce dizcipulu Jesusec maite çuen haren ganat eta erran çaroen: "Eraman dute Jauna sepulturatic, eta ez daquigu non eman duten". [3] Horren gaiñean ilkhi cen Piarres eta bai bertce dizcipulu hura ere, eta goan ciren sepulturarat. [4] Cihoacen, bada, lausterrez biac elkharrequien; ordean bertce dizcipulu hura lausterrago goan cen Piarres baiño eta lehenago arribatu cen thombarat. [5] Eta beheraturic icussi içan cituen mihisseac lurrean, baiñan ez cen sarthu. [6] Ethorri cen, bada, Simon Piarres haren ondotic eta sarthu cen sepulturarat eta icussi cituen oihalac lurrean, [7] eta buruan eman içan cioten oihala ez mihisseèquien eçarria, baiñan beregain apartean plegatua. [8] Orduan, bada, sarthu içan cen dizcipulu lehenago sepulturarat arribatu cen hura ere, eta icussi çuen eta sinhetsi; [9] ez ceaquien ecen oraiño Escriturac eracusten duena: mengoa cela hilletaric bitz cedin. [10] Bihurtu ciren guero dizcipulu hec bere toquitarat.

[11] Maria ordean cegoen sepulturaren campoco aldean nigarrez; hala cegoela, bada, makhurtu cen sepulturarat behatceco. [12] Eta icussi cituen bi aingueru tresna churitan, jarriac bata buru aldean eta bertcea oinetaco aldean, Jesusen gorphutça emana içan cen toquian. [13] Erraten diote hec: "Emastequia, ceri eguiten dioçu nigar?". Ihardetsi çaroen: "Eraman baidute ene Jauna eta ez baidaquit non eman duten". [14] Hori erran eta, itçuli içan cen eta icussi çuen Jesus chutic; ordean ez ceaquien Jesus cela. [15] Erraten dio Jesusec: "Emastequia, ceri eguiten dioçu nigar? Noren bilha çabiltça?". Eta harc ustez ecen baratceçaina cen, erraten dio: "Jauna, baldin çuc eraman baduçu, erran dieçadaçu non eman duçun eta nic eramanen dut". [16] Erraten dio Jesusec: "Maria". Harc berriz itçuliric erraten dio: "Rabboni", erran nahi da, Naussia. [17] Erraten dio Jesusec: "Ez naçaçula uqui, ecen oraino ez naiz igan ene Aita ganat; baiñan çohaz ene anayetarat eta erroçute: Banoha igaterat ene Aita ganat eta çuen Aita ganat, ene Jaincoa eta çuen Jaincoa ganat". [18] Ethorri cen Maria Magdalena erraterat dizcipuluei: "Icussi dut Jauna eta hau erran darot".

[19] Egun hartan berean, cein baitcen astelehena, arratsean dizcipuluac bilduac ceudecen etcheco atheac juduen beldurra gatic çarratuac cirela; ethorri cen Jesus eta eman cen hequien erdian eta erran çaroen: "Baquea dela çuequien". [20] Hori erran eta eracutsi çarozten escuac eta sahetsa. Boztu ciren, bada, dizcipuluac Jauna

icusteaz. [21] Erran çaroen berriz ere: "Baquea dela çuequien. Aitac ni igorri nauen beçala, nic ere igortcen çaituztet çuec". [22] Horiec erran ondoan hatsa arthiqui çaroen eta erran çaroen: "Errecibi çaçue Izpiritu Saindua. [23] Noren ere bekhatuac barkhatuco baiditutçue, eta hei barkhatuco çaizte; eta norenac iduquico baiditutçue, eta hequienac iduquiac içanen dire".

[24] Ordean Thomas, hamabietaric bat, Didime ceritçana, ez cen hequiequien Jesus ethorri içan cenean. [25] Erran cioten bada bertce dizcipuluec: "Icussi dugu Jauna". Baiñan harc erran içan çaroen: "Baldinetariac ez badut icusten haren escuetan itceèn imprençua eta ez badut ematen erhia itceen toquian eta ematen ene escua haren sahetsean, ez dut sinhetxico". [26] Handic çortci egunen buruan, berriz ere dizcipuluac etchean barna ceudecela eta Thomas hequiequien cela, ethorri cen Jesus atheac çarratuac cirelaric eta eman cen hequien erdian eta erran çaroen: "Baquea dela çuequien". [27] Ondoan erraten dio Thomasi: "Ekharaçu hunat çure erhia eta icusatcitçu ene escuac, eta ekharraçu çure escua eta emaçu ene sahetsean; eta ez çaitecela içan sinhetx gogor, bainan bai sinhetxtiar". [28] Ihardetsi cioen Thomasec eta erran: "Ene Jauna eta ene Jaincoa". [29] Erran cioen Jesusec: "Ceren nauçun icussi, Thomas, duçu sinhetxi; dohatsuac ditezque icussi ez dutenac eta sinhetxi dutenac".

[30] Hainitz bertce miracuillu ere eguin içan ditu Jesusec bere dizcipuluen aitciñean, ceiñac ez baidire escribatuac liburu huntan. [31] Baiñan hauc escribatuac içan dire, sinhetx deçaçuen gatic Jesus dela Christo Jaincoaren Semea eta sinhetsiric içan deçaçuentçat bicitcea haren icenean.

XXI. Cap.

[1] Guero ondoan aguertu citçayen berriz Jesus dizcipuluei Tiberiadaco itsassoaren aldean eta huna nola citçayen aguertu: [2] Ciren elkharrequien Simon Piarres eta Thomas, Didime ceritçana, eta Nathanael, cein baitcen Cana Galileacoa, Zebedearen semeac, eta bertceric bia haren dizcipuluetaric. [3] Erraten daroe hei Simon Piarresec: "Banoha arrantçatcerat". Hec erraten diote: "Heldu gare gu ere çurequien". Partitu ciren eta igan ciren barcu batetarat eta gau hartan ez çuten deussere hartu. [4] Goiça ethorri cenean, guerthatu cen Jesus ur basterrean; ez çuten ordean eçagutu dizcipuluec Jesus cela. [5] Erran çaroen bada Jesusec: "Haurrac, ez duçue hor jatecoric?". Ihardetsi cioten hec: Ez equi". [6] Erraten daroe: "Etcha çaçue sarea barcuaren escuineco alderat eta aurkhituco duçue". Etchatu çuten, bada, eta guero ecin cailla [37] ceçaqueten arrain hainitz içanaren fuertsaz. [7] Erran cioen, bada, Jesusec maite çuen dizcipulu harc Piarresi: "Jauna da". Simon Piarresec aditu çuenean Jauna cela, hartu çuen bere arroba, bulhuz gorria cen ecen, eta arthiqui çuen bere burua urerat. [8] Bertce dizcipuluac berriz ethorri ciren barcuan, traiñan çakharquetela sarea arraiñez bethea. Ez ciren ecen urrun leyhorretic, baiñan berrehun bessoren inguruan ahal citezquen. [9] Jautsi cirenean, bada, leyhorrerat aurkhitu cituzten ikhatçac biztuac eta arraiñ bat hequien gaiñean eçarria eta ogui bat. [10] Erraten daroe Jesusec: "Ekharraçue orai hartu ditutçuen arraiñetaric". [11] Igan cen Simon Piarres barcurat eta caillatu çuen sarea leyhorrerat, ehun eta berrogoy eta hamahirur arrain handiz bethea. Eta hambat celaric ere, ez cen hautsi sarea. [12] Erraten daroe Jesusec: "Catozte, bazcal çaitezte". Eta mahaiñean jarri cirenetaric batere ez cen benturatcen hari galdeguiterat: Nor çare çu?, baitceaquiten Jauna cela. [13] Hurbildu cen bada Jesus, hartu çuen oguia eta eman çaroen; eta arraiña ere orobat. [14] Hori cen hirurgarreneco aldia Jesus aguertu citçayena bere dizcipuluei hilletaric biztuz gueroztic.

[15] Bazcaldu cirenean, bada, erraten dio Simon Piarresi Jesusec: "Simon Joannesen semea, maite nauçu hauc nauten baiño guehiago?". Ihardesten dio: "Bai, Jauna, ceronec daquiçu maite çaitudala". Jesusec erraten dio: "Bazca çatcitçu ene bildotsac". [16] Erraten dio berriz ere Jesusec: "Simon Joannesen semea, maite nauçu?". Piarresec ihardetsi cioen: "Bai, Jauna, ceronec daquiçu maite çaitudala". Erraten dio Jesusec: "Bazca çatcitçu ene bildotsac". [17] Erraten dio hirurgarrenean Jesusec: "Simon Joannesen semea, maite nauçu?". Doloratu cen Piarres, ceren

37. Azpiko *traina* ezabaturik, gainean *cailla* idatzi bide du: ikus beheraxeago (11).

erran içan cioen hirurgarrenean: Maite nauçu?, eta erran cioen: "Jauna, çuc badaquizquitçu gauça guciac; badaquiçu maite çaitudala". Jesusec erran cioen: "Bazca çatcitçu ene ardiac.

[18] Eguiaz eguiaz darotçut erraten: Gasteago ciñenean, ceroni guerricatcen ohi ciñen eta ibiltcen cinen nahi cinduen lekhurat; çahartcen çarenean, ordean, hedatuco ditutçu çure escuac eta bertcec çaitu guerricatuco eta eramanen çuc nahi ez duçun lekhurat". [19] Hori, bada, erran içan çuen Jesusec adiaratcitceco cer heriotcez glorificatuco çuen Piarresec Jaincoa. Eta hori erran eta erraten dio: Jarraiq çaquizquit niri". [20] Itçuli baitcen Piarres, icussi çuen Jesusec maite çuen dizcipulu hura ondotic heldu cela, afaitean Jesusen bulharren gaiñean pausatu içan cen hura bera, eta erran cioena: Jauna, nor da çu salduco çaituena? [21] Hau, bada, icussi çuenean Piarresec, erran cioen Jesusi: "Jauna, eta huntaz cer içanen da?". [22] Erraten dio Jesusec: "Horla nahi dut egon dadin, ni ethor naitequen artean; cer dohatçu çuri? Çu jarraiq çaquizquit niri". [23] Goan cen ospea anayen artean dizcipulu hura ez cela hillen. Ordean ez cioen erran Jesusec: Ez da hillen; baiñan, Horla nahi dut egon dadin ni nathorren artean, cer dohatçu çuri?

[24] Dizcipulu hura bera da hautaz lekhucotassuna errendatcen duena, eta hauc escribatu içan dituena; eta badaquigu eguiazcoa dela haren lekhucotassuna. [25] Badire ordean bertce hainitz gauça Jesusec eguin içan dituenac, ceiñac escribatcen balire chehero, uste baidut munduac berac ecin jassan ahal letçaquela hartaracotçat escribatu behar litezquen liburuac.

APOSTOLUEN EGUINCARIAC

I. Cap.

[1] Ene lehenbicico liburuan mintçatu naiz, o Theophile, Jesusec eguin eta iracatsi dituen gauça guciez [2] gure ganic altchatua içan den eguneraiñocoan, bere manuac emanic Izpiritu Sainduaz berac hautatu içan cituen apostoluei, [3] ceinei eracutsi ere içan baidaroe bere burua biciric bere passionearen ondoan seiñale eta frogantça hainitcequien, berrogoi egunez aguertcen citçayelaric eta mintço citçayelaric Jaincoaren Erresumaz.

[4] Guero hequiequien jaten hari cela, manatu çaroen ez citecela ilkhi Jerusalemetic, baiñan egon citecela Aitaren aguintçaren beguira, "ceiña", ciotson, "aditu içan baiduçue ene ahotic; [5] ecen Joannesec eman içan du urezco bathayo bat, ordean çuec errecibituco duçue Izpiritu Sainduaren bathayoa egun gutiric barnean". [6] Han bilduac cirenec, bada, galdeguin içan cioten eta erran: "Jauna, orai bere-estaturaco othe duçu Israelgo erresuma?". [7] Harc ordean erran çaroen: "Ez dagotçue çuei Aitac bere botherean dagozcan demboren eta momentuen eçagutcea. [8] Baiñan errecibituco duçue Izpiritu Sainduaren berthutea, ceiña jautsico baida çuen gaiñerat eta içanen çaizquidate lekhucotçat Jerusalemen, Judea gucian eta Samarian eta lurraren azquen basterreraiño".

[9] Gauça horiec erran ondoan, beguira ceudecela, altchatu cen gorat eta hedoy batec estali çuen hequien beguietaric. [10] Eta nola beguira baitcegozcan cerurat igatean, huna non bi guiçon aguertu citçaizten bere aldean arropa churitan, [11] ceiñec erran ere baitçaroen: "Galileaco guiçonac, certan çaudete cerurat beha? Çuen ganic cerurat altchatua içan den Jesus hori, horlache ethorrico da, cerurat goaten icussi içan duçuen manera berean".

[12] Orduan bihurtu ciren Jerusalemerat Olibetaco daritçan menditic, cein baida Jerusalemeco aldean, sabbatho egun bateco bidean. [13] Eta sarthuric igan ciren sala gora batetarat, ceiñetan baitceudecen Piarres eta Joannes, Jacobe eta Andres, Philipe eta Thomas, Bartholome eta Matheo, Jacobe Alphearen semea, eta Simon Zelotiarra eta Juda Jacoberen anaya. [14] Hauc guciac ceudecen gogo batez othoitz seguituetan emastequiequien batean, Maria Jesusen amarequien eta haren anayequien.

[15] Egun hetaric batez altchatu cen Piarres anayen artean (baciren ecen bilduac elkharganat ehun eta hogoy presunen ingurua) eta erran çaroen: [16] "Ene anayac, complitu beharra cen Escrituran Izpiritu Sainduac Daviden ahoz aitciñerat erran içan duena Judassez, ceiñ içan baida Jesus hartu içan dutenen aitcindaria,

17 ceiñ baitcen gure arteco eta lan berean parte çuena. 18 Harc, bada, bere iniquitatearen sariaz erosi ondoan landa bat, urkhaturic bere burua leher eguin çuen sabelaren erditic, eta ilkhi citçaizcon bere hertce guciac gorphutcetic. 19 Hori da gauça bat Jerusalemen daudecen guciec jaquin dutena, halaco moldez non icendatua baida landa hura hequien lengoayan Haceldama, erran nahi da, Odol landa. 20 Escribatua da ecen Psalmoetaco liburuan: Eguin bedi hequien egoitça desertu, eta ez dadin içan nihor han egonen denic; eta haren apezpicutassuna har beça bertce batec. 21 Behar dugu, beraz, Jesus Jauna gure artean ibilli içan den dembora gucian, 22 hassi Joannesen bathayotic eta gure ganic goratua içatu den arteraiño, gure baltsaco içan diren guiçon hautaric bat hartu, gurequien haren erresurreccionearen lekhuco içateco".

23 Eta presentatu cituzten bia: Joseph Barsabas ceritçana, icengoitia çuena Justua, eta Mathias. 24 Eta othoitcetan jarriric, erran çuten: "Çuc, Jauna, ceiñac eçagutcen baiditutçu gucien bihotçac, eracuts çaçu cein hautatcen duçun hautaric bietaric bat, 25 sartceco ministerio huntan eta apostolutassunean, ceiñetaric erori içan baida Judas goatecotçat bere lekhurat". 26 Dembora berean eman cituzten çortherat eta erori cen çorthea Mathiasen gaiñerat, eta eman içan cen hameca Apostoluen baltsaco.

II. Cap.

[1] Complitu cirenean Mendecosteco egunac, guciac bilduac ceudecela lekhu berean, [2] eguin cen betbetan habarrots bat, haice violent batena beçalacoa cerutic heldu cena, eta bethe çuen hec jarriac ceudecen etche gucia. [3] Dembora berean aguertu citçaizten suzco mihi batçu beçala barrayatuac, ceiñac guelditu baitciren hetaric batbederaren gaiñean. [4] Dembora berean betheac içan ciren guciac Izpiritu Sainduaz eta hassi ciren mintçatcen hizcuntça differentez, Izpiritu Sainduac mintçarazten cituen arauera.

[5] Baciren orduan Jerusalemen gueldituac ceruaren azpico nacione gucietaric juduac, guiçon Jainco beldurtiac eta erreligionetsuac. [6] Habarrots hori banatu cenean, bada, bildu cen jendetze handi bat eta harritu ciren, ceren aditcen baitcituzten batbederac bere erdaran mintçatcen dizcipuluac. [7] Espantituac ceudecen guciac eta miretsiac, erraten çutelaric: "Hor mintço diren horiec guciac ez dire galilearrac? [8] Nola bada ditugu gutaric batbederac aditcen gu sorthu garen herritaco erdarez mintçatcen? [9] Parthacoec, Mediacoec, Elamitarrec, Mesopotamian, Judean, Capadocian, Ponten eta Asian, [10] Phrigian eta Pamphilian, Egiptoan eta Cyrenesen hurbil Libyan daudecenec, bai eta Erromatic ethorri direnec ere, [11] juduec hala nola Proselytec, Cretacoec eta Arabiacoec ditugu aditcen gure gucien lengoayetan mintço direla Jaincoaren gauça miragarriez". [12] Baldituac ceudecen bada guciac eta miretsiac, ciotela elkharri erraten: "Cer erran nahi othe du hunec?". [13] Bertceac berriz trufatcen ciren eta cioten: "Arno berriz asseac baidire hauc eta hordituac".

[14] Orduan Piarres, han baitcegoen hamequequien batean, mintçatu citçayen haltoqui erraten çaroelaric: "O guiçon judutarrac eta çuec, Jerusalemen ceudesten guciac, ikhassaçue hau eta har çatçue ene hitçac beharri ernez. [15] Ez dire ecen, uste duçuen beçala, guiçon hauc hordiac, oraino egunaren hirurgarren orena baicen ez denaz gueroztic. [16] Bainan hori diteque Joel Profetaz errana içan dena: [17] Huna cer guerthatuco den azquen egunetan, dio Jaunac: Issurico dut ene Izpiritutic haragui guciaren gaiñerat eta profetisatuco dute çuen semeec eta çuen alabec; çuen jende gasteèc biturteac [1] icussico dituzte eta çuen çaharrec ametsac eguiñen. [18] Eta segurqui ene muthillen eta ene nescatchen gaiñerat egun hetan issurico dut ene Izpiritutic, eta profetisatuco dute. [19] Eta eracutsico ditut gauça

1. Hala bide dio, *birtuteac* esan ordez.

miragarriac ceruan eta seinaleac lurrean, odola, sua eta khezco baforeac. [20] Iguzquia gambiatuco da illhunbetarat eta ilharguia odoletarat, Jaunaren eguna, egun handi eta seiñalatu hura, dathorquen baiño lehen. [21] Eta içanen da ordua[2], Jaunaren icena norc ere othoiztuco baidu, eta hura içanen baida salbatua.

[22] Guiçon israeldarrac, adiçatçue hitz hauc: Jesus Nazarethecoa, guiçon Jaincoaz çuen artean aprobatua, çuen erdian Jaincoac hartaz eguin içan dituen gauça handiez, espantagarriez eta miracuilluez, cebonec ere daquiçuen beçala, [23] libratua içan çaitçue Jaincoaren disposicione berariazco batez eta haren probidentciaren ordenuz; eta hillaraci içan duçue gurutceficaturic gaixtaguinen escuz, [24] baiñan phiztu içan du Jaincoac eta libratu thombaco doloretaric, ceren eta impossible ere baitcen hura han gueldi cedin, [25] Davidec ecen hartaz erran içan du: "Beguien aitcinean nacussan Jauna bethiere; ceren escuinetaric baidagot, higuitua içan ez nadin. [26] Hargatic da alegueratu ene bihotça eta du cantatçen laudorioz ene mihiac; eta oraiño ene haraguia ere da pausatuco esparantcetan, [27] cergatic ez bainauçu abandonatuco sepulturan, eta ez baiduçu permetituco çure sainduac froga deçan ustelguneric. [28] Eracutsi darotaçu bicitcearen bidea eta betheco nauçu alegrantciaz çure arraiciarequien batean".

[29] Ene anayac, cilhegui içan bequit aussarqui çuei erratea David Patriarchaz, hura hill içan dela eta ehortcia, eta haren sepultura egungo egunean oraiño icusten dela gure artean. [30] Profeta beraz nola baitcen eta baitceaquien juramenturequien aguindu cioela Jaincoac haren odoletic soraracico çuela seme bat haren thronuan jarrico cena, [31] ethorquissunaz çuen jaquintçan da mintçatu Christoren pizteaz, erraten duelaric ez dela utcia içan sepulturan eta haren haraguiac ez duela frogatu usteltceric. [32] Jesus hori biztu içan du Jaincoac eta gu guciac gare hortaz lekhuco. [33] Jaincoaren escuaz, bada, altchatua içan denean eta errecibitu duenean Izpiritu Saindua igortceaz Aitac eguin cioen aguintça, issuri içan du Izpiritu hura, ceina icusten baiduçue cebonec eta aditcen. [34] Ez da ecen David igan içan cerurat; bizquitartean harc erran içan du: Erran dio Jaunac ene Jaunari: jar çaite ene escuiñeco aldean, [35] eçar detçaquedan artean çure etsayac çure oiñetaco alkhitçat. [36] Segurqui jaquin beça, beraz, Israelgo etche guciac Jaun eta Christo eguin içan duela ecen Jaincoac çuec gurutceficatu içan duçuen Jesus hura".

[37] Horiec aditu cituztenean, bihotça çaurthu citçayen urriquiz eta erran cioten Piarresi eta bertce gaiñeraco apostoluei: "Cer eguinen dugu, anaya gureac?". [38] Piarresec bada erran çaroen: "Eguiçue penitentcia eta bathaya bedi çuetaric batbedera Jesus Christoren icenean, çuen bekhatuen barkhamendua ardiestecotçat, eta errecibituco duçue Izpiritu Sainduaren dohaina. [39] Çuei ecen eguin çaitçue aguintça eta çuen umeèi eta bai urrun diren guciei, gure Jainco Jaunac deithuco dituenei". [40] Hainitz bertce froga ere ekharri ciotçaten eta exortatcen cituen, erraten çaroelaric: "Salba çaitezte arraça gaizcoatu hunen artetic". [41] Haren hitça ungui errecibi-

2. Ala *orduan*? Latinez ez gerkeraz ez da horri dagokion hitzik testuan; "et erit" dio soilik, "Καὶ ἔσται". Eta Leizarragak ere hori gabe eman zuen: "Eta içanen da norc-ere...".

tu çutenac bathayatuac içan ciren, eta juntatu citçaizten egun hartan hirur milla arimen ingurua.

[42] Ciren bada arduratsu Apostoluen iracaspenen aditcen, oguiaren haustean communicatcen eta othoitz eguiten. [43] Mundu guciari beldurra lothu citçayoen; eta hainitz prodigio eta miracuillu eguiten cituzten Apostoluec Jerusalemen, halaco maneraz non mundu gucia icialduraz bethea baitcen. [44] Sinhexten çuten guciac elkharrequien bici ciren eta cituzten gauça guciac erquide. [45] Bere funtsac eta ontassunac saltcen cituzten eta partitcen çarozten guciei, batbederac behar çuenaren arauera. [46] Egun oroz goaten ciren templurat, bihotcez eta izpirituz elkharrequien bat eguiñac, eta oguia hauxten çutela etchez etche bere othruntçac hartcen cituzten alegrantciarequien eta bihotceco simplicitatearequien, [47] Jaincoa laudatcen çutelaric eta populu guciaz bere buruac onetsaracitcen cituztelaric; eta egun oroz Jaunac berretcen çuen bathasun hartan biciz salbatu behar çutenen nombrea.

III. Cap.

[1] Piarres bada eta Joannes cihoacen templurat, bederatcigarren orenean eguiten cen othoitcerat, [2] eta guiçon bat bere amaren sabeleandanic maingu cena ekhartcen çuten eta ematen egun oroz templuco athean, Athe Ederra deitcen çuten batean, amoina escatceco templuan sartcen çirenei. [3] Harc icussi cituenean Piarres eta Joannes templuan sartcerat cihoacela, othoitz eguin çaroen amoina eman cioçatela. [4] Beguiac gueldituric bada haren gainean, Piarresec Joannesequien batean erran cioen: "Beha çaçu gure ganat". [5] Eta hura jarri citçayen beha, ustez cerbait içanen çuela hequien ganic. [6] Piarresec ordean erran cioen: "Cilharric ez urreric ez dut; baiñan dudana ematen darotçut. Jesus Christo Nazarethecoaren icenean altcha çaite eta ibill çaite". [7] Eta harturic escu escuinetic goititu çuen eta betbetan borthiztu ciren haren çangoac eta oiñac. [8] Eta jauci bat eguinic guelditu cen chutic eta hassi cen ibiltcen. Sarthu cen templuan hequiequien saltoca cebillala eta Jaincoa laudatcen çuela. [9] Populu guciac icussi çuen nola cebillan eta nola laudatcen çuen Jaincoa, [10] eta eçagutcen baitçuten templuco Athe Ederrean amoina esque jarria cegoen hura bera cela, espantatu ciren eta balditu hari guerthatu citçayoenaz.

[11] Nola batcheicoten[3] bada Piarresi eta Joannesi, goan cen populu gucia lausterrez hetarat Salomonen daritçan aldamiorat espantuz bethea. [12] Icussiric hori Piarresec erran cioen populuari: "Guiçon israeldarrac, cergatic mirexten duçue gauça hori, edo cergatic çagozquigute guri beha, guere verthutez edo guere botherez guiçon hau ibillaraci baguindu beçala? [13] Abrahamen Jaincoac, Isaac-en Jaincoac eta Jacoben Jaincoac, gure aiten Jaincoac, du glorificatu bere seme Jesus, ceina çuec libratu içan baiduçue eta ukhatu Pilatusen aitcinean, harc jugeatu arren utci behar cela libro. [14] Çuec ordean duçue saindua eta justua ukhatu eta duçue galdetu, eman cequiçuela guiçon hilltçaille bat. [15] Aitcitic bicitcearen authora duçue hillaraci, bainan Jaincoac phiztu içan du, eta gu lekhuco gare hortaz. [16] Eta haren icenaren fedeaz eman diotça indarrac icen harc berac çuec icusten eta eçagutcen duçuen guiçon huni, eta haren baithango fedeac eman dio ossassun osso hau çuen gucien beguietan.

3. Ez ote du nahi *çatcheicoten* esan? Edota *ce-*. Ikus beheraxeago (VIII, 11) *cethcheizcon* eta (VIII, 13) *cetcheycon*; baina *baitçatchecan* (XVIII, 7). Beraz *ça-* eta *ce-*, bietarikoak ageri dira. Agian hitz hori luzeagoa zen, aurrean *nola* duenez gero; alegia, *nola baitçatcheicoten...*: ik. Ap. Eg. I, 10.Vulgatak "Cum teneret...".

[17] Hala ere bada, ene anayac, badaquit ecen jaquin gabean eguin duçuela eguin duçuena çuec eta bai çuen cargudunec. [18] Ordean Jaincoac horla complitu içan du profeta gucien ahoz aitciñetic erran çuena: Christoc pairatuco çuela heriotcea. [19] Eguiçue beraz penitentcia, eta conberti çaitezte, çuen bekhatuac urratuac içan daitecentçat [20] Jaunac bere presentciaz infredimenduco [4] egunac sorraracico dituen demboracotz eta igorrico duenecotz çuei predicatua içan çaitçuena, Jesus Christo, [21] ceiña alabaiñan iduqui behar baidu ceruac, Jaincoac mendeen hastetic bere profeta sainduen ahoz eracutsi içan darozquigun gauça gucien erreparacioneco demboraraiño. [22] Alabaiñan Moisec erran içan du: Profeta bat altcharacico darotçue çuen Jainco Jaunac çuen anayen artetic, ni neroni beçalacoa; duçue hura entçunen erranen darozquitçuen gauça gucietan. [23] Eta huna cer gerthatuco den: Profeta hura adituco ez duen gucia urratua içanen da populuaren artetic. [24] Eta Samuelez gueroztic ondoren-ondo mintçatu diren profeta guciec ere iracatsi içan dituzte egun hauc. [25] Çuec çarete profeten umeac eta Jaincoac gure aitequien eguin içan duen alientciacoac, Abrahami erran cioenean: Çure hacian benedicatuac içanen dire lurreco nacione guciac. [26] Çuentçat lehenbicicoric altcharaci içan du Jaincoac bere Semea eta igorri çuen benedicatceco, çuetaric batbedera conberti dadintçat bere gaixtaquerietaric".

4. *-menduco* garbi irakurtzen da, baina aurreko letrak oso nekez. "tempora refrigerii" dio Vulgatak, beraz *hoztu* esan nahi duen erroa dago aurrean. Lehen silabak *in-* dioela baitirudi, Lhandek *infreditu* dakar eta horregatik proposatzen dut *infredimendu-* segurantza handirik gabe, letra gehixeago ageri baita: *infraedi-*? *infroedi-*? Frantsesezko *-froidir* erroa, noski.

IV. Cap.

[1] Mintço citçaiztela bada populuari, ethorri ciren apheçac, templuco goarden capitaina eta sadducearrac, [2] gaitcituric ceren populuari iracasten cioten eta predicatcen çuten Jesusen presunan hilletaricaco piztea. [3] Eta hartu cituzten eta eman presso biharamuneraiño; ja ecen berandua cen. [4] Apostoluac mintçatcen aditu cituztenetaric, bada, hainitcec sinhetsi çuten eta guiçonen nombrea bacen bortz milletaraiñocoa. [5] Biharamunean atchiqui çuten Jerusalemen batçarra cargudunec, populuco çaharrec eta escribauec, [6] Annas aphecen princearequien, Caiphas, Joannes, Alexandre eta aphecen leiñuco ciren guciequien; [7] eta eçarriric Apostoluac batçarraren erdian galdeguin çaroen: "Ceren berthutez edo noren icenean eguin duçue hori çuec?".

[8] Orduan Piarres Izpiritu Sainduaz bethea, jarri citçayen erraten: "Populuaren princeac eta çaharrac, adi çaçue: [9] Halaz eta[5] egungo egunean guiçon hebaindu bati eguin diogun unguiaz contu galdetcen çaicunaz gueroztic, nola sendatu içan den, [10] jaquiteco duçue çuec guciec eta bai Israelgo populu guciac, Jesus Christo Nazaretheco gure Jaunaren icenean, ceina çuec gurutceficatu baiduçue eta ceina Jaincoac hilletaric biztu içan baidu, dagoela guiçon hau çuen aitcinean sendatua. [11] Hau da harria, çuec bastitçailleec arbuyatu içan duçuena, cantoineco harriburu eguin dena. [12] Eta ez da bertce nihoren baitan salbamenduric; ez çaye ecen eman guiçonei ceruaren azpian bertce icenic, ceiñen berthutez salbatu behar baiduquegu".

[13] Icussiric bada Piarresen constantcia eta Joannesena, eta baitceaquiten guiçon batçu cirela lettra gabeac eta arrunterac, miretsiac ceudecen; baceaquiten halaber guiçon hec Jesusequien ibilliac cirela. [14] Eta icusten baitçuten ere hequiequien han cegoela sendatua içan cen guiçon hura, deussetan ecin contresta cetçaqueten. [15] Ilkhiaraci cituzten, bada, batçarretic camporat eta jarri ciren elkharrequien compartitcen, [16] erraten çutelaric: "Cer eguinen diotegu guiçon horiei? Alabainan ecen miracuillu bat eguin dute, Jerusalemen dagocen guciec daquitena; gauça da agueria eta ecin ukha deçaquegu. [17] Baiñan habarrots guehiago are eguin ez deçan horrec populuaren artean, mehatchurequien debeca dioçoguten[6] nihori guehiago ez daquizcon mintça Jesusen icenean". [18] Eta erakharriric, debecatu çaroen niholeretan mintça ez citecen, ez iracats ceçaten Jesusen icenean. [19] Piarresec ordean eta Joannesec ihardetsi çaroen eta erran: "Juya çaçue cebonec

5. Ikus Lk. XX, 42.
6. Hots, *diezaiegun*.

hea justu ditequen Jaincoaren aitciñean çuec lehen obeditcea ecen ez Jaincoa. [20] Ecen gu ecin gaudezque mintçatu gabe icussi eta aditu içan ditugun gaucez". [21] Baiñan igorri cituzten mehatchaturic, ez baitçuten aurkhitcen nola puni ahal cetçaqueten populuaren gatic ere; cergatic guciec baitcioten Jaincoari gloria errendatcen guerthatu içan cenaz. [22] Ecen berrogoi urthe baino guehiago bacituen miracuilluz sendatua içatu cen guiçon harc.

[23] Utci cituztenean, bada, ethorri içan ciren bere anayetarat eta condatu çarozten aphecen princeèc eta cargudunec erran ciotçaten guciac. [24] Eta hec aditu cituztenean, elkharrequien betan jarri citçaizcon oihugoraz Jaincoari erraten: "Jauna, çu çare cerua eta lurra eta hetan diren guciac eguin ditutçuna, [25] Izpiritu Sainduaz gure aita David çure cerbitçariaren ahoz mintço çarela erran içan duçuna: "Cerentçat alboratatu içan dire nacioneac, eta populuec dituzte burutan hartu gauça vanoac? [26] Bildu içan dire lurreco erregueac, eta princeèc elkhar hartu içan dute Jaunaren contra eta haren Christoren contra; [27] alabainan ecen elkhar hartu çuten hiri huntan çure haur saindu Jesus, çure gantçuduraz consecratu içan duçunaren contra, Herodesec eta Pontio Pilatusec gentillequien eta Israelgo populuequien batean, [28] complitcecotçat çure puchantçac eta probidentciac eguin behartçat ordenatu çutena". [29] Orai bada, Jauna, icussatcitçu hequien mehatchuac, eta eman dioçaçute [7] çure cerbitçariei indarra, segurantça suerte guciequien predicatceco çure hitça, [30] çure escua hedatcen duçula sendatceac, miracuilluac eta prodigioac eguiteco çure Seme saindu Jesusen icenean". [31] Hec othoitça akhabatcearequien, ikharatu içan cen hec bilduac ciren lekhua; bethe içan ciren guciac Izpiritu Sainduaz eta predicatcen çuten Jaincoaren hitça aussartciarequien.

[32] Sinhetsi içan çuten guciec ez çuten bihotz bat eta arima bat baicen, eta hetaric batec ere ez çagocan cituen gaucetaric deussere bere çuela; aitcitic guciac cituzten erquide elkharren artean. [33] Apostoluec ere indar handirequien errendatcen çuten lekhucotassuna Jesus Christo gure Jaunaren phizteaz eta gracia handia cen hequien gucien baitan. [34] Ecen nihor ez cen hequien artean pobre cenic; ceren landaric edo etcheric çuten guciec, hec salduric, ekhartcen baitçuten hequien dirua, [35] eta ematen Apostoluen oiñetarat; guero partitcen citçayen batbederari behar çuenaren eredura. [36] Josephec, bada, ceinari Apostoluec eman baitcioten icengoitia Barnabe, erran nahi da Consolacionezco Umea, eta cein baitcen levita, ethorquiz cypriarra, [37] baitçuen lur bat, saldu çuen hura eta ekharri çuen haren dirua eta eman Apostoluen oiñetarat.

7. Hots, *(d)iezaiezu.*

V. Cap.

[1] Denbora hartan Ananias ceritçan guiçon batec Saphira bere emastearequien batean saldu içan çuen lur bat [2] eta guelditu çuen balioaren dirutic parte bat, emastea jaquintsun celaric; eta ekharriric gaiñeraco partea, eman çuen Apostoluen oiñetarat. [3] Erran cioen bada Piarresec: "Ananias, cergatic tentatu du Satanec çure bihotça, çu ekhartceco Izpiritu Sainduari gueçurra erraterat eta lurraren dirutic parte bat guelditcerat? [4] Çurea ez cen, saldu gabe nahi bacinduen guelditu? Eta saldu ondoan ere, diruaren naussi ez ciñen? Nola gogoac eman darotçu gauça hori? Ez dioçute guiçonei erran gueçurra, baiñan bai Jaincoari". [5] Hitz horiec aditcearequien batean, Ananias erori cen eta hill cen; eta icialdura handi bat lothu citçayen hori aditu çuten guciei. [6] Dembora berean guiçon gaste batçuec altchaturic, khendu çuten handic eta eraman ehorzterat. [7] Handic hirur orenen buruan edo, sarthu cen haren emastea jaquin gabe cer eguin içan cen. [8] Erran cioen bada Piarresec: "Erran dieçadaçu, emastea, hea hunenbertcetan saldu içan duçuen çuen lurra". Eta harc ihardetsi cioen: "Baiqui, horrenbertcetan saldu dugu". [9] Piarresec orduan erran cioen: "Nolatan elkhar hartu duçue tentatceco Jaunaren Izpiritua? Horra non diren athean çure senharra ehortciric heldu direnac eta çu ere ehortcico çaituzte". [10] Ordu berean erori cen haren oinetan eta hill cen. Sarthu cirenean bada guiçon gaste hec, aurkhitu çuten hilla, eraman çuten camporat eta ehortci çuten bere senharraren aldean. [11] Icialdura handi bat eman çuen gauça horrec Eliça gucian eta hortaz mintçatcen aditu çuten gucien artean.

[12] Apostoluec, bada, hainitz miracuillu eta prodigio cituzten eguiten populuaren artean; eta fidel guciac Izpiritu beraz animatuac biltcen ciren Salomonen aldamioan. [13] Bertcetaric ordean nihor ez cen hauçu hequiequien juntatcerat; bainan laudorio handi bat eguiten çuen populuac hetaz. [14] Eta berretuz cihoan Jauna baitan sinhesten çutenen nombrea, nahiz guiçonena eta nahiz emastequiena, [15] halaco maneraz, non carriquetarat ekhartcen baitcituzten eriac eta ematen ohetan eta camastretan; Piarres iragaterat çathorrenean, haren itçalac bederen uqui ceçantçat hetaric cembait eta senda citecentçat bere erhassunetaric. [16] Heldu ciren tropelaca halaber hurbilleco hirietaric jende hainitz Jerusalemerat, berequien çakharzquetela eriac eta izpiritu lohiez tormentatuac cirenac, ceiñac sendatcen baitciren guciac.

[17] Altchaturic orduan aphecen princea eta harequien çaducaten [8] guciac (cei-

8. Hala dio eta hala da: *çaducaten (= ceude(ce)n?):* "qui cum illo erant", dio Vulgatak. Ikus lau bertso beherago: *çaducatenac.* Leizarragak *ciraden* dio. Ikus lehenxeago (IV, 32) *çagocan = zeukan.*

ñac baitciren sadducearren sectacoac) bethe ciren iraquiduraz. [18] Eta harraci[9] cituzten Apostoluac eta emanaraci presondegui publicoan. [19] Jaunaren aingueruac ordean gauaz idequiric presondeguico atheac, ilkhiaraci cituen eta erran çaroen: [20] "Çohazte eta predica diotçatçue populuari templuan aussarqui bicitcearen hitz hauc guciac". [21] Hori adituric, sarthu ciren goiz goicetic templuan eta jarri ciren predicatcen; bizquitartean ethorriric aphecen princea eta harequien çaducatenac, bildu çuten batçarra eta bai Israelgo populuco çahar guciac, eta igorri cituzten presondeguirat Apostoluac handic erakhartcecotçat. [22] Ethorri cirenean, bada, offícialeac eta idequi çutenean presondeguia eta ez hec han aurkhitu, bihurtu ciren abisu ematerat, [23] erraten çutelaric: "Presondeguia alabaiñan aurkhitu dugu çarratua içan ahal citequen beçain ungui, eta goardac atheetan daudecela; ordean idequi dugunean, nihor ez dugu aurkhitu barnean".

[24] Aditu cituztenean, bada, hitz horiec templuco goarden capitaiñac eta aphecen princeèc, pena handitan ciren guiçon hequien ariaz, ez jaquinez certaraco othe cen gauça hori. [25] Hortan ceudecela, ethorri citçayen norbait erraterat: "Presso emanaraci cinituzten guiçon hec horra non diren templuan eta non hari diren populuari iracasten". [26] Orduan goan cen templuco goarden capitaiña bere officialequien eta erakharri cituen bortcharic gabe, beldur ciren ecen populuaz harricatuac içateco. [27] Ekharri cituztenean, presentatu cituzten batçarrean eta aphecen princeac galdeguin çaroen [28] eta erran: "Manu expressez debecatu dautçuegu ez deçaçuen iracats icen hortan; eta horra non duçuen bethe Jerusaleme çuen iracaspenez; eta nahi duçue ere erakharri gure gaiñerat guiçon haren odola". [29] Ihardetsi çaroten Piarresec eta Apostoluec eta erran: "Lehen obeditu behar çayo Jaincoari, ecen ez guiçonei; [30] gure aiten Jaincoac biztu içan du Jesus, çuec hillaraci cindutena gurutce batean estecaturic. [31] Hura da buruçaguia eta salbatçaillea, Jaincoac bere puchantçaz altchatu duena, Israeli emateco penitenciaren gracia eta bekhatuen barkhamendua. [32] Eta gu gare lekhuco gauça horietaz eta bai Izpiritu Saindua ere, ceiña eman içan baidaroe Jaincoac hura obeditcen duten guciei".

[33] Horiec aditu cituztenean, leher eguiten hari ciren eta gogoan çarabillaten hec hillaracitcea. [34] Altchatu cen, bada, batçarrean pharisau bat, Gamaliel deitcen cena, legueco doctora, populu guciaz ohoratua cena; eta aphur bateco Apostoluac camporat ilkhiaraciric, [35] erran çaroen han bilduac cirenei: "Israeldar guiçonac, beguirautçue guiçon hauquien sujetean cer eguiterat çohazten. [36] Orai duela ecen cembait urthe altchatu cen Theudas bat, ceiñec passaratcitcen baitçuen bere burua cerbait gauça handirentçat eta ceinari jarraiqui baitcitçaizcon laur ehun guiçon edo; ordean hill çuten hura eta haren baitan sinhetsi içan çutenac barrayatuac içan ciren eta ezdeussetarat bilhacatuac. [37] Haren ondoan altchatu içan cen berriz Judas galilearra arrolamenduco demboran eta mundu handi bat eraman çuen bere ganat; ordean hura ere suntsitu cen eta haren alde abiatu ciren guciac urmariatu içan ciren. [38] Huna, bada, cer conseillu darotçuedan ematen: Gueldi çaitezte guiçon

9. *Harraraci* behar luke, apika.

horiec perseguitcetic eta utzatcitçue horiec; ceren eta, baldin guiçonetaric bada desseigna hori edo obra hori, desseguiñen baida; [39] baldin ordean Jaincoa ganic bada, ecin desseguinen duçue. Beldur içateco ere duçue, aurkhi ez çaitezten Jaincoaren beraren contra çabiltçatela". Erori ciren bada haren sentimendurat.

[40] Eta erakharriric Apostoluac, açotaraci cituzten ondoan, debecatu içan çaroen niholeretan ez citecela mintça Jesusen icenean; eta igorri cituzten. [41] Baiñan hec ilkhi ciren batçarretic eta goan ciren alegueraric, ceren gay aurkhitu içan ciren Jesusen icena gatic iroyen pairatceco. [42] Eta egun oroz ez ciren guelditcen templuan eta etcheetan iracastetic eta Jesus Christo predicatcetic.

VI. Cap.

[1] Dembora hartan, bada, berretuz baitciohan dizcipuluen nombrea, grecoac hassi ciren erantçuten hebrearren contra, ceren mespresatcen cituzten hequien alhargunac egun oroz eguiten ciren partilletan. [2] Horri dagocala, billaraciric dizcipuluac hamabi Apostoluec erran çaroen: "Ez da justu guc utz deçagun Jaincoaren hitça mahainen cargua içateco. [3] Berez çatcitçue, beraz, anayac, çuen artetic çazpi guiçon erratecoric gabecoac, Izpiritu Sainduaz betheac eta çuhurtciaz betheac, ceinac carga baidetçaqueçue emplegu hortaz; [4] gu berriz jarraiquico gaizco othoitçari eta hitçaren predicatceari". [5] Agradatu citçayen propos hori han ciren guciei; eta hautatu çuten Esteben, guiçon fedez bethea eta Izpiritu Sainduaz bethea; Philipe, Prochore, Nicanor, Timon, Parmenas eta Nicolas, proselyta Antiochecoa. [6] Horiec cituzten presentatu Apostoluen aitciñean eta hec othoitça eguinic, pausatu çarozten escuac. [7] Bizquitartean Jaincoaren hitça aitciñat ciohan eta haguitz cen berretcen dizcipuluen nombrea Jerusalemen; aphecetaric ere tropa handi bat jarri ciren fedeari obeditcen.

[8] Estebenec, bada, bethea baitcen graciaz eta indarrez, prodigio handi batçu eguiten cituen eta miracuillu handi batçu populuaren artean. [9] Altchatu ciren bada cembeit, Libratu içatuena eta Cyrenacoena eta Alexandriarrena, Ciliciarrena eta Asiarrena erraten cioten sinagogatic, eta hassi ciren iharduquitcen Estebenequien. [10] Eta ecin buru eguin cioçaqueten hura mintço cen çuhurtciari eta Izpirituari. [11] Orduan escu azpitic erakharri cituzten guiçon batçu erraterat, aditu çutela blasphemiozco hitçac erraten Moyseren contra eta bai Jaincoaren contra. [12] Tarritatu cituzten manera hortan populua eta cargudunac eta escribauac; eta elkhar harturic, altchatu çuten eta eraman batçarrerat. [13] Dembora berean presentatu cituzten lekhuco falsoac erraten çutenac: "Guiçon hau ez da guelditcen lekhu sainduaren contra eta leguearen contra erastetic. [14] Aditu diogu ecen erraten Jesus Nazaretheco harc desseguiñen duela lekhu hau eta gambiatuco dituela Moisec eman içan darozquigun ordenantçac". [15] Eta batçarrean jarriac ciren guciac beguiac landaturic baitcegozcon beha, icussi içan çuten haren bissaya aingueru baten bissaya beçalacatua.

VII. Cap.

[1] Erran çuen bada aphez handiac hea horiec hala ciren. [2] Horren gaiñean erran çuen Estebenec: "Adi naçaçue, ene anayac eta ene aitac. Gloriaco Jaincoa aguertu citçayon gure aita Abrahami Mesopotamian cen orduan, Charanen egon citequen baiño lehen, [3] eta erran içan cioen: Ilkhi çaite çure herritic eta çure ahaideètaric eta çatho nic eracutsico darotçudan herrirat. [4] Orduan ilkhi içan cen Chaldearren herritic eta ethorri cen Charanen egoterat; eta handic bere aita hill içan citçayoenean, Jaincoac erakharri çuen orai çuec çaudezten herri huntarat. [5] Eta hala ere ez çuen eguin hemen funs garaben jabe, ez eta ere pausu bat lurren ere; baiñan aguindu cioen emanen cioela huntaco jabetassuna, eta haren ondoan haren leinuari, Abrahamec oraiño ez çuen arren semeric. [6] Erran cioen guero Jaincoac haren ondocoac egonen cirela lekhu arrotz batean, ceiñetan esclabo iduquico baitcituzten eta gaixqui tratatuco laur ehun urthez. [7] Eta hec gathibu atchiquico dituen nacionea jugeatuco dut nic, erran çuen Jaincoac; ondoan guero handic ilkico [10] dire eta cerbitçatuco naute ni lekhu huntan. [8] Eta eman içan cioen circoncisioneco alientcia eta horla Abrahamec içatu çuenean Isaac, circoncidatu çuen çortcigarren egunean; eta Isaac-ec içan çuen Jacob, eta Jacob-ec içan cituen hamabi patriarchac. [9] Eta patriarchec jelosia harturic, saldu içan çuten Joseph Egiptorat; Jaincoa ordean harequien cen. [10] Eta athera çuen bere atsecabe gucietaric; eman ere cioen çuhurtciarequien batean Pharaon Egiptoco erregueren fagorea, ceiñac eguin baitçuen Egiptoco eta bere etche gucico gobernadore.

[11] Guerthatu içan cen, bada, gossetez Egipto gucia eta Chanaango herri gucia herstura handi batean, halaco maneraz non ez baitçuten gure aitec aurkhitcen jatecoric. [12] Aditu çuenean, bada, Jacobec bacela ogui Egiptoan, igorri içan cituen gure aitac lehenbicico aldicotçat; [13] eta bigarrenecotz goan cirenean, eçagutu çuten Joseph bere anayec eta jaquin çuen Pharaonec haren ethorquia. [14] Orduan Josephec igorri cituen jendeac bere aita erakhartceco eta haren familia gucia, ceinac baitciren hirur hogoi eta hamabortz arima. [15] Goan cen, bada, Jacob Egiptorat eta han hill içan cen; eta bai gure aitac ere. [16] Handic eraman cituzten Sichemat eta eçarri Abrahamec Hemor Sichemen semearen umeèn ganic dirutan erossi içan çuen sepulturan. [17] Bainan hurbiltcen baitcen dembora Jaincoac Abrahami eguin cioen aguintçarena, berretu içan cen populua eta haguitz emendatu Egiptoan, [18] altcha cedin artean Egiptoan bertce erregue bat Joseph eçagutcen ez çuena. [19] Erre-

10. Bestetan ia beti *ilkhico* dio: ikus hortxe 3. eta 4.

gue hunec gure nacionearen contra maleciaz eta artificioz baliaturic laceriatu içan cituen gure aitac hartaraiño, non hequien haurrac bici ez citecentçat berei baitciotçaten etcharatcitcen.

[20] Dembora hartan sorthu içan cen Moises, cein içan baida Jaincoaren gogaraco. Içan cen hacia hirur ilhabetez bere aitaren etchean. [21] Guero etchatua içan cenean bada, eraman çuen Pharaonen alabac eta altchatu çuen bere semea içan balu beçala. [22] Ikhasaraci ciotçaten Moiseri Egiptiarren scientcia guciac, eta cen botheretsu hitcetan eta obretan. [23] Complitu cituenean, bada, bere berrogoi urtheac, ethorri citçayon gogorat bisitatu behar cituela bere anayac, Israelgo umeac. [24] Eta icussiric bat gaixqui tratatcen çutena, aldetu citçayon eta Egiptoarra hillic bendecatu çuen gaixqui tratatua içan cena. [25] Uste çuen, bada, baceaquitela haren anayec Jaincoac haren escuz emanen cituela libertatean; ordean hec ez ceaquiten horlacoric. [26] Biharamunean cembaitec ciharducatela, guerthatu içan cen han, eta esseyatu cen hequien baquetcerat, erraten çaroelaric: Guiçonac, berdin anaya [11] çarete; cergatic elkharri gaixqui eguiten dioçue? [27] Baiñan laguna gaixqui çarabillanac arbuyatu içan çuen, ciotsalaric: Norc eguin othe çaitu prince eta juge çu gure gaiñean? [28] Ala hill nahi othe nauçu, atço Egiptoar hura hill içan cinduen beçala? [29] Hitz horri çagocala, goan cen Moises ihessi eta aldaratu cen Madiango herrirat, non içan baitcituen bi seme. [30] Handic berrogoi urtheren ondoan, aguertu içan citçayon Sinaco mendiaren desertuan aingueru bat sutan cegoen berro baten kharpean. [31] Moises bada hori icussiric, harritu cen icuscari hortaz; eta hurbiltcen hari cela hura icusteco, mintçatu citçayon Jauna hitz hautaz: [32] Ni naiz çure aiten Jaincoa, Abrahamen Jaincoa, Isaac-en Jaincoa eta Jacob-en Jaincoa. Ikharac harturic ordean Moises, ez cen venturatcen behatcerat. [33] Erran içan cioen bada Jaunac: Khen çatcitçu çure oiñetaco çapatac, ecen çu çaren lekhua lur saindu bat da. [34] Icussi dut, icussi, ene populu Egiptoan denaren laceria eta entçun ditut hequien hatsbeherapenac eta jautsi içan naiz hequien emparatcerat. Çato bada orai, igor çaitçadan Egiptorat.

[35] Moises hura, ceina ukhatu içan baitçuten erraten çutelaric: Norc eçarri othe çaitu çu prince eta juge?, hura bera Jaincoac igorri çuen princetçat eta libratçailletçat, berroan aguertu içan citçayon aingueruaren escuarequien. [36] Harc athera cituen handic, gauça ohiz campocoac eta miracuilluac eguinic Egiptoan, itsasso gorrian eta desertuan berrogoi urthez. [37] Moises hura bera da erran içan daroena Israelgo umeei: Profeta bat surguiaracico darotçue Jaincoac çuen anayen artetic, ni beçalacoa. Adi çaçueque hura. [38] Hura da, populua bildua cenean desertuan, aingueruarequien cegoena, cein mintço baitcitçayen Sinaco mendian. Hura da gure aitequien cena; bicitçeco hitçac errecibitu içan dituena guri emateco; [39] ceina ez baitçuten obeditu nahi içan gure aitec, aitcitic arbuyatu içan baitçuten eta bere oldez bihurtuco baitciren Egiptorat, [40] Aaroni erraten ciotelaric: Eguigutçu jainco batçu gure aitcinean dohazquenac; Moises hura ecen, Egiptoco herritic

11. *Anayac* behar luke esan.

gu athera içan gaituena, ez daquigu cer eguin den. [41] Orduan eguin içan çuten chahal bat eta offrendatu cioten sacrificioa idolari, ematen çutelaric bere atseguiña bere escuzco obra hartan.

[42] Itçuli citçayen halaber Jaincoa eta utci içan cituen ceruco armada cerbitçatcerat, escribatua den beçala profeten liburuan: Ala offrendatu darozquidatçue sacrificioac eta hostiac berrogoy urthez desertuan, Israelgo etchea? [43] Aitcitic hartu içan duçu Moloch-en tabernaclea eta çuen jainco Remphan-en içarra adoratceco eguin içan ditutçuen figura hec; eta nic çuec eramanen baitçaituztet Babyloniaz harat.

[44] Testimonioco tabernaclea gure aitequien içan da desertuan, Jaincoac exlegitu çaroen beçala, Moiseri erranic eguin ceçala icussi içan çuen moldearen arauera. [45] Halaber hura ere çuten, harturic gure aitec Josuerequien batean, eraman nacioneèn herrirat, ceiñac ihessi abiaraci baitcituen Jaincoac gure aiten aitcinean; horrec iraun çuen Daviden demboraraiño, [46] ceiñec ediren baitçuen gracia Jaincoaren aitciñean eta galdetu baitcioen eguin ahal içatea egoitça bat Jacob-en Jaincoari. [47] Salomonec ordean bastitu içan cioen etche bat. [48] Bainan Jaungoicoac ez du bere egoitça eguiten guiçonen escuz eguinicaco etchetan, profetac dioen beçala: [49] Cerua da ene jarlekhua, lurra berriz ene oiñetaco escalera. Cer etche bastituco othe darotaçue, dio Jaunac, eta ceiñ othe da lekhua ni egon ahal naitequena? [50] Ez ditu ene escuac eguin içan horiec guciac?

[51] Buru gogorrac, bihotz eta beharri circoncidatu gabetaco jendeac: bethi çarete çuec lehiatcen Izpiritu Sainduaren contra; çuen aitec nola eguin baidute, eta çuec ere hala eguiten duçue. [52] Cein da profeta çuen aitec persecutatu ez dutena? Hill içan dituzte profetisatcen çarotenac justuaren ethortcea, ceinaren trahitçaille eta hilltçaille içan baitçarete orai çuec. [53] Errecibitu duçue leguea aingueruen ongundez, eta ez duçue beguiratu içan".

[54] Horiec aditcean, leher eguiten hari ciren bere baitan despitaz eta hortcea [12] carrascatcen çaroen haren contra. [55] Bainan nola baitcen Izpiritu Sainduaz bethea, beguiac cerurat altchaturic icussi içan çuen Jaincoaren gloria eta Jesus chutic cegoela Jaincoaren escuineco aldean, eta erran içan çuen: "Horra non ditudan icusten ceruac çabalduac eta Guiçonaren Semea chutic dagoela Jaincoaren escuineco aldean". [56] Orduan deyagoraz jarriric tapatu cituzten beharriac, eta guciac batean oldartu citçaizcon. [57] Eta trainaturic hiritic camporat, harricatu içan çuten; eta lekhucoec eman cituzten bere tresnac Saul deitcen cen guiçon gaste baten oiñetan. [58] Hec Estebenen harricatcen hari ciren demboran, hura othoitz eguiten hari cen, eta cioen: "Jesus Jauna, errecibi çaçu ene izpiritua". [59] Guero belhaurico jarriric, erran çuen oihu goraz: "Jauna, ez dioçaçutela iretcheq bekhatu hau". Eta hori erran eta loharkhatu cen Jauna baitan. Saul ere consent cen haren heriotcean.

12. Ala *hortçac*? Ilun dago, baina *hortçac* nekez dio: bat, *-c-* ageri delako, ez *-ç-*; bi, *çaroen* dioelako, ez *çarozten* edo. Leizarragak: "...hortz garrascotsez ceuden...".

VIII. Cap.

[1] Altchatu içan cen dembora berean persecucione handi bat Jerusalemen cen Eliçaren contra eta guciac, Apostoluez bertceac, barrayatu içan ciren Judeaco eta Samariaco lekhu differentetarat. [2] Ehortci çuten, bada, Esteban Jaincoaren beldurra çuten guiçon cembaitec eta auhenztatu [13] çuten handizqui. [3] Saulec ordean desolatua çarabillan Eliça etche etche [14] ibilliric, trainatcen cituela bortchaz guiçonac eta emasteac eta presso emanaratcitcen. [4] Bainan barrayatu içan cirenec predicatcen çuten Jaincoaren hitça iragaten ciren lekhu gucietan.

[5] Philipe, bada, ethorri baitcen Samariaco hirirat, hari citçayen Jesus Christoren predicatcen, [6] eta populuac goardia handi eguiten cioten Philipec erraten ciotçaten gaucei eta guciec entçuten çuten gogo beroz, icussiric harc eguiten cituen miracuilluac. [7] Ecen izpiritu lohiac ilkhitcen ciren hainitz presuna possedituac cirenen gorphutcetaric, oihu handi batçu eguinic, [8] eta paralytico eta maingu hainitz ere sendatu içan ciren.

[9] Eta hala alegrantcia handi batean cen hiri gucia. Cen, bada, guiçon bat Simon ceritçana hiri hartan, lehen magiciano cena eta Samariaco jendea bereganatu çuena, bere burua passaraciric cerbait gauça handirentçat. [10] Baçarraizcon guciac chiperrac eta handiac, erraten çutelaric: "Hauche da Jaincoaren berthute handi hura". [11] Eta horla cethcheizcon, ceren aspaldidanic bere sorguinqueriez izpiritua itçuli baitçaroen. [12] Ordean sinhetsi çutenean Philipec Jaincoaren erresumaz predicatu çaroena, bathatcen [15] ciren Jesu Christoren icenean guiçonac eta emasteac. [13] Orduan Simonec berac ere sinhetsi içan çuen eta, bathayoa errecibitu çuen ondoan, Philiperi cetcheycon, eta icussiric eguiten ciren prodigio eta miracuillu handiac, harritua eta espantitua cegoen.

[14] Aditu çutenean, bada,Jerusalemen ciren Apostoluec Samariacoec errecibitu çutela Jaincoaren hitça, igorri cituzten hetarat Piarres eta Joannes, [15] ceiñac ethorri içan cirenean, jarri baitciren hequientçat othoitcetan Izpiritu Saindua errecibi ceçatentçat, [16] ecen oraiño ez cen jautsi hetaric garabetarat, bainan ciren choilqui bathayatuac Jesus Jaunaren icenean. [17] Orduan pausatu çarozten escuac eta errecibitu çuten Izpiritu Saindua.

[18] Icussi içan çuenean bada Simonec, Apostoluec escua paussatceaz ematen çutela Izpiritu Saindua, escaiñi çaroen dirua, [19] erraten çaroelaric: "Indaçue niri

13. Hori edo *auheneztatu* edo antzeko zerbait bide dio.
14. Halaxe dio, ez *etchez etche*.
15. Hemen ere ez du zuzendu eta *bathayatcen* idatzi: ik. Jo. I, 25.

ere bothere hori, nori ere escuac paussatuco baidiotçat, eta harc errecibi deçan Izpiritu Saindua". Piarresec ordean erran cioen: [20] "Hire dirua hirequien gal dadillala, ceren uste içan baiduc Jaincoaren dohaiña dirutan ardietx ahal diteque-la; [21] ez duquec parteric ez icusquiçunic gauça huntan, hire bihotça ecen ez duc chuchena Jaincoaren aitciñean. [22] Eguic, beraz, penitencia hire gaixtaqueria hortaz eta eguioc Jaincoari othoitz, aguian barkhatuco othe çaican hire bihotceco gogoramendu dohacabe hori. [23] Icusten diat ecen behaçunezco kharmiñean eta iniquitatezco corapilloan haicela". [24] Ihardetsi cioen Simonec eta erran: "Eguin dioçoçue çuec enetçat othoitz Jaincoari, guertha ez daquidan deus çuec erran duçuenetaric". [25] Hec, bada, lekhucotassuna bihurtu ondoan eguiari eta predicatu ondoan Jaunaren hitça, bihurtu ciren Jerusalemerat eta predicatu ere çuten Evangelioa samaritarren hainitz herrietan.

[26] Bizquitartean Jaunaren ainguerua mintçatu citçayon Philiperi eta erran cioen: "Altcha çaite eta çohaz hegoaco parterat, Jerusalemetic Gazarat jausten den biderat, ceina baida desertutçat utcia". [27] Eta altchaturic abiatu cen; eta huna ethiopiar bat eunochoa, Candace ethioparren erreguinaren officiale principaletaric bat, haren thresor gucien gainean cargua çuena, cein ethorri baitcen Jerusalemerat Jaincoa adoratcerat. [28] Eta ciohan bere carrosan jarriric, Isaias profetaren iracurtcen hari cela. [29] Erran cioen bada Izpirituac Philiperi: "Çohaz, hurbil çaite carrosa hortarat". [30] Philipec lauster eguiñic, aditu çuen Isaias profetaren iracurtcen hari cela, eta erran cioen: "Uste duçu aditcen duçun iracurtcen duçuna?". [31] Harc ihardetsi cioen: "Nola adi ahal deçaquet ere, baldin norbaitec ez badarot eracusten?". Eta othoiztu çuen Philipe igan cedillala eta jar cedillala haren aldean. [32] Eta Escrituraco lekhua iracurtcen çuena hauche cen: "Ardi bat beçala heriotcerat eramana içan da; eta bildots bat [16] motzten hari çayoenaren aitcinean mutu den beçala, harc ere ez du idequi bere ahoa. [33] Beheitimendu horren ariaz khendua içan da haren contra emana içatu den jugeamendua. Norc conda ahal deçaque haren ethorquia?, ceren eta khendua içanen baida lurretic haren bicia".

[34] Erran cioen bada eunochoac Philiperi: "Othoitz eguiten darotçut, nortaz erraten du hori profetac? Bere buruaz ala cembait bertcez?". [35] Horren gainean Philipec hitça hartu çuen eta hassi citçayon Escrituraco lekhu hortaric Jesusez mintçatcen. [36] Eta bidean cihoacela, ethorri ciren ura cen toqui batetarat eta erran cioen eunochoac: "Horra ura; cerc guibela naçaque bathayatua içatetic?". [37] Erran cioen bada Philipec: "Hori eguin deçaquegu, baldin sinhexten baduçu çure bihotz guciaz". Harc ihardetsi içan cioen: "Sinhexten dut Jaincoaren Semea dela Jesuchristo". [38] Dembora berean gueldiaraci çuen bere carrosa eta jautsi ciren biac urerat eta Philipec bathayatu çuen eunochoa. [39] Athera cirenean uretic,

16. Dudamudazko pasartea: *bat* behar du izan, *mutu den beçala* baita horren aditz sintagma: hor *motzten hari çayo-* da badaezpadakoa, ez baitzaio ezer mozten ari: "coram tondente se" dio Vulgatak eta Leizarragak: "...bildots-bat motzen duenaren aitzinan". Baina *bat* eta *motzten*-en artean, gaineko aldean, *i* baizik ageri ez dela hitz bat dago agian fotokopiak argitzen ez duena eta *ilea* izan daitekeena. Beraz *ilea motzten hari çayo-*.

Jaunaren Izpirituac goratu çuen Philipe eta guehiago icussi ez çuen eunochoac. Bainan goan cen bere bideaz alegueraric. [40] Philipe berriz aurkhitu içan cen Azoten eta toqui batetic bertcerat cebillala, predicatcen çaroen Evangelioa hiri guciei, Cesarearat ethor citequen artean.

IX. Cap.

[1] Bizquitartean Saul oraiño ayher baitcen eta bethea dichiduz eta hiltceez Jaunaren dizcipuluen contra, goan citçayon aphez handiari, [2] eta escatu ciotçan buthunac Damasco [17] sinagoguentçat, baldin aurkhitcen baçuen nihor sinhexte hartacoric, nahiz guiçonic nahiz emastequiric, amarraturic eraman cetçantçat Jerusalemerat. [3] Bidean cihoala, guerthatu cen, noiz ere hurbildu baitcen Damascerat, betbetan inguratua ceruticaco argui batez. [4] Eta eroriric lurrerat aditu çuen boz bat erraten cioena: "Saul, Saul, cergatic persecutatcen nauçu?". [5] Harc ihardetsi çuen: "Nor çare, Jauna?". Eta erran cioen: "Ni naiz Jesus, çuc persecutatcen duçuna. Gaitx çaitçu akhulloaren contra osticoca haritcea". [6] Harc berriz gucia ikharaturic eta icituric erran cioen: "Jauna, cer nahi duçu eguin deçadan?". [7] Jaunac ihardetsi cioen: "Altcha çaite eta sar çaite hirian eta han erranen çaitçu cer behar duçun eguin". Harequien ciren guiçonac baldituac ceudecen, boz bat alabaiñan aditcen çutelaric eta nihor ez icusten. [8] Altchatu cen bada Saul lurretic eta, beguiac idequiric ere, deussic ez çuen icusten, baiñan escutic harturic eraman çuten Damasçat [18]. [9] Egon cen han hirur egunez deussic icussi gabe, jan gabe eta edan gabe.

[10] Cen, bada, Damascen dizcipulu bat Ananias ceritçana. Erran cioen hari Jaunac aguergune batean: "Anania". Eta harc ihardetsi cioen: "Hemen naiz, Jauna". [11] Jaunac berriz erran cioen: "Altcha çaite eta çohaz Chuchena daritçan carricarat, eta bilha çaçu Judaren etchean Tharseco guiçon bat, Saul deitcen dena; han dago ecen othoitcean". [12] (Dembora [19] Saulec icussi çuen izpirituz guiçon bat Anania ceritçana sartcen cela eta escuac haren gaiñean ematen cituela bista cobra ceçantçat). [13] Ihardetsi cioen ordean Ananiac: "Jauna, aditu içan dut hainitcen ganic guiçon hortaz, cembat gaixqui eguin içan darozten çure sainduei Jerusalemen. [14] Eta harc omen du botherea aphecen princeèn ganic presso hartceco çure icena deithoratuco [20] duten guciac". [15] Erran cioen berriz Jaunac: "Çohazco, ecen guiçon hura ene hautuco errement bat da ene icena eramateco gentillen eta erregueen eta bai Israelgo umeèn aitcinerat. [16] Eracutsi diot ecen nic, cembat beharco duen pairatu ene icenaren ariaz". [17] Goan cen, bada, Annanias eta

17. *Damas* eta *Damasce*: bietara deitzen du nonbait hiria, Kapitulu hontako formek ageri dutenez.
18. Halaxe dio. Bestela behar ote?.
19. *Berean* edo ahaztu bide zaio idaztea.
20. *Deithoratu* = *deitu*, hemen eta bestetan: ik. beheraxeago XV, 17.

sarthu cen etche hartan eta escuac gaiñean emanic, erran cioen: "Saul, ene anaya; Jesus Jaunac, çuri bidean heldu cinela aguertu içan çaitçunac igorri nau, bista cobra deçaçuntçat eta Izpiritu Sainduaz bethea içan çaitecentçat". [18] Eta betbetan erori ciren haren beguietaric ezcata batçu beçala eta cobratu çuen bista; guero jaiquiric bathayatua içan cen. [19] Ondoan jan baitçuen, indarrac ethorri citçaizcon eta egon cen cembait egunez Damascen ciren dizcipuluequien.

[20] Berehala jarri cen predicatcen sinagoguetan Jesus cela Jaincoaren Semea. [21] Baldituac ceudecen, bada, hura aditcen çuten guciac, eta cioten: "Hau ez da Jerusalemen icen hori deithoratcen çuten guciei guerla eguiten çaroena, eta hunat ethorri ere dena hec amarraturic eramateco aphecen princeèn ganat?". [22] Saul ordean gueroago eta guehiago borthiztuaz ciohan eta confunditcen cituen Damascen ceudecen juduac, sustengatcen çaroelaric Jesus cela Christo. [23] Dembora luceren buruan, bada, juduec eguin içan çuten elkharren artean batçarra hura hiltceco. [24] Baiñan Saulen eçagutcerat ciren hequien apparaillu gaixtoac, eta nola goardiac emanac baitçagozcaten [21] bortaletan gau eta egun hura hill nahiz, [25] dizcipuluec harturic, jautsi içan çuten gauaz morroillan behera sasqui batean emanic.

[26] Ethorri cenean bada Jerusalemerat, dizcipuluequien juntatu nahiz cebillan; ordean guciac beldur citçaizcon, ez baitçuten sinhexten dizcipulu cela. [27] Hala ere, bada, Barnabec harturic eraman çuen Apostoluetarat eta condatu çaroen nola bidean aguertu içan citçayon Jauna eta mintçatu citçayon, eta cer curayerequien mintçatu ere içan cen Damascen Jesusen icenean. [28] Gueroztic bethi hequiequien cen sar-ilkhi gucietan Jerusalemen eta declaratcen cen ausarqui Jaunaren icenaren alde. [29] Mintçatcen citçayen halaber gentillei ere eta iharduquitcen çuen grecoequien; eta hauc berriz cebiltçan hura hill nahiz. [30] Hori eçaguturic anayec eraman çuten Cesarearat eta handic igorri Tharserat.

[31] Bizquitartean Eliça baquean cen Judea gucian, Galilean eta Samarian; eta establitcen hari cen, Jaunaren beldurtassunean cebillala; bethea ere cen Izpiritu Sainduaren consolacionez. [32] Guerthatu cen, bada, Piarres dizcipulu gucien bisitatcen hari cela, ethor cedin Lyddan ceudecen sainduenganat. [33] Aurkhitu içan çuen han guiçon bat Enea çaitçana [22], çortci urthe hartan ohatua, paralytico içanez; [34] eta erran cioen Piarresec: "Enea, sendatcen çaitu Jesus-christo Jaunac; altcha çaite eta eguiçu çure ohea". Eta berehala altchatu cen. [35] Eta icussi içan çuten horla sendatua Lyddan eta Saronan egoten ciren jende guciec eta conbertitu içan ciren Jauna ganat.

[36] Joppen berriz bacen dizcipuluen artean emaste bat Tabitha deitcen cena, erran nahi da Dorcas; aberats cen obra onetan eta amoiña hainitz çuen eguiten. [37] Guerthatu cen bada demboratsu hartan, erituric hill cedin; eta garbitu ondoan eman çuten sala batean. [38] Nola hurbill baitcen Lydda Joppetic, dizcipuluec adituric Piarres han cela, igorri ciotçaten bi guiçon othoizten çutela ethortceaz ahalic

21. Ikus lehenxeago 8. oharra.
22. Hala dio hemen *-r-* gabe eta beste nonbait ere bai.

lausterrena hetaraiño. [39] Jaiquiric Piarres goan cen hequiequien. Arribatu cenean, eraman çuten salarat eta han jarri citçaizcon alde batetic eta bertcetic emaste alhargun guciac nigarrez, eracusten ciotçatelaric Dorcassec eguiten ohi çarozten arropac eta bestimendac. [40] Khenduric bada guciac camporat, Piarres jarri cen belhaurico othoitz eguiten; guero itçuliric gorphutçaren alderat, erran çuen: "Thabitha, altcha çaite". Berehala harc idequi cituen beguiac eta icussiric Piarres, eman cen jarriric. [41] Orduan Piarresec escua emanic eraiqui çuen; eta erakharriric sainduac eta alhargunac, presentatu çaroen bicia. [42] Gauça hori jaquin cen Joppe gucian; eta hainitcec sinhetsi çuten Jauna baitan. [43] Ondoan egon cen dembora lucez Joppen, Simon ceritçan çurratçaille baten baitan.

X. Cap.

[1] Guiçon bat cen, bada, Cesarean Cornelio ceritçana, Italiaco erraten dioten tropelan ehun guiçonetaco capitain cena; [2] guiçon erreligionetsua eta Jainco beldurtia bere etche guciarequien; amoina hainitz eguiten ciotçan populuari eta bethi othoitcetan cegoen. [3] Hunec egun batez bederatcigarren oreneco inguruan icussi içan çuen clarqui bisione batean Jaincoaren aingueru bat heldu citçayoela eta erraten cioela: "Cornelio". [4] Harc berriz aingueruari behatu eta icituric erran cioen: "Cer da, Jauna?". Aingueruac ihardetsi içan cioen: "Çure othoitçac eta çure amoinac igan dire Jaincoaren aitciñerat çutazco orhoitgarritçat. [5] Hala igorratcitçu orai berehala cembait guiçon Jopperat eta erakharraçu Simon daritçan bat, icen goitia Piarres duena. [6] Hura da egoten Simon çurratçaille baten baitan, ceiñaren etchea baida itsassoaren aldean; erranen darotçu harc cer behar duqueçun eguin". [7] Goan cenean mintço citçayon ainguerua, erakharri cituen bere bi cerbitçari eta soldadu bat, Jaincoaren beldurra çuena, bere manuco cituenetaric, [8] eta hei condatu ondoan gauça guciac, igorri içan cituen Jopperat.

[9] Biharamunean, bada, hec bidean cihoacela eta hirirat hurbiltcen cirela, igan cen Piarres etche gaiñerat seigarren oreneco mugatsuan othoitz eguiterat. [10] Eta gosse baitcen, galdetu çuen jaterat; aphaintcen hari citçaizcola etchecoac, ethorri citçayon Izpirituzco goramendu bat. [11] Icussi çuen cerua idequia eta daffailla handi bat beçala, laur basterretaric atchequia, jausten cela cerutic lurrerat, [12] ceinetan baitciren laur çangoetaco aliamalia suerte gucietaric, lurrean herrestan dabiltçanetaric eta aireco hegastinetaric. [13] Dembora berean aditu çuen boz bat erraten cioena: "Altcha çaite, Piarres; hill çaçu eta jan çaçu". [14] Ihardetsi çuen ordean Piarresec: "Ez, hori ez, Jauna, ecen egundaiño ez dut jan gauça cilhegui ez denic, ez lohiric". [15] Boçac berriz erran cioen bigarrenean: "Jaincoac garbi errendatu duena ez deçaçula çuc iduc profanotçat". [16] Hau bada eguin cen hirur aldiz eta berehala daffailla eramana içan cen cerurat.

[17] Piarres bere baitan gogoetan cegoela, cer erran nahi othe çuen içan çuen icuscari horrec, Cornelioz igorriac içan ciren guiçonac, Simonen etchearen galdez cebiltçala, ethorri içan ciren hango atherat. [18] Eta norbait deithuric, galdeguin çuten hea Simon, icen goitia Piarres çuena, han egoten cen. [19] Piarres, bada, gogoetan baitcegoen bere bisioneaz, erran cioen Izpirituac: "Horra hirur guiçon non diren çure galdez. [20] Altcha çaite, bada, jauts çaite eta çohaz hequiequien tricatu gabe, ceren nic igorri içan baiditut". [21] Dembora berean Piarres jautsi cen guiçon hequien ganat eta erran çaroen: "Ni naiz çuec galdetcen duçuena; cer da

causa, ceinaren gatic baitçarete ethorri?". [22] Ihardetsi çuten hec: "Cornelio capitaiña, guiçon justua, Jainco beldurtia eta judutarren nacione guciac lekhucotassuna errendatcen dioena, abisatua içan da aingueru saindu batez errakhar çaitçala bere etcherat eta adi detçala çuc erranen diotçatçunac". [23] Sarraraciric bada barnerat, errecibitu cituen arrotçat; eta biharamunean jaiqui eta goan cen hequiequien, eta Joppen egoten ciren anayetaric cembaitec companiatu çuten.

[24] Ondoco egunean sarthu cen Cesarean. Cornelio berriz cegoen hequien beguira, bilduric bere etcherat bere etcherat [23] bere ahaideac eta adisquide bereciac. [25] Piarres sarthu içan cenean, ethorri citçayon aitcinerat Cornelio, eta bere burua haren oinetarat arthiquiric, adoratu çuen. [26] Piarresec ordean eraiqui çuen ciotsolaric: "Altcha çaite, ni neroni ere guiçona naiz". [27] Eta harequien mintço cela, sarthu cen eta aurkhitu çuen compainia handi bat bildua. [28] Erran çaroen bada: "Badaquiçue lastima çayoela judutar bati atcerritar batequien baltsatcea edo haren ganat hurbiltcea, baiñan eracutsi içan darot niri Jaincoac ez dela guiçonic iduqui behar profanotçat edo lohitçat. [29] Hargatic ere naiz ethorri horlacotan tricatu gabe, gastiyatu içan çaitan puntutic. Erran dieçadaçue, bada, othoi, certarat erakharri içan nauçuen". [30] Orduan Cornelioc erran cioen: "Orai duela laur egun othoitcean nindagoen neure etchean bederatcigarren oreneco mugan, eta ethorri citçaitan aitcinerat colpe colpez guiçon bat, arropa churi diztiant bat çuena, eta erran içan çarotan: [31] Cornelio, entçuna içan da çure othoitça eta çure amoiñac ez dire içan ahantciac Jaincoaren aitciñean. [32] Igorraçu beraz Jopperat eta erakharraçu handic Simon icen goitiz Piarres daritçana; Simon çurratçaillearen etchean egoten da itsassoaren aldean. [33] Berehala, bada, igorri içan ditut çure bilha eta fagore eguin darotaçu ethortceaz. Huna, bada, non garen orai guciac çure aitcinean, aditceco Jaunac guri errateco manatu darozquitçun guciac".

[34] Orduan Piarresec hitça harturic erran içan çuen: "Eguiaz dut aurkhitcen, ez duela Jaincoac behatcen presunen diferentcietarat; [35] aitcitic, cer nahi nacionetan den haren beldurra duena eta justiciazco obrac eguiten dituena, dela haren gogoraco. [36] Jaincoac igorri içan daroe bere hitça adiaracitcerat Israelgo umeei, eracusten daroelaric baquea Jesuchristoz, cein baida gucien Jauna. [37] Badaquiçue banatua içan dela hitz hori Judea gucian, hassiric Galileatic, Joannesec predicatu içan duen bathayoaren ondoan: [38] Nola Jaincoac gantçutu içan duen Izpiritu Sainduaz eta indarrez Jesus Nazarethecoa, ceinac iragaten cen toqui gucietan eguin baiditu unguiac eta sendatu deabruaz tormentatuac ciren guciac, ceren eta Jaincoa baitcen harequien. [39] Eta gu gare lekhuco Judean eta Jerusalemen eguin içan dituen guciez. Bizquitartean hillaraci içan dute, çur batean urkhaturic. [40] Baiñan Jaincoac biztu içan du hirurgarren egunean eta nahi içan du aguer cequigun biztua. [41] Ez populu gucian [24], baiñan lekhucotçat Jaincoaz bereciac içan garenei, ceiñec jan içan baidugu eta edan harequien, hilletaric biztu içan den ondoan.

23. Horrelaxe dio, bi bider.
24. Agian *guciari* behar luke.

[42] Eta manatu içan darocu predica dioçagula populuari eta lekhucotassun eguin, hura dela Jaincoac ifini içan duena bicien eta hillen juge. [43] Huni profeta guciec diote lekhucotassuna errendatcen, hunen baitan sinhetsico duten guciec errecibituco dutela hunen icenaz bekhatuen barkhamendua".

[44] Oraiño Piarres mintço cela, jautsi içan cen Izpiritu Saindua aditcen ceudecen gucien gaiñerat. [45] Eta harritu ciren circoncisioneco fidelac, Piarresequien ethorri içan cirenac, icusteaz jentilletarat ere jautsi cela Izpiritu Sainduaren gracia; [46] aditcen cituzten ecen mintçatcen lengoaya hainitcez eta Jaincoaren handitassunac publicatcen. [47] Orduan erran çuen Piarresec: "Errefusa ahal daquiqueyote bathayoco ura jende hauey, ceiñec errecibitu içan baidute Izpiritu Saindua guc beçain ungui?". [48] Eta bathayaraci cituen Jesuchristo Jaunaren icenean. Orduan othoiztu çuten egon cedin cembait egunez hequiequien.

XI. Cap.

[1] Aditu içan çuten, bada, Judean ciren Apostoluec eta anayec gentillec ere errecibitu içan çutela Jaincoaren hitça, [2] eta ethorri içan cenean Piarres Jerusalemerat, jarri ciren haren contra iharduquitcen circoncisioneco cirenac, [3] erraten ciotela ecen: "Cergatic sarthu içan çare circoncidatuac içatu ez diren jendeètarat eta duçu jan hequiequien?".

[4] Baiñan Piarres hassi citçayen ondoren ondo gauça nola iragan cen condatcen, erraten çaroelaric: [5] "Nindagoen othoitcetan Joppeco hirian, eta Izpirituz goratua içanic, icussi içan nuen icuscari bat, ceinetan icussi bainuen jausten cerutic cerbait, ciduriena daffailla handi bat, laur basterretaric sustengatua heldu cela ene ganat. [6] Eta ungui behaturic consideratu nuenean, icussi nituen hartan lurreco aliamalia laur çangotacoetaric, bassa bestietaric eta herrestan dabiltçanetaric eta bai aireco hegastinetaric. [7] Aditu nuen bada boz bat erraten çarotana: Altcha çaite, Piarres, hill çaçu eta jan çaçu. [8] Ihardetsi nuen: Balinba ez, Jauna; ecen deussere profanoric edo lohiric egundaiño ez da sarthu içan ene ahoan. [9] Mintçatu citçaitan boça bigarren aldian cerutic eta erran çarotan: Jaincoac garbi errendatu içan duena ez deçaçula iduc çuc lohitçat. [10] Hori bada eguin cen hirur aldiz, eta guero erretiratu içan ciren guciac cerurat. [11] Dembora berean ethorri ciren ni nintcen etcheco atherat hirur guiçon, Cesareatic ene ganat igorriac. [12] Erran çarotan Izpirituac nindohala hequiequien herabe içan gabe. Ethorri ciren bada enequien sei anaya hauc ere eta sarthu guiñen guiçon haren etchean. [13] Condatu çarocun, bada, nola icussi içan çuen bere etchean aingueru bat, ceiñec erran baitcioen: Igorraçu Jopperat eta erakharraçu Simon, icen goitiz Piarres daritçana. [14] Harc darozquitçu erranen hitçac, ceiñetaz içanen baitçare salbatua çu eta çure etche gucia. [15] Hassi nintçayeneco bada mintçatcen, jautsi cen Izpiritu Saindua hequien gaiñerat, hastetic gure gainerat ere jautsi ohi içan cen beçala. [16] Orhoitu nintcen orduan Jaunac erran çuen hitçaz: Joannesec bathayatu içan du urean, çuec ordean bathayatuac içanen çarete Izpiritu Sainduan. [17] Baldinetariac beraz gracia bera eman badaroe hei Jaincoac nola guri, Jesuchristo Jauna baitan sinhetsi dugunei, ni nor nintcen Jaincoa debecatceco bere obra eguitetic?". [18] Horiec aditu eta ichildu ciren eta glorificatu çuten Jaincoa, erraten çutelaric: "Beraz gentillei ere eman daroe Jaincoac penitenciaren dohaina bicitcerat heltceco".

[19] Bizquitartean Estebenen demboran altchatu içan cen persecucioneaz gueroz barrayatuac içan cirenac iragan ciren Pheniciaraiño, Cypreraiño eta Antiochiaraiño, nihori hitça predicatcen ez çaroela judu choillei baicen. [20] Hetaric cembait,

bada, Cyprecoac eta Cirenacoac, sarthuric Antiochian, mintçatu citçaizten grecoei ere eta predicatu içan çaroen Jesus Jauna. [21] Eta cen Jaunaren escua hequiequien halaco moldez, non jende nombre handi batec sinhetsi baitçuten eta conbertitu baitciren Jauna ganat.

[22] Ethorri cen, bada, Jerusalemen cen Eliçaren beharrietarat gauça horien hotsa eta igorri içan çuten Barnabe Antiochiaraiño. [23] Arribatu cenean han eta icussi içan çuenean Jaincoaren graciaren obra, bozcariatu cen eta exortatu cituen guciac egon citecen Jaunarequien bihotz fermu eta tiesso batequien. [24] Ecen guiçon bat cen eguiazco prestua eta Izpiritu Sainduaz eta fedez bethea; eta jendetze aralde handi bat eman citçayon Jaunari. [25] Handic goan cen Barnabe Tharserat Saulen bilha eta aurkhituric erakharri içan cuen Antiochiarat. [26] Urthe bethe batez egon içan ciren hango Eliçarequien conbertsatcen eta jendetze handi bat instruitu çuten halaco suertez, non Antiochian lehenbicicoric eman baitçaroen dizcipuluei guiristinoen içena.

[27] Dembora hartan, bada, ethorri içan ciren Jerusalemetic profeta batçu Antiochiarat, [28] eta jaiquiric hetaric bat Agabe ceritçana, hassi cen declaratcen Izpiritu Sainduaren inspiracionez gossete handi bat içaterat cihoala mundu herri gucian; eta hala arribatu ere cen gossete hura Claudio emperadore cen demboran. [29] Dizcipuluec, bada, norc bere çuenaren arauera deliberatu çuten batbederac igortcerat cerbait socorri Judean egoten ciren anayei; [30] eta eguin ere çuten igorriric Jerusalemeco aphecei Barnaberen eta Saulen escuz.

XII. Cap.

[1] Dembora hartan berean jarri cen Herodes erreguea persecutatcen Eliçacoetaric cembaiten. [2] Hillaraci çuen berehala ezpataz Jacobe Joannesen anaya. [3] Eta icussiric atseguin eguiten çaroela juduei, harraraci çuen oraiño Piarres ere; ciren orduan altchagarri gabeco oguien egunac. [4] Harraraciric, bada, igorri içan çuen presondeguirat eta eman çaroen goardatcerat laur soldaduetaco laur bandei, nahiz Bazco ondoan hillaraci populuaren aitcinean.

[5] Cen, bada, Piarres beguiratua presondeguian eta Eliça hari citçayoen continualqui othoitz eguiten Jaincoari harentçat. [6] Noiz ere, bada, baitcegoen Herodes hura supliciorat igortceco, gau hartan berean Piarres lo cegoela bi soldaduen artean bi gathez amarratua eta goardac athe aitcinean ceudecela presondeguiaren beguiratcen, [7] huna Jaunaren aingueru bat heldu da colpe colpez, argui diztiant batec bethetcen du toqui hura, eta joric Piarres sahetsean, iratçartcen du erraten dioelaric: "Jaiqui çaite berehala". Eta dembora berean erortcen dire gatheac haren escuetaric. [8] Erran cioen bada aingueruac: "Guerrica çaite eta jauntz çatcitçu çure çapatac". Eta eguin çuen horla. Erran cioen guero berriz aingueruac: "Har çaçu çure arroba eta jarraiq çaquizquit niri". [9] Ilkhiric Piarres, baçarraicon jaquin gabe aingueruac eguiten çuena eguiazqui cela; aitcitic uste çuen cembait iduripen çuela icusten. [10] Iragan çutenean, bada, lehenbicico goardia eta bai bigarrena, ethorri ciren burdiñazco atherat, hirirat daramanerat, ceina bere buruz idequi baitcitçayen; eta ilkhiric, goan ciren carricaren bururaiño eta berehala utci çuen aingueruac.

[11] Orduan Piarresec bere baitan sarthuric, erran çuen: "Orai eçagutcen dut eguiazqui, igorri içan darotala Jaunac bere ainguerua eta athera nauela Herodesen escutic eta juduen populuaren ustecari gucietaric". [12] Eta gauçac consideraturic, ethorri içan cen Maria, Joannes icen goitiz Marc ceritçanaren amaren etcherat, ceiñetan baitciren hainitz presuna bilduac othoitcean ceudecenac.

[13] Jo çuenean bada athea, ethorri cen behatcerat nescatcha bat Rhode ceritçana, [14] eta eçagutu içan çuenean Piarresen boça, bozcarioaren fuertsaz ez çuen idequi athea, bainan lausterca barnerat sarthuric, goan cen berria ematerat Piarres cela athean. [15] Hec erraten cioten: "Nasqui errotu [25] çare". Baiñan harc seguratuqui cioen hala cela. Hec berriz cioten: "Haren ainguerua diteque". [16] Bizquitartean Piarres athe joca hari cen; idequi çutenean, bada, icussi çuten eta balditu ciren. [17] Baiñan harc escuaz kheiñu eguinic ichil citecela, condatu çaroen nola

25. *Erhotu* > *errotu*: ik. Jo. XII, 16.

Jaunac athera içan çuen presondeguitic. Eta erran çaroen: "Eramoçue berria Jacoberi eta anayei". Eta ilkhiric goan cen bertce lekhu batetarat. [18] Arguitu cenean, bada, ez cen chumea soldaduen arteco altaramendua, hea cer eguin othe cen Piarres. [19] Herodesec berriz bilha erabilliric ecin aurkhitu çuenean, informacioneac eguinic goarden contra, ordenatu çuen eraman cetçatela hiltcerat; eta goanic Judeatic Cesarearat egon cen han.

[20] Cen, bada, tarritatua Tyriarren eta Sidoniarren contra. Baiñan hec elkhar harturic, ethorri ciren haren ganat eta irabaciric Blasto erregueren guelaria galdetu çuten baquea, ceren hequien herriac erregue ganic baitçuen bere bicitcecoa. [21] Egun hartuan [26], bada, Herodes bere erreguetassuneco arropaz bestituric, jarri cen bere thronuan eta hassi citçayen harangatcen. [22] Populua berriz jarri cen oihuz erraten: "Jainco baten mintçoa da hori eta ez guiçonarena". [23] Momentu berean ordean jo çuen Jaunaren aingueru batec, ceren ez cioen gloria errendatu Jaincoari, eta hiltcen [27] harrez jana. [24] Bizquitartean Jaincoaren hitça berretuz cihoan eta banatuz gueroago eta guehiago. [25] Barnabe berriz eta Saul bihurtu ciren Jerusalemetic, bere meçua compliturie eta berequien harturic Joannes, icen goitiz Marc erraten ciotena.

26. Hala dioela dirudi, ez bederen *hartan*; latinez ere "Statuto autem die". Ikus aldiz beherago XXVIII, 23.

27. Ikus modu berean idatzirik, Lk. XX, 29.

XIII. Cap.

[1] Baciren Antiochiaco Eliçan profetac eta dotorac, ceinetaric baitciren Barnabe eta Simon, Belcha erraten ciotena, Lucius Cyrenacoa, Manahen Herodes tetrarcharen haz-anaya, eta Saul. [2] Jaunaren cerbitçuan cirela bada eta barur eguiten, erran içan çaroen Izpiritu Sainduac: "Aldara dietçadatçue niri Saul eta Barnabe nic hautatu ditudan obracotçat" [28]. [3] Orduan barurturic eta othoitçac eguinic, paussatu ciotçaten escuac eta igorri cituzten.

[4] Hec, bada, Izpiritu Sainduaz igorriac ciren beçala, goan ciren Seleuciarat eta handic embargatu ciren goateco Cyprerat. [5] Eta ethorri içan cirenean Salaminarat, predicatu çuten Jaincoaren hitça juduen sinagoguetan eta berequien çuten Joannes ere lagun. [6] Eta trebessatu çutenean irla gucia Papharaiño, aurkhitu içan çuten judu bat aztia eta profeta falsoa, Barjesu ceritçana; [7] cein baitcen Sergio Paulo gobernadorearequien, guiçon çuhur eta prudentarequien; hunec erakharriric Barnabe eta Saul, desira çuen aditceco Jaincoaren hitça. [8] Contra eguiten çaroen ordean Elymas aztiac (hori erran nahi du ecen haren icenac), nahiz guibelatu gobernadorea fedea besarcatcetic. [9] Baiñan Saulec, Paulo ere deitcen denac, Izpiritu Sainduaz bethea cen beçala, behaturic guiçon hari, [10] erran içan cioen guiçon hari: "O guiçon, enganio eta tromperia suerte guciez bethea, deabru semea, justicia guciaren etsaya! Ez aiz bada guelldituco Jaunaren bide chuchena iraultcetic? [11] Horra, bada, non duan Jaunaren escua hire gaiñean, eta itsu içanen haiz, iguzquia icusten ez duala dembora batetaraino". Eta betbetan erori citçayon beguietarat lambo ilhun bat, eta alde gucietarat bilha cebillan norc escu emanen cioen. [12] Orduan gobernadoreac gauça hori icussiric, sinhetsi çuen eta miretsi Jaunaren doctrina.

[13] Paulo eta bere lagunac partitu ciren Paphotic eta ethorri guero Perge Pamphiliacorat. Joannes ordean hec utciric bihurtu içan cen Jerusalemerat. [14] Hec berriz Pergetic partituric ethorri ciren Antiochia Pisidiacorat eta sarthuric sinagogan sabbatho egunean jarri içan ciren. [15] Leguearen eta profeten iracurtcearen ondoan, igorri cioten sinagogaco buruçaguiec erraterat: "Anayac, baldin baduçue cembait exorta eguiteco populuari, mintça çaitezte".

[16] Altchatu cen, bada, Paulo eta escuaz kheinu eguinic ichil ceitecentçat, erran çaroen: "Israeldarrac eta çuec, Jaincoaren beldur çaretenac, adi çaçue: [17] Israelgo populuaren Jaincoac hautatu içan ditu gure aitac eta populu hau

28. Hala dio eta hala da noski, nahiz *obra*- singularra den: "...in opus, ad quod assumpsi eos".

altchatu içan du Egiptoan cegoen orduan eta besso gora eta indarsu batez athera cituen handic. [18] Berrogoi urtheren ephean jassan içan ditu hequien hazdurac [29] desertuan; [19] eta desseguin çazpi nacione Chanaango herrian; çorthez partitu çarozten hequien lurrac, [20] laur ehun eta berrogoi eta hamar urtheren buruan edo; eta ondoan eman çarozten jugeac Samuel profetarainocoan. [21] Ondoan galdeguin çuten erregue bat eta eman çaroen Jaincoac Saul, Cys-en semea, Benyaminen leyñucoa, ceiñec erreguinatu baitçuen berrogoi urthez. [22] Hura khenduric, berriz eman çaroen erreguetçat David, ceinari lekhucotassuna errendatu baidio, erranic: Aurkhitu dut David, Jesseren semea, neure gogaraco guiçona, ceinec eguinen baiditu ene nahi guciac. [23] Hunen arraçatic du Jaincoac bere aguintçaren arauera ilkhiaraci Israelentçat salbatçaille bat, cein bada [30] Jesus; [24] ceiña ethortceco aitcinean, predicatu içan baidio Joannesec penitentciaren bathayoa Israelgo populuari. [25] Eta Joannesec akhabo hurren çuenean bere corsua, erraten çuen: Çuec uste duçuena naicela ez naiz ni; baiñan horra non heldu den ene ondoan bat, ceinaren oiñetaco çapatac lechatceco ez bainaiz ni gay.

[26] Ene anayac, Abrahamen arraçaticaco umeac: çuei eta çuen artean Jainco beldurra dutenei içan çaitçue salbamenduco hitz hau igorria. [27] Ecen Jerusalemen egoten cirenec eta hango buruçaguiec ez eçaguturic Jesus, condemnatcean berean complitu içan dituzte profeten erranac, sabbatho egun guciez iracurtcen direnac. [28] Eta aurkhitcen ez çuten arren haren baithan deussere heriotcea mereci çuenic, galdetu içan cioten Pilatussi hillaraz ceçala. [29] Eta complitu cituztenean hartaz escribatuac ciren guciac, erautsia içan cen gurutcetic eta eçarria thomban. [30] Jaincoac ordean biztu içan çuen hilletaric hirurgarren egunean eta aguertu citçayen hainitz egunez harequien Galileatic Jerusalemerat ethorri içan cirenei, [31] ceinac orai arteraino lekhucotçat baliatcen baitçaizco populuaren alderat, [32] eta guc ere iracasten darotçuegu orai gure aitei eguin içan citçayen aguintça. [33] Ceren Jaincoac complitu içan baidu gure umeèntçat bizturic Jesus, bigarren psalmoan escribatua ere den beçala: Ene Semea çare çu, nic egun çaitut jenderatu. [34] Eta eracustecotçat hilletaric biztu içan duela guehiago ez hiltcecotan, hunela erran içan du: Atchequico darozquitçuet leyalqui Davidi eguin içan diotçadan aguintça sainduac. [35] Hargatic ere du erraten bertce lekhu batean: Ez duçu utcico çure Saindua ustelguneric frogatcerat. [36] Ecen David bere demboran Jaincoaren nahirat cerbitçaturic hill içan da, eçarria içan da bere aiten thomban eta icussi içan du usteltcea. [37] Ordean Jaincoac biztu içan duenac ez du frogatu usteltceric.

[38] Jaquin çaçue beraz, ene anayac, huntaz çaitçuela eracusten bekhatuen barkhamendua eta Moiseren legueaz justificatuac ecin içan çareten gucietaric, [39] hunen baithan sinhesten duena justificatua dela huntaz. [40] Beguirautçue, beraz,

29. *Hazdurac* ala *lazdurac*? Ez dago garbi zer dioen. Bi eratara itzuli izan da pasarte hori Vulgatatik ("mores eorum sustinuit") eta Haramederrek ere lehenik batera hartu du eta gero hura zuzenduz bestera. *Hazdura* ikus beheraxeago XXVII, 17. Egungo egunean "Yainkoak desertuan hazi zituen" itzuli ohi da.

30. Hala dio, baina *baida* behar du noski.

guertha ez daquiçuen profetez errana içan dena: [41] Icussaçue, izpiritu mespreçantac, eta harri çaitezte eta urmaria çaitezte, ceren obra bat eguinen baidut çuen egunetan, obra bat sinhetsico ez duçuena, nihorc condaturic ere".

[42] Sinagogatic ilkhitcean othoitz eguin çaroten, hurreneco sabbathoan ere mintçatceaz gauça beraz. [43] Eta batçarra urratu cenean, juduetaric hainitz eta Jaincoa cerbitçatcen çuten arrotcetaric ere hainitz jarraiqui citçaizten Paulori eta Barnaberi, ceiñec exortatcen baitcituzten cinqui egoterat Jaincoaren gracian. [44] Ondoco sabbathoan, bada, hurren hiri gucia bildu içan cen Jaincoaren hitça aditcerat.

[45] Icusteaz ordean jendetce hura, juduac yelosiaz betheric jarri ciren blasphemiorequien contrestatcen Jondoni Pauloc erraten cituenac. [46] Orduan ausarqui Pauloc eta Barnabec erran içan çaroen: "Çuei behar citçaitçuen lehenic aiphatu Jaincoaren hitça, baiñan çuec duçuenaz gueroz arbuyatcen eta cebonec ditutçuenaz geroztic jugeatcen ceben buruac indigno bicitce eternala içateco, huna non goacen jentillen aldeètarat. [47] Hala manatu darocu ecen Jaunac hitz hautaz: Eçarri çaitut jentillen argui içateco, salbamendua eraman deçaçuntçat lurraren basterretaraino".

[48] Adituric hori jentillac bozcariatu ciren eta çuten glorificatu Jaincoaren hitça; eta sinhetsi içan çuten bicitce eternalecotçat predestinatuac ciren guciec. [49] Bizquitartean banatcen cen Jaincoaren hitça herri hartan gucian. [50] Juduec ordean altcharaciric emazte debot eta qualitatezco batçu hirico principalequien batean, eraguin çuten persecucione bat Pauloren eta Barnaberen contra eta cassatu cituzten bere herritic. [51] Baiñan hec iharrossiric bere oiñetaco herrautsa jende hequien contra, goan ciren Iconerat. [52] Eta dizcipuluac betheac ciren bozcarioz eta Izpiritu Sainduaz.

XIV. Cap.

[1] Iconen cirela, bada, ethorri ciren sartcerat elkharrequien juduen sinagogan eta mintçatu ciren halaco moldez, non sinhetsi baitçuten judu eta greco multço handi batec. [2] Ordean sinhetsi nahi ez çuten juduec altcharaci cituzten gentillac eta tarritatu anayen contra. [3] Egon ciren, bada, dembora handiz hiri hartan fidantciarequien comportatcen cirela Jaunaren icenean, ceiñac lekhucotassuna eguiten baitcioen bere graciaren hitçari, miracuillu handiac obratcenez [31] hequien escuz. [4] Baiñan partitu içan ciren hirico jendeac, batçu juduen alde, bertceac berriz Apostoluen. [5] Nola, bada, gentillac eta juduac bere buruçagui principalequien oldartu baitcezten [32], hec injuriatu nahiz eta harricatu nahiz, [6] hori jaquiñic Apostoluac goan ciren ihessi Lystra eta Derbe ceritçaten Lycaoniaco hirietarat eta inguru hartaco herrietarat, eta han hari ciren predicatcen. [7] Cegoen, bada, Lystran guiçon bat çangoetaric hebaindua, amaren sabeleandanic maingua eta egundaiño oiñez ibilli ez cena.

[8] Guiçon harc aditu çuen Paulo predicatcen eta Pauloc hari behaturic eta icussiric fedea baçuela sendatua içateco, [9] erran cioen oihu goraz: "Altcha çaite çure oinen gaiñean chutic". Eta hura jauci eguinic abiatu cen ibiltcen. [10] Populuac icussiric Pauloc cer eguin çuen, altchatu çuen oihua gora Lycaniaco [33] erdaraz ciotsala: "Jainco batçu dire hauc guiçonen idurian gure ganat jautsi direnac". [11] Eta çuten deitcen Barnabe Jupiter, Paulo berriz Mercurio, ceren harc baitçuen hitça ere hartcen. [12] Jupiterren apheça ere, ceinec baitçuen templua hiritic hurbill, athe aitcinerat ethorriric cecenequien eta khoroequien, jarri cen populuarequien batean hei offrendatcerat.

[13] Baiñan hori aditu çutenean Barnabe eta Paulo Apostoluec, hautsi cituzten bere arropac eta goan ciren oihuz jendetzearen erdirat, [14] ciotelaric: "Guiçonac, cer hari çarete? Gu ere hillcorrac gare eta çuen pareco guiçonac, çuei predicatcerat ethorriac conberti çaiteztela banoqueria horietaric Jainco bicia ganat, ceinec eguin içan baiditu cerua eta lurra eta itsassoa eta hetan diren guciac; [15] ceinec iragan mendeètan utci içan baiditu nacione guciac bere bideètan ibiltcerat; [16] eta halarican ere ez da guelditu bere içateaz bethi gu jaquintsun eguitetic, bere ungui eguinez cerutic emanez uriac eta fruitutaco sassoin onac, francoqui ematen daro-

31. Hala dio. Oker ote? Ez dirudi. Ikus beheraxeago XXVII, 7. Guk gaur *obratuz* edo *obraturik* dioguna *obratcen* gehi *-ez*.

32. Hori gehienetan *citçaizten* esan ohi du: ik. hurrengo kap. XV, 41; XIX, 12.

33. *Lycaoniaco* behar luke: ik. goraxeago (6.).

cula atseguinequien ere bicitcecoa". [17] Horiec erranic ere, doi doya guibelatu çuten populua hei offrendatcetic. [18] Dembora hartan berean ethorri içan ciren judu batçu Antiochetic eta Iconiotic, ceinec populua irabaciric harricatu içan baitçuten Paulo eta herrestatu hiriz camporat, ustez hilla cen.

[19] Bilduric ordean dizcipuluac haren ingururat altchatu cen eta sarthu hirian; eta biharamunean goan cen Barnaberequien Derberat. [20] Eta predicatu ondoan Evangelioa hiri hartan eta escolatu ondoan hainitz, bihurtu ciren Lystrarat eta Iconiorat eta Antiochiarat, [21] indarztatcen cituztelaric dizcipuluen gogoac eta cituztelaric exortatcen fedean egoterat fermuqui, ceren eta atsecabe hainitcetaric behar baitgare sarthu Jaincoaren erresuman.

[22] Guero ordenaturic Eliça bakhoitchetan apheçac eta eguinic othoitçac eta barurac, gomendatu ciotçaten Jaunari, ceina baitan baitçuten sinhesten. [23] Ondoan Pisidia iraganic ethorri ciren Pamphiliarat, [24] ea predicatu ondoan Jaincoaren hitça Pergen, jautsi ciren Attaliarat, [25] eta handic embargatu ciren goateco Antiochiarat, ceinetaric içan baitciren igorriac Jaincoaren graciari gomendaturic complitu içan çuten obracotçat.

[26] Ethorri cirenean, bada, eta bilharaci çutenean Eliça, condatu ciotçaten cembat gauça handi eguin içan cituen Jaincoac hequiequien eta nola çabaldu çaroen Jaincoac jentillei fedearen athea. [27] Eta egon ciren dembora lucez dizcipuluequien.

XV. Cap.

[1] Iudeatic ethorri batçuec, bada, iracasten cioten anayei, ciotsotelaric: "Baldin ez baçarete circoncidatcen Moisez exlegitua den arauera, ecin salba çaitezquete". [2] Eta horren gaiñean debadio handi bat içan baitçuten Pauloc eta Barnabec hequien contra, deliberatu içan çuten goanen cirela Paulo eta Barnabe eta bertce cembait bertceetaric Jerusalemerat Apostoluen eta aphecen ganat questione horren churitcerat. [3] Hec, bada, Eliçac igorriric iragan ciren Pheniciatic eta Samariatic, condatcen çutelaric nola conbertitu ciren jentillac; eta bozcario handi bat cioten ematen anaya guciei.

[4] Ethorri cirenean Jerusalemerat ungui errecibituac içan ciren Eliçaz eta Apostoluez eta aphecez, ceinei condatu içan baitcioten cembat gauça handi eguin içan çuen Jaincoac hequiequien. [5] Altchatu içan ciren ordean jende batçu pharisauen sectacoac, fedea besarcatu çutenac, erraten çutela ecen circoncidatu behar cirela jentillac eta ordenatu behar citçayela Moiseren leguea beguiratceaz. [6] Bildu ciren, bada, Apostoluac eta apheçac eguiteco horren gaiñean deliberatceco.

[7] Eta debadio handi baten ondoan altchatu cen Piarres eta erran çaroen: "Ene anayac, badaquiçue aspaldidanic Jaincoac gure artean hautatu içan nauela ene ahotic jentillec entçun ceçatengatic Evangelioco hitça eta sinhetx ceçatentçat. [8] Eta Jaincoac eçagutcen baiditu bihotçac, eracutsi içan du horren froga, hei emanic Izpiritu Saindua guri beçala. [9] Eta differenciaric batere ez du eguin içan hequien eta gure artean, fedeaz garbitu içan baiditu hequien bihotçac. [10] Orai beraz, cergatic tentatcen duçue Jaincoa eçarri beharrez dizcipuluen lephoen gainean ustarri bat, ceiña ez gure aitec, eta ez guc ecin jassan baidugu? [11] Aitcitic Jesuchristo Jaunaren graciaz dugu uste salbatuco garela eta bai hec ere". [12] Orduan ichildu cen batçar gucia eta jarri ciren Barnaberen eta Pauloren aditcen, ceinec condatu baitçuten cembat miracuillu eta gauça ohiz campoco eguin içan çuen Jaincoac hequien bidez jentillen artean.

[13] Eta ichildu cirenean, hartu çuen hitça Jacobec eta erran: "Ene anayac, adi naçaçue: [14] Simonec condatu darotçue nola hassi içan den Jaincoa jentilletaric hautexten beretçat populu baten, [15] eta horrequien accort heldu dire profeten erranac, escribatua den beçala: [16] Guero ondoan bihurtuco naiz eta berriz bastituco dut Daviden etchea eroria dena; erreparatuco ditut haren eroricoac eta altchatuco dut, [17] bilha deçaten gatic Jauna gaiñeraco guiçonec eta nacione guciec, ceiñen

gaiñean deithoratua içan baida ene icena; dio Jaunac berac, ceinec baiditu eguiten gauça hauc. [18] Bethidanic eçagutcen du Jaunac bere obra.

[19] Hargatic niri çait [34] ez direla behar nekhatu jentilletaric Jaincoaganat itçultcen direnac, [20] baiñan escribatu behar çayela guibela daitecela idolez liçunduac direnetaric, fornicacionetic, gauça ithoetaric eta odoletic. [21] Moisez denaz beçambatean, aspaldidanic baditu hiri bakhoitchetan hura predicatcen dutenac sinagoguetan, ceinetan iracurtcen baidute sabbatho egun guciez".

[22] Orduan abisuco içan ciren Apostoluac eta apheçac Eliça guciarequien, berezteco hetaric cembait igortcecotçat Antiochiarat Paulorequien eta Barnaberequien. Hautatu içan cituzten beraz Juda, ceiñac baitçuen icengoitia Barsabas, eta Silas anayen artean ciren principaletaric.

[23] Eta huna cer escribatu çuten hequiequien Apostoluec eta anaya aphecec: "Antiochian, Sirian eta Cilician jentilletaric diren anayei, agur: [24] Nola aditu içan baidugu gutaric ilkhi diren batçuc alborotatu içan çaituztela bere erassiez eta iharrossi içan dituztela çuen arimac gureganic meçuric batere içan gabe, [25] abisuco içan gare elkharrequien batçarra eguin dugunac, hautatceco guiçon batçu eta igortceco çuenganat Barnabe eta Paulo maiteequien, [26] bere biciac Jesuchristo gure Jaunaren icenarentçat eman dituzten guiçonequien batean. [27] Igortcen darozquitçuegu, bada, Juda eta Silas, ceiñec erranen baidarozquitçue hitcez gauça berac. [28] Çayo [35] ecen Izpiritu Sainduari eta bai guri ere, ez çuei eçartcea guehiago cargaric mengoazco hautaz landan: [29] beguira çaitezten idolei offrendatuac içan diren gaucetaric, odoletic, gauça ithoetaric eta fornicacionetic, ceinetaric beguiratceaz ungui eguinen baiduçue. Ungui daiçuela".

[30] Hauc, bada, hunela igorriac içan cirenean, ethorri ciren Antiochiarat eta bilharaciric fidelac, eman çaroen buthuna, [31] ceina iracurri baitçuten bozcario eta consolamendu handirequien. [32] Eta nola Juda eta Silas berac ere profetac baitciren, consolatu içan cituzten eta borthiztu anayac haguitz solhas onez. [33] Eguin ondoan bada han cembait dembora, utci cituzten anayac baquearequien goaterat igorri içan cituztenen ganat. [34] Hala ere apropos aurkhitu çuen Silasec han guelditcea, eta Juda bakharric goan cen Jerusalemerat. [35] Paulo eta Barnabe ere guelditu içan ciren Antiochian iracasten eta predicatcen bertce hainitcequien Jaunaren hitça.

[36] Cembait egunen ondoan, bada, erran cioen Pauloc Barnaberi: "Bihur gaitecen eta bisita detçatcigun anayac Jaunaren hitça predicatu içan dugun hiri gucietan, hea certan diren". [37] Barnabec, bada, hartu nahi çuen berequien Joannes, icengoitiz Marc ceritçana. [38] Pauloc ordean errepresentatu cioen ez cela conbeni berequien har ceçaten Pamphiliandanic hec utci içan cituen presuna bat eta hequiequien lanerat goan ez cena. [39] Içan cen, bada, hequien artean targoa

34. Ikus Mt. XVII, 24: "zait iduritzen", alegia.
35. Ikus honen aurreko oharra (34.).

bat, ceinari çagoçala partitu baitciren elkharganic; eta Barnabe, harturic Marc berequien, embargatu baitcen Chyprerat goateco. [40] Paulo berriz hautaturic Sila, goan içan cen anayez gomendatua Jaincoaren graciari. [41] Iragan cituen Siria eta Cilicia borthizten cituela Eliçac, eta ordenatcen çaroela goardatceaz Apostoluez eta aphecez exlegituac içan citçaiztenac.

XVI. Cap.

[1] Ethorri cen bada Paulo Derberat, guero berriz Lystrarat. Eta cen han dizcipulu bat, Timotheo ceritçana, emaste judutar fidel baten semea, baiñan aita jentilla çuena. [2] Huni cioten lekhucotassun on bat errendatcen Lystran eta Iconion ciren anayec. [3] Pauloc nahi baitçuen hura berequien eraman, harturic circoncidatu çuen lekhu hetan ciren juduengatic; baçaquiten ecen guciec haren aita jentilla cela. [4] Hirietaric iragatean iracasten çaroten goardatcen Jerusalemen ciren Apostoluec eta aphecec eguin içan cituzten ordenamenduac. [5] Eta horla Eliçac borthizten ciren fedean egun oroz eta berretcen nombrean.

[6] Iragan çutenean bada Phrigia eta Galaciaco provincia, debecatuac içatu ciren Izpiritu Sainduaz Jaincoaren hitça predicatcetic Asian. [7] Ethorri cirenean bada Mysiarat, goan gogo çuten Bythiniarat; ordean ez cituen utci goaterat Jesusen Izpirituac. [8] Myssia iraganic bada, jautsi içan ciren Troadarat. [9] Eta Pauloc içan çuen visione bat gauaz: guiçon macedoniar bat aguertu citçayoen othoitcez eta errequerimenduz erraten cioela: "Iragan çaite Macedoniarat eta hel çaquizquigu". [10] Bisione hori içan çuenean, berehala preparatu guiñen goaterat Macedoniarat, segurtçat harturic Jaincoac guinituela deitcen hei predicatcerat.

[11] Embargaturic bada Troaden, chuchen chuchena ethorri guiñen Samothraciarat, eta biharamunean Neapoliserat; [12] handic Philiporat, cein baida Macedoniaco herrico lehenbicico hiria eta colonia bat, eta han egon guiñen cembait egunez compartitcen. [13] Sabbatho egunean, bada, ilkhi içan guiñen hirico portaleèz camporat arriberaren heguirat, non iduritu baitcitçaicun eguiten çutela othoitça; eta han jarriric mintçatu guiñaizten harat bilduac ciren emasteei. [14] Eta Lydia ceritçan Thyatira hirico emaste escarlata saltçaille, Jaincoa cerbitçatcen çuen batec entçun guinituen, ceinaren bihotça idequi baitçuen Jaunac Pauloc erraten cituen gaucen ungui aditceco. [15] Bathatua [36] içan cenean bada bere familiarequien, othoitz eguin çarocun erraten çuelaric: "Baldin jugeatu baduçue Jaunaren fidel naicela, sar çaitezte ene etchean eta egon çaitezte". Eta bortchatu ere guinituen.

[16] Guerthatu içan cen bada othoitcerat guiñohacela, nescato bat pithonen Izpirituaz posseditua cena bat cequigun, ceinec irabaci handi bat ekhartcen baitçaroen bere naussiei bere astmuez [37]. [17] Nescato hura jarraiqui citçaicun Paulori eta

36. Hemen ere bere hartan utzi du, osatu gabe: ik. Jo. I, 25.

37. Zer dio? Latinez *divinando*; beraz *aztikeriez* esan nahi du, baina *asturuez* edo *aztimuez* edo jartzen bide du. Leizarragak: "...asmatzez". Ikus 2 Petr. I, 16.

guri oihuz erraten çuelaric: "Guiçon hauc Jaungoicoaren cerbitçariac dire, ceinec eracusten baidarotçue salbamenduco bidea". [18] Eta hori eguin çuen hainitz egunez; eta nola damu eguiten baitcioen horrec Paulori, itçuliric erran cioen izpirituari: "Manatcen haut Jesuchristoren icenean ilkhi hadin horren ganic". Eta ilkhi cen ordu berean.

[19] Baiñan icussiric haren naussiec galdu çutela bere irabaciaren esperantça, hartu cituzten Paulo eta Silas, eta eraman cituzten gaztelurat carguduneta rat. [20] Eta presentaturic cargudunei, erran cioten: "Guiçon hauc nahasten dute gure hiria, judu batçu dire ecen [21] predicatcen darocutenac bicitce molde bat hartcea, guri goardatcea cilhegui ez çaicuna, Romanoac garenaz gueroztic". [22] Eta abiatu cen populua lausterrez hequien contra, eta cargudunec hautsaraciric hequien arropac, ordenatu çuten açota cetçatela cigorrez.

[23] Colpe hainitz eman ciotçaten ondoan, emanaraci cituzten presondeguian, manaturic jaulerari athosqui [38] goarda cetçala. [24] Harc ordena hori errecibitu eta eman cituen cachotean eta çarratu çarozten oinac cephoetan. [25] Gau erditan, bada, Paulo eta Silas jarri ciren othoitz eguiten eta Jaincoaren laudorioac cantatcen; eta aditcen cituzten han ciren presonyerec. [26] Eta betbetan eguin cen lur ikharatce handi bat halaco moldez, non higuitu içan baitciren presondeguico cimenduac; dembora berean idequi ciren athe guciac eta gucien estecailluac hautsi içan ciren.

[27] Iratçarriric, bada, jaulera eta icussiric idequiac presondeguico atheac, athera çuen bere ezpata eta hill nahi çuen bere burua, ustez ecen itçuri ciren pressonyerac. [28] Baiñan Pauloc erran cioen oihu goraz: "Ez dioçaçula minic eguin çure buruari, guciac ecen hemen gare". [29] Orduan galdeturic arguia, sarthu içan cen barnat eta gucia ikharatua arthiqui cen Pauloren eta Silasen oinetarat; [30] eta camporat ilkhiaraciric, erran çaroen: "Jaunac, cer eguin behar dut salbatua içateco?". [31] Hec ihardetsi içan cioten: "Sihetsaçu [39] Jesuchristo Jauna baitan eta salbatua içanen çare çu eta çure familia". [32] Eta iracatsi içan cioten Jaunaren hitça eta bai haren etcheco guciei ere. [33] Harc berriz gauaren oren hartan berean garbitu çarozten bere çauriac; eta berehala bathayatuac içan ciren bera eta bere mainada gucia. [34] Guero eramanic bere etcherat, hedatu çaroen mahaiña; eta alegueratu içan cen bere familia guciarequien, ceren sinhetsi çuen Jaincoa baithan.

[35] Eguna ethorri cenean, igorri içan ciotçaten cargudunec charchoac erraterat, utz cetçala guiçon hec goaterat. [36] Jaulera ethorri citçayoen berehala Paulori erraterat: "Gastiatu dute cargudunec utz çaitçagutela goaterat; ilkhi çaitezte, beraz, orai berean eta çohazte baquean". [37] Pauloc ordean erran çaroen: "Açotatu gaituzten ondoan publicoqui jugeamendu formaric gabe gu erromarrac, eman gaituzte presondeguian; eta orai ichillic gaituzte libratcen? Ez da hala içanen, bainan bethoz

38. *Arthosqui* idatzi nahiko zuen, agian.
39. *Sinhetsaçu* behar zuen, apika.

berac eta ilkhiaraz beitgaitçate" [40]. [38] Adiaraci çaroen hori charchoec cargudunei, ceiñac beldurtu baitciren aditu çutenean erromarrac cirela. [39] Eta ethorriric, excusac eguin ciotçaten; eta presondeguitic ilkhiaraciric, errequeritu cituzten ciohacela hiritic. [40] Presondeguitic bada ilkhi eta, sarthu ciren Lydia baithan, eta icussi ondoan eta consolatu ondoan anayac, goan ciren.

40. Agintekera da noski: *haiek gu*. Guk *gaitzatela* esango genukeena. Leizarragak: "...idoqui gaitzate". Ikus Kolos. II, 16: *beçaitçate*.

XVII. Cap.

[1] Iraganic bada Amphipolian eta Apollonian gaindi, ethorri ciren Thessalonicarat, ceinetan judutarrec baitçuten sinagoga bat. [2] Paulo goan cen hetarat ohitça çuen beçala eta hirur sabbatho egunez mintçatu citçayen Escritura sainduco gaucez, [3] declaratcen eta compreniaratcitcen çaroelaric Christoc pairatu içan behar çuela eta hilletaric biztu behar içan çuela: eta "Christo hura", ciotsoten, "Jesuchristo da, ceina nic predicatcen baidarotçuet". [4] Eta hetaric cembaitec sinhetsi içan çuten eta atchequi çaroen Paulori eta Silasi Jaincoaren beldurra çuten nombre handi batequien eta hainitz emastequi ohoraturequien.

[5] Ordean juduac zeloz iraquituric hartu cituzten berequien jende cheheètaric guiçon gaixtaguin batçu, eta hetaz bilduma bat eguinic, alborotatu çuten hiri gucia eta barrendatu çuten Jasonen etchea, Paulo eta Sylas eraman nahiz populuaren aitcinerat. [6] Eta ez baitcituzten hec aurkhitu, trainatu cituzten Jason eta anayetaric cembait hirico cargudunetarat, ciotsatelaric oihuz: "Hiria alboratcen[41] duten jende hec, bertcetaric hunat ethorriricaco batçu dire, [7] ceiñac Jasonec bere etcherat hartu baiditu eta hauc guciec Cesaren ordenantcen contra eguiten dute, diotelacotz badela bertce erregue bat, cein baida Jesus". [8] Tarritatu çuten bada jende chehea eta bai hirico cargudunac hori aditcen çutenac. [9] Baiñan eman baitçaroen Jasonec fiadorgoa eta bai bertcec ere, utci içan cituzten goaterat.

[10] Anayec ordean berehala gauaz partiaraci cituzten Paulo eta Silas Bertcetarat[42] goateco; eta han cirenean arribatu, sarthu ciren judutarren sinagogan. [11] Judutar hec, bada, ciren nobleagoac Thesalonicacoac baiño, eta errecibitu çuten hitça possible cen lehia guciarequien, egun oroz estudiatcen cituztela Escriturac, icusteco hea gauçac hala othe ciren. [12] Behintçat hetaric hainitcec çuten sinhetsi, bai eta jentilletaric ere emaste ohoratu hainitcec eta asco guiçonec ere.

[13] Jaquin çutenean ordean Thessalonicaco juduec Pauloc predicatu çuela Jaincoaren hitça Beroean ere, ethorri ciren harat ere populua tarritatcerat eta alborotatcerat. [14] Orduan berehala Paulo ilkhiaraci çuten anayec itsassoco alderat eta guelditu ciren han Silas eta Timotheo. [15] Bizquitartean Paulo guidatcen çutenec eraman çuten Athenaraiño eta meçua harturic, Silasi eta Timotheori errateco ahalic lausterrena ciohazcola harat, abiatu ciren handic.

41. *Alborotatcen* behar zuen; ikus aurreko bertsotxoa (5.).

42. Kopiatzaileak gaizki irakurri ote du Haranederren eskuizkribua? Hori jarri bide baitu eta "in Beroeam", hots Beroeas (gazteleraz Berea) deritzan hirira dio Vulgatak. Ikus hiru bertso beherago *Beroean*.

16 Paulo hequien beguira cegoen dembo- [43] hassi cen haren Izpiritua khechatcen haren barnean, icusteaz hiri hura idolatriari hain emana. 17 Ciharducan, bada, sinagoguetan judutarrequien eta Jaincoaren beldurra çutenequien, eta plaçan berriz egun guciez han aurkhitcen cirenequien. 18 Iharduquitcen ciren halaber cembait philosopho Epycuriano eta Stoiciano ere harequien eta cioten batçuec: "Cer erran nahi du erasle hunec?". Bertceèc berriz cioten: "Badiruri Jainco berri batçu predicatcen dituela", ceren Jesus predicatcen çuen eta erresurreccionea. 19 Harturic, bada, eraman çuten Areopagorat [44], erraten ciotelaric: "Jaquin othe deçaquegu cer den çuc iracasten duçun dotrina berri hori? 20 Gauça berri batçu ecen ekhartcen darozquigutçu beharrietarat. Nahi dugu, bada, jaquin cer erran nahi duten horiec". 21 Athenatar guciac ecen eta han ciren arrotçac [45] ez çaramaten bere dembora deussetan ere bertcetan, cerbait gauça berri erraten edo aditcen baicen.

22 Paulo, bada, içan cenean Areopagoaren erdian, erran çaroen: "Athenaco guiçonac, gauça gucietan çaizquidate iduritcen debotegui beçala; 23 iragatean ecen behatu baidaroet çuen jaincoen figurei; aurkhitu içan dut aldare bat ere, ceiñetan baida escribatua: Jainco eçagutu gabeari. Bada eçagutu gabe adoratcen duçuen hura darotçuet nic predicatcen. 24 Mundua eta munduan diren guciac eguin içan dituen Jaincoa, ceruaren eta lurraren jaun den beçala, ez da hura escuz eguinicaco templuetan egoten. 25 Eta baldin içaten badu ohoreric guiçonen escutic, ez du içaten [46] nihoren beharra duelacotz, berac ematen daroenaz gueroz guciei bicia, hats-hartcea eta gauça guciac. 26 Harc soraraci içan du guiçon choill baten ganic guiçonen arraça gucia eta eman içan daroe egoitçatçat lurraren hedamen gucia, erreguelaturic hequien egoitçaco dembora exlegituac eta cedarriac; 27 bilha deçatentçat Jaincoa aguian hastamuca beçala aurkhituco dutelacoan, urrun ez den arren gu batbedera ganic. 28 Haren baithan dugu ecen bicitcea, higuitcea eta içatea, eta çuen poetetaric cembaitec erran içan dutena: Haren beraren arraçacoac ere gare. 29 Jaincoaren arraçaco garenaz gueroz, beraz, ez dugu uste içan behar Jaincotassuna urre, cilhar edo harrizco figura guiçonen antcez eta asmuz moldaturicacoen iduritaco ditequela. 30 Bada ignorantcia hortaco demborac gaitzetsiric Jaincoac, orai adiarazten daroe guiçonei, guciec eta lekhu gucietan eguin deçaten penitencia. 31 Ceren exlegitu içan baidu egun bat, ceiñetan jugeatuco baidu mundua justutassunean hortacotz ordenatu içan duen guiçonaz, eta hortaz eman içan daroe guciei lekhucotassun bat sinhexteco dena, hura hilletaric biztean".

32 Aditu çutenean, bada, hilletaric bizte hori, batçu trufatu içan ciren, bertceèc berriz erran içan çuten: "Adituco çaitugu horren gaiñean bertce aldi batez". 33 Horla Paulo ilkhi cen hequien batçarretic. 34 Cembait guiçon, bada, juntatu citçaizcon eta sinhetsi içan çuten; ceiñen artean baitcen Denis Areopagita eta emaste bat, Damarias ceritçana, eta bertceric ere bai hequiequien batean.

43. Idatzi gabe utzi du *-ran* eta beharbada zerbait gehiago, "Athenis" baitio Vulgatak.
44. Hemen hitz hau ez da garbi irakurtzen, baina bai hiru bertsotxo beherago (22.).
45. *Guciec* eta *arrotcec* behar luke berez.
46. Ez da ongi irakurtzen *içaten* hau.

XVIII. Cap.

[1] Ondoan guero Athenatic ilkhiric ethorri içan cen Corinthiarat. [2] Eta aurkhituric judutar bat Aquila ceritçana sortcez Pontecoa, berriroqui Italiatic ethorria Priscilla haren emastearequien, ceren Claudio emperadoreac ordenatu içan baitçaroen judutar guciei ilkhi citecela Erromatic, goan cen hequien ganat. [3] Eta hequien officio berecoa baitcen, hequiequien cegoen eta hari cen lancan; cen, bada, hequien officioa cabana eguitea.

[4] Hargatic predicatcen çuen sinagogan sabbatho egun guciez; eta bere predicuetan Jesusen icenaz aiphamena eguiten çuela, entseyatcen cen judutarrac eta bai grecoac erakhartcerat sinhexterat. [5] Ethorri içan cirenean, bada, Macedoniatic Silas eta Thimotheo, lehiatu cen Paulo bortixquiago predicatcen juduei, eracusten çaroela Jesus cela Christo.

[6] Ordean hec contrariatcen baitçuten blasphematceraiñocoan, bere arropac iharrossiric, erran çaroen: "Çuen buruen gain çuen odola; ni behintçat chahu naiteque oraidanic; banoha gentilletarat". [7] Eta abiaturic handic sarthu cen Tito Justua ceritçan baten etchean, cein baitcen Jainco beldurtia eta ceinaren etchea baitçatchecan sinagogari.

[8] Crispo sinagogaco buruçaguiac, bada, sinhetxi içan çuen Jauna baitan bere familia guciarequien; hainitz Corinthiarrec ere Paulo aditu içan çutenec sinhetxi içan çuten eta bathayoa errecibitu. [9] Dembora hartan erran içan cioen Jaunac Paulori gauaz aguergune batean: "Ez duçula beldurric, aitcitic mintça çaite eta ez çaudecela ichillic; [10] ecen ni çurequien naiz eta nihor ez da jarrico çuri gaixquiric eguiterat, cergatic populu handi bat baidut hiri huntan enea". [11] Egon cen, bada, han urthe bat eta sei ilhabetez, iracasten çaroela Jaincoaren hitça.

[12] Baiñan Gallio Achaiaco proconsul cela, altchatu içan ciren gogo batez judutarrac Pauloren contra eta eraman çuten haren tribunalerat, [13] erraten çutela ecen: "Leguearen contra den manera batez Jaincoa cerbitçatcerat nahi ditu guiçon hunec ekharri jendeac". [14] Paulo, bada, ahoa idequitcen hasten cela, erran çaroen Gallioc juduei: "Baldinetariac cembait injusticia edo gauça gaixto balitz hemen, o judutarrac, legue den beçala sustenga cintçaquetet. [15] Baldin ordean questione bada hitcez, icenez eta çuen legueaz, cebonei dagotçue icustea; ez dut nic nahi içan horlaco gaucetan juge". [16] Eta khendu cituen bere tribunaletic. [17] Harturic, bada, guciec Sosthenes sinagogaco buruçaguia, jaçarri cioten tribunalaren aitcinean, eta Gallioc hortaz antsiaric batere ez çuen içatu.

[18] Pauloz denaz beçambatean, oraiño hainitz egunez han egon ondoan, ana-

yei adiu erranic embargatu cen Siriarat goateco, eta harequien batean Priscilla eta Aquila ere; bere illeac aitcitic picaraci cituen Cenchren, botu bat çuen eguina ecen. [19] Eta ethorri içan cen Epheserat eta utci cituen hec han. Bera sarthuric sinagogan jarri cen disputan juduequien. [20] Eta hec othoitcez çagozcolaric dembora guehiagoz egon cequioten, ez çuen nahi içan egon. [21] Aitcitic despeida harturic eta erranic: "Bertce aldi batez ethorrico natçaitçue, Jaincoac nahi badu", partitu içan cen Ephesetic. [22] Eta Cesarearat jautsiric, goan cen aitciñago eta salutatu çuen Eliça; guero berriz goan cen Antiochiarat.

[23] Cembait demboraz han egonic, abiatu cen handic eta trebessatu çuen arrimuz eta hiriz hiri Galaciaco eta Phrigiaco herri gucia, dizcipulu guciac borthizten cituela. [24] Dembora hartan judutar bat Apollo ceritçana ethorquiz Alexandriarra, guiçon eloquenta eta Escrituretan haguitz aditua, ethorri içan cen Epheserat. [25] Jaquintsuna cen Jaunaren bidean eta, khar handirequien mintço cela ederqui, haguitz iracasten çuen Jesusi behatcen çayoena, eçagutcen ez çuen arren Joannesen bathayoa baicen. [26] Hura, bada, hassi cen ausarqui mintçatcen sinagogan eta aditu içan çutenean Priscillac eta Aquillac, hartu çuten bere ganat eta eçagutaraci cioten hobequiago Jaunaren bidea.

[27] Nola ordean goan nahia baitcen Achaiarat, anayec ere hartarat exortaturic escribatu içan çaroen dizcipuluei errecibi ceçatela. Harat arribatu cenean, baliatu citçayen hainitz sinhetsi içan çutenei, [28] biciqui hainitz ecen judutarrac cituen bentçutcen, publicoqui çaroelaric eracusten Escrituretaric Christo cela Jesus.

XIX. Cap.

[1] Guerthatu cen, bada, Apollo Corinthian cela, Paulo gain aldeètan ibilliric ethortcedin [47] Epheserat, ceinetan aurkhituric dizcipulu batçu, [2] erran baitçaroen: "Errecibitu othe duçue Izpiritu Saindua fedea errecibitcean?". Hec ihardetsi içan cioten: "Aditu ere ez dugu Izpiritu Sainduric baden ere". [3] Harc berriz erran çaroen: "Cer bathayoz bathayatuac içan çarete, bada?". Hec ihardetsi içan cioten: "Joannesen bathayoaz". [4] Horren gaiñean erran çaroen Pauloc: "Joannesec bathayatu içan du populua penitenciaco bathayoaz, erraten çuela ecen sinhets ceçatela haren ondoan heldu cena baithan, erran nahi da Jesus baitan".

[5] Horiec adituric, bathayatuac içan ciren Jesus Jaunaren icenean. [6] Eta Pauloc escuac gaiñean pausatu içan çarozten ondoan, ethorri cen Izpiritu Saindua hequien gaiñerat halaco moldez, non mintço baitciren hainitz lengoayez eta profetisatcen ere baitçuten. [7] Ciren bada guciz hamami [48] guiçonen ingurua.

[8] Sarthu içan cen guero sinagogan eta han mintçatu içan cen ausarqui hirur ilhabethez, disputan hari cela eta izpirituen irabazten Jaincoaren Erresumari dagozcon gaucen sinhexterat. [9] Nola ordean batçu gogortcen baitciren ez sinhesterat, gaixqui mintçatcerainocoan Jaunaren bideaz populu guciaren aitcinean, aldaratu cen hetaric eta apartaraciric bere dizcipuluac handic, jarri cen iracasten egun guciez Tiran ceritçan baten escolan. [10] Iraun çuen horrec bi urthez, hain ungui bai, non Asian ceudecen guciec entçun içan baitçuten Jaunaren hitça, nahiz judutarrec, nahiz gentillec.

[11] Eta miracuillu ohiz campocoac ere cituen eguiten Jaincoac Pauloren escuz, [12] hartaraiñocoan bai, non erien gaiñerat ekhartcen baitcituzten haren gorphutça uquitu çuqueten mocanerac eta oihalac eta goaten baitcitçaizten errasunac eta ilkhitcen gorphutcetaric izpiritu gaixtoac.

[13] Benturatu ciren, bada, harat hunat cebiltçan exorcizta judutarretaric batçu, othoitz eguiterat izpiritu gaixtoez hartuac cirenen gaiñean Jesus Jaunaren icenari, erraten çutelaric: "Conjuratcen çaituztegu Pauloc predicatcen duen Jesusen partez". [14] Ciren, bada, hori eguiten çutenac Sceva judutar aphecetaco princearen çazpi seme. [15] Ihardetsi çaroen ordean izpiritu gaixtoac eta erran: "Eçagutcen diat Jesus eta bacequiat nor den Paulo; çuec ordean nor çarete?". [16] Oldartu citçayen dembora berean izpiritu haguitz gaixto batez hartua cen guiçona hetaric biei, eta

47. Halaxe dio. Ikus, erabat antzeko ez badira ere, goraxeago XII, 23.
48. *Hamabi,* alegia.

biac garaituric hain gaixqui erabilli cituen, non bulhuciac eta çaurthuac goan baitciren ihessi etche hartaric. [17] Gauça hori, bada, ethorri içan cen Ephesan ceudecen judutar eta gentill gucien eçagutçarat; guciac espantatuac içan ciren eta glorificatua içan cen Jesus Jaunaren icena. [18] Eta sinhexten çutenetaric hainitz heldu ciren confessatcerat eta erraterat bere eguincariac. [19] Halaber curiositatezco gaucetarat emanac içan cirenetaric hainitcec ekharri cituzten bere liburuac eta erre cituzten gucien aitcinean; eta hequien balioa estimatu baitçuten, aurkhitu içan cen beçala [49] berrogoi eta hamar milla diru pecena. [20] Hala Jaincoaren hitça hedatcen hari cen gueroago eta guehiago eta indar hartcen podorosqui. [21] Horiec eguin ciren ondoan, deliberatu içan çuen Pauloc Izpiritu Sainduaren inspiracione batez Macedonian eta Achaian iraganic goaterat Jerusalemerat, erraten çuela ecen: "Han içatu ondoan, icussi behar dut Erroma ere". [22] Igorriric, bada, Macedoniarat bere lagun cituenetaric bia, Timotheo eta Eraste, guelditu cen bera cembait demboraz oraiño Asian.

[23] Guerthatu içan cen, bada, dembora hartan alborotamendu handi bat Jaunaren bidearen ariaz, [24] ecen Demetrius ceritçan cilharguin batec, ceinec Dianaren cilharrezco templutchoac eguiten baitcituen eta officio hartacoei hainitz irabazarazten baitçaroen, [25] hec billaraciric eta horlaco gaucetaco officiale cirenac, erran içan çaroen: "Guiçonac, badaquiçue officio huntaric heldu çaicula gure irabacia, [26] eta icusten duçue eta aditcen, ez choilqui Ephesan baiñan oraiño quasi Asia gucian, Paulo hunec bere arroçoinamenduez urrundu darocula jendetze handi bat, erraten duela ecen guiçonen escuz eguiten diren jaincoac ez direla jaincoac. [27] Ez choiqui [50], beraz, da hirriscutan gure officioa descridatua [51] içateco; bainan oraiño Diana handiaren templua ere ezdeussentçat atchequico dute, eta Asia guciac eta bai mundu guciac ohoratcen duenaren majestatea baratche baratche ezeztatua içanen da".

[28] Horiec adituric coleraz betheac jarri ciren, oihuz eta deihadarrez erraten çutelaric: "Ephesiarren Diana handia!". [29] Eta bethe içan cen hiri gucia confusionez, eta guciac elkharrequien goan ciren lausterca theatrerat, berequien çaramatçatela Gayus eta Aristarque Macedoniarrac, Pauloren lagunac. [30] Pauloc, bada, nahi baitçuen sarthu populuaren arterat, ez çuten utci dizcipuluec. [31] Eta are Asiaco principaletaric cembaitec, haren adisquide cirenec, igorri içan cioten ere othoitzterat, ez cedin aguer theatrerat. [32] Oihuz ceudecen, bada, batzu baterat eta bertceac bertcerat; nahassia cen ecen batçar gucia eta guehienec ez ceaquiten ere certarat bildu ciren. [33] Jende artetic, bada, athera cen Alexandre, judutarrec bere aitcinean butatuz; eta escuz kheinu eguinic ichil citecela, nahi içan çuen bere burua justificatu populuaren aitcinean. [34] Bainan eçagutu çutenean judutarra cela, guciec elkharrequien altchatu çuten boça eta egon ciren deihadarrez bi orenez edo: "Ephesiarren Dianaren handia!".

49. Ez ote *bacela*?
50. Hemen eta gehiagotan -*l*- gabe: ik. XXVII, 10.
51. Hori dioela dirudi, baina ez da seguru; frantsesez *décrier*..

[35] Ondoan escribanoac jende chehea apacegaturic, erran içan çaroen: "Ephesiarrac, nor da guiçonen artean ez daquienic Ephesiaco hiriac ohoratcen duela Diana handia, Jupiterren alaba? [36] Beraz horren contra nihor ecin dohaquenaz gueroz, sosseguan egon behar duçue eta deussere ez eguin arinqui. [37] Ekharri ditutçuen guiçon horiec ecen ez dire sacrilego batçu eta ez çuen jaincoessa blasphematcen dutenac. [38] Baldinetariac Demetriussec eta harequien diren officialeèc badute cerbait errencura eguiteco norbaiten contra, iduquitcen dire gortheac eta badire proconsulac; acusa beçate elkhar justician. [39] Bainan baldin bertce cerbait gaucen gainean baduçue erratecoric, erreguela ahal diteque batçar legitimo batean, [40] ecen perillean ere gare egungo sedicioneaz acusatuac içateco, deussere arroçoinic ecin eman deçaquegunaz gueroz alborotamendu hunen gaiñean". Horiec erran ondoan, erretiraraci çuen mundua.

XX. Cap.

[1] Alborotamendua guelditu içan cen ondoan, ekharriric Pauloc dizcipuluac eta exortaturic, adiu erran çaroen eta abiatu cen Macedoniarat goateco. [2] Ibilli ondoan, bada, parte hetan eta exorta hainitz eguin ondoan fidelei, ethorri cen Greciarat, [3] ceinetan eguin ondoan hirur illhabethe, cetaletan [52] baitcegozcon juduac noiz embargatuco othe cen Siriarat goateco, hartu çuen chedea Macedonian gaindi bihurtceco. [4] Lagundu çuten bada Sopater, Pirrus Beroearraren semeac; Thesaloniarretaric berriz Aristarquec eta Secondec; Gaius Derbeacoac eta Thimothec, eta Asiarretaric Tichiquec eta Trophimec. [5] Hauc aitcinerat goanic, iguriqui guinituzten Troaden. [6] Gu berriz embargatu guiñen levami gabeco hirur egunen ondoan Philiposen eta ethorri içan guinaizten bortz egunen buruco Troaderat, non egon baitguiñen çazpi egunez.

[7] Asteco lehenbicico egunean bildu baiguiñen oguiaren hausteco, Paulo, ceinec partitu behar baitçuen biharamunean, mintçatu citçayen dizcipuluei eta iraun çuen haren predicuac gau erdiraiño. [8] Ciren, bada, lampa hainitz gu bilduac guiñen gaiñeco salan. [9] Eta guiçon gazte bat Eutique ceritçana, baitcegoen jarria leyho baten gainean lo Pauloren predicu luce hartan, loac garaituric erori içan cen hirur garren soillarutic beherat eta eraman çuten hilla. [10] Bainan jautsiric Paulo behererat, etçan cen haren gaiñerat eta hura besarcaturic erran çuen: "Ez çaiteztela altara, ecen bici da". [11] Iganic guero, oguia hautsi ondoan eta jan çuen ondoan, mintçatu citçayen argui hasteraiño oraiño, eta abiatu cen guero ondoan. [12] Ekharri çuten, bada, guiçon gaztea bicia eta haguitz içan ciren consolatuac.

[13] Gutaz denaz beçambatean, untci batean embargaturic goan guiñen Assoneraiño, han hartceco Paulo; horla çuen ecen ordenatu, leyhorrez eguin gogo baitçuen berac bidea. [14] Bathu guinituenean bada Assonen, hartu içan guinduen eta ethorri guiñen Mitylenarat. [15] Handic arruta emanic, biharamunean ethorri guiñen Chioren aurcarat; hurreneco egunean arribatu guinen Samosen eta ondoco egunean ethorri guiñen Mileterat. [16] Deliberatu çuen ecen Pauloc Ephesaz haratago iragaterat, batere ez guelditceagatic Asian; lehia baitçuen, baldin possible bacitçayon, Mendecoste egunecotz Jerusalemen içateco. [17] Miletetic, bada, meçua igorriric Epheserat, erakharri içan cituen Eliça hartaco apheçac.

[18] Eta ethorri içan citçaizconean eta elkharganat cirenean, erran çaroen: "Badaquiçue Asian sarthu içan nintcen lehenbicico egunaz gueroztic nola comportatu

52. *Celat(et)an* idatzi nahi bide zuen; *celatan* dio garbiro beheraxeago (19.).

içan naicen çuequien dembora guciaz, [19] Jauna cerbitçatcen nuela humilltassun osso batequien eta nigar hainitcequien, celatan cegozquidan judutarren partetic içan ditudan assalduen artean; [20] nola deussere ez darotçuedan estali çuen probetchuco gaucetaric, eta ez utci iracatsi gabe publicoan eta etcheètan, [21] predicatcen niotela judutarrei eta bai gentillei Jaincoa baitaraco penitencia eta Jesuchristo Jauna baitharaco fedea. [22] Eta orai horra non nohan Izpirituz amarratua Jerusalemerat, han cer arribatu behar çaitan ez daquidalaric, [23] baicen Izpiritu Sainduac hiri gucietan eçagutaracitcen baidarot eta erraten gatheac eta persecucioneac daudecela enetçat Jerusalemen. [24] Bainan ez dut horien gucien beldurric, eta ez çait ene bicia baliossago neroni naicen baino, baldin akhaba badeçat ene cortsua eta bethe Jesus Jaunaganic errecibitu içan dudan cargua, Jaincoaren graciaren Evangelioa predicatcecoa.

[25] Gaineracoan badaquit oraidanic guehiago icussico ez duçuela ene bissaya çuec gucioc, ceinen artean ibilli içan bainaiz Jaincoaren Erresuma predicatcen. [26] Hargatic, beraz, darotçuet declaratcen egungo egunean garbi naicela gucien odoletic. [27] Ez naiz ecen herabe içatu, çuei eracusterat Jaincoaren nahi guciac. [28] Goardia emoçue, beraz, ceuben buruei eta arthalde guciari, ceinaren gainean Izpiritu Sainduac ifini baitçaituzte Aphezpicu, Jaincoaren Eliça bere odolaz conquestatu içan duena gobernatceco. [29] Badaquit ecen ni goan ondoan sarthuco direla çuen arterat otso arrapatçailleac, arthaldea guphidetsico ez dutenac. [30] Eta çuen artetic beretic altchatuco direla doctrina gaixto bat predicatuco dutenac, bere ondoan eraman nahiz dizcipuluac.

[31] Hargatic beraz ceudete atçarriac, bethiere gogoan daducaçuela hirur urthez ez naicela guelditu gauaz eta egunaz nigarrequien avertitcetic çuetaric batbedera. [32] Eta orai gomendatcen çaizquotet [53] Jaincoari eta haren hitçari datchacon graciari, bothe [54] duenari guc hassi dugun edificioa akhabatceco eta bere Saindu guciequien bere primeçan parte çuei emateco. [33] Nihoren cilharraz, ez urreaz, ez arropez ez naiz guticiatu. [34] Cebonec badaquiçue ecen, escu hauc fornitu içan darotedala [55] neuretçat eta enequien cirenentçat behar nituen gauçac. [35] Horiec guciac eguin içan ditut çuen beguietan, cergatic horla trabaillatuz behar baidire flacoac menayatu; eta orhoitu ere behar da Jesus Jaunac berac erran içan duenaz, gauça dohatsuagoa dela hainitcez ematea ecen ez hartcea".

[36] Eta hauc erran ondoan, jarri cen belhaurico hequiequien guciequien batean othoitz eguiten. [37] Guciac dembora berean hassi ciren nigarrez eta Paulori mussuca, haren lephorat bere buruac arthiquiric, [38] damu harturic beregainqui erran içan çaroen hitçaz: guehiago haren bissaya ez çutela icussico. Eta seguitu çuten untcirat.

53. Hau *nor-nori-nork* adizkia da, *nor* hirugarren pertsona ez duena ordea: "Et nunc commendo vos Deo". Leizarragak *cerauzquiotet* dio.

54. Azken *-re* ez du idatzi.

55. *Darotedala* ala *daroztedala*? Osagarri zuzena *gauçac* da; lehena dio halere.

XXI. Cap.

[1] Embargatu guinenean, bada, hequienganic asqui nekhez separaturic, eta belan jarri, ethorri guinen chuchen chuchena Courat, biharamunean Rhoderat eta handic Patararat. [2] Han aurkhituric untci bat Pheniciarat cihoana, igan guiñen hartarat eta belan jarri. [3] Chipraco irlaren bistarat guinenean, bada, hura ezquerrerat utciric eman guinduen arruta Siriarat eta ethorri guinen Tirerat, han behar çuen ecen untciac descarga eguin. [4] Aurkhitu içan baiguintuen han cembait dizcipulu, egon guiñen han çazpi egunez; eta hec erraten cioten Paulori cerbait inspiracionez, ez ciohala Jerusalemerat. [5] Çazpi egun hequien buruan partitu guiñen eta ethorri citçaizquigun guciac bere emastequien eta haurrequien hiriaz camporaiño; belhaurico jarriric, ur basterrean eguin guinduen gure othoitça. [6] Eta elkharri adiu erranic, igan guiñen gu untcirat, hec berriz bihurtu ciren bere etchetarat. [7] Gure itsassoco biyaya akhabatceco, Tyretic jautsi guiñen Ptolemaidarat, eta anayac salutaturic egon guiñen egun bat hequiequien.

[8] Biharamunean, bada, partituric ethorri guiñen Cesarearat; sarthu guinen Philipe evangelistaren etchean, cein baitcen çazpi diacretaric bat, eta egon guinen haren baithan. [9] Cituen harc laur alaba virgina profetisatcen çutenac. [10] Nola guelditu baiguinen han cembait egunez, ethorri içan cen Judeatic profeta bat Agabe ceritçana. [11] Hunec icusterat ethorri citçaicunean, hartu içan çuen Pauloren guerricoa eta, hartaz amarratu ondoan bere oiñac eta escuac, erran içan çuen: "Huna cer dioen Izpiritu Sainduac: guerrico hunen jabea hunela dute estecatuco Jerusalemen judutarrec eta libratuco jentillen escuetarat".

[12] Hori aditu guinduenean, jarri guinaizcon othoitcez gu eta lekhu hartaco jendeac, arren ez ciohala Jerusalemerat. [13] Orduan ihardetsi çuen Pauloc eta erran: "Ceri hari çarete nigar horien eguiten eta ene bihotça erdiratcen? Ecen preparatua naiz, ez choilqui amarratua içaterat, baiñan oraino hiltcerat ere Jerusalemen Jesus Jaunaren icena gatic". [14] Eta icussi guinduenean ecin burutarat eman guinoçoquela, utci guinduen erraten guinduelaric: "Eguin bedi Jaunaren borondatea".

[15] Cembait egun horien ondoan, bada, prestatu guinen abiatcerat eta goan guinen Jerusalemerat. [16] Ethorri ciren gurequien Caesareaco cembait dizcipuluetaric ere, berequien çakharquetela Mnason ceritçan bat, Chipraco irlacoa, dizcipulu çaharra, ceina baitan behar baiguinen ostatatu. [17] Ethorri guiñenean Jerusalemerat, gogo onez errecibitu guintuzten anayec. [18] Biharamunean goan cen Paulo Jacobe baitarat gurequien eta bildu içan ciren harat aphez guciac. [19] Besarcatu

cituen ondoan, condatu çarozten cheheren chehe Jaincoac haren escuz jentillen artean eguin içan cituenac.

[20] Hec berriz horiec aditu cituztenean, glorificatu çuten Jaincoa eta erran cioten Paulori: "Icusten duçu, anaya, cembat milla diren judutarretaric sinhetsi dutenac; eta guciac zeloz betheac dire leguearentçat. [21] Aditu dute ordean çutaz, Moise utz deçaten iracasten dioçutela jentillen artean diren juduei, erraten duçula ecen ez dituztela circoncidatu behar bere umeac eta ez dutela ohitça çaharren arauera behar ibilli. [22] Cer eguin behar da beraz? Alabainan mundu gucia bilduco da, jaquinen dute ecen ethorri çarela. [23] Eguiçu beraz guc erraten darotçuguna: Baditugu hemen laur guiçon botu bat eguin dutenac. [24] Hec çurequien harturic, purifica çaite hequiequien batean; paga çaçu hequientçat behar dena buruac arrasa detçatentçat, eta jaquinen dute guciec çutaz aditu dituztenac falsoac direla; aitcitic ceronec ere leguea beguiratcen duçula. [25] Gentilletaricaco sinhetsi dutenez denaz beçambatean, escribatu içan diotegu ordenatcen daroegula beguira daitecen idolei offrendatuac içan diren gaucetaric, odoletic, ithoac içan diren haraguitaric eta fornicacionetic".

[26] Orduan Pauloc hartu cituen guiçon hec berequien eta, biharamunean purificaturic, hequiequien sarthu cen templuan eta declaratu çuen cembat egunen buruan complituco citequen hequien purificacionea eta noiz beharco cen offrenda eman hetaric bat bederarentçat. [27] Çazpi egunac ja iragan hurren cirela, Asiaco judutarrec icussiric hura templuan, altcharaci çuten populu gucia eta eman cioten escua gaiñean heyagoraz ceudelaric: [28] "Israeldarrac, hel çaquizquigute! Hau da guiçon lekhu gucietan populuaren, leguearen eta templuaren contra predicatcen duena; eta are guehiago ere, jentillac templurat sarraraci baiditu eta profanatu baidu lekhu saindi hau". [29] Icussi baitçuten ecen Trophime Ephesiaco [56] hirian harequien eta uste baitçuten templuan sararaci içan çuela Pauloc.

[30] Alborotatu cen berehala hiri gucia eta bildu cen populutze handi bat; eta harturic Paulo, athera çuten templutic camporat eta berehala çarratu cituzten atheac. [31] Hura hill nahiz cebiltçala, ethorri citçaizcon berria ematerat cohorteco tribunari nahassia cela Jerusaleme gucia. [32] Eta dembora berean harturic soldaduac eta centeneroac berequien, goan cen lausterca hequienganat; eta hec icussi cituztenean tribuna eta soldaduac, guelditu ciren Paulo cehatcetic.

[33] Orduan hurbilduric, tribunac hartu çuen eta ordenatu amarra ceçatela bi gathez; guero galdeguin çuen, hea nor cen eta cer eguin çuen. [34] Baiñan jendetce hartan batçu bataz ceudecen oihuz eta bertceac bertceaz. Icussiric, bada, deussere seguric ecin jaquin ceçaquela, alborotamendua cela causa, eramanaraci çuen gaztelurat. [35] Eta Paulo ethorri cenean escaleretarat, eraman behar içatu çuten soldaduec, populutcearen biolenciagatic.

[36] Jarraiqui içan citçayon populu mulço handi bat oihuz: "Khen çaçu mundu-

56. *Ephesiacoa* Vulgataren arabera Trofimo da ("Trophimum Ephesium"), ez "Ephesiaco hirian" beraz, baizik "Trophime Ephesiaco".

tic guiçon hori". [37] Gazteluan sartceracoan Pauloc erran cioen tribunari: "Hauçu othe ninteque çuri cerbait erraterat?". Ihardetsi cioen tribunac: "Badaquiçu grecoz mintçatcen? [38] Ez çare çu Egiptoar hura, iragan egun horietan sedicione bat phiztu duçuna eta laur milla gaixtaguin deserturat altcharaci ditutçuna?". [39] Ihardetsi içan cioen Pauloc: "Ni seguric judutarra naiz, Tarse Ciliciaco hiri asqui eçagutucoa eta hango buryes jayoa. Othoitz eguiten darotçut, bada: permeti dieçadaçu mintça naquioen populuari". [40] Permetitu baitcioen tribunac, Paulo eman cen chutic escaleretan eta escuaz kheinaturic populuari ichill cedilla, eta ichiltassun handi bat eguin baitcen, mintçatu citçayen hebrear lengoayaz, erraten çuelaric:

XXII. Cap.

[1] "Guiçon anayac eta aitac: adiçaçue erraterat nohatçuena neure conduitaz contu errendatcecotçat". [2] Aditu çutenean, bada, hebrear lengoayaz mintço citçayela, ichiltassun are guehiagorequien entçun çuten. [3] Eta harc erraten daroe: "Ni guiçon judutarra [57], Tarse Ciliciacoan sorthua, bainan hiri huntan altchatua Gamalielen oiñetan eta gure aiten leguearen Izpiritu eguiazcoan ikhassia, leguearentçat kharrez bethea, egun çuec guciac ere çareten beçala. [4] Persecutatu içan ditut orai natcheicon bideari çatcheizconac heriotceraino, estecatcen nituela eta presso ematen guiçonac eta emasteac, [5] aphecen princeac [58] eta diren çahar guciec lekhucotassuna errendatcen darotedan beçala; hartaraiñocoan bai, non guthunac hequien ganic harturic Damazco anayen ganat goan bainintcen, jende hec presso ekhartceco [59] handic Jerusalemerat punituac içan çaitecentçat [60].

[6] Guerthatu cen ordean, bidean nindohala eta Damazerat hurbiltcen hari nintcela, egunaren erdian betbetan cerutic ingura nintçan clartassun handi batec. [7] Eta lurrerat eroriric, aditu içan nuen boz bat erraten çarotana: "Saul, Saul, cergatic perseguitcen nauçu?". [8] Nic berriz ihardetsi nioen: "Nor çare çu, Jauna?". Eta erran çarotan: "Ni naiz Jesus Nazarethecoa, çuc perseguitcen duçuna". [9] Enequien cirenec, bada, arguia icussi çuten, ordean niri mintço citçaitanaren boça ez çuten aditu. [10] Eta erran nuen: "Cer eguiñen dut, Jauna?". Jaunac berriz erran çarotan: "Altcha çaite eta çohaz Damazerat eta han erranen çaizquitçu eguin behar ditutçun guciac".

[11] Ordean nola ez bainuen icusten argui handi hartaz itsutua guelldituric, ene lagunec escutic erabilliz ethorri nintcen Damazerat. [12] Bada Ananias ceritçan guiçon bat, leguearen arauera bici cena eta han ciren judutar gucien aprobacionea çuena, [13] ethorri citçaitan, eta hurbilduric erran çarotan: "Saul, ene anaya, beha çaçu". Eta ordu berean behatu nioen. [14] Guero erran çarotan: "Gure aiten Jaincoac hautetsi içan çaitu haren borondatea eçagutceco, Justua icusteco eta bera mintçatcen aditceco, [15] ecen lekhucotçat baliatuco çaizco guiçon gucien alderat, icussi eta aditu ditutçun gaucez. [16] Ceren beguira çaude, beraz? Altcha çaite eta errecibi çaçu bathayoa eta garbi çatçu çure bekhatuac haren icena deithoraturic".

57. Hor *naiz* eskas dela esango nuke; Vulgatak ere "Ego sum...".
58. *Princeec* behar luke.
59. Hala dio, ez *erakhartceco*: ikus aldiz beheraxeago XXV, 3; "adducerem" eta "perduci".
60. Hala dio, baina *citecen* darabil eskuarki: ikus beheraxeago XXII, 30.

17 Guerthatu citçaitan guero Jerusalemerat bihurtu nintcenean, templuan othoitcean nindagoela, izpirituzco goramendu bat; 18 eta icussi içan nuen Jauna, ceiñec erran baitçarotan: "Lauster eguiçu eta ilkhi çaite fite Jerusalemetic, ceren ez baidute errecibituco nitaz errendatuco dioçuten lekhucotassuna". 19 Ihardetsi nioen: "Jauna, berec daquite ni nintcela çure baitan sinhexten çutenac presso ematen nituena eta sinagoguetan açotaracitcen nituena; 20 eta Esteben çure marthiraren odola issurtcean ere, han nintcela, consent nintcelaric, eta nic goardatcen nituela haren hiltcen hari cirenen arropac". 21 Eta erran çarotan Jaunac: "Çohaz, ecen igorrico çaitut hemendic urrun jentilletarat".

22 Aditcen çuten bada hitz hortaraiñocoan, bainan orduan jarri ciren heyagoraz erraten: "Khen çaçu lurraren gainetic guiçon hori, ecen ez da cilhegui bici dadin". 23 Oihuz eta deyhadarrez baitceudecen, bada, eta bere arrobac arthiquitcen eta herrautsa airerat etchatcen hari baitciren, 24 tribunac eramanaraci cituen [61] gaztelurat; eta ordenatu çuen açota ceçatela eta estira eman cioçatela, jaquiteco cer cen causa hala oihuz baitceudecen haren contra.

25 Ordean amarratu içan çutenean larruz, erran cioen Pauloc han cegocon centeneroari: "Cilhegui çaitçue guiçon bat Erromaco burjes dena eta condenatua ez dena açotatcea?". 26 Hori adituric, centeneroa goan cen tribuna ganat eta erran cioen: "Cer eguiterat çohaz?, guiçon hau ecen Erromaco burjesa da". 27 Ethorri cen bada tribuna eta erran cioen Paulori: "Erran dieçadaçu: Erromaco burjes çare?". Ihardetsi cioen Pauloc: "Bai equi". 28 Erran cioen berriz tribunac: "Nic asco dirutan erossi dut burjessia hori". "Nic ordean", ihardetsi cioen Pauloc, "sortcez dut". 29 Ordu berean utci içan çuten estira eman behar ciotenec, eta tribuna beldurtu ere cen, jaquin çuenean Erromaco burjes cela, ceren amarraraci içan çuen.

30 Biharamunean, bada, nahiz hobequi jaquin ceren gatic acusatcen othe çuten judutarrec, lecharaci çuen bere gathetaric eta ordenatu çuen bil citecen apheçac eta batçar gucia; eta erakharriric Paulo, presentatu çuen hequien aitciñean.

61. Agian hor *çuen* behar luke; latinez ere "Induci eum" dio. Leizarragak ere singularrean: "...eraman ledin".

XXIII. Cap.

[1] Behaturic bada batçarrerat Pauloc, erran çuen: "Ene anayac, ni conciencia on baten erreguela gucien arauera ibilli içan naiz Jaincoaren aitcinean egun arterainocoan". [2] Horren gainean Ananias aphecen princeac manatu cituen bere aldean cituenac, jo ceçatela macelacoz. [3] Orduan Pauloc erran içan cioen: "Ceroni jonen [62] çaitu Jaincoac, pareta churitua. Jarria çaude ni jugeatceco leguearen arauera, eta leguearen contra duçu manatcen jo naçatela?". [4] Han cirenec erran cioten: "Jaincoaren aphez handiari gaixquiac diotçatçu erraten?". [5] Ihardetsi çaroen bada Pauloc: "Ene anayac, ez neaquien aphez handia cela, escribatua da ecen: Çure populuaren princeari gaixquiric ez dioçu erranen".

[6] Baitceaquien bada Pauloc han cirenetaric parte bat sadducearretaric cela eta pharisauetaric bertce bat, jarri cen oihuz batçarrean: "Ene anayac, ni Pharisaua naiz eta Pharisauen umea; hillen esparantçaren eta erresurreccionearen ariaz naiz condenatua". [7] Hitz horiec erran cituenecotz, pharisauac eta sadducearrac jarri ciren debadioan eta hautsi cen biltçarra. [8] Sadducearrec ecen erraten dute ez dela ez erresurreccioneric, ez aingueruric, ez izpirituric; pharisauec ordean sinhexten dute bata, bai eta bertcea. [9] Horren gaiñean eguin cen habarrots handi bat eta altchaturic pharisauetaric cembait, lehiatcen ciren ciotelaric: "Ez dugu aurkhitcen deussere gaixtoric guiçon hunen baitan. Eta cer daquigu izpiritu bat edo aingueru bat mintçatu baçayo ere? [10] Eta debadioa berotuz baiciohan, tribunac beldurrez ecen Paulo çathica ceçaten, manatu cituen soldaduac jauts citecela eta khen ceçatela hequien artetic eta eraman gaztelurat.

[11] Ondoco gauean aguertu citçayon Jauna Paulori eta erran cioen: "Çaude fermu, ecen Jerusalemen lekhucotassuna errendatu darotaçun beçala, behar darotaçu oraiño errendatu Erroman ere". [12] Eguna ethorri cenean, bildu içan ciren judutarretaric cembait eta juramentu eguin çuten madaricionerequien, ez çutela janen ez edanen, non ez çuten Paulo hiltcen.

[13] Ciren bada berrogoi guiçon baino guehiago conjuracione hori eguin çutenac. [14] Eta goan ciren aphecen princeen eta cargudunen ganat eta erran cioten: "Juramentu eguinac gare madaricionearen azpian, deussere ez jateco, non ez dugun Paulo hiltcen. [15] Adiaraz dioçaçue bada tribunari batçarraren partez, erakhar deçala Paulo çuen aitcinerat, hartaz cerbait hobequi jaquin nahi bacindute beçala, eta gu prestatuac gaitezque hura hurbilduco den baiño lehen hiltceco".

62. Hemen ezin garbiago ageri da *jonen*: Ik. Jo. XIII, 38.

[16] Ordean adituric Pauloren arrebaren semeac conjuracione hori, goan cen gaztelurat eta abisatu çuen Paulo. [17] Pauloc berriz erakharriric centeneroetaric bat, erran cioen: "Guiçon gaste hau eramaçuya[63] tribuna ganat, cerbait du ecen hari errateco". [18] Harc bada harturic berequien guiçon gaste hura, eraman çuen tribuna ganat, eta erran cioen: "Paulo pressonyerac othoiztu nau guiçon gazte hau çure ganat ekhartceaz, cerbait duela çuri errateco". [19] Harturic bada tribunac escutic, eraman çuen aparterat eta galdetu cioen: "Cer duçu niri errateco?". [20] Harc berriz erran cioen: "Judutarrac elkhar hartuac dire çu othoizteco, biharco egunean erakhar dioçoçuten Paulo batçarrerat, haren eguitecoaz hobequi informatu nahi balute beçala. [21] Baiñan ez detçatçula sinhetx, ecen celatan dagozco hetaric berrogoi guiçon baiño guehiago eta juramentu eguiñac ere dire madaricionearen azpian, ez dutela janen ez edanen hura hil deçaqueten artean; eta oraidanic prestatuac daudez çuc hori aguin dioçoçuten beguira". [22] Tribunac bada igorri çuen guiçon gaztea, debecaturic nihori ez cioçala erran gauça horietaz jaquintsun eguin çuela.

[23] Eta erakharriric bi centenero, erran çaroen: "Iducatçue prest gauazco hirurgarren orena danic berrehun soldadu, hirur hogoi eta hamar çamaldun eta berrehun lantçadun Cesarearaiño goateco. [24] Atchetcatçue halaber abreac prest, Paulo iganaracitceco eta salboric eramateco Felix presidenta ganat". [25] Beldurtcen[64] ecen arrapa ceçaten judutarrec eta hill ceçaten eta bera ondoan gaixtoqui acusatua içan cedin, dirua hartu içan balu beçala. [26] Dembora berean escribatu çuen buthun bat hitz hautan: "Claudio Lisiac Felix gobernadore guciz excelentari, agur. [27] Guiçon hau juduec sessitua eta hiltcen çarabillatena, lauster eguinic soldaduequien khendu içan daroet, eçaguturic Romarra dela. [28] Eta jaquin nahiz cer crimaz accusatcen çuten, eramanaraci dut hequien batçarrerat; [29] baiñan ediren içan dut hequien legueco questione batçuen gaiñean cela accusatua eta deussere ez cela hunen baita[65], heriotcea ez eta ere pressondeguia mereci çuenic. [30] Eta nola jaquintsun içan bainaiz preparatuac cirela hau hill nahiz, igorri dut çureganat[66] hunen accusatçailleei dohacela çure aitcinean bere arroçoinac erraterat".

[31] Soldaduec, bada, manua çuten beçala harturic berequien Paulo, eraman çuten gauaz Antipatridarat. [32] Eta biharamunean utciric çamaldunac harequien goateco, bihurtu ciren gaztelurat. [33] Çamaldunec, ethorri cirenean Caesarearat, errendatu cioten guthuna gobernadoreari eta presentatu cioten Paulo. [34] Gobernadoreac bada buthuna iracurri eta, galdeguin çuen cein probinciatacoa cen Paulo, eta jaquin çuenean Ciliciacoa cela, [35] erran cioen: "Adituco çaitut çure acusatçailleac ethorri ditezquenean". Et(a) ordena eman çuen goarda ceçatela Herodesen pretorioan.

63. Agintezko adizkiari eransten dion *-ya*, ikus bestetan ere: Mc. XIII, 1.
64. *Beldur cen*, alegia: ikus Lk. XXIV, 46.
65. *Baitan* behar du, noski.
66. *Manatuz* edo *ordenatuz* falta dela hemen dirudi. Bigarren hori darabil, hain zuzen, beheraxeago (XXIV, 8) Tertullok gauza bera kontatzen duenean. Latinezkoak gainera "misi eum ad te *denuncians*" dio.

XXIV. Cap.

[1] Bortz egunen buruan bada ethorri içan cen Ananias, aphecen princea, cembait cargudunequien eta Tertullo ceritçan orator batequien, ceiñac aguertu baitciren gobernadorearen aitcinean Pauloren contra. [2] Paulo erakharri çutenean, hassi cen Tertullo haren accusatcen, erraten çuelaric: "Nola baque handi batean bici baigare çure bidez eta desordenu hainitz guibelatcen baiditu çure avisamenduac, [3] bethi eta lekhu gucietan dakharquegu horren eçagutça, Felix guciz excelenta, eta hortaz esquer suerte guciac darozquitçugu. [4] Luceroqui ordean iduc ez çaitçadan, adi çaçu, othoy, çure ontassun arduracoarequien laburqui erraterat goazquitçuna. [5] Aurkhitu içan dugu guiçon içurri hau, mundu gucian diren judutar guciei truble ematen daroena eta Nazarearren secta çoratuaren autora dena, [6] ceiña templua profanatcerat ere entseyatu içan baida; eta atceman dugunean, nahi içatu dugu gure leguearen arauera jugeatu. [7] Ethorriric, ordean, Lysias tribunac khendu içan darocu escuetaric bortcha handirequien, [8] eta ordenatu [67] içan du hunen acusatçailleac dathocela çure aitcinerat. Ceronec examinaturic bada, jaquintsun eguin ahal çaitezque guc accusatcen dugun gauça horietaz". [9] Judutarrec ere bere aldetic erran cioten horiec hala cirela.

[10] Baiñan ihardetsi içan çuen Pauloc, kheinu eguinic gobernadoreac mintça cedillala: "Nola baidaquit duela hainitz urthe nacione hunen juge çarela, fidancia guehiagorequien jarrico naiz çure aitcinean neure buruaren churitceco. [11] Jaquin ahal deçaqueçun gauça da ecen, ez duela hamabi egun baino guehiago ethorri içan naicela Jerusalemerat Jaincoa adoratcerat. [12] Eta ez naute aurkhitu ez iharduquitcen templuan nihorequien eta ez jendeen bildumatcen [68] sinagoguetan [13] edo hirian; eta ecin frogatuco dute orai ni accusatcen nauten gaucetaric batere. [14] Hauche bai aithortuco darotçut, horiec heresia deitcen duten secta haren arauera cerbitçatcen dudala ene Aita eta ene Jaincoa, sinhexten ditudalaric leguean eta profetetan escribatuac diren guciac; [15] esparantça dudalaric Jaincoa baitan, horiec berec ere iduriquitcen duten beçala, biztuco direla egun batez guiçon guciac, onac eta gaixtoac. [16] Horri dagocala naiz lehiatcen concientcia bethi garbi içaterat Jaincoaren eta bai guiçonen ere aitcinean. [17] Hainitz urtheren buruan, bada, ethorri içan naiz neure nacioneco jendeei amoinac eguiterat, eta neure offrendac eta botuac bihurtcerat Jaincoari. [18] Hortan hari naicela, aurkhitu içan naute templuan

67. Hona, aurreko oharrean (66.) esan bezala, bertso hartan eskas den aditza.
68. Ez dago garbi hala dioen; Vulgatarekin ("concursum facientem turbae") ongi dator, halere.

garbitua; ez ordean jendetzerequien, ez habarrotsequien. [19] Bainan Asiaticaco judutar batçu dire, ceiñac aguertu behar baitçuqueten çure aitcinean eta acusatçaile içan, baldin deussic baçuten ene contra errateco. [20] Edo ezberen, hauc berec erran beçate hea aurkhitu duten gaixtaqueriaric ene baitan, hemen naicenaz gueroztic justician, [21] non ez dena [69] hitz bakhar hau, gora asqui erran dudana horien artean berean: Hillen piztea daiteque causa, çuec ni egun condenatcen bainauçue".

[22] Horren gaiñean Felixec baitceaquien haguitz ungui cer cen secta hori, igorri cituen bertce aldi batetaraiño, erraten çuelaric: "Lysias tribuna dathorquenean adituco çaituztet". [23] Ordenatu cioen centenero bati goarda ceçala Paulo eta utz ceçatela pausuan; eta ez ceçatela debeca harenetaric nihor hari cerbitçu eguitetic.

[24] Cembait egunen buruan, bada, ethorriric Felix Drusilla bere emastearequien, cein baitcen judua, erakharri içan çuen Paulo eta aditu içan çuen mintçatcen Jesuchristo baithango fedeaz. [25] Nola ordean mintço baitcen Paulo justutassunaz, garbitassunaz eta ethortceco dagoen jugeamenduaz, ikharatu cen Felix eta erran cioen: "Asqui da hori oraicotçat; çohaz; dembora dudanean erakharrico çaitut". [26] Esparantça ere baçuen halaber, Pauloc cerbait diru emanen cioela; eta horri çagocala, maiz erakharriric mintço cen harequien. [27] Bi urtheren buruan, bada, Felixec içan çuen ondoco Portius Festus; eta nahi baitçaroen atseguin eguin juduei, utci içan çuen Paulo presso.

69. Ez ote du "non ez den" izan behar? Ikus ondoko kap.: XXV, 16.

XXV. Cap.

[1] Festus bada ethorri cenean provinciarat, goan cen hirur egunen buruan Cesareatic Jerusalemerat. [2] Eta goan citçaizcon aphecen princeac eta judutarretaric lehenbicico cirenac Pauloren contra mintçatcerat, eta othoitz eguin cioten, [3] graciaz ciotela galdetcen, ordena eman ceçan Paulo erakhartceco Jerusalemerat, celatan eman baitcituzten bidean hura hiltceco. [4] Festoc ordean ihardetsi çaroen Paulo presso cela Cesarean eta bera haraco cela lauster: [5] "Çuen artean autoritate dutenac, bada", diotsote, "bethoz harat enequien eta guiçon hura criminel baldin bada, accusa beçate". [6] Egon ondoan, bada, Jerusalemen çortci edo hamar egun guehienerat, ethorri cen Cesarearat; eta biharamunean jarri cen tribunalean eta manatu çuen erakhar ceçatela Paulo. [7] Erakharri içan çutenean, inguratu çuten Jerusalemetic ethorri içan ciren juduec, hainitz crima handiz accusatcen çutelaric, ceinez ecin eman baitceçaqueten frogaric, [8] Pauloc errepustatçat erraten çuelaric: "Ez dut ez juduen leguearen contra, ez templuaren contra eta ez Cesaren contra nic deussic eguin".

[9] Festoc, bada, nahi baitçaroen atseguin eguin judutarrei, erran içan cioen Paulori: "Nahi duçu goan Jerusalemerat eta han jugeatua içan ene aitciñean?". [10] Erran cioen berriz Pauloc: "Cesaren tribunalean nago, han behar dut içan jugeatua. Judutarrei bidegaberic ez daroet eguin, ceronec ungui daquiçun beçala. [11] Ecen baldinetariac eguin badaroet bidegaberic edo eguin badut deussere heriotcea mereci duenic, ez dut errefusatcen hiltcea; baldin ordean deussere ez bada horiec ni accusatcen nautenetaric, nihorc ecin eman naçaque horien escuetarat. Apel eguiten dut Cesar ganat". [12] Orduan Festoc deliberaturic batçarrarequien, ihardetsi çuen: "Cesar ganat apel eguin duçu, goanen çare Cesar ganat".

[13] Handic cembait egunen buruan erregue Agripa eta Berenice ethorri içan ciren Cesarearat Festoren salutatcerat. [14] Eta nola hainitz egunez han egon baitciren, Festoc aiphatu cioen erregueri Pauloren eguitecoaz, erraten cioela ecen: "Guiçon bat bada hemen, Felixec presso utcia; [15] ceinari dagocala Jerusalemen nintcenean ethorri baitcitçaizquidan aphecen princeac eta juduen cargudunac horren condenacionea galdetcen çarotedala. [16] Ordean ihardetsi naroen, ez dela Romarren costuma guiçon bat condenatcecoa, non ez dituen lehenago accusatua denac bere accusatçailleac aitciñean içaten eta non ez çayoen ematen libertatea bere burua garbitceco accusatcen duten crimetaric. [17] Hunat ethorri cirenean, bada, luçamenic batere gabe, biharamunean jarriric tribunalean, ordena eman nuen guiçon hori erakhar ceçatela. [18] Accusatçailleac haren aitcinerat cirenean, ez çuten

cargatu nic uste nuen crimetaric batez ere. [19] Baiñan questione batçu cituzten haren contra bere supersticionearen gaiñean, eta Jesus hill ohi cen baten gainean, ceiña sustengatcen baitçuen Pauloc bici cela. [20] Ez bainaquien, bada, nic cer jugea horlaco questione baten gaiñean, galdeguin nioen hea nahi çuen goan Jerusalemerat, han jugeatua içaterat gauça horietaz. [21] Bainan Pauloc apel eguin içan baidu horren eguitecoa erresalba [70] dadintçat Augustoren eçagutçacotz, ordenatu içan dut goarda deçatela Cesar ganat igor deçaquedan artean". [22] Agrippac orduan erran cioen Festori: "Neroni ere guiçon hori aditu nahia nintcen". "Bihar adituco duçu", diotso harc.

[23] Biharamunean, bada, ethorri baitciren Agrippa eta Berenice ostendade handirequien eta sarthu audientciaco lekhuan tribunequien eta hirico principalequien, erakharri içan cen Paulo Festoren ordenaz. [24] Eta erran çuen Festoc: "Erregue Agrippa eta hemen gurequien çareten guciac. Icusten duçue guiçon hori, ceinaren contra juduen populu gucia ethorri içan baitçait Jerusalemen errequerimenduz eta oyhuz, ez cela behar utci hori guehiago biciric. [25] Nic berriz dut aurkhitu, heriotcea mereci duen deussic ez duela eguin hunec; bainan nola apel eguin baidu Augustoren ganat, deliberatu dut haren ganat igortcerat. [26] Ordean ez dut deussere guerthuric huntaz escribatceco emperadoreari; eta horren gatic erakharri dut çuen aitcinerat eta beregainqui çure aitcinerat, erregue Agrippa, interrogatu ondoan içan deçadantçat cer escriba. [27] Arroçoin gabeco gauça iduritcen çait ecen, igortcea pressonyer bat marcatu gabe certaz den accusatua".

70. Ez dago garbi, baina hala dio ene ustez. Leizarragak: "...reserva ladinçat...".

XXVI. Cap.

[1] Aggripac [71] orduan erran cioen Paulori: "Permititcen çaitçu mintçatcea çure buruaren alde". Horren gaiñean Paulo, escua hedaturic, hassi cen bere manayuaz arroçoin emateco erraten: [2] "Erregue Agrippa, dohatsu dagocat neure burua, ceren egun çure aitciñean behar naicen deffendatu judutarrec iratchequitcen dauzquidaten gaucen gaiñean. [3] Beregainqui, ceren jaquintsun baitçare guciez, juduen artean diren costumez eta bai questioneez; hargatic çaitut errequeritcen, arren, adi naçaçun passientqui.

[4] Alabaiñan judutar guciec badaquite ene bicitcea, gastedassunetic ene nacionearen erdian, Jerusalemen, eraman içan dudana. [5] Badaquite ecen aspaldidanic, baldin nahi badute eguia erran, bici içan naicela pharisau, gure erreligioneco secta seguren haren arauera. [6] Eta egun naiz obligatua jugeèn aitcinean aguertcerat, ceren dudan esparantça gure aitei Jaincoaz eguin içan çayen aguintçan; [7] ceinetarat gure hamabi leinuec, gau eta egun Jaincoa cerbitçatcen dutela, esparantça baidute helduco direla. Esparantça horren ariaz, erregue, naute juduec accusatcen. [8] Cer bada? Ecin sinhetsizco gauça batentçat daducaçue çuen artean Jaincoac hillac bizten dituela? [9] Nic ere alabaiñan uste içan nuen obligatua nintcela Jesus Nazarethecoaren icenaren contra hainitz gauça eguiterat; [10] eta eguin içan ere dut Jerusalemen, eta sainduetaric hainitz pressondeguian eman içan ditut, aphecen princeèn ganic bothere errecibituric eta hec hillaracitcen cituztenean consent nintcen. [11] Asco aldiz ere sinagoga gucietan puniaratcitcen nituela, bortchatcen nituen blasphematcerat; eta gueroago eta guehiago asperturic hequien contra, perseguitcen nituen atce herritaraiño.

[12] Egun batez, bada, nindohala Damascerat aphecen princeèn bothere eta meçurequien, [13] egunaren erdian bidean icussi içan nuen, erregue, cerutic heldu cen argui bat distiantagoa iguzquiarena baiño, ceiñec inguratu baininduen, eta bai enequien cirenac ere. [14] Eta guciac erori baiguiñen lurrerat, aditu içan nuen boz bat erraten çarotala hebrear lengoayaz: "Saul, Saul, cergatic persecutatcen nauçu? Dorphe çaitçu akhuilloaren contra osticoca haritcea". [15] Orduan erran nioen: "Nor çare, Jauna?". Jaunac berriz erran çarotan: "Ni naiz Jesus, çuc persecutatcen duçuna. [16] Baiñan altcha çaite eta çaude chutic; aguertu natçaitçu ecen, çu eguiteco ministre eta lekhuco icussi ditutçun gaucez eta berriz ere aguerturic eracutsico darozquitçudanez; [17] atheratcen çaitudalaric populu horren escuetaric eta bai jen-

71. *Agrippa* dio gainerako guztietan.

tilletaric, ceinen ganat orai baitçaitut igortcen, [18] hei beguia idequitcerat, itçul daitecentçat ilhumbetaric arguirat eta Satanen botheretic Jaincoa ganat eta errecibi deçatentçat bekhatuen barkhamendua eta sainduen çorthea ene baitan içanen duten fedeaz.

[19] Erregue Agrippa, ez naiz sinhets gogor içan ceruco bisionearentçat. [20] Aitcitic Damascecoei lehenic eta guero Jerusalemen eta Judea gucian cirenei eta jentillei ere bai, predicatu içan daroet eguin ceçatela penitentcia, eta itçul daitela [72] Jaincoaganat, penitentciazco obra behar beçalacoac eguinez. [21] Horren gatic judutarrac içan dire entseyatu, templuan nintcela harturic, ene hiltcerat. [22] Baiñan Jaincoac lagunduric iraun dut egungo eguneraiño, lekhucotassuna bihurtcen daroedalaric chiperrei eta handiei, eta deussere erraten ez dudala bertceric, profetec eta Moisec ethortceco cirela aitcinetic erran dutenic baicen. [23] Hala nola heriotcea pairatuco çuela Christoc, hilletaric biztuetaco lehena içanen cela eta populu huni eta jentillei iracatsico çaroela arguia".

[24] Gauça horien erraten hari cela bere burua garbitceco, Festoc oihu goraz erran cioen: "Çoratu çare, Paulo; çure jaquintassun handic errotu [73] hurren çaitu". [25] Pauloc ihardetsi cioen: "Ez naiz çoratu, Festus guciz Excelenta; aitcitic eguiazco eta adimendu onezco hitçac ditut erraten; [26] jaquintsun da ecen hautaz erregue eta libroqui mintço naiz horren aitciñean; uste baidut ecen batere horietaric ez dela horrec ez daquienic, ecen deussere horietaric ez da eguin estalgunean. [27] Erregue Agrippa, sinhexten duçu profetetan? Badaquit sinhexten ditutçula". [28] Agrippac bada erran cioen Paulori: "Hurren ekhartcen nauçu guiristino eguiterat". [29] Pauloc berriz erran cioen hari: "Desiratcen nuque Jaincoa baitan, bai hurrentsu eta bai cinez, ez choilqui çu, baiñan oraiño ni aditcen nauten guciac ere egundanic içan cintezten ni naicen beçalaco, gathe hautaz landan".

[30] Orduan altchatu ciren erregue eta gobernadorea, Berenice eta hequiequien jarriac cirenac, [31] eta aparterat goanic, mintçatu ciren elkharrequien eta erran çuten: "Deussere ez heriotcea eta ez pressondeguia mereci duenic ez du eguin guiçon hunec". [32] Agrippac berriz erran cioen Festori: "Utz ahal citequen goaterat guiçon hau libro, baldin apel eguin ez balu Caesar ganat".

72. *Daitecela* behar du. Ala *citecela*? Vulgatac "converterentur" dio.

73. *Errotu* < *erhotu* beste askotan bezala (ik. goraxeago, XII, 15). Eta *handiac* behar bide du aurrean, ez *handic*.

XXVII. Cap.

[1] Ordena eman cenean, bada, goanen cela itsassoz Paulo Italiarat eta emanen cela bertce pressonyerequien batean Julio ceritçan centenero Augusto bandaco baten escuetan, [2] igan guiñen Adrumetaco untci batetarat eta aingura altchatu guinduen Asiaco leyhorren arrasso gure arruta hasteco, gurequien guinduelaric Aristarque Macedoniarra, Thessalonicacoa.

[3] Biharamunean bada arribatu guinen Sidonen eta Julioc honesqui tratatcen baitçuen Paulo, permetitu cioen bere adisquidetarat goan cedin eta bere buruaz artha içan ceçan. [4] Handic aingura altchaturic, goan guiñen Chipraco irlaren arrasso, ceren haiceac contra baiguintuen. [5] Eta Ciliciaco eta Pamphiliaco itsassoa iraganic, ethorri guiñen Lystrarat, cein baida Lyciaco hiri bat. [6] Han aurkhituric centeneroac untci bat Alexandriacoa Italiarat ciohana, eman guintuen hartan. [7] Nola hainitz egunez nekhez baiguinohacen eta doi doya ere irabaci baiguinduen Gnida gainerat haiceac debecatcenez [74], ethorri guinen Cretaco irlaren arrasso Salmongo alderat. [8] Eta doy doya costa arrasso goanez, ethorri guinen Portu Onetaco daritçan lekhu batetarat, ceinaren aldean baitcen Thalassaco hiria.

[9] Dembora handia iragan ondoan, bada, ja hirriscu baitcen itsassoan ibiltcea, ceren orduco iragana ere baitcen barureco dembora, consolatcen cituen Pauloc, [10] erraten çaroelaric: "Guiçonac, icusten dut itsassoan ibiltcea nekhetsu içaterat dohacula eta perill handitaco, ez choiqui [75] cargarentçat eta untciarentçat, baiñan oraiño gure bicientçat ere". [11] Centeneroac ordean sinhextenago cituen pillotua eta maystrua ecen ez Pauloc erraten cituenac. [12] Hala, ez baitcen ere portua propi negua han iragateco, guehienac abisuco içan ciren partitceco handic, aguian nolazbait irabaz ahal ceçaquetelacoan Phenicerat, negua han iragateco; hura da portu bat Cretacoa, ouesterat eta nordouesterat dagoena.

[13] Altchatu baitcen bada hegoa guti bat, ustez ecen gogo çutena ardietxico çuten, eguin çuten bela Assondic eta abiatu ciren Cretaren aldetsutic. [14] Ordean handic lauster altchatu cen athetic [76] haice erremulia bat, nord-este daritçana. [15] Eta nola untcia eramana baitcen ecin atchiquiz haicearen contra, baguinohacen haiceec guinaramatçaten beçala. [16] Etchatuac içan guiñen Cauda daritçan irla

74. Ikus lehenxeago XIV, 3.
75. Ikus lehenxeago XIX, 27.
76. Hala dio; *atcetic* esan nahi ote zuen? Vulgatak ez du asko argitzen: "misit se contra ipsam". Leizarragak: "...harenganaco aldetic...".

batetarat, ceiñetan nekhez gure batelaren jabe içan ahal baiguinen. [17] Hura cobratu guinduenean, laguntça guciez baliatu ciren eta untcia beheretic altessatu çuten, beldurrez Bancu Harcetarat etchatuac içan behar guinduen; eta berga naussia beheraturic, jarri citçaizcon segui itsassoari. [18] Tempesta handi batez etchatuac baiguiñen, bada, biharamunean arthiqui çuten untcico carga itsassorat. [19] Hirur garren egunean berriz arthiqui cituzten bere escuz untcico apparailluac. [20] Ez iguzquia, ez içarric ez baitcen agueri hainitz egun hautan eta tempesta hainitz baitcen handia, ez guinduen guehiago esparantçaric batere salbatceco.

[21] Eta nola dembora ere baitçuen nihorc ez çuela jan, eman cen Paulo hequien erdian eta erran çaroen: "Alabaiñan, guiçonac, sinhetsi behar ninduçuen ni eta ez partitu Cretatic, esparñatuco baiguinituen nekhe hauc eta calte hau. [22] Orai ere conseillatcen çaituztet bihotz on içaterat, ceren çuetaric nihor ez baida galduco, untcia baicen. [23] Aguertu içan çait ecen gaur gauaz aingueru bat Jaincoarena, ceinena bainaiz ni ere eta ceiña cerbitçatcen baidut, [24] eta erran darot: Ez duçula beldurric, Paulo; Caesari presentatu beharra çare, eta horra, eman darozquitçu Jaincoac untçian çurequien diren guciac. [25] Hargatic beraz curaye eguiçue, fida naiz ecen Jaincoa baitan, nola erran içan baitçait, eta hala içanen dela. [26] Baiñan irla halaco batetarat jo beharrac gare".

[27] Ethorri cenean bada hamalaurgarren gaua, harat hunat guinabiltçala Adriaco itsassoan, gau erditan iduritu citçayen marinelei cembait leyhorretaric hurbill cirela. [28] Eta çunda harturic, aurkhitu cituzten hogoi braça; eta haratcheago berriz aurkhitu cituzten hamabortz braça. [29] Orduan beldurrez lekhu gaitcetan jo guineçan, etchatu cituzten popatic laur aingurac, eguna ethor cedin desira handian çaudecelaric. [30] Bizquitartean mariñelac untcitic ihessi goan nahiz baitcebiltçan, battela itsassorat erriaturic, aleguia hec aingurac branca aldetic urrunago hedatu nahi, [31] erran çaroen Pauloc centeneroari eta soldaduei: "Baldin hauc untcian egoten ez badire, çuec ecin salba çaitezquete". [32] Orduan picatu cituzten soldaduec battelaren amarrac eta utci çuten erortcerat. [33] Arguitcen hasten cela, Pauloc othoiztu cituen guciac jan ceçatela cerbait, erraten çaroelaric: "Hamalaurgarren eguna da [77] egun, deussere jan gabe eta hartu gabe çeudeztela cer ethor beguira. [34] Hargatic beraz othoitz eguiten darotçuet jateco cerbait har deçaçuen çuen bicia salbatcea gatic ere, ecen çuetaric baten ere buruco ille bat ez da galduco".

[35] Hori erran ondoan, hartu çuen oguia, esquerrac Jaincoari errendatu ciotçan gucien aitciñean eta hautsiric hassi cen jaten. [36] Orduan guciec curaye harturic, jan çuten hec ere. [37] Guiñen bada untcian guciz berrehun eta hirur hogoy eta hamassei arima. [38] Jan çutenean asqui arindu çuten untcia, bihia arthiquiric itsassorat.

[39] Eguna ethorri cenean, bada, ez çuten eçagutu leyhorra; baiñan ohartu citçaizcon senoa bati, ceiñec baitçuen costatcho bat, eta gogo çuten untciari han jo aracitceco, ahal baceçaten. [40] Eta aingurac altchaturic, jarri citçaizcon segui itsas-

77. Ez dago garbi *da* ala *du* dioen.

soari; dembora berean largatu cituzten lemen amarrac eta, artimoiña hiçaturic [78] haiceaz baliatceco, abiatu ciren costarat. [41] Baiñan nola jo baiguinduen itsassoac bi aldetaric ematen cioen leyhor punta batean, encaillaraci çuten han untcia. Branca bada guelditu cen han fincatua, higuitcen ez cela; popa ordean hausten cioten itsasso colpeèc. [42] Soldaduen chedea içan cen bada pressonyeren hiltcecoa, beldurrez ecen cembait igueri salbaturic ciohan ihessi.

[43] Centeneroac ordean conserbatu nahi baitçuen Paulo, debecatu içan cituen hori eguitetic eta ordenatu içan çuen, igueri ahal cioazquenac eman citecela urerat lehenic eta salba citecela leyhorrerat irabaciric. [44] Bertceac berriz eman ciren batçu taula gaiñetan eta bertce batçu untciticaco pusquen gainean; eta manera hortan guertatu cen guciec irabaz ceçaten leyhorrerat.

78. Hala ote? Ilun da idatzia. Ala *luçaturic* dio? Ez dut uste. Latinez "levato artemone"; gazteleraz (Biblia de Jerusalén) "*izaron* al viento la vela artimón". Leizarragak: "haiceari vela altchaturic...".

XXVIII. Cap.

[1] Salbatu içan guiñen orduan, eçagutu guinduen irla hura Malta deitcen cela, eta barbaroec humanitate hainitz eguin çarocuten, [2] ecen sua bizturic heldu citçaicun uriagatic eta eguiten çuen hotçagatic, hartu guinituzten guiñen guciac bere etchetarat.

[3] Bildu baitçuen bada Pauloc cembait bessatra chirmendu eta surat eman, bipera bat beroac ilkhi araciric lothu citçayon escutic. [4] Icussi içan çutenean barbaroec bestia dilindan haren escutic, erran çaroen elkharri: "Segurqui guiçon hiltçaille cembait daiteque guiçon hau; itsassotic escapatu denean ere Jaincoaren bendecuac ez baidu utci nahi bicitcerat". [5] Bizquitartean harc iharrossiric bestia surat, gaitxic batere ez çuen içatu. [6] Bainan hec uste çuten hauntcerat [79] ciohala eta berehala erorico cela hillgogorra. Hori iguriqui ondoan dembora lucez, icussi çutenean gaitxic batere ez citçayoela heldu, sentimenduz gambiaturic erran çuten Jaincoa cela hura.

[7] Lekhu hartan, bada, ciren lur batçu irlaco principal Publius ceritçan batenac, ceiñec gu errecibituric bere etcherat, hirur egunez haguitz ungui tratatu baiguintuen. [8] Aurkhitu içan cen, bada, Publioren aita ohatua çatçala helgaitzequien eta sabeldassunarequien: goan citçayon Paulo icusterat, eta othoitçac eguinic eta escuac haren gaiñean paussaturic, sendatu içan çuen. [9] Miracuillu horren ondoan irla hartaco eri ciren guciac heldu ciren haren ganat eta sendatcen ciren. [10] Ohore handiz ohoratu ere guinituzten eta embargatceracoan behar guinduen gucia untcirat ekharri çarocuten.

[11] Hirur ilhabeteren buruan, bada, eguin guinduen bela Alexandriaco untci batean, ceinec hiberniatu içan baitçuen irla hartan eta entseinatçat baitçuen Castoren eta Polux-en figura. [12] Eta arribaturic Syracusarat, egon guiñen han hirur egunez. [13] Handic leyhorraren arrasso guiñohacela, ethorri guiñen Rhigerat eta, egun baten buruan sarthuric hegoa, bigarren egunean arribatu guinen Puzzolerat. [14] Han aurkhituric gure anayetaric, othoiztu guinituzten egoteaz çazpi bat egunez hequiequien, eta ondoan abiatu guiñen Romarat. [15] Hango gure anayec jaquin çutenean, ilkhi citçaizquigun biderat Appiaren mercaturaiño eta Hirur Ostalerietaraiño; eta icussi içan cituenean Pauloc, Jaincoari esquerrac errendatu ciotçan eta hartu çuen animo. [16] Ethorri guinenean bada Romarat, permititu içan citçayon Paulori beregain egotea hura goardatuco çuquen soldadu batequien.

79. *Haunditzera* gure euskalkian.

[17] Hirur egunen buruan erakharri içan cituen juduetaric principalenac eta bildu içan cirenean erran çaroen: "Ene anayac, deussere eguin ez dudalaric populuaren contra eta ez gure aiten hazduren contra, presso hartua içan naiz Jerusalemen eta libratua Romarren escuetarat; [18] ceiñec examinatu içan nauten ondoan, nahi içan bainaute utci libro, ceren ez baitcen ene baithan hobenic heriotcea mereci çuenic. [19] Bainan judutarrac opposaturic, ecinbertcez apel eguin içan dut Caesarganat, ez ene nacioneco jendeac deussetan accusatceco chederic içanez. [20] Horri dagocala deithu içan çaituztet çuec icussi nahiz eta çuequien mintçatu nahiz; Israelec esparantça duenaren ariaz naiz gathe huntaz estecatua".

[21] Hec berriz ihardetsi içan cioten: "Guc buthunic ez dugu içatu juduetaric çure ariaz eta gure anayetaric hunat ethorri denec batec ere ez darocu batere aiphatu çutaz gaixquiric. [22] Baiñan nahi guinduque ceronen ganic aditu cer diren çure sentimenduac, ecen secta hortaz denaz beçambatean, jaquintsun gare lekhu gucietan contra eguiten çayoela".

[23] Exleytu ondoan bada eguna, ethorri içan citçaizcon hainitz bere ostaturat, eta predicatu çaroen Jaincoaren erressumaz frogac ekhartcen çaroztelaric, eta Jesusi behatcen çaizcon gauçac Moiseren legueaz eta profetez frogatcen ciotçatela goicetic arratseraiño. [24] Cembaitec sinhetxi içan cituzten harc erraten cituenac; bertceèc ordean ez cituzten sinhetxi. [25] Eta elkharren artean ez accort içanez baitcioacen, Pauloc erran çaroen hitz batez: "Ala arroçoin handirequien mintçatu içan baitçaye Izpiritu Saindua Isaiaz profetaren ahoz gure aitei, [26] erran içan duenean: Çohazco populu horri eta erroçute: Entçutez entçunen duçue eta ez duçue adituco; icustez icussico duçue eta ez çaizcote ohartuco. [27] Guicendua da ecen populu hunen bihotça; beharriac gor dituzte eta beguiac çarratu dituzte, beldurrez ecen beguiez icus deçaten, beharriez entçun deçaten eta bihotcez compreni deçaten, eta beldurrez conberti daitecen eta senda detçadan. [28] Jaquin çaçue, bada, jentillei igortcen çayela Jaincoaganicaco salbamendu hau eta hec adituco dutela".

[29] Horiec erran cituenean, ilkhi ciren juduac bere artean haguitz ciharducatela. [30] Paulo berriz egon cen bi urthebethez berac alocaturicaco etche batean, ceinetan errecibitcen baitcituen icusterat goaten citçaizcon guciac, [31] predicatcen çuelaric Jaincoaren Erresuma eta iracasten cituela Jesuchristo Jaunaz diren guciac libertate gucirequien eta nihoren debecuric gabe.

JONDONI PAULO

Apostoluaren Guthuna

ROMARREI

I. Cap.

[1] Pauloc, Jesuchristoren cerbitçariac, Apostolutçat dohatua eta berecia içan denac predicatcecotçat Jaincoaren Evangelioa, [2] ceina baitçuen lehenago aguindu bere profetez Escritura Sainduetan [3] bere Semearen ariaz, cein sorthu baitçayo Daviden arraçatic haraguiaren arauera, [4] cein predestinatua içan baida Jaincoaren Seme içateco botheretsuqui saindutassunezco Izpirituaren arauera, Jesuchristo gure Jauna hilletaric bizteaz, [5] ceina ganic baidugu errecibitu gracia eta apostolutassuna, obedi daquioentçat fedeari haren icenaren ariaz nacione gucien artean, [6] ceinetaric baitçarete çuec ere, Jesuchristorenac içateco deithuac çaretenac, [7] Roman çareten guciei, Jaincoaren maiteei, saindu içaterat deithuei. Gracia dela çuequien eta baquea Jainco gure Aitaren eta Jesuchristo gure Jaunaren partez.

[8] Lehenic bada esquerrac diotçat bihurtcen ene Jaincoari Jesuchristoz çuen gucien gatic, ceren çuen fedeaz mintço diren mundu gucian. [9] Lekhuco dut ecen Jaincoa, ceina cerbitçatcen baidut gogoz eta arimaz bere Semearen Evangelioan, bethi naicela çuetaz orhoit, [10] bethiere neure oracionetan errequeritcen dudalaric, noizbait bederen ediren deçadan attiça on bat Jaincoaren borondatearequien batean ethortceco çuen ganat. [11] Desira handi dut ecen çuen icusteco, cerbait gracia izpiritual çuei partitcea gatic çuen borthitztecotçat; [12] erran nahi dut, çuequien naitequenean elkhar consola deçaguntçat çuec eta nic oro banaz [1] dugun fedeaz. [13] Hala ez dut nahi ignora deçaçuen, ene anayac, maiz chedea hartu dudala çuen ganat ethortceco, cerbait fruitu eguin nahiz çuen artean ere, bertce nacionèen artean beçala; ordean debecatua içatu naiz oraidainocoan. [14] Çordun naiz grecoen eta barbaroen alderat, çuhurren eta simpleèn alderat.

[15] Hala ene baithan dagoen guciaz prest naiz çuei ere, Roman çaretenei, Evangelioa predicatcerat; [16] ez naiz ecen ahalque Evangelioaz, ceren hura baida medio botheretsua, Jaincoac hautatu içan duena, sinhexten duen guciaren salvamenduco, juduen lehenic eta guero gentillaren; [17] hartan da ecen aguertcen Jain-

1. Ala *bana* ote dio? Leizarragak *elkarrequilaco.*

coaren justicia fedezco eguia batetaric bertce batetarat, escribatua den beçala: "Justua fedeaz bici da".

[18] Halaber Jaincoaren colera aguertcen da cerutic guiçon hequien gaixtaqueria guciaren eta injusticia guciaren gainerat, ceiñec Jaincoaren eguia gathibo baidaducate injustuqui, [19] halaz eta [2] Jaincoaz eçagut ahal daitequena aguerian dutenaz gueroztic, ceren Jaincoac berac baidaroe eçagutaraci; [20] ecen Jaincoaren perfeccione ecin icus daitezquenac, haren bothere eternale eta haren Jaincotassuna, agueri dire munduaren creacionetic haren creaturec ematen darocuten eçagutçaz; eta hala haiña hec esencusa gabe dire. [21] Ceren eçagutu dutelaric Jaincoa, ez baidute Jainco beçala glorificatu eta ez baidiotçate esquerrac bihurtu; aitcitic errebelatu içan dire bere arroçoinamendu banoetan eta hequien bihotz çoratua ilhunbeztatua içan da. [22] Bere ustez çuhur cirenac erho guerthatu dire, [23] eta mudantçaric ecin duquen Jaincoaren gloria gambiatu içan dute guiçon mudacor baten idurirat, hegastiñenerat, laur çangotaco bestienerat eta sugueènerat.

[24] Hargatican Jaincoac abandonatu içan ditu bere bihotcetaco guticietarat, lohiequeriarat [3]; halaco moldez, non bere gorphutz propioac hidoiztatcen baidituzte berec, [25] haiñec, Jaincoaren eguia gueçurretarat gambiatu içan dutenec; creatu [4] adoratu eta cerbitçatu içan dutenec eta ez creatçaillea, ceina benedicatua baida mende gucietan. Amen. [26] Horren gatic Jaincoac abandonatu içan ditu passione ahalcagarrietarat, ecen hequien emasteec gambiatu içan dute naturaren araueraco usantça naturaren contraco den batetarat. [27] Halaber guiçonec ere, utciric emasteaz naturaren arauera cerbitçatcea, içan dituzte passione beroac batçuc bertceren ganat, guiçonec guiçonequien infamiac eguiten dituztela, eta bere errebelamenduaren saria, merecitu duten beçalacoa, bere baitan errecibitcen dutela.

[28] Eta nola ez baidute nahi içan entseyatu Jaincoaren eçagutcerat, hala hec ere abandonatu içan ditu Jaincoac sensu erreprobatu batetarat; halaco moldez, non eguin baidituzte guiçonari ez dagozcon accioneac [29] eta içan baidire betheac injusticia suerte guciez: maleciaz, lohiqueriaz, abariciaz, gaixtaqueriaz, invidiaz, guiçon hiltceaz, debadioz, enganioz, ayhercundez; erreportari, [30] gaizqui erraille, Jaincoaren etsai, iroi emaille, superbio, goratiar, gauça gaixtoen asmatçaille, burassoen dessobeditçaille, [31] çoratuac, bihurriac, amudio gabeac, fede gabeac, urricalmendu gabeac; [32] ceinec eçagutu arren Jaincoaren justicia, ez baidute comprenitu heriotcea mereci dutela horlaco gauçac eguiten dituztenec; eta ez choilqui eguiten dituztenec, bainan oraiño horlacoen eguilleac aprobatcen dituztenec ere.

2. Kausala: ik. Jo. IX, 16.
3. *Lohie-* idatzi du, baina ikus beheraxeago (29.).
4. *Creatua* behar du agian.

II. Cap.

[1] Hargatic çare ecin esencusatuzcoa, ó guiçona, nor ere baitçare bertceac jugeatcen ditutçuna. Ecen bertce bat jugeatcen duçun pontutic, çeure burua duçu condenatcen, halaz eta [5] condenatcen ditutçun gauça berac ditutçunaz gueroz eguiten. [2] Badaquigu ecen eguiaren arauera dela horlaco gauçac eguiten dituztenen contra Jaincoac ematen duen jugeamendua. [3] Uste duçu bada, ó guiçona, horlaco gauçac eguiten dituztenen condenatcen hari çarena eta ceronec eguiten ditutçuna, itçurico çaizcola Jaincoaren jugeamenduari? [4] Ala mespreçatcen ditutçu haren ontassunaren, haren passientciaren eta haren iguriquitce lucearen aberastassunac? Ez daquiçu Jaincoaren mantsotassunac penitentciarat deitcen çaituela?

[5] Ordean çure gogortassunaz eta çure bihotceco urriqui gabetassunaz colerazco thresor baten biltcen hari çare ceure buruaren gaiñerat colerazco egunecotçat eta aguertuco denecotçat Jaincoaren jugeamendu justua, [6] ceinec errendatuco baidio batbederari bere obren arauera: [7] obra on eguiten iraunez gloriaren, ohorearen eta immortalitatearen bilha dabiltçanei, bicitce eternala; [8] ordean debadioco izpiritua dutenei eta eguiari errendatcen ez çaiztenei, aitcitic iniquitatean lakhet dutenei, colera eta gaitzerizcoa. [9] Atsecabea eta herstura dagoque gaixquia eguiten duen guiçon guciarentçat: juduentçat lehenic, guero jentillarentçat; [10] ordean gloria, ohorea eta baquea ungui eguiten duen guciarentçat: juduentçat lehenic, guero jentillarentçat.

[11] Ez da ecen pressunen berezcoric Jaincoa baithan. [12] Hala leguea içan gabe bekhatu eguin duten guciac galduco dire leguea gabe; eta leguearen azpian direla bekhatu eguin duten guciac legueaz içanen dire jugeatuac. [13] Ez dire ecen leguea entçuten dutenac justutçat iragaten Jaincoaren aitĉiñean, baiñan leguea goardatcen dutenac içanen dire justificatuac. [14] Noiz eta ere bada jentillec, leguea ez dutenec, naturalqui eguiten baidituzte legueac manatcen dituen gauçac, hec leguea içan gabe bere buruentçat berac ditezque legue; [15] eracusten baidute legueac eguiteco exlegitcen duena escribatua dela hequien bihotcetan, lekhucotassuna bihurtcen daroen beçala bere contcientciac, accusatcen edo deffendatcen hari çaizten erreflexione differentez, [16] guiçonen bihotcetan gordea den gucia Jaincoac, nic predicatcen dudan Evangelioaren arauera, Jesuchristoz jugeatuco duen egunecotz.

[17] Bainan çu, judutarraren icena dakharqueçuna, leguearen gainean descantsatcen çarena eta Jaincoarena çarela glorificatcen çarena, [18] haren borondatea

5. Ikus aurreko kapituluan 2. oharra.

eçagutcen duçuna eta legueaz instruitu içanic, hoberen dena cer den daquiçuna, [19] fida çare itsuen guidari çarela eta ilhunbetan direnen arguiçagui, [20] ignoranten escolatçaille, haurren naussi, ceren duçun leguean jaquintassunaren eta eguiaren moldea.

[21] Çuc, bada, bertceac escolatcen ditutçun horrec, ceure buruari ez baidioçu iracasten? Predicatcen duçun horrec ez dela ebatsi behar, ebasten baiduçu? [22] Adulterioric ez dela eguin behar dioçun horrec, adulterio eguiten baiduçu? Idoloz lastima duçun horrec, sacrilegioac eguiten baiditutçu? [23] Leguean burupe duçun horrec, leguea hautsiz Jaincoa desohoratcen baiduçu? [24] Jaincoaren icena ecen, Escriturac dioen beçala, "blasphematua da çuen gatic gentillen artean".

[25] Circoncisionea alabaiñan probetchuzco da, baldin leguea complitcen baduçu; baldin ordean leguearen hautsçaille baçare, çure circoncisionearequien ere circoncidatua ez baciñe beçala eguiten çare. [26] Baldinetariac, beraz, circoncidatua ez denac beguiratcen baditu leguearen ordenantça sainduac, circoncisionea içan gabe ere ez da consideratua içanen circoncidatua balitz beçala? [27] Eta naturalqui circoncidatua ez delaric leguea complitcen duenac, ez çaitu jugeatuco çu, leguearen lettra errecibitu duçularic eta circoncidatua çarelaric leguearen hautsçaille çaren hori? [28] Ecen judutar leyala ez da campotic judutar dena, eta eguiazco circoncionea [6] ez da haraguian aguertcen dena; [29] baiñan judutar leyala da barnenean halaco dena; eta eguiazco circoncisionea bihotcecoa da, Izpirituaren araueracoa, ez lettraren araueracoa; eta judu hainac bere laudarioa ez du guiçonen ganic, baiñan bai Jaincoa ganic.

6. *-si-* utzi du idatzi gabe; ik. hurrengo (29.) bertsoan.

III. Cap.

[1] Cer du, bada, judutarrac bertceren gainetic eta cer da circoncisionearen probetchua? [2] Hainitz, manera guciez; beregainqui ceren hei fidatu içan baitçaizte Jaincoaren hitçac. [3] Cer da guero, hetaric cembaitec ez badute sinhetsi? ala hequien sinhets gogortassunac eceztatuco du Jaincoac eman duen hitça? Ez horlacoric. [4] Jaincoa ecen eguiatia da eta "guiçon gucia gueçurti", escribatua den beçala: "eçagutua çarentçat fidel çarela çure hitcetan eta duçuntçat garaya çutaz eguiten diren jugeamenduetan". [5] Baldin, beraz, gure iniquitateac guehiago badu agueratcitcen Jaincoaren justutassuna, cer erranen dugu? Ala injustua da Jaincoa gu punitcen gaituenean? [6] Guiçonen guisarat mintço naiz. Ez horlacoric. Bertcela nola Jaincoac jugea leçaque mundua?

[7] Ordean baldin gure infidelitatearen ariaz Jaincoaren fidel içana guehiago aguertcen bada haren gloriatan, cergatic oraiño naiz ni jugeatua bekhatoros beçala? [8] Eta cergatic ez dugu eguinen gaixquia handic unguia ethor dadintçat, cembaitec gaistoqui accusatcen gaituzten beçala erraten dugula? Ceiñac justuqui condenatuac içanen baidire. [9] Cer bada? Abantail cerbait dugu hequien gaiñetic? Batere, eracutsi dugu ecen judutarrac eta gentillac, guciac bekhatuaren azpian direla, [10] escribatua den beçala: "Ez da justu denic nihor; [11] ez da çuhurtciaric duenic; ez da Jaincoaren bilha dabillanic; [12] guciac errebelatuac dabiltça, guciac orobat inutil eguin dire; ez da unguia eguiten duenic, ez eta bakhar bat ere; [13] thomba idequi bat da hequien estarria; bere mihiez enganatceco baliatcen dire; sugue aspiden poçoina bere ezpaiñen azpian dute; [14] hequien bihotça madarikionez eta khiratsez bethea da; [15] agudo dire hequien oiñac odol issurtcerat; [16] hequien urrats guciac dabiltça bertceèn chehatcerat eta dohacabe eguiterat; [17] baquearen bidea ez dute eçagutcen; [18] ez dute Jaincoaren beldurra beguien aitcinean".

[19] Badaquigu, bada, legueac erraten duen gucia leguearen azpian direnei daroela erraten, nihorc erratecoric içan ez deçantçat eta mundu gucia Jaincoari sumetitua içan dadintçat; [20] ceren eta "leguearen obretaric ez baida justificatua içanen guiçon garabic haren aitciñean"; legueac ecen bekhatuaren eçagutça du eman.

[21] Baiñan orai leguea gabe aguertu içan çaicu Jaincoa ganic heldu den justicia, ceinetaz lekhucotassuna eman baidute legueac eta profetec. [22] Eta justicia hori Jesuchristoren fedeaz heldu da haren baithan sinhexten duten gucientçat eta gucien gainerat; ez da ecen berezcoric batere. [23] Guciec ecen eguin dute bekhatu eta dute Jaincoaren gloriaren beharra. [24] Dohainic ere dire justificatuac haren

graciaz, Jesuchristo baitan duten erospenaz; [25] ceina proposatu içan baidu Jaincoac aphacegagarritçat haren odolean içanen guinduen fedeaz, eracustea gatic bere justicia bekhatu iraganen barkhamenduan; [26] ceinetaz passientcia içan baidu Jaincoac, eracustea gatic, diot, bere justicia dembora huntan; eçagutua içan dadintçat bera justu eta Jesuchristo baitan fedea duenaren justificatçaille.

[27] Non da, beraz, çure burupea? Ezeztatu da. Cein leguez? Obrenez? Ez, aitcitic bai fedearen legueaz. [28] Eçagutu behar dugu ecen, guiçona fedeaz dela justificatua leguearen obrac gabe. [29] Ala judutarren Jainco da choiqui [7] Jaincoa? Ala ez da hain ungui gentillena ere? Segurqui gentillena ere da. [30] Alabainan ecen ez da Jainco bakhar bat baicen, ceiñec justificatcen baiditu fedearen berthutez circoncisionecoac eta fedeaz circoncisioneco ez direnac ere. [31] Ezeztatcen othe dugu beraz leguea fedeaz? Ez horlacoric; aitcitic leguea dugu borthitzten.

7. Hemen ere -/- gabe: ik. Apost. Eguinc. XXVII, 10.

IV. Cap.

[1] Cer, beraz? Erranen dugu abantaill içan duela Abraham gure aitac haraguiaren arauera? [2] Baldinetariac ecen Abraham bere obretaric içan bada justificatua, badu certaz glorifica, ordean ez Jaincoa baitan. [3] Cer dio ordean Escriturac? "Sinhetsi çuen Abrahamec Jaincoa eta hori iratchequi citçayon justiciatçat". [4] Obra eguiten duenari, ordean, saria ez çayo condatcen gracia bat beçala, bainan bai çor bat beçala. [5] Aitcitic obraric eguiten ez duenari eta gaixtaguiña justificatcen duena baitan sinhexten duenari bere fedea çayo condatcen justiciatçat, Jaincoac graciaz formatu içan duen chedearen arauera.

[6] Hala dio Davidec ere, dohatsu dela guiçona, Jaincoac obraric gabe justutçat dohainic dagocana[8]: [7] "Dohatsu hainac, ceinen iniquitateac baidire barkhatuac eta ceinen bekhatuac baidire estaliac; [8] dohatsu guiçona, ceinari ez baidio contutan ekharri Jaincoac bekhaturic". [9] Dohatsutassun hori, bada, circoncidatuac direnetan choilqui edireten da ala bai circoncidatuac ez direnetan ere? Erran dugu ecen orainchean fedea citçayoela condatu Abrahami justiciatçat. [10] Noiz ordean citçayon condatu? Circoncidatua içan cen ondoan ala circoncidatua içan baiño lehen? Ez behintçat circoncidatua içan cen ondoan, baiñan bai circoncidatua içan cen baiño lehenago.

[11] Eta circoncisionearen seiñalea errecibitu ere çuen oraino circoncidatua ez cela, ja fedeaz içatu çuen justiciaren ciguillua beçala, içan dadintçat, hala[9] circoncidatuac içan gabe sinhexten duten gucien aita eta conda daquientçat hei ere bere fedea justiciatçat, [12] hala circoncidatuen aita, ceiñec ez choilqui baidute errecibitu circoncisionea, bainan ceiñac oraiño baidarraizte gure aita Abrahamec circoncidatua ez cela içatu çuen fedearen urratsei. [13] Ez çayo ecen leguearen ariaz aguindu içan Abrahami edo haren haciari içanen çuela primeçatçat mundu gucia, baiñan bai fedetic heldu den justiciaren ariaz.

[14] Baldinetariac ecen legueco direnentçat bada primeça, fedea ez da deussetaco, antçutua diteque Jaincoaren aguintça. [15] Legueac ecen colera dakharque, leguericez denean ez denaz gueroztic legue hausteric ere. [16] Hala fedeco direnentçat da primeça, graciaz dentçat aguintça seguratua Abrahamen ume gucientçat; ez choilqui leguea errecibitu içan dutenentçat, bainan oraiño Abraham gure gucien aita denaren fedeari darraizcoenentçat, [17] (escribatua den beçala: "Hainitz nacio-

8. *Daukana*, alegia.
9. *Hala... hala*: guk aldiz *ala... ala* edo *hain... zen*, etab.

neren aita eguin çaitut"), eta baida ere Jaincoaren aitcinean, ceina sinhetsi içan baidu hillac bizten dituena beçala eta ez diren gauçac direnac guisa deitcen dituena beçala; [18] esparantça içanic esperantça guciaren contra sinhetsi içan baidu, içanen cela nacione hainitcen aita, erran içan citçayoenaren arauera: "Horlacoa içanen da çure arraça".

[19] Ez cen ere flacatu haren fedea eta ez çuen consideratu hilla beçala cela haren gorphutça, orduco baitcituen ehun urthe hurren, eta Saraena ere gai haurric ekhartceco [10]. [20] Ez cen cordocatu ere fede escassaz Jaincoaren aguintçan; aitcitic borthiztu cen fedeaz, Jaincoari gloria bihurtcen cioelaric, [21] ossoqui seguraturic aguindu dituen guciac eguiteco ere gai dela. [22] Hargatic "condatu ere çayo hori ere justiciatçat". [23] Ez da ordean harentçat choilqui içan escribatua, "condatua içan çayoela" hori justiciatçat, [24] baiñan bai guretçat ere, ceinei orobat condatuco baitçaicu, sinhexten dugunei hilletaric biztu den Jesuchristo gure Jauna baitan, [25] ceina heriotcerat libratua içan baida gure bekhatuen gatic eta hilletaric biztu içan baida gure justificatcea gatic.

10. Pasarte hau dudamudazkoa aurki lezake norbaitek eta *ez gai* behar duela pentsa. Hala ote?

V. Cap.

[1] Justificatuac garen beçala beraz fedeaz, dugun baquea Jaincoarequien Jesuchristo gure Jaunaz, [2] ceiñac sararaci içan baigaitu graciazco estatu hortan, ceinetan baigaudez eta gloriatcen ere baigare Jaincoaren umeèn gloriaren esparantçan. [3] Eta ez hori choilqui, bainan oraiño gloriatcen gare atsecabeètan ere, jaquinic atsecabeac dakharquela passientcia, [4] passientciac berriz frogantça eta frogantçac esparantça. [5] Bada esparantçac ez du enganatcen, ceren Jaincoaren amudioa issuria içan baida gure bihotcetarat Izpiritu Sainduaz, ceina eman baitçaicu. [6] Cergatic ecen Jesuchristo oraiño erbalduac [11] guinenean, hill içan da gaixtaguinentçat dembora exlegituan. [7] Miraz nihor hiltcen bide baida guiçon prestu batentçat ere; aguian bada, hala ere, norbaitec baluque curaye hiltceco guiçon prestu batentçat.

[8] Jaincoac ordean du seinalatcen bere amudioa gure alderat; ceren oraiño bekhatoros guinelaric, [9] Jesuchristo hill içan baida guretçat dembora marcatuan; hainitcez hobequi, beraz, orai justificatuac baigare haren odolaz, gaitu salbatuco Jaincoaren coleratic. [10] Ecen baldinetariac Jaincoaren etsai guiñenean baquetuac içan bagare harequien haren Semearen heriotceaz, hainitcez areago orai baquetuac içan ondoan içanen gare salbatuac Seme haren beraren biciaz. [11] Ez choiqui [12] hori; burupe ere dugu Jaincoa baitan Jesuchristo gure Jaunaren ariaz, ceinaz orai içan baigare baquetuac.

[12] Nola ecen guiçon choil batez bekhatua sarthu içan baida mundu huntan eta bekhatuaz heriotcea, hala guiçon gucietarat iragan da heriotcea, guciec eguin baidute bekhatu haren baitan. [13] Legueraiño ere ecen bekhatua munduan cen; baiñan leguea ez baitcen oraiño, bekhatua ez cen iratchequitcen. [14] Bizquitartean erreguinatu içan du heriotceac Adamen ganic Moiseren ganaiño haiñen gaiñean ere, ceinen bekhatua ez baida içan legue hauxte bat Adamena beçalacoa, cein baida ethorri beharra cenaren figura.

[15] Bainan dohaina ez bide da bekhatua beçala; ecen baldin bakhar baten bekhatuaz hainitz hill badire, franquia guehiagorequien ere issuri içan da Jaincoaren urricalmendua eta dohaina hainitcen gaiñerat guiçon bakhar baten graciaz, cein baida Jesuchristo. [16] Eta ez da bekhatua baten gatic den beçala, dohaina ere hala; ecen bekhatu bakhar baten gatic içan gare Jaincoaren jugeamenduaz condenatuac; graciaz ordean hainitz bekhatutaric gare justificatuac. [17] Baldinetariac ecen bakhar

11. Ez dago argi hala dioen.
12. Berriz ere -/- gabe; ik. lehenxeago III, 29.

baten bekhatuaz heriotceac erreguinatu içan badu, hainitcez areago graciaren dohainen eta justiciaren franquia errecibitcen dutenec dute erreguinatuco bicitcean Jesuchristo beraz. [18] Nola, beraz, bakhar baten bekhatuaz erori içan baidire guiçon guciac condenacionean, hala bakhar baten justutassunaz errecibitcen dute guiçon guciec bicitcearen justificacionea. [19] Ecen nola guiçon bakhar baten desobedientciaz hainitz eguin baidire bekhatoros, hala bakhar baten obedientciaz dire hainitz justu eguinen.

[20] Leguea ordean ethorri da halaco moldez, non berretuago baida bekhatua; baiñan non ere berretu içan baida bekhatua, han gaindi eguin içan du graciac; [21] bekhatuac erreguinatu içan duen beçala heriotcea emateco, halaber graciac ere erreguina deçantçat justiciaz bicitce eternala emateco Jesuchristo gure Jaunaz.

VI. Cap.

[1] Cer erranen dugu, beraz? Egonen gare bekhatuan, graciac gaindi eguin deçantçat? [2] Jaincoac beguira gaitçala; ecen bekhatuari hill içan gaizconac, nola bicico gare oraiño hartan? [3] Ez daquiçue Jesuchristo baithan bathayatuac içan garen guciac haren heriotcean içan garela bathayatuac? [4] Ehortciac içan gare ecen harequien batean bathayoaz, hillac içatecotan bekhatuari; Jesuchristo biztu içan den beçala hilletaric bere Aitaren gloriaz, hala gu ere ibill gaitecentçat bicitce berri batean.

[5] Baldinetariac ecen chertatuac içan bagare haren heriotcearen idurirat, halaber içanen gare chertatuac haren phiztearen ere idurirat, [6] daquigularic gure guiçon çaharra harequien batean gurutceficatua içan dela, ezeztatua içan dadintçat bekhatuaren gorphutça eta hemendic harat bekhatuaren gathibo içan ez gaitecentçat, [7] ecen hilla dena libratua da bekhatutic.

[8] Baldinetariac bada hillac bagare Jesuchristorequien, sinhexten dugu halaber garela bicico Jesuchristorequien. [9] Baidaquigu Jesuchristo, hilletaric biztu dena, ez dela guehiago hillen; heriotcea guehiago ez çayoela naussituco. [10] Ecen hill içan denaz beçambatean, behingoan choilqui hill içan da bekhatuarentçat; bici denaz beçambatean ordean, Jaincoarentçat bici da.

[11] Hala çuec ere contu eguiçue hillac çaretela behintçat bekhatuarentçat, ordean bici çaretela Jaincoarentçat Jesuchristo gure Jauna baitan. [12] Ez deçan, beraz, erreguina bekhatuac çuen gorphutz hilcorrean, haren guticiei obedi dioçoçuequen beçala. [13] Ez diotçatçuela abandona çuen gorphutceco miembroac [13] bekhatuari, iniquitatezco arma batçu içateco; aitcitic eman çaquizcote Jaincoari, hillac cinetenetic biztuac beçala; eta emplega çatcitçue çuen gorphutceco membroac Jaincoarentçat, justiciazco arma batçu beçala. [14] Ecen bekhatua ez çaitçue guehiago naussitu behar, ez çaretenaz gueroz leguearen azpian, baiñan bai graciaren azpian.

[15] Cer bada? Bekhatu eguiten harico gare, ceren ez garen leguearen azpian, bainan garen graciaren azpian? Jaincoac beguira gaitçala. [16] Ez daquiçue norbaiten sehi eguiten çaretenean hura obeditceco, hainaren gathibu çaretela, ceiña baiduçue obeditcen, dela bekhatuaren heriotcecotçat, dela obedientciaren justiciacotçat? [17] Ordean esquerrac diotçat Jaincoari, ceren bekhatuaren esclabo içan

13. Gero beti *membro-* dio.

çaretelaric, sumetitu baitçaizcote bihotcez moldetçat eman içan çaitçuen doctrinari. [18] Bekhatutic bada libratuac içan eta, eguin içan çarete justiciaren gathibu.

[19] Guiçonen guisara mintço naiz çuen haraguiaren flaquitatea gatic. Nola cerbitçaraci içan baiditutçue çuen gorphutceco membroac lohitassunean eta gaixtoquerian bekhatu eguiteco, hala orai cerbitçaraz çatçue justiciarentçat saindu içateco; [20] ecen bekhatuaren gathibu ciñetenean, justiciaren uztarria arthiquia cinduten. [21] Cer abantaill, beraz, ediren duçue orai ahalque çareten gauça hetan? Ecen hequien saillida heriotcerat doha. [22] Orai ordean bekhatutic libratuac içanic eguin içan baitçarete Jaincoaren gathibu, hortan edireten duçuen abantailla doha çuen sanctificacionerat eta horra [14] saillida bicitce eternalerat. [23] Bekhatuaren saria ecen heriotcea da. Baiñan Jaincoa ganic errecibitcen dugun gracia da bicitce eternala Jesuchristo gure Jauna baithan.

14. Ez da gauza segurua *horra* dioen.

VII. Cap.

[1] Ala ezdaquiçue, ene anayac (ecen leguean jaquintsun direnei mintço natçaye) leguea guiçonaren gaiñean naussi dela bici deiñocoan? [2] Ecen emaste ezcondu bat amarratuco da ezcontçaco legueaz bere senarraren alderat, hura bici deiño; ordean senarra hill eta, libro da senarraren leguetic. [3] Baldinetariac, beraz, senarra bici duela ezcontcen bada bertce guiçon batequien, adultertçat atchequico da; ordean bere senarra hill çayoquenean, libro da senarraren leguetic eta ezcon daiteque bertce batequien adulter içan gabe.

[4] Hala, ene anayac, çuec ere hillac çarete leguearen alderat Jesuchristoren gorphutçaz, bertce batenac içateco, ceina biztu içan baida hilletaric fruitua Jaincoari ekhar diotçoguntçat. [5] Ecen haraguiaren arauera bici guiñenean, bekhaturaco jaidurec, leguearen ariaz heldu cirenec, indar çuten gure gorphutceco membroetan eta ekhararazten çarozten heriotceco fruituac.

[6] Orai ordean libro gare heriotcezco leguetic, ceiñec gathibu baitguiñaduzçan; halaco moldez, non cerbitçatcen baidugu Jaincoa Izpirituzco berritassunean eta ez letraren çahartassunean. [7] Cer erranen dugu, beraz? Leguea bekhatu da? Ez horlacoric, baiñan bekhatua ez dut eçagutu legueaz baicen; ecen guticia ez nuen jaquiñen cer cen, legueac erran içan ez balu: "ez çare guticiatuco". [8] Ordean occasione harturic bekhatuac manamenduaz tarritatceco [15], soraraci içan ditu ene baitan guticia suerte guciac; leguea gabe ecen, hilla beçala cen bekhatua.

[9] Ni berriz bici nintcen nozbait leguea gabe; baiñan manamendua ethorri eta, biztu da bekhatua [10] eta ni hill içan naiz. Eta guerthatu çait manamendua, niri bicia emateco cena, içan dadin niri heriotcea emateco. [11] Ecen bekhatuac occasione harturic manamendutic, enganatu içan nau eta hill nau manamenduaz beraz. [12] Hala leguea alabaiñan saindua da eta manamendua ere saindua da, justua eta ona.

[13] Cer beraz? On den gauça hilcari bilhacatu çait? Batere horlacoric; baiñan bekhatuac, denarentçat aguertceco, heriotcea darot eman berenez on den gauça batez; halaco moldez, non manamenduaz berretcen baida gaindiz bekhatua. [14] Badaquigu ecen leguea izpirituala dela; ordean ni haraguicoya naiz bekhatuari saldua. [15] Ecin compreni ere deçaquet eguiten dudana, halaz eta [16] ez dudanaz gueroz eguiten nahi dudan unguia eta aitcitic eguiten dudanaz gueroz nahi ez

15. *Burutatceco* ere badirudi dioela ikusi batera, baina ez dut uste.
16. Kausala: ik. Rom. I, 19.

dudan gaixquia. [16] Baldinetariac, beraz, nahi ez dudana eguiten badut, ona dela leguea aithorra ematen diot. [17] Hala ez naiz ni gaurgoro hura eguiten dudana, baiñan da ene baitan egoten den bekhatua.

[18] Badaquit ecen ez dela deussere onic ene baithan, erran nahi da, ene haraguian; ecen ungui eguin nahia aurkhitcen dut ene baithan, ordean unguia compliqui eguitea ez dut aurkhitcen. [19] Ecen ez dut eguiten nahi dudan unguia; eta aitcitic nahi ez dudan gaixquia dut eguiten. [20] Baldinetariac, beraz, eguiten badut nahi ez dudana, ja ez dut nic hura eguiten, bainan ene baithan egoten den bekhatuac eguiten du. [21] Unguia eguin nahi dudanean, beraz, edireten dut beraz [17] ene baitan legue bat traba eguiten duena, ceren gaixquia baidatcheit [18].

[22] Lakhet dut ecen Jaincoaren leguean barneco guiçonaren arauera; [23] ordean bertce legue bat dacusat ene gorphutceco membroetan, ene izpirituco leguearri contra eguiten dioena eta ene gorphutceco membroetan den bekhatuzco leguearen azpian gathibu errendatcen nauena. [24] Guiçon dohacabea ni! Norc libratuco othe nau heriotceco gorphutz huntaric? [25] Jaincoaren graciac Jesuchristo gure Jaunaz. Hala bada neroni naiteque sumetitua Jaincoaren legueari Izpirituaren arauera eta bekhatuaren legueari haraguiaren arauera.

17. Bi *beraz* hain elkarren ondoan?

18. Ez dago batere garbi idatzia, baina hori dioela dirudi: ik. beherago (Rom. XII, 7) *betcheico*. Leizarragak: "...ecen gaizquia datchetala".

VIII. Cap.

[1] Ez da, beraz, orai condenacione garabic Jesuchristo baithan bici direnentçat eta haraguiaren arauera ez dabiltçanentçat; [2] ceren Jesuchristo baithan den bicitcezco Izpirituaren legueac athera bainau bekhatuzco eta heriotcezco leguetic; [3] ecen legueac ecin çaiquena, ceren cen haraguiaz flacatua, Jaincoac, bere Semea igorriric bekhatuaren iduria çakharquen haraguia batean, bekhatutic du condenatu içan bekhatua haraguian, [4] leguearen justicia compli dadintçat gure baithan, haraguiaren arauera ez gabiltçanen baithan, aitcitic Izpirituaren arauera gabiltçanen baithan. [5] Ecen haraguiaren arauеraco direnec haraguiaren arauеraco diren gaucetan dute gustu hartcen; ordean Izpirituaren arauеraco direnec Izpirituaren diren gaucetan dute lakhet. [6] Alabaiñan haraguiaren prudentcia heriotce bat da, eta aitcitic Izpirituaren prudentcia bicitcea eta baquea da. [7] Ceren haraguiaren çuhurtcia Jaincoaren etsai baida, ecen ez da sumetitua Jaincoaren legueari eta ecin ere daiteque.

[8] Haraguiaren arauera dabiltçanac, beraz, ecin agrada dadizqueyo Jaincoari. [9] Çuec ordean ez çarete bici haraguiaren arauera, bainan bai Izpirituaren arauera, baldin behintçat Jaincoaren Izpiritua çuen baithan egoten bada; baldinetariac, bada, edoceiñec Jesuchristoren Izpiritua ez badu, haiña ez da harena. [10] Baldin çuen baithan bada Jesuchristo, gorphutça hilla den arren bekhatuaren ariaz, Izpiritua ordean bici da justiciaren ariaz.

[11] Baldinetariac, bada, Jesuchristo hilletaric biztu duenaren Izpiritua çuen baithan egoten bada, Jesuchristo hilletaric biztu duenac emanen daroe bicia çuen gorphutz hilcorrei ere bere Izpiritua gatic, ceiña egoten baida çuen baithan. [12] Beraz, ene anayac, çordun gare ez haraguiaren ganat, haraguiaren arauera bicitceco.

[13] Baldinetariac ecen haraguiaren arauera bici baçarete, hillen çarete; ordean Izpirituaz haraguiaren obrac hilldumatcen baditutçue, bicico çarete, [14] ecen Jaincoaren Izpirituaz erabilliac diren guciac Jaincoaren ume ditezque. [15] Hala hala ez duçue gathibutassuneco Izpiritua errecibitu, berriz ere beldurrean içateco; aitcitic errecibitu duçue umeèn adoptioneco Izpiritua, ceinez oihu eguiten baidugu: Aita, Aita. [16] Izpiritu harc berac errendatcen dio lekhucotassuna gure Izpirituari Jaincoaren ume garela.

[17] Baldinetariac beraz ume bagare, halaber heredero gare; diot, heredero Jaincoaren eta Jesuchristoren herederoquide, baldin ordean harequien pairatcen badugu, harequien glorificatuac içateco. [18] Uste dut ecen ez direla comparatceco dembora huntaco soffricariac ethorquiçuneco gloria gure baithan aguertuco dena-

requien. [19] Halaber creaturec guehienic iguriquitcen dutena diteque Jaincoaren umeen gloria hura aguer dadin, [20] ceren banitatearen azpian baidaudez ez bere nahiz, bainan bai hartarat beheititu dituena gatic, esparantçan [21] hec berac ere atheraco direla corrupcionearen gathibutassunetic Jaincoaren umeèn gloriaren libertaterat.

[22] Badaquigu ecen creatura guciac hatsbeherapenez eta erditceco miñetan beçala daudecela oraidainocoan. [23] Eta ez choiqui [19] hec, baiñan gu gueroni ere, Izpirituaren primeciac ditugunec, guere baithan hatsbeherapenez gaudez Jaincoaren umeèn adopcionearen beguira eta bai gure gorphutcen librantçaren beguira. [24] Esparantçaz ecen salbatuac gare; ordean esparantça duguna icusten dugunean, ez da hura esparantça; ecen icusten den gauçaz nola diteque esparantça?

[25] Baldin ordean icusten ez dugunaz badugu esparantça, passientciarequien iguriquitcen dugu. [26] Hala hala Izpirituac ere laguntcen du gure flaquitatea; ecen ez daquigu cer galdetu behar diogun Jaincoari gure othoitcetan, behar den beçala othoitz eguiteco; bainan Izpirituac berac du eguiten othoitz guretçat ecin erranicaco hatsbeherapenequien. [27] Bada bihotçac miratcen dituenac badaqui cer desiratcen duen Izpirituac, ceren Jaincoaren arauera direnac galdetcen baiditu sainduentçat.

[28] Badaquigu halaber gauça guciac onetarat hari çaiztela Jaincoa maite dutenei, bere chedearen arauera saindu içateco deithu içan dituenei. [29] Ecen aspaldidanic eçagutu dituenac ditu halaber predestinatu bere Semearen imaginaren idurico içateco, hura içan dadintçat lehen jayoa hainitz anayen artean. [30] Predestinatu içan dituenac bada halaber ditu deithu, eta deithu içan dituenac halaber ditu justificatu, justificatu dituenac berriz ditu halaber glorificatu.

[31] Cer erranen dugu, beraz, horren ondoan? Baldin Jaincoa gure alde bada, nor içanen da gure contra? [32] Bere Seme propioa guphidetsi içan ez duenac, aitcitic gure gucientçat hura heriotcerat libratu içan duenac, nola ez darozquiguque eman gauça guciac harequien batean? [33] Norc ekharrico du accusacioneric Jaincoaren hautetsien contra? Jaincoa bera da hec justificatcen dituena. [34] Nor da hec condenatuco dituena? Jesuchristo da hill içan dena eta are biztu ere içan dena, Jaincoaren escuiñean dena, guretçat othoitz eguiten ere duena. [35] Norc, beraz, aldaratuco gaitu Jesuchristoren amudiotic? Atsecabeac, ala hersturac, ala gosseac, ala bulhuz içateac, ala hirriscuac, ala persecucioneac, ala ezpatac? [36] Escribatua den beçala: "Çure gatic hilca garabiltçate egunoroz, hill beharricaco ardi batçuei beçala behatcen darocute".

[37] Ordean horien gucien artean garai guelditcen gare maitatu gaituenaren ariaz. [38] Segur naiz ecen ez heriotceac, ez biciac, ez aingueruec, ez principalitateèc, ez bothereec, ez presenteco gauçec, ez ethorquissunecoec, ez bortchac, [39] ez goren denac, ez beheren denac, ez bertce creatura batec ere, ecin separatuco gaituela Jaincoaren amudiotic, Jesuchristo gure Jauna baithan fundatua denetic.

19. Hemen ere -/- gabe; ik. Rom. V, 11.

IX. Cap.

[1] Eguia erraten dut Jesuchristoren aitciñean; ez dut gueçurric erraten eta lekhucotassuna errendatcen darot ene conscientciac Izpiritu Sainduaren aitciñean, [2] tristecia handi bat dudala eta damu continual bat neure bihotcean. [3] Desiratcen nuquen ecen neroni anathema ere içatea eta separatua Jesuchristo ganic ene anayen gatic eta haraguiaren arauera ahaide ditudanen gatic, [4] ceinac baidire israeldarrac, ceiñenac baidire haurtçazco adopcionea, gloria, allientcia, leguea, Jaincoaren cerbitçua eta aguintçac, [5] ceinen aitac baitciren patriarchac eta ceiñetaric heldu ere baida haraguiaren arauera Jesuchristo, gauça gucien gaiñeco Jainco dena eta mende gucietan benedicatua. Amen.

[6] Ecin erran ere diteque, bada, Jaincoaren hitça effectu gabe guelditu dela; ez dire ecen Israel ganic heldu diren guciac israelitac hargatic, [7] eta ez Abrahamen hacitic diren guciac hargatic haren umeac; baiñan "Isaac ganic içanen duçun leiñua içanen da deithua çurea". [8] Erran nahi da, ez dire haraguiaren araueraco umeac Jaincoaren ume direnac, baiñan aguintçaco umeac dire Abrahamen leiñuco iduquitcen direnac. [9] Huna ecen aguintçac cer dioen: "Ethorrico naiz demboratsu huntan eta Sarac içanen duque seme bat".

[10] Eta hori ez da choilqui hari behatcen citçayoena, baiñan halaber Rebecari ere, ceiñec bi haur içatu baitcituen aldi batez Isaac gure aita ganic; [11] ecen sorthu ciren baiño lehen eta deussere onic edo gaixtoric eguin çuqueten baiño lehen, Jaincoaren ordenamendua fermu legoentçat haren hautuaren arauera, erran citçayoen [12] ez obren ariaz, baiñan deitcen duenaren ariaz: "Lehena gasteenaren azpico içanen da", [13] escribatua den beçala: "Onetsi dut Jacob, Esau berriz gaitxetsi". [14] Cer erranen dugu, beraz? Ala injusticiaric dela Jaincoa baithan? Ez horlacoric. [15] Moiseri ecen erraten dio: "Urricalduco çait urricaldu gogo çaitana eta misericordia eguinen diot misericordia eguin gogo diodanari".

[16] Beraz ez dago nahi duenaren baithan, ez lauster eguiten duenaren baithan, baiñan bai misericordia eguiten duen Jaincoaren baithan. [17] Hala erraten ere dio Pharaoni Escrituran: "Hortacotz berecotz altchatu içan çaitut, çure baithan agueraracitcecotçat neure botherea; bana dadintçat ene icena mundu gucian".

[18] Beraz nahi duena du urricari eta nahi duena gogortcen du. [19] Erranen darotaçu equi: Cergatic, bada, oraiño errencuratcen da? Ecen, nor doha haren nahiaren contra? [20] O guiçona!, cer çare çu Jaincoari ihardexteco? Ala lurrezco bachera batec erraten dio eguin duenari: Cergatic eguin nauçu hunela? [21] Ala

ezdu botherea lurrezco bachera eguilleac orre [20] beretic eguiteco bachera bat ohorezco gaucetacotz eta bertce bat berriz gauçaric bachoenetacotz?

[22] Eta baldin Jaincoac eracutsi nahiz bere colera eta eçagutaraci nahiz bere botherea, jassan baditu passientcia handirequien colerazco bachera batçu galtceco propi direnac, [23] aguertcea gatic bere gloriaren aberatstassunac misericordiazco bacheren gaiñean, ceiñac preparatu içan baiditu gloriacotçat, [24] gure gaiñean, ceiñac deithu içan baigaitu ez choilqui judutarretaric, bainan halaber gentilletaric ere... [25] Oseè baithan dioen beçala: "Deithuco dut ene populu ez cena ene populua eta ene maite ez cena ene maitea eta misericordia ardietsi ez çuena misericordia ardietsi duena". [26] Eta guerthatuco da, erran içan çayen lekhuan "Ez çarete çuec ene populua", içanen baidire deithuac Jainco biciaren umeac. [27] Isaias berriz oihuz dago Israelentçat: "Baldin balitz ere Israelgo umeèn nombrea itsassoco harearen pare, ondarrac dire salbatuco; [28] ecen laburqui complituco du erran duena eta gutituco bere populua bere justiciaren ariaz; baiqui Jaunac eguinen du lurraren gaiñean ebaquitça handi bat". [29] Eta aitcinetic Isaiasec erran çuen beçala: "Baldinetariac armadetaco Jaunac ez balarozquigu conserbatu gure haci ondarrac, Sodoma eta Gomorra beçalacatu beharrac içanen guiñen".

[30] Cer erranen dugu, beraz, baicen gentillec, ceiñac ez baitçabiltçan justiciaren bilha, atceman içan dutela justicia eta are fedetic den justicia, [31] Israel berriz, justiciaren legueari çarraicoena, ez dela heldu içatu justiciaren leguerat? [32] Cergatic? Ceren ez baitçarraizcon fedez, bainan bai obrez beçala; behaztopatu dire ecen trebecuco harriaren contra, [33] escribatua den beçala: "Huna non ematen dudan Sionen behaztopaguneco eta trebecuco harri bat, eta norc ere sinhetsico baidu haren baitan, eta haiña ez da guelldituco mussuthuts".

20. *Orre* < *orhe*: ik. Mt. XIII, 33.

X. Cap.

[1] Alabaiñan, ene anayac, desiratcen nuque ene bihotz guciaz hequien salbamendua, eta galdetcen ere diot Jaincoari lehiarequien. [2] Lekhucotassuna errendatcen daroet ecen badutela Jaincoarentçat zelo; hequien zeloa ordean ez da scientciaren arauеracoa, [3] ceren ez eçagutuz Jaincoa ganic heldu den justicia eta berea ifinitcerat lehiatuz, ez baitçaizco sumetitu Jaincoa ganic heldu den justiciari; [4] ecen leguearen akhabantça Jesuchristo da, haren baitan sinhetsico duten guciac justificatuac içan daitecentçat.

[5] Moisec ecen escribuz eman du, legueac manatcen duen justicia predicatcen duenac bicia içanen duela hartaz. [6] Ordean fedetic den justiciaz huna nola mintço den: "Ez deçaçula erran çure bihotcean: Nor iganen da cerurat?", erran nahi da, Jesuchristo erakhartceco, [7] edo "Nor jautsico da lece behererat?", erran nahi da, Jesuchristo hilletaric bizteco. [8] Baiñan cer dio Escriturac? "Hurbillean duçu hitça, çure ahoan da eta çure bihotcean". Eta hori da fedearen hitz hura, ceiña guc predicatcen baidarotçuegu. [9] Ceren eta baldin confessatcen baduçu ahoz Jesuchristo Jauna eta sinhexten baduçu bihotcez Jaincoac biztu içan duela hilletaric, salbatua içanen baitçare. [10] Ecen bihotcez sinhetsi behar da justificatua içateco, eta ahoz aithorra eman salbamendua ardiexteco. [11] Hargatic erraten du Escriturac: "Norc ere sinhexten baidu haren baitan, eta hura ez da mussuthuts guelldituco".

[12] Ez da ecen hortan berezcoric judutarraren eta gentillaren artean, ecen Jaun bat eta bera da guciena, hura behartcen duten gucientçat aberats dena, [13] ecen Jaunaren icena deithoratuco duten guciac salbatuac içanen dire. [14] Nola ordean deithoratuco dute, baldin ez badute sinhexten haren baitan? Eta nola dute sinhetsico haren baitan, baldin ez badute aditcen hartaz mintçatcen? Nola berriz adituco dute, nihorc ez badaroe predicatcen? [15] Eta nola predicatuco çaye, baldin predicariac igortcen ez baçaizte? Escribatua den beçala: "Ala ederrac baidire baquea predicatcen dutenen oiñac, eguiazco ontassunen berria ekhartcen dutenenac!". [16] Bainan ez diote guciec obeditcen Evangelioari eta horrec erranaraci dio Isaiassi: "Jauna, norc sinhetsi du guri predicatcen aditu darocuna?". [17] Fedea, beraz, aditcetic heldu da eta aditcea Jesuchristoren hitça predicatua içatetic. [18] Baiñan diot: Ala ez dute aditu? Alabaiñan bada, "hequien boça banatu içan da mundu gucian eta hequien hitçac goan içan dire lurraren azquen bazterretaraiño".

[19] Berriz ere diot: Ala Israelec ez du eçagutu? Huna cer dioen Moisec lehenbicicoetaric: "Jeloscor errendatu çaituztet nic populu ez den populu batez; nacione adimendu gabeco batez sumiñaracico çaituztet". [20] Isaiassec berriz erra-

ten du aussarqui: "Aurkhitu naute bilhatcen ez nindutenec; aguertu natçaye ene galderic ez çutenei". [21] Israelen sujetean aitcitic erraten du: "Egun gucian hedatu içan diotçat ene escuac populu sinhetsgogor bati eta ene hitcei contra eguiten çaroen bati".

XI. Cap.

[1] Diot bada: Ala arbuyatu içan du Jaincoac bere populua? Ez horlacoric, ecen neroni ere israeldarra naiz, Abrahamen haciticacoa, Benyaminen leiñuticacoa. [2] Ez du arbuyatu içan Jaincoac bere populua, ceina baidu aitcindanic eçagutu. Ala ez daquiçue Escrituran Eliasez condatcen dena, nola errequeritcen duen Jaincoa Israelen contra?: [3] "Jauna, çure profetac hill dituzte, çure aldareac urratu dituzte, bakharra guelditu naiz eta bicia niri eraman nahiz dabiltça".

[4] Ordean cer errepusta eguin cioen Jaincoac? "Erresalbatu ditut neeuretçat çazpi milla guiçon, Baalen aitcinean belhauricatu ez direnic". [5] Hala dembora huntan ere ondar batçu salbatuac içan dire graciazco hautu batez. [6] Baldin graciaz badire, ez dire beraz obren ariaz; bertcela gracia ordudanic ez da gracia.

[7] Cer da, beraz? Israelec bilhatcen çuena ez baitu ardietsi; hautatuac içan direnec ordean ardietsi bai dute, eta bertceac itsutuac içan baidire, [8] escribatua den beçala: "Eman daroe Jaincoac lokhumazco izpiritu bat; eman diotçate orai arteraiñocoan beguiac ez icusteco eta beharriac ez aditceco". [9] Davidec ere erraten du: "Içan bequie bere mahaiña arte bat beçala, ceiñetan hartuac içanen baidire, eta harri bat beçala, ceinac behaztoparacico baiditu; eta içan beçate mereci dutena; [10] illhun beitez hequien beguiac icus ez deçaqueten beçala eta iducaçu hequien bizcarra bethi makhurtua". [11] Diot beraz: Ala erori dire ez altchatcecotçat? Ez balinba, baiñan hequien escassetic heldu çaye jentillei salbamendua, lehia daitecentçat hauyei jarraiquitcerat.

[12] Baldin hequien eroricoa içan bada munduaren aberatstassuna eta hequien gutimendua gentillen aberatstassuna, cembatenaz da guehiago içanen hequien bethegunea? [13] Çuei diotçuet ecen gentillei: Gentillen apostolua içanen naiceino, ohoratuco dut ene cargua, [14] nolazbaitere lehian sararacitceco ene anayac eta hetaric cembait salbaracitceco.

[15] Baldinetariac ecen hequien galtcea munduaren erreconciliacionea içan bada, cer içanen da hequien cobratcea, hilletaric bizte bat baicen? [16] Baldinetariac orretic [21] dena saindua bada, bai eta orrea ere; eta baldin erroa saindua bada, bai eta adarrac ere sainduac dire. [17] Baldin adarretaric cembait hautsi içan badire eta çu bassa oliba ciñelaric han chertatua içan baçare eta parte içan baduçu oliva ondoaren erroan eta fuiñean, [18] ez çaitecela handiets adarren contra. Baldin handiesten baçare ere, ez duçu çuc erroa jassaten, bainan erroac çu jassaten çaitu.

21. Berriz ere *orre* < *orhe*: ik. goraxeago IX, 21.

[19] Erranen duçu nasqui: Adar hec hautsi içan dire, ni han chertatua içan nadintçat. [20] Hala da; bere sinhets gogortassuna gatic içan dire hec hautsiac; eta çu fedeaz çaude tiesso; baiñan beguirautçu superbiatcetic, çaude beldurtassunean. [21] Ecen baldin Jaincoac adar naturalac guphida içan ez baditu, beldur içateco duçu çu ere ez çaitçan içan guphida.

[22] Considera çaçu, beraz, Jaincoaren ontassuna eta garratztassuna; haren garratztassuna erori içan direnen alderat eta haren ontassuna çure alderat, baldin irauten baduçu ordean haren ontassunac eman çaituen estatuan; bertcela çu ere ebaquia içanen çare. [23] Aitcitic hec ere bere sinhets gogortassunean egoten ez badire, chertatuac içanen dire; botheretsu da ecen Jaincoa berriz ere hec chertatceco.

[24] Ecen baldinetariac çu naturalqui bassa oliva cenetic ebaquia içan baçare eta naturaren contra oliva onean chertatua, cembatenaz areago adar naturalac içanen dire bere olivaondo propioan cherthatuac?

[25] Ez dut nahi ecen, ene anayac, ez deçaçuen jaquin misterioa [22] hau, ceben beguietan çuhur içan ez çaitezten: Israel partez erori içan dela itsutassunean, nacioneèn ospea sar daitequen artean Eliçan, [26] eta hala salbatua içan dadintçat Israel gucia, escribatua den beçala: "Siondic ethorrico da Salbatçaillea, Jacoben ganic gaixtaguintassuna khenduco duena, [27] eta hori da hequiequien eguiñen dudan allientcia, khendu dituzquedanean hequien bekhatuac". [28] Eguia da, Evangelioaren ariaz etsai dire çuen gatic; ordean hautuaren ariaz maite dire bere aiten gatic. [29] Urriqui gabe dire ecen Jaincoaren dohaiñac eta Jaincoaren deya.

[30] Nola bada nozbait çuec ere ez baitcinduten sinhexten Jaincoa baitan, guero ordean misericordia ardietsi baiduçue hequien sinhets gogortassuna gatic, [31] hala hec ere orai ez dute sinhetsi Jaincoac misericordia eguin nahi içan darotçuela, hec ere bere aldian misericordia ardiets deçaten gatic. [32] Utci içan ditu ecen Jaincoac guciac sinhets gogortassunean, guciei misericordia eguitea gatic.

[33] O Jaincoaren çuhurtciaren eta scientciaren aberatstassunen ondo barrena! Ala haren juyamenduac baidire ecin comprenituzcoac eta haren bideac ecin eçagutuzcoac! [34] Norc eçagutu ahal du ecen Jaunaren gogoa? Edo nor içan da haren contseilluco? [35] Norc eman içan dio hari lehenic ordainez burupe içateco? [36] Alabaiñan haren ganic eta hartaz eta haren baitan dire guciac. Hari eman daquioela gloria mendetaco mende gucietan. Amen.

22. Hala dio, oker noski.

XII. Cap.

[1] Errequeritcen çaituztet, beraz, ene anayac, Jaincoaren misericordiaz, arren offrenda diotçotçuen çuen gorphutçac hostia bici bat, saindu bat eta Jaincoaren gogoraco bat beçala, cein baida çor dioçuen cerbitçu arroçoinezcoa. [2] Eta ez çaiteztela molda mende hunen gaiñean; aitcitic erreforma çaitezte sentimendu berri batçu harturic, eçagut deçaçuentçat cer den Jaincoaren nahia, cer den ona, cer den harren gogara eta cer den perfeta.

[3] Hala niri eman içan çaitan graciaren berthutez exhortatcen çaituztet çuec guciac, ez çaitezten altcha behar baino guehiago ceben buruez ditutçuen sendimenduetan; aitcitic içan detçatçuen sentimendu modestac eta batbederari Jaincoac partitu duquen fedearen neurriaren arau-eracoac. [4] Ecen hala nola gorphutz batean hainitz membro baiditugu, membro guciec ordean ez baidute lan bera, [5] hala hainitz garelaric, gorphutz bat gare Jesuchristo baitan eta guciac gare bata bertcearen membro. [6] Nola bada dohain differentac baiditugu eman içan çaicun graciaren arauera, profeciaco dohaina errecibitu duena balia bedi fedearen erreguelaren arauera; [7] ministeriorat deithua dena betcheico ministerioari; iracasteco dohaiña duena aplica bedi iracasten; [8] exhortatceco dohaiña duena, hari bedi exhortatcen; amoina eguiten duenac eguin beça simplicitatearequien; bertceen gobernua duenac, içan beça hetaz artha; misericordiazco obrac eguiten dituenac, eguin betça alegueraqui.

[9] Çuen maitatcea içan bedi aleguiaric gabe. Duçuen higuin gaixquia eta çatcheizcote unguiari. [10] Maita çaçue elkhar anayatassuneco amudio batez; aitcin çaçue batac bertcea elkhar ohoratcen. [11] Ez çareten nagui çuen eguinbideetan; conserba çaitezte Izpirituco lehiaduran; cerbitça çaçue Jauna. [12] Boz çaitezte esparantçaz; içan çaitezte pairacor atsecabeètan, irauncor othoitcean. [13] Amultsu sainduac sainduec beharquiçunac descantsatceco arrotcei beguitarte eguille [23]. [14] Benedica çatçue çuen persecutatçailleac; benedica çatçue eta beguirautçue madaricioneric hei arthiquitcetic.

[15] Boz çaitezte bozcarioan direnequien; eguiçue nigar nigarrez daudecenequien. [16] Sar çaitezte batçu bertceèn sendimenduetan; ez çaiteztela altcha ceben baitan handigozco gogoetez; aitcitic aphal çaitezte presuna beheratuen alderat, ez

23. Pasarte iluna, ilunik bada, ez baitzaio euskal testuari zer esan nahi duen eta hitzei zer lotura sintaktiko duten igertzen, ez eta Vulgatak horretarako deus ere laguntzen: "necessitatibus sanctorum communicantes; hospitalitatem sectantes". Oker kopiatua dago, inondik ere. Leizarragak oso bestela dakar: "Sainduén necessitatetara communicatzen duçuela; hospitalitateari iarreiquitzen çaitzatela".

çareten çuhur ceben begui propioetan. [17] Ez dioçaçuela bihur nihori gaixquia gaixquiarentçat; eguiçue ungui dena, ez choilqui Jaincoaren aitciñean, baiñan halaber guiçon gucien aitciñean ere. [18] Eguin ahal badadi eta çuen baitan dagoen guciaz, duçuen baquea guiçon guciequien. [19] Ez çaiteztela vendeca cebonec, ene maiteac, bainan utçaçue colera iragaterat, escribatua da ecen: "Niri dagot vendecua eta nic dut eguinen", diotsa Jaunac.

[20] Aitcitic baldin gosse bada çure etsaya, emoçu jaterat; egarri bada, emoçu edaterat; ecen hori eguinez ikhatz biciac diotçatçu bilduco buruaren gaiñerat. [21] Beguirautçu garaitua içan ez çaitecen gaixquiaz; aitcitic lehia çaite garaitcerat gaixquia unguiaz.

XIII. Cap.

[1] Mundu gucia içan bedi goragoco bothereei beheititua, ez da ecen bothereric Jaincoa ganic heldu ez denic; diren guciac alabainan Jaincoaz ifiniac dire. [2] Hala bothereei contra eguiten daroena, Jaincoaren ordenamenduaren contra lehiatcen da, eta horla lehiatcen direnec condenacionea erakhartcen dute bere buruaren gaiñerat. [3] Ecen ez da printceèz beldur içateco ungui eguiten denean, baiñan bai gaixqui eguiten denean. Nahi duçu, bada, ez beldur içan bothereèz? Eguiçu ungui eta laudatuco ere çaituzte, [4] ecen Jaincoaren ministre da çure onetaco.

Baldin ordean gaixqui eguiten baduçu, çaren beldur orduan; ceren ez baidu behar gabe ezpata ekhartcen, Jaincoaren ministre denaz gueroz, gaixqui eguiten duena punitceco. [5] Arren beraz, behar duçue içan sumetituac, ez choilqui gaztiguaren beldurrez, baiñan halaber contcientcia gatic ere. [6] Hargatic pagatcen ere diotçatçue tributuac; ceren Jaincoaren ministre diren hortan berean ere, haren cerbitçatcen hari direnac.

[7] Bihur dioçaçue, beraz, batbederari çor çayoena: tributua çayoenari tributua; thailla çayoenari thailla; beldurra çayoenari beldurra; ohorea çayoenari ohorea. [8] Ez çaiteztela gueldi çordun nihoren ganat, lekhat elkhar maitatceaz baicen, ecen lagun proximoa maite duenac leguea complitu duque. [9] Hala da, ecen "Ez duçu eguiñen adulterioric; ez duçu eguiñen heriotceric; ez duçu ebatsico; ez duçu erranen falso testimonioric; ez çare guticiatuco bertcerenaz" eta diren bertce manamendu guciac hitz huntan çarratuac aurkhitcen dire: "Maitatuco duçu çure lagun proximoa ceure burua beçala".

[10] Lagun proximoa ganaco amudioac ez du eguiten deussere, nihori bidegabe eguin dioçoquenic; eta hala leguearen bethetassuna amudioa da.

[11] Eta badaquigu ordu ere dela hortacotz, ecen muga da ja iratçar gaitecen gure lokhumatic, ceren gure salbamendua hurbillago baidugu fedea errecibitu guinduenean baino. [12] Gaua iragan da eta eguna hurbildu; utzatcigun, beraz, illhunbetaco obrac eta jauntzatcigun arguitaco armac. [13] Ibill gaitecen honestoqui, egunaz nihor dabillan beçala, ez jancorretan eta hordiquerietan; ez atseguin liçunetan eta lohiquerietan; ez iharduquitcetan eta invidietan; [14] bainan vesti çaitezte Jesuchristo Jaunaz eta ez duçuela haraguiaz guraric haren guticiei behatcen çaizten gaucetan.

XIV. Cap.

[1] Fedean flaco dena, bada, har çaçue amultsuqui harequien iharduquitcen hari gabe. [2] Ecen batac uste du jan deçaquela gauça gucietaric; flaco denac berriz ez du jaten belharric baicen. [3] Jaten duenac ez beça mezpreça jaten ez duena; eta jaten ez duenac ez beça condena gucietaric jaten duena, Jaincoac hartu duenaz gueroz bere cerbitçurat.

[4] Nor çare çu bertceren cerbitçaria horla condenatceco? Ala egon dadin chutic, ala eror dadin, haren naussiari dagoca icustea. Egonen da ordean chutic, ceren Jaincoa asqui botheretsu baida hura sustengatceco. [5] Hala batac eguiten du differentcia egunaren eta egunaren artean; bertceac egun guciac berdin dagozca. Batbederac eguin beça gogoac ematen dioen beçala. [6] Eguna berezten duenac Jaunaren gatic eguiten du; jaten duenac Jaunaren gatic jaten du, Jaincoari esquerrac ematen diotçanaz gueroz. Halaber jaten ez duenac ere Jaunaren gatic ez du jaten eta esquerrac ematen diotça Jaincoari.

[7] Ecen gutaric nihor ez da bici beretçat, ez nihor hiltcen beretçat. [8] Edo dela bici garen, Jaunarentçat bici gare; nahiz hill gaitecen, Jaunarentçat hiltcen gare. Beraz nahiz garen bici, nahiz garen hiltcen, Jaunarenac gare. [9] Hortacotz ecen hill içan da eta biztu da Jesuchristo: hala hillen nola bicien gaiñean naussitassuna içateco.

[10] Çuc, bada, cergatic condenatcen duçu çure anaya? Edo çuc cergatic mezpreçatcen duçu çurea? Gucioc ecen aguertuco gare Jesuchristoren tribunalaren aitciñean. [11] Escribatua da ecen: "Bici naiz ni, dio Jaunac: ene aitciñean khurtuco [24] dire belhaun guciac eta harico dire mihi guciac Jaincoari laudorio ematen". [12] Hala gutaric batbederac beretçat contu emanen dio Jaincoari.

[13] Ez deçagula, beraz, guehiago jugea elkhar batac bertcea; aitcitic gogoa çaitezte ez dioçuela eman behar ceben anayari trebecagarriric edo scandalaric. [14] Badaquit eta fida naiz Jesuchristo gure Jauna baitan deussere ez dela berenez lohi denic; gauça bat lohitçat dagocanean nihorc, harentçat bai lohi da.

[15] Baldinetariac ecen çu cerbaitetaric jaten icusteac pena badio çure anayari, ja ez çabiltça caritatearen arauera. Ez deçaçula çure jatea gatic galaraz guiçon bat, ceiñarentçat hill içan baida Jesuchristo. [16] Beguirautçue, beraz, gaixqui mintçaraztetic guc eguiten dugun unguiaz. [17] Ez da ecen Jaincoaren erresuma eguiten

24. Hori garbi irakurtzen da; horrez gain aurrean *u-* daukan ez da segurua. Lhandek *ukhurtu* eta *khurtu* biak dakartza.

duena jatea eta edatea, baiñan justicia, baquea eta Izpiritu Saindua baithango alegrantcia. [18] Hala molde hortan Jesuchristo cerbitçatcen duena agradatcen çayo Jaincoari eta laudatua da guiçonez.

[19] Jarraiq gaquizten, beraz, baquea ekhar ahal deçaqueten gaucei eta beguira detçagun guere artean edifica gaitçaqueten gauçac. [20] Ez deçaçula jateco baten gatic desseguin Jaunaren obra. Eguiaz jateco guciac chahuac dire; ordean gaizqui eguiten du guiçon batec hetaric jateaz, bertceac hortaz scandalisatcen dituenean. [21] Hobe da haraguiric ez jatea eta arnoric ez edatea eta deussic ez eguitea çure anaya eroraraz ahal deçaquenic edo scandalisa deçaquenic, ezberen gaitcen [25] deçaquenic, ceren den flaco. [22] Çuc behar den sinhextea duçu? Iducaçu çure bihotcean Jaincoaren aitcinean. Dohatsu diteque eguin nahi duen gauçan bere contcientciac condenatcen ez duena. [23] Bainan duda eguiten duenac, hea jan ahal deçaquen, baldin jaten badu condenatua da, ceren ez baida hari duen sinhextearen arauera; bada sinhextearen arauera eguiten ez den gucia bekhatu da.

25. Dudazko irakurketa. Bai al da *gaitzendu?* Ez dut Lhandegan ere aurkitzen. Ala *gaitcera* ote dio?

XV. Cap.

[1] Behar ditugu, beraz, guc borthitçago garenec jassan flaco direnen herbaltassunac eta ez guere contentamendu propioac bilhatu. [2] Çuetaric batbedera entseya bedi bere lagun proximoa contentatcerat on diren gaucetan eta hura edifica deçaquenetan. [3] Alabaiñan Jesuchristo ere ez da bere burua contentatcerat haritu; aitcitic escribatua den beçala: "Çu iroiztatu çaituztenen iroyac ene gaiñerat erori dire". [4] Ecen escribatuac diren guciac gure escolatceco dire escribatuac, passientciaz eta escrituretaric dugun consolacioneaz har deçaguntçat esparantça handi bat.

[5] Passientciataco eta consolacionetaco Jaincoac, bada, diçuela gracia sentimendu berac içateco elkharrentçat Jesuchristo baitan, [6] gogo batez eta aho batez ohora deçaçuentçat Jaincoa, cein baida Jesuchristo gure Jaunaren Aita. [7] Hargatic, bada, jassan çaçue elkhar Jesuchristoc çuec jassan çaituzten beçala Jaincoaren ohoretan.

[8] Erraten darotçuet ecen Jesuchristo Evangelioaren ministre eta iracatsçaille içan dela circoncionecoen [26] alderat, Jaincoaren hitça eguiatan athera cedintçat hequien aitei eguin ciotçoten aguintcen complitceaz, [9] gentillec berriz Jaincoa ohora leçatentçat bere urricalmendua gatic, escribatua den beçala: "Horrengatic, Jauna, darotçut laudorio emanen gentillen artean eta dut cantatuco çure icenaren ohoretan". [10] Errana ere da berriz: "Gentillac, boz çaitezte haren populuarequien batean". [11] Eta oraino berriz: "Gentillac, lauda çaçue guciec Jauna; eta, populuac, çuec ohora çatçue guciec haren handitassunac". [12] Isaiac ere erraten du: "Ilkhico da Jesseren çainetic urthame bat, ceiña altchatuco baida gentillen gaiñean erreguinatcerat eta gentillec haren baithan emanen dute bere esparantça". [13] Esparantcetaco Jaincoac, bada, bethe çaitçatela bozcarioz eta baquez çuen fedearen bidez, esparantça berretuaz dohantçat çuen baitan Izpiritu Sainduaren berthutearequien batean.

[14] Neroni ere behintçat seguratua naiz çuetaz, ene anayac, betheac çaretela caritatez eta bai jaquintassun guciez, eta hala escola ahal deçaqueçuela elkhar batçuc bertceac. [15] Hala ere escribatu darotçuet hau, ene anayac, eta benturaz aussarquiche, nahiz çuec orhoitaraci ja daquizquitçuen gaucez, Jaincoac eguin içan darotan graciaren arauera. [16] Jesuchristoren ministre içateco gentillen artean, Jaincoaren Evangelioaren saindutassuna eçagutaracitcen dudalaric, gentillen offrenda ungui errecibitua içan dadintçat eta Izpiritu Sainduac saindu bilhaca deçantçat.

26. Agian *-si-* utzi du hemen ere (ik. Rom. II, 28) idatzi gabe.

[17] Badut, beraz, certaz gloria Jesuchristo baitan Jaincoari behatcen çaizcon gaucen gaiñean. [18] Ez ninteque ecen atrebi erraterat cer ez duen eguin nitaz Jesuchristoc gentillac erakhartceco obedientciarat hitçaz eta obrez, [19] miracuilluen eta prodigioen berthutez eta Izpiritu Sainduaren botherez; halaco maneraz, non garrayatu içan baidut Jesuchristoren Evangelioa baster gucietarat Jerusalemetic Illyriarainocoan.

[20] Ordean predicatu içan dut Evangelio hori, ez Jesuchristoren icena eçagutua cen toquietan, bertceren cimenduaren gaiñean ez bastitcea gatic, bainan escribatua denaren arauera: [21] "Hartaz deussic erran ez citçayenac içanen dire arguituac eta hartaz mintçatcen aditu ez çutenec içanen dute eçagutça".

[22] Horri dagocala içatu ere naiz asco aldiz trabatua çuen ganat goatetic eta naiz guibelatua orai arterainocoan. [23] Orai ordean, ez baidut guehiago herri hautan norat goan eta desira baidut çuen icusterat goateco ja hainitz urthez gueroztic, [24] Espainiarat goateco abiatcen naicenean, esparantça dut iragatean icussico çaituztedala eta harat çuec guidatuco nauçuela, çuequien içateco atseguinaz aphur bat goçatu ondoan.

[25] Orai bada banoha Jerusalemerat sainduei cembait amoiña eramaterat. [26] Placer içan dute ecen Macedoniacoec eta Achaiacoec biltcea cerbait Jerusalemeco sainduen artean diren pobreèntçat. [27] Atseguinequien hortarat ekharriac içan dire, eta çor ere daroe. Ecen baldin hequien ontassun izpiritualetan parçuner eguin içan badire gentillac, hauec ere behar daroe hei bere ontasun temporaletaric parte eguin.

[28] Hori, bada, eguin duquedanean eta amoiña hori partitu dioquetedanean, iraganen naiz çuen baitharic Espainiarat goatean. [29] Eta badaquit icusterat heldu natçaitçuenean, Jesuchristoren Evangelioco benedicioneèn franquiarequien ethorrico naicela. [30] Errequeritcen çaituztet, beraz, ene anayac, Jesuchristo gure Jaunaz eta Izpiritu Sainduaren caritateaz, lagun naçaçuen enetçat Jaincoari othoitz eguinez, [31] arren, beguira naçan fedearen etsai Judean direnetaric eta Jerusalemeco sainduei errendatcerat nohacoten cerbitçua agrada daquien, [32] nathorrentçat guero çuen ganat bozcariorequien, baldin Jaincoaren nahia hala bada, eta descantsa nadintçat çuequien. [33] Baquearen Jaincoa dela, bada, çuequien guciequien. Amen.

XVI. Cap.

[1] Gomendatcen darotçuet, bada, gure arreba Phebe, Cenchreaco Eliça cerbitçatcen duena, [2] arren, deçaçuen errecibi Jaincoaren ariaz sainduei dagoten beçala; deçaçuen eta [27] lagun çuen beharra ahal duquen eguiteco gucietan; ecen berac ere hainitcei cerbitçu eguin içan daroe eta bai neroniri ere.

[3] Saluta çatçue Prisca eta Aquila, Jesuchristoren cerbitçuan enequien trabaillatu içan direnac, [4] eta niri bicia salbatceco bere buruac hirriscuan eman içan dituztenac; ceiñei ez bainaiz ni bakharra esquerrac daroztedana, bainan orobat baidiotçate gentilletaco Eliça guciec ere. [5] Saluta çaçue halaber hequien etchean den Eliça. Saluta çaçue Epenete, ene maitea, cein baida Asiac Jesuchristori ekharri dioen lehenbicico fruitua.

[6] Goraintci erroçue Mariari, çuentçat hainitz trabaillatu denari. [7] Goraintci Androniçari eta Juniari, ene ahaideei eta pressondeguico lagunei, ceinac consideragarriac baidire Apostoluen artean eta ceiñac ni baiño lehen baitciren Jesuchristorenac.

[8] Agur erroçue Ampliat, Jauna baithan hainitz maitatcen dudanari. [9] Orobat Urbano Jesuchristoren cerbitçuan enequien trabaillatu içan denari, eta Stachyn ene maiteari.

[10] Saluta çaçue Apelles prestua Jesuchristoren cerbitçaria. [11] Saluta çatçue Aristobuleren etcheco direnac. Saluta çatçue [28] Herodion ene cusiña. Saluta çatçue Narcisseren etcheco direnac eta Jauna cerbitçatcen dutenac. [12] Goraintci Triphene eta Triphosa, Jaunaren cerbitçuan trabaillatcen hari direnei. Saluta çaçue Persida ene maitea eta Jaunaren cerbitçuan hainitz trabaillatu dena. [13] Saluta çaçue Rufus, Jaunaren berecia, eta haren ama, enea ere dena. [14] Goraintci Asyncrito, Phlegon, Hermas, Patrobe, Hermes eta gure anaya hequiequien direnei. [15] Saluta çatçue Philologo eta Julia, Nereè eta haren arreba, bai halaber Olimpiada eta hequiequien diren saindu guciac. [16] Saluta çaçue elkhar batac bertcea mussu saindu batez. Salutatcen çaituzte halaber çuec ere Jesuchristoren Eliça guciec.

[17] Othoitz eguiten darotçuet ordean, ene anayac, goardia emateaz çuec ikhassi duçuen dotrinaren contra escatimac eta scandalac sorraracitcen dituztenei, eta hetaric hastantceaz, [18] halacoec ecen ez dute Jesuchristo gure Jauna cerbitçatcen; aitcitic bere sabelaren gathibu dire eta hitz ederrez eta balacuz enganatcen dituzte izpiritu simpleac. [19] Çuen obedientcia eçagutua da mundu gucian eta hortaz

27. Ez ote da *ere?*
28. *Çaçue* behar luke.

atseguin dut çuen gatic. Ordean nahi nuque içan çaitezten çuhur onecotz eta simple gaixquicotz. [20] Baquearen Jaincoac, bada, leher deçala lauster Satana çuen oiñen azpian. Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuequien.

[21] Goraintci darotçue Thimotheo ene lagunac, bai eta halaber Lucius eta Jason eta Sosipatre ene ahaideec. [22] Salutatcen çaituztet Jaunaren icenean Tertiusec, ceiñec escribatu baidut buthun hau. [23] Salutatcen çaituzte Cajusec, ene ostatatçailleac, eta bai Eliça guciac; goraintci Erastus hirico thresoreroac eta bai Quartus gure anayac ere. [24] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuequien guciequien. Amen.

[25] Çuec borthizteco bothere duenari, bada, nic predicatcen dudan Evangelioan eta Jesuchristoc predicatu duen dotrinan, iraganeco mendeètan estalia egon ondoan [26] orai profeten escribuez, Jainco eternalac exlegitua çagocan beçala, aguertua eta nacione guciez, fedeari obedi dioçatentçat, eçagutua içan den misterioaren rebelacionearen arauera, [27] Jaincoari, bada, bera bakharra çuhur denari, ohore eta gloria Jesuchristoz mendetaco mende gucietan. Amen.

J. PAULO APOST.

Lehenbicico Guthuna

CORINTHIARREI

I. Cap.

[1] Pauloc, Jaincoaren nahiaz Jesuchristoren Apostolu içaterat deithuac, eta Sosthenes haren anayac, [2] Jaincoaren Eliça Corinthan denari, Jesuchristoc santificatu eta saindu içateco deithu dituen fidelei, eta Jesuchristoren icena diren eta garen lekhu gucietan deithoratcen[1] duten guciei, [3] Jainco gure Aitac eta Jesuchristo gure Jaunac diçuela baquea eta gracia.

[4] Esquerrac ematen diotçat bethi ene Jaincoari çuentçat, Jesuchristoz eguin içan darotçuen graciaz, [5] ceren hartaz aberastuac içan baitçarete ontasun suerte guciez, hitçaren eta jaquintçaren dohain guciez, [6] eta hortaz eguiaztatua içan baida çuen pressunetan Jesuchristoz iracatsi içan dena, [7] halaco maneraz, non ez baiduçue escas dohain garabic, Jesuchristo gure Jauna aguer daitequen beguira çaudetelaric. [8] Eta Jaincoac borthiztuco ere çaituzte azqueneraiño, hobenic gabe aurkhi çaiteztentçat Jesuchristo gure Jauna ethorrico den egunean. [9] Fidel da Jaincoa, ceiñez deithuac içan baitçarete Jesuchristo haren Seme gure Jaunaren partçunezcorat.

[10] Errequeritcen çaituztet bada, ene anayac, Jesuchristo gure Jaunaren icenean, molde berean mintça çaitezten guciac eta ez den çuen artean escatimaric, aitcitic çareten bat eguiñac gogoz eta sentimenduz. [11] Adiaraci darotate ecen Chloe baitacoec çuetaz, ene anayac, debadioac direla çuen artean; [12] erran nahi dut, çuetaric batbederac diotsala: "Ni behintçat Paulorena naiz" eta "ni Apollorena", "ni berriz Cephasena" eta "ni Jesuchristorena". [13] Parthitua othe da Jesuchristo? ala Paulo içan da gurutceficatua çuentçat? ala Pauloren icenean içan othe çarete bathayatuac? [14] Esquerrac diotçat Jaincoari, ceren ez baidut bathayatu çuetaric nihor, Crispo eta Caius baicen, [15] nihorc erran ez deçantçat ene icenean bathayatuac çaretela. [16] Bathayatu içan dut, bada, Stephanesen familia ere; gaineracoan ez dacussat bertceric nihor bathayatu othe dudan.

[17] Ceren ez bainau igorri içan Jesuchristoc bathayatcen haritcerat, baiñan bai Evangelioaren predicatcerat; eta hala ere ez hitcezco çuhurtcian, ez desseguitea

1. Lehen ere maiz agertu da *deitu* esanahiaz: ik. Apost. Eguinc. XV, 17.

gatic Jesuchristoren gurutcea. [18] Ecen gurutceaz erraten dena, galtcen direnei behintçat erhoqueria çaye; salbatcen direnentçat ordean, erran nahi da guretçat, berthutea eta indarra. [19] Hargatic ere da escribatua: "Suntsituco dut çuhurren çuhurtcia eta arbuyatuco jaquintsunen jaquintassuna". [20] Non da çuhurra? Non da legueco dotora? Non da mundu huntaco gauçac jaquin beharrez cebillana? Ez du erho eraguin Jaincoac mundu huntaco çuhurtcia? [21] Ecen munduac bere çuhurtciaz ez baidu eçagutu Jaincoa çuhurtcia divinoaren obretan; Jaincoaren placera içan da predicacionearen erhoqueriaz salbatcea sinhexten dutenac.

[22] Alabaiñan judutarrac daudez miracuillu galdez, eta gentillac berriz dabiltça çuhurtciaren bilha. [23] Guc ordean dugu predicatcen Jesuchristo gurutceficatua, judutarrei alabainan scandala, gentillei berriz erhoqueria çayoena, [24] ordean deithuac direnei, hala judutarrei nola gentillei, Christo, Jaincoaren indarra eta Jaincoaren çuhurtcia dena. [25] Ceren Jaincoa baithan erho diruriena çuhurrago baida guiçon gucien çuhurtcia baiño, eta Jaincoa baitan herbal diruriena borthitçago guiçon gucien indarra baiño. [26] Icussaçue ecen, ene anayac, cein diren çuetaric deithuac içan direnac; guti dire haraguiaren arauera çuhur direnetaric, guti botheretsu direnic, guti nobletaric. [27] Aitcitic munduaren arauera gutien çuhur direnac ditu Jaincoac hautatu çuhurren confunditcea gatic; eta munduaren arauera herbal direnac ditu bereci borthitcen direnen confunditceco. [28] Munduaren arauera bachoen eta mezpreçagarrien direnac, ezdeus ere direnac, ditu hautatu cerbeit [2] direnen desseguitea gatic. [29] Handiets ez dadin guiçon garabic haren aitciñean. [30] Bide hortaz, bada, çarete Jesuchristo baithan, ceiñ içan baida Jaincoaz ifinia, gure çuhurtcia, gure justicia, gure saindutassuna eta gure erresquetamendua içateco, [31] escribatua den beçala: "Glorificatcen den gucia, Jaincoa baitan dadin glorifica".

2. Hemen eta ondoko orrialdeetan *-beit* idatzi duela dirudi han-hemenka.

II. Cap.

[1] Ni ere ethorri içan naicenean çuen ganat, ene anayac, Jesuchristoren Evangelioa cuei iracasterat, ez naiz ethorri içan mintço ederraren edo çuhurtciaren gorapenean. [2] Ez diot ecen eman ene gogoari deussere naquiela çuen artean, baicen Jesuchristo, eta hura ere gurutceficatua. [3] Eta çuen baitan içatu naiceiño, beheratassunean, icialduran eta ikhara handitan içatu naiz. [4] Eta ez naiz baliatu içan cuei mintçatcean eta predicatcean çuhurtcia humanoaren solhas gogogarriz, bainan bai Izpiritu Sainduaren berthutearen eracustez, [5] çuen fedea içan ez dadintçat guiçonen çuhurtciaren gaiñean ifinia, baiñan bai Jaincoaren berthutearen gaiñean.

[6] Hala ere bada predicatcen dugu bai çuhurtcia perfeten artean; çuhurtcia ordean ez mundu huntacoa eta ez mundu huntaco princeèna, ceiñac suntsitcen baidire, [7] baiñan predicatcen dugu misterio bat beçala Jaincoaren çuhurtcia, ceina baida gordea, eta ceiña mende guciez aitciñetic preparatu içan baidu Jaincoac gure gloriaco, [8] ceiña mundu huntaco princeètaric batec ere ez baidu eçagutu içan; baldinetariac ecen eçagutu içan balute, ez çuqueten gloriaco Jauna gurutceficatuco. [9] Baiñan escribatua den beçala: "Beguiac icussi içan ez duena, beharriac aditu içan ez duena, guiçonari gogorat ethorri içan ez çayoena da Jaincoac hura maite dutenentçat preparatu içan duena".

[10] Guri ordean aguertu darocu hori Jaincoac bere Izpirituaz; Izpirituac ecen penetratcen ditu gauça guciac, bai Jaincoaren secretu gordeènac ere. [11] Ecen guiçonetaric ceiñec daqui guiçonaren baitan dena, baicen guiçonaren Izpirituac, haren baithan denac? Hala Jaincoa baitan dena nihorc ez daqui Jaincoaren Izpirituac baicen. [12] Bada guc ez dugu mundu huntaco Izpiritua errecibitu içan, baiñan bai Jaincoa ganicaco Izpiritua, eçagut detçaguntçat Jaincoac eguin içan darozquigun emaitçac. [13] Eta hec ditugu iracasten ez guiçonen çuhurtciac iracasten duquen hizcuntçaz, baiñan Izpirituac iracasten duenaz, guiçon izpiritualei gauça izpiritualac antolatcen diotçotegula. [14] Ordean guiçon animalac ez ditu comprenitcen Jaincoaren Izpiritutic diren gauçac, erhoqueria çaizco ecen, eta ecin compreni ere detçaque, ceren izpiritualqui examinatcen baidire. [15] Guiçon izpiritualac aitcitic jugeatcen du gauça guciez, eta bera nihorc ez du jugeatcen. [16] Ecen norc eçagutcen du Jaunaren gogoa hari conseillu emateco? Guc ordean Jesuchristoren Izpiritua duquegu.

III. Cap.

[1] Ni ere, ene anayac, ecin mintçatu natçaitçue guiçon izpiritual batçuei beçala, bainan bai guiçon haraguicor batçuei beçala, Jesuchristo baitan oraiño haur diren batçuei beçala. [2] Eznez haci içan çaituztet, ez jaquiz, ez baitçiñeten gai oraiño; eta oraico orenean ere ez çarete gai, ceren haraguicor baitçarete oraiño. [3] Ecen targoac eta jelosiac direnaz gueroz çuen artean, ez çarete bada haraguicoyac eta ez çabiltçate guiçonaren arauera? [4] Batac erraten duenean: "Ni behintçat Paulorena naiz"; bertceac berriz" Ni Apollorena", ez çarete bada haraguicoyac? Cer da bada Apollo eta cer da Paulo?

[5] Haiñaren cerbitçariac, ceiñaren baithan baiduçue sinhetxi, eta batbedera Jaunac partitu dioquen dohaiñaren arauera. [6] Nic landadu [3] duquet, Apolloc ihinztatu; ordean Jaincoa da berretcea eman duena. [7] Hala landatcen duena ez da deus, ez eta ihinztatcen hari dena ere; baiñan berregunea ematen duen Jaincoa da gucia. [8] Landatcen hari dena, bada, eta ihinztatcen hari dena bat dire eta batbederac errecibituco du bere saria bere lanaren arauera. [9] Ecen Jaincoarequien lanean hari garenac gare; çuec berriz çarete Jaincoaren landa eta Jaincoaren edificioa.

[10] Jaincoac eman içan darotan graciaren arauera naussi çuhur batec beçala eçarri içan dut nic cimendua; bertce bat haren gaiñean bastitcen hari da; baiñan batbederac beguira beça nola bastitcen duen cimendu horren gaiñean. [11] Bertce cimenduric ecen nihorc ecin eçar deçaque, ja eçarria denaz bertceric, ceiña baida Jesuchristo. [12] Baldinetariac nihorc cimendu horren gaiñean bastitceco ematen badu urre, cilhar, harri preciatu, çur, belhar, lasto, batbederaren obra [13] agueri içanen da; Jaunaren egunac ecen emanen du aguerian. Ceren suac agueraracico baidu eta batbederaren obra nolacoa den suac frogatuco baidu. [14] Haren gaiñean bastitu duquen cembaiten obrac irauten badu, saria errecibituco du. [15] Bertce baten obra erretcen bada, caltea içanen du; bera bada hala ere salbatuco da; ordean su artetic beçala.

[16] Ez daquiçue Jaincoaren templua çaretela eta Jaincoaren Izpiritua çuen baitan egoten dela? [17] Bada nihorc Jaincoaren templua profanatcen badu, suntsituco du Jaincoac haiña; Jaincoaren templua ecen saindua da eta çuec çarete templu hura.

[18] Nihorc ez beça bere burua engana; baldinetariac çuen arteco norbeiti iduritcen baçayo çuhurra dela munduaren arauera, eguin bedi erho, çuhur içateco.

3. *Landatu* behar du noski.

[19] Mundu huntaco çuhurtcia ecen erhoqueria da Jaincoaren aitciñean, escribatua den beçala: "Atcemanen ditut çuhurrac bere finecian berean". [20] Eta bertce lekhu batean: "Jaunac eçagutcen bide ditu çuhurren gogoetac cein diren banoac". [21] Hala nihorc ez beça eman bere gloria guiçonetan. [22] Guciac ecen çuenac dire. Nahiz Paulo nahiz Apollo, nahiz Cephaz nahiz mundua, nahiz bicitcea nahiz heriotcea, nahiz presentecoac nahiz ethorquiçunecoac, guciac dire çuentçat. [23] Çuec berriz çarete Jesuchristoren eta Jesuchristo da Jaincoarena.

IV. Cap.

[1] Beha bequigu guri Jesuchristoren ministroei beçala eta Jaincoaren misterioen dispentsariei beçala. [2] Orai hemen dispensarietaric galdetcen dena da bakhoitcha leyal aurkhi dadin. [3] Nic behintçat antsia guti dut juya naçaçuen çuec edo ceinnahi guiçonec, baiñan ez dut neronec ere neure burua jugeatcen. [4] Ecen neure concientciac deussere erantçuten ez darotan arren, ez naiteque hargatic justificatua. Baiñan ni jugeatcen nauena Jaincoa diteque. [5] Hala ez deçaçuela jugea dembora gabe Jauna dathorren artean, ceiñec arguitarat eman [4] baiditu ilhunbean daudecen gauçac eta agueraracico bihotcetaco secretu gordeac; eta orduan batbederac içanen duque Jaincoa ganic dagocon laudorioa.

[6] Gauça hauc bada, ene anayac, proposatu izan ditut neure icenean eta Apollorenean çuen gatic; gure baithan ikhas deçaçuentçat ez altchatcen bata bertcearen contra edoceiñen ariaz nic escribatu darotçuedanaz guehiago. [7] Norc çaitu ecen berezcotcen? Cer duçu berdin errecibitu içan ez duçunic? Baldinetariac bada errecibitu içan baduçu, ceri handitcen çaizco errecibitu içan ez bacindu beçala? [8] Ja asseac çarete, ja aberastuac çarete; gu gabe erreguiñatcen duçue eta ochala erreguiñatcen bacindute guc ere çuequien batean erreguiña deçaguntçat. [9] Uste dut ecen Jaincoac gu Apostoluetaric azquenecoac mustratçat eman gaituela, heriotcerat destinaturicaco jende batçu beçala; halaz eta [5] icuscari eguin gaiztenaz gueroz munduari eta aingueruei eta guiçonei. [10] Gu erhoac gare Jesuchristoren amorea gatic; çuec ordean çuhurrac çarete Jesuchristo baithan; gu flacoac gare, çuec ordean indartsuac; çuec ohoratuac çarete, gu ordean mespreçatuac. [11] Oraico oreneraiñocoan gossearequien eta egarriarequien diharducagu, bulhuciac gare, cehatcen gaituzte eta ez dugu ere egoitça soseguzcoric. [12] Lanean eta trabailluan hari gare guere escu propioez; madaricatcen gaituzte eta guc hec benedicatcen ditugu; persecutatuac garabiltçate eta pairatcen dugu; [13] ahacarrez bethetcen gaituzte eta othoitcetan gaudez; orai arteraiñocoan munduco liçunqueriac beçala gaduzcate eta gucietaric arthiquitcen diren fits ondarrac beçala.

[14] Ez ditut çuec ahalcaracitcea gatic hauc escribatcen; aitcitic ene haur maiteei beçala ematen darozquitçuedan abisuac ditezque. [15] Ecen hamar milla naussi bacintuzte ere Jesuchristo baithan, ez duçue ordean aita hainitcic, Jesuchristo baithan nic Evangelioaz genderatu çaituztedanaz gueroz. [16] Othoitz eguiten daro-

4. *Emanen* behar zuen idatzi, Vulgatari (illuminabit) eta ondoko *agueraracico*-ri begiratuz.
5. Kausala: ik. Rom. I, 19.

tçuet, beraz, çareten ene imitatçaille, ni ere Jesuchristoren naicen beçala. [17] Hargatic igorri darotçuet Timotheo, ene haur maitea eta Jauna baithan leyal dena, segur orhoitaraz çaitçatentçat cer maneraz bici naicen Jesuchristo baithan, Eliça gucietan iracasten dudanaren arauera.

[18] Hauntuac omen dire cembait, çuen ganat ethorri behar ez banintz beçala. [19] Ethorrico naiz ordean, eta lauster, Jaunac nahi badu, eta icussico dut cer diren hauntu hequien ez hitçac, baiñan eguincariac. [20] Ez dago ecen Jaincoaren erresuma hitcetan, baiñan bai eguinetan. [21] Cein [6] nahi duçue? ala ethor naquiçuen cigorra escuan, ala caritatearequien eta eztitassunezco izpirituarequien?

6. Hala dio, baina *Cer* behar du, agian. *Quid vultis*?, dio Vulgatak.

V. Cap.

[1] Segurtçat erraten da badirela çuen artean lohiqueriac, eta halaco lohiqueriac, non gentillen artean ere ez baida icusten halacoric; hartarainocoan bai, non cembeit baida bere aitaren emastea daducanic. [2] Eta hala ere hantuac çarete orguilleriaz, damu eta dolore içan behar bidean çuen artetic khentcecotçat accione hori eguin duena. [3] Nic behintçat gorphutcez hor ez naicen arren, izpirituz ordean hor bainaiz, ja hor banintz beçala eman dut jugeamendu hau accione hori eguin duenaren contra: [4] Jesuchristo gure Jaunaren icenean bilduric çuec eta ene izpiritua Jesuchristo gure Jaunaren botherez, [5] içan dadin haiña hura Satani libratua suntsiarazteco haren haraguia, arima salbatua içan dadin gatic Jesuchristo gure Jaunaren egunean.

[6] Ez dagotçue ungui glorificatcea. Ez daquiçue levami guti batec gaixtatcen duela orhe gucia? [7] Khen çaçue levami çaharra içan çaiteztentçat orhe berri bat, levami gabeco ogui garbiac çareten beçala; ecen gure Bazcoa Jesuchristo da, immolatua içan dena. [8] Hargatic, bada, eguigun gure banqueta ez levami çaharrarequien eta ez maleciaren eta gaixtaqueriaren altchagarriarequien, bainan bai sinserotassunaren eta eguiaren ogui levami gabecoequien.

[9] Escribatu içan darotçuet guthun batean ez çaiteztela balsa presuna lohiequien. [10] Ez dut ordean hori erran mundu huntan diren lohien ariaz edo abariciosen edo bertceren ontassunen arrapatçailleèn edo idolatreèn ariaz; bertcela ilkhi behar içanen cinduqueten mundu huntaric. [11] Bainan nic escribatu darotçuedana da, baldinetariac gure anaya daritçenetaric cembeit lohi bada edo abaricios edo idolatre edo gaixqui erraille edo hordi edo arrapari, halacoequien ez deçaçuela jan ere. [12] Certaco dut ecen nic campoan direnez jugeatcea? Barneco direnez ez duçue çuec jugeatcen? [13] Campoan direnac Jaincoac jugeatuco ditu. Çuec khen çaçue gaitxto hura çuen artetic.

VI. Cap.

[1] Hauçu da çuetaric cembeit, eguiteco duenean bertce baten contra, haucitan haritcerat gaixtaguinen aitcinean, eta ez sainduen aitcinean? [2] Ala ez daquiçue sainduec jugeatuco dutela mundu hau? Eta baldin çuetaz jugeatua içan beharra bada mundua, ez çarete gay gauçaric chumeènez jugeatceco? [3] Ez daquiçue aingueruac ere jugeatuco ditugula? Cembatez arego [7] munducc eguitecoac?

[4] Baldinetariac, beraz, munduco eguitecoen gaiñean hauci baduçue, har çatçue jugetçat Eliçan diren presunaric mendreènac. [5] Çuen ahalquerietan hau erraten dut. Ez da, bada, çuen artean nihor asqui çuhur eta gay denic bere anayen artean juge içateco? [6] Baiñan anaya anayaren contra hari dadin haucitan, eta are infidelen aitciñean? [7] Ja bekhatu bat da çuentçat hauciac içatea elkharen artean. Cergatic ez duçue lehenago pairatcen eguiten çaitçuen bidegabea? Cergatic ez duçue lehenago soffritcen enganatuac içatea? [8] Aitcitic cebonec eguiten dioçue bidegabe eta tromperia, eta are anayei. [9] Ala ez daquiçue injusticia eguiten dutenac ez direla Jaincoaren Erresumaren jabe içanen? Ez çaiteztela engana: ez lohiac, ez idolacoyac, ez adulteroac, [10] ez guriqueriari, eta ez Sodomaco bekhatuari emanac direnac, ez ohoiñac, ez abariciosac, ez hordiac, ez gaixqui errailleac, ez arrapatçailleac, ez dire içanen Jaincoaren Erresumaren jabe. [11] Eta horlacoac içatu ohi çarete ere batçu; baiñan garbituac içan çarete, santificatuac içan çarete, justificatuac içan çarete Jesuchristo gure Jaunaren icenean eta gure Jaincoaren Izpirituaz.

[12] Guciac cilhegui çaizquit, ordean ez dire guciac beharqui; guciac cilhegui çaizquit, baiñan ni ez naiz deussen ere menean jarrico. [13] Jatecoac sabelarentçat, eta sabela jatecoentçat; baiñan Jaincoac bai hauc eta bai hec desseguiñen ditu; gorphutça ordean ez da lohiqueriarentçat, bainan da Jaunarentçat eta Jauna gorphutçarentçat. [14] Bada Jaincoac Jauna biztu içan duen beçala, gu ere biztuco gaitu bere bothereaz.

[15] Ez daquiçue çuen gorphutçac Jesuchristoren membroac direla? Idequiric bada Jesuchristori bere miembroac, emastequi galdu baten miembro eguiñen ditut? Balimba ez. [16] Ala ez daquiçue emastequi galdu bati datcheicona gorphutz bat eguiten dela harequien? Ecen errana da: "Biac haragui bat içanen dire". [17] Ordean Jaincoari datcheicona izpiritu bat eta bera da harequien. [18] Eguioçue ihes lohiqueriari. Cein nahi bertce bekhatu guiçonac eguin deçan, gorphutcetic campoan daiteque; lohiqueria eguiten duenac ordean bere gorphutçaren contra eguiten

7. *Areago* behar luke agian.

du bekhatu. [19] Ala ez daquiçue çuen gorphutça Izpiritu Sainduaren templua dela, ceiña çuen baithan egoten baida, ceiña baiduçue Jaincoa ganic, eta ez çaretela cebenac? [20] Erossiac çarete ecen precio handi batean. Glorifica çaçue, beraz, Jaincoa eta erabillaçue çuen gorphutcean.

VII. Cap.

[1] Çuec escribatu içan darozquidatçuen gaucez denaz beçambatean, on da guiçonarentçat emasteric ez uquitcea. [2] Bainan lohiqueriaren beldurrez senhar bakhoitcha bici bedi bere emaztearequien, eta emaste bakhoitcha bere senharrarequien. [3] Senharrac emasteari bihur bihoça[8] çor dioena; hala hala berriz emasteac ere senharrari. [4] Emasteac bere gorphutça ez du bere escuco, baiñan bai senharrareneco; orobat berriz senharrac ere ez du bere gorphutça bere escuco, bainan bai emastearencco. [5] Ez dioçaçuela ukha elkharri çor dioçuena, non ez den acort eta acort[9] eta dembora batetacotz othoitcean egoteco; ondoan berriz bici çaitezte ohi nola, beldurrez Satanec tenta ez çaitçaten, çuen incontinentciaz atiça harturic. [6] Hau ordean erraten darotçuet barkhamenduz beçala, ez manuz. [7] Nahi nuque ecen çuec guciac içan cintezten ni neroni beçala: baiñan batbederac bere donua duque Jaincoa ganic heldu çayoena: batec hunela, bertceac berriz hala. [8] Diotsotet, bada, ezconduac ez direnei eta alhargunei on dela hequientçat bere statuan egon daitecen, ni ere nagoen beçala. [9] Ecin badaudez continentcian, ezcon beitez; hobeago da ecen ezcontcea ecen ez erretcea. [10] Ezconduac direnei berriz ordenatcen diotedana, ez nic baiñan Jaunac, da, emastea ez dadin bere senharra ganic aldara. [11] Baldinetariac aldaratcen bada, dagoela ezcondu gabe, edo baque dadillala bere senharrarequien; eta senharrac ere ez deçala utz bere emastea.

[12] Ecen bertceèi nic diotet erraten, ez Jaunac: Baldinetariac gure anayetaric cembeit ezcondua bada emaste pagano batequien eta hunec gogo badu harequien egoteco, ez deçala utz emaztea. [13] Eta baldin emazte guiristino cembeit ezcondua bada guiristino ez den guiçon batequien eta hunec gogo badu harequien egoteco, ez deçala utz senharra. [14] Santificatua da ecen senhar fedea ez duena emaste fedea duenaz, eta santificatua da emaste fedegabea senhar fedea duenaz; bertcela çuen haurrac lohiac litezque, orai ordean saindu dire. [15] Baldinetariac fedea ez duena partitcen bada, dohala, ecen gure anaya edo arreba ez dire bahituac horlaco ordutan; aitcitic baquezco estatu batetarat deithu içan gaitu Jaincoac. [16] Cer daquiçu ecen, emastea, ez othe duçun salbatuco çure senharra; edo çuc, senharra, cer daquiçu ez othe duçun çure emastea salbatuco?

8. Horrela idatzi du, baina adizki horrek *h*-rik ez du: ik. Mt. XVI, 24; Lc. IX, 23.
9. Bi bider idatzi du beharrik gabe eta *-d* ala *-t* idatzi, dudan egon da.

[17] Baiñan batbederac eguin beça Jaincoa ganic içan duen dohainaren arauera eta Jaincoaz deithua içan den arauera: eta hori da nic Eliça gucietan iracasten dudana. [18] Circoncidatua cen guiçon bat deithua içan denean, ez beça khen circoncisionearen seiñalea; circoncidatua içan gabe deithua içan bada bertce bat, ez beçate circoncidaraz. [19] Circoncidatua içatea ez da deussetaco eta circoncidatua ez içatea ez da deussetaco; bainan gucia Jaincoaren manamenduen beguiratcean dago. [20] Batbedera cer ere estatutan içan baida deithua, eta bego hartan. [21] Esclabo ciñen deithua içan çarenean? Ez darotçula horrec penaric, baiñan baldin are libertatea ardietx ahal badeçaçu, hambat hobe; balia çaite. [22] Ecen esclabo dela Jaunaz deithua dena, Jaunaren libertateco eguiten da; orobat libro dela deithua dena, Jesuchristoren esclabo eguiten da. [23] Garastia erossiac çarete; ez çaiteztela eguin guiçonen esclabo. [24] Batbedera cer ere estatutan içan baida deithua, ene anayac, eta bego hartan Jaincoaren aitcinean.

[25] Virginez denaz beçambatean Jaunaren manuric ez dut; baiñan huna nic ematen daroedan conseillua, Jaunaren cerbitçari fidel naicen beçala berac eguin içan darotan misericordiaz. [26] Uste dut, bada, on dela hori bicitce huntaco beharquiçun nekhagarrien gatic ere; diot, on dela guiçonarentçat ez ezcontcea. [27] Amarratua çare emaste batequien? Ez çabiltçala libratu nahiz. Emazte gabe çare? Ez çabiltçala emastequietan. [28] Baldinetariac emastea hartu baduçu, ez duçu hortan bekhatu eguin. Eta baldin ezcontcen bada nescatcha bat, ez du hortan bekhaturic eguiten; ordean haraguiaren nekheac içanen dituzte haina hec. Nic behintçat guphida çaituztet horren gaiñean.

[29] Hauche da bada, ene anayac, nic çuei errateco dudana: dembora labur da, eta hala emasteac dituztenac ere, içan beitez ez balute beçala; [30] eta nigarrez daudecenac, nigar eguiten ez balute beçala; aleguera direnac, aleguera ez balire beçala; erosten hari direnac, deussen jabe ez balire beçala; [31] mundu huntaco gaucez baliatcen direnac, baliatcen ez balire beçala; iragaitcean doha ecen mundu hunen figura. [32] Nic nahi nuquena da ordean çuec grina gabe içan çaitezten. Emasteric ez duenac bere artha gucia Jaunaren gaucetaco du eta Jaincoaren gogaraco içateco. [33] Emastea duenac ordean bere arthac munduco gaucetaco ditu eta gauçac bere emastearen gogara eguiteco; eta hala partitua da. [34] Halaber ezcondua ez den emastequiac eta virginac gogoa Jaunaren gaucetan du, sainda içateco gorphutcez eta izpirituz; aitcitic ezcondua denac gogoa munduco gaucetan du eta senharraren gogara eguin nahian. [35] Bada hau çuen probetchutan erraten darotçuet, ez sarea çuei etchatu nahiz, bainan bai choilqui çuec erakharri nahiz çuentçat hoberen denerat eta çuen othoitçac Jaincoari trabaric gabe eguiteco estatuan eman ahal çaitçaquetenerat.

[36] Baldin nihori dessohore baçayo haren alabac adiñac iragatea ezcondu gabe eta hala behar bada, eguin beça nahi duena; ez du bekhatu eguinen ezcontcen bada. [37] Ecen nihorc mengoaric içan gabe eta nahi duena eguin ahal deçaquela, deliberatcen badu cinqui bere bihotcean eta jugeatcen badu bere baithan bere alaba virgina iduqui behar duela, ungui eguiten du. [38] Orobat bere alaba ezcon-

tcen duenac ere ungui eguiten du eta ezcontcen ez duenac are hobequi eguiten du.

[39] Emastea amarratua da ezcontçaren legueaz haren senharra bici deiño; bainan hiltcen bada haren senharra, libro da; ezcon bedi nahi duenarequien, solamente eguin bedi Jaunaren arauera. [40] Dohatsuago ordean içanen da alhargun egoten bada, nic conseillatcen diodan beçala; uste dut, bada, nic ere Jaincoaren Izpiritua dudala.

VIII. Cap.

[1] Idolei sacrificatcen çaizten gaucez denaz beçambatean, badaquigu equi gutaric nihorc ez duela ignoratcen horren gaiñean jaquiteco dena. Ordean jaquiteac hauntcen [10] du nihor; charitateac du berriz edificatcen. [2] Baldiñetariac, bada, edoceinec uste badu cerbeit badaquiela, ez du oraiño eçagutcen nola behar duen jaquin ere. [3] Baiñan norbeitec maite badu Jaincoa, haiña eçagutua da Jaincoaz. [4] Idolei sacrificatuac diren gaucetaric jateaz denaz beçambatean, badaquigu deussere ez dela idola munduan, eta ez dela bertce jaincoric Jainco bakhar bat baicen. [5] Ecen diren arren jainco deitcen direnac nahiz ceruan eta nahiz lurrean (balire beçala hainitz jainco eta hainitz jaun), [6] guretçat ordean ez da Jainco bakhar bat baicen; hura da Aita, ceiña ganic baidire gauça guciac eta ceiñarentçat baigare gu ere. Eta ez da Jaun bakhar bat baicen; hura da Jesuchristo, ceiñez baidire gauça guciac eta hartaz gare gu ere.

[7] Ordean guciec ez daquite hori; badire ecen cembeit, ceiñec uste dutelaric oraiño bere conscientcian idola cerbeit dela, jaten baidute idolei offrendatuac içan diren jaquitatic; eta hequien conscientcia flacoa içanez, hidoyztatcen da hortaz. [8] Jateac ez gaitu Jaincoaren gogaraco eguiten, ecen jaten badugu ez gare içanicago [11] içanen, eta jaten ez badugu ez gare deussetan gutituco. [9] Beguirautçue ordean çuen libertate horrec escandalisa ez detçan flacoac.

[10] Baldiñetariac hetaric cembeitec icusten badu jaquintassun guehiago duen bat idolateguian mahaiñean jarria, bere conscientciac, ceren duen flacoa, ez du bada ekharrico idolaquitaric jaterat? [11] Eta çure jaquintassunac galaracico baidu anaya flaco hura, ceiña gatic Jesuchristo hil içan baida? [12] Bada horla bekhatu eguiteaz çuen anayen contra eta hequien conscientcia flacoa çaurtceaz [12], Jesuchristoren contra eguiten duçue bekhatu. [13] Hargatic beraz, baldinetariac nic jaten dudanac scandalisatcen badu ene anaya, ez dut janen haraguiric seculerenean, ene anaya ez scandalisatcea gatic.

10. *Haunditzen* alegia, hemen eta bestetan; *goratzen, ilarraintzen, harrotzen.*
11. *-vago* dirudite azken lau letrek, baina ez; *içanicago*, hots *gehiago izanik, aberatsago.*
12. *Zauritzeaz*, alegia.

IX. Cap.

[1] Ez naiz ni libro? Ez naiz Apostolu? Ez dut Jesuchristo gure Jauna icussi? Ene obra ez çarete çuec Jauna baithan? [2] Eta bertceentçat Apostolu ez banaiz ere, bederen çuentçat banaiz, ecen ene apostolutassunaren ciguillua çuec çarete Jauna baithan. [3] Hori da ene errepusta, deussetan behartcen nautenei eguiten daroedana: [4] Ala ez dugu çucen, jateco eta edateco? [5] Ala ez dugu çucen gure arrebetaric bat gurequien erabiltceco, bertce Apostoluec, Jaunaren anayec, eta Cephasec beçaiñ ungui? [6] Ala Barnabe eta ni gare bakharrac hori eguiteco bothe-rea ez dugunac? [7] Norc guerla eguiten du bere despendioz behinere? Norc lan-datcen du mahasti bat eta ez du jaten hango fruitutaric? Norc bazcatcen du arthalde bat eta ez du jaten haren esnetic?

[8] Nasqui guiçonaren arauez hauc erraten baiditut? ala legueac ere ez ditu gauça berac erraten? [9] Escribatua da ecen Moiseren leguean: "Ez dioçu ahoa estecatuco bihitcen hari den idiari". Nasqui idiez baidu griña Jaincoac? [10] Ala guretçat othe du hobequi hori erraten? Alabaiñan guretçat escribatua da hori, halaz eta [13] laborantçan hari dena esparantçarequien hari denaz gueroztic lurreco fruitue-tan parte içateco; eta ogui jotcen hari dena ere bai, hartan parte içateco.

[11] Çuen baithan gauça izpiritualac erein ditugun ondoan, hain da gauça handia çuen ontassun temporaletaric guc cerbeit biltcen badugu? [12] Baldin ber-tceac baliatcen badire çucen hortaz çuen alderat, cergatic gu aitcitic ez gare baliatuco? Bizquitartean ez gare baliatu bothere hortaz; aitcitic guciac jassaten ditugu Jesuchristoren Evangelioari trabaric batere ez ematea gatic. [13] Ez daquiçue templuaren cerbitçuan hari direnac templuco diren gaucetaric bici direla? Eta aldarea cerbitçatcen dutenec parte badutela aldareco offrendetan? [14] Orobat orde-natu içan daroe Jaunac ere Evangelioa predicatcen dutenei: bici daitecen Evangeliotic.

[15] Halaric ere ni ez naiz baliatu içan çucen horietaz; eta ez darozquitçuetet hauc escribatcen, horla eguin deçaçuen gatic ene alderat; nahiago nuque ecen hill, ecen ez nihorc eraman dieçadan gloria hori. [16] Ecen baldin predicatcen badut Evangelioa, ez dut ceren gloriatu; eguin beharrez eguiten baidut; çorigaitz legoque ecen enetçat Evangelioa predicatcen ez banu. [17] Baldinetariac ecen gogo onez eguiten badut, saria içanen dut; baldin ordean gogoaren bortcha [14] eguiten badut, fidatu içan çaitana ematea choilqui dut eguiten. [18] Certan dut, beraz, saria içateco

13. Kausala: ik. Rom. I, 19.
14. Agian *bortchaz* behar du; Vulgatak "invitus" dio.

burupea? Evangelioa predicatcean eta nihori deussic gosta gabe predicatcean, abusa ez deçadantçat Evangelioaren predicatcean dudan bothereaz.

[19] Ecen libro nintcelaric, gucien alderat gucien cerbitçari eguin naiz, jende guehiago irabaztea gatic. [20] Eguin içan natçaye judutarrei judutar beçala, judutarrac irabaztea gatic; [21] leguearen azpico direnei, leguearen azpian içan banintz beçala, leguearen azpian guehiago ez nintcen arren, leguearen azpian cirenac irabaztea gatic; legue gabe cirenei, legue gabe içan banintz beçala, Jaincoaren leguea dudan arren (Jesuchristoren leguea dudanaz gueroz), legue gabe cirenac irabaztea gatic. [22] Eguin içan naiz flacoequien flaco, flacoac irabaztea gatic; guciei gucietaco içan natçaye, guciac salbatcea gatic. [23] Horiec guciac ordean eguiten ditut Evangelioa gatic, hartan parte içatea gatic.

[24] Ez daquiçue carrera batean lausterca hari direnac, guciac dohacela lausterca, ordean batec duela eramaten golardoa? Eguiçue hain lauster, non golardoa atceman baideçaqueçue. [25] Bada borrocan garaitcerat lehiatcen dena gucietaric debecatcen da; eta hec alabaiñan hori eguiten dute khoroa ustelcor bat atcematea gatic; guc ordean ustel ez daitequen bat dugu iguriquitcen. [26] Nic behintçat lauster eguiten dut, ez nola ez daquidala; guducatcen naiz, ez aireari jaçartcen banio beçala, [27] bainan gastigatcen dut ene gorphutça eta gathibutassunean eçartcen, beldurrez ecen, bertceei predicatu ondoan, neroni erreprobatua ediren ez nadin.

X. Cap.

[1] Nahi dut, bada, daquiçuen, ene anayac, gure aitac içan direla guciac hedoyaren azpian eta guciec Itsasso Gorria iragan içan dutela, [2] guciac Moiseren guidaren azpian bathayatuac içan direla hedoyean eta itsassoan, [3] guciec jan içan dutela jaqui izpiritual beretic, [4] eta guciec edan içan dutela edari izpiritual beretic; edan çuten ecen hei çarraicoten harri izpiritualaren uretic; eta harri hura cen Jesuchristo. [5] Bainan nombre handi hartaric gutiac ciren Jaincoaren gogaraco cirenac; halaber suntsituac içan ere ciren desertuan.

[6] Bada gauça horiec figura batçu içan dire guri behatcen çaizquigun gaucenac, guticia ez gaitecentçat gauça gaixtoez, hec guticiatu içan ciren beçala. [7] Hala ez çaiteztela eguin idolacoi, hetaric cembeit eguin içan ciren beçala; ceinez escribatua baida: "Jarri cen populua jaten eta edaten, jaiqui ciren guero dostetarat". [8] Ez deçagula eguin lohiqueriaric, hetaric cembeitec eguin içan çuten beçala eta hill içan baitciren egun batez hogoi eta hirur milla. [9] Ez deçagula tenta Jesuchristo, hetaric cembeitec tentatu içan çuten beçala, eta suguez hillac içan baitciren.

[10] Ez deçaçuela eras, hetaric cembaitec erassi içan çuten beçala, eta suntsiaraci baitcituen Aingueru Exterminatçailleac. [11] Horiec guciac, bada, figuretan guerthatcen citçaizten hei eta dire escribatuac gure eracutspenetan, ceiñac aurkhitcen baigare demboren akhabantçan. [12] Hala bada uste duenac tiesso dagoela, beguira duela eror ez dadin. [13] Tentacioneric orainocoan ez duçue içatu, guiçoncaracoric baicen; bada fidel da Jaincoa eta ez du permetituco içan çaiztezten [15] tentatuac çuen indarrez gorago; aitcitic atheraracico ere darotçue tentacionetic probetchu, iraun ahal deçaqueçuentçat.

[14] Hargatic bada, ene maiteac, eguioçue ihes idolatriari. [15] Jende prudentei beçala mintço natçaitçue; jugea çaçue cebonec erraten dudanaz. [16] Benedicionezco calixa guc benedicatcen duguna, ez da Jesuchristoren odolaren partçunezcoa? Eta guc hausten dugun oguia, ez da Jaunaren gorphutçaren partçunezcoa? [17] Hala hainitz garelaric, ogui bat eta gorphutz bat gare, ogui berean partçuner garen guciac. [18] Icussaçue Israel haraguiaren araueracoa, hea victimac jaten dituzten guciac ez diren parçuner aldarecoetan. [19] Cer diot, beraz? Idolei sacrificatua içan çayena cerbeit dela edo idola cerbeit dela? [20] Aitcitic, gentillec offrendatcen dituztenac deabruei diotçate offrendatcen eta ez Jaincoari; eta ez dut nahi deabruequien

15. *Çaitezten* dio bestetan: ik. beheraxeago XI, 17.

parçunezcoric duçuen. Ecin deçaqueçueque [16] Jaunaren calixetic eta deabruaren calixetic. [21] Ecin duqueçue parteric Jaunaren mahaiñean eta deabruen mahaiñean. [22] Ala jelosia eman nahi diogu Jaunari? Nasqui borthitzago baitgare hura baiño? Guciac cilhegui çaizquit, ordean guciac ez dire conbeni.

[23] Guciac cilhegui çaizquit, ordean guciec ez dute edificatcen. [24] Nihorc ez beça bilha beretçat on çayoena, baiñan bai bertceèntçat on dena. [25] Carnacerian saltcen diren gucietaric jan çaçue deussez ere galdeguin gabe, conscientcia gatic. [26] Jaunarena da lurra eta bai lurrac dagocan gucia. [27] Baldinetaric [17] infideletaric cembeitec gombidatcen baçaituzte eta nahi baduçue goan, aitcinean ematen çaitçuen gucietaric jan çaçue, deussez ere galdeguin gabe conscientcia gatic. [28] Baldin ordean nihorc erraten badarotçue: "Hau idolei offrendatua içatua da"; ez deçaçuela jan abisatu içan çaituztena gatic eta conscientciagatic. [29] Conscientcia diot ordean, ez çuena, baiñan bertcearena gatic. Cergatic ecen ene libertatea condenaracico dut bertceren conscientciaz? [30] Baldinetariac nic jaten badut esquerrac bihurtcen ditudalaric, cergatic behar dut nitaz gaixqui mintçaraci gauça baten gatic, ceiñetaz esquerrac baiditut bihurtcen?

[31] Nahiz, beraz, jan deçaçuen nahiz edan deçaçuen edo cernahi gauça bertce eguin deçaçuen, guciac Jaincoaren gloriaco eguitcitçue. [32] Ez dioçoçuela eman escandalisatceco bideric, ez juduei, ez gentillei, ez eta Jaincoaren Eliçari, [33] ni ere gauça gucietan gucien gogaraco içaterat entseyatcen naicen beçala, ez bilhatuz neuretçat on çaitana, bainan bai hainitcen probetchuco dena, hec salba daitecentçat.

16. Hemen *edan* idaztea ahaztu bide zaio, batetik; *deçaqueçueque* horrek azken *-que* sobera duela dirudi, bestetik: ik. Mt. XX, 22.

17. Hala dio, ez *baldinetariac* gehienetan bezala.

XI. Cap.

[1] Çareten ene imitatçaille, ni ere Jesuchristoren imitatçaille naicen beçala. [2] Laudatcen çaituztet bada, ene anayac, ceren gauça gucietan nitaz orhoit çareten eta atchiquitcen ditutçuen nic emanicaco erreguelamenduac, utci darozquitçuedan beçalatsu. [3] Nahi dut, bada, jaquin deçaçuen guiçon guciec dutela Jesuchristo buruçagui, emasteac duela berriz guiçona buruçagui eta Jesuchristoc duela Jaincoa buruçagui. [4] Guiçon burua estaliric othoitz eguiten edo profetatcen duen guciac dessohoratcen du bere burua. [5] Berriz emaste burua estalia içan gabe othoitz eguiten edo profetatcen duen guciac dessohoratcen du bere burua, ecen murritztua balitz beçala da. [6] Ecen baldin estaltcen ez bada emastequia, motz bequio illea. Baldin ordean itsussi bada emastequi batentçat illeac moichtuac edo murritztuac içatea, estal beça bere burua.

[7] Guiçonac alabaiñan ez du estali behar bere burua, ceren Jaincoaren imagina eta gloria baida; emastea ordean guiçonaren gloria da. [8] Ecen guiçona ez da emastea ganic atheratua, baiñan bai emastea guiçona ganic. [9] Halaber ez da creatua içan guiçona emastea gatic, baiñan bai emastea guiçona gatic. [10] Hargatic behar du emasteac ekharri aingueruen gatic ere bere buruaren gaiñean seiñalea, guiçonaren botherearen azpico dela. [11] Guciarequien ere ez guiçona da emastea gabe, ez eta emastea guiçona gabe gure Jauna baithan. [12] Ecen emastea guiçonetic atheratua içan ohi den beçala, halaber guiçona emastea ganic sortcen da eta guciac Jaincoa ganic heldu dire.

[13] Jugea çaçue cebonec: ungui dagoca emaste bati burua estalia içan gabe Jaincoari othoitz eguitea? [14] Naturaleçac berac ere ez darotçue iracasten guiçon batentçat desohore dela ille luceac erabiltcea, [15] emaste batentçat berriz ohore dela ille luceac ekhartcea? Ceren eta illeac estalquitçat beçala eman içan baitçaizco. [16] Baldinetariac, bada, cembaitec lakhet badu iharduquitceaz, guc ez dugu horlaco costumaric, ez eta Jaincoaren Eliçac ere.

[17] Huna oraiño nic exleytcen darotçuedana, ez baidut laudatcen çuen onetan elkhar ganat bildu behar bidean, bill çaitezten çuen caltetan. [18] Lehenbicicoric, bada, Eliçarat biltcen çaretenean, aditu dut erraten escatimac direla çuen artean eta parte sinhexten ere dut. [19] Ecen halabeharra da heresiac ere içan daitecen, aguer dadintçat çuen artean cein diren prestu frogatuac.

[20] Çuec elkharganat biltcen çareten maneran, bada, ez da ordu onean Jaunaren afaria jatea; [21] batbedera ecen jartcen da bere afaritaco duenaren jaten, bertceèn beguira egon gabe; eta horla batçuc ez dute deussere jateco, bertceèc sobera

jaten duten demboran. [22] Ez ditutçue çuen etcheac han jateco eta edateco? ala mezpreçatcen duçue Jaincoaren Eliça eta nahi ditutçue ahalcaraci deussic ez dutenac? Cer erranen darotçuet? Laudatcen çaituztedala? Ez segur, hortan ez çaituztet laudatcen.

[23] Ecen nic Jauna ganic ikhassia dut çuei halaber iracatsi darotçuedana: Jesus Jaunac libratua içan behar çuen gau berean hartu çuela oguia; [24] eta esquerrac bihurturic hautsi çuela eta erran çuela: "Har çaçue eta jan çaçue; hau ene gorphutça da, çuentçat libratua içanen dena. Eguiçueque hau ene orhoitçapenetan". [25] Orobat hartu içan çuen calixa ere afaldu cen ondoan, erraten çuelaric: "Calix hau testament berria da ene odolaz. Eguiçueque hau edaten duçuen gucian ene orhoitçapenetan. [26] Ecen ogui hau janen duçuen gucian eta calix hau edanen duçuen gucian Jaunaren heriotcea duçue iracatsico dathorren artean". [27] Bada norc ere janen baidu ogui hau eta edanen baidu Jaunaren calixa indignequi, hobendun içanen da Jaunaren gorphutçaz, eta odolaz.

[28] Froga beça beraz guiçonac bere burua eta horla jan beça ogui hartaric eta edan calix hartaric, [29] ecen indignequi jaten duenac eta edaten duenac bere jugeamendua jaten eta edaten du, ez baidu berezten Jaunaren gorphutça. [30] Horrengatic dire çuen artean bainitz eri eta hagoatu, dauntça ere hillac hainitz. [31] Bada guere buruac jugea baguintça, duda gabe ez guintezque içan Jaincoaz jugeatuac. [32] Horla jugeatuac garenean ordean, Jaunac gaitu gaztigatcen mundu hunequien condenatuac içan ez gaitecentçat. [33] Bada, ene anayac, othruntça hetarat biltcen çaretenean, çaudete batçu bertceen beguira. [34] Baldin nihor gose bada jan beça bere etchean, ceben condenacionetan bill ez çaiteztentçat. Gaineraco diren gauçac nathorrenean erreguelatuco ditut.

XII. Cap.

[1] Dohain izpiritualez denaz beçambatean bada, ene anayac, ez dut nahi çaudezten behar dena jaquin gabe. [2] Orhoitcen çarete equi pagano ciñetenean idola mutuen ondoan ciñabiltçatela, nola baitciñarabilçazten [18], eta hala. [3] Declaratcen darotçuet, bada, nihorc ere Jaincoaren Izpirituz mintço denec ez dioela erraten anathema Jesusi; eta nihorc ecin derraquela, "Jesus da Jauna", non ez den inspiratua Izpiritu Sainduaz.

[4] Graciac bada differentac dire, ordean Izpiritu bera da. [5] Ministerioac differentac dire, ordean Jaun bera da. [6] Obrac differentac dire, ordean Jainco bera da guciac gucien baithan obratcen dituena. [7] Batbederari ordean ematen çaizco Izpiritu Sainduaren dohain agueri direnac Eliçaren probetchutan. [8] Batari alabaiñan ematen dio Izpiritu Sainduac çuhurtciarequien mintçatceco dohaiña; bertceari berriz ematen dio Izpiritu berac jaquintçarequien mintçatcecoa; [9] bertce bati Izpiritu berac ematen dio fedea; bertce bati Izpiritu berac ematen dio erien sendatceco gracia; [10] bertce bati miracuilluen eguiteco botherea; bertceari profeciazco dohaiña; bertceari Izpirituen eçagutça; bertceari lengoaya differentez mintçatceco dohaiña; bertceari lengoaya hequien interpretatcecoa. [11] Horiec guciac, bada, eguiten ditu Izpiritu batec eta berac, partitcen daroztelaric dohain horiec batbederari placer duen beçala.

[12] Ecen gorphutz bakhar batec miembro hainitz duen beçala, ordean gorphutceco membro guciac hainitz direlaric, hala ere gorphutz bakhar diren beçala, gauça bera da Jesuchristoz ere. [13] Alabaiñan Izpiritu beraz guciac bathayatuac gare, gorphutz bat eta bera içateco, ala judutarrac, ala jentillac, ala esclauoac, ala libroac; eta guciac Izpiritu batez eta beraz edaranac gare.

[14] Halaber gorphutça ez da miembro bakhar bat, bainan bai hainitz membro. [15] Baldin erran baleça oiñac: Nola ez bainaiz ni escua, ez naiz gorphutceco, ez othe liteque hargatic gorphutceco? [16] Eta baldin erran baleça beharriac: Nola ez bainaiz ni beguia, ez naiz gorphutceco. Ez othe liteque hargatic gorphutceco? [17] Baldinetariac gorphutz gucia begui balitz, non liteque aditcea? Baldin gucia aditce balitz, non liteque usna? [18] Baiñan eçarri içan ditu Jaincoac miembroac gorphutcean eta miembro bakhotcha nahi içan duen beçala. [19] Eta baldin guciac miembro bat eta bera balire, non liteque gorphutça? [20] Alabaiñan ordean hainitz miembro dire eta ez da gorphutz bat baicen. [21] Ecin erran dioçoque ere, bada,

18. Hona bi adizki horiek euskara batuan: *zenbiltzatela* eta *zinderabiltzaten*.

beguiac escuari: "Ez dut çure laguntçaren beharric". Ez hain guti buruac oinei: "Ez naiz çuen behar". [22] Aitcitic gorphutceco miembro flacoen diruritenac dire beharretsienac. [23] Eta are gorphutceco miembro mezpreçagarrien direla uste dugunei diotegu ohoreric guehiena eguiten; eta gutien honest direnac ditugu estaltcen artha eta honestassun guehiagorequien. [24] Honestac direnec ecen ez dute horlaco beharric, bainan Jaincoac moldatu içan du gorphutça halaco maneraz, non ohoragarri ez cenari ohore guehiago errendaracitcen baidio, [25] içan ez dadintçat escatimaric gorphutcean, aitcitic miembro guciac batac bertceaz artha içan deçatentçat. [26] Halaber baldin deussic pairatcen badu miembro batec, bertce guciec ere soffritcen dute; eta ohoratua baldin bada miembro bat, bertce guciac bozten dire harequien batean.

[27] Bada çuec çarete Jesuchristoren gorphutça eta batçu bertceèn miembroac. [28] Hargatic eçarri içan ditu Jaincoac Eliçan lehenbicicoric Apostoluac; bigarrenean profetac; hirurgarrenean doctorac; guero miracuilluen eguiteco berthutea dutenac; ondoan erien sendatceco gracia dutenac, bere anayen laguntceco dohaina dutenac; gobernatceco dohaina dutenac; lengoaya diferentez mintçatceco dohaina dutenac; hequien interpretatceco dohaina dutenac. [29] Nasqui guciac baidire Apostolu? ala guciac profeta? ala guciac dotor? [30] Nasqui guciec dituzte eguiten miracuilluac? ala guciec dute erien sendatceco gracia? ala guciac dire mintço hainitz lengoaya differentez? ala guciec dute dohaina hequien interpretatceco?

[31] Dohain horien artean lehiaric guehiena içan çaçue hoberenentçat; ordean are bide exelentago bat eracusterat nohatçue.

XIII. Cap.

[1] Baldinetariac guiçonec eta aingueruec daquizquiten lengoaya guciez mintça banendi ere, caritatea ordean ez badut, soiñu eguiten duen cobre bat edo habarrots eguiten duen cymbala bat naiteque. [2] Baldin profeciazco dohaiña banu, baneaquizqui ere misterio guciac eta jaquiteco diren guciac; baldin banu ere içan ahal daitequen fede gucia, mendiac bere lekhutic aldaratceraiñocoan, caritatea ordean ez badut, deussic ez naiz. [3] Baldin parti banetça ene ontassun guciac pobreèn hazteco eta eman baneça ere gorphutça erretcerat, caritatea ordean ez badut, horiec guciac deussere ez litçaizquit balia.

[4] Caritatea pairacor da, amultsu da, caritatea ez da bekhaiztia, ez du deussere eguiten behargaberic, ez da hauntcen [19]; [5] ez da handi nahia, ez dabilla bere intres propioen bilha, ez da hassarratcen, ez da itçalgaitzcatcen; [6] ez du atseguinic injusticiaz, atseguin du ordean eguiaren arauera denaz; [7] guciac jassaten ditu, guciac sinhexten ditu, guciez du esparantça, guciac pairatcen ditu.

[8] Caritatea ez da behiñere ahitcen; profeciac escastuco dire, lengoayac gueldituco dire, jaquintassuna suntsituco da: [9] Ecen orai partez dugu eçagutcen eta partez dugu profetisatcen. [10] Ordean estatu perfetean içanen garenean, urmariatuco da partez baicen ez dena. [11] Haurra nintcenean, mintço nintcen haur beçala, jugeatcen nuen haur beçala, arroçoinatcen nuen haur beçala; ordean guiçon eguin naicenean, utci içan ditut haurreco maiñac. [12] Orai miraill batean beçala icusten dugu eta enigmen azpian; baiñan orduan icussico dugu caraz cara. Orai partez dut eçagutcen; baiñan orduan eçagutuco dut neroni eçagutua naicen beçala. [13] Orai bada daude hirur gauça hauc: fedea, esparantça, caritatea; hautaric handiena ordean da caritatea.

19. Ikus I Kor. VIII, 1.

XIV. Cap.

[1] Çarraizcote caritateari, bilha çatçue dohain izpiritualac, guehienic ordean profeten dohaiña. [2] Ecen lengoaya arrotcez mintço dena ez çaye guiçonei mintço, baiñan bai Jaincoari, nihorc aditcen ez duenaz gueroztic eta Izpirituz mintço denaz gueroztic gauça gordeèz. [3] Baiñan profetisatcen duena guiçonei mintço çaye hec edificatcecotz, exortatcecotz eta consolatcecotz. [4] Lengoaya arrotcez mintço denac bere burua edificatcen du; ordean profetatcen duenac Eliça du edificatcen. [5] Nahi nuque bada guciec cinduqueten lengoayaren dohaiña, baiñan guehiago are profetatcecoa; ecen guehiagocoa da profetatcen duena ecen ez lengoaya arrotcez mintço dena, non ez duen interpretatcen berac erraten duena Eliça edificatua içan dadintçat.

[6] Orai bada, ene anayac, heldu banintçatçue lengoaya atcez mintço natçaitçuela, cer probetchutaco ninduçueque, non ez natçaitçuen mintçatcen edo errebelacionez edo jaquintçaz edo profeciaz, edo dotrinaz instruitcen [20] çaituztedalaric? [7] Alabaiñan gauça arima gabe direnec ere eta soiñu ematen dutenec, ala chirolac ala harpac, baldin tonu differentac ematen ez badituzte, nola jaquinen da cer jotcen da [21] chirolaz edo harpaz? [8] Eta baldin soiñu deussic seignalatcen ez duen bat jotcen badu claroinac, nor preparatuco da gudurat? [9] Hala çuec ere baldinetariac bertce lengoaya batez mintçatcean ez baçarete clarqui explicatcen, nola adituco dute cer erraten duçuen? Airetan mintço çarete ecen. [10] Hambat lengoaya suerte ohi da munduan eta ez da ere populuric bere lengoaya ez duenic. [11] Baldinetariac beraz ez badaquit hitcec cer erran nahi duten, barbaro içanen natçayo mintço natçayoenari, eta niri mintço çaitana barbaro içanen çait niri. [12] Hala çuec ere dohain izpiritualen guticios baitçarete, lehia çaitezte hainitz içaterat Eliçaren edificatceco.

[13] Eta aria hortaz lengoaya arrotz batez mintço denac galde beça interpretatceco dohaina. [14] Ecen baldin lengoaya arrotz batean eguiten badut ene othoitça, ene gogoac eguiten du othoitz, ordean ene Izpiritua eta adimendua fruitu gabe da. [15] Cer eguiñen dut beraz? Eguinen dut othoitz gogoz, baiñan eguinen dut ene othoitça adi daitequen beçala; cantatuco dut ahoz, baiñan cantatuco dut ene cantua adi daitequen beçala. [16] Bertcela baldinetariac gogoz hari baçare Jaincoaren benedicatcen, bere lengoaya baicen ez daquitenen arteco guiçon batec nola ihardetsico du, Amen, çure benedicionearen gaiñean, cer erraten duçun ez daquie-

20. Beste zerbaiten gainean idatzia da eta ez dago garbi hori dioen.
21. *Da* dio garbi-garbi, ez *den,* oker noski.

naz gueroz? [17] Çuc bada ungui eguiten duçu esquerrac errendatceaz, bainan bertcea ez da edificatua. [18] Esquerrac ematen diotçat ene Jaincoari, ceren [22] bainaitçaitçue guciei ceben lengoayan. [19] Baiñan nahiago dut Eliçan bortz hitz neuronec aditcen ditudanac erran, bertceac ere instruitceco, ecen ez hamar milla lengoaya atce batean.

[20] Ene anayac, ez çaiteztela içan haur adimenduzco gaucetan, baiñan içan çaitezte haur maleciazcoetan; adimenduz ordean çareten guiçon eguiñac. [21] Escribatua da leguean: "Mintçatuco natçayo populu huni bertce lengoaya batçuz eta bertce accentu batçutan eta hala ere ez naute adituco", dio Jaunac. [22] Hala lengoayen dohaiña seiñaletçat baliatceco da ez sinhexten dutenei, baiñan sinhexten ez dutenei; profeten dohaiña berriz ez da sinhexten ez dutenentçat, baiñan bai sinhexten dutenentçat. [23] Baldinetariac bada Eliça gucia bildua denean guciac mintço balire lengoaya differentez eta sar balitez ignorantac edo infidelac, ez leçaquete erran çoratu çaretela? [24] Baldin ordean guciec profetatcen badute eta sar badadi infidel bat edo ignorant bat, guciec bentçutcen dute, guciec jugeatcen dute; [25] bihotcean gordea çuena aguertcen da, eta hala ahuzpez jarriric adoratuco du Jaincoa, eta erranen du eguiazqui dela Jaincoa çuen artean.

[26] Cer da beraz çuec eguin behar duçuena, ene anayac, baldin bilduac çaretenean bata inspiratua bada Jaincoaz cantico bat moldatceco, bertcea instruitceco, bertce bat Jaincoaren secretuac aguertceco, bertce bat lengoaya arrotcez mintçatceco, bertce bat berriz interpretatceco? Guciac eguin beitez edificacionetan. [27] Nihor baldin bada lengoaya arrotz batean mintço denic, ez beitez mintça aldian bia edo guehienerat hirur baiño guehiago eta hec ere mintça beitez aldizca eta interpreta beça norbeitec hec erran duquetena. [28] Baldin ordean ez bada interpretatçailleric, bego ichillic Eliçan mintçatu gogo çuena, eta bere buruari mintça bequio eta Jaincoari. [29] Profetac berriz bia edo hirur mintça beitez aldian, eta bertceèc jugea beçate hequien erranez. [30] Baldin jarriric daudecenetaric bertce cembeiti cerbeit errebelacione heldu baçayo, ichil bedi lehen mintço cena. [31] Profeta deçaqueçue ecen guciec norc bere aldian, guciec deçatentçat ikhas eta guciac içan daitecentçat exortatuac. [32] Hala hala profeten izpirituac profeten azpico ditezque. [33] Jaincoa ecen baquezco Jainco bat da, ez escatimazcoa, eta hori da sainduen Eliça gucietan nic iracasten dudana.

[34] Emastequiac elicetan beudez ichillic, ceren ez baitçaye cilhegui mintçatcea, baiñan sumetituac egon behar baidute legueac erraten ere duen beçala. [35] Baldin cerbeit ikhassi nahi badute, galdeguin bioçate etchean bere senharrari, itsussi da ecen emaste batentçat Eliçan mintçatcea. [36] Ala çuetaric ilkhi othe da Jaincoaren hitça, ala çuen ganat choilqui heldu içan othe da? [37] Baldinetariac cembeitec uste badu profeta dela edo bertce dohain izpiritualic duela, eçagut beça nic escribatcen

22. Ez ote da hor *hari* edo *mintço* eskas? Vulgatak "loquor" dio. Gainera *bainatçaitçue* da, ala ez? Leizarragak, egia, *gaitzaitza* dio Erreginari egin eskeintzan; baina ik. beheraxeago XV, 34, eta Gal. IV, 36.

darozquitçuedanac Jaunaren meçuac direla. [38] Baldin cembeitec eçagutcen ez baditu, bera ere ez da eçagutua içanen. [39] Hala, ene anayac, lehia çaitezte içaterat profeten dohaiña, eta ez deçaçuela debeca lengoaya arrotcez mintçatcetic. [40] Ordean guciac eguin beitez bidezqui eta ordenurequien.

XV. Cap.

[1] Orhoitaraci behar çaituztet bada orai, ene anayac, predicatu içan darotçuetedan [23] Evangelioaz, ceiña errecibitu baiduçue eta ceiñetan cinez baitçaudezte, [2] ceiñetaz salbatcen ere baitçarete; icus deçaçuentçat hea orhoit çareten cer moldez predicatu içan darotçuetedan, baldin alferretan ez baduçue içan sinhetsi. [3] Iracatsi içan darotçuet ecen lehenbicicoric neronec ikhassi içan dudana, Jesuchristo hill içan dela gure bekhatuen gatic Escrituren arauera; [4] içan dela ehortcia eta biztu içan dela hirur garren egunean, Escrituren arauera halaber; [5] aguertu içan cayoela Cephasi eta ondoan hameca Apostoluei; [6] guero ondoan berriz aguertu içan çayela bortz ehun anaya baino guehiagori aldi batez, ceinetaric hainitz baidire oraiño biciac eta cembeit hillac; [7] gueroztic aguertu içan çayoela Jacoberi, ondoan berriz Apostolu guciei; [8] gucietaco azquenenic bada aguertu içan çaitala niri ere, ceiña ez bainaiz haur arthiqui bat baicen. [9] Ni naiz ecen Apostoluetaric mendreèna eta Apostolu icena mereci ere ez dudana, ceren persecutatu içan baidut Jaincoaren Eliça. [10] Jaincoaren graciaz naiz ordean naicena eta haren gracia ene baithan ez da agor içatu; aitcitic hec guciac baiño guehiago trabaillatu içan naiz; ez bada ni, baiñan Jaincoaren gracia enequien. [11] Ecen nahiz nic eta nahiz hec hori dugu predicatcen eta hori duçue ere sinhetsi.

[12] Predicatcen çaitçuenaz gueroztic, beraz, Jesuchristo biztu içan dela hilletaric, nola diote çuen artean cembeitec ez dela hillen bizteric? [13] Ecen baldinetariac hillen bizteric ez bada, Jesuchristo ere ez da biztu içan. [14] Baldinetariac berriz Jesuchristo ez bada biztu içan, alferric beraz dugu predicatcen eta alferric halaber duçue sinhexten. [15] Lekhuco falso ere gare edireten Jaincoaren alderat, ceren Jaincoaren contra errendatu baidugu lekhucotassun hau: biztu içan duela Jesuchristo, ceiña ez baiduque biztu, baldin hillac bizten ez badire. [16] Ecen baldin hillac bizten ez badire, Jesuchristo ere ez diteque biztu içan. [17] Eta baldin Jesuchristo ez bada biztu içan, alfer diteque çuen sinhextea; oraiño ecen çuen bekhatuetan çauntçate. [18] Beraz Jesuchristo baithan hill içan direnac ere galduac ditezque. [19] Baldinetariac Jesuchristo baithan dugun esparantça ez bada bicitce huntaco baicen, guiçon gucietaric dohacabeénac gu gaitezque.

23. *Darotçuedan* aski zen? Ik. I Kor. XI, 17, 23 etab. Hemen bertan hiru lerro beherago ordea *darotçuetedan* dio. Ikus ere Galat. IV, 13: *darotçuedanean* eta *darotçuedala*, eta I Jo., II, 12-13, non *darotçuetet* eta *darotçuet* nahasi ageri baitira.

[20] Bai ordean, Jesuchristo biztu içan da hilletaric eta eta[24] da hillen primecia. [21] Alabainan bada guiçon batez ethorri içan da heriotçea eta halaber guiçon batez heldu da biztea ere. [22] Eta nola guciac Adamen baithan hiltcen baidire, hala hala guciac dire biztuco Jesuchristo baithan. [23] Ordean nor bere herruncan: Jesuchristo lehenbicicoric, guero Jesuchristoren direnac, haren ethortcea sinhetsi dutenac. [24] Ondoan diteque akhabantça, noiz eta ere emanen baidioque bere erresuma bere Jaincoari eta bere Aitari, eta ezeztatu baiduque naussitassunic den gucia, bothere den gucia, authoritate den gucia. [25] Behar du ecen Jesuchristoc erreguiñatu, Aitac eçarri diotçoquen artean bere etsai guciac bere oiñen azpian. [26] Eta azquen desseguiñen den etsaya içanen da heriotcea, guciac ecen eçarri diotça oiñen azpian. Erraten duenean bada: [27] "Gauça guciac eçarri çaizco bere azpico", duda gabe da aditua hainaz landan, ceiñec eçarri içan baidiotça gauça guciac bere azpico. [28] Eçarri çaizcoenean bada gauça guciac bere azpico, orduan Semea bera ere jarrico da gauça guciac haren azpico eçarri dituenaren azpico, içan dadin Jaincoa gucietan gucia.

[29] Bertcela cer eguiñen dute hillentçat bathayatcen direnec, baldin guciz hillac bizten ez badire? Cergatic bathayatcen ere dire hillentçat? [30] Eta gu ere cergatic perilletan ematen gare oren guciez? [31] Egun guciez hiltcen hari naiz; bai, ene anayac, çuen ganic Jesuchristo gure Jauna baithan heldu çaitan gloriaz çaituztet seguratcen. [32] Guiçon beçala mintça nadin, cer probetchu dut ceren bestien contra guducatu naicen Ephesan, baldin hillac bizten ez badire? "Jan çagun eta edan çagun; berdin bihar hillen gare". [33] Ez çaiteztela engana: gaizcoatcen dituzte hazcuntça onac ere solhas gaixtoec. [34] Atçar çaitezte, justuac, eta beguira çaitezte bekhatu eguitetic; badire ecen cembait Jaincoa eçagutcen ez dutenic[25]; çuen ahalquerietan mintço natçaitçue.

[35] Ordean erranen duque norbaitec: "Nola biztuco dire hillac? Nolaco gorphutcetan ethorrico dire?". [36] Çoroa!, çuc ereiten duqueçuna ez da bizten, baldin lehenago ez bada hiltcen. [37] Eta ereiten duçuna ez da ethorri behar duen gorphutz bera, baiñan bihi hutsa, hala nola ogui bihia edo bertce cerbeit bihi. [38] Jaincoac ordean ematen dio nahi duen beçalaco gorphutça, eta haci bakhoitchari dagocon gorphutça.

[39] Haragui gucia ez da haragui bera; bainan bertce da alabaiñan guiçonena, bertce berriz bestiena, bertce hegastiñena, bertce are arraiñena. [40] Badire halaber gorphutz cerutiarrac eta gorphutz lurtiarrac; bainan bertcelacoa da cerutiarren distiadura eta bertcelacoa lurtiarrena. [41] Bertce da iguzquiaren clartassuna, bertce berriz ilharguiarena; eta bertce oraino içarrena; içarren artean ere bata distiantagoa da bertcea baiño. [42] Gauça bera içanen diteque hillen biztean ere; gorphutça haci bat beçala ematen da orai lurrean ustelgunean eta biztuco da ecin ustelducotçat. [43] Ematen da lurrean gucia hidoiztua, eta biztuco da gucia glorios. Ematen da

24. Horrelaxe dago.
25. *Dutenic* ala *dutenac* dioen ezin daiteke ongi irakur; lehena agian: ik. beheraxeago XVI, 22.

lurrean guciac etheldua [26], eta biztuco da indarrez bethea. [44] Gorphutz animal bat da lurrean ematen dena, gorphutz spiritual bat içanen da biztuco dena. Baldin bada gorphutz animal bat, bada halaber gorphutz izpiritual bat ere, escribatua den beçala: [45] "Adam lehenbicico guiçona creatu içan da arima bici batequien, eta Adam bigarrena bethea içan da Izpiritu bitzçaille batez". [46] Ordean ez da lehenic ethorri içan izpiritual dena, bainan bai animal dena; ondoan ethorri da izpiritual dena. [47] Lehenbicico guiçona lurtiarra da, lurretic heldu dena; bigarren guiçona cerutiarra da, cerutic heldu dena. [48] Nolacoa baitcen lurreticacoa, halacoac dire halaber lurreticaco guiçonac, eta nolacoa baida ceruticacoa, halacoac dire halaber ceruticaco guiçonac. [49] Nola bada ekharri içan baidugu lurreticaco guiçonaren imagina, ekhar deçagun hala hala ceruticacoarena.

[50] Hau bada erraten darotçuet, ene anayac, ceren haraguia eta odola ecin içan baiditezque Jaincoaren Erresumaren jabe, ez eta ustelgunea ecin ustelduaren jabe. [51] Huna misterio bat erraterat noatçuena: guciac behindic behin biztuco gare, ordean guciac ez gare mudatuco. [52] Instant batez, begui colpe batez, azqueneco claroiña soiñuan –joren [27] du ecen claroiñac– eta hillac biztuco dire ecin ustelduco direntçat, eta gu orduan gare mudatuco. [53] Ecen gorphutz ustelcor hunec behar du içan bestitua ecin ustelduco den beçala, eta gorphutz hilcor hunec behar du içan bestitua ecin hillen den beçala.

[54] Noiz eta ere bada gorphutz hilcor hau içanen baida bestitua ecin hillen den beçala, orduan compliluco da Escrituraco hitz hau: "Suntsitua içan da herioa bictoriaz. [55] O herioa, non da hire garaicoa? O herioa, non da hire eztena?". [56] Herioaren eztena bada bekhatua da: eta bekhatuaren indarra berriz leguea. [57] Baiñan esquerrac dituela Jaincoac, ceiñec eman baidarocu bictoria Jesuchristo gure Jaunaz.

[58] Hala, ene anaya maiteac, çaudezte tiesso eta higuitu ere gabe, bethi hari çaretela eta gueroago are eta guehiago Jaunaren lanean, daquiçuelaric çuen lana ez dela galdua Jaunaren aitcinean.

26. *Gucia* behar du, eta ez *guciac*. Ondoko hitza gaitz da irakurtzen. Argitasuna agian 2 Kor. IV, lean aurki dezakegu. Han *etheltcen* bide dio, nahiz Lhandek *etheite* dakarren, eta latinezkoak bietan antzeko dira: han "deficimus", hemen "infirmitate".

27. Hemen aldiz *joren* irakurtzen da: ik. Apost. Eguinc. XXIII, 3.

XVI. Cap.

[1] Sainduentçat biltcen ohi direnez beçambatean, eguiçue çuec ere Galaciaco Elicei exlegitu içan diotedan molde berean. [2] Asteco lehenbicico egunean çuetaric batbederac eman beça apart bere baitan gorderic placer duena, ni nathorquenean biltcen hassi gabe. [3] Hor naitequenean, guthunez çuec nor ere marcatu baidarozquidatçueque, eta hec igorri [28] ditut eramaterat çuen liberalitateac Jerusalemerat. [4] Baldinetariac ungui bada neroni ere nohan, enequien ethorrico dire.

[5] Ethorrico naiz bada çuetarat Macedonia iragan duquedanean, ecen Macedonian iraganen naiz. [6] Eta çuen baithan egonen naiz aguian, edo dut negua iraganen ere, çuec guida naçaçuentçat norat ere goanen bainaiz, eta harat. [7] Ez çaituztet ecen oraingotic iragatez choilqui nahi icussi, baiñan esparantça dut cembeit demboraz egonen naicela çuen baithan, baldin Jaunac permetitcen badu. [8] Egonen naiz bada Ephesan Pentecoste arteraiño. [9] Icusten dut ecen athe handi bat dagoquidala idequia eta hainitcec contra eguiñen darotedala.

[10] Baldinetariac Timotheo ethortcen baçaitçue, duçuen artha beldurric gabe içan dadin çuen artean, Jaunaren lanean ecen hari da ni beçala. [11] Ez beça beraz nihorc hura mezpreça; aitcitic guida çaçue baquean, ethor dadin ene ganat; haren beguira nago ecen, eta gure anayen. [12] Ene anaya Appolloz denaz beçambatean, erranen darotçuet othoitztu dudala hainitz çuen ganat goaiteaz gure anayetaric cembaitequien; baiñan guciarequien ere ez çayo ungui orai goatea; ethorrico çaitçue astia duenean.

[13] Çaudete atçarriac; çaudete tiesso fedean; duçuen animo eta har çaçue indar. [14] Eguiten duçuen gucia eguiçue amudiorequien.

[15] Othoi behintçat, ene anayac. Eçagutcen duçue Stephanesen familia, Fortunatena eta Achaicorena; badaquiçue hec direla Achaiaco primeciac eta sainduen cerbitçurat bere buruac emanac dituztela. [16] Othoitz eguiten darotçuet, bada, ekhartceaz errespetu halaco presunei eta bai gu laguntcen gaituzten eta gu beçala trabaillatcen diren guciei. [17] Boztua naiz Stephanas, Fortunato eta Achaico neurequien içateaz, ceren çuen aldetic escas cena hec bethe içan baidute. [18] Descantsatu içan dute ecen bai ene izpiritua eta bai çuena; eçagutçatçue bada horlaco direnac.

[19] Goraintci darotçue Asiaco elicec, goraintci darotçue hainitz Jauna baithan Aquillac eta Priscillac, ceinen baithan bainago, bai eta hequien etcheco eliçac.

28. *Igorrico* behar duela bistan dago ("mittam").

[20] Goraintci darotçue gure anaya guciec. Saluta çaçue elkhar mussu saindu batez.
[21] Huna nic Pauloc cer dudan neure escuz escribatcen çuen goraintcitçat.
[22] Baldinetariac nihor bada Jesuchristo gure Jauna maite ez duenic, içan dadillala anathema. Maran, atha. [23] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuequien.
[24] Ene amudioa çuec gucietarat hedatcen da Jesuchristo baithan. Amen.

JOND. PAULO APOST.
Bigarren Guthuna
CORINTHIARREI

I. Cap.

[1] Pauloc Jaincoaren borondatez Jesuchristoren Apostolu denac eta Timotheo haren anayac Jaincoaren eliça Corinthan denari eta Achaian diren saindu guciei: [2] gracia eta baquea diçuela Jainco gure Aitac eta Jesuchristo gure Jaunac. [3] Benedicatua dela Jaincoa Jesuchristo gure Jaunaren Aita, urricalmenduen Aita eta consolacione gucien Jaincoa, [4] ceiñec baigaitu consolatcen gure atsecabe gucietan, guc ere consola detçaguntçat bertceac bere gaitz gucietan Jaincoac gueroni consolatcen gaituen consolacione beraz. [5] Ecen cembatenaz parte guehiago baidugu Jesuchristoren soffricarietan, hambatenaz dugu halaber Jesuchristoz heldu çaizquigun consolacioneètan. [6] Ala içan gaitecen bada affligituac, çuen instruccionea gatic eta çuen salbamendua gatic gare; ala içan gaitecen animatuac, oraiño çuen instruccionea gatic eta çuen salbamendua gatic gare, ceiña complitcen baida guc pairatcen ditugun gaitz beren pairantçan. [7] Hala çuetaz dugun esperantça ciñezcoa da, baidaquigu soffricarietan parte duçuen beçala consolamenduan ere parte içanen duçuela. [8] Nahi dugu ecen jaquin deçaçuen, ene anayac, cer içatu dugun soffritceco Asian; hain herstura handitan içan gare ecen, eta gure indarrez goragoco penetan, non unhatuac ere baiguinen bicitceaz. [9] Baiñan gueronec guere baithan aditu beçala dugu gure heriotceco sententcia, guere baithan fida ez gaitecentçat, baiñan bai Jaincoa baithan, ceinec bizten baiditu hillac, [10] ceiñec libratu baigaitu hain perill handitaric eta atheratcen ere baigaitu, ceinaren baithan baidugu esperantça oraiño ere atheraco gaituela, [11] çuec ere guretçat eguiñen ditutçuen othoitcen laguntçarequien batean, hainitz presunen ariaz errecibitu içan dugun graciaz hainitcec esquerrac errenda detçatentçat guretçat.

[12] Ecen gure burupea eguiten duena da gure conscientciac errendatcen darocun lekhucotassuna: mundu huntan comportatu içan garela bihotz sinple eta chahu batequien Jaincoaren aitciñean, ez haraguiaren çuhurtciaren arauera, baiñan Jaincoaren graciaren arauera, beregainqui çuen alderat. [13] Ez derautçuegu ecen escribatcen iracurtcean berean eguiac direla eçagutcen ditutçuen [1] gauçaric baicen.

1. *Eguiac* plurala, *gauçaric* ez; adizkia *(ditutçuen)* lehenarekin komunztatua, ez baitio *duçuen*. Hala behar?

Esperantça dut bada fineraiño hala eçagutuco ditutçuela, [14] eçagutu ere gaitutçuen beçala parte çuen gloria garela, hala nola çuec ere içanen baitçarete gurea Jesuchristo gure Jaunaren egunean.

[15] Eta fidantcia hortan ene lehenbicico chedea içatu da çuen icusterat ethortcea, bigarren gracia bat içan cineçatentçat. [16] Çuen baitharic ecen nahi nuen iragan Macedoniarat goatean; Macedoniatic guero berriz ethorri çuen ganat eta çuec guida nintçaçuen Judearat. [17] Chede hori nuenaz gueroz orduan, arintassunez utci othe dut complitu gabe? Edo chede bat hartcen dudanean, haraguiaren arauera hartcen othe dut, *bai* eta *ez* ene baithan aurkhitcen balire beçala? [18] Aitcitic lekhuco hartcen dut Jaincoa, bere hitcetan fidel dena, çuen artean guiñenean erran darozquitçuegun gaucetan ez dela *bai* eta *ezic*; [19] ecen Jesuchristo Jaincoaren Semea baithan, ceiña predicatu içan baidarotçuegu nic eta Silvanoc eta Thimotheoc, ez da *bai* eta *ezic*; aitcitic ez da *bai* baicen haren baithan. [20] Jaincoaren aguintça diren guciac ecen *bai* bat dire Jesuchristoren presunan, eta hargatic ere erraten diogu Jaincoari hartaz Amen, glorificatua içan dadintçat gutaz; eta horrec eguiten du gure ministerioaren gloria.

[21] Jaincoa bera da, bada, Jesuchristo baithan gu borthizten gaituena çuequien batean, eta bere gantçuduraz gantçutu gaituena; [22] bere ciguilluaz marcatu ere gaituena, eta bahitçat Izpiritu Saindua gure bihotcetan eman darocuna. [23] Bada nic Jaincoa hartcen dut lekhuco ene arimaren perillean, çuen guphidaz ez naicela bihurtu Corintharat; ez bada naussitcen garelacotz çuen fedeaz; aitcitic lagundu nahi baidugu çuen bozcarioa, finqui çaudeztenaz gueroz fedean.

II. Cap.

[1] Eguin içan dut bada neure baithan, ez nuela berriz ethorri behar çuen icusterat çuec doloratcecotan. [2] Baldinetariac ecen nic tristaraz bacintçatet çuec, nor diteque ni aleguera nintçaquenic, neronec tristaraci nintuzquenez[2] lekhora? [3] Eta hori bera escribatu içan darotçuet ere, içan ez neçantçat çuen ganat nenthorquenean tristecia tristeciaren gaiñerat bozcario eman behar laroquetędanen[3] ganic; fida naiz ecen çuez guciez[4] ene bozcarioa çuen guciona daitequela. [4] Eguiaz ecen affliccione handi batean eta bihotceco herstura handi batean escribatu narotçuen orduan eta nigar hainitcequien; ez çuec tristaraztea gatic, bainan çuei eçagutacitcea[5] gatic çuentçat çuen gaiñetic dudan caritatea.

[5] Baldin norbeitec tristaraci banau, ez nau ni bakharric tristaraci, baiñan nolazbait bederen, hura gaindiz carga ez deçadan, çuec guciequien[6]. [6] Asco du haiñac orai den statuan hainitz presunen ganic içan duen centçagune hori. [7] Eta are aitcitic barkhatu behar dioçue orai, eta consolatu behar duçue haiña, hondatua ez dadin tristecia handiegui batean. [8] Hargatic çaituztet othoitzten hari bethiere emateaz çuen caritatearen seiñale cembeit. [9] Horren gatic escribatcen ere darotçuet çuec frogatcea gatic eta eçagutcea gatic hea gauça gucietan obedient çareten. [10] Bada çuec cerbeit barkhatcen dioçuenari, nic ere barkhatcen dioquet: ecen neronec ere barkhatu dioquedanari, baldin cerbeit barkhatu içan badut, çuen amorea gatic eguin dioquet Jesuchristoren presunan, [11] Satanez atcemanac içan ez gaitecentçat; badaquizquigu ecen haren chedeac.

[12] Ethorri nintcenean bada Troadarat Jesuchristoren Evangelioa predicatcerat, eta athea ere idequia içan baitcitçaitan Jaunaren icenean, [13] ez nuen içan sosseguric ene izpirituan, ceren ez bainuen han aurkhitu Tito, ene anaya; bainan hei adiu erranic, abiatu nintcen Macedoniarat. [14] Esquerrac diotçat bada Jaincoari, ceinec bethiere garai eguiten baigaitu Jesuchristo baithan eta banatcen ere baitu gutaz lekhu gucietan bere icenaren eçagutçaren urriña. [15] Ecen Jesuchristoren urrin ona gare Jaincoaren aitciñean, nahiz salbatcen direnentçat eta nahiz galtcen direnentçat. [16] Batçuen alderat bada herio urrina heriotcecotçat, bertceèn alderat berriz

2. *nituzque-* behar luke segurki.
3. Lehenik *laroquetdanen* idatzi du; guero *-td-*ren artean eta gainean beste letra bat edo bi erantsi.
4. Aurreraxeago (VII, 13) *çuetaz guciez* dio aldiz.
5. *-ra-* silaba jan du: ik. aurreraxeago VII, 12.
6. Hori ezabatu eta *guciac* utzi nahi izan bide du,baina ilun dago.

bicitceco urriña, biciaracitcen dituena. Eta non aurkhi pressunac hortacotz gai direnac? [17] Ez gare ecen hainitz beçala, ceiñec desohoratcen baidute Jaincoaren hitça; aitcitic garbiqui mintço gare eta Jaincoaren meçuz beçala, Jaincoaren aitciñean eta Jesuchristoren presunan.

III. Cap.

[1] Hassico othe gare berriz ere guere buruen goratcen? Ala nasqui batçuc beçala gomendiozco buthunen beharra baidugu çuen ganat edo çuetaric bertceèn ganat? [2] Gure gomendiozco buthuna cebonec çarete gure bihotcetan escribatua, ceiña eçagutcen eta iracurtcen baidute guiçon guciec. [3] Agueri baida Jesuchristoren buthuna çaretela gure ministerioz escribatua ez tintaz, baiñan Jainco biciaren Izpirituaz; ez harrizco plametan, baiñan çuen bihotcetan, haraguizco plama batçutan beçala. [4] Hortaz bada fida gare Jaincoaren aitciñean Jesuchristoz; [5] ez gure baitharic gai garelacoan concebitceco cerbeit guere baitharic beçala; baiñan gure gaitassuna Jaincoa ganic heldu da, [6] ceiñec gai eguin baigaitu alientcia berrico ministre içateco ez lettraren, baiñan aitcitic Izpirituaren; lettrac ecen hiltcen du, Izpirituac ordean bicia du ematen. [7] Baldinetariac harriaren gaiñean escribatua cena, heriotcezco languintça bat celaric, hain bethea içan bada gloriaz, non Israelgo umeèc ecin beha baitcioçaqueten Moiseren bisayari, haren beguitarteco gloria cela causa, berehala iragan beharra cen arren, [8] cembatenaz Izpirituaren obrantça ez da gloriossagoa içanen? [9] Ecen baldin condenacionearen languintça bethea içan bada gloriaz, guehiago are içanen bide da justiciarena. [10] Eta alde hartaric distiatu içan duena ez da ere gloriosso içatu gloria excelentago baten aldean. [11] Baldinetariac ecen iragaten ohi dena gloriaz bethea bada, are guehiago bide da bethiere iraun behar duena gloriaz bethea.

[12] Horlaco esperantça beraz dugunaz gueroz, libertate handirequien mintço gare. [13] Eta ez gare Moise beçala, ceiñac belo bat ematen baitçuen bissayaren gaiñean, Israelgo umeèc icus ez ceçatentçat haren bisayaren distiadura iragancorra. [14] Ordean tapatuac beçala egon dire hequien Izpirituac; egungo eguneraiñocoan ere ecen, Testament Çaharra iracurtcen dutenean, belo hura bera hequien bihotcen gaiñean dago, altchatua içan gabe, ceren Jesuchristoz baicen ez baida khentcen. [15] Eta orai arteraiñocoan Moises iracurtcen çayenean, estalqui bat bihotçaren gaiñean dute. [16] Ordean populu hura itçulico denean Jauna ganat, khenduco çaye estalquia. [17] Jauna bada Izpiritu da, eta non ere baida Izpiritua, han diteque libertatea. [18] Gu guciac ordean, bisaya agueri dugula Jaunaren gloria contemplatcen dugunac, mudatuac gare imagina bererat, iragaten garelaric claritatetic claritaterat Jaunaren Izpirituaz beçala.

IV. Cap.

[1] Hargatic bada, ministerio hori baidugu eguin içan çaicun misericordiaren arauera, ez gare etheltcen [7]. [2] Aitcitic arthiqui ditugu gordetcen diren gauçac eta ahalqueria dakharquetenac, ibilli gabe finecian eta Jaincoaren hitça bertcelacatcen; aitcitic eguiaren aguertceaz estimarazten ditugularic guere buruac guiçon guciez, hequien conscientciaren jugeamenduan Jaincoaren aitciñean. [3] Eta baldin hala ere estalia bada gure Evangelioa, galtcen direnentçat da estalia, [4] ceiñen artean mundu huntaco Jaincoac itsutu baiditu infidelen izpirituac halaco moldez, non ez baidu hequien gaiñean arguitcen Evangelioaren arguiac, ceiña baida Jesuchristo Jaincoaren imagina denaren gloria. [5] Ez ditugu ecen guere buruac predicatcen, baiñan Jesuchristo gure Jauna dugu predicatcen; eta guere buruac çuen cerbitçari dauzcagu Jesusen amorea gatic. [6] Ceren illhunbetaric arguia ilkhi dadillala manatu içan duen Jaincoac berac argui eguin baidu gure bihotcetan distiadura guehiago-requien, eçagutaracitceco Jaincoaren gloria Jesuchristo baithan agertcen den arauez.

[7] Ordean thresor hori lurrezco jarro batçuetan dakharquegu; eçagutcerat emateco gure baithan ditequen botherearen handitassuna Jaincoa ganic dela eta ez gure ganic. [8] Gucietan atsecabeac ditugu, baiñan ez gare unhatcen; griña handitan gare, ordean ez gare ilkhipideric gabe. [9] Persecutatuac gare, baiñan ez gare abandonatuac; arthiquiac gare, baiñan ez gare ossoqui galduac, [10] bethiere dakharquegularic Jesusen mortificacionea gure gorphutcean, Jesusen bicitcea ere aguer dadintçat gure gorphutcetan. [11] Bethi ecen gu bici gareiño heriotcerat gare libratuac Jesusen gatic, Jesusen bicitcea halaber aguer dadintçat gure haragui hilcorrean. [12] Beraz heriotcea hari da gure baithan eta bicitcea çuen baithan. [13] Baiñan fedezco Izpiritu bera baidugu, escribatua den beçala: "Sinhetsi dut eta hargatic naiz mintçatu", guc ere sinhexten dugu eta hargatic mintço ere gare. [14] Baidaquigu Jesus biztu içan duenac gu ere halaber biztuco gaituela Jesusequien eta aguerarac-ico gaituela çuequien batean bere aitciñean. [15] Guciac ecen çuentçat dire, gracia franquiaz ethorriric, gloria guehiago bihur daquioentçat halaber Jaincoari, hainitcec esquerrac errendatceaz.

[16] Hargatic ez gare gogo urritcen; aitcitic gure guiçon campocoa desseguiten den arren, hala ere guiçon barrenecoa erreberritcen hari da egunetic egunerat. [17] Ecen orai ditugun laceria iraupen gutitacoec eta ariñec gloria soberano eta neurri gabeco baten pisu eternala dute eguiten gure baithan. [18] Hala ez ditugu consideratcen gauça icusten direnac, baiñan bai icusten ez direnac; icusten direnac ecen demboraco dire, icusten ez direnac ordean eternalac dire.

7. Ik. I Kor. XV, 43.

V. Cap.

[1] Badaquigu ecen, baldin lurreco gure egoitça huntaco etche hau desseguiten baçaicu, içanen dugula Jaincoa ganic bertce egoitça bat ceruetan, etche bat guiçonen escuz eguiña ez dena eta eternitatean iraunen duena. [2] Hortacotz gaudez ere hatsbeherapenez, gure egoitça ceruco den hartaz bestituac içan nahian, [3] baldinetariac behintçat bestituac edireten bagare eta ez bilhuciac. [4] Ecen egoitça huntan gareiño hats-beherapenez gaudez cargaren azpian, ceren ez baidugu desiratcen bulhuciac içatea, aitcitic bai gaiñetic bestituac içatea, hilcor duguna iretsia içan daitequen beçala bicitceaz. [5] Eta hortarat bererat moldatu içan gaituena Jaincoa da, ceiñec herresatçat eman ere içan baidarocu bere Izpiritua. [6] Fida gare bada bethiere, eta daquigularic gorphutz huntan gaudeceiño Jauna ganic urrunduac gabiltçala — [7] fedez gabiltça ecen, eta ez icustez—, [8] fida gare, diot, eta nahiago guinduque gorphutz huntaric ilkhi eta goan Jaunarequien egoterat. [9] Hargatic lehiatcen ere gare hari agradatcerat, nahiz içan gaitecen haren ganic urrunduac, nahiz içan gaitecen haren ganat helduac. [10] Gucioc ecen aguertu beharrac gare Jesuchristoren tribunalaren aitciñean, batbederac errecibi deçantçat bere gorphutçaz bestitua cenean eguin duquen unguiari edo gaizquiari çor çayoena.

[11] Baidaquigu bada cer den Jaunaren beldurtassuna, bertceac ere ditugu hartarat erakhartcen; eta Jaincoac eçagutcen gaitu garen beçalacotçat. Uste dut bada çuen conscientcietan çuec ere eçagutacen gaitutçuela nolacoac garen. [12] Ez gabiltça berriz ere guere burua çuetaz preçaraci beharrez, bainan bai çuei occassione eman nahiz gure ariaz gloriatceco, içan deçaçuentçat cer ihardets bere gloria itchurapenetan ematen dutenei, eta ez bihotcean diren gaucetan. [13] Ecen, ala utz deçagun gure Izpiritua mugarriez haratago goaterat, Jaincoa gatic diteque; ala gaudecen baratche, çuen gatic daiteque. [14] Ecen Jesuchristoren amudioac hertchatcen gaitu; consideratcen baidugu, baldinetariac bakhar bat hill içan bada çuen gatic, beraz guciac hillac direla, [15] eta gucientçat hill içan dela Jesuchristo, bici direnac ere gaur guehiago ez daitecentçat bici beretçat, baiñan bai hequientçat hill eta biztu içan denarentçat.

[16] Hargatic guc hemendic harat ez dugu nihor eçagutcen haraguiaren arauera. Eta baldinetariac eçagutu içan badugu Jesuchristo haraguiaren arauera, ordean orai ez dugu horla eçagutcen. [17] Baldinetariac bada norbeit Jesuchristo baithan bada, creatura berri bat haina eguin da; çahar ohi cena iragan da; huna gauça guciac berri eguinac. [18] Eta hauc guciac Jaincoa ganic dire, ceiñec baquetu baigaitu berequien Jesuchristoz eta eman baidarocu guri baquetceco cargua. [19] Ceren

Jaincoa Jesuchristo baithan baitcen mundua berequien baquetcen hari cenean, condatcen ez çaroztela bere bekhatuac; eta berac ibeni içan du gure baithan erreconciliacionearen hitça. [20] Beraz Jesuchristoren embachadore gare, eta Jaincoac gutaz exhortatcen bacintuzte beçala da. Jesuchristoren partez çaituztegu errequeritcen: baque çaitezte Jaincoarequien. [21] Bekhatua eçagutcen ez çuena gure gatic tratatu içan du ecen, bekhatua bera içan balitz beçala, eguin guintecentçat gu haren baithan justu Jaincoaren araueraco justiciaz.

VI. Cap.

[1] Jaincoaren languille baigare, bada, exhortatcen çaituztegu arren ez deçaçuen alferretan errecibi Jaincoaren gracia; [2] dio ecen berac: "Ordu onean entçun çaitut eta salbamenduco egunean lagundu çaitut". Huna orai dembora gogaracoa; huna orai salbamenduco egunac. [3] Hala ez bide diogu ematen nihori escandalisatceco lekhuric, desohoratua içan ez dadintçat gure ministerioa. [4] Aitcitic gauça gucietan aguertcen gare Jaincoaren ministro batçuc içan behar duten beçalaco, pairacortassun handi batez atsecabeètan, beharquiçunetan, hersturetan, [5] çaurietan, pressondeguietan, albotaramenduetan, trabailluetan, veillatcetan, baruretan, [6] garbitassunez, jaquintçaz, pairacortassunez, mantsotassunez, Izpiritu Sainduaren berthutez, caritate garbi batez, [7] eguiaren hitçaz, Jaincoa ganicaco botherez, justiciaren armez, escuin eta ezquer; [8] bai ohorearen eta bai desohorearen artean; bai fama gaixtoaren eta bai onaren artean; enganatçaille batçu baguiñe beçala, eguiatiac garen arren; eçagutu gabe batçu baguiñe beçala, ungui eçagutuac garen arren; [9] hiltcen hari baguiñe beçala eta hala ere bici; colpeca darabiltçatenac beçala, ordean ez hiltceraiñocoan; [10] triste beçala, ordean bethi aleguera; pobre beçala, ordean hainitz aberasten dugula; deussic gabe garenac beçala eta hala ere gucien jabe.

[11] Gure ahoa çuentçat idequia da, ó Corinthiarrac; gure bihotça çabaldua dagotçue. [12] Ez çarete hertsiqui gure baithan, baiñan çuec duçue bihotça hertsi enetçat. [13] Bada ordaiña bihur dieçadaçuentçat, neure haurrei beçala erraten darotçuet: çabal çaçue çuec ere bihotça enetçat. [14] Ez çaiteztela balsa infidelequien; ecen cer balsagune içan ahal diteque justiciaren eta iniquitatearen artean? Edo cer parçunezco, arguiaren eta ilumbeèn artean? [15] Cer erquidetassun Jesuchristoren artean [8] eta Belialen artean? Edo cer accordu fidelaren eta infidelaren artean? [16] Cer aria duque Jaincoaren templuac idolequien? Çuec ecen Jainco biciaren templua çarete, Jaincoac berac erraten duen beçala: "Egonen naiz hequien baithan eta ibillico naiz hequien artean; içanen naiz hequien Jaincoa eta hec içanen dire ene populua".

[17] Hargatic beraz "ilkhi çaitezte jende hequien artetic eta aldara çaitezte hequien ganic, dio Jaunac; eta ez deçaçuela ukhi lohi denic, [18] Eta nic hartuco çaituztet; içanen natçaitçue Aitatçat, eta çuec içanen çaizquidate niri seme eta alaba, dio Jaun guciz botheretsuac".

8. *artean* hau sobera dago, ondorengo hitzek erakusten dutenez.

VII. Cap.

[1] Horlaco aguintçac ditugunaz gueroz, ene maiteac, chahu gaitecen haraguiaren eta Izpirituaren lohigune gucietaric, akhabatcen dugularic gure santificacionearen obra Jaincoaren beldurtassunean. [2] Har gaitçatçue çuen bihotcean; nihori ez diogu eguin bidegaberic; nihor ez dugu gaizcoatu; nihor ez du[9] atceman. [3] Ez dut hau erraten çuec condenatceco; erran darotçuet ecen ja bihotcean çakharzquetadala, çuequien hiltceco eta bai bicitceco. [4] Libertate handirequien mintço natçaitçue; burupe handi dut çuetaz gloriatceco; consolacionez bethea naiz; bozcarioz gaindi eguiña naiz ene soffricari gucien artean.

[5] Ecen Macedoniarat ethorri eta ere, ez dugu içatu sossegu garabic haraguiaren arauera; aitcitic soffritceco den gucia soffritu dugu: campotic guduac, barnetic icialdurac. [6] Baiñan humillac eta affligituac consolatcen dituen Jaincoac, consolatu içan gaitu Titen ethortceaz. [7] Eta ez choilqui haren ethortceaz, baiñan oraiño berac çuen ganic errecibitu içan duen consolacioneaz, condatu içan darocunean çuen desira ene icustecoa, çuen nigarrac, çuen lehia enetçat; hala, non guehiago boztu içan bainaiz. [8] Ecen baldin tristatu baçaituztet ere ene buthunaz, ez nago urriquitan orai, lehen urriquitu içan baçait ere, icussiric aphur batecotz tristatu cinituztela buthun harc.

[9] Orai atseguin dut, ez ceren tristatu çareten, baiñan ceren tristatu içan çareten penitencia eguiterainocoan; çuen tristecia Jaincoaren araueracoa içatu da, eta hala calteric ez çaitçue heldu gure aldetic. [10] Ecen Jaincoaren araueraco den tristeciac penitencia iraupeneco bat du eraguiten salbamenducotçat; mundu huntaco tristeciac ordean heriotcea dakharque. [11] Horra ecen Jaincoaren arauera tristatce horrec nola ekharri çaituzten atçarriago içaterat; baiñan are çuen buruen justificatcerat, suminduac içaterat, beldur içaterat, lehian jartcerat; baiñan zelo handi bat içaterat, baiñan arimaren punitcerat. Manera guciez eracutsi içan duçue chahu çaretela çuec eguiteco hortan. [12] Hala beraz, baldin escribatu içan badarotçuet, ez darotçuet eguin injuria eguin içan duena gatic, ez eta injuria jassan içan duena gatic; aitcitic bai çuei eçagutaracitcea gatic çuetaz dugun artha Jaincoaren aitciñean.

[13] Horrec gaitu ere consolatu; ordean errecibitu dugun consolacionean guehiago are boztu gare Titec içatu duen atseguinaz, ceren descansatua içan baida haren izpiritua çuetaz guciez. [14] Eta ceren baldin cerbeitez gloriatu içan banaiz

9. *dugu* behar zen hor: "neminem circunvenimus".

çuen ariaz hari mintçatcean, ez baidut içatu ahalcatceco sujetic; aitcitic bethiere eguiaz mintçatu gaizquitçuen beçala, Titeri çuetaz errendatu içan diogun lekhucotassuna ere eguiaren araueracoa guerthatu içan baida. [15] Eta haren amudioa çuentçat berretcen ere da, orhoitcen denean çuen gucien obedientciaz, eta nola errecibitu içan duçuen beldurrequien eta ikhararequien. [16] Atseguin dut bada, ceren gauça gucietan içan ahal bainaiteque fida çuetaz.

VIII. Cap.

[1] Jaquinaraci behar darotçuet bada, ene anayac, Jaincoac Macedoniaco elicei eguin daroen gracia; [2] Nola hequien bozcarioa hambatenaz içatu den handiagoa, cembatenaz içan baidire affliccione handiagoez frogatuac; eta nola bere pobrecia ecin guehiagocoan, franquiac içatu diren bihotz onez amoiña handiac eguiterat. [3] Ecen lekhucotassun hau eman behar daroet: bere baitharic ekharriac içatu direla emateraat ahal çutenaren arauera, eta ahalaz guehiago ere; [4] errequerimendu hainitcequien othoitzten guintuztelaric hequien amoiñac errecibitceaz eta hec sainduei eramateco meçuan parte hartceaz. [5] Eta hortan ez dute choilqui eguin hequien ganic iguriquitcen guinduena, baiñan eman diotçate bere buruac lehenic Jaunari eta guero eman darozquigute guri Jaincoaren nahirat.

[6] Horri dagocala othoiztu dugu Tite, arren hassi içan duen beçala akhaba deçan çuen baithan ere caritatezco obra hori; [7] ordean nola gucietan franquiac baitçarete, fedean, hitcetan, jaquintassunean, artha suerte gucietan eta are guehiago guretçat duçuen amudioan, içan çaiteztentçat halaber franquiac caritatezco obra huntan ere. [8] Ez dut çuei manatceco hau erraten, baiñan choilqui bertcen lehiaren exempluaz çuec ere erakhartceco çuen caritatezco gogo onaren frogac emateraat. [9] Badaquiçue ecen nolacoa içatu den Jesuchristo gure Jaunaren misericordia; nola aberats celaric, çuen gatic pobre eguin içatu den, haren pobreciaz çuec aberats cinteztentçat.

[10] Eta hau da nic ematen darotçuedan conseillua, eta çuen probetchutaco ere baida; ceren ez choilqui çuec lehenic hassi içan baitçarete caritate horren eguiten, bainan are chedea hartu ere baitcinduten hartacotz iazdanic [10]. [11] Orai bada eguiteaz ere akhaba çaçue, nahia eta gogoa prest içan duçuen beçala, içan deçaçuen halaber akhabatcea ere çuen ahalen arauera. [12] Baldinetariac ecen nihorc gogo handi badu emateco, errecibitcen dio Jaincoac; eta ez dio galdetcen duenaren arauera baicen, eta ez ez duenaren arauera. [13] Hala ez da ene gogoa bertceac içan daitecen guphidetsiac eta çuec içan çaitezten cargatuac; aitcitic bai gauçac içan daitecen igoal, [14] presenteco demboran çuen franquia hel daquioen hequien pobreciari, hequien franquia ere hel daquioentçat egun batez çuen gabeari, eta horla guciac eguin daitecen igoal, escribatua den beçala: [15] "Hainitz çuenac ez çuen içan bertceèc baiño guehiago eta guti çuenac ez çuen içan gutiago".

10. *Iaztik*, alegia.

[16] Esquerrac diotçat bada Jaincoari, ceren eman baidu ardura bera çuentçat Titeren bihotcean, [17] ceren ez choilqui ungui hartu içan baidu nic eguin içan diodan othoitça, bainan bere baitharic oraiño arduratsuago içanez, goan baida çuen ganat bere borondate onez. [18] Igorri içan dugu harequien batean gure anaya bat ere, ceiñac laudorio hainitz ardietsi baidu Evangelioaz Eliça gucietan. [19] Eta ez choilqui hori; baiñan ceiña hautatua içan ere baida Elicez gure biyayetaco laguntçat caritatezco obra hortacotz, ceina eguiten baida gure escuz Jaunaren gloriaco eta hartu içan dugun chedearen arauera; [20] ez nahiz nihorc erratecoric duen guretçat, gure escuz eguiten diren amoiña handi horien ariaz. [21] Ardura dugu ecen ungui eguiteco ez choilqui Jaincoaren aitciñean, baiñan halaber guiçonen aitciñean ere.

[22] Igorri içan dugu, bada, hequiequien halaber gure anaya bat, ceina eçagutu içan baidugu hainitz gauçatan zeloz bethea eta huntan are guehiago; fidantcia handi bat dugu ungui hartuco duçuela. [23] Eta orobat Tite ere, ceiña ene laguna baida eta çuentçat haritu naicenetan nauena [11], eta bai halaber bertce gure anayac ere, Elicetaco Apostoluac, Jesuchristoren gloria. [24] Aguer dioçoçue beraz Elicen aitciñean çuen caritatea eta eracuts cergatic glorificatcen garen çuen ariaz.

11. *Lagundu nauena* behar zuen agian; "et in vos adiutor" dio Vulgatak.

IX. Cap.

[1] Ecen sainduentçat destinatua den laguntça hortaz sobrantcia çait çuei guehiago escribatcea; [2] baidaquit hortacotz duçuen gogo ona, ceinen ariaz glorificatcen ere bainaiz çuetaz Macedoniaren aitciñean, erraten daroedala Achaico probintcia iazdanic [12] hortarat preparatua dela eta çuen exempluac eman içan diote ere hainitcei lehia bera. [3] Igorri içan ditut bada gure anayac çuen ganat, guertha ez dadintçat alferric glorificatu naicen çuetaz pontu horren gaiñean, eta erran dudan beçala preparatuac aurkhi çaitçaten gatic; [4] beldurrez, enequien ethorrico diren Macedoniarrec aurkhitcen bacinituzte preparatu gabeac, ahalqueriaric içan ez deçagun –ez errateco cebonec cinduquetela– eguiteco hortan. [5] Uste içan dut beraz othoiztu behar nituela anayac aitcinerat goateaz çuen ganat eta artha içateaz, aguindua duçuen liberalitatea içan dadin preparatua gu ethor orduco; ordean içan dadin emaitça bat amudioz eguiña, ez abariciari idequia.

[6] Erraten darotçuet bada hau: guti ereiten duenac guti bilduco ere du eta francoqui ereiten duenac francoqui bilduco ere du. [7] Batbederac eman beça bere baithan emateco exlegitu duquena ez tristeciarequien edo bortchaz beçala; ecen alegueraqui ematen duena du maite Jaincoac. [8] Jaincoa bada guciz botheretsu da graciac [13] guciac çuen gaiñerat gaindiz issurtceco; gauça gucietan bethiere duçuelaric bicitceco asqui den gucia, duçuentçat francoqui certaz eguin obra on suerte guciac, [9] escribatua den beçala: "Barrayatu içan du, eman içan daroe pobreèi; haren justutassunac iraunen du mende gucietaco mendeètan".

[10] Ereilleari ematen dioenac bada ereitecoa emanen darotçue halaber jateco behar duçuen oguia, erakharrico dio hainitz çuen ereintçari eta berretuco ditu hainitcez çuen justutassunaren fruituac; [11] manera guciez aberasturic, eguin detçatçuentçat bihotz onez amoiña handiac; eta horri dagocala diotçagu esquerrac ematen Jaincoari. [12] Ecen caritatezco eguinbide hortaco ongundeac ez choilqui ditu bethetcen sainduen beharrac, baiñan oraiño esquer franco errendaracitcen diotça Jaincoari; [13] ceren ongunde hortaz errecibitcen duten socorria frogaturic, glorificatcen baidute Jaincoa Jesuchristoren Evangelioarentçat eracusten duçuen obedientciaz, eta hei eta bai bertce guciei çuen ontassunetaric parte eguiteco duçuen caritateaz. [14] Eta Jaincoari othoitz eguiten baidiote çuentçat, amudioz betheac baidire çuentçat Jaincoac çuen baithan ibeni içan dituen gracia excelenten gatic. [15] Jaincoac esquerrac dituela bere dohain erran ahal daitequen guciaz goragocoaz.

12. Ik. lehenxeago 10. oharra.
13. *Gracia* behar luke.

X. Cap.

[1] Nic neronec bada, Pauloc, çaituztet othoizten Jesuchristoren manutassunaz eta modestiaz; nic, present naicenean alabainan hain chume aguertcen naicenac çuen artean, eta absent naicenean hain ausart çuen alderat. [2] Diot bada: othoitz eguiten darotçuet, present içanen naitequenean ez nadin behar fidantcia hartaz, ceiña uste baidute dudala cembeiten alderat, ceiñei iduritcen baitçaye haraguiaren arauera gabiltçala. [3] Bada haraguian bici garelaric, ez gare haraguiaren arauera guducatcen. [4] Ecen gure guerlaco armac ez dire haraguizcoac, baiñan bai Jaincoa baithan botheretsu direnac, contra jartcen çayen gucia desseguiteco; hala desseguiten ere ditugu guiçonen izpirituen afinuac [14], [5] eta bai Jaincoaren jaquintçaren contra goratassunequien altchatcen den gucia; eta arma horiez ditugu izpiritu guciac Jesuchristoren obedientciaren azpian eçartcen gathibutassunean, [6] gure escuco baidugu dessobedient gucien punitcea, complitu duqueçuenean çuec behar den obedientcia.

[7] Jugea çaçue bederen gaucez iduri duten arauera. Baldinetariac edoceiñ fida bada bere baithan Jesuchristorena dela, pensa beça halaber bere baithan, hura Jesuchristorena den beçala, gu ere Jesuchristorenac garela. [8] Ecen guehichiago gloriatcen banintz ere dugun bothereaz, ceiña Jaunac eman içan baidarocu çuen edificacionecotçat eta ez çuen destrucionecotçat, ez ninteque ahalque. [9] Ordean iduri ez duentçat icitu nahi çaituztegula buthunez, [10] (haren buthunac ecen, diotsate, pissuac dire eta borthitçac; ordean bera icusten denean, gauça gutia da hura eta bere mintçoan mezpreçagarri ere dena), [11] har beçate gogoan haiña hec, nolacoac baigare buthunez mintço garenean urrundic hitcez, halacoac garela bada present garenean obraz.

[12] Ez gare ecen hauçu guere buruac berdin ematerat edo comparatcerat berce bere buruac laudatcen dituzten batçuequien; aitcitic guere buruac neurtcen ditugu guere baithan garenaren gaiñean eta comparatcen guere buruequien. [13] Ez equi; ez gare neurriz gorago gloriatuco, baiñan bai Jaincoac neurthu içan gaituen erreguelaren eta neurriaren arauera, ceiña baida çuetaraiño heltceco neurria. [14] Ecen ez gare behar baiño guehiago hedatcen, çuetaraiño heldu içan ez baguiñe beçala, çuetaraiño heldu içan garenaz gueroz Jesuchristoren Evangelioa predicatcen dugula. [15] Ez gare beraz sobraniaz gloriatcen eta bertceren lanez, baiñan esperantça

14. Ala *atinuac*? Hau hobe, apika; elkarren gainean daude bi letrak.

dugu çuen fedea bethi eta gueroago eta guehiago berretuz goanen dela eta gure sailla hainitz urrunago ere hedatuco dugula, [16] Evangelioa predicatcen diotegula çuetaz haratago diren nacioneei, bertceren saillan ja landua denaz gloriatu gabe. [17] Gloriatcen dena, bada, gloria bedi Jauna baithan. [18] Ez da ecen bere burua preçatcen duena eguiazqui preçagarri dena, baiñan bai Jaincoac preçatcen duena.

XI. Cap.

[1] Nahi nuque paira bacineçate aphur bat ene erguelqueria! Bainan aitcitic paira naçaçue ere. [2] Jeloscor naiz naiz [15] ecen çuentçat Jaincozco jelosia batez, ceren fedaztatu baitçaituztet espos bati, ceina baida Jesuchristo, virgina garbi bat beçala çuec hari presentatceco. [3] Beldur naiz ordean sugueac Eva enganatu içan çuen beçala bere fineciaz, hala çuen izpirituac ere gaixta ez daitecen eta hastan Jesuchristoren araueraco simpletassunetic. [4] Ecen baldinetariac heldu çaitçuen batec predica balieçaçue guc predicatu ez darotçuegun bertce Christo bat, edo errecibi baciñeçate errecibitu içan duçuenaz bertce izpiritu bat edo bessarcatu duçuen Evangelioaz bertce bat, arroçoin cinduquete haiña pairatceco. [5] Uste dut ordean deussere gutiago ez dudala eguin Apostolu handienec baiño. [6] Ecen baldin ungui mintçatcen ikhassia ez banaiz ere, ordean ez naiz hala jaquintassunean; aitcitic gauça gucietan asqui eçagutuac gare çuetaz.

[7] Ala nasqui bekhatu eguin duquet neure burua beheratu içan dudanean çuec altchatcea gatic, ceren dohainic predicatu içan darotçuedan Jaincoaren Evangelioa? [8] Bertce Eliçac bulhuci içan ditut, hetaric bicitcecoa hartu baidut çuec cerbitçatceco estatuan içatea gatic. [9] Eta çuen artean ere beharrean nintcenean, ez natçayo nihori carga içatu, ecen escas nuenaz probeditu içan naute Macedoniatic ethorri ciren anayec; eta gauça gucietan beguiratu içan naiz eta beguiratuco ere naiz çuen carga içatetic. [10] Lekhuco hartcen dut Jesuchristoren eguia, ceiña ene baithan baida, gloria hori ez darotedala khenduco Akhaia gucian. [11] Eta cergatic? Çuec ez maite içanez? Jaincoac daqui hori. [12] Hori eguiten dut, bada, eta eguinen ere dut ez uztea gatic atcequiaric atcequia bilha dabiltçanei, gure berdin aguertu nahiz gloriatcen diren gaucetan. [13] Ecen halacoac Apostolu falsoac dire, eta languille enganiossac, Jesuchristoren Apostoluen iduria hartcen dutenac. [14] Eta ez da miresteco, Satanec berac ere hartcen ohi duenaz gueroz arguizco aingueruaren iduricundea. [15] Ez da, beraz, gauça handia haren cerbitçariec hartcen badute justiciaren ministroen iduria; hequien azquen fina ordean içanen da hequien obren araueracoa.

[16] Berriz ere diot: nihorc ez beça uste içan erhoa naicela, edo ezberen paira naçaçue erho bat beçala, ni ere aphur bat handiets nadin. [17] Erraterat nohana, ez dut Jaincoaren arauera erraten, bainan erhoqueriaz beçala gloriatceco hartcen dudan burupe huntan. [18] Hainitçac gloriatcen direnaz gueroz haraguiaren arauera,

15. Bi bider *naiz*, beharrik gabe.

handietsico naiz bada ni ere aria hortaz; [19] ecen cebonec çuhurrac baitçarete, pairatcen ditutçue gogotic çuhur ez direnac. [20] Pairatcen duçue ecen gathibutassunean eçar çaitçazten, irets çaitçazten, çuen ontassuna har dieçaçueten, naussi daquizquitçueten, macelacoz jo çaitçazten. [21] Ene ahalquerietan hori erraten dut, alde hortaric gu flacoegui içan baguiñe beçala.

Cer nahi gauçaz hetaric nihor atrebi dadin bere burua bantatcerat (erhoqui mintço naiz), ni ere atrebi naiteque bantatcerat. [22] Hebrearrac dire? Bai eta ni ere. Israeldarrac dire? Bai eta ni ere. Abrahamen ume dire? Bai eta ni ere. [23] Jesuchristoren cerbitçariac dire? (guiçon guti çuhur bat beçala mintço naiz). Bai eta ni guehiago; jassan baidut nekhe guehiago eta pressondegui guehiago; içan bainaiz cehatua cilhegui den baiño guehiago; icussi baidut neure burua asco aldiz hiltçat utcia. [24] Judutaren ganic bortz aldi differentez errecibitu içan ditut açote colpeac, aldian berrogoi bat guti. [25] Hirur aldiz içatu naiz cigorrez cehatua, behin içatu naiz harricatua, hiruretan galdu içan naiz itsassoan, gau bat eta egun bat eguin içan ditut itsassoaren ondoan. [26] Içan naiz maiz biyayetan, arribera gaiñean perilletan, ohoiñen ganic perilletan, ene nacionecoen ganic perilletan, paganoen perilletan, hirien erdian perilletan, bakhar lekhuetan perilletan, itsassoan perilletan, anaya falsoen artean perilletan; [27] lacerian eta miserian, beillatce hainitcetan, gossean eta egarrian, barurtcen hainitcetan, hotcean eta bulhuz içaten.

[28] Campoticaco diren horietaz landan, egunoroz barrendatua naducaten eguiteco dia [16]: Eliça guciez dudan artha eta griña. [29] Nor da flaco, non ez banaiz [17] ni ere harequien flacatcen? Nor da escandalisatua, non ez bainaiz erretcen hari? [30] Gloriatu behar bada ere, gloriatuco naiz ene humiliatceco diren gaucez. [31] Jaincoac, cein baida Jesuchristo gure Jaunaren Aita, seculacotz benedicatua dena, badaqui ez dudala gueçurric erraten. [32] Damasen [18] erregue Aretasentçat herri hartan manatcen çuenac, goardiac eçarriac cituen Damasco hirian ni presso hartceco. [33] Baiñan leyho batetaric sasqui batean erautsi içan ninduten murraillan behera eta hala escapatu nintcen haren escuetaric.

16. hots, *eginkizun piloa, mordoa.* Lhandek hau dakar: *ongiegiñ dia.*
17. *Bainaiz* behar du, hurrengo lerroan dagoenez.
18. *Damaskon*, alegia.

XII. Cap.

[1] Baldin gloriatu behar bada (segur ez baida behar ere), ethorrico naiz Jaunaren bisionetarat eta errebelacionetarat. [2] Badacusat guiçon bat Jesuchristo baithan orai duela hamalaur urthe hirurgarren ceruraiño eramana içan cena (bere gorphutçarequien othe ala gorphutça gabe, ez daquit hori; Jaincoac badaqui). [3] Eta badaquit guiçon hura (bere gorphutçarequien ala gorphutça gabe, ez daquit hori, Jaincoac daqui) [4] eramana içan cela paradisurat eta aditu içan cituela gauça mysterios batçu, ceiñetaz mintçatcea ez baitçayo cilhegui guiçon bati. [5] Halaco guiçon batez bai gloriatuco naiz; neure buruaz ordean ez naiz gloriatuco, neure flaquitatez baicen. [6] Hala ere, bada, nahi banu gloriatu, eguin ninteque erho içan gabe, ecen eguia erran neçaque. Baiñan guelditcen naiz, nihorc estima ez naçantçat ene baithan icusten duenaz edo nitaz aditcen duenaz guehiagocotçat.

[7] Bada errebelacione handi horiec eman ez dieçatedan gorapenic, eman içan çait ene haraguiaren akhuilloa, Satanen aingueru bat beçala niri macelacoca haritceco. [8] Horren gatic hirur aldiz Jauna othoiztu içan dut, arren khen ceçan hura ene ganic. [9] Eta ihardetsi içan darot: "Asco duçu ene gracia, ecen ene botherea guehiago aguertcen da flaquitatean". Gogotic beraz gloriatuco naiz ene flaquitateètan, egon dadintçat ene baithan Jesuchristoren botherea. [10] Hargatic çait lakhet neure flaquitateetan, iroietan, beharquiçunetan, presecucioneètan, Jesuchristo gatic jassaten ditudan hersturetan; noiz ere bainaiz ecen flaco, orduan naiteque botheretsu.

[11] Guiçon guti çuhur bat beçala mintçatu naiteque; çuec hortarat behartu nauçue. Ecen çuec behar ninduqueçuen laudatu, deussetan içan ez naicenaz gueroz Apostolu handienac direnez gutiago, deussere ez naicen arren. [12] Baiqui, ene apostolutassunaren seiñaleac eman içan darozquitçuet pairacortassun gucizco batez, miracuilluez, prodigioez eta jaincozco botherearen seiñaleèz. [13] Cer da ecen bertce Elicec baiño gutiago içatu duçuenic, baicen ni ez natçaitçuen carga içatu? Bidegabe hori barkha dieçadaçue. [14] Huna, hirur garren aldian heldu natçaitçue eta ez natçaitçue carga içanen, ez nabilla ecen çuenen ondoan, aitcitic bai çuen ondoan; ez dute ecen haurrec hari behar biltcen bere burassoentçat, baiñan bai burassoec haurrentçat. [15] Bada nic haguitz gogotic emanen dut dudan gucia, eta oraiño neure burua ere gaiñetic, çuen arimen gatic; nic çuec hain maite çaituztedalaric, çuec ni guti maitatcen banauçue ere.

[16] Bainan dela hala; ez natçaitçue carga içatu; ordean fina bainaiz, fineciaz nasqui atceman çaituzquetet. [17] Ala çuen ganat igorri içan ditudanetaric cembeitez acicatu içan othe çaituztet? [18] Othoiztu içan dut Tite çuen ganat goateaz, eta

igorri içan dut harequien gure anayetaric bat. Titec acicatu othe çaituzte? Ez gare Izpiritu berean ibilli eta urrats beretan?

[19] Ez othe duçue aspalditic uste gure buruen esencusatcen hari garela çuen alderat? Jaincoaren aitciñean mintço gaizquitçue Jesuchristo baithan eta horiec guciac, ene maite maiteac, çuen edificacionea gatic. [20] Beldur naiz ecen çuen ganat nathorquenean ez çaitçatedan aurkhi nahi nuquen beçalacoac, eta çuec ere ni ez naçaçuen aurkhi nahi cinduqueten beçalacoa. Beldur naiz badaitezquen çuen artean debadioac, jelosiac, ayercundeac, iharduquitceac, gaixqui errateac, baratalgoac, orguilleriac, altaramenduac; [21] eta berriz nathorrenean, humilia ez naçan Jaincoac çuen baithan, eta nigar eguin beharco dudan lehen eguiñicaco bekhatuez eta erabilli dituzten lohiqueriez, fornicacioneèz eta itsusqueriez penitencia eguin içan ez duten hainitcen gatic.

XIII. Cap.

[1] Huna hirur garren aldia çuen ganat heldu naicena. "Bi edo hirur lekhucoec erranen duquetenaren gaiñean jugeatuco dire gauça guciac". [2] Ja erran darotçuet, eta orai ere erraten darotçuet çuen artean banintz beçala, oraiño hor ez naicen arren, lehen bekhatu eguin içan dutenei eta bertce guciei, berriz ethortcen banaiz, ez diotedala barkhatuco. [3] Ala frogatu nahiz çabiltçate Jesuchristo ene baithan mintço denaren botherea, ceiña ez baida bada [19] flaco aguertu, baiñan aitcitic bai asqui botheretsu çuen artean? [4] Ecen gurutceficatua içan bada ere haraguiaren flaquitatearen arauera, ordean bici da Jaincoaren berthutez; gu ere, bada, flaco gare hura beçala, ordean bicico gare harequien batean Jaincozco berthutez çuen alderat.

[5] Examina çaitezte hea fedean çareten. Froga çatçue cebonec ceben buruac. Ala ez duçue eçagutcen cebonec Jesuchristo çuen baithan dela? Baldin nasqui erreprobatuac ez baçarete. [6] Esperantça dut ordean eçagutuco duçuela gu ez garela arbuyatcecoac. [7] Othoizten dugu bada Jaincoa, ez deçaçuen eguin deussere gaixquiric, ez gu approbatcecoac garela aguertcea gatic, baiñan bai çuec ungui dena eguin deçaçuen gatic, gu arbuyagarriac aguertuco bagare ere. [8] Ecen deussic ecin daguiquegu eguiaren contra, aitcitic bai eguiaren alde. [9] Eta atseguin ere dugu, ceren gu garen flaco, çuec berriz çareten sendo. Oraiño galdetcen ere duguna da çuen perfeccionea. [10] Hau darotçuet escribatcen çuequien ez naicelaric, hor naitequenean çorrotzquiegui balia ez nadin Jaunac edificatceco eta ez desseguiteco eman içan darotan bothereaz.

[11] Gaiñeracoan, ene anayac, çareten aleguera, çareten perfet, consola çaitezte, duçuen gogo bat eta bera, bici çaitezte baquean; eta baquearen eta amudioaren Jaincoa çuequien içanen da. [12] Saluta çaçue elkhar mussu saindu batez. Salutatcen çaituzte saindu guciec. [13] Jesuchristo gure Jaunaren gracia, Jaincoaren amudioa eta Izpiritu Sainduaren emaitça dela çuequien guciequien. Amen.

19. *Bada* hau alferrik dela esan behar. Ala juntagailu edo lotkailu deritzana ote da?

JONDONI PAULO
Apostoluaren guthuna
GALATIARREÌ

I. Cap.

[1] Pauloc, Apostolu naicenac ez guiçonen ganic ez eta guiçon batez, baiñan Jesuchristoz eta hura hilletaric biztu içan duen Jainco Aitaz, [2] eta enequien diren anaya guciec Galaciaco Elicei: [3] gracia eta baquea diçuela Jainco Aitac eta Jesuchristo gure Jaunac, [4] ceiñec eman içan baidu bere burua gure bekhatuen gatic eta gu atheratcea gatic mundu gaixcoatu huntaric gure Jainco eta Aitaren borondatearen arauera, [5] ceiñari bequio eman gloria mende gucietaco mendeetan. Amen.

[6] Miretsia nago nola, utciric Jesuchristoren graciarat deithu içan çaituztena, hain lauster aldaratcen çareten bertce Evangelio baterarat; [7] ez bada içanez bertceric, baiñan baidire jende batçuec altaratcen çaituztenac eta Jesuchristoren Evangelioa irauli nahi dutenac. [8] Baiñan gueronec predicatcen baguiñatçuegu [1] ere edo ceruticaco aingueru batec predicatcen balarotçue ere guc predicatu içan darotçuegun Evangelioaz bertce bat, biz anathema. [9] Erran dugun beçala berriz ere diot: Baldin nihorc predicatcen badarotçue çuec errecibitu içan duçuen Evangelioaz bertce bat, anathema içan dadillala. [10] Ecen orai guiçonac nahi dut alde daquizquidan ala Jaincoa? Ala guiçonen gogara egùin nahiz othe nabilla? Baldinetariac oraiño guiçonen gogaraco içaterat hari banintz, ez ninteque Jesuchristoren çerbitçari.

[11] Declaratcen darotçuet bada, ene anayac, nic predicatu içan darotçuedan Evangelioa ez dela guiçonen ganic heldu. [12] Ez dut ecen guiçon garaben ganic errecibitu ez ikhassi, baiñan bai Jesuchristoren errevelacionez. [13] Aditu duçue equi nola comportatu içan naicen lehenago judutalgoan; nola furiarequien persecutatcen nuen eta guducatcen Jaincoaren Eliça; [14] nola ichitcen [2] nituen Judutalgoan ene adineco eta nacioneco ciren bertce hainitz, zelo guehiago bainuen hec baiño ene aiten eracuspenentçat.

1. Hori idatzi du lehenik; gainean gero *–zau–* (ala *–rau–*?) ipini du, *guinarautçuegu* edo nahi balu bezala. Baina ikus *guiñarotçuen:* I Thesalon. III, 4. Hau Vulgatan "praedicebamus" da; hura [*evangelizemus*] esan gabe utzia, "angelus... evangelizet" tartekatua dagoelako.

2. *gainditzen,* alegia, edo *aitzinatzen;* Axularrek *chitcen.*

[15] Baiñan placer içan darotanean Jaincoac (ceiñec bereci içan bainau neure amaren sabelean danic eta deithu içan bainau bere graciaz) [16] eçagutaraci bere Semea predica nioçatentçat jentillei, ordu beretic eguin içan dut, egon gabe haraguiaren eta odolaren ganic conseillu hartcen. [17] Eta ez nintcen ere goan Jerusalemerat ni baiño lehen Apostolu cirenetarat; aitcitic goan nintcen Arabiarat eta guero berriz bihurtu nintcen Damaserat. [18] Ondoan hirur urtheren buruan goan nintcen Jerusalemerat Piarresen icusterat, eta egotu nintcen hamabortz egunez harequien. [19] Bertce Apostoluetaric ordean batere ez nuen icussi, Jacobe Jaunaren anaya baicen. [20] Escribatcen darotçuedan gaucetan Jaincoa da lekhuco ez darotçuedala gueçurric erraten. [21] Handic goan nintcen Syriarat eta Ciliciarat. [22] Judeaco Eliçec, bada, Jesuchristori çarraiztenec, ez ninduten eçagutcen icustez. [23] Choilqui çuten erraten aditu: "Lehenago gu persecutatcen guinituen hura, nozbeit guducatcen ohi çuen fedearen predicatcen hari da orai". [24] Eta Jaincoari cioten gloria ematen ene baithan eguin içan çuenaz.

II. Cap.

[1] Guero hamalaur urtheren buruan goan nintcen berriz ere Jerusalemerat Barnaberequien, harturic Tite ere enequien. [2] Goan nintcen bada errebelacione baten ariaz; eta jentillei predicatcen diotedan Evangelioa comunicatu nioten han cirenei, beregainqui ordean cerbeit cirela ciduritenei, beldurrez ecen alferric nindabillan edo ibilli içan nintcen. [3] Baiñan Tite enequien baitcen eta jentilla ere baitcen, ez çuten hertchatu circoncidatua içaterat. [4] Eta anaya falso batçu ichilca ethorriac sarthua gatic gure arterat Jesuchristo baithan dugun libertatea celatatcerat, gathibutassunean gu eçarri nahiz, [5] momentu bateco ere ez guiñoten eguin amorric eta ez guiñaizten beheititu, Evangelioaren eguia bethi bat eta bera içan dadin amorea gatic çuen artean. [6] Cerbeit cirela iduri çutenec, bada, (nolacoac içatu ditezquen noizbeit ez dohat niri deussic, Jaincoac ez dio behatcen presunen qualitateari), cerbeit cirela iduri çutenec, diot, niri ez darotet deussere iracatsi. [7] Aitcitic icussi çutenean niri eman citçaidala meçua circoncidatuac ez direnei Evangelioa predicatcecoa, hala nola Piarresi circoncidatuac direnei predicatcecoa, [8] (ecen Piarresen baithan haritu dena, hura circoncidatuac direnen Apostulu eguiteco, haritu da ene baithan ere ni jentillen Apostolu eguiteco), [9] eçagutu çutenean bada niri eman içan çaitan gracia, Jacobec, Cephasec, eta Joannesec, ceiñac aguertcen baitciren harroiñac beçala, escu emanic hartu guinituzten parçuner ni eta Barnabe, gu içateco jentillentçat eta hec circoncidatuac direnentçat. [10] Choilqui gomendatu çarocuten orhoit guintecen pobreez. Eta artha handi ere dut horren eguiteco.

[11] Ethorri cenean bada Cephas Anthiochiarat, bekhoquirat lehiatu nintçayoen, ceren falta baitçuen; [12] ecen Jacoberen ganic heldu ciren cembeit ethor citezquen aitcinetic, jaten çuen jentillequien; ordean hec ethorri gueroztic, aldaratcen cen eta hastantcen jentillen ganic, beldur baitcitçayen circoncisioneco cirenei. [13] Eta bertce gaiñeraco judutarrac ere jarri ciren hura beçala itchura bera eguiten, halaco moldez non erakharri baitçuten Barnabe bera ere hec beçala aleguia eguiterat. [14] Icussi nuenean bada ez cebiltçala chuchen Evangelioaren eguiaren arauera, erran nioen Cephasi gucien aitciñean: "Baldinetariac çu judutarra çarelaric jentillen antçura bici baçare eta ez judutarren antçura, nolatan hertchatcen ditutçu jentillac judualgorat?".

[15] Gu sortcez judutar gare eta ez jentilletaricaco bekhatorosac. [16] Baidaquigu ordean ez dela guiçona justificatcen leguearen obrez, baiñan bai Jesuchristo bai-

thango fedeaz, sinhetsi ere[3] dugu Jesuchristo baithan justificatuac içatea gatic Jesuchristo baithango fedeaz eta ez leguearen obrez; ceren eta guiçon garabic ez baida justificatua içanen leguearen obrez. [17] Baldiñetariac Jesuchristo baithan justificatuac içan nahiz gabiltçala aurkhitcen bagare gueroni ere behkatoros, beraz Jesuchristo bekhatuaren ministre liteque? Ez horlacoric. [18] Baldiñetariac ecen desseguin dudana berriz eguiten badut, neure burua prebaricatçaille errendatcen dut. [19] Ecen ni legueaz beraz hill natçayo legueari, Jaincoarentçat baicen ez guehiago bicitceco. Jesuchristorequien batean gurutceficatua içan naiz. [20] Bici naiz, bada, ez gaur guehiago ni, baiñan Jesuchristo bici da ene baithan. Eta orai hunela haraguian bici naicena ere, Jaincoaren Semearen fedeaz bici naiz, ceiñec maitatu içan bainau eta eman içan baidu bere burua ene gatic. [21] Ez dut arbuyatzen Jaincoaren gracia. Baldinetariac ecen leguetic heldu bada justicia, beraz alferric hill içan da Jesuchristo.

3. Bi hitzok besteen gainean idatziak daude eta ez batere garbi.

III. Cap.

[1] O galatar çoratuac! Norc charmatu içan çaituzte eguiari ez obeditceco, eman çaitçuen ondoan beguien aitciñean Jesuchristo çuen erdian gurutceari josia? [2] Hau choilqui nahi dut jaquin çuen ganic: leguearen obrez errecibitu duçue Izpiritu Saindua ala fedea entçuteaz? [3] Hain erhoac çarete, non Izpirituaz hassi ondoan orai haraguiaz akhabatcen baiduçue? [4] Alferric bada hambat pairatu duçueque? Baldin behintçat alferric eguin baduçue. [5] Izpiritu Saindua eman darotçuenac eta miracuilluac çuen artean eguiten dituenac, leguearen obrez ditu eguiten ala predicatcen aditu duçuen fedeaz?

[6] Escribatua den beçala: "Abrahamec sinhetsi içan du Jaincoaren hitcean eta condatu içan çayo hori justiciatçat". [7] Eçagutçaçue, beraz, fedearen ume direnac direla Abrahamen umeac. [8] Icussiric bada Jaincoac fedeaz cituela justificatuco nacioneac, erran içan dio aitciñetic Abrahami escriturac dioena: "Benedicatuac içanen dire çure baithan nacione guciac". [9] Beraz fedetic direnac içanen dire benedicatuac Abraham fidelarequien.

[10] Ecen leguearen obrei datchaiztenac madaricionearen azpian ditezque, escribatua denaz gueroz: "Madaricatua diteque leguearen liburuan escribatuac diren guciac eguiterat cinqui ez dagoen gucia". [11] Bada legueaz nihor ez dela justificatua Jaincoaren aitciñean, gauça da agueria; ceren justua fedeaz bici baida. [12] Leguea ordean ez deitchaico[4] fedeari; aitcitic harc dio: "Horiec eguiten dituena bicico da horietan". [13] Jesuchristoc erossi içan gaitu leguearen madaricionetic, bera gure gatic madaricione eguin içanic, escribatua denaren arauera: "Madaricatua da çurean urkhatua den gucia". [14] Abrahami eman citçayoen benedicionea jentilletarat hel cedintçat Jesuchristo baithan eta aguinduricaco Izpiritua errecibi deçaguntçat fedeaz.

[15] Ene anayac, (guiçoncara mintço naiz): alabaiñan guiçon baten testamenta molde onean eguiña denean, nihor[5] ez deçaque hauts ez gambia. [16] Abrahami eguin çaizco aguintçac "eta haren haciari". Ez da erraten: "eta haren haciticacoei", hainitz balire beçala; baiñan batean balego beçala, "eta çure haciari", erran nahi da Christori. [17] Huna bada cer diodan: Jaincoac berac eguin eta indarztatu içan duen

4. Lhandek *daitzi, deitzi* dakar guk *jatzi, jetzi* (*behiak* edo) dioguna; horren *nor-nori* adizkia dirudi. Vulgatak: "non est ex fide"; Leizarragak: "eta leguea ezta fedetic". Ala *atxeki* aditza ote da? Nekez. Ikus, beste askoren artean, hurrengo kapituluan 17. bertsoa.

5. *nihorc* behar luke.

testamenta laur ehun eta hogoi eta hamar urtheren ondoan eman içan den legueac ez ahal du hausten haren aguintça ezeztatua guertha daitequen beçala. [18] Ecen baldin heredalgoa leguetic heldu baçaicu, ez çaicu beraz aguintçatic heldu. Ordean Abrahami aguintçaz eman içan baidio Jaincoac.

[19] Certaco da beraz leguea? Hobenen gatic da ifinia, ethor citequen artean sorthu behar çuen hura, ceiña gatic eguiña baitcen aguintça: eta legue hura aingueruez içan ere da emana bitarteco baten escuz. [20] Bada arartecoa ez da batena; Jaincoa ordean ez da bat baicen. [21] Leguea beraz Jaincoaren aguintcen contracoa othe da? Ez horlacoric. Baldinetariac ecen leguea eman içan balitz bicia eman ahal ceçaquen beçala, eguiazqui leguetic ethor liteque justicia. [22] Baiñan guciac ditu çarratu Escriturac bekhatuaren azpian, Jaincoac aguindua Jesuchristoren fedeaz eman cequiotentçat haren baithan sinhexten dutenei. [23] Ordean fedea ethor citequen baiño lehen, leguearen azpian guiñaudecen çarratuac eta beguiratuac, aguerthu behar çuen fede haren goithan [6]. [24] Hala legueac naussi batec beçala gaitu guidatu Jesuchristo ganat, fedeaz justificatuac içan gaitecentçat. [25] Ordean ethorri gueroztic fedea, ez gare guehiago naussi baten eracuspenen azpian, [26] gucioc ecen Jaincoaren haurrac çarete Jesuchristo baithango fedeaz. [27] Ecen Jesuchristo baithan bathayatuac içan çareten gucioc Jesuchristoz bestituac çarete. [28] Ez da gaur guehiago judutarric ez grecoric; ez da gathiburic ez libro denic; ez da guiçonic ez emasteric. Gucioc gauça bat eta bera çarete Jesuchristo baithan. [29] Baldiñetariac bada Jesuchristorenac baçarete, beraz Abrahamen umeac çarete eta aguintçaren arauez primuac.

6. *zain* edo *begira,* alegia.

IV. Cap.

[1] Diot bada herederoa haur deino ez dela deussetan berecia cerbitçaria ganic, gucien jaun eta jabe den arren. [2] Aitcitic hartaz eta haren eguitecoez artha dutenen botherearen azpian da haren aitaz exleyitua den demborarairño. [3] Halaber gu ere haurrac guiñenean gathibu beçala bici guiñen munduari eracutsi içan çaizcon lehenbicico eracuspenen azpian. [4] Ordean complitu içan direnean demborac, igorri içan du Jaincoac bere Semea emazte baten ganic sorthua, leguearen azpico eguiña, [5] leguearen azpian cirenac erresquetatcecotçat eta gu adopcioneco ume eguitecotçat. [6] Ceren çareten bada umeac, igorri içan du Jaincoac çuen bihotcetarat bere Semearen Izpiritua, ceiñec oihu eguiten baidu: Aita, Aita. [7] Beraz gaur guehiago çuetaric nihor ez da sehi, baiñan bai ume. Baldinetariac ume bada, halaber heredero ere da Jaincoaren graciaz. [8] Eguia da: lehenago ez baitcinduten eçagutcen Jaincoa, cerbitçatcen cintuzten [7] jainco batçu berenez jainco ez direnac. [9] Orai ordean eçagutcen baiduçue Jaincoa, eta are aitcitic, eçagutuac baitçarete Jaincoaz, nolatan itçultcen çarete berriz icascari herbal eta pobre hetarat, ceiñen azpico nahi baiduçue jarri berriz ere gathibu batçu beçala? [10] Egunen beguiratcen hari çarete eta ilhabetheen eta urtheen. [11] Beldur naiz çuetaz ez othe naicen alferric trabaillatu çuen artean.

[12] Içan çaitezte ene alderaco ni çuen alderaco naicen beçala: othoitz eguiten darotçuet, ene anayac. Deussetan ez nauçue egundaiño offensatu. [13] Badaquiçue bada lehenago Evangelioa predicatu darotçuedanean, haraguiaren lacerien eta persecucioneen artean eguin içan darotçuedala, [14] eta ez nauçuela mezpreçatu içan, ez arbuyatu ene haraguian soffritcen nituen humiliacione horien gatic ere; aitcitic hartu içan nauçue Jaincoaren aingueru bat beçala, Jesuchristo bera beçala. [15] Non da bada orduco çuen dohatsutassuna? Ecen lehkucotassun hau errenda dieçaqueçuet, possible içan balitz çuen beguiac iraciric emanen cinarozquitedala. [16] Ala etsai eguin natçaitçue, ceren eguia erran darotçuedan? [17] Borthizqui datcheizquitçue, ez ordean çuen onetan; aitcitic hastandu nahi çaituzte gure ganic, hei borthizqui çatchaizcoten amorea gatic. [18] Baiñan çuec duçuen lehia onecotz, bethiere ungui eguiteco, eta ez choilqui ni çuen artean present nauçuenean. [19] Ene haurtchoac, ceinez berriz ere erditceco miñetan bainaiz, formatua içan daitequen artean Jesuchristo çuen baithan. [20] Nahi nuque bada oraintche çuequien içan eta mudatu ene hizcuntça, ceren khechu bainaiz çuentçat.

7. Hots, *zenituzten:* "serviebatis"; ik. beheraxeago *cintuzqueten* (IV, 17).

[21] Erran dieçadaçue leguearen azpico içan nahi duçuenec: leguea ez duçue iracurri? [22] Escribatua da ecen Abrahamec bi seme içan dituela, bata nescatoa ganic eta bertcea libroa cena ganic. [23] Ordean nescatoa ganicacoa haraguiaren arauera sorthua cen; libroa ganicacoa berriz aguintçaren berthutez sorthua. [24] Hauc allegoriaz erranac dire, ecen horiec bi testamentac ditezque: bata Sinaico mendicoa, esclaboac eguiten dituena, eta hura diteque Agar; [25] ecen Sina mendi bat da Arabiacoa, Jerusalem oraicoari ihardesten dioena, ceiña gathibu baida bere umeequien. [26] Ordean gaineco den Jerusalem hura libroa da eta hura da gure ama. [27] Escribatua da ecen: "Boz çaite, agorra, haurric eguiten ez duçuna; ilkhi çaite bozcariozco deihagoretan, erditceco minic ez duçuna, ceren haur guehiago baidu utcia cenac ecen ez senharra duenac". [28] Gu bada, ene anayac, Isaac beçala aguintçaco haurrac gare. [29] Eta nola orduan haraguiaren arauеraco sorthu cenac persecutatcen baitçuen Izpirituaren arauеraco cena, gauça bera guerthatcen da orai ere. [30] Ordean cer dio Escriturac? "Khen çatçu nescatoa eta bere semea; ez da ecen nescatoaren semea primu içanen libro denaren semearequien". [31] Bada, ene anayac, gu ez gare nescatoaren semeac, baiñan bai libro denarenac. Eta Jesuchristoc ardietsia dugu libertate hori.

V. Cap.

[1] Çaudete hortan, eta ez çaiteztela berriz jar gathibutassuneco uztarriaren azpian. [2] Huna nic Pauloc diotçuedana: baldiñetariac circoncidatcen baçarete, Jesuchristo deussentçat ez baitçaitçue baliatuco. [3] Declaratcen diot bada berriz ere bere burua circoncidaracitcen duen guiçon guciari, obligatua ditequela legue guciaren complitcerat. [4] Gabetu çarete Jesuchristoz legueaz justificatu içan nahi çareten guciac. Graciatic erori çarete. [5] Guc behintçat fedearen berthutez dugu esperantça errecibituco dugula Izpiritu Saindua ganic justicia. [6] Ecen Jesuchristo baithan balio duena ez da circoncidatua içatea, ez eta circoncidatua ez içatea ere, baiñan bai caritatez obratcen duen fedea.

[7] Ungui ciñabiltçaten. Norc gueldiaraci çaituzte eta debecatu eguiari obeditcetic? [8] Gogoramendu hori ez da çuec deithu çaituztena ganic heldu. [9] Altchagarri guti batec mintcen ohi du orhe gucia. [10] Ni fida naiz çuetaz Jaunarequien batean ez duçuela içanen bertcelaco sentimenduric, baiñan çuec altaratcen çaituztenac ekharrico du horren pena, nor ere baida hura. [11] Bada nic, ene anayac, baldinetariac oraiño circoncisionea predicatcen badut, ceri dagocola bada horrenbertce persecucione dut jassaten? Beraz akhabo da gurutcearen escandala? [12] Ochala ebaquiac ere balire çuec altaratcen çaituztenac.

[13] Çuec ecen libertaterat deithuac çarete, ene anayac; choilqui beguirautçue libertate hori balia ez daquiçuen estacurutçat haraguiaren arauera bicitceco; aitcitic lagun çaçue elkhar Izpirituzco caritatez. [14] Ecen legue gucia çarratua da hitz bakhar hautan: "Maitatuco duçu çure lagun proximoa çure burua beçala". [15] Baldiñetariac elkhar aussiquitcen eta jaten hari baçarete, beguirautçue batçu bertceez destruituac guertha ez çaitezten. [16] Erraten darotçuet bada: ibil çaitezte Izpirituaren arauera, eta ez ditutçue eguiñen haraguiaren nahicarac. [17] Haraguia ecen guticiatcen da Izpirituaren contra; Izpiritua berriz ɬehiatcen da haraguiaren contra; eta hala batac bertceari contra eguiten diote halaco moldez, non ez baiditutçue eguiten nahi cintuzqueten gauçac.

[18] Baldinetariac Izpirituac baçarabiltçate, ez çarete leguearen azpian. [19] Agueriac ditezque bada haraguiaren obrac, ceiñac baidire fornicacionea, lohiqueria, ahalque galtcea, banagunea, [20] idolatria, poçoaztatcea, etsaicoac, iharduquitceac, jelosiac, ayhercundeac, liscarrac, targoac, heresiac, [21] invidiac, guiçon hiltceac, hordiqueriac, debochqueriac eta bertce hunelacoac, ceiñetaz erraten baidarotçuet, jadan erran ere darotçuedan beçala, horlaco gauçac eguiten dituztenec Jaincoaren Erresuma ardietsico ez dutela. [22] Aitcitic Izpirituaren fruituac ditezque caritatea,

bozcarioa, baquea, pairacortassuna, eztitassuna, prestutassuna, irauncorgunea, [23] mansotassuna, fedea, modestia, continencia, castitatea. Horlaco direnen contra ez da legueric. [24] Bada Jesuchristoren direnec gurutceficatu duquete bere haraguia bere bicioequien eta bere guticiequien. [25] Baldin Izpirituz bici bagare, Izpirituz ibill ere gaitecen. [26] Ez gaitecen içan banagloriaren guticia, elkhar tarritatcen dugula, elkharri bekhaizten gaizcola.

VI. Cap.

[1] Ene anayac, baldinetariac norbeit erori içan bada ustegabez cembeit faltetan, çuec izpiritual çaretenec emotçue avisu onac emetassunezco Izpiritu batean, beguiraturic batbederac bere buruari, beldurrez ecen çu ere tentatua içan ez çaitecen. [2] Jassan çatçue batçuc bertceen cargac, eta horla complituco duçue Jesuchristoren leguea. [3] Ecen baldin nihorc uste badu cerbeit dela deussic ez delaric, bere burua enganatcen du. [4] Batbederac examina betça bere obrac eta horla ez da gloriatuco bere baithan denaren ariaz baicen, eta ez bertceac direnaren ariaz, [5] ecen batbederac bere carga jassanen duque. [6] Fedearen gaucen ikhasten hari denac, bada, lagun beça bere ontassunetaric molde guciez irakhasten hari çayoena. [7] Ez çaiteztela engana, ez da ceren Jaincoaz trufatu. [8] Ecen cer ere ereiñ baiduque guiçonac, eta hura du bilduco; hala bere haraguian duenac ereiten bilduco du haraguitic ustelgunea; Izpirituan ereiten duenac berriz Izpiritutic bilduco du bicitce eternala. [9] Ez gaitecela beraz unha ungui eguiteaz, ecen bilduco dugu fruitua bere demboran, unhatcen ez bagare. [10] Hala dembora duguiño eguiotegun ungui guciei, beregaingui ordean fedeco egoquiei.

[11] Icussaçue cer buthun escribatu darozquitçuedan neure escu propioz. [12] Ecen norc ere haraguiaren arauera munduaren gogaraco nahi baidute içan, eta hec hertchatcen çaituzte circoncisionea errecibitcerat; eta hori choilqui Jesuchristoren gurutceari datcheicon persecucionea ez pairatcea gatic. [13] Non hala ez den, circoncisionea hartcen dutenec berec ere leguea ez dute beguiratcen. Baiñan çuec circoncisionea har deçaçuen nahi dute, çuen haraguiaren ariaz burupe içatea gatic. [14] Nitaz denaz beçambatean, Jaincoac beguira naçala handiestetic deussez ere bertcez, baicen Jesuchristo gure Jaunaren gurutceaz, ceinetaz mundua gurutceficatua baida enetçat eta ni bainaiz munduarentçat. [15] Ecen Jesuchristo baithan circoncidatua içateac ez du deussic eguiten, ez hain guti circoncidatua ez içateac; baiñan creatura berri bat içateac eguiten du gucia. [16] Eta cein ere erreguela huni jarraiquico baitçaizco, eta hequientçat diteque baquea eta misericordia, bai eta Jaincoaren Israelentçat ere. [17] Gaiñeracoan ez nihorc niri damuric eguin; ecen nic Jesus Jaunaren imprençuac ene gorphutcean dakharzquet. [18] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela, ene anayac, çuen Izpirituarequien. Amen.

JOND. PAULO

Apostol. guthuna

EPHESIARREI

I. Cap.

[1] Paulo Jaincoaren nahiz Jesuchristoren Apostolu denac, Jesuchristo Jauna baithan Ephesan diren fidel guciei eta sainduei: [2] gracia diçuela eta baquea Jainco gure Aitac eta Jesuchristo Jaunac.

[3] Benedicatua dela Jaincoa Jesuchristo gure Jaunaren Aita dena, ceiñec issuri içan baiditu gure gaiñerat ceruetaric benedicione izpiritual suerte guciac Jesuchristo baithan. [4] Hala nola bereci içan baigaitu haren baithan munduaren creacioneaz aitciñetic, içan guintecentçat saindu eta tatcha gabeco haren beguietan caritatearen bidez, [5] eta ceiñec predestinatu içan baigaitu gu bere ume orde eguiteco Jesuchristoz, bere nahiac eman dioen arauera, [6] laudarioa eta gloria gueldi daquioen amorea gatic haren graciari, ceinetaz bere gogaraco eguin içan baigaitu bere Seme maitea baithan, [7] ceiñaren baithan aurkhitcen baidugu erresquetamendua haren odolaz eta eta [1] bekhatuen barkhamendua haren graciaren aberatstassunen arauera, [8] ceiñetaric gaindi eraguin baidu gure baithan çuhurtcia eta prudentcia suerte gucietacotçat, [9] aguertcea gatic guri bere borondatearen misterioa, bere placer onaren arauez, ceiñetan deliberatu baitçuen bere baithan [10] dembora exlegituac bethe citezquenean berestaturaco cituela guciac Jesuchristo baithan, nahiz ceruan direnac, nahiz lurrean direnac, guciac haren beraren baithan, [11] ceinaren baithan halaber gu ere baigare deithuac heredalgorat, predestinatuac içanic gauça guciac bere nahiaren eta chedearen arauera eguiten ohi dituenaren ordenuz, [12] haren gloriaren laudoriotaco içan gaitecen amorea gatic gu lehendanic Jesuchristo baithan esperantça içan dugunac. [13] Eta haren baithan cebonec ere entçun duçuen ondoan eguiazco hitça, çuen salbamenduco Evangelioa, eta sinhetsi içan duçuen ondoan, içan çarete ciguillatuac aguinduricaco Izpiritu Sainduaz, [14] ceiñ baida gure primeçaren bahia, Jesuchristoc bere gloriaren laudoriotan conquestaturicaco populuaren librantça perfeteraiñocoan.

1. Bitan idatzi du.

[15] Horri dagocala neroni ere adituric Jesus Jauna baitan duçuen fedea eta Saindu gucien alderat duçuen amudioa, [16] ez naiz guelditzen Jaincoari esquerrac çuentçat bihurtcetic, çuetaz orhoitcen naicelaric neure othoitcetan, [17] Jainco Jesuchristo gure Jaunaren Aita gloriosoac eman dieçaçuençat çuhurtciazco eta arguizco izpiritua haren eçagutceco, [18] argui detçan, arren, çuen bihotceco beguiac; jaquin deçaçuentçat cer esperantça duçuen içateco hartaz deithuac çaretenec, nolacoac diren harc sainduei destinatu daroen primeçaren aberastassunac eta gloria, [19] eta nolacoa den haren botherearen handitassun soberanoa sinhexten dugunen gainean, bere botherearen eta indarraren eraguintçaren arauera darabillana, [20] ceiña eracutsi içan baidu Jesuchristoren pressunan, hura hilletaric biztean eta jarraracitcean ceruetan bere escuiñeco aldean, [21] principalitate guciez, bothere guciez, berthute eta dominacione guciez gorago; eta ez choilqui mende huntan, baiñan oraiño ethorquiçunecoan ere aipha ahal ditezquen icen guciez gorago. [22] Eman içan ere diotça gauça guciac bere oiñen azpian eta eman içan dio bera buruçaguitçat Eliça guciari, [23] ceiña baida haren gorphutça eta gucia gucietan complitcen duenaren compligune ossoa.

II. Cap.

[1] Harc eman darotçue bicia çuei ere, hillac ciñetelaric ceben hobenez eta ceben bekhatuez, [2] ceiñetan noizbeit ibilli içan baitçarete mundu hunen ohitçaren arauera, airetaco bothereen prince haren, orai ere sinhets gogortassunezco umeen gaiñean hari den izpiritu haren, nahicaretarat. [3] Gucioc ere bada nozbeit desordenu beretan bici içan gare gure haraguiaren guticien arauera, haraguiaren nahicarac eta gogoac galdetcen çarocuna eguiten guinduela; eta guiñen gure sortcez coleraren ume, bertceac beçala. [4] Ordean urricalmendutan aberats den Jaincoac maitatu içan gaituen amudio sobraniazcoaren ariaz, [5] gure bekhatuez hillac guiñaudecen orduan bicia eman darocu Jesuchristo baithan, ceiñaren graciaz baitçarete salbatuac. [6] Biztu ere gaitu Jesuchristorequien eta jarraraci ceruan haren pressunan, [7] eracusteagatic ethorquiçuneco mendeetan bere graciaren aberatstassun gaindizcoac, Jesuchristo baithan guretçat içatu duen ontassunaz. [8] Graciaz çarete ecen salbatuac fedearen bidez, eta hori ez da çuen ganic heldu, Jaincoaren dohain bat da ecen. [9] Eta ez obretaric ere, nihorc buruperic ez duentçat. [10] Haren obra gare ecen, Jesuchristo baithan creatuac obra onetan, ceiñac aphaindu içan baiditu Jaincoac, hetan ibill gaitecentçat.

[11] Hargatic bada çareten orhoit, nola lehenago gentillac baitcineten ethorquiz, eta circoncidatu gabeac erraten baitçarotçuen, haraguiaren guiçonen escuz eguinicaco circoncisione baten ariaz circoncidatuac daritçatenec. [12] Dembora hartan Christo gabe baitcineten, Israelen baltsatic aldaratuac, aguintçazco alientcietaric atce, mundu huntan esperantçaric eta Jaincoric gabe bici ciñetenac. [13] Baiñan Jesuchristo baithan baitçarete, noizbait Jaincoa ganic urrun cinetenac hurbildu içan çarete Jesuchristoren odolaz. [14] Hura da ecen gure baquea, biac bat eguin içan dituena; bien arteco pareta eta cerraillua, hequien arteco etsaigoa, bere haraguian hautsi içan duena; [15] manamendu diazco [2] leguea bere ordenantcez khendu içan duena, bi populuez eguitea gatic bere baithan guiçon berri bakhar bat, baquea eguiñic; [16] eta biac gorphutz batean errecontciliatcea gatic Jaincoarequien bere gurutceaz, hequien etsaigoa desseguinic bere baithan. [17] Ethorriric bada iracatsi içan darotçue baquea çuei, Jaincoa ganic urrun cinetenei, eta baquea hurbill cirenei ere. [18] Ceren eta hartaz baidugu batçuc eta bertcec hurbiltcea Aita ganat Izpiritu berean.

2. Hala irakurtzen dut: ik. 2 Kor. XI, 28.

[19] Beraz gaur guehiago ez çarete arrotçac eta atceac, bainan çarete sainduen herritarrac eta Jaincoaren egoquideac, [20] bastituac baitçarete Apostoluen eta profeten cimenduaren gaiñean, ceinetan Jesuchristo bera baida cantoineco harri principala, [21] ceinaren gaiñean paussatua içanic edificio gucia altchatcen baida Jaunarentçat templu saindu bat eguiteraiñocoan. [22] Eta çuec ere, gentillac, sartcen çarete edificio hartan Jaincoaren egoitça içateco Izpiritu Sainduaz.

III. Cap.

[1] Aria hortaz naiz ni, Paulo, Jesuchristoren pressonyer çuec gentillac gatic, [2] baldiñetariac behintçat aditu içan baduçue mintçatcen çuen ariaz eman içan çaitan Jaincoaren graciaren ministerioaz. [3] Errevelacione batez eracutsi içan baitçait misterioa, hitz gutitan escribatcetic heldu naicen beçala. [4] Eta iracurtcean eçagut ahal deçaqueçue ere nolaco jaquintassuna dudan Jesuchristoren misterioan, [5] ceiña bertce demboretan ez baida eçagutua içatu guiçonen umeez, orai Izpiritu Sainduaz Apostoluei eta profetei eracutsi içan çayen beçala: [6] gentillac primuquide direla eta gorphutz bereco juduequien eta parçuner Jaincoaren aguintcetan Jesuchristo baithan Evangelioaz, [7] ceiñen ministre eguin içatu bainaiz Jaincoaren graciaren dohaiñez, ceiña eman içan baitçait haren botherearen operacionez.

[8] Baiqui niri saindu gucien arteco mendreenari eman içan çait gracia hori, gentillen artean iracasteco Jesuchristoren aberatstassun ecin comprenituzcoac, [9] eta guciei aguian [3] eracusteco, cer maneraz dispensatua içatu den misterio hori, hambat mende danic gordea cena gauça guciac eguin dituen Jaincoa baithan, [10] ceruetaco principalitateec eta bothereec eçagut deçatentçat Eliçaz Jaincoaren çuhurtcia, bere manayuaren ordenu differentetan hain miragarri dena, [11] Jesuchristo gure Jaunaz complitu içan duen chede eternalaren arauera, [12] ceinetan baidugu haren baithan dugun fedeaz burupe eta fidantcia Jaincoa ganat hurbiltcecoa. [13] Hargatic çaituztet othoizten ez daquiçuen gogoa hill nic çuen ariaz pairatzen ditudan lacerien gatic, horrec eguiten baidu çuen gloria.

[14] Horri dagocala jartcen naiz belhaurico Jesuchristo gure Jaunaren Aitaren aitciñean, [15] ceiña ganic baidu icena aitatassunaren omena duen guciac, bai ceruan eta bai lurrean, [16] eman dieçaçuentçat bere gloriaren aberatstassunen arauera bere Izpirituan indarrezco berregune bat guiçon barrenecoarentçat. [17] egon dadintçat fedeaz Jesuchristo çuen bihotcetan, eta çuec caritatean erroac eguinic eta fincaturic, [18] compreni deçaqueçuentçat saindu guciequien, cericacoa den misterio hunen çabaltassuna, lucetassuna, goratassuna eta barrentassuna, [19] eta eçagut deçaçuentçat halaber Jesuchristoren amudioa, eçagutça guciez goragocoa, betheac içan çaitezten amorea gatic ossoqui Jaincoaz.

[20] Guciac eguin ahal detçaquenari, bada, guc galdetcen edo pensatcen dugun baiño francoquiago, are gure baithan obratcen duen bothereaz, [21] eman daquioela gloria Eliçan Jesuchristoz ondoren-ondo adin gucietan eta mende gucietan. Amen.

3. Ez ote *arguian*? Vulgatak "illuminare".

IV. Cap.

[1] Othoitz eguiten darotçuet, bada, nic Jauna gatic gathetan naicenac, arren ibil çaitezten çuen deyari eta bocacioneari dagocon becala, [2] gauca gucietan eracusten duçuela humiltassun, emetassun eta pacientcia handi bat, elkhar jassaten duçuela caritaterequien, [3] ardura duçuelaric çuen izpirituac bat eguinac iduquitceco baquearen lokharriz, [4] çareten gorphutz bat eta izpiritu bat, esperantça bererat deithuac çareten beçala, [5] eta jaun bat baicen, fede bat baicen eta bathayo bat baicen ez den beçala, [6] Jainco bat baicen, eta hura gucien Aita, gucien gaiñetic dena gucien artean eta gu gucien baithan dena.

[7] Gutaric betbederari, bada, eman içan çaicu gracia Jesuchristoren emaitçaren neurriaren arauera. [8] Hargatic da errana: "Iganic goiti, gathibu eraman içan du gathibudia eta eguin darozte emaitçac guiçonei". [9] Eta cergatic da errana igan içan dela, baicen ceren jautsi içan baitcen lehenago lurraren toqui beherenetarat? [10] Jautsi içan den hura bera da igan ere içan dena ceru guciez gorago, gauça guciac complitcea gatic. [11] Eta harc berac eguin içan ditu batçu Apostolu, bertceac profeta, bertceac evangelista, bertceac berriz artçain eta iracatçaille [4], [12] sainduac ossoqui gai errendatcea gatic ministerioco lanen eguitecotçat eta Jesuchristoren gorphutçaren edificioa moldatcecotçat, [13] hel gaitecen artean gucioc bat eguiterat sinhexte berean, eta Jaincoaren Semearen eçagutçan içaterat guiçon perfet baten estatuan eta ardiexterat Jesuchristoren adin complituaren neurria; [14] gaur guehiago ibill ez gaitecen cordocan haur batçu beçala, eta erabill ez gaitçaten harat hunat dotrinetaco haice gucietarat enganaturic guiçonec bere maleciaz eta nihor enganioan arthiquitceco duten antcez; [15] aitcitic eguia dugularic predicatcen caritatez, handi gaitecentçat gauça gucietan Jesuchristo baithan, ceiña baida gure burua eta gure buruçaguia; [16] ceiña ganic gorphutz guciac bere çathitan ungui moldatua eta ungui jossia denac hec elkhar iretcheiquitceco eta entretenitceco behar diren josgune guciez, membro bakhoitchari dagocon neurriaren araueraco eraguintça baten berthutez hartcen baidu bere berretcaria, edificioa akhaba dadintçat caritateaz.

[17] Erraten darotçuet, bada, eta abisatcen çaituztet Jaunaren icenean, ez çaitezten guehiago ibill gentillac beçala, ceiñac baidarraizco bere gogoaren vanitateari, [18] ceiñec ilhunbez goibeldua baidute izpiritua, ceiñac urrunduac baidire ossoqui Jaincoaren bicitcetic, bere jaquingabetassuna eta bihotceco itsumendua dela causa, [19] ceiñac etsi etsia eman baitçaizco lohiqueriari eta jarri baidire accione liçun

4. Hor *–cas–* behar zen noski: ik. *irakhatsçaille* (I Timoth. II, 7).

gucien eguiterat lehiacarrean beçala. [20] Çuec ordean ez çarete horla iracatsiac içatu Jesuchristoren escolan, [21] baldin behintçat entçun içan baduçue hortaz erran içan çaitçuena eta baldin, eguia Jesusen baithan den beçala, haren ganic ikhassi baduçue [22] eraunsten çuen lehenagoco bicitcean ohi ciñarabillaten guiçon çaharra, bere nahicaraco enganioei jarraiquiz corrumpitcen ohi dena.

[23] Erreberri çaitezte, bada, gogoz eta izpirituz [24] eta jauntz çaçue guiçon berria, ceiñ creatua içan baida Jaincoaren arauera eguiazco justician eta eguiazco saindutassunean. [25] Hala utciric gueçurra, mintça çaitezte guciac eguiaz çuen lagun proximoarequien, ceren elkharren membroac baigare. [26] Hassarratcen çaretenean beguirautçue bekhatu eguitetic. Iguzquia ez dadillala etcin çuen hassarraduraren gaiñean. [27] Ez demoçuela deabruari sarpideric. [28] Ebasten ohi çuenac ez beça guehiago ebats; aitcitic trabailla bedi bere escuz cerbeit lan onetan, içan deçantçat beharrean denari emateco ere. [29] Hitz gaixtoric batere ez bedi ilkhi çuen ahotic, aitcitic ilkhitcen diren guciac içan beitez onac fedearen borthitzteco, entçuten dituztenei inspira dioçatentçat jaincotiartassuna. [30] Eta beguira duçuela tristatcetic Izpiritu Saindua, ceinetaz baitçarete seinalatuac ciguillu batez beçala erresquetamenduco egunecotçat. [31] Khen çuen artetic çumindura guciac, colera eta ayhercunde guciac, liscar eta gaixqui errate guciac, finean malecia guciac; [32] aitcitic içan çaitezte elkhar ganat amultsu eta urricalmendutsu, elkharri barkhatcen dioçuelaric Jaincoac çuei ere Jesuchristo baithan barkhatu darotçuen beçala.

V. Cap.

[1] Çareten bada Jaincoaren imitatçaille haur maite batçu beçala. [2] Eta ibill çaitezte amudioan eta caritatean, Jesuchristoc ere gu maitatu içan gaituen beçala eta bere burua gure gatic eman içan duen beçala, offrenda bat beçala eta Jaincoaren gogaraco den urrin onezco bictima bat beçala. [3] Cithalqueriaric ordean, ez eta lohiqueriaric batere edo abariciaric ez bedi aipha ere çuen artean, sainduen artean aiphatu behar ez den beçala. [4] Ez hain guti dadin adi hitz liçunic, erhoric edo escarniozcoric, ceiñac ez baidagozquitçue ungui, aitcitic bai esquerren errendatcecoric. [5] Jaquin çaçue ecen hau: lohiric batere, ez cithalic, ez abariciosic, ceiñen bicioa idolatria bat beçala baida, ez dela içanen Jesuchristoren eta Jaincoaren Erresumaren primu. [6] Nihorc ez çaitçatela engana hitz erguelez; gauça horien gatic ecen erortzen ohi da Jaincoaren colera presuna sinhetx gaitzen gaiñerat.

[7] Ez çaiteztela beraz jar hequien baltsaco. [8] Noizbeit ecen ilhumbeac ciñeten, orai ordean argui çarete Jauna baithan. Ibil çaitezte arguiren [5] ume batçu beçala. [9] Arguiaren fruitua bada dago ontassun, justicia, eta eguia suerte gucietan. [10] Lehia çaitezte eçagutcerat cer den Jaincoari agradatcen çayoena. [11] Eta ez çaiteztela balsa ilhunbetaco obra fruitu gabeetan, aitcitic condena çatcitçue; [12] ecen jende hec ichillic eguiten dituzten gauçac erratea ere itsussi liteque. [13] Condenatceco diren guciac bada arguiac ditu aguerraratcitcen, ecen aguertcen den gucia argui diteque. [14] Hargatic da errana: "Jaiqui çaite lo çauntçana, ilkhi çaite hillen artetic eta arguituco çaitu Jesuchristoc". [15] Duçuen beraz artha, ene anayac, ibiltceco goita handirequien; ez çoroac beçala, [16] baiñan bai presuna çuhurrac beçala dembora erosten duçuela, ceren egun gaitzac baidire.

[17] Hargatic bada ez çaiteztela içan erguel, aitcitic jaquin çaçue eçagutcen cer den Jaincoaren nahia. [18] Beguirautçue arno sobra edatetic, ceinetaric heldu ohi baida lohiqueria; aitcitic bethe çaitezte Izpiritu Sainduaz, [19] mintço çaretelaric ceben artean psalmuz, hymnoz eta cantu izpiritualez, cantu horiec eta psalmu horiec heltcen diotçatçuela Jaunari çuen bihotcetan; [20] esquerrac ematen diotçatçuela bethiere eta gauça guciez Jesuchristo gure Jaunaren icenean Jainco Aitari; [21] elkharri beheititcen çaiztela Jesuchristoren beldurtassunean.

[22] Emasteac içan beitez bere senharrei sumetituac Jaunari beçala, [23] ceren eta senharra emastearen buruçagui baida, Jesuchristo Eliçaren buruçagui den beçala. Halaber haren gorphutçaren ere salbatçaille da. [24] Nola bada Eliça baida Jesu-

5. Hala dio hemen eta hurrengo lerroan *arguiaren*.

christoren manuco, hala içan beitez emasteac ere gauça gucietan bere senharren manuco.

[25] Senharrac, maita çatçue ceben emasteac Jesuchristoc Eliça maitatu duen beçala, bere burua eman içan baidu haren gatic, [26] hura santificatcea gatic garbituric urezco bathayoan bicitcearen hitçaz, [27] eta hura agueraratcitcea gatic bere aitcinean gloriaz bethea, narrayoric ez cimurduraric, ez bertce horlacoric ez duquen beçala; aitcitic saindu eta erranquiçunic gabe ditequen beçala. [28] Hala senharrec ere maitatu behar dituzte bere emasteac bere gorphutz propialac beçala. Bere emastea maitatcen duenac, bere burua maitatcen duque. [29] Nihorc ecen ez du gaitzesten bere haraguia, aitcitic hazten du eta mainatcen Jesuchristoc ere Eliça eguiten duen beçala. [30] Ceren haren gorphutceco miembroac baigare, haren haraguiticacoac eta haren heçurretaricacoac.

[31] Horri dagocala utcico ditu guiçonac bere aita eta ama, eta atchequico dio bere emasteari eta içanen dire biac haragui bat eta bera. [32] Sacramendu hori handia da, diot Jesuchristo baithan eta Eliça baithan. [33] Horlatan beraz çuetaric batbederac maita beça bere emastea bere burua beçala; emasteac berriz ekhar bioça beldurtassun eta errespetu bere senharrari.

VI. Cap.

[1] Haurrac, obedi çatçue çuen burassoac Jauna gatic, justu da ecen hori. [2] "Ohora çatcitçu çure aita eta çure ama", hori da manamenduetaric lehena Jaincoac saria aguindu dioquena, [3] ungui hel daquiçuntçat eta bicitce lucetaco içan çaitecentçat lurraren gaiñean. [4] Eta çuec, aitac, beguirautçue çuminaracitcetic çuen haurrac; aitcitic duçuen ardura hec ungui altchatceco, correjitcen ditutçuelaric eta instruitcen Jaunaren arauera. [5] Sehiac, obedi çatcitçue haraguiaren arauez naussi ditutçuenac beldurtassunequien eta ikhararequien, çuen bihotceco simplicitatean, Jesuchristo bera beçala. [6] Ez beha dagozquitçuenean choilqui ditutçuelaric cerbitçatcen, guiçonen gogara eguin nahi bacindute beçala, baiñan bai Jaincoaren nahia bihotcez eguiten duçuelaric Jesuchristoren cerbitçari beçala, [7] gogo onez cerbitçatcen ditutçuelaric, Jauna bera eta ez guiçonac cerbitçatcen bacinituzte beçala, [8] daquiçuelaric batbederac cer ere ungui eguin baiduque, eta haren saria duela içanen Jauna ganic, ala den esclavoa ala den libroa. [9] Eta çuec, naussiac, gauça bera eguioçue hei, utciric mehatchuac, daquiçuelaric hequien eta çuen naussia dela ceruan eta ez dela haren baithan presunen berezguneric.

[10] Gaiñeracoan, ene anayac, borthitz çaitezte Jauna baithan eta haren berthute guciz botheretsuan. [11] Jauntz çaçue Jaincoaren armadura, atchiq ahal deçaçuentçat deabruaren arteen contra. [12] Ecen ez dugu borrocatceco haraguiaren eta odolaren contra, baiñan bai principalitateen eta bothereen contra; mundu huntaco, erran nahi da, mende ilhunbetsu huntaco naussien contra, airetan dabiltçan izpiritu gaixtoen contra. [13] Hargatic beraz har çaçue Jaincoaren armadura, egun gaitxean atchiq ahal deçaqueçuentçat tiesso guciez probedituac çaudeztelaric. [14] Çaudezte beraz cinqui, çuen guerrian guerricotçat duçuela eguia eta jacatçat jauzten duçuela justicia, [15] oiñetacoac jauntciric prest egotea gatic baquearen Evangelioa predicatcerat goateco.

[16] Gucien gainetic harturic fedearen broquela, izpiritu gaixtoaren tragaça suztatu guciac iraungui ahal detçaquetçuentçat. [17] Har çaçue salbamenduco casqueta ere eta izpirituzco ezpata, cein baida Jaincoaren hitça, [18] othoitz eta errequerimendu suerte guciez çagozcotelaric Jaincoari dembora gucietan Izpirituz, atçartassun eta iraupen gucizco batequien eguiten duçuela othoitz saindu gucientçat [19] eta enetçat ere, Jaincoac ahoa idequiric eman dieçadantçat Evangelioaren misterioa libroqui predicatceco hitça, [20] ceiñentçat mandataricoan hari bainaiz gatheetan ere, hartaz mintça nadintçat ausartciarequien.

[21] Daquizquitçuentçat ere bada ene eguitecoac eta cer hari naicen, Tychico

gure anaya maiteac eta Jaunaren cerbitçari fidelac guciez jaquintsun eguinen çaituzte. [22] Eta hortacotz berecotçat igorri ere dut çuen ganat, jaquin deçaçuentçat cer iragaten den alde huntan eta consola detçantçat çuen bihotçac. [23] Baquea eta caritatea fedearequien demotela gure anayei Jainco Aitac eta Jesuchristo Jaunac. [24] Gracia dela Jesuchristo gure Jauna muda ez daitequen amudioz maitatcen duten guciequien. Amen.

J. PAULO
Apost. Guthuna
PHILIPPEARREI

I. Cap.

[1] Pauloc eta Timotheoc Jesuchristoren cerbitçariec Jesuchristo baithango saindu Philipen diren guciei aphezpicuequien batean eta diacreequien: [2] gracia dela çuequien eta baquea Jainco gure Aita ganic eta Jesuchristo gure Jauna ganic. [3] Esquerrac diotçat ematen ene Jaincoari çuetaz orhoitcen naicen gucian, [4] bethiere ene oracione gucietan çuentçat gucientçat bozcariorequien othoitz eguiten dudalaric, [5] Jesuchristoren Evangelioan lehenbicico egunetic oraidaraiñocoan hartcen duçuen parteaz. [6] Eta hortaz fida ere naiz obra on hori çuen baithan hassi içan duena ez dela guelldituco akhabatcetic Jesuchristoren eguneraiño, [7] arroçoin den beçala sentimendu hori içan deçadan çuetaz guciez, ceren bihotcean baitçaituztet ene bozcarioan, guciec parte hartcen duçuena gatic ene gatheètan, ene defendatcean eta Evangelioaren confirmatcean parte hartu içan duçuenaren arauez. [8] Ecen Jaincoa dut lekhuco cein amultsuqui maite çaituztedan Jesuchristoren errayetan. [9] Eta nic eguiten diodan othoitça da çuen caritatea gueroago eta guehiago berretuaz dohan jaquintassun eta eçagutça gucietan, [10] jaquin deçaçuentçat eçagutcen hoberen ditequena, içan çaiteztentçat garbi eta ibill çaiteztentçat Jesuchristoren eguneraiño trebecuric eta behaztoparic gabe; [11] içan çaiteztentçat justiciaren fruituz betheac Jesuchristoz Jaincoaren gloriaco eta laudoriotaco.

[12] Nahi dut bada jaquin deçaçuen, ene anayac, ni hunela içatea are Evangelioaren aitciñamenducotçat guerthatu içan dela, [13] halaco maneraz, non ene gatheac famos eguin baidire emperadorearen gorthe gucian, eta Romaco bertce habitant gucien artean Jesuchristoren gloriaco. [14] Eta gure Jauna baithan gure anaya direnetaric hainitz, ene gatheèn ariaz fidos errendaturic, hauçu içan baidire ausarquiago eta beldurcunderic gabe iracasterat Jaincoaren hitça. [15] Batçuc bada invidiaz eta lehiaz predicatcen dute Jesuchristo, bertceèc ordean chede onez. [16] Batçuc eguiten dute caritatez, jaquinic ecen Evangelioaren deffendatceco ifinia içan naicela; [17] bertceèc berriz lehiaz dute predicatcen Jesuchristo eta ez chede garbiz, ustez ecen ene gatheac dorpheago bihurtuco dituztela.

[18] Baiñan cer antsia da? Nolanahi ere Jesuchristo predica deçaten, ala occasionez, ala eguiazco celo batez, nic atseguin dut hortaz eta bai içanen ere. [19] Ba-

daquit ecen hori ene salbamenduco baliatuco çaitala çuen othoitcez eta Jesuchristoren Izpirituaren sargunez, [20] iduriquitcen eta esperantça dudan beçala deussetan ez naicela ahalcatua içanen; aitcitic fida naiz haguitz bethiere beçala orai ere glorificatua içan [1] dela Jesuchristo ene gorphutcean, nahiz ene biciaz nahiz ene heriotceaz. [21] Ene bicia ecen Jesuchristo da eta hiltcea enetçat irabacia da. [22] Baldin haraguian bicitceaz cerbeit probetchu heldu baçait ere, ene trabaillutic ez daquit cer hauta. [23] Hersturan naiz alabaiñan bi aldetaric, nahi bainuque ilkhi hemendic eta Jesuchristorequien içan, hobeago ere bainuque hainitcez; [24] egon nadin ordean haraguian mengoa da çuentçat.

[25] Eta hau guerthuqui badaquit: egonen naicela oraiño eta egonen ere dembora lucez çuec guciequien çuen aitcinamendutan eta çuen fedearen bozcariotan, [26] berriz çuen ganat nathorquenean içan deçaçuentçat nitaz gueroago eta guehiago glorificatceco lekhu Jesuchristo baithan. [27] Duçuen choilqui artha Jesuchristoren Evangelioari dagocon beçala ibiltceco; edo ethorriric çuen icusterat edo çuen ganic urrun içanic, adi deçadantçat Izpiritu berberean eguiñac çaudeztela eta gogo berez elkharrequien trabaillatcen çaretela Evangelioaren fedearentçat, [28] deussetan icitu gabe çuen contra declaratcen direnen essayuen [2] gatic, cein baida hequientçat galtceco suyet bat, çuentçat berriz salbatcecoa; eta hori Jaincoa ganic heldu da. [29] Ecen harc eguin darotçuen gracia bat da, ez choilqui sinhexten baiduçue Jesuchristo baithan, baiñan oraiño pairatcen ere baiduçue haren gatic; [30] gudu berean aurkhitcen çarete ecen, ceiñetan icussi içan bainauçue ni eta aditcen baiduçue naicela orai ere.

1. Hemen ere, aurreko lerroan bezala, *içanen* behar zen segurki; Vulgatak ere *magnificabitur* dio.
2. Ez ote *etsayen*? Vulgatak *ab adversariis* dio.

II. Cap.

[1] Baldin bada, beraz, consolacioneric batere Jesuchristo baithan, baldin bada caritatezco soleiumenduric, baldin bada Izpirituzco batassunic, baldin bada gure artean amudioric eta urricalmenduric batere, [2] compli çaçue ene bozcarioa guciac elkharrequien bat eguiñac egonez, guciec caritate bera, gogo bera, sentimendu berac içanez, [3] deussere eguiten ez duçuelaric lehiazco izpirituaz, ez vanagloriaz; aitcitic humilltassunez, batbederac bera baiño guehiagocotçat bertceac iduquitcen ditutçuela, [4] batbederac behatcen diotela ez bere intres propioei, bainan bertceènei.

[5] Sar çaitezte hortaracotz Jesuchristoc içan dituen sentimendu beretan, [6] ceiñec Jaincoaren iduria eta içatea duelaric, ez baidu uste içan arrapatce bat ditequela harentçat Jaincoaren berdin içatea, [7] ceiñec bizquitartean ezdeussetaratu içan baidu bere burua, esclauoaren iduria harturic, guiçonen idurico eguiñic eta guiçonen condicione bereco aguerturic. [8] Beheratu içan du bere burua, obedient eguiñic hiltceraiñocoan; ordean gurutce baten gaiñean hiltceraiñocoan. [9] Hargatic altchatu içan ere du Jaincoac eta eman içan dio icen bat, icen gucien gaiñeco dena, [10] Jesusen icenean belhaurica ditecentçat ceruan, lurrean eta ifernuetan diren guciac, [11] eta mihi guciec aithor deçatentçat Jesuchristo Jauna dela Jainco Aitaren glorian.

[12] Hala, ene maiteac, bethiere obedient içatu çareten beçala, duçuen artha ez choilqui ni present nauçuenean, baiñan are guehiago ni urrun nauçuenean, beldurtassunequien eta ikhararequien çuen salbamendua eguiten haritceco. [13] Jaincoa da ecen çuen baithan eraguiten duena nahia eta bai eguitea bere nahiaren arauez. [14] Gauça guciac eguitçue bada erassiaric eta herabetassunic gabe, [15] içan çaiteztentçat erranquiçunic gabetaco eta garbi, Jaincoaren ume ecin erreprenituzcoac, nacione gaixto eta bihurri baten erdian, ceiñen artean arguitcen ohi baiduçue arguiçaguiec munduan beçala; [16] bicitcearen hitça conserbatcen duçuelaric Jesuchristoren egunean, ene gloria içan dadintçat ez naicela alferric ibilli lausterca, ez alferric trabaillatu. [17] Bainan ene odola issuri behar nuquela ere çuen fedearen vitimaren eta sacrificioaren gaiñerat, atseguin dut eta bozten naiz çuec guciequien. [18] Halaber çuec ere boz çaitezte eta aleguera çaitezte enequien batean.

[19] Esperantça dut bada Jesus Jauna baithan Timotheo lauster igorrico darotçuedala, ni ere descansa nadintçat çuen berriac jaquinic. [20] Ez baidut nihor enequien hain gogo berdiñetaco denic, ez hain bihotz garbiz çuentçat intressatcen denic; [21] guciac ecen bere intres propialei darraizte eta ez Jesuchristorenei. [22] Hura ordean ja frogaturic eçagutcen duçue, enequien Evangelioaren predicacionean çerbitçatcen hari içan denaz gueroz, seme batec bere aita cerbitçatcen duen beçala.

[23] Hura bada esperantça dut igorrico darotçuedala neure eguitecoei dreçu eman dioquetedan beçain sarri. [24] Fida naiz bada Jauna baithan neroni ere ethorrico natçaitçuela lauster icusterat.

[25] Bizquitartean mengoa iduritu çait cela igor dieçaçuedan Epaphrodite ene anaya, ene trabailluetan eta ene guduetan lagun içan dudana, çuen apostolu ere dena, eta ene beharquiçunetan cerbitçatu içan nauena. [26] Ceren çuen gucien icusteco desira baitçuen, eta damu baitçuen ceren aditu cinduten eri cela. [27] Ecen eguiazqui eri içatu da eta hill hurrena; ordean Jaincoac urricari içatu du, eta ez hura choilqui, baiñan ni ere, tristecia tristeciaren gaiñean içan ez neçantçat. [28] Hargatic bada lausterrago darotçuet igorri, hura icusteaz berriz boz çaitezten gatic eta neure burua griñatic campoan ematea gatic. [29] Errecibi çaçue beraz Jauna baithan ahal den bozcario guciarequien eta horlaco pressunac ohora çatcitçue; [30] ecen Jesuchristoren obra gatic içatu da hill hurrena, bere bicia emanic çuen aldetic escas nuen cerbitçua çuen orde niri bihurtceco.

III. Cap.

[1] Gaiñeracoan, ene anayac, boz çaitezte Jauna baithan. Gauça berac çuei escribatcea ez çait niri nekhe eta çuentçat necessario ere da. [2] Beguirautçue oçarretaric, beguirautçue languille gaixtoetaric, beguirautçue circoncisione falsotic; [3] gu garen [3] ecen circoncisionea, gu Izpirituz Jaincoa cerbitçatcen dugunac, gure gloria Jesuchristo baithan ematen dugunac eta haraguian fidantciaric ez dugunac; [4] nic badudan arren certaz haraguian ere burupe har. Baldinetariac cembait bertcec uste badu baduela certaz har burupe haraguiaren partetic, nic ere guehiago duquet. [5] Circoncidatua içan bainaiz cortci garren egunean, Israelen castatic bainaiz, Benjaminen leiñuticacoa, hebrearra hebrearretaric ethorria, legueari behatcen çaizten gaucetan pharisaua; [6] zeloz bethea içan naicena Jaincoaren Eliça persecutatceraiñocoan, leguearen araueraco justician erranquiçunic gabe bicitcea eraman dudana.

[7] Ordean irabaci bat beçala ohi naduzcan gauça horiec orai Jesuchristoren ariaz caltetçat daduzcat. [8] Eta are gauça guciac daduzcat calte batentçat Jesuchristo ene Jaunaren eçagutça exelentaren ariaz, ceinaren amorea gatic guciei ukho eguin baidaroet eta behatcen baidaroet ongarriari beçala, Jesuchristo irabaz deçadantçat, [9] eta aurkhi nadintçat haren baithan ez leguetic nuen justiciarequien, baiñan Jesuchristo baithango fedetic heldu denarequien, Jaincoa ganic fedeaz heldu den justicia harequien; [10] eçagutcea gatic Jesuchristo, haren phiztearen berthutea eta haren soffricarietan dudan partea, haren heriotcearen antçura eguin içanic, [11] aguian helduco naicelacoan hillen arteticaco phizte dohatsurat; [12] ez bada ja heldu naicelacotz hartaraiño edo ja perfet naitequelacotz, bainan banarrayo nolazbeit atcemanen dudalacoan, eta Jesuchristo, harc ni hartu içan nauen beçala.

[13] Ez, ene anayac, ez dut uste oraiño ardietsi duquedala, bainan gauça bat da: guibeletic ditudanac ahantciric eta aitciñean ditudanen ardiesterat lehiaturic, [14] lauster eguiten baidut harchederat, atcematea gatic ceruco dohatsutassuna, ceiñetarat Jaincoac deithu içan baigaitu Jesuchristoz.

[15] Perfet garen guciac beraz gaudecen sentimendu hortan; eta baldin cerbeitetan bertcela uste baduçue, Jaincoac arguituco çaituzte horren gaiñean ere. [16] Bizquitartean ja ardietxi içan ditugun eçagutcez denaz beçambatean, gaudecen sentimendu beretan eta erreguela berean. [17] Ene anayac, çareten ene imitatçaille eta beha dioçoçue gure baithan icussi içan duçuen moldearen arauera dabiltçanei. [18] Badire ecen hainitz bertcela dabiltçanac, ceinetaz maiz erran içan baidaro-

3. *Gare* soila behar luke.

tçuet, eta orai ere nigarra beguian dudala erraten, Jesuchristoren gurutcearen etsayac direla, [19] ceinen akhabantça içanen baida damnacionea; ceinen Jaincoa baida sabela; ceinec bere gloria ibentcen baidute bere ahalqueria propioan; ceinen gogo gucia baidatça lurreco gaucetan. [20] Gure gogoa ordean eta conbertsacionea ceruan da eta handic iguriquitcen ere dugu Salbatçaillea, Jesuchristo gure Jauna, [21] ceiñec gambiatuco baidu gure gorphutz ezdeussa molde berri batetarat, bere gorphutz gloriosoaren idurico eguiterainocoan, gauça guciac ere bere manuco eguin ahal detçaquen eraguintça haren indarraz.

IV. Cap.

[1] Hala beraz, ene anaya maiteac, ene desiren harchedea, ene bozcarioa eta ene khoroa çaretenac, çaudezte horla cinqui Jauna baithan, ene maiteac. [2] Othoizten dut Evodia eta errequeritcen dut Sintiche, arren içan daitecen gogo beretaco Jauna baithan. [3] Othoixten çaitut, ene lagun fidela; lagun çatcitçu emastequi hec, ceinac trabaillatu içan baidire enequien Evangelioaren cerbitçuan Clementequien eta ene bertce lagunequien batean, ceiñen icenac bicitceco liburuan baiditezque.

[4] Boz çaitezte bethi Jauna baithan; berriz ere diot, boz çaitezte. [5] Çuen modestia içan bedi eçagutua guiçon guciez. Jauna hurbill da. [6] Ez duçuela deussen grinaric, aitcitic othoitcetan eta oracionetan jartcen çareten gucian esquer onequien batean aguer beitez çuen galdeac Jaincoaren aitcinean. [7] Eta Jaincoaren baque, gogoeta guciac ichitcen dituenac, beguira detçala çuen bihotçac eta çuen Izpirituac Jesuchristo baithan.

[8] Gaineracoan, ene anayac, cer ere baidire eguiaquide, cer ere honest, cer ere justu, cer ere saindu, cer ere maitagarri, cer ere baidire fama ona ekhartcen dutenac, berthute diren guciac, eracuspenetaco laudagarri diren guciac, hec beitez [4] çuec gogoan darabilquetçuenac. [9] Nola ere iracatsi baitçaitçue eta ikhassi baiduçue, nola ere aditu baiduçue nitaz erraten eta icussi ere baiduçue ene baithan, eta hala eguiçue, eta baquearen Jaincoa çuequien içanen diteque. [10] Atseguin handi bat içan dut bada Jauna baithan, ceren noizbeit bederen erreberritu diren enetçat ohi cinituzten sentimenduac; bethiere bada bihotcean cinituzten, ordean bertce gauez [5] ciñeten occupatuac.

[11] Ez dut hau erraten deussen behar içanez, ecen ikhassi dut aurkhitcen naicen estatuaz content içaten. [12] Badaquit behera içaten eta badaquit franquian bicitcen ere; gucietan ikhassia naiz eta gucietarat eguiña. Badaquit asse içaten eta gossea pairatcen, franquian içaten eta gabea pairatcen. [13] Guciac ahal ditçaquet indarztatcen nauena baithan. [14] Hala ere ungui eguin duçue, ene behaçunean parte hartu baiduçue.

[15] Badaquiçue equi, Philipaco çaretenac, Evangelioa predicatcen hastean Macedoniatic partitu nintcenean, Eliça batec ere ez darotala eguin parte bere ontassunetaric eta deussere ez dudala içatu, choilqui çuen ganic baicen. [16] Thessalonicarat igorri içan baidarotaçue behar nuena behin eta bietan. [17] Ez bada eman dieçada-

4. Aurrean aditz-errorik gabe? Bai ote? Ikus *içan beitez* (I Tim. III, 11).
5. *Gaucez* esan nahiko zuen.

çuedan nahiz; aitcitic nic bilhatcen dudana da hortic çuei heldu çaitçuen fruitua, ceiñec handituco baidu çuen obra onez Jaincoac atchequitcen duen contua. [18] Orai hemen ditut igorri darozquidatçuen guciac, eta franquian naiz. Bethea naiz ontassunez, eman baidarozquit Epaphroditec escutarat çuec igorri içan darozquidatçuedanac, urrin onezco emaitça bat beçala Jaincoaren gogaraco eta ungui hartceco den sacrificio bat beçala.

[19] Ene Jaincoac bada bethe detçala çuen desira guciac bere aberatstassunen arauera eta diçuela bere gloria Jesuchristoz. [20] Jainco gure Aitari daquioela eman gloria mendetaco mende gucietan. Amen. [21] Saluta çatcitçue saindu guciac Jesuchristo baithan. [22] Enequien diren anayec, goraintci. Orobat saindu guciec; beregainqui ordean Cesaren etchecoec. [23] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuen izpirituarequien. Amen.

J. PAULO
Apostoluaren Guthuna
COLOSSIARREI

I. Cap.

[1] Paulo, Jaincoaren nahiz Jesuchristoren Apostoluac, eta Timotheo bere anayac [2] Colossan diren sainduei eta fidelei, Jesuchristo baithango gure anayei: [3] gracia eta baquea dela çuequien Jainco gure Aita ganic eta Jesuchristo gure Jauna ganic. Esquerrac diotçagu ematen Jaincoari, Jesuchristo gure Jaunaren Aitari, eta bethi diogu çuentçat othoitz eguiten, [4] adituric Jesuchristo baithan duçuen sinheztea eta saindu gucientçat duçuen caritatea, [5] ceruetan çuentçat daudecen onen esperantçan, ceiñen eçagutça ja içan baiduçue Evangelioco eguiaren hitçaz, [6] ceiña heldu içan baida çuetaraiño mundu gucian predicatua den ançura berean, ceinetan ekhartcen baidu fruitu eta berretcen baida, çuen baithan eguin den beçala, Jaincoaren gracia aditu içan duçuen egunaz gueroztic eta eçagutu eguiaren arauera, [7] nola baiduçue ere ikhassi Epaphra gure lagun maite eta cerbitçariquidea ganic, cein baida çuentçat Jesuchristoren ministro fidel bat, [8] eta ceiñec eçagutaraci baidarocu çuen caritate izpirituzcoa.

[9] Horren gatic gu ere jaquintsun hortaz eguin içan garen ordutic, ez gare guelditcen çuentçat othoitz eguitetic eta Jaincoari galdetcetic, arren bethe çaitçaten bere nahiaren eçagutçaz eta eman dieçaçuen çuhurtcia gucia eta izpiritualeco [1] jaquintça gucia, [10] ibill çaitezten amorea gatic Jaincoari dagocon beçala, lehiatcen çaretelaric gauça gucietan haren gogaraco içaterat, obra on suerte gucien fruituac ekhartcen ditutçuela eta Jaincoaren eçagutçan aitcinatcen çaretela; [11] içan çaiteztentçat indarrez betheac haren bothere gloriossoaren arauez, guciac pairatcen ditutçuelaric iraupenequien eta bozcariorequien, [12] esquerrac ematen diotçotçuelaric Jainco Aitari, ceiñec argui eguinic gai eguin baigaitu sainduen çorthean parçuner içateco, [13] ceiñec athera içan baigaitu illhumbetaco botherearen azpitic, eta eraman bere Seme maitearen erresumarat, [14] ceiña baithan baiduquegu erresquetamendua haren odolaz, bai eta ere bekhatuen barkhamendua,

[15] ceina baida Jainco ecin icus daitequenaren imagina, creatura guciac baiño lehen jayoa. [16] Ecen haren baithan eguiñac içan dire gauça guciac cerucoac eta

1. Gezurra badirudi ere, halaxe dio. Hemen bakarrik?

lurrecoac, icusten direnac eta icus ecin daitezquenac; ala thronuac, ala dominacioneac, ala principalitateac, ala bothereac, guciac hartaz eta haren baithan içan dire creatuac. [17] Bera guciac baiño lehenagocoa da eta guciec haren baithan dute içatea. [18] Hura da ere Eliçaren gorphutceco buruçaguia, hura da hastapena eta hillen arteticaco lehen jayoa, gucietan lehentassuna atchiq deçantçat. [19] Aitaren atseguiña içan baida gauça gucien bethetassuna haren baithan ematea [20] eta hartaz guciac baquetcea berequien, harc gurutcean issuri içan duen odolaz baquearaciric nahiz lurrean direnac eta nahiz ceruan direnac.

[21] Cebonec ere noizbeit hastanduac ciñetenac Jaincoaganic eta haren etsayac, gogoa obra gaixtoetarat emana içanez, [22] orai ordean baquearaci içan çaituzte heriotceaz bere gorphutz haraguizcoan, çuec eguitea gatic saindu, garbi eta erratecoric gabeco bere aitciñean, [23] baldin behintçat fedean ungui fundatuac eta fincatuac egoten baçarete, behiñere higuitu gabe esparantça eman darotçuenetic aditu içan duçuen Evangelioac [2], ceiña predicatua içan baitçaye ceruaren azpian diren creatura guciei, eta ceíñaren ministre eguin içatu bainaiz ni Paulo,

[24] orai atseguin dudana çuen gatic pairatcen ditudan gaitzez eta neure haraguian complitcen ditudana Jesuchristoren soffricarien gaiñeracoac haren gorphutça gatic, ceiña baida Eliça, [25] ceiñaren ministro eguin içatu bainaiz Jaincoac çuen alderacotz eman içan darotan meçuaren arauera, Jaincoaren hitçari behatcen çayoena compli deçadantçat, [26] predicatcen darotçuedalaric misterioa, mende gucietan eta adin gucietan estalia içatu dena eta orai eracutsia içan çayena haren sainduei, [27] ceiñei eçagutaraci nahi içan baidiote Jaincoac cer diren misterio horren gloriaren aberatstassunac gentillen baithan, cein baida Jesuchristo çuentçat gloriaren esparantça. [28] Eta hura darotçuegu predicatcen, guiçon guciac abisatcen ditugularic eta guciei iracasten diogutelaric çuhurtcia gucizcoan, guiçon guciac eguitea gatic perfet Jesuchristo baithan. [29] Hortan trabaillatcen naiz ere, guduan ari naicela ene baithan botheretsuqui obraracitcen duen berthutearen arauera.

2. "Immobiles a spe evangelii, quod audistis": hots, bere hitzez esateko, "higuitu gabe, aditu içan duçuen Evangelioac eman darotçuen esparantçatic". Baina *ceiña* Ebanjelioa baita, eta ez esperantza, erabat irabiatu du perpausa.

II. Cap.

[1] Nahi dut ecen jaquin deçaçuen ceiñ griña eta ardura handia dudan çuentçat, Laodicean direnentçat, bai eta haraguizco gorphutz huntan egundaiño icussi içan ez nauten gucientçat ere, [2] consolatuac içan daitecen gatic hequien bihotçac eta, elkharrequien bat eguiñac içanic caritatez, içan daitecen gatic betheac jaquintça perfet baten aberatstassun guciez, eçagutceco Jainco Aitaren misterioa eta bai Jesuchristorena, [3] ceiña baithan baidire çuhurtciaren eta jaquintassunaren tresor guciac gordeac.

[4] Hau erraten dut bada nihorc engana ez çaitçaten gatic solhas sothillez eta goratiarrez, [5] ecen gorphutcez urrun banaiz ere, izpirituz ordean çuequien naiz, atseguinequien icusten dudalaric çuen artean den ordenu ona eta cein ciñezcoa den çuec Jesuchristo baithan duçuen sinhextea. [6] Hala beraz ibill çaitezte Jesuchristo gure Jauna baithan hartaz iracatsi içan çaitçuenaren arauera, [7] erroac eguiñic eta cimenduac harturic haren baithan, borthizten çaretelaric iracatsi içan çaitçuen fedean, eta francoqui eta perfetqui haren baithan esquerrac ematen ditutçuelaric.

[8] Beguirautçue nihorc atceman ez çaitçaten philosophiaz eta arroçoinamendu banoez eta enganiossez, guiçonen asmuen araueraco munduco jaquintçaren principioen araueracoez eta Jesuchristoren arauera ez direnez; [9] ecen haren baithan datça jaincotassunaren bethetassun gucia corporalqui [10] eta baditutçue gauça guciac mucuru haren baithan, ceiña baida principalitate eta bothere gucien buruçaguia, [11] ceiña baithan baitçarete circoncidatuac ere, ez circoncisione escuz eguinicaco batez, gorphutceco haraguitic ebaquitcez, baiñan Jesuchristoren circoncisioneaz. [12] Ehortciac içan baitçarete bathayoaz harequien, ceina baithan halaber biztu içan baitçarete sinhexteaz Jaincoac biztu içan duela hilletaric bere botherearen eguincariz. [13] Ecen cuec ere hillac ciñaudeztenean ceben bekhatuetan eta çuen haraguiaren circoncidatu gabean, bizaraci içan çaituzte Jesuchristoc berequien çuen bekhatu guciac barkhaturic.

[14] Urratu içan du gure contra guinduen cedula eta borratu ossoqui gure condenacionetaco meçua, itçaturic hura bere gurutceari. [15] Eta bulhuciric principalitateac eta bothereac eçarri içan ditu icuscaritçat mundu guciaren aitcinean hetaz triumphaturic bere presunan. [16] Nihorc beraz ez beçaitçate [3] condena jatearen edo edatearen ariaz, edo besta egunen, ilhargui berrien edo sabbatho egunen

3. Ikus ordea *çaitçatela* hortxe beheraxeago: 18. Ikus Apost. Eguinc. XVI, 37: *beitgaitçate.*

ariaz, [17] ceinac ez baitciren ethorquiçuneco gaucen itçala baicen; ordean hequien gorphutça Jesuchristo da. [18] Nihorc ez çaitçatela aldara bide chuchenetic, humill delaco eta aingueruac ohoratcen dituelaco ostendadez, eçagutcen ez duen bidez dabillala, erguelqui hantua bere prudentcia haraguizcoz, [19] ez datchacola buruari; ceiña ganic gorphutz guciac, bere parte guciac juntatcen eta estecatcen diotçaten çaiñetaric, errecibitcen baidu irautecoa, gueroago eta guehiago handitceraiñocoan Jaincoaren arauera.

[20] Baldiñetariac beraz hillac baçarete Jesuchristorequien mundu huntaco eracuspen arrunterei, cergatic ceben buruei legue eguiterat uzten dioçue, munduan bici baciñete beçala? [21] "Beguirautçue hori uqui edo hortaric dasta; beguirautçue hori erabill". [22] Eta dire hec guciac cerbitçatce beraz ahitcen diren gauçac eta ceiñetan baitçabiltçate guiçonen maximen eta opinioneèn arauera; [23] ceiñec alabainan baidute cerbeit çuhurtciaren iduricunde supersticione batean eta humiltassunezco sentimendu batçutan, gorphutça guphida ez içatean eta haraguia sassiatceaz ez antsia içatean.

III. Cap.

[1] Beraz baldinetariac biztu içan baçarete Jesuchristorequien, bilha çatçue ceruan diren gauçac, non baidago Jesuchristo Jaincoaren escuiñean jarria. [2] Ceruco gaucentçat duçuen gustua eta ez lurrecoentçat; [3] hillac çarete ecen eta çuen bicia gordea da Jesuchristorequien Jaincoa baithan. [4] Noiz ere aguertuco baida Jesuchristo, cein baida çuen bicia, orduan çuec ere aguertuco çarete harequien glorian.

[5] Hilduma çatçue beraz çuen baithan den guiçon lurrezcoaren membroac: lohiqueria, atseguinetaraco lehia, guticia gaixtoac eta avaricia, cein baida idolatria bat, [6] gauça horien gatic erortcen denaz gueroz Jaincoaren colera pressuna sinhetx gogorren gainerat, [7] ceinetan ibilliac baitçarete noizbeit çuec ere, desordenu hetan bici ciñetenean.

[8] Orai bada utçatçue çuec ere horiec guciac: iraquidura, çumindura, malecia, gaixqui errateac, çuen ahotic ilkhitcen ohi ciren hitz liçunac. [9] Gueçurric ez derroçuela batac bertceari; erauntz çaçue guiçon çaharra bere eguitateèquien, [10] eta jauntz çaçue guiçon berri hura, ceiña erreberritcen baida, eçagutua içaterai-ñocoan hura creatu içan duenaren imaginaren araueracotçat, [11] ceinetan ez baida ez gentillic ez judutarric, ez circoncidaturic ez circoncidatu gaberic, ez barbaroric ez Scytharic, ez esclauoric ez libroric, baiñan ceiñetan Jesuchristo baida gucia eta gucietan.

[12] Besti çaitezte beraz Jaincoaren hautatu sainduac eta maiteac beçala urricalmenduzco errayez, emetassunez, humiltassunez, modestiaz, pairacortassunez, [13] batac bertcea jassaten duçuelaric eta elkharri barkhatcen dioçuelaric, nihorc baldin badu errencuraric bertceèn contra. Nola ere Jaunac barkhatu içan baidarotçue çuei, eta hala eguiçue çuec ere.

[14] Horien gucien gaiñetic ordean duçuen caritatea, cein baida perfeccionearen lokharria. [15] Naussi bedi çuen bihotcetan Jesuchristoren baquea, ceinetarat deithuac ere baitçarete guciac gorphutz bakhar bat eguiteco; eta çareten hortaz esquertiar. [16] Jesuchristoren hitça egon bedi çuen baithan bere bethetassun gucian, çuhurtcia gucizco batequien. Iracats dioçoçue eta gogoa on elkharri [4] psalmuez, hymnoez eta cantico izpiritualez, cantatcen ditutçuelaric bihotcez Jaunaren laudorioac edificacionerequien. [17] Eguiten duqueçuen gucia, ala mintçatcez ala eguitez,

4. *Inori gogoa ondu,* alegia: "commonentes vosmetipsos".

guciac eguitçue Jesuchristo Jaunaren icenean, esquerrac ematen diotçotçuelaric hartaz beraz Jainco Aitari.

[18] Emasteac, çareten obedient çuen senharren alderat, behar ere den beçala Jaunaren arauera. [19] Senharrac, maita çatçue çuen emasteac eta ez detçatçuela garraxqui ekhar. [20] Umeac, obedi çatçue çuen burassoac gauça gucietan; hori Jaunaren gogara da ecen. [21] Aitac, ez detçatçuela damuzta çuen umeac, gogoa gal ez daquioten. [22] Sehiac, obedi çatçue gauça gucietan haraguiaren arauera çuen naussi direnac, ez beguia çuen gaiñean dutenean choilqui ditutçuela cerbitçatcen, guiçonen gogara eguitea gatic beçala, bainan bihotcezco simpletassunarequien eta Jaincoaren beldurtassunarequien. [23] Eguiten duqueçuen gucia eguiçue gogo onez, Jaunarentçat beçala eta ez guiçonentçat beçala, [24] daquiçuelaric Jauna ganic duçuela içanen saritçat ceruco heredalgoa. Jesuchristo Jauna da cerbitçatu behar duçuena, [25] ecen gaixqui eguiten duenac errecibituco du gaixqui eguin duquenaren pena; eta ez da presunen berezguric Jaincoa baithan.

IV. Cap.

[1] Naussiac, justu eta beharqui dena errenda dioçoçue çuen sehiei, daquiçuelaric ecen çuec ere baduçuela naussi bat ceruan. [2] Çarraizcote othoitçari, gauac ere daramatçuela othoitz eguiten eta esquerren ematen. [3] Eguiçue othoitz guciec elkharrequien guretçat ere, Jaincoac ideq dieçaguntçat athea bere hitçarentçat, predicatceco Jesuchristoren misterioa, ceiña gatic ere bainaiz gatheètan, [4] eçagutaraz ere deçadantçat hura hartaz mintçatu behar dudan beçalaco molde onez. [5] Çuhurqui ibill çaitezte Eliçaz campoan direnequien, dembora erosten duçuelaric. [6] Çuen hitcetan duçuen bethiere gracia molde bat eta gatz bat sasoa detçaquena, daquiçuequentçat nola behar dioçuen ihardetsi batbederari.

[7] Niri behatcen çaitan gucia jaquiñen duçue Tichique gure anaya maitea ganic, cein baida Jaunaren cerbitçari fidel bat, Jauna enequien batean cerbitçatcen duena. [8] Berariaz igorri darotçuet hura, jaquin deçan gatic certan çareten cebonec ere eta consola detçan gatic çuen bihotçac. [9] Igorri dut harequien batean halaber Onesimo ene anaya maitea eta fidela, çuen herritarat[5]. Hemen iragaten den gucia jaquinen duçue hequien ganic.

[10] Salutatcen çaituzte Aristarche enequien presso dagoenac, eta Marc Barnaberen cusiñac, ceinarentçat errecibitu baiditutçue gomendiozco buthunac. Ethortcen baldin bada çuen ganat, errecibi çaçueque ungui. [11] Jesus justua daritçanac ere agur darotçue. Hainac baidire circoncisionecoac, horiec dire bakharrac Jaincoaren Erressuma ifintcen lagun ditudanac eta cerbeit consolamendu ematen darotedanac. [12] Salutatcen çaituzte Epaphras çuen herritarrac. Jesuchristoren cerbitçari bat da bethi zeloz bethea çuentçat bere oracionetan, içan çaiteztentçat constanqui perfetac eta compliac Jaincoac çuen ganic nahi duen gucietan. [13] Lekhucotassun hau errenda dioçoquet ecen: grina handi bat duela çuentçat, eta bai Laodicean eta Hyerapolisen direnentçat ere. [14] Salutatcen çaituzte Lucas medicu maiteac eta bai Demasec ere.

[15] Saluta çatçue Laodicean diren anayac, eta Nymphas haren etchean den Eliçarequien. [16] Buthun hau iracurri daitequenean çuen artean, duçuen artha iracur dadin Laodiceaco Eliçan ere, eta Laodicearrentçat dena berriz iracur deça-

5. Hala dio, baina ez ote zen behar "çuen herritarra"? Latinez "qui ex vobis est"; "compatriota vuestro" (Biblia de Jerusalén). Ikus gainera beheraxeago (12.) latinezko hitz berak "çuen herritarrac" itzuliak.

çuen çuec. [17] Erroçue Archipperi hitz hau niquetz: considera çaçu ungui Jauna ganic errecibitu duçun meçua, bethe detçatçuntçat hartaco eguinbide guciac. [18] Hauche neure escu propioz escribatcen dut nic Pauloc, çuen salutatceco. Orhoit çaitezte ene gatheèz. Gracia dela çuequien. Amen.

J. PAULO APOSTOL
Lehenbicico guthuna
THESSALONIARREI

I. Cap.

[1] Pauloc, Silvanoc eta Timotheoc Thesalonicaco Eliçari, Jainco gure Aitaren eta Jesuchristo gure Jaunaren icenean: [2] gracia dela çuequien eta baquea. Esquerrac ematen diotçagu Jaincoari bethiere çuen gucientçat, çuec behiñere ahantci gabe gure othoitcetan, [3] orhoitcen garelaric gure Jaincoaren eta Aitaren aitçiñean çuen fedearen obrez, çuen caritatearen trabailluez eta çuec Jesuchristo gure Jauna baithan duçuen esperantçaz eta fidantciaz. [4] Badaquigu ecen, ene anaya Jaincoaz maitatuac, nola içan çareten bereciac. [5] Evangelioa predicatu içan darotçuegunean ez baidugu eguin hitcequien choilqui, baiñan oraiño ere miracuilluequien, Izpiritu Sainduaren laguntçarequien eta haren dohaiñen franquia osso batequien. Badaquiçue ere nolacotsu içatu garen çuen artean çuen salbamenduarentçat.

[6] Çuec ere halaber gure imitatçaille eguin içan çarete eta Jaunaren imitatçaille, errecibitu içan baiduçue hitça tribulacione handien artean Izpiritu Sainduaren bozcarioarequien, [7] halaco maneraz, non moldetçat baliatu içan baitçaizte Macedonian eta Achaian diren fidel guciei. [8] Ecen ez choilqui çuen gatic içan da Jaunaren hitça banatua Macedonian eta Achaian, baiñan are çuec Jaincoa baithan duçuen sinhetxtea eçagutua da lekhu gucietan hain ungui, non ez baida mengoa hortaz deussic aipha deçagun, [9] halaz eta [1] berec condatcen darotçuetenaz gueroz cer maneran sarthu içan garen çuen baithan eta nola itçuli içan çareten Jaincoa ganat, idolac utciric cerbitçatcecotçat Jainco bicia eta eguiazcoa [10] eta iguriquitcecotçat ceruetaric haren Seme Jesus, ceina biztu içan baidu hilletaric eta ceiñac athera içan baigaitu gueroco coleraren miñetic.

1. Kausala: il. Rom. I, 19.

II. Cap.

[1] Badaquiçue ecen cebonec, ene anayac, gu çuen ganat ethortcea ez dela alfer içatu. [2] Aitcitic lehenago soffritu guinduen arren eta gaizqui tratatuac içan guiñen arren, daquiçuen beçala, Philipen, içan guinduen curayea Jaincoaren laguntçarequien batean çuei predicatceco Jaincoaren Evangelioa hainitz nekhe eta griñen artean. [3] Guc ecen predicatu içan darotçuegun dotrina ez da enganiozcoa, ez lohiqueriazcoa, eta ez dugu içan chederic çuen enganatceco; [4] aitcitic nola Jaincoac hautetsi içan baigaitu bere Evangelioa guri fidatceco, hala mintço gare ez guiçonen gogara eguin nahiz, bainan bai eguin nahiz Jaincoaren gogara, ceinec icusten baidu gure bihotcen barrena.

[5] Ez dugu ecen egundaiño deussic erran çuen laussengatceco, daquiçuen beçala, eta ez bilhatu abariciazco estacururic batere. Jaincoa da lekhuco. [6] Ez gare ibilli gloria bilha guiçonen ganic, ez çuen ganic, ez bertceren ganic. [7] Carga ahal cintçazquegutelaric Jesuchristoren Apostolu beçala gure hazteaz, hala ere chume eta eme egotu gare çuen artean, unhide batec bere haurrac mainaz ekhartcen dituen beçala. [8] Hala maite baitcintuztegun amultsuqui, nahico guiñarotçuen eman ez choilqui Jaincoaren Evangelioaren eçagutça, baiñan oraino guere bicia ere. Hain maite bacintuztegun ecen.

[9] Halaber orhoit bide çarete, ene anayac, gure trabailluez eta nekheèz: nola gau eta egun lanean hari guiñela, çuetaric nihori ez carga içatea gatic, predicatu içan darotçuegun Jaincoaren Evangelioa. [10] Lekhuco çarete eta lekhuco da Jaincoa, ceiñ sainduqui, justuqui eta iroi gabequi ibilli içan garen çuen artean sinhetxi duçuenen baithan. [11] Badaquiçue ecen çuetaric batbederaren alderat haritu içan naicela, aita bat bere umeèn alderat beçala, [12] çuen exortatcen, consolatcen, errequeritcen, arren ibill cintezten çuec bere erresumarat eta gloriarat deithu içan çaituzten Jaincoari dagocon beçala.

[13] Hargatic diotçogu Jaincoari ematen bethiereco esquerrac, ceren aditu gaitutçuenean predicatcen Jaincoaren hitça, errecibitu içan baiduçue hura ez guiçonen hitça beçala, bainan eguiazqui, nola baida, Jaincoaren hitça beçala, ceiñec obratcen baidu çuen baithan, sinhetxi duçuenetan. [14] Çuec ecen, ene anayac, imitatçaille eguin çarete Jaincoaren Elicen, ceiñec bessarcatu içan baidute Judean Jesuchristoren fedea; pairatu içan baiduçue çuec ere çuen herritarretaric hec pairatu içan dutena judutarretaric; [15] ceiñec hill içan ere baidituzte Jesus Jauna eta profetac, ceiñec persecutatu içan baigaituzte, ceiñac ez baidire Jaincoaren gogaraco eta guiçon gucien etsai ere baidire; [16] ceiñec debecatcen baigaituzte mintçatcetic

gentillei bere salbamendua eguin deçatentçat, bethi bere bekhatuen neurria mucuratcen haritceco; eroria da ecen bethicotçat Jaincoaren colera hequien gaiñerat.

[17] Gu berriz, ene anayac, separatuac içan baigare çuen ganic dembora guti batetacotz icustez eta bihotcez [2], hambatenaz guehiago lehiatu gare çuen icusterat, haguitz desira handia baidugu hortacotz. [18] Nahi içatu dugu bada ethorri çuen ganat. Ni behintçat Paulo ethendua içan naiz behin eta bietan; ordean debecatu içan gaitu Satanec. [19] Eta guerthuqui ere; cer da ecen gure esperantça, gure bozcarioa, gure gloriaren khoroa? Çuec ez çarete Jesuchristo gure Jaunaren aitciñean haren ethorgunecotz? [20] Çuec çarete ecen gure gloria eta bozcarioa.

2. Hala dio, baina *ez bihotcez* behar luke: "non corde" dio Vulgatak.

III Cap.

[1] Horri dagocala ecin guehiago iraunez, hobe iduritu çaicu egotea Athenesen bakharric. [2] Eta igorri içan darotçuegu Timotheo gure anaya eta Jaincoaren cerbitçaria, Jesuchristoren Evangelioan borthitz çaitçatentçat eta exorta çuen fedean cinqui egoterat; [3] nihor higuitua içan ez dadintçat persecucione hautaz; cebonec badaquiçue ecen hortacotz garela munduan. [4] Çuen artean guiñenean erraten ere guiñarotçuen aitcinetic, içanen guinituela atsecabeac jassateco eta içatu ere ditugu, daquiçuen beçala. [5] Horri dagocala, ecin guehiago iguriquiz igorri içan dut çuen fedearen berri jaquiterat, beldurrez ecen tentatu içan çaituzqueten tentatçailleac eta alfer ethor ez dadin gure trabaillua.

[6] Orai ordean Timotheo ethorri çaicunean çuen ganic eta condatu içan darocunean çuen fedea eta caritatea, bethiere gutaz duçuen orhoitçapen amultsua eta gure icusteco duçuen desira, guc ere çuen icustecoa dugun beçala, [7] descantsatuac edireten gare çuen baithan, gure atsecabe eta gaitz gucien artean, çuen fedearen ariaz; [8] ecen orai gare bici, baldin çuec fermu baçaudete Jauna baithan.

[9] Eta guerthuqui, nola esquerric asqui eman ahal dioçoquegu Jaincoari çuen gatic, gure Jaincoaren aitcinean çuen ariaz sentitcen dugun bozcario guciarentçat? [10] Gauaz eta egunaz asco othoitz eguiten ere diogu, icus ahal çaitçateguntçat eta compli ahal deçaguntçat çuen fedeac escas duquena. [11] Jainco gure Aitac bada eta Jesuchristo gure Jaunac eraman gaitçala çuen ganat; [12] çuec berriz berret çaitçatela Jaunac gueroago eta guehiago elkharrentçat eta gucientçat duçuen caritatean, guc çuentçat dugun beçalatsu; [13] borthitz daitecentçat çuen bihotçac saindutassunean, iroyic ez duçuequen beçala, Jainco gure Aitaren aitciñean Jesuchristo gure Jauna bere saindu guciequien dathorquen egunean. Amen.

IV. Cap.

[1] Gaiñeracoan bada, ene anayac, othoizten çaituztegu eta errequeritcen Jesus Jaunaz, gure ganic ikhassi duçuen beçala nola ibilli behar duçuen Jaincoaren gogaraco içateco, hala ibill ere çaitezten gueroago eta guehiago aitcina çaitezqueten beçala. [2] Badaquiçue cer manamendu eman darotçuedan Jesus Jaunaren partez. [3] Hauche da ecen Jaincoaren nahia: içan çaitezten saindu; beguira çaitezten lohiqueriatic, [4] jaquin deçantçat çuetaric batbederac bere gorphutçaz baliatcen sainduqui eta honestqui, [5] eta ez guticiaren muguidac seguitcen dituela jentillec beçala, ceiñec Jaincoa ez baidute eçagutcen. [6] Ez beça nihorc ceba ez engana bere anaya cernahi den eguitecoetan, ceren eta Jauna gauça horien gucien bendecatçaille baida, ja erran darotçuegun beçala eta declaratu haren partez. [7] Ez gaitu ecen Jaincoac deithu lohi içan gaitecentçat, bainan bai saindu içateco. [8] Hala bada, meçu hauc arbuyatcen dituenac ez du guiçon bat arbuyatcen, bainan bai Jaincoa, ceiñec eman içan ere baidu bere Izpiritu Saindua gure baithan.

[9] Anayatassuneco caritateaz denaz beçambatean, ez dugu mengoaric çuei hortaz escribatceco, halaz eta [3] cebonec Jaincoa ganic ikhassi duçuenaz gueroz elkharren maitatcen; [10] ecen hori eguiten ere baduçue Macedonia gucian diren anaya gucien alderat; othoixten çaituztegu ordean, ene anayac, gueroago eta guehiago aitcinatceaz amudio hortan, [11] eta ardura içateaz baquean egoteco; norc bere eguitecoac eguiteaz eta çuen escuz trabaillatceaz, exlegitu içan darotçuegun beçala; [12] finean honesqui ibiltceaz Eliçatic campoan direnen alderat eta bertceren denic ez bilhatceaz.

[13] Ez dugu nahi behintçat, ene anayac, ignora deçaçuen lo dauntçanez jaquin behar duçuena, trista ez çaiteztentçat esperantçaric ez duten bertce guiçonac beçala. [14] Baldinetariac ecen sinhexten badugu Jesus hil içan dela eta biztu dela, halaber Jaincoac erakharrico ditu Jesusequien haren baithan hill direnac ere. [15] Ecen hau erraten darotçuegu Jaunaren hitcean: gu, bici garenac eta egon behar garenac Jauna dathorren artean, ez gaiztela aitcinduco ja hill direnei, [16] ceren eta ordena emanen den pontutic, archangeluaren boça eta Jaincoaren claroiña adiaracico den pontutic, Jauna bera jautsico baida cerutic eta berehala biztuco ditezque lehenic Jesuchristo baithan hill direnac. [17] Guero gu bici garenac, hemen guelditcen garenac, eramanac içanen gare hequiequien batean airetan hedoyen gaiñean, Jesuchristoren aitcinerat goateco; eta hala bethierecotz Jaunarequien içanen gare. [18] Consola çaçue beraz elkhar ene erran horietaz.

3. Kausala: il. Rom. I, 19.

V. Cap.

[1] Demborez eta momentuez denaz beçambatean, ene anayac, ez da mengoaric escriba dieçaçuegun, [2] ceren baidaquiçue asqui cebonec Jaunaren eguna ethorrico dela gauaz heldu den ohoin bat beçala. [3] Noiz ere ecen erranen baidute: "Baquean gare eta segurean", eta orduan ethorrico çayeque uste gabeco ondicoa, emaste içorra denari erditceco miñac heldu çaizcon beçala; eta ez dire itçurico. [4] Çuec ordean, ene anayac, ez çarete illhunbetan, egun harc ohoin batec beçala ustegabean atceman çaitçatentçat. [5] Ecen çuec guciac arguiaren umeac çarete eta egunaren umeac; ez gara gauarenac, ez illhumbeenac. [6] Ez gauntçala beraz lo bertceac beçala, baiñan gauden atçarriac, eta garen sobre; [7] ecen lo dauntçanac gauaz dauntça lo, eta horditcen direnac gauaz dire hordi. [8] Gu ordean, egunaren ume garenac, garen sobre; eta jauntz deçagun burdin jacatçat fedea eta caritatea, eta casquetatçat salbamenduaren esperantça; [9] ecen ez gaitu Jaincoac gu eçarri bere coleraren terreratçat[4]; aitcitic bai salbamendua ardietx deçaguntçat Jesuchristo gure Jaunaz, [10] ceiña hill içan baida guretçat, nahiz gaudecen iratçarriac, nahiz gaudecen lo, guciac betan bici gaitecentçat harequien. [11] Hargatic bada deçaçuen elkhar consola eta edifica batac bertcea, eguiten ere duçuen beçala.

[12] Othoitz eguiten darotçuegu behintçat, ene anayac, haguitx[5] çuen artean trabaillatcen direnac, Jaunaren arauera gobernatcen çaituztenac eta iracasten darotçuetenac, [13] eta amudio guehiago hei eracusteaz eguiten duten obra gatic. Duçuen bethiere baquea hequiequien. [14] Othoixten çaituztegu oraiño, ene anayac; errepreni çatçue izpiritu nahassitaco direnac, consola çatçue gogo chumetaco direnac, jassan çatçue flacoac, çareten pairacor gucien alderat. [15] Beguirautçue nihorc gaixquia gaizquiarentçat nihori errenda ez dioçon; aitcitic çareten bethi prest ungui eguiterat elkharri, eta bai mundu guciari ere. [16] Çareten bethi aleguera. [17] Ez çaiteztela gueldi othoitz eguitetic. [18] Guerthacari gucietan eman diotçatçue Jaincoari esquerrac; hori da ecen Jaincoac nahi duena guciec eguin deçaçuen Jesuchristo baithan. [19] Izpiritua ez deçaçuela iraungui; [20] Profeciac ez detçatçuela mespreça. [21] Gaineracoan gauça guciac examina catçue eta on denari çaquizcote. [22] Gaixquiaren iduria duten gucietaric beguira çaitezte.

[23] Baquearen Jaincoac berac, bada, çaitçatela santifica gauça gucietan, çuen

4. Hori ote dio gero ala *herresa*? Ikus Lk. II, 34 eta 2 Kor. V, 5.

5. Hor adizkiren bat falta da, *othoitz eguiten darotçuegu*-ren konpletiboa (latinez "ut noveritis") eta ondoko (v. 13) *eracusteaz*-en gisakoa: agian *eçagutçeaz* edo.

Izpiritu gucia, çuen arima eta gorphutça beguira ditecentçat erranquiçunic gabe Jesuchristo gure Jauna dathorquen egunecotz. [24] Fidel da çuec deithu çaituztena eta harc du eguiñen hori çuen baithan. [25] Ene anayac, eguiçue othoitz guretçat. [26] Saluta çatçue anaya guciac mussu saindua emanic. [27] Jaunaz çaituztet errequeritcen iracuratcitceaz [6] buthun hau anaya saindu guciei. [28] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuequien. Amen.

6. Bestetan ohi duenez *iracurarateitceaz* usteko genukeen: ik. Ephes. V, 27.

J. PAULO APOST.

Bigarren guthuna

THESSALONIARREI

I. Cap.

[1] Pauloc, Silbanoc eta Timotheoc Thesalonicarren [1] Eliça Jainco gure Aita baithan eta Jesuchristo Jauna baithan denari: [2] Gracia diçuela eta baquea Jainco gure Aitac eta Jesuchristo Jaunac.

[3] Bethiere behar diotçagu eman esquerrac Jaincoari çuentçat, ene anayac, justu den beçala, ceren berretuaz dohan haguitz çuen fedea eta handituaz çuetaric batbederaren elkharganaco caritatea [4] halaco moldez, non gueroni ere handiesten baigare Jaincoaren Elicetan çuen persecucione gucietan eta jassaten ditutçuen atsecabeètan duçuen pairacortassunaren eta fedearen ariaz, [5] aguer dadin gatic Jaunaren iugeamendu justua eta mereci deçaçuen gatic Jaincoaren Erressuma, ceinarentçat pairatcen baiduçue, [6] baldin behintçat justu bada Jaincoaren aitcinean, affligi detçan ordainez çuec orai affligitcen çaituztenac, [7] eta çuei, affligituac çaretenei, eman dieçaçuen descantsua gurequien batean, Jesus Jauna cerutic aguertuco denean bere bothereco aingueruequien, [8] su eta kharren erdian bendecatceco, Jaincoa eçagutcen ez dutenen eta Jesuchristo gure Jaunaren Evangelioari obeditcen ez diotenen gainean, [9] ceinec jassanen baidute heriotce bethiereco baten pena, icusten dutenetic Jaunaren behagunea eta haren botherearen gloria, [10] dathorrenean glorificatua içateco bere sainduetan eta miragarri sinhetsi içan duten gucien baithan; hala errecibitu içan baiduçue ere guc egun haren gaiñean errendatu içan darotçuegun lekhucotassuna.

[11] Horri dagocala ere gaudez bethi çuentçat othoitcez, arren gure Jaincoac eguin çaitçaten bere deyaren araueraco, eta compli detçan bere botherez çuen gaiñean eta çuen fedearen obraren gaiñean haren ontassunac dituen nahi guciac, [12] glorificatua içan dadintçat Jesuchristo gure Jaunaren icena çuen baithan eta glorificatuac içan çaiteztentçat çuec ere haren baithan gure Jaincoaren eta Jesuchristo Jaunaren graciaren arauera.

1. Tituluan *Thessaloniarrei* dio.

II. Cap.

[1] Errequeritcen çaituztegu bada, ene anayac, Jesuchristo gure Jaunaren ethor egunaz eta gure haren ganaco bilguraz, [2] arren ez daquiçuen arinqui gogoa gambia eta ez çaitezten ici ez omenez, ez erranez, ez buthunez gure ganic heldu direlacotz, berehala ethortceco balitz beçala Jaunaren eguna. [3] Nihorc ez çaitçatela engana cernahi moldez, ceren eta ez baida hala içanen, non ez den lehenic ethortcen alboratamendua eta aguertcen bekhatuzco guiçona sunsitu beharrezco ume hura, [4] etsai muthiri hura, ceiña altchatcen ere baida Jainco erraten den eta adoratcen den guciaren gainetic, Jaincoaren templuan jartceraiñocoan eta bere burua jainco balitz beçala eracusteraiñocoan.

[5] Ez duçue gogoan oraiño çuequien nintcenean horiec erraten ohi narozquitçuela? [6] Eta oraiñocoan cerc daducan badaquiçue equi, bere demboran aguertcea gatic, [7] ecen ja moldatcen hari da iniquitatezco misterioa. Choilqui orai daducanac iduc beça hura, mundutic khen daitequen artean. [8] Eta orduan aguertuco da gaixto hura, ceiña Jesus Jaunac desseguiñen baidu bere ahoco hatsaz eta suntsiaracico bere ethorgune gloriossoaz gaixto hura, [9] Satanaren indarrarequien ethorrico dena, eta bothere suerte guciequien, gueçurrezco seiñalequien, miracuillu falsoequien, [10] eta iniquitateac asma ahal deçaquen guciarequien, haiñen enganatceco, ceiñac galtcen baidire, ceren ez duten errecibitu eta maitatu içan eguia, salbatuac içateco. [11] Hargatic diote igorrico hainei Jaincoac enganiozco operacione hori, gueçurra sinhetxico duqueten beçala, [12] condenatuac içan daitecen gatic eguia sinhetxi içan ez duten guciac, aitcitic iniquitateari garaya eman içan diotenac.

[13] Guc ordean esquerrac eman behar diotçagu bethiere Jaincoari çuentçat, ene anaya Jaincoaren maiteac, ceren lehenbicicoetaric hautetsi içan baitçaituzte salbatuac içateco Izpirituaren santificacionez eta eguiaren sinhextez. [14] Chede hortaz deithu içan ere çaituzte, guc predicatu darotçuegun Evangelioaz, çuei ardiets aracitçea gatic Jesuchristo gure Jaunaren gloria. [15] Hargatic beraz, ene anayac, çaudete tiesso eta çatcheizte, ala dela gure erranez ala dela gure buthunez, ikhassi ditutçuen tradicioneei. [16] Jesuchristo gure Jaunac berac, bada, eta Jainco Aita gu maitatu gaituenac eta bere graciaz consolacione eternal bat eta esperantça on bat eman darocunac [17] consola detçala çuen bihotçac eta borthitz çaitçatela obra on suerte gucietan eta dotrina onean.

III. Cap.

[1] Gaiñeracoan, ene anayac, eguiçue othoitz guretçat, arren Jaincoaren hitça bana dadin eta içan deçan precio, çuen artean ohi duen beçala. [2] Eta gu içan gaitecen libratuac jende bihurri eta gaixtotaric; ez da ecen fedea aurkhitcen presuna suerte gucietan. [3] Ordean fidel da Jaincoa eta borthixtuco çaituzte çuec eta beguiratuco izpiritu gaixtoa ganic. [4] Fida ere gare çuetaz Jauna baithan, guc exlegitcen darozquitçuegunac eguiten ditutçuela eta bai eguinen ere. [5] Jaunac bada chuchen detçala çuen bihotçac Jaincoaren amudiorat eta Jesuchristoren pairacortassunerat.

[6] Exlegitcen darotçuegu halaber, ene anayac, Jesuchristo gure Jaunaren icenean, aldara çaitezten anaya bide gaixtoz dabiltçanetaric, eta gure ganic errecibitu içan dituzten eracuspenen arauera ez dabiltçan gucietaric. [7] Cebonec badaquiçue ecen nola behar den eguin gu imitatceco; ez baigare behar ez beçalacoac içatu çuen artean. [8] Ez baidugu dohainic jan nihoren oguia, aitcitic trabaillurequien eta nekherequien gau eta egun lanean hari içan baigare, çuetaric nihori carga ez içatea gatic. [9] Ez bada hortacotz bothere ez içanez, bainan guere buruac çuei exemplutçat ematea gatic, imita gaitçatçuentçat gu.

[10] Halaber çuequien guiñenean declaratcen ere guinarotçuen hau: Baldin edoceiñec lanean hari nahi ez badu, ez du behar jan ere. [11] Aditu dugu ecen badirela cuen artean jende nahassi batçu deussic hari ez direnac eta hei behatcen ez çaizten gaucetan sartcen direnac. [12] Horlaco direnei bada exlegitcen diotegu eta othoitz eguiten Jesuchristo Jaunaz, sosseguan trabaillatcen direla jan deçaten bere oguia. [13] Çuec behintçat, ene anayac, ez çaiteztela gueldi ungui eguitetic. [14] Baldinetariac norbeitec ez badio obeditcen guc gure buthunaz erraten dugunari, goardia emoçue haiñari, eta ez deçaçuela har haiña çuen baltsarat, ahalca dadin amorea gatic. [15] Guciarequien ere ez dioçaçuela beha etsai bati beçala, baiñan errepreni çaçue çuen anaya beçala.

[16] Gaiñeracoan baquearen Jaunac berac diçuela lekhu gucietan bethiereco baquea. Jauna dela çuec guciequien. [17] Salutatcen çaituztet nic Pauloc ene escu propialaz; hortan eçagut daitezque ene buthun guciac; horla escribatcen dut ecen. [18] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuequien. Amen.

J. PAULO APOST.

Lehenbicico guthuna
TIMOTHEORI

I. Cap.

[1] Paulo Jainco gure Salbatçaillearen eta Jesuchristo gure esperantça denaren manuz Jesuchristoren Apostolu denac [2] Timotheo fedean bere seme maiteari gracia, misericordia eta baquea Jainco Aitaren eta Jesuchristo gure Jaunaren partez. [3] Othoitz eguiten darotçut, Macedoniarat goateracoan eguin içan narotçun beçala, Ephesan egoteaz eta cembeiti adiaracitceaz ez deçaten iracats dotrinaric gureaz bertcelacoric. [4] Ez datcheizten elhe çaharrei eta cedarriric gabeco hidalgoei, ceiñec soraracitcen baidituzte aitciticaco iharduquitceac, ecen ez baidute edificatcen Jaincoaren arauera fedeaz eguiten dena. [5] Manamenduaren harchedea bada caritatea da, bihotz chahu batetaric, conscientcia onetic eta aleguia gabeco fedetic sortcen dena, [6] ceiñetaric cembeit aldararuric itçuli içan baidire elhe vanoetarat, [7] legueco dotor içan nahiz, aditcen aditcen [1] ez dituztelaric erraten dituzten eta segurtçat ematen ere dituzten gauçac. [8] Badaquigu bada ona dela leguea, baldin nihor hartaz beharqui baliatcen bada. [9] Jaquinic behintçat leguea ez dela ifinia içan prestu denaren gatic, baiñan bai gaixtaguinen gatic eta dessobedienten gatic, Jaincoaren beldur ez direnen gatic eta bekhatorossen gatic, guiçon galduen eta nothatuen gatic, aita-amen hiltçailleèn gatic, guiçon hiltçailleèn gatic, [10] lohien gatic, guiçacoi abominableèn gatic, guiçon arrapatçailleèn gatic, gueçurtien eta juramentu falso eguilleèn gatic eta dotrina garbiaren contraco diren gucien gatic, [11] cein dotrina baida Jainco dohatsuaren gloriaco Evangelioaren arauera, ceiñaren predicatceco meçua fidatua içan baitçait niri.

[12] Esquerrac ematen diotçat Jesuchristo gure Jaunari, ceiñec indarra eman baidarot, ceren fidel iduqui içan bainau bere cerbitçari eguitean, [13] ni lehen blasphemari içan naicena eta haren persecutatçaille eta injuriatçaille; bainan misericordia ardietxi dut Jaincoa ganic, ceren jaquin gabean eguin içan baidut hori, sinhexteric ez içanez. [14] Gaindiz ethorri içan da ordean gure Jaunaren gracia fedearequien eta Jesuchristo baithan den caritatearequien. [15] Eguia guerthua da

1. Bi bider idatzia dago.

eta bozcario handirequien errecibitcecoa Jesuchristo ethorri içan dela mundu huntarat bekhatoreen salbatcerat, ceiñetaric lehena bainaiz ni. [16] Ordean misericordia eguin içan çait, ene baithan lehenic eracuts deçan gatic Jesuchristoc bere pairu gucia; hortaric exemplu har deçatentçat, bicitce eternala gatic haren baithan sinhetxico dutenec. [17] Bada mendetaco Erregueari, inmortalari, ecin icus daitequenari, Jainco bakharrari, daquioela ohore eta gloria mendetaco mendeètan, Amen.

[18] Nic hemen exlegitcen darotçudana, ene seme Timotheo, eta gomendatcen darotçudana da çutaz lehenago eguin içan diren profecien arauera guduca çaitecen, soldadu on bat beçala hei çarraiztela, [19] conserbatcen duçularic fedea eta conscientcia ona, ceiñari ukho eguinaz cembeitec galdu içan baidute fedea. [20] Nombre hortaco dire Hymeneo eta Alexandre, ceiñac libratu içan baidiotçat Satani, ikhas deçaten gatic ez blasphematcen.

II. Cap.

[1] Errequeritcen çaitut bada gucien gaiñetic, eguin daitecen errequerimenduac, othoitçac, galdeac eta esquer emateac guiçon gucientçat, [2] erregueèntçat eta dignitateètan altchatuac direnentçat, bicitce baquezco bat eta sosseguzco bat eraman deçagun amorea gatic, jaincotiartassun eta garbitassun suerte gucietan. [3] Hori ecen gauça on bat da eta Jainco gure Salbatçailleari agradatcen çayoena, [4] ceiñec nahi baidu guiçon guciac salba ditecen eta ethor ditecen eguiaren eçagutcerat. [5] Jainco bat da ecen bakharra, halaber ararteco bat bakharra, Jaincoaren eta guiçonen artecoa, Jesuchristo guiçona; [6] ceiñec eman içan baidu bere burua gucien erresquetamenduarençat, lekhucotassuna errendaturic exlegitua içatu cen demboran. [7] Hortacotz içatu naiz ifinia –eguia erraten dut eta ez gueçurra– predicatçaille eta apostolu eta gentillen irakhatsçaille fedean eta eguian.

[8] Nahi dut bada guiçonec othoitz eguin deçaten lekhu gucietan, altchatcen dituztelaric escuac chahuric, hassarratceric eta debadioric gabe.

[9] Halaber bai emasteèc ere jauntzcura honest batean, ahalqueriarequien eta modestiarequien aphaintcen direla eta ez ille frisatuequien, ez urrezco ez perlazco edergaillluequien, ez soiñeco garastiossequien, [10] baiñan obra onez bere jaincotiartassuna eracutsi nahi duten emastequiei dagoten beçala. [11] Emastequiac beudez ichillic ikhasten sumicione osso batequien. [12] Iracastea ordean emasteei ez daroet baliatcen, ez bere senharren gaiñean naussitassunic hartcea, bainan egon daitecela ichillic. [13] Adam ecen lehenic içan cen moldatua, guero ondoan Eva. [14] Eta ez cen Adam enganatua içan cena, baiñan emastea erori cen desobedientcian enganatua içanic. [15] Hala ere ordean salbatuco da, haurrac eguiten dituela, baldin irauten badu fedean, caritatean eta bicitce saindu eta modest batean.

III. Cap.

[1] Eguia guerthu bat da, baldin nihorc desiratcen badu aphezpicutassuna, lan on bat eta saindu bat desiratcen duela. [2] Mengoa da bada aphezpicua içan dadin erratecoric gabecoa, behin baicen ezcondua içan ez dena, sobrea, prudenta, modesta, garbia, arrotcen errecibitçaillea, iracasteco gai dena, [3] ez arnoari emana, ez colpe emaillea, baiñan maltsoa eta moderatua, ez haucillaria, ez intressatua, [4] bainan bere familia ungui dakharquena, bere umeac obedientcian eta garbitassun osso batean atchiquitcen dituena. [5] Baldiñetariac ecen edoceiñec ez badaqui bere maiñadaren gobernatcen, nola emanen dio hots Jaincoaren Eliçari? [6] Ez du içan behar guiristino aprendiça, orguilleriaz hauntceraturic [2] eror ez dadintçat deabruaren condenacione bererat. [7] Mengoa da halaber campocoac ere lekhucotassun bat errenda deçaten hartaz, desohoretan eror ez dadintçat eta deabruaren artetan.

[8] Diacreac ere içan behar dire orobat honestac eta garbiac, ez bi hitcetacoac, ez arno hainitz edaterat emanac, ez irabazte liçunei darraiztenac, [9] fedearen misterioa conscientcia garbi batequien conserbatcen dutenac. [10] Eta hauc ere lehenago frogatu behar dire; guero cerbitçu sacratuan errecibitu, baldin crimaric batere gabeac badire. [11] Emastequiac orobat içan beitez honestac eta garbiac, ez gaixqui errailleac, bainan sobreac eta gauça gucietan leyalac. [12] Diacreac içan beitez emaste bat baicen içan ez dutenac; bere haurrac eta bere familia ungui gobernatcen dituztenac. [13] Ecen ungui cerbitçatu duquetenec ardietxico dute herrunca hobeago bat eta fidantcia handi bat Jesuchristoren fedean.

[14] Hauc escribatcen darozquitçut, esperantça dudalaric lauster ceure ganaco naicela; [15] baldin ordean berauntcen badut ere, daquiçun gatic nola behar duçun gobernatu Jaincoaren etchean, ceina baida Jainco biciaren Eliça, eguiaren harroiña eta habea. [16] Eta guerthuqui handia ere da amudiozco misterio hura, haraguian aguertu dena, Izpirituaz justificatua içan dena, aingueruez icussia içan dena, gentillei predicatua, munduan sinhetsia, glorian errecibitua içan dena.

2. *Hauntu* (= haunditu): ik. I Kor. VIII, 1. Hortik eratorria dirudi *hauntzeratu*-k (Vulgatak "elatus"). Ez dakar Lhandek. Ikus gainera 2 Tim. III, 4: han *orguilleriaz hantuac* (Vulgatak "tumidi"). *Hauntceratu*- ote dio gero? Nola eratua? Ez ote *hauntarazi*-? *Hauntu* eta *hantu* darabiltza.

IV. Cap.

[1] Izpirituac bada clarqui erraten du: azqueneco demboretan aldaratuco direla batçu fedetic, jarraico baitçaizte enganiozco izpiritu bati eta deabruzco dotrina batçuei, [2] hypocrisiaz gueçur erraille batçuc eta conscientia gaixcoatua dutenec irakhatsiei; [3] ceiñec debecatuco baidute ezcontcea eta jatea, fidelec eta eguia eçagutcen dutenec esquer onequien har detçatentçat Jaincoac creatu içan dituen biandetaric. [4] Ecen Jaincoac creatu içan duen gucia ona da, eta deussere ez da arbuyatu behar esquer onequien jan ahal daitezquenetaric. [5] Santificatua baiditeque Jaincoaren hitçaz eta othoitçaz.

[6] Gauça hauc irakhasten diotçatçutela anayei, Jesuchristoren cerbitçari on bat içanen çare, fedearen hitcez hacia baitçare eta ikhassi içan duçun dotrina onarenez. [7] Elhe ergueletan ordean eta atso contuetan ez çaitecela trica, baiñan eguin çaite jaincotiartassunean. [8] Ecen gorphutceco hariquetac probetchu gutitaco dire; jaincotiartassuna ordean gucietaco da probetchos, beretçat baiditu oraico bicitcearen eta ethorquiçunecoaren aguintçac.

[9] Eguia guerthu bat da hau, eta gogo bethez hartcea mereci duena, [10] ecen horri dagocala pairatcen ditugu nekheac eta madaricioneac, ceren esperantça baidugu Jainco bicia baithan, cein baida guiçon gucien Salbatçaillea, beregainqui fidelena. [11] Gauça hauc detçatçun exlegi eta irakhatsi.. [12] Beguirautçu nihorc mezpreça ez çaitçan çure gastetassuna gatic, bainan içan çaite fidelen exemplua çure hitcetan, çure bicitceco moldean, caritatean, fedean, garbitassunean. [13] Ni nathorquen bizquitartean çaquizco iracurtceari, exortatceari eta iracasteari. [14] Ez deçaçula gutiets çure baitan den gracia, ceiña emana içan baitçaitçu profecia baten arauera, aphecen batçarrac escuac paussatu içan darozquitçunean. [15] Medita çatçu gauça hauc, çaude hautan, çure aitciñamendua guciec eçagut deçatentçat. [16] Gogoa emoçu ceure buruari eta bertceei iracasteari; çaquizcote horiei, ecen hori eguiñez salbatuco duçu ceure burua eta çu entçuten çaituztenac ere.

V. Cap.

[1] Adin handitaco guiçon bati ez dioçaçula dorphequi erançun; aitcitic har çaçu othoitcez çure aita balitz beçala; gasteac trata çatçu çure anayac beçala; [2] emastequi adinetacoac çure ama beçala; gasteac çure arreba beçala garbitassun gucizco batequien.

[3] Emaste alhargunac ohora çatcitçu, eguiazco alhargun direnac. [4] Baldin emaste alhargun batec baditu haurrac edo illobassoac, ikhas beçate lehenic bere familla gobernatcen eta bere burassoei ordaiñaren bihurtcen, ecen hori da gauça bat Jaincoari agradatcen çayoena. [5] Bada eguiazqui alhargundua eta gabetua denac içan beça esperantça Jaincoa baithan, eta iraun beça gau eta egun othoitcetan eta oracionetan, [6] ecen atseguiñetan bici dena bici delaric hilla da. [7] Hau ere exlegi dioçoçute, erratecoric gabe ibill daitecen gatic.

[8] Baldinetariac bada edoceiñec bereèz eta bereciqui bere etchecoez artha ez badu, fedeaz ukhatu duque eta infidel bat baiño areago da. [9] Alhargunen herruncan ibenia içateco hautatua içanen dena ez bedi içan hirur hogoi urthe baiño gutiagotacoa, ez senhar bat baiño guehiago içan duquena, [10] bere obra onec lekhucotassun ematen diotena, hea bere umeac ungui altchatu içan dituen, hea atce herritarrac ostatatu içan dituen, hea sainduei oiñac garbitu darozten, hea afligituac lagundu dituen, hea obra on guciei jarreiquia içan den. [11] Alhargun gasteac ordean ez detçatçula iben nombre hortan, ecen guriqui bici ondoan Jesuchristoren cerbitçuan, ezcondu nahi dute, [12] bere condenacionea dutelaric, ceren ezeztatcen baidute lehen eman içan duten fedea. [13] Bertce alde oraiño alferqueriari jarriric, costumatcen dire etchez etche ibiltcen; eta ez choilqui dire alferrac, bainan oraiño hitzuntciac eta curiossac, behar ez diren gaucez mintço direnac. [14] Nahiago dut bada gaste direnac ezcon daitecen, haurrac eguin detçaten, familiaco ama içan daitecen, eta ez dioçaten eman gure erreligionearen etsayei occassioneric batere gure contra erasteco; [15] ja ecen batçu itçuliric guibelat jarraiqui çaizco Satanari. [16] Baldin edocein fidelec badu alhargunic bere hurcoric, eman bioçate behar dutena eta ez dadin Eliça hetaz içan cargatua, duentçat eguiazqui alhargun direnen haztecoa.

[17] Ungui gobernatcen duten apheçac içan beitez doblequi ohoratuac, guciz predicatcen eta iracasten hari direnac. [18] Erraten du ecen Escriturac: "Ez dioçu estecatuco ahoa bihicatcen hari den idiari; eta mereci du languilleac bere saria". [19] Aphez baten contra acusacioneric ez deçaçula errecibi, bia edo hirur presunen lekhucotassunaren gaiñean baicen. [20] Bekhatu eguin dutenac errepreni çatçu gucien

aitciñean, bertceac ere beldur içan daitecen gatic. [21] Errequeritcen çaitut Jaincoaren aitciñean, Jesuchristoren aitciñean eta aingueru berecien aitciñean, arren gauça hauc beguira detçatçun aitcequiaric gabe, eta deussere eguin gabe alde batetarat edo bertcerat makhurtuz. [22] Escuac nihori ez diotçatçula lasterregui pausa eta ez çaitecela baltsa bertceen bekhatuetan. Ceure burua iducaçu garbi. [23] Ez deçaçula ura edan hemendic harat; baiñan mahats arno guti batez usa çaçu çure estomaca gatic eta çure eritassun hussuac gatic. [24] Guiçon batçuen bekhatuac hain agueriac badire, non aitcintcen baitcaizco jugeamenduari, bertceenac berriz ez dire aguertcen ondoan baicen. [25] Badire orobat obra onac ere mundu guciaz eçagutuac direnac; eta oraiño eçagutuac ez direnac ere ecin daudezque gordeac.

VI. Cap.

[1] Sehitassuneco ustarriaren azpian diren sehi guciec jaquin beçate obligatuac direla ohore thaillu guciac errendatcerat bere naussiei, Jaunaren icena eta dotrina blasphematua içan ez dadin gatic. [2] Ordean naussitçat fidelac dituztenec ez betçate hec mezpreça, ceren anayac diren; aitcitic are hobequi betçate cerbitça, ceren diren fidelac eta maitatcecoagoac, gracia berean parte dutenac baidire. Horra cer behar dioçuten iracatsi eta certarat behar ditutçun exhortatu.

[3] Baldin nihorc bertcela iracasten badu eta ez baditu besarcatcen Jesuchristo gure Jaunaren eracuspen sainduac eta jaincotiartassunaren araueraco den dotrina, [4] superbio bat da, deussic ez daquiena, izpiritu flacotacoa, hitcezco questioneen eta debadioen ondoan dabillana, ceinetaric heldu baidire invidiac, iharduquitceac, gaixqui errateac, itçalgaizcunde gaixtoac, [5] guiçon izpiritu gaizcoatutacoen eta eguiaz gabetuac direnen thema gaixtoac, ceiñec behatcen baidiote jaincotiartassunari aberatstassunen irabazteco bide bati beçala. [6] Irabaci handia da bada jaincotiartassuna, duenaz nihor content denean. [7] Deussere ecen ez dugu ekharri içan mundu huntarat, eta duda gabe da deussere halaber ecin hemendic eramanen dugula. [8] Hala, baldin bicitcecoa eta bestitcecoa badugu, asqui badugu. [9] Ecen aberastu nahi dutenac erortcen ohi dire tentacionean eta deabruaren artean eta hainitz desircunde arlote eta caltecorretan, ceiñec hondatcen baidituzte guiçonac ondicozco eta galmenduzco hosin batean. [10] Gaitz gucien erroa da ecen ontassunen guticia, ceiñaz possedituac içanic cembeit errebelatu içan baidire fedetic eta nahaspillatu hainitz doloreetan.

[11] Çuc ordean, ó Jaincoaren guiçona, gauça horiei ihes eguioçute, eta jarraiq çaquizte justiciari, jaincotiartassunari, fedeari, caritateari, passientciari, emetassunari. [12] Içan çaite borthitz eta animos fedearen gudu sainduan; atcemaçu bicitce eternala, ceiñetarat baitçare deithua, eta ceiñaren ariaz errendatu ere içan baiduçu lekhucotassun gloriosso bat hainitcen aitcinean. [13] Gomendatcen darotçut Jaincoaren aitcinean, ceiñec guciei bicia ematen baidaroe, eta Jesuchristoren aitciñean, ceiñec hain lekhucotassun exelenta errendatu içan baitçuen Pontio Pilatussen azpian, [14] arren beguira detçatçun ordenu hauc tatcharic eta erreportchuric gabeco molde batez, Jesuchristo gure Jaunaren ethor eguneraiño, [15] ceiña bere demboran eracutsico baidu guciz dohatsu eta choillic botheretsu denac, Erregueèn Erregueac eta Jaunen Jaunac, [16] cein baida bakharra inmortalitatearen jabe dena, eta nihor ecin hurbill daitequen argui batean egoten dena, ceiña guiçon garabec ez

baidu icussi eta ecin icus ere baideçaque, ceinari baidagoca gloria eta bethiereco naussitassuna. Amen.

[17] Mundu huntaco aberatsei exlegi dioçoçute ez daitecen gogoz handiets eta ez deçaten iben bere esperantça deus guerthuric ez duten aberatstassunetan, baiñan bai Jainco bicia baithan, ceiñec ematen baidarozquigu gauça guciac franquiaz gure beharretan baliatceco; [18] eguin deçaten ungui eta eguin daitecen aberats obra onetan; eman deçaten gogotic eta liberalqui dutenetic; [19] bil deçaten beretçat thresor funts onezco bat ethorquiçunecotçat, bicitce eternala irabaz deçatentçat.

[20] O Thimotheo, beguira çaçu fidatu içan çaitçun depositua, ihes eguiten dioçutelaric hitcezco berritassun profanoei, eta icen falsotaco jaquintça batetaric heldu diren contrariatceei, [21] ceiñez ostendade eguinez cembeit erori içan baidire fedetic. Gracia dela çurequien. Amen.

J. PAULO APOST.

Bigarren guthuna
Timotheori

I. Cap.

[1] Pauloc Jaincoaren nahiz Jesuchristoren Apostolu denac Jesuchristo baithan eguin içan den bicitcezco aguintçaren arauera, [2] Timotheo bere haur maiteari: gracia, misericordia eta baquea diçula Jainco Aitac eta Jesuchristo gure Jaunac. [3] Esquerrac errendatcen diotçat Jaincoari, ceiña cerbitçatcen baidut ene arbassoac danic conscientcia chahu batequien, ceren gau eta egun paussuric gabe orhoitcen bainaiz çutaz ene oracionetan. [4] Desira bainuque çu icusteco bozcarioz bethe nadintçat, orhoitcen naicelaric çure nigarrez, [5] eta gogoan dudalaric çure baithan den fede garbi hura, ceiña lehenic içan baidu çure amasso Loidec eta çure ama Eunicec, eta ceiña segur bainaiz duçula çuc ere.

[6] Hargatic çaitut abisatcen bitz deçaçun Jaincoaren gracia ene escuen paussatcez errecibitu içan duçuna. [7] Ecen Jaincoac ez darocu eman içan beldurcundezco Izpiritu bat, aitcitic bai indarrezco, caritatezco eta cuhurtciazco Izpiritu bat.

[8] Ez çaitecela beraz içan ahalque gure Jaunari lekhucotassuna errendatceaz, ez eta ni haren gatic gatheètan icusteaz; aitcitic paira çaçu enequien Evangelioa gatic Jaincoac ematen darotçun indarraren arauera; [9] ceiñec salbatu içan baigaitu eta dohatu içan baigaitu bere deya sainduaz ez gure obren ariaz, baiñan bai bere gogoaren arauez eta mende guciez aitcinetic Jesuchristo baithan eman içan çaicun graciaren arauez, [10] ceina ordean orai baitçaicu aguertu Jesuchristo gure Salbatçaillearen ethortceaz, ceiñec alabainan baidu deseguin heriotcea eta eracutsi Evangelioaz bicitcea eta inmortalitatea. [11] Hargatic içan naiz ifinia gentillen predicari, apostolu eta naussi. [12] Eta hori da ere causa pairatcen baiditut pairatcen ditudanac, baiñan ez naiz hortaz ahalque. Badacusat ecen nori natçayoen fidatu, eta segur naiz asqui botheretsu dela ene deposituaren beguiratceco egun hartaraiño. [13] Moldetçat iducatcitu [1] ene ganic aditu içan ditutçun eracuspen sainduac, Jesuchristoren arauеraco fedearen eta caritatearen gaiñean. [14] Beguira çaçu depositu preciatu hori gure baithan egoitça eguiten duen Izpiritu sainduaz.

1. *iducatcitçu* behar luke izan apika.

[15] Badaquiçu hastandu direla eneganic Asian diren guciac: Phigelle eta Hermogenes nombre hortaco ditezque. [16] Jaunac daguiola misericordia Onesiphoren famillari, ceren haiñitz aldiz descantsatu içan bainau eta ez baida ahalque içatu ene gatheèz. [17] Aitcitic Romarat ethorriric artha handirequien bilhatu içan nau eta aurkhitu içan nau. [18] Jaunac aurkhiaraz dioçala misericordia Jaunaren beraren aitciñean egun hartan. Eta cembat endreçu eguin içan darotan Ephesan, nihorc baino hobequi daquiçu.

II. Cap.

[1] Çu bada, ene haurra, borthitz çaite Jesuchristo baithan den graciaz [2] eta cer ere aditu içan baiditutçu ene ganic hainitz lekhucoen aitciñean, eta hec gomenda diotçotçute cembeit guiçon fidelei, hec bertceei iracasteco gay içanen direnei. [3] Jasan çatcitçu nekhea-icerdiac Jesuchristoren soldadu on batec beçala. [4] Nihor Jaincoaren milician arrolatu gueroztic, ez da embarrasatcen munduco eguitecoetan, hautetsi duenaren gogaraco içateagatic. [5] Halaber borrocan abiatcen denac ez du khoroa eramaten, non ez den behar beçala guducatu. [6] Lana eguin duen laborariac behar du lehenic fruituez probetchatu. [7] Compreni çaçu ungui nic erraten dudana; ecen Jaunac emanen darotçu gauça gucietacotz entellegamendu.

[8] Orhoit çaite Jesuchristo Jauna Daviden haciticacoa biztu içan dela hilletaric, nic predicatcen dudan Evangelioaren arauera, [9] ceiña gatic pairatcen hari bainaiz gatheztatua içateraiñocoan gaixtaguin bat banintz beçala; ordean Jaincoaren hitça ez da estecatua. [10] Hargatic pairatcen ditut guciac hautatuen amorea gatic, hec ere ardietx deçatentçat Jesuchristo baithan den salbamendua ceruco gloriarequien. [11] Gauça da guerthua, baldin Jesuchristorequien hill içan bagare, halaber bicico ere garela harequien. [12] Baldin harequien pairatcen badugu, erreguiñatuco ere dugu harequien. Baldin hartaz ukhatcen badugu, harc ere ukhatuco du gutaz. [13] Gu desleyal içana gatic, hargatic hura fidel eta leyal dagoque, ecin ukha deçaque ecen bere buruaz.

[14] Emotçute abisu hauc, lekhuco harturic Jaincoa. Beguirautçu hitcez iharduquitcetic, ecen horrec deusseretaco ez du balio, entçuten hari direnen izpirituac itçultceco baicen. [15] Lehia çaite içaterat Jaincoaren gogaraco cerbitçari bat, ahalqueriaric ez duqueçuna eta eguiaren hitça ungui darabilqueçuna. [16] Solhas profano eta ergueletaric beguira çaite, haguitz dute ecen ekhartcen gaixtaguinqueriarat [17] eta halaco jendeèn hitça chancre bat beçala baratche-baratche irabaciaz doha. Nombre hartaco ditezque Hymeneo eta Philete, [18] cein aldaratu içan baidire eguiatic darasatelaric ja erresurreccionea eguin dela, eta itçuli içan baidute cembeiten fedea. [19] Ordean Jaincoaren cimendua tiesso dago, ciguillutçat duelaric hitz hau: "Eçagutcen ditu Jaunac cein diren harenac". Eta bertce hau: "Aldara bedi gaixtaqueriatic Jaunaren icena deithoratcen duen gucia". [20] Etche handi batean alabaiñan badire ez choilqui urrezco eta cilharrezco bacherac, baiñan oraiño çurezcoac eta lurrezcoac ere; eta batçu ditezque emplegu ohorezcoetaco eta bertceac berriz cerbitçu likhitsetacotçat. [21] Nor ere bada chahu egonen baida hautaric,

içanen da bachera ohorezco bat, santificatua eta Jaunaren cerbitçuco propi dena, obra on thaillu gucietacotz aphaindua.

[22] Gastetassuneco guticiei ihes eguitçute, eta jarraiq çaquizco justutassunari, fedeari, caritateari eta baqueari, bihotz garbiz Jauna deithoratcen dutenequien batean. [23] Questione erhoac eta deussetaco on ez direnac iraizquitçu, baidaquiçu debadioac dakharzquetela. [24] Jaunaren cerbitçariac ez du içan behar debadioric; aitcitic behar du içan manso gucien alderat, iracatsçaille eta pairacor, [25] emequi erreprenitcen dituelaric eguiari amor eguiten ez diotenac, aguian nozbeit Jaincoac urriquimenduzco Izpiritua emanen diotelacoan, eguia eçagut deçatentçat, [26] eta dessamarra ditecentçat deabruaren arteètaric, ceiñec gathibu baidaduzca bere nahirat.

III. Cap.

[1] Hau bada jaquiçu, azqueneco egunetan ethorrico direla dembora perillos batçu; [2] içanen dire ecen guiçon batçu bere buruen maitatçailleac, aberats içan nahiac, gora dakharquetenac, superbioac, gaixqui errailleac, burassoen dessobedientac, ingratac, gaixtaguiñac, [3] nihor maite ez dutenac, baquearen etsayac, calomniatçailleac, lohiqueriari emanac, bihurriac, muguida onic batere gabecoac, [4] traidoreac, temerarioac, orguilleriaz hantuac [2], Jaincoa baino bere atseguiña maiteago dutenac, [5] jaincotiartassunaren itchurapen bat bada dutenac, ordean haren eguiazco Izpirituari ukho eguiten diotenac.

Halacoei ihes eguioçute. [6] Badire ecen hetaric etche barrenetan sartcen direnac, ceiñec bere ondotic gathibu beçala baidarabiltçate emacume batçu bekhatuz cargatuac eta guticia mota hainitcei darraiztenac, [7] ceiñac bethi hari baidire icasten eta behinere ez baidire heltcen eguiaren eçagutcerat. [8] Hala nola bada Iannesec eta Mambresec contra eguin baitcioten Moiseri, hauc ere contra eguiten ohi diote eguiari; guiçon batçu dire izpiritua gaizcoatua dutenac, fedeaz sentimendu erreprobatuac dituztenac. [9] Baiñan hequien balentria ez da urrun hedatuco, ecen hequien erhoqueria eçagutua içanen da mundu guciaz, bertce bi hequiena eçagutua içan cen beçala.

[10] Çuc ordean badaquiçu cericacoa den ene doctrina, ene gobernua, ene chedea, ene sinhextea, ene irauncortassuna, ene caritatea, ene passientcia; [11] nolacoac içan diren ene persecucioneac eta soffricariac, hala nola Antiochian, Iconian eta Lystren bathu içan çaizquidanac; cein persecucione handiac jassan içan ditudan eta nola gucietaric athera içan nauen Jaunac. [12] Eta sainduqui Jesuchristo baithan bici nahi duten guciec persecucionea pairatuco dute. [13] Guiçon gaixtoac aitcitic eta enganariac gaixquian aitcinatuz goanen dire, berac errebelu dabiltçala eta bertceac errebelatcen dituztela.

[14] Çu ordean çaude tiesso ikhassi içan ditutçun gaucetan eta fidatu içan çaizquitçunetan, baidaquiçu noren ganic ditutçun ikhassi, [15] Eta nola haurdanic içan çaren ikhassia lettra sainduetan, ceiñec instrui baitcetçaquete [3] salbamenducotçat Jesuchristo baithan den sinhexteaz. [16] Escritura gucia baida Jaincoaz inspiratua, probetchos da iracasteco, erantçuteco, centçarazteco, justiciarat erakhartceco, [17] perfet içan dadintçat Jaincoaren guiçona, obra on gucietaco gai eta prest delaric.

2. Ik. 1 Tim. III, 6: han *orguilleriaz hauntceraturic.*

3. Hala dio, baina Vulgatak "quae te possunt instruere" dakarrenez gero, *baitçaitçaquete* edo usteko genukeen.

IV. Cap.

[1] Errequeritcen çaitut Jaincoaren aitciñean eta Jesuchristoren aitcinean, ceiñec jugeatuco baiditu biciac eta hillac; errequeritcen çaitut haren ethorguneaz eta erreguintçaz: [2] predica çaçu hitça, hertcha çatçu ordu onean eta ordu gaichtoan, erantçun dioçoçute, errequeri çatçu, mehatcha çatçu, bethiere pairatcen ditutçularic eta iracasten dioçutelaric. [3] Ethorrico da ecen dembora, ceinetan guiçonec ecin jassanen baidute dotrina sanoa; aitcitic bilduco baidituzte multçuca bere desiracundeèn araueraco naussi batçu, beharriac quilicatuco daroztenac. [4] Eta eguia aditu nahi gabez itçulico dire elhe berrietarat.

[5] Baiñan çu çaude erne, jassan çatcitçu hel daquizquetçun nekhe guciac, eguiçu Evangelioaren predicatçaille baten lana, bethe çatcitçu çure endreçuaren eguinbideac, içan çaite sobre; [6] ecen ni sacrificatua içateco menean naiz eta ene heriotcearen dembora hurbil da. [7] Gudu onez guducatu naiz, ene carrera akhabo dut, fedea beguiratu içan dut. [8] Gaiñeracoan ene beguira dagot justiciazco khoroa, ceina emanen baidarot egun hartan juge justuac; eta ez choilqui niri, baiñan halaber haren ethor eguna desiratcen dutenei ere.

Lauster eguiçu ene ganat ethortceco, [9] ecen Demasec utci nau mundu hau maite içanez eta goan da Thesalonicarat; [10] Crescens Galiciarat, Tite Dalmatiarat. [11] Lucas da enequien bakharric. Marc har çaçu eta erakhar çurequien, ecen laguntça on bateco duquet Evangelioco endreçuan. [12] Tichico berriz igorria dut Epheserat. [13] Troaden Carpo baithan utcia dudan capa ekhar dieçadaçu ceurequien ethortcen carenean, eta bai liburuac ere, guciz ordean paperac. [14] Alexandre cobre harotçac gaitx hainitz eracutsi içan darot; bihurtuco dioque Jaunac bere eguiñen arauera. [15] Çu ere beguira çaite haren ganic, haguitx ecen jarri da gure erranei contra eguiterat.

[16] Neure burua deffendatceco mintçatu içan naicen lehen aldian nihor ez çait lagundu, eta guciec utci içan naute. Iratcheq ez daquiela hori. [17] Jaunac ordean lagundu içan nau eta borthiztu, akhaba deçadantçat Evangelioaren predicatcea eta adi deçatentçat nacione guciec; eta libratua içan naiz lehoinaren ahotic. [18] Libratu içan nau Jaunac eguincari gaixto gucietaric; eta goardatuco ere nau ceruco bere erressumacotçat. Hari eman daquioela gloria mendetaco mendetan. Amen.

[19] Saluta çatcitçu Prisca eta Aquila, eta Onesiphoren familia. [20] Erasto Corinthon guelditu da; Trophime berriz eria utci dut Mileten. [21] Khecha çaite negua baiño lehen ethortcerat. Salutatcen çaituzte Eubuloc, Pudentec, Linec, Claudiac eta anaya guciec. [22] Jesuchristo Jauna dela çure Izpirituarequien. Gracia dela çuequien. Amen.

J. PAULO

Aposto. guthuna

TITERI

I. Cap.

[1] Paulo Jaincoaren cerbitçari eta Jesuchristoren Apostolu denac Jaincoaren bereciei fedea predicatceco eta jaincotiartassunaren araueraco den eguia hei eçagut aratcitceco, [2] bicitce eternalaren esperantcetaco, ceiña aguindu içan baidu Jaincoac, gueçurric erran ez deçaquenac, eta dohatu mende guciez aitciñetic, [3] eracutsi ere baidu dembora marcatuan bere hitça, niri fidaturic haren predicatceco cargua gure Salbatçaille Jaincoaren ordenaren arauera, [4] Tite haur maiteari, biec erquide dugun fedearen arauera: Gracia eta baquea diçutela Jainco Aitac eta Jesuchristo gure Salbatçailleac.

[5] Arroçoin hunen gatic utci içan çaitut Cretan, han erreguelatceco direnac erreguela detçatçun gatic eta ifini detçatçun gatic apheçac hirietan, exlegitu içan darotçudan beçala: [6] Baldin nihor erratecoric gabea bada, behin baicen ezcondua içan ez dena, haurrac fidelac dituena, ez debochqueriaz accusatuac eta ez desobedientac. [7] Behar du içan ecen aphezpicu bertce erranquiçunic gabecoa, Jaincoaren etcheco gobernari den beçala: ez arroganta, ez coleratsua, ez arnoari emana, ez colpecaria, ez irabaci likhits bati jarreiquia; [8] aitcitic bai arrotcen ungui errecibitçaillea, amultsua, sobrea, justua, saindua, moderatua; [9] cinqui jarria iduquitcerat fedearen eguiac, berari iracatsi içan çaizcoen leyaltassun berean, gai içan dadintçat exortatceco dotrina garbiaren arauera, eta bentçutceco hari contra eguiten diotenac.

[10] Badire ecen hainitz, guciz circoncisioneco direnen artecoetaric, obeditu nahi ez dutenac, elhe berri erraille eta mundu enganaçaille direnac. [11] Ichillaraci behar dire jende hec, ceiñac familia ossoac iraultcen baidituzte, behar ez direnac iracasten dituztela irabaci liçun baten guraz. [12] Erran ohi ere içan du horien herritar batec, horien profeta beçala denac: "Cretatarrac bethi gueçurtiac, bestia gaixtoac eta sabel uzcurrac."

[13] Lekhucotassun hori eguia diteque. Arroçoin horren gatic erançun dioçoçute borthizqui, bere fedea garbi atcheq deçatentçat, [14] tricatu gabe juduen elhaberrietan eta eguiari guibelondo eguiten dioten guiçon batçuen exlegicarietan.

[15] Chahuentçat guciac dire chahu; lohi direnentçat ordean eta infidelentçat deussere ez da chahu; aitcitic likhistuac ditezque hequien izpiritua eta bai hequien conscientcia. [16] Ostendade eguiten dute eçagutcen dutela Jaincoa, obrez ordean ukhatcen dute; higuin batçu baidire, sinhetx gogor batçu, eta obra on garabetaco gai ez diren batçu.

II. Cap.

[1] Çuc ordean iracats çatcitçu dotrina sainduari dagozcon gauçac. [2] Iracats dioçaçute guiçon çaharrei nola behar duten içan sobre, honest, prudent eta egon garbi fedean, caritatean eta passientcian. [3] Emaste çaharrei orobat, nola behar duten eracutsi bere presuna gucian modestia saindu bat; ez içan gaixqui erraille, ez arnoari emanac; aitcitic nola behar dituzten eman eracuspen onac, [4] iracasten diotelaric emaste gasteei chuhur içaten, bere senharrac eta bere haurrac maitatcen. [5] Prudent içaten, garbi, sobre, bere etcheaz arduratsu , prestu, bere senharren obedient, gaixqui erran ez dadintçat Jaincoaren hitçaz. [6] Gasteac halaber exorta çatcitçu içan daitecen sobre. [7] Gauça gucietan eracuts çaçu ceure burua obra onetaco exemplutçat, dotrinan, garbitassunean, çuhurtcian. [8] Çure hitçac içan beitez sainduac eta ecin errepreniţuzcoac, gure contra direnac ahalca daitecentçat ez içanez guretçat gaixqui erratecoric batere. [9] Gomenda dioçoçute sehiei içan daitecen bere naussiei sumetituac, gauça gucietan hequien gogara eguiterat jarriac eta ez contrariatcerat; [10] ez deçaten hequienetaric deussere aldara, aitcitic eracuts dioçoten aurkhintça gucietan leyaltassun perfet bat, Jainco gure Salbatçaillearen dotrinari gucietan ohore eguin dioçatentçat.

[11] Aguertu içan çaye ecen Jainco gure Salbatçaillearen gracia guiçon guciei [12] eta iracatsi içan darocu gaixtaqueriari eta munduco guticiei ukho eguinic, sobretassunequien, justutassunequien eta jaincotiartassunequien bici behar dugula mundu huntan, [13] çorionezco esperantçaren eta Jesuchristo Jainco handiaren eta gure salbatçaillearen ethor egun gloriossoaren beguira gaudecelaric, [14] ceiñec eman içan baidu bere burua guretçat, gu erresquetatcea gatic gaixtaqueria gucietaric, eta beretçat eguitea gatic populu garbi bat, bere gogaracoa eta obra onei jarreiquia. [15] Predica çatcitçu hauc, exorta çaçu eta erançun çaçu autoritate gucizco batequien, ez duen nihorc bideric çure mezpreçatceco.

III. Cap.

[1] Abisa çatcitçu, içan daitecen printceen eta bothereèn alderat sumetituac, obedi dioçoten hequien manuei, içan daitecen prest obra on gucietacotz, [2] ez deçaten erran gaixquiric nihortaz, ez daiten [1] içan iharduquitçaille; aitcitic içan daitecen modest, emetassun gucizco bat eracusten dutelaric guiçon gucien alderat; [3] gu ere ecen lehenago sensu gabeco guinen, sinhetx gogor, errebelatuac, passione eta atseguin mota gucien gathibu, maleciaz eta inbidiaz betheac guinabiltçala, higuingarri eta elkharren higuintçaille.

[4] Ordean Jainco gure Salbatçaillearen ontassuna eta guiçonen ganaco amudioa aguertu içan denean, [5] salbatu içan gaitu ez guc eguin dituzquegun justiciazco obren gatic, bainan bere urricalmendua gatic, sortce berritaco bathayoaz eta Izpiritu Sainduazco erreberritcez, [6] ceiña issuri içan baidu franquiarequien gure gainerat Jesuchristo gure Salbatçailleaz, [7] haren graciaz justificatuac içanic, içan gaitecen bicitce eternalaren heredero, esperantça dugun arauera.

[8] Eguia guerthu bat da eta hautaz nahi dut cinqui mintça çaitecen, obra onetaco aitcindari içan daitecentçat Jaincoa baithan sinhexten dutenac. Hauc dire eguiazqui on diren gauçac eta guiçonen probetchutaco direnac. [9] Bainan questione erhoac, hidalgoac, iharduquitceac eta legueazco debadioac iraitçatcitçu; vanoac dire ecen eta deussetaco on ez direnac. [10] Guiçon heretico bat behin eta bietan abisatu duqueçun ondoan, utçaçu, ihes eguioçu, [11] gogoaturic halaco dena iraulia dela eta bekhatuzco estatuan dagoena, bere conscientcia propialac condenatcen duenaz gueroz.

[12] Igorri darotçuquedanean Artemas edo Tichique, khecha çaite eneganat ethortcerat Nicopoliserat, ecen han iragan gogo dut negua. [13] Zenas legueco dotora eta Apollo igoratcitçu aitcinerat eta duçun artha deussen escassic ez duten. [14] Ikhas beçate halaber gure anayec ere aitcindari içaten obra onetan, behar ordutaco agor eta fruitu gabeco gueldi ez daitecen. [15] Salutatcen çaituzte enequien diren guciec; saluta çatcitçu fedezco batassunean gu maite gaituztenac. Jaincoaren gracia dela çuec guciequien. Amen.

1. Lehen idatziaren gainean hori, eta ez *daitecen*, idatzi bide du.

J. PAULO
Apostol. Guthuna
PHILEMONI

I. Cap.

[1] Paulo, Jesuchristoren gatic presso denac, eta Timotheo haren anayac, Philemon gure lagun maiteari, [2] Appia gure arreba maiteari, Archippe gure soldadu quideari eta çure etchean den eliçari: [3] Gracia eta baquea diçuela Jainco gure Aitac eta Jesuchristo gure Jaunac.

[4] Esquerrac ematen diotçat ene Jaincoari, bethi naicelaric orhoitcen çutaz ene oracionetan, [5] aditcen baidut nolaco fedea duçun Jesus Jauna baithan eta nolaco caritatea saindu gucien alderat, [6] çure fedeac eguiten dituen emaitça handiac eçagutuac içan daitecentçat mundu guciaz, jaquiten dituztenean çuen etchean Jesuchristoren amorea gatic eguiten diren obra on guciac. [7] Bozcario eta consolamendu handia içan dut ecen çuen caritatearen ariaz, ene anaya, ceren çure laguntçaz içan baidute sainduec Izpiritua descansuan.

[8] Horri dagocala, burupe osso bat duquedalaric Jesuchristo baithan eguinbide duçunaren çuri manatceco, [9] caritatea gatic hala ere nahiago darotçut othoitz eguin, naicen beçalacoric ere, Paulo ja çaharra, eta are orai Jesuchristo gatic gathez estecatua. [10] Othoizten çaitut bada ene seme Onesimo gatheetan genderatu içan dudanarentçat, [11] ceiñec bertce orduz deus ez baitçuen balio curetçat, ceiñec ordean orai hainitz balio baidu enetçat eta bai çuretçat ere. [12] Igortcen darotçut bada eta çuc othoy errecibi çaçu ene bihotcecoa den beçala. [13] Ene oldez neurequien guelldituco nuen, cure orde cerbitça netçantçat [1] Evangelioa gatic dakharzquedan gatheètan.

[14] Çure consentimendua gabe ordean deussere ez dut nahi eguin içatu, eguinen duçun [2] bortchaz beçala eguiña ez dadintçat, baiñan bai borondatezqui. [15] Aguian ecen huntacotz aldaratu diteque çure ganic aphur batentçat, guero bethierecotz errecibi ciñeçantçat, [16] ez gaur guehiago esclauo bat beçala, baiñan esclauo baten orde anaya maite bat beçala, niri behintçat hala çaitana eta çuri

1. Hala dio; Vulgatak "ut pro te mihi ministraret".
2. *duçuna* behar du izan, edo agian "eguinen duçun *onguia*", Vulgatak "bonum tuum" baitio.

areago hala içan behar çaitçuna, bai munduaren eta bai Jaunaren arauera. [17] Baldinetariac bada çure laguntçat banaducaçu, errecibi çaçu neroni beçala. [18] Eta baldin bidegaberic eguin badarotçu edo cerbeit çor baderautçu, conda çaçu nic darotçudala çor. [19] Nic Pauloc darotçut hau escribatcen neure escuz; nic bihurtuco darotçut, erran ez dieçaçudan ceure burua ere çor bide darotaçula. [20] Othoi, ene anaya, dudan atseguin hori çure ganic Jaunaren icenean, eman dieçadaçu Izpíritua descansuan.

[21] Hau escribatcen darotçut fida içanez çure obedientciaz, baidaquit erraten dudan baino guehiago ere eguinen duçula. [22] Dembora berean prepara dieçadaçu, othoi, guela bat, ecen esperantça dut çuen oracioneèn bidez bihurtuco natçaitçuela.

[23] Salutatcen çaituzte Epaphras Jesuchristo gatic enequien presso denac, [24] Marc, Aristarque, Demas eta Luc ene lagunec. [25] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çure izpirituarequien. Amen.

J. PAULO

Apost. Guthuna

HEBRAEARREI

[1] Hainitz orduz eta hainitz maneretan lehenago Jaincoa mintçatu baitçaye gure aitei profetez, [2] azqueneco egun hautan mintçatu çaicu guri bere Semeaz, ceina ifini içan baidu gauça gucien heredero eta ceinaz eguin ere içan baidu mundua, [3] ceiña haren gloriaren distiadura eta haren sustantciaren imagina den beçala, gauça guciac bere hitçaren botherez dakharzquena, urratu dituen ondoan bekhatuac, jarri baida ceruen gorenean majestatearen escuiñetic, [4] hambatenaz aingueruez gorago altchatua, cembatenaz harc errecibitu içan duen icena baida hequiena baiño exelentagoa.

[5] Aingueruetaric ecen ceiñi erran içan dioque Jaincoac egundaiño: "Ene Semea çare çu, nic egun engendratua çare çu?". Eta oraiño: "Ni içanen naiz haren aita, eta hura içanen da ene Semea?". [6] Eta berriz ere sarrarazten duenean munduan bere Seme lehen jayoa, erraten du: "Hea, adora beçate hori Jaincoaren aingueru guciec". [7] Aingueruez denaz beçambatean erraten da: "Jaincoac izpirituez eguiten ditu bere aingueruac eta su lammez bere ministroac." [8] Semeari ordean erraten dio: "Çure thronua, ó Jaungoycoa, secula seculacotz da: çucentassunezco sceptro bat da, çure erreguetassuneco sceptroa. [9] Onetsi içan duçu justutassuna eta gaitxetsi gaixtaqueria; hargatic gantçutu içan çaitu, ó Jaincoa, çure Jaincoac bozcariozco olio batez, çure parçuner içanen diren gucien gaiñetic." [10] Eta oraiño: "Çuc, Jauna, haste hastetic creatu içan duçu lurra eta çure escuen obrac dire ceruac. [11] Hec desseguinen ditezque, çuc ordean iraunen duçu; hec guciac çahartuco dire bestimenda bat beçala, [12] gambiatuco ditutçu aldagarri bat beçala eta gambiatuco dire; çu ordean behiere berbera içanen çare eta çure urtheac ez dire akhabatuco." [13] Ceiñi othe aingueruetaric erran dioque egundaiño: "Jar çaite ene escuiñeco aldean, eçar detçaquedan artean çure etsayac çure oiñen azpian?". [14] Ez dire, guciac cerbitçatceco eguinac diren Izpiritu batçu, ongundetacotz igorriac salbamenduaren heredero içan behar dutenen onetan?

II. Cap.

[1] Hargatic bada hobequi behar diotegu gogoa eman aditu içan ditugun gaucei, itçurtcerat utz ez detçaguntçat. [2] Baldinetariac ecen aingueruez erran içan den hitçac hambat indar içan badu, eta haren contra goate guciec eta hari eguin çaizcon desobedientcia guciec saritçat içan badute behartcen [1] gastigua, [3] nola gu itçurico gaizco, baldin conturic ez badaguigu hain legue salbagarri batez, ceina lehenic Jaunaz beraz iracatsia içanic, confirmatua içan baitçaicu entçun içan dutenez, [4] Jaincoac berac laguntcen duelaric hequien lekhucotassuna miracuilluez, prodigioez, bere botherearen eguincari differentez eta Izpiritu Sainduaren dohainez, bere nahiaren arauera partitu dituenez?

[5] Ez du ecen aingueruen azpico eguin Jaincoac ethorquiçuneco mundua, ceinetaz mintço baigare. [6] Erran içan du bada cembeit toquitan norbeitec: "Cer da guiçona, hartaz orhoit baitçare, edo cer da guiçonaren semea, hura bisitatcen baiduçu? [7] Mendreago eguin içan duçu aphur batecotçat aingueruac baiño; gloriaz eta ohorez khoroatu duçu eta ifini içan duçu çure escuetaco obren gaiñeco. [8] Gauça guciac eman diotçatçu oinen azpirat". Guciac bada eguin dituenaz gueroz haren azpico, deusere ez du utci haren azpico (ez denic) [2] içan gaberic; oraiño ordean ez dugu icusten guciac haren azpico direla. [9] Bainan icusten dugu, aphur bateco aingueruez mendreago eguin içan den Jesus hura, pairatu içan duen heriotcea gatic gloriaz eta ohorez khoroatua; halaco moldez, non Jaincoaren gracia bat içan baida guiçon gucientçat hill cedin.

[10] Beharqui ere cen Jaincoac, ceiña gatic eta ceinaz baidire gauça guciac, eta ceiñec hainitz ume nahi baitcituen eraman gloriarat, hequien salbamenduaren authora eta buruçaguia soffricariez ceçan altcha ohorearen gargaiterat; [11] ecen santificatcen duena eta santificatcen direnac batetaric dire guciac; arroçoin horren gatic ez da ahalque hec anayac deitceaz, diotsalaric: [12] "Eçagutaracico diotet çure icena ene anayei; cantatuco ditut çure laudorioac batçarraren erdian." [13] Guero berriz: "Ni fida içanen naiz haren baithan." Bertce toqui batean berriz: "Huna ni eta ene haurrac, Jaincoac niri eman içan darozquidanac". [14] Nola bada haiña hec haraguizco eta odolezco natura batetacoac baidire, berac ere orobat natura hura bera hartu içan du, heriotceaz desseguitea gatic heriotcearen naussitassuna çuena, erran nahi da deabrua, [15] eta libertatean ibentcea gatic herioaren beldurrac bere

1. Hots, *behar cen*; hala idazten du maiz: ik. Mt. XIV, 5, Lc. XVI, 22.
2. *ez denic* ezabatua bide dago.

bici gucian gathibutassunean çaduzcanac. [16] Nasqui ecen ez ditu hartu içan aingueruac, bainan Abrahamen odola hartu içan du. [17] Eta horri dagocala, beharric içan da gauça gucietan bere anayen idurico, içan cedintçat hequien alderat urricalmendutsu eta Jaincoaren alderaco Pontifo fidel bat, populuaren bekhatuen barkhamendua ardiextecotçat, [18] ecen pairatu içan baidu berac eta tentatua içan baidą; gai da halaber tentatuac direnac ere laguntceco.

III. Cap.

[1] Bada, ene anaya sainduac, ceruco deyan parte duçuenac, considera çaçue gure erreligioneco Apostolua eta Pontifoa Jesus, [2] cargu hortan ifini duenarentçat fidel dena, hala nola Moises ere leyal içan baitcen haren etche gucian; [3] hambatenaz ecen gloria handiago baten merecient iduquia içan da Moises baiño, cembatenaz ohore handiago bat baidu mereci etcheac berac baiño etchea eguin duenac. [4] Ez da ecen etcheric norbeitez eguiña içan ez denic; guciac creatu içan dituena ordean Jaincoa da. [5] Eta Moises guerthuqui fidel içan da Jaincoaren etche gucian cerbitçari beçala, errateco ciren guciez lekhucotassuna errendatceco. [6] Jesuchristo ordean Seme beçala da bere etchean, eta gu gare haren etche hura, baldin fidantcia fermu bat eta iguriquitcen dugun gloriaren esperantça cinezco bat iduquitcen badugu azqueneraiño.

[7] Hargatic Izpiritu Sainduac erraten duen beçala: "Egun baldin haren boça aditcen baduçue, [8] ez detçatçuela gogor çuen bihotçac, tarritatu ohi ninduten beçala, desertuan tentatu ninduten egunean, [9] non tentatu içan baininduten çuen aitec, frogatu baininduten eta icussi baitcituzten ene eguincariac [10] berrogoy urthez; ceri dagocala gaitxeriztu [3] baidut nacione hori eta erran ere içan baidut: Bethi dabiltça hauc bihotcez errebelatuac, eta ez dituzte eçagutcen ene bideac. [11] Hala juramentu eguin dut ene coleran: sartcen badire bada ene errepausuan".

[12] Beguirautçue beraz, ene anayac, çuetaric cembeiten baitan guertha ez dadin bihotz gaixcoatu eta sinhexte gabeco bat, Jainco bicia ganic separa deçaquena. [13] Exorta çaçue elkhar egun oroz diraueiño Egungo Eguna daritçan demborac, gogor ez dadintçat çuetaric nihor, bekhatuac enganaturic. [14] Ecen Jesuchristoren parçuner eguin içan gare, baldin behintçat gure baithan ibeni içan duen içate berriaren hastapenari cinqui atchequitcen badiogu azquen fineraiño, [15] erraten deiño: "Egun baldin haren boça aditcen baduçue, ez detçatçuela gogor çuen bihotçac, hala tarritatu ohi çuten orduan beçala". [16] Cembaitec ecen aditcen çutelaric tarritatu içan çuten Jaincoa bere contrestez, ez ordean Egiptotic Moisec ilkhi araci cituen guciec. [17] Cein othe dire bada Jaincoac nekhez jassan ohi cituenac berrogoy urthez haiñac baicen, ceiñec bekhatu eguin baitçuten, ceiñen gorphutçac etçanac guelditu baitciren desertuan? [18] Ceinei berriz eguin cioten juramentu ez cirela sarthuco haren errepausuan, sinhets gogor içan cirenei baicen? [19] Eta icusten ere dugu ecin sarthu içan cirela bere sinhetx gogortassuna cela causa.

3. Ilun dago, baina hori bide dio.

IV. Cap.

[1] Garen beraz beldur, Jaincoaren errepausuan sartceco eguin çaicun promessa utciric, guertha ez dadin çuetaric cembeit han sarthuco ez denic. [2] Ecen guri ere erran içan çaicu hei beçala; ordean aditu çuten hitça ez çaye baliatu, ez baitcen fedeaz baltsatua aditu çutenen baithan. [3] Sarthuco gare ecen errepausu hartan sinhetsi içan dugunac, erran duenaren arauera: "Hala nola juramentu eguin baidut ene coleran: sartcen badire bada ene errepausuan"; eta behintçat mintço da Jaincoa munduaren creacioneco obrac akhabatu ondoco errepausuaz. [4] Erraten du ecen Escriturac nombeit, çazpi garren egunaz mintço dela: "Eta pausatu cen Jaincoa çazpi garren egunean bere obra guciac akhabaturic". [5] Eta hemen berriz dio: "Sartcen badire bada ene errepausuan".

[6] Beraz mengoa denaz gueroz cembeit sar daitecen hartan, eta hainac, ceinei lehenbicicoric adiaraci baitcitçayen, sarthu ez direnaz gueroz bere sinhetx gogortassuna gatic, [7] berriz ere seiñalatcen du egun guerthu bat, cein baida Gaur hori, Daviden baithan erraten duelaric hambat demboraren buruan, ja erraten duen beçala: "Gaur baldin haren boça aditcen baduçue, ez detçatçuela gogor çuen bihotçac". [8] Ecen baldiñetariac Josuec ifini balitu errepausu hartan, ez bide cen mintçatuco Escritura guero ondoan bertce egun batez. [9] Beraz sabbatogo hura eta errepausu hura Jaincoaren populuarentçat guelditcen da erresalbatua, [10] ecen Jaincoaren errepausuan sarthu ditequena pausatcen da bera ere, bere lanetaric gueldituric, Jaincoa pausatu içan den beçala bereac akhabaturic. [11] Lehia gaitecen beraz sartcerat errepausu hartan, beldurrez ecen nihor eror ez dadin sinhetx gogor hequiena beçalaco desobedientcia batean.

[12] Bicia da ecen Jaincoaren hitça eta eraguillea, eta den ezpata bi ahotacoric baiño cilhacorragoa; heltcen da arimaren eta izpirituaren plegutaraiño, junturetaraiño eta fuinetaraiño, eta berezten ditu bihotceco gogoetac eta chedeac. [13] Ez da creaturaric hari gorde daquioquenic, aitcitic gauça guciac dire has-hassa eta agueri haiñaren beguien aitciñean, ceinez mintço baigare.

[14] Dugunaz gueroz bada aphez handitçat Jesus Jaincoaren Semea, ceruen gorenerat igan dena, gatcheizcon cinqui hartu dugun sinhexteari. [15] Ecen guc dugun aphez handia ez da gure flaquitateez urricalmendu ecin duquena, aitcitic bai tentacione thaillu guciac guc beçala frogatu içan dituena, bekhatuaz landan. [16] Goacen beraz fidantciarequien graciaren thronurat, misericordia ardiets deçaguntçat eta haren graciaren laguntça ediren deçaguntçat gure behar ordutaco.

V. Cap.

[1] Ecen Pontifo den gucia, guiçonetaric hartcen baida, guiçonen gatic da ifinia Jaincoari behatcen çaizcon gaucetaco; emaitçac eta sacrificioac offrenda detçantçat bekhatuentçat [2] eta içan ahal detçan gatic urricari jaquin gabez eta enganaturic bekhatu eguiten dutenac, ceren bera ere inguratua baida flaquitatez. [3] Eta hargatic behar du populuarentçat beçala, beretçat ere halaber offrendatu sacrificioa bekhatuen urratceco. [4] Ordean nihorc ez du hartcen ohore hori beretçat, baiñan Jaincoaz behar du içan hartarat deithua Aaron beçala.

[5] Halaber Jesuchristo ez da bere buruz sarthu pontife içateco glorian, baiñan haiñac eman dio, ceiñac erran içan baidio: "Ene Semea çare çu, nic egun jenderatu çaitut çu". [6] Bertce lekhu batean ere erraten dioen beçala: "Çu çare aphez eternala, Melchisedechen ordenaren araueracoa". [7] Hala bere haragui hilcorrean bici cen demboran, bere othoitçac eta errequerimenduac offrendatu baitciotçan oihu handi batequien eta nigarrequien heriotcetic salba ahal ceçaquenari, entçuna içan cen bere Aitarentçat çuen errespetu humilla gatic. [8] Eta Jaincoaren Seme bacen ere, pairatu içan dituenetaric jaquin du cer den obeditçea. [9] Eta akhabantçarat heldu içan denean, eguin içan da hari obeditcen dioten gucientçat salbamendu eternalaren authora eta causa, [10] declaratua içan baida Jaincoaz Melchisedechen ordenaren araueraco Pontifo.

[11] Hainitz gauça guinduque horren gaiñean errateco eta hitcez ecin explica ere ditezquenac, ceren herabe baitçarete aditcerat. [12] Ecen hambat demboraren ondoan ja naussi içan behar cinduquetelaric, oraiño berriz iracatsi behar çaitçue cer diren Jaincoaren hitça explicatcen hasten direneco lehenbicico elementac, eta eguin çarete pressuna batçu beçala, ceinei esnea eman behar baitçaye eta ez jaqui solidoric. [13] Bada oraiño esnean dagoena ez da gai justiciaren predicuen aditceco, haurra baida oraiño. [14] Ordean perfetentçat da jaqui solidoa, hainentçat ceiñec costuma luce baten bidez izpiritua eguiña baidute onaren eta gaitxaren berexterat.

VI. Cap.

[1] Utciric bada Jesuchristo baithan sinhexten hassi berriei ematen ohi çaizten eracuspenac, gathocen guehien perfet direnetarat, berriz hassi gabe cimendutçat eçartcen obra hillez eguin behar den penitentcia, Jaincoa baithango sinhextea, [2] bathayoen gaiñean iracasten ohi dena, escuen pausatcea, hillen phiztea eta jugeamendu eternala. [3] Eta hori dugu ere eguiñen, baldin behintçat cilheguitcen badu Jaincoac.

[4] Ecin daitequena da ecen behin arguituac içan direnac, dastatu ere dutenac ceruco dohaiña, Izpiritu Sainduaren parçuner eguin içan direnac, [5] haci içan direnac Jaincoaren hitz sainduaz eta ethorrico den mendeco handitassunen esperantçaz, [6] eta hala ere erori içan direnac, berriz erreberri daitecen penitentciaz, halaz eta hequien baithan dagoen guciaz, berriz ere gurutceficatcen dutela bere baithan Jaincoaren Semea eta desohorean eçartcen. [7] Ecen lur batec, maiz erortcen çayoen uriaz bustia içan eta, ekhartcen diotçatenean sassoiñezco belharrac hura lantcen dutenei, errecibitcen ohi du Jaincoaren benedicionea, [8] baiñan elhorriac eta laharrac dituenean ekhartcen, deussic balio ez duen lur bat diteque, sarri madaricatua içan beharra eta azquenean ere erre beharra.

[9] Çuetaz ordean, ene maiteac, hobeagoric dugu uste eta salbamenduari hurbiltcenago çayoenic, hunela mintço garen arren. [10] Ez da ecen Jaincoa injustu, ahanztecotçat çuen obra onac eta haren icenean sainduei eguin içan diotçatçuen eta eguiten ere diotçatçuen ongundeez eracutsi içan duçuen caritatea. [11] Desiratcen dugu bada çuetaric batbederac eracuts deçan zelo bera azqueneraiño, çuen esperantça complitua içan dadintçat, [12] eta içan ez çaitezten uzcur eta nagui, aitcitic bai hainen imitatçaille, ceiñac bere fedeaz eta passientciaz eguin içan baidire aguintcen heredero.

[13] Abrahami ecen aguintcean Jaincoac, ez baitçuen nihor bera baiño handiagoric, ceiñetaz juramentu eguin, eguin cioen juramentu bere buruaz, [14] ciotsalaric: "Ez baldin baçaitut bada benedicaturic benedicatcen eta manera guciez berretcen". [15] Eta hala Abrahamec passientciarequien iduriquiric, ardietxi çuen aguindu içan citçayoena. [16] Ecen guiçonec berac baiño handiagoez dute juramentu eguiten, eta bere differentcia gucien akhabatceco eman ahal deçaqueten segurantçaric handiena juramentua dute. [17] Horri dagocala Jaincoac ere, nahiz guerthuquigo [4] eracutsi aguintçaren herederoei bere chedearen fermutassun ecin gambiatuzcoa,

4. *–ago* behar luke.

juramentua artean ibeni içan du, [18] bi gauça ecin gambiatuzcoen bidez, ceiñetaz impossible baida engana gaitçan Jaincoac, içan deçaguntçat consolacione indartsu bat, gure helpidea ibeni dugunec proposatu çaizquigun onen atcemateco esperantçan, [19] ceiña baidugu arimarentçat aingura seguratu eta fermu bat beçala eta beloaren barreneraiño goaten den bat beçala, [20] non Jesus sarthu içan baida gure aitcindari Melchisedechen ordenaren arauerako Pontife eternal eguinic.

VII. Cap.

[1] Ecen Melchisedech hura, Salemgo erreguea, Jaungoicoaren apheça, Abrahami erregueac desseguinic heldu cela bathu çitçayoena eta benedicionea eman cioena, [2] ceini gauça gucien hamarrena Abrahamec ere eman içan baitcioen, ceiña bere icenaren erranquidez deitcen baida lehenic "Justiciaren Erregue", guero berriz Salemgo erregue, erran nahi da "Baquezco Erregue", [3] aita gabea, ama gabea, hidalgoric gabea, bicitcearen hastapenic ez akhabantçaric ez duena, eta horlatan Jaincoaren Semearen idurico eguin dena, bethicotçat dago aphez.

[4] Icussaçue bada cein handia cen hura, halaz eta [5] Abraham patriarchac ere eman cioenaz gueroz cituen hoberenetaric hamarrena. [5] Eguiazqui Leviren Semeetaric apheztassunean sartcen direnec manua badute leguearen arauera hamarrenen hartceco populuaren ganic, erran nahi da bere anayen ganic, hauc ere Abrahamen ganic ilkhiac diren arren hec beçala, [6] ordean hequien leiñu bereco condatcen ez denac hamarrenac Abraham ganic ditu hartu eta aguintçac bere cituen hura du benedicatu. [7] Dudaric batere gabe da, bada, gutiagoco denac errecibitcen duela benedicionea guehiagoco dena ganic. [8] Eta hemen alabaiñan hamarrenac errecibitcen dituztenac guiçon batçu dire hiltcen direnac; han ordean bici den presuna batez beçala da aiphatua. [9] Eta (hunela mintça nadin) Levic, hamarrenac bertceèn ganic içaten dituenac, pagatu içan ditu berac Abrahamen presunan. [10] Oraiño ecen Abraham bere arbassoa baithan cen, patriarcha hari Melchisedech biderat ilkhi citçayoenean.

[11] Baldinetariac bada Leviren apheztassuna, ceinaren azpian populuac leguea errecibitu içan baidu, gai içan balitz guiçonac justu eta perfet errendatceco, cer mengoa cen altcha cedin bertce aphez bat, Melchisedechen ordenaren araueracoa erranen ciotena, eta ez Aaronen ordenaren araueracoa? [12] Gambiatu gueroztic ecen apheztassuna, mengoa da gambia dadin leguea ere halaber. [13] Ecen gauça hauc ceiñez erraten baidire, eta haiña bertce leiñu batetacoa da, ceiñetaric nihor egundaiño aldarerat ez baida hurbildu içan, [14] gauça guerthua denaz gueroz gure Jauna Judaren leiñutic ilkhi içan dela, cein leiñurentçat deussere ez baidu erran içan Moisec aphezgoaz.

[15] Eta are clarguiago da hau agueri, ceren guerthatcen baida bertce aphez bat Melchisedechen iduritacoa, [16] cein ez baida ifinia ondoquide baten leguez, bainan bai bere bicitce ecin ethenduzcoaren botherez, [17] Escriturac declaratcen duen

5. Kausala, beste askotan bezala (Ik. Rom. I, 19), ez ordea goraxeagoko pasartean (Hebr. VI, 6).

beçala hitz hautaz: "Çu baitçare aphez bethierecotz Melchisedechen ordenaren araueracoa". [18] Antçutcen da ecen aitciñagoco leguea, ceren den herbala eta probetchu gabetacoa, [19] ceren deussere ez baidu perfeccionerat eraman içan legueac, baiñan ethorri içan da haren orde esperantca hobeago bat, ceiñetaz hurbiltcen baigare Jaincoa ganat.

[20] Eta hala ere ez baida juramentu gabecoa (bertceac alabainan juramentu gabe aphez eguin içan dire, [21] hau ordean juramenturequien, Jaincoac erran baidio: "Juramentu eguin du Jaunac eta ez çayo urriquituco, çu içanen çarela aphez bethierecotz Melchisedechen ordenaren araueracoa"). [22] Hain da eguia ecen alientcia hobeago baten ararteco jarri dela Jesus. [23] Bertce aphecez denaz beçambatean alabaiñan hainitz içan dire, ceren eta herioaz debecatuac baitciren bethi irautetic. [24] Hunec ordean bethi behar baidu iraun, bethiereco apheztassuna du. [25] Handic da bethi gai salbatceco haren arartecotassunez Jaincoa ganat hurbiltcen direnac, bethi bici baida guretçat othoitz eguiteco.

[26] Beharqui cen ecen horlaco Pontifo bat içan guineçan, saindua, innocenta, tatcha gabea, bekhatorossetaric aldaratua eta ceruez gorago altchatua; [27] ceiñec ez baidu beharric egun oroz bertce Pontifoec beçala lehenic bere bekhatuentçat bictimac offrendatceco, guero populuarentçat; hori eguin içan du ecen behingoan bere burua offrendatcean; [28] legueac ecen aphezçat guiçonac ditu ifinitcen [6], flaquitate hainitz dutenac; juramentu hitçac, ordean, ceiña legueaz guerozticacoa baida, Semea bethierecotz saindu eta perfec dena du ifinitcen pontifotçat.

6. Hala dio hemen eta bi lerro beherago.

VIII. Cap.

[1] Erraten ditugun gaucen funtsa hauche diteque: Pontifo bat dugu, ceruetan jarria dagoena majestate soberanoaren thronuaren escuiñean, [2] Santuarioco ministre dena eta eguiazco tabernacle hartaco, ceiña fincatu içan baidu Jaincoac, eta ez guiçonac. [3] Ecen Pontifo den gucia emaitçac eta bictimac Jaincoari offrendatceco ifinitcen da; hargatic da mengoa hunec ere içan deçan cerbeit offrenda ahal deçaquenic. [4] Baldinetariac bada lurrean baleago, ez liteque ere aphez, ceren ja baidire bertceac leguearen araueraco emaitçac offrendatceco, [5] ceinen cerbitçua baida ceruco gaucen figura eta itçala beçala diren gauça batçutacotz, Moiseri Jaincoac erran cioenaren arauera tabernaclea akhabatceracoan: "Beguirautçu", ciotson; "gauça guciac eguitcitçu mendian eracutsi içan çaitçun moldearen arauera". [6] Orai ordean gureac errecibitu içan du aphezgoa bat hambatenaz exelentago, cembatenaz baida alientcia hobeago baten ararteco eta aguintça hobeago batçuen gaiñean ifinia denarena. [7] Ecen baldin lehenbicico harc escassic içan ez balu, ez cen bigarren bat haren orde emateco beharric içanen. [8] Iroi ematen diotela ordean Jaincoac erraten diote: "Huna non heldu den dembora, dio Jaunac, ceinetan eguinen baidut aliencia berri bat Israelgo etcheare quien eta Judaco etcheare quien, [9] ez hequien aitequien eguin içan dudan aliencia beçalacoa, escutic hartu nituenean Egiptotic hec atheratceco; ceren ez baidire egotu ene aliencian, nic ere ez dut antsiaric içan hetaz, dio Jaunac. [10] Baiñan huna cer alientcia eguiñen dudan Israelgo etcheare quien dembora hura dathorquenean, dio Jaunac: ibenico ditut ene legueac hequien gogoan eta escribatuco ditut hequien bihotcean eta içanen naiz hequien Jaincoa eta hec içanen dire ene populua; [11] eta ez dio iracatsi beharco batbederac bere hauçoari eta bere anayari, erraten dioelaric: Eçagut çaçu Jauna; cergatic guciec eçagutuco bainaute, chumenetic handieneraiñoco guciec, [12] ecen barkhatuco diotçatet bere gaixtaqueriac eta hequien bekhatuez ez naiz guehiago orhoituco". [13] Mintço denean bada alientcia berri batez, eracusten du antçutua dela lehenbicicoa; bada antçutcen eta çahartcen dena hurbil da akhabatua içatetic.

IX. Cap.

[1] Bacituen bada lehenbicico alientcia harc ere Jaincoaren cerbitçuco legue eta ordenamendu batçu eta mundu huntaco santuario bat. [2] Lehenbiciric ecen eguin cen tabernacle bat, ceiñetan baitciren candelerac, mahaiña eta proposicioneco oguiac, cein deitcen baida Lekhu Saindua. [3] Bigarren belaren ondoan cen berriz tabernaclea, Sainduen Saindua daritçana, [4] ceiñetan baitcen urrezco incensario bat eta alienciaco arca alde gucietaric inguru urrez estalia, ceiñaren barrenean baitciren urrezco pegar bat mannaz bethea, Aaronen cigorra loratu ohi cena, eta alienciaco bi taulac. [5] Eta arcaren gaiñean ciren cherubiñac, gloriaz distiatcen çutelaric propiciatorioa estaltcen çutenac; baiñan ez da mengoaric orai gauça horiez chehero mintçatceco.

[6] Gauça horiec horla arrimatuac cirelaric bada, lehenbicico tabernaclean sartcen ciren apheçac dembora gucietan, apheztassuneco ongundeac eguin behar cituztenean. [7] Bigarrenean ordean Pontifoa sartcen cen bakharric urthean behin, ez odola eraman gabetaric, ceiña offrendatcen baitçuen bere huts eguinentçat eta populuarentçat. [8] Hortic eracusten darocularic Izpiritu Sainduac ez cela oraiño idequia santuarioco bidea, lehenbicico tabernacleac ciraueiño. [9] Eta hori dembora hartaco figura bat cen, ceiñaren arauera offrendatcen baitciren emaitçac eta victimac, cerbitçu hori Jaincoari errendatcen ciotenen conscientcia garbitceco gai ez cirenac, [10] ceudecenez gueroz solamente janaritan eta edaritan, garbiqueta molde differentetan eta haraguicaraco ceremonia batçutan, ceiñac baitciren ordenatuac legue hura gambiatua içan citequen demboraraiñocotçat.

[11] Ordean Jesuchristo ethorquiçuneco ontassunen Pontifoa ethorriric mundurat, sarthu içan da behin santuarioan tabernacle handiago eta exelentago batetaric, ceiña ez baida eguiña içatu guiçonen escuz, erran nahi da, ez baida mundu huntaco creaturen herruncacoa; [12] eta sarthu içan da ez akherren edo chahalen odolarequien, bainan bere odol propioarequien erresquetamendu eternal bat ardiexten darocularic. [13] Baldinetariac ecen akherren eta cecenen odolac eta ergui baten hautsarequien nahastaturicaco uraren arthiquitceac santificatcen baditu lohi cirenac, haraguiaren arauera hec garbituz, [14] cembatenaz are guehiago Jesuchristoren odolac, ceiñec Izpiritu Sainduaz bere burua offrendatu içan baidio Jaincoari tatcha gabeco bictima bat beçala, garbituco bide du gure conscientcia obra hilquiçunetaric, cerbitça deçagun gatic Jainco bicia?

[15] Horren gatic ere da Testament Berriaren ararteco, leheneco testamentaren azpian eguiten ciren bekhatuen urratceco, harc pairatu içan duen heriotcearen

ariaz errecibi deçaten gatic deithuac direnec aguindu içan çayen primeça eternala. [16] Ecen testamenta den toquian mengoa da hel dadin testamenta eguillearen heriotcea, [17] ceren testamentac ez baidu indarric heriotceaz baicen, bertcenaz balio ez duenaz gueroztic eguin duena bici deiño. [18] Hortic heldu da lehenbicico testamenta ere ez baitcen botheretsu içatu odolarequien baicen. [19] Moisec ecen iracurri ondoan populu guciaren aitcinean leguearen manamendu guciac, harturic chahalen eta akherren odoletic urarequien eta escarlatarat tintaturicaco lanarequien eta hissoparequien, arthiqui içan çuen hartaric liburuaren beraren gaiñerat eta populu guciaren gaiñerat, [20] erraten çuelaric: "Hau da Jaincoac çuentçat eguin duen testamenteco odola". [21] Halaber tabernaclearen gaiñerat eta han cerbitçatcen ciren gauça gucietarat ere arthiqui çuen odola, [22] eta leguearen arauera hurren gauça guciac odolarequien purificatcen ohi dire, eta odol issurtce gabe ez da eguiten bekhatuen barkhamenduric.

[23] Mengoa cen beraz gauça cerucoen figura choil cirenac aliamalien odolaz içan çeitecen purificatuac, cerucoac berac ordean hauc baino hobeagoco bictimez. [24] Ez da ecen Jesuchristo sarthu içan guiçonen escuz eguinicaco santuario hartan, ceiña ez baitcen eguiazcoaren figura baicen, bainan sarthu içan da ceruan berean, guretçat orai aguertceco Jaincoaren aitcinean. [25] Eta ez da ere sarthu içan hainitcetan bere burua offrendatceco, aphez handia sartcen den beçala Santuarioan urthe guciez odol atce batequien. [26] Bertcela pairatu içan behar çuquen hainitz aldiz munduaren creacioneaz gueroztic; orai ordean mendeèn akhabantçan behin aguertu içan da bekhatua urratceco, bere burua bictimatçat offrendaturic. [27] Eta nola exlegitua baida guiçonentçat behin hiltcea, guero ondoan jugeatuac içatea, [28] hala Jesuchristo ere behin offrendatua içan da hainitcen bekhatuac urratceco; bertce aldian berriz aguertuco da bekhatuaren deussic içan gabe, haren beguira daudecenen salbamenducotz, hura iguriquitcen dutenac salbatceco.

X. Cap.

[1] Ecen ethortceco ceudecen onen itçala baitçuen choilqui legueac, eta ez gaucen iduria bera ere, urthe guciez bethi offrendatcen dituzten bictima berez ecin seculan justu eta perfet eguin detçaque aldarerat hurbiltcen direnac. [2] Bertcela guelldituco ciren offrendatcetic, ceren eta sacrificatcen dutenec ez baitçuten bere conscientcia guehiago sentituco bekhatuz cargatua behin garbituac içan gueroztic. [3] Bizquitartean sacrificio hetan erreberritcen ohi da urthe guciez bekhatuen orhoitçapena, [4] impossible da ecen cecenen eta akherren odolac khen detçan bekhatuac. [5] Hargatic Jaincoaren Semeac munduan sartcean du erraten: "Bictimaric eta offrendaric ez cinduen nahi, gorphutz bat ordean eguin darotaçu niri. [6] Holocaustac eta sacrificioac bekhatuentçat ez çaizquitçu agradatu. [7] Orduan erran dut: Huna ni heldu naiz, liburuaren buruan nitaz escribatua den beçala, eguin deçadan, ó Jaincoa, çure borondatea".

[8] Aitciñago erran ondoan "Ez baiduçu nahi içatu bictimaric, offrendaric eta holocaustaric bekhatuarentçat eta ez baitçaizquitçu agradatu gauça horiec", ceiñac baidire bada leguearen arauera offrendatcen direnac, [9] errateaz berriz: "Huna ni heldu naiz eguitea gatic, ó Jaincoa, çure borondatea", khentcen ditu lehenbicico sacrificio hec bigarren bat eçartceco. [10] Eta Jesuchristoren borondate hura da gu santificatu içan gaituena Jesuchristoren gorphutçaren behingo offrendaz.

[11] Eta alabaiñan aphez guciac presentatcen ohi dire egun oroz aldarean bere ongundea bethetceco, eta offrendatceco hainitz aldiz bictima berac, ceiñec behinere ecin khen baidetçaquete bekhatuac; [12] hau ordean, offrendatu ondoan bictima bakhar bat bekhatuentçat, bethicotz dago jarria Jaincoaren escuiñean, [13] gaiñeraco denaren beguira, eçar daitecen artean haren etsayac haren oiñen azpico escalertçat; [14] offrendatce choil batez ecen bethierecotz perfet eguin içan ditu santificatu dituenac.

[15] Eta hori declaratcen darocu Izpiritu Sainduac berac ere, erran ondoan ecen: [16] "Hauche diteque bada hequiequin eguinen dudan alientcia, dembora hura dathorquenean, diotsa Jaunac; emanen ditut ene legueac hequin bihotcetan eta escribatuco ditut hequien gogoetan. [17] Eta hequien bekhatuez eta gaixtaqueriez guehiago ez naiz orhoituco". [18] Bada bekhatuac barkhatuac direnean, ez da guehiago bekhatuen gaticaco offrenden beharric.

[19] Dugunaz gueroz beraz, ene anayac, burupea fidantciarequin sartceco santuarioan Jesuchristoren odolaz [20] bide berri eta bici hartaz gaindi, ceiña traçatu içan baidarocu berac lehenbicicoric, bere haraguiaren beloaren idoquiduratic [7], [21] eta

7. *Idoqui* ere bada, noski, baina hemen ez ote da *idequidura*? Vulgatak ez du ezer argitzen.

are dugunaz gueroz aphez handi bat Jaincoaren etchea gobernatcen duena, [22] hurbil gaquizcon eguiazco bihotz batequien eta fede compli batequien, bihotçac chahutuac ditugularic conscientcia gaixto errendatcen duten gaucetaric, eta gorphutça garbitua ur garbi batez. [23] Gaudecen tiesso esperantça içateco eguin içan dugun aithorrean, batere handic aldaratu gabe, fidel baida guri aguindu darocuna, [24] eta goardia emogun elkharri, batac bertcea çaguitatceco caritaterat eta obra onetarat, [25] hutsic eguiten ez dugula gure batçarretaric, batçuc costuma duten beçala, aitcitic elkhar consolatcen dugularic, eta are hambatenaz guehiago, cembatenaz icusten baiduçue hurbiltcen dela eguna.

[26] Ecen baldin gure nahirat bekhatu eguiten badugu eguiaren eçagutça errecibitu ondoan, ez da guehiago guelditcen bekhatuentçat bictimaric, [27] baiñan bai jugeamenduaren beguira egon behar ikharagarri bat eta suaren lehia, ceiñec iretsico baiditu Jaincoaren etsayac. [28] Moiseren leguea hautsi duquena hillaracitcen da urricalmenduric batere gabe bi edo hirur lekhucoen erranaren gaiñean; [29] cembatenaz are uste duçue, bada, suplicio dorpheagoac dituela mereci Jaincoaren Semea osticatu duquenac, alientciaco odola, ceiñetaz içan baida santificatua, liquitçat eta profanotçat iduqui duquenac eta graciaren Izpirituari affruntu eguin dioquenac? [30] Badaquigu ecen nor den erran içan duena: "Ene gain bendecatcea eta hartuco ere dut, bai, neure aldia". Bertce batean berriz: "Jugeatuco baidu Jaunac bere populua". [31] Lastimagarri da Jainco biciaren escuetarat erortcea.

[32] Orhoit çaitezte bada aitcinagoco egun hetaz, ceinetan arguia errecibitu ondoan gudu handiac jassan içan baiditutçue eta persecucione handiac, [33] alde batetaric alabaiñan escarnioez eta behaçunez munduaren icuscari eguiñac; bertce batetaric berriz horlacatuac içan direnen partale eguiñac. [34] Ecen gatheètan cirenen urricalmenduz çaurthuac içan çarete, eta ceben ontassunen galtcea bozcariorequien hartu duçue, baidaquiçue bertce ontassun batçu baditutçuela hobeac eta bethi iraunen dutenac. [35] Ez deçaçuela beraz gal duçuen fidantcia, ceiñec hain golardo handia içanen baidu. [36] Pairacortassunaren beharra duçue ecen, Jaincoaren nahia eguinic eraman detçatçuentçat aguindu çaizquitçuen ontassunac. [37] "Aphur aphur bat oraiño eta ethorri beharra dena ethorrico da, eta ez du beranduco; [38] justu ene dena bada fedez bici da; baldin aldaratcen bada, ez da ene gogaraco içanen". [39] Gu ordean ez bide gaudez aldaratceco curayea galduric, gueroni ere galtcecotan; aitcitic tiesso gaudez fedean gure arimen salbamenduarentçat.

XI. Cap.

[1] Da bada fedea esperantça içan behar ditugun gaucen fundamena eta icusten ez direnen sinhetxgarria. [2] Hartaz ecen gure aitcineco çaharrec ardietxi içan dute bere gomendioa. [3] Fedeaz dacusagu mundua Jaincoaren hitçaz eguina içan dela eta icusten diren guciac lehen icusten ez cirenetaric eguiñac direla. [4] Fedeaz offrendatu içan diotça Abelec Jaincoari bictima exelentagoac Cainec baiño eta merecitu içan du Justua deithua içatea, Jaincoac berac lekhucotassuna errendaturic haren offrendac agradatu çaizcoela; eta bere fedea gatic mintço da oraiño hillondoan ere. [5] Fedeaz Henoch altchatua içan da mundutic, hill ez cedintçat, eta ez dute gueroztic icussi, ceren eraman baitçuen Jaincoac noratbeit; eta eramana içan baiño aitciñago lekhucotassuna errendatu citçayon Jaincoaren gogaraco cela. [6] Fedea gabe bada impossible da Jaincoaren gogaraco içatea. Sinhetsi behar du ecen Jaincoa ganat hurbilduco denac, Jaincoa badela eta haren bilha dabiltçanac sariztatcen dituena dela.

[7] Fedeaz Noec cerutic abisu içanic oraino icusten ez ciren gaucez eta beldurtassuna harturic, eguin çuen archa bere familia salbatceco, eta hura preparatcean condenatu içan çuen mundua eta eguin cen fedetic heldu den justiciaren heredero.

[8] Fedeaz Abraham deithua içan denac obeditu içan çuen, goanic primeçatçat içan behar çuen lekhurat, eta ilkhi baitcen ere jaquin gabe norat cioan [8]. [9] Fedeaz egon cen aguindu içan citçayon leyhorrean, atce herri batean beçala, etcholetan cegoela Isaac eta Jacob aguintça beraren [9] primu lagun cituenequien. [10] Hiri haren beguira cegoen ecen, ceinec cimendu sendoac baiditu, ceiñaren eguillea eta fundatçaillea baida Jaincoa bera. [11] Fedeaz Sarac ere, agorra cen arren, haur baten concebitceco indarra içan çuen, haurric içateco adiñaz campoan celaric, ceren sinhetsi baitçuen fideltçat eta eguiatitçat hari hura aguindu içan çioena. [12] Hargatic ilkhi içan da guiçon bakhar baten ganic eta ja hill hurrena cena ganic jendetze bat, nombrez ceruco içarrac eta itsas bazterretaco harea ecin condatuac beçambatecoa.

[13] Fedean hill içan dire haiec guciac, errecibitu gabetaric aguindu citçaizten onac, baiñan urrundic hei behatcen eta agur eguiten ciotela, eta aithortcen çutelaric arrotz eta bideante cirela lurraren gaiñean. [14] Horla mintço direnec ecen eracusten dute bere herriaren bilha dabiltçala. [15] Behintçat nondic ilkhi baitciren,

8. Bestetan *ciohan* idatzirik agertzen da hori.

9. Bi lehen letrak ezin irakur daitezke, baina latinak ("eiusdem repromissionis") erakusten du *beraren* behar duela.

eta hura içan balute gogoan, baçuten demboraric asqui harat bihurtceco. [16] Baiñan hobeago baten gura çuten, erran nahi da cerucoarena; hargatic ez çayo itsussi Jaincoari deithua içatea hequien Jaincoa, ceren preparatu içan baidiote egoitça bat.

[17] Fedeaz offrendatu içan çuen Abrahamec Isaac, Jaincoac frogatu içan nahi çuenean; ecen bere seme bacoitcha ofrendatcen çuen aguintçac içan cituen harc, [18] erran citçayoenac: "Isaac ganic içanen duçu leinu bat çure icenecoa". [19] Sinhexten baitçuen hillez gueroztic ere pitz ahal ceçaquela Jaincoac, eta hala piztu ere citçayoen guerthatu beharra cenaren figura bat beçala.

[20] Fedeaz Isaac-ec ere eman cioten benedicionea Jacobi eta Esauri ethorquiçunecotçat. [21] Fedeaz Jacob-ec hiltceracoan eman çaroen bere benedicionea Josephen bi semeei, ceiñi beregain eta makhurturic agur eguin cioen haren manamendutaco cigorrari. [22] Fedeaz Joseph hiltceracoan mintçatu cen Israelgo umeèn ilkhitçeaz eta ordenatu çuen haren heçurrac eraman cetçaquetela handic.

[23] Fedeaz Moise sorthu eta gordea itchequi çuten hirur ilhabetez bere burassoec, ceren haur haguitz ederra icusten baitçuten eta ez baitciren beldur erregueren meçuarentçat. [24] Fedeaz Moisec handitu cenean declaratu içan çuen ez cela Pharaonen alabaren semea, [25] nahiago baitçuen içan affligitua Jaincoaren populuarequien, ecen ez goçatu dembora batetacotz bekhatuaren atseguinez, [26] gogoan harturic aberatstassun handiago bat cela Jesuchristoren laidoa, ecen ez Egiptoco thresorac, ceren golardoari behatcen baitcioen. [27] Fedeaz utci çuen Egiptoa, beldurric içan gabe erregueren sumindurarentçat; egon cen ecen tiesso eta fermu, icusten ez dena icusten balu beçala. [28] Fedeaz eguin içan çuen Bazcoco ceremonia eta bildotsaren odol isurtcea, lehen jayoac hiltcen cituen aingueruac Israeldarrac uqui ez cetçan gatic. [29] Fedeaz iragan içan çuten Itsasso Gorria, leyhorrez ibilli balire beçala; Egiptoarrac gauça bera eguiterat entseyatu eta hondatu içan baitciren eta itho.

[30] Fedeaz Jerichoco morraillac erori içan ciren, çazpi egunez hequien inguru ibilli citezquen ondoan. [31] Fedeaz Rahab debochatu emaste hura guelditu cen galdua içan gabe sinhetxgogorrequien batean, Josueren celatariac bere etcherat harturic salbatu içan baitcituen.

[32] Eta cer erranen ere dut oraiño? Dembora falta litçaiquet mintçatu nahi banu Gedeonez, Barac-ez, Samsonez, Jephtez, Davidez, Samuelez eta profetez, [33] ceinec fedeaz garaitu içan baidituzte erresumac, complitu justiciaren eguinbideac, ardietsi aguindu citçaiztenac, çarratu lehoiñen ahoac; [34] iraunguitu içan dute suaren indarra; itçuri dire ezpataren ahotic, sendatu bere eritassunetaric, indarrez eta animoz betheac içan dire guduetan; ihessi igorri içan dituzte lekhortarren armadac; [35] emasteac [10] cobratu içan dituume hillac bizturic Jaincoac; batçu içan dire estiran tormentatuac, ez nahiz presenteco bicitcea erresquetatu hobeago bat edireitea gatic erresurreccionean; [36] bertceec berriz pairatu içan dituzte escarnioac eta açoteac, bai eta oraiño gatheac eta pressondeguiac ere; [37] içan dire

10. *emazteec* behar luke.

harricatuac, cerratuac, alde gucietaric frogatuac; içan dire hillac ezpataren ahoz; ibilli içan dire harat hunat ardi larruz eta ahuntz larruz vestiac [11], abandonatuac, affligituac, persecutatuac; [38] eta ez baitçuen ere mereci munduac hec içatea, ibilli içan dire errebelatuac mortuetan, mendietan, leceétan eta lurraren azpitan.

[39] Eta hala ere hauc guciec, Escriturac horlaco lekhucotassuna errendatcen daroelaric bere fedea gatic, ez dute içatu aguindua çuten golardoa eta saria; [40] Jaincoac guretçat çaducan fagore bereci batez nahi içan baidu, gurequien baicen ez ceçaten errecibi bere çorionaren complidura.

11. *Vestituac* esan nahiko zuen, agian.

XII. Cap.

[1] Hargatic beraz, gu ere lekhucozco hedoitce hain handiaz barrendatuac beçala garenaz gueroz, egoitciric cargatcen gaituen gucia eta inguratcen gaituen bekhatuen [12], gabiltçan pairacortassunaz, lauster eguiten dugularic proposatu içan çaicun carrerean, [2] beha gagozcalaric Jesus gure fedearen authorari eta akhaba tçailleari, ceinec bicitce ezti eta dohatsu bat eraman ceçaquenaren orde, jassan içan baidu gurutcea ahalqueriaz cassu guti eguinic, eta ceiña orai jarria baidago Jaincoaren thronuaren escuiñetic. [3] Iducaçue beraz gogoan horlaco contresta bekhatorossen ganic jassan içan duena bere pressuna propioan, unha ez çaiteztentçat eta gogoa hill ez daquiçuentçat. [4] Oraino ecen ez duçue pairatu odola issurtceraiñocoan, bekhatuaren contra guduan hari çaretela.

[5] Eta ahantci çaitçue equi exorta hau, çuei Jaincoaren umeei beçala heltcen çaitçuena: "Ene haurra, ez daquiçula gaitci Jaunaren gastigua, eta ez çaitecela enconia hartaz corregitua çarenean. [6] Maite duena ecen gastigatcen ohi du Jaunac, eta cehatcen ohi ditu bere haurren nombrean errecibitcen dituen guciac". [7] Jassan çaçue constanqui correccionea. Bere haurrei beçala hari çaitçue Jaincoa. Cein da ecen haurra bere aitac corregitcen ez duena? [8] Baldin gastigutic campoan baçarete, ceinetan bertce guciec parte içan baidute, beraz bastartac çarete eta ez umeac.

[9] Bertce alde gure gorphutcen aitac alabaiñan corregitçaille içan ditugu eta hala ere errespetatu ditugu; ez gaizco bada are sumetituago içan behar Izpirituen Aita denari, eta bicico baigare? [10] Hec alabainan egun gutitaco den bicitce baten ariaz gastigatcen guinituzten nahi çuten beçala; Jaincoac ordean gastigatcen gaitu

12. Latinak ("circumstans nos peccatum") eta *gaituen* adizkiak erakusten digute hitz honek singularra eta kasu absolutua izan behar lukeela: *bekhatua*, alegia. Edo bestela beste hitzen bat falta dela: *bekhatuen çama* edo: "deponentes omne pondus"..

behar den beçambat, gu haren saindutassunean parte içateco gai eguiteagatic. [11] Gastigu guciac bada, eguiten den orduan, iduri du ez dela atseguin eguitecoa, aitcitic bai damu eguitecoa; ondoan ordean justiciazco fruitu sasoal bat ekhartcen diote horla nekhatuac içan direnei. [12] Hargatic beraz goiti çatçue çuen escu hagoranduac eta çuen belhaun hebainduac. [13] Erabillatçue çuen oiñac bide chuchenetan, nihor mainguca dabillanic errebela ez dadintçat, aitcitic senda dadintçat.

[14] Çaquizcote baquea içateari mundu guciarequien eta saindutassunean bicitceari, ceina gabe nihorc ez baidu icussico Jaincoa. [15] Beguira duçuelaric nihorc escas eguin ez dioçan Jaincoaren graciari, cembeit erro khirats dunec [13] bere urthameac goiti buthaturic traba eguin ez dioçan haci onari eta liçun ez deçan hainitcen arima. [16] Batere ez den lohi edo profano, Esau beçala, ceiñec othruntça batentçat saldu içan baitçuen bere lehen jayotassuneco çucena; [17] jaquiçue ecen, guero ondoan hala ere nahi baitçuen parte içan aitaren benedicionean heredero beçala, arbuyatua içan cela, ecen ez çuen aurkhitu gauçaren gambiaratcitceco bideric, asco nigarrequien galdetu çuen arren.

[18] Considera çaçue bada ez çaretela hurbildu mendi uqui ditequen batetarat, erretcen duen su batetarat, haice buhumba batetarat, hedoi goibeldu batetarat, tempesta eta chismista batçuetarat, [19] eta ez trompeta baten soiñurat, ez boz baten habarrotserat, ceiña aditu içan çutenac errequerimenduz jarri baitciren, arren ez çaquioten guehiago hei mintça, [20] ecin jassan ceçaqueten ecen erraten citçayena: "Baldin bestia batec ere uquitcen baçuen mendia, harricatua içanen cela". [21] Eta hain ikharagarria bacen hec icusten çutena, non Moisec erran içan baitçuen: "Icitua naiz eta ikharatua". [22] Baiñan hurbildu çarete Siongo mendirat, Jainco biciaren hiririat, Jerusalem cerucorat eta hainitz milla aingueruetaco oste batetarat, [23] lehen jayoen batçarrerat eta Eliçarat, ceiñac escribatuac baidire ceruan; gucien juge den Jaincoa ganat, bere harchederat helduac diren justuen Izpirituetarat, [24] Jesus aliencia berrico arartecoa ganat, eta odol issuri hartarat, Abelena baiño hobequi mintço denerat.

[25] Beguirautçue ez entçun nahi içatetic mintço çaitçuena; baldin ecen ecin itçuri badire punituac içan gabe lurrean mintço citçayena entçun nahi içan ez dutenac, gutiago are itçurico gare gu, baldin arbuyatcen badugu cerutic mintço çaicuna, [26] ceinaren boçac baitçuen higuitu lurra orduan, ceinec ordean orai aguintça berri bat baidarocu eguiten diotsalaric: "Oraiño behin iharrosico dut nic ez choilqui lurra, baiñan cerua ere". [27] Errateaz bada "oraino behin", declaratcen du desseguinen dituela gauça mudacor direnac, dembora batecotz eguinac diren

13. Ilun dago hori dioen ala beste zerbait. Ik. gauza bera J. Jacob. Guth III, 14.

beçala, daudecentçat bethierecotz direnac. [28] Hargatic beraz, ja hassi baigare gambiamenduric ecin duquen erresuma haren jabe içaten, badugu gracia ceiñetaz cerbitça baideçaquegu Jaincoa, lakhet cayoen beçala, beldurtassunequien eta errespeturequien, [29] ecen gure Jaincoa su bat da iresten duena.

XIII. Cap.

[1] Conserba çaçue bethi anayen alderaco caritatea. [2] Ez daquiçuela ahantz arrotcen ganaco amudioa, hortaz ecen errecibitu içan dituzte cembeitec aingueruac ostatuz jaquin gabean. [3] Orhoit çaitezte gatheètan direnez, ceboc hequiequien gatheètan baciñete beçala, eta bai affligituac direnez, cebonec ere gorphutz hilcor batean baiçaudete. [4] Beha bequio ezcontçari gucietan honestassunequien eta içan bedi espos ohea tatcha gabecoa, lohiac ecen eta adulteriarrac condenatuco ditu Jaincoac. [5] Içan bedi çuen bicitcea abaricia gabecoa, contenta çaitezte duçuenaz Jaincoac berac erran duenaz gueroz: "Ez çaituztet utcico, ez abandonatuco", [6] hala non fidosqui erraten baidugu: "Jauna dut laguntçaille, ez naiz beldur içanen guiçonec eguin ahal dieçaquetedanez".

[7] Orhoit çaitezte çuen aitcindariez, ceiñec predicatu içan baidarotçue Jaincoaren hitça, eta considerature cericacoa içatu den hequien bicitcearen akhabantça, imita çaçue hequien fedea. [8] Jesuchristo atço cena da egun ere, eta berbera içanen da mende gucietan. [9] Ez çaitçatela erabill harat hunat dotrina differentec eta arrotcec; gauça haguitz on bat da ecen graciaz borthiztea bihotça, eta ez jaquien berezgunez, ceinac ez baitçaizte deussentçat baliatu hetan ibilli içan direnei.

[10] Badugu aldare bat, ceinetaric jateco buruperic ez baidute tabernaclea cerbitçatcen dutenec. [11] Ecen aliamalia hainen gorphutçac, ceinen odola eramaten baidu aphez handiac santuariorat bekhatuen gatic, osteaz campoan erretcen ohi dire. [12] Horren gatic halaber Jesusec bere odolaz populua santificatceco, portaleaz campoan soffritu içan du. [13] Ilkhi gaitecen beraz haren ganat, goateco osteaz camporat, haren gurutcearen laidoa garrayatcen dugula. [14] Ez dugu ecen hemen egoitça fincaturic, bainan ethortceco denaren ondoan gabiltça. [15] Offrenda dioçogun beraz hartaz Jaincoari laudoriozco sacrificio bat, erran nahi da haren icenari gloria bihurtcen dioqueten ezpaiñen fruitua. [16] Orhoit çaitezte caritatea praticatceaz eta çuen ontassunetaric bertceèi parte eguiteaz, horlaco bictimez ecen irabazten da Jaincoa.

[17] Obedi çatçue çuen gobernatceco ifiniac diren pressunac, eta içan çaitezte hequien manuco; hec dire ecen çuen arimarentçat beillatcen dutenac hetaz condu eman beharco duten beçala, hori eguin deçatentçat bozcariorequien eta ez damu dutelaric, ecen ez liteque hori ungui çuentçat.

[18] Eguiçue othoitz guretçat, fida gare ecen conscientcia chuchenez gabiltçala, gauça gucietan sainduqui nahi baiguinduque ibilli. [19] Eta oraiño guehiago are çaituztet errequeritcen hori eguiteaz, lausterrago bihur naquiçuen amorea gatic.

[20] Baquezco Jaincoac bada, ceiñec athera içan baidu hillen artetic aliencia eternaleco odolaz ardien arçain handia eguin içan dena, Jesuchristo gure Jauna, [21] aphain çaitçatela obra on suerte gucietacotz, eguin deçaçuentçat haren nahia, berac eguiten duelaric çuen baithan berari lakhet çayoena Jesuchristoz, ceini baidagoco gloria mendetaco mendetan. Amen.

[22] Othoitz eguiten darotçuet bada, ene anayac, onez har deçaçuen çuen consolatceco erran darotçuedana, ecen hitz gutitan escribatu darotçuet. [23] Jaquiçue gure anaya Timotheo libro dela; eta lauster badathor, ethorrico natçaitçue harequien icusterat. [24] Saluta çatçue çuen gobernatceco ifiniac diren guciac eta saindu guciac. Salutatcen çaituzte Italiaco anayec. [25] Gracia dela çuequien guciequien. Amen.

J. JACOBEREN

Guthuna Catholicoa

I. Cap.

[1] Jacobe Jaincoaren eta Jesuchristo gure Jaunaren cerbitçariac hamabi leiñu barrayatuac direnei, agur.

[2] Bozcario gucizco batentçat iducaçue, ene anayac, atsecabe suerte hainitcetan erortcen çaretenean, [3] daquiçuelaric çuen fedearen frogantçac ekhartcen duela pacientcia. [4] Pacienciac bada perfeta içan behar du bere obretan, çaretentçat perfetac eta compliac deusetan escasic ez duçuela.

[5] Eta baldinetariac çuetaric cembeitec badu çuhurtciaren beharra, galde bioça Jaincoari, ceiñec ematen ohi baidiote guciei francoqui eta ez baitçaye bekhaizten, eta emanen çayo çuhurtcia. [6] Galde beça ordean federequien, dudetan batere jarri gabe, ecen dudetan jartcen dena itsasoco olharen pare da, ceiña higuitcen eta harat hunat erabiltcen baidu haiceac. [7] Ez du beraz uste içan behar haina harc deussere errecibituco duela Jauna ganic. [8] Gogoa partitua duen guiçona gambiacor da bere bide gucietan.

[9] Gloria bedi, bada, gure anayetaric condicione beheretaco dena bere goratassunaz; [10] aberats dena berriz bere beheratassunaz, cergatic belhar lorea beçala iraganen baida. [11] Ecen nola iguzqui bero bat altchatcen denean idortcen da[1] belharra, erortcen lorea eta suntsitcen haren edertassuna, hala ihartuco da aberatsa ere bere bidearen erdian.

[12] Dohatsu da guiçona tentacioneac eta gaitçac pairatcen dituena, cergatic frogatua içatu daitequenean errecibituco baidu bicitcezco khoroa, ceiña aguindu içan baidiote Jaincoac hura maite dutenei. [13] Nihorc, tentatua ditequenean, ez beça erran Jaincoac tentatcen duela, Jaincoa ecen ez da gai gaizqui eguiterat tentatceco eta ez du ere nihor tentatcen. [14] Baiñan batbedera bere guticia propialaz da tentatua eta gaizqui eguiterat erakharria eta thiratua. [15] Guero ondoan, guticia concebitu duenean, erditcen da bekhatuaz; bekhatuac berriz complitu ditequenean, genderatcen du heriotcea.

[16] Etçaiteztela beraz engana, ene anaya maiteac. [17] Emaitça on den gucia eta dohain perfet den gucia goratic heldu da eta arguien Aita ganic jausten da, ceiña

1. Hala dio eta ez *baida*.

baitan ez baida mudantçaric, ez mudantçaren itçalic. [18] Harc genderatu içan gaitu ecen bere nahirat eguiaren hitçaz, haren creaturen hastapen bat beçala nolazbeit ere içan gaitecentçat.

[19] Hala ere, anaya maiteac, çuetaric batbedera içan bedi erne aditcerat, uzcur ordean mintçatcerat eta uzcur coleran ematerat. [20] Guiçonaren colerac ecen ez du eraguiten Jaincoaren justicia. [21] Hargatic bada egotciric bekhatuaren lohigunea eta sobrania guciac, errecibi çaçue emetassunequien çuen baithan cherthatua den hitça, çuen arimac salba ahal detçaquena. [22] Çareten ordean hitçaren beguiratçaille eta ez choilqui aditçaille ceben buruac enganaturic. [23] Ecen hitçaren aditçaille baicen ez dena eta beguiratçaille ez dena guiçon baten pare da, ceiñec behatcen baidio mirail batean bere bisaya naturalari, [24] eta ceiña behatu ondoan, goaten baida eta berehala ahantzten baitçayo nolacoa cen. [25] Ordean ungui miratcen duena legue perfeta, cein baida libertatearena, eta hartan dagoena ez aditçaille ahantzcor bat beçala, bainan aitcitic aditua obretan ematen duen bat beçala, haiña dohatsu içanen da bere eguinetan.

[26] Baldinetariac bada cembeitec uste badu erreligionetsu dela, bere mihia bridatcen ez duelaric, baiñan bere bihotça enganatcen duelaric, hainaren erreligionea banoa da eta erguela. [27] Erreligione garbia eta tatcha gabe dena Jainco gure Aitaren aitciñean, hauche da: emachurtchac eta alhargunac bisitatcea bere affliccionean eta bere burua chahu beguiratcea mende huntaco lohigunetic.

II. Cap.

[1] Ene anayac, ez deçaçuela pressunen berezgunearequien baltsa Jesuchristo gure Jaunaren gloriaz duçuen sinhestea, [2] ecen baldin sartcen bada çuen batçarrean guiçon bat urhezco erhastun bat duena eta tresna ederrez bestitua; sarcen bada berriz pobre bat charqui bestitua, [3] eta beguiac guelldituric berreguinqui bestitua denaren gaiñean, erraten badioçue hari: Jar çaite çu hemen lekhuric hoberenean; pobreari berriz erran dioçaçuen: Çaude çu hor chutic edo jar çaite ene oiñetaco alkhiaren beherean, [4] ez da hori ceben baithan berezgune eguitea bataren eta bertcearen artean eta pentsu gaixtotaco juge içatea?

[5] Adi çaçue, ene anaya maiteac, ez ditu bada Jaincoac bereci içan mundu huntan pobreac cirenac fedez aberats içateco eta hura maite dutenei aguindu daroen erressumaren primu içateco? [6] Çuec aitcitic desohoratcen duçue pobrea. Ez dire aberatsac bere puchantçaz çuec çapatcen çaituztenac? Hec ez çaituzte eramaten jugeèn tribunaletarat? [7] Hec ez dire icen saindu hura blasphematcen dutenac, ceinetaric athera baida çuena? [8] Baldinetariac bada legue erreguezcoa complitcen baduçue, escribatua den beçala: "Maitatuco duçu çure lagun proximoa ceure burua beçala", ungui eguiten duçue.

[9] Baldin ordean presunen berezguneric baduçue, bekhatu eguiten duçue eta legueaz condenatuac çarete haren hautsçaille beçala. [10] Norc ere bada legue gucia beguiratu baiduque, ordean hautsi baiduque pontu bakhar batean, hobendun da gucia hautsi balu beçala, [11] ecen erran duenac: "Ez duçu adulterioric eguinen" erran baidu halaber: "Ez duçu heriotceric eguinen; baldinetaric heriotceric eguiten baduçu, adulterioric ez eguinic ere, leguearen hautsçaille çare". [12] Mintça çaitezte eta eguiçue libertatearen legueaz jugeatuac içaterat bacinohazte beçala, [13] misericordia gabeco jugeamendua dago ecen, misericordiaric eguin ez duquenarentçat; garaya darama ordean misericordiac justiciaren gaiñean.

[14] Cer baliatuco çayo nihori, ene anayac, erratea fedea baduela, baldin obrac ez baditu? Ala fedeac salbatuco othe du? [15] Baldinetariac bada çuen anaya bat edo çuen arrebat[2] bulhuciac badire eta peitu eguneco bicicayaren, [16] eta erraten badiote çuetaric cembeitec: Çohazte baquearequien, içanen duçue aguian certaz bero eta certaz asse", eta ematen ez badioçuete gorphutceco behar dutena, cer probetchu duquete? [17] Hala fedeac ere baldin obrac ez baditu, hilla da berenez.

2. *Arreba bat* idatzi nahi zuen, noski.

[18] Alabaiñan erran deçaque edoçeiñec: "Çuc fedea duçu eta nic obrac ditut; eracuts dieçadaçu fedea baduçula obrac gabe eta nic eracutsico darotçut çuri ene obretaric ene fedea". [19] Sinhexten duçu Jainco bat dela bakharra? Ungui eguiten duçu; deabruec ere sinhexten dute eta ikharan daudez. [20] Nahi duçu ordean jaquin, o guiçon erguela, obra gabeco fedea hilla dela? [21] Abraham gure aita ez cen obretaric içan justificatua, offrendaturic Isaac bere semea aldare baten gaiñean? [22] Icusten duçu nola hari cen haren fedea haren obretan, eta obrez içan cela haren fedea consumitua? [23] Horla complitu içan da ere Escrituraco erran hau: "Abrahamec sinhetsi çuen Jaincoa eta aria hortaz içan da justutçat condatua eta Jaincoaren adisquide deithua". [24] Icusten duçue, beraz, obretaric justificatcen dela guiçona eta ez fedetic choilqui? [25] Orobat Rahab emastequi galdu hura ere obretaric ez cen içan justificatua, hartu baitcituen mandatariac eta igorri bertce bide batez? [26] Ecen arima gabe den gorphutz bat hilla ohi den beçala, hala obra gabe den fedea ere hilla diteque.

III. Cap.

[1] Ene anayac, ez dadin içan çuen artean hainitx, iracatsçaille eguin nahi dutenic, baidaquiçue cargu horrec jugeamendu garratçago bat erakharrico darotçuela. [2] Hainitz gaucetan ecen huts eguiten dugu guciec; baldin edoceiñec hutsic eguiten ez badu bere hitcetan, haiña guiçon perfeta diteque, eta bridatic beçala erabill ahal deçaque ere gorphutz gucia. [3] Alabainan baldin çamariei bridac ahoetarat ematen badaroztegu gure manuco içan daitecen gatic, hequien gorphutz gucia badarabillagu harat eta hunat. [4] Ez duçue icusten untciac ere, ceiñnahi handiac diren eta haice hainitcez bulkhatuac diren, lema [3] chume batez eraguiten çayela, gobernatcen duenac nahi duen alderat? [5] Hala mihia ere eguiazqui miembro chume bat da, eta bizquitartean banta diteque gauça handiez. Ez duçue icusten cein su gutic iraçaqui deçaquen oihan handi bat? [6] Mihia ere su bat da, gaixtaqueriazco mundu bat da. Gure miembroetaric bat baicen ez delaric, liquitsten du gorphutz gucia eta iraçaquitcen gure biciaren birunda gucia, bera iraçaquia içanez ifernuco suaz.

[7] Guiçonaren naturaleçac hetz [4] detçaque eta heci ere içan ditu bestia suerte guciac, hegaztiñac, sugueac eta itsasoco arraiñac. [8] Mihia ordean guiçonetaric batec ere ecin ceba deçaque; gaitx quechu bat da, poçoin hilgarri batez bethea da. [9] Hartaz dugu benedicatcen Jainco gure Aita, eta hartaz ditugu madaricatcen guiçonac, ceiñac baidire eguiñac Jaincoaren idurirat. [10] Aho beretic ilkhitcen da benedicionea eta madaricionea. Ez da horla eguin behar, ene anayac. [11] Ala ithurri batec arthiquitcen othe du cilho beretic ur eztia eta ur miña? [12] Ala, ene anayac, ficotce batec ekhar othe detçaque mahatsac edo mahatsondo batec ficoac? Hala ur gacizco ithurri batec ere ecin arthiq deçaque ur eztia.

[13] Nor othe da çuen artean çuhur eta jaquintsun delacoric? Eracuts beça haiñac bere eguitatea bicitce on baten jarraiquitçan, emetassunez bethericaco çuhurtcia batean. [14] Baldin ordean bekhaizgune khiratsdun bat eta debadiozco izpiritu bat baduçue çuen bihotcetan, ez çaiteztela handiets eta ez derraçuela gueçurric eguiaren contra, [15] ez da ecen çuhurtcia hori goratic heldu dena, baiñan da lurrecoa, animaliacaracoa, debrucaracoa, [16] ecen non ere baida bekhaizgunea eta

3. Ez da ongi irakurtzen, baina hori behar du izan ("a modico gubernaculo").
4. Hala idatzia dirudi ondoko lerroan *heci* dioenaren erroak.

debadiozco izpiritua, eta han da nahasmendua eta eguitate gaixto gucia. [17] Baiñan goratic heldu den çuhurtcia lehenbicicoric bada garbia da, guero baquezcoa, modesta, ethorcorra, unguiari darrayoena, urricalmenduz eta obra onen fruituz bethea; ez du jugeatcen, ez da aleguiatsua. [18] Justiciaren fruituac bada baquean ereinten dire baquezco obrac eguiten dituztenentçat.

IV. Cap.

[1] Nondic heldu othe dire guerlac eta hauciac çuen artean? Çuen passionetaric ez dire heldu, ceiñac guduan hari baidire çuen haraguian? [2] Guticiaz betheac çarete eta ez duçue desiratcen duçuena; heriotceac eguiten ditutçue eta bekhaizti çarete eta ecin ardiets deçaqueçue nahi cinduquetena; haucitan hari çarete eta elkharri guerla eguiten, eta hala ere ez duçue deusic, ceren ez baiduçue galdetcen. [3] Galdetcen duçue eta ez duçue içaten, cergatic gaizqui galdetcen baiduçue, çuen guticien contentatcecoa içateco.

[4] Adulteriarrac, ez daquiçue mundu hunen amudioa Jaincoaren etsaicoa dela eta hala mundu hunen adisquide içan nahi duena Jaincoaren etsai eguiten dela? [5] Ala uste duçue alferretan erraten duela Escriturac:"Jelosiazco amudio bat ekhartcen darotçue çuen baithan egoten den izpirituac?". [6] Halaber gracia handiago bat ere du ematen. Hargatic da errana: "Jaincoac contra diote eguiten superbioei eta humillei diote ematen gracia". [7] Çareten bada sumetituac Jaincoari, contra eguioçue berriz deabruari eta goanen da ihesi çuen ganic. [8] Hurbill çaquizcote Jaincoari eta hurbilduco çaitçue. Chahu çatçue çuen escuac, ó bekhatorosac, eta garbi çatçue çuen bihotçac, ó gogo dobletacoac. [9] Afligi çaitezte; eguiçue auhen eta nigar; çuen hirria itçul bedi nigarretarat eta çuen bozcarioa tristeciarat. [10] Humilia çaitezte Jaunaren beguietan eta harc çaituzte altchatuco.

[11] Ez derraçuela gaixquiric, ene anayac, batçuc bertceèz. Bere anayaren contra mintço dena eta bere anaya jujatcen duena, leguearen contra mintço da eta leguea jujatcen du. Baldin bada leguea jujatcen baduçu, ez çare leguearen beguiratçaille, aitcitic leguearen juge eguiten çare. [12] Bada legue emaille bat eta juge bat da gal ahal deçaquena eta salba ahal deçaquena.

[13] Çu ordean nor çare çure lagun proximoa jugeatcen baiduçu? Çuei nagotçue berriz orai erraten duçuenei: "Gaur edo bihar goanen gare hunelaco hirirat, egonen gare bada han urthe bat, harico gare mercatalgoan eta irabaci handi bat eguinen dugu". [14] Eta ez baidaquiçue cer gerthatuco den bihar. [15] Cer da ecen çuen bicia, baicen aphur batetacotz aguertcen den eta guero suntsitcen den bafore bat? Erran behar cinduqueten orduan: "Jaincoac nahi badu eta bici bagare, eguinen dugu hau edo hori". [16] Aitcitic ordean handiexten çarete çuen gogoeta presumituetan. Horlaco handiexte gucia gaixtoa da. [17] Daquienac bada eguin behar duen unguia eta eguiten ez duenac bekhatu eguiten du.

V. Cap.

[1] Eya orai, aberatsac, eguiçue nigar eta marrubia heltcerat dohazquitçuen miserien gaiñean. [2] Çuen aberatstassunac usteldu ditezque eta çuen aldagarriac cedenez janac dire. [3] Çuen urrea eta cilharra herdoildua da eta hequien herdoildurac lekhucotassuna errendatuco du çuen contra eta janen ditu çuen haraguiac su batec beçala. Colerazco thresor bat bildu duçueque azquen egunetaco. [4] Horra çuen landetaco uztailla eguin içan duten languilleei galaraci dieçuen saria non dagoen oihuz çuen contra; eta hequien oihua igan da armadetaco Jaincoaren beharrietaraino. [5] Bici içan çarete atseguinpean lurraren gaiñean eta haci içan ditutçue çuen bihotçac bonbacian hiltceco egunerainocoan. [6] Condenatu duçue eta hill duçue justua eta ez darotçue eguin contrestaric.

[7] Içan çaitezte beraz pairacor, ene anayac, Jaunaren ethor eguneraiño. Icusten duçue laboraria lurraren fruitu preciatua biltceco esperantçan badagoela pacientqui beguira lehenbicico eta azqueneco uriac Jaincoac noiz igorrico diotçan. [8] Içan çaitezte beraz pairacor çuec ere eta atesa çatcitçue çuen bihotçac, ceren Jaunaren ethor eguna hurbill baida. [9] Ez çaiteztela errencura elkharren contra, condenatuac içan ez çaiteztentçat. Horra jugea non dagoen athean. [10] Har çatcitçue, ene anayac, pasientciazco exemplutçat atsecabeètan eta nekheètan profetac, ceiñac mintçatu baitçaizquitçue Jaunaren icenean. [11] Horra orai dohatsu dagozcagu pairatu içan dutenac. Aditu içan duçue nola pairatu içan dituen Jobec ere gaitçac eta icussi duçue Jaunac eman cioten akhabantça, ecen Jauna misericordios da eta urricalmendutsu.

[12] Gucien gainetic ordean, ene anayac, ez daguiçuela juramenturic ez ceruaz, ez lurraz, ez bertce cernahi gaucez; baiñan erraçue simplequi "Bai hala da" edo "ezta hala", condenatuac içan ez çaiteztentçat.

[13] Tristatua da çuetaric norbeit? Eguin beça othoitz. Gogoa aleguera du? Canta betça psalmuac. [14] Eri da norbeit çuen artean? Erakhar betça Eliçaco apheçac eta hec eguin betçate othoitçac haren gaiñean, gantçutcen dutelaric olioz Jaunaren icenean. [15] Eta fedearen othoitçac salbatuco du eria, Jaincoa solejituco du eta, baldin bekhatutan bada, barkhatuco çaizco. [16] Confesa diotçatçue, bada, batac bertceari çuen bekhatuac eta eguiçue othoitz elkharrentçat, salba çaitezten amorea gatic; hainitz daguique ecen justuaren othoitz irauncorrac. [17] Elias guiçon bat cen gu beçala, flaquitatez bethea; halaric ere othoitz eguin baitçuen uriric eguin ez cedin gatic lurraren gainerat, etcen eguin uriric hirur urthez eta sey

ilhabetez. [18] Eta berriz othoitz eguin baitçuen, ceruac eman çuen uria eta lurrac ekharri bere fruitua.

[19] Ene anayac, baldinetariac çuetaric norbeit errebelatcen bada eguiaren bidetic eta norbeitec erakhartcen badu hartarat, [20] jaquiteco du bekhatore bat conbertiaracico duenac eta erakharrico bere errebelamendutic, salbatuco duquela haren arima heriotcetic eta estalico bekhatuzco multço handia.

J. PETRI APOST.

Lehenbicico guthuna

I. Cap.

[1] Piarres Jesuchristoren Apostoluac fidel lekhortar eta barrayatuac direnei Ponteco, Galaciaco, Capadociaco, Asiaco eta Bithyniaco provincietan, [2] hautatuac direnei Jainco Aitaren aitcineticaco jaquiñaren arauera, santificatuac içatecotçat Izpiritu Sainduaz, obeditcecotçat Jesuchristori eta haren odolaz ihinztatuac içatecotçat, gracia eta baquea daquiçuela eman franquiarequien.

[3] Benedicatua dela Jainco Jesuchristo gure Jaunaren Aita, ceiñec bere misericordia handiaren arauez berriz ere soraraci baigaitu esparantça bici batecotçat Jesuchristoren hilletaric phizteaz, [4] primeça hartacotçat, ceiñetan deus ecin desseguiñ, ez ustel, ez cimur baidaiteque, ceiña beguiratua baidago ceruetan çuentçat, [5] Jaincoaren berthuteac fedeaz beguiratcen çaituztentçat demboren akhabantçan aguertu beharra den salbamenducotz. [6] Horrec behar çaituzte bozcarioz behe, aphur bat orai affligituac içan behar baduçue ere hainitz herstura suertez, [7] çuen fedea içanic horla frogatua eta hainitz preciatuagoa suaz frogatua den urrea baiño, ediren dadintçat laudorio, ohore eta gloria mereci duquena, Jesuchristo aguer ditequenean, [8] ceiña icussi ez duçuelaric maitatcen baiduçue, eta ceiña baithan orai ere icusten ez duçuelaric sinhesten baiduçue eta, ceren sinhexten duçuen, içanen çarete betheac bozcario ecin erranezco eta guciz glorioso batez, [9] heltcen çaretelaric çuen sinhextearen harchederat, cein baida çuen arimen salbamendua.

[10] Salbamendu horren eçagutça bilhatu içan dute ardura handirequien çuentçat çagoen graciaz aitcindanic mintçatu ohi diren profetec; [11] eta lehia baitçuten jaquin nahiz, noizco eta cer demboratsutaco marcatcen othe cioten Jesuchristoren Izpirituac, ethorri behar çuenaz jaquintsun eguiten cituenac, içanen citezquela Jesuchristoren pairaguneac eta hequien ondoco gloria, [12] eracutsi içan çitçayen ez çarabiltçatela beretçat, bainan aitcitic çuentçat erabiltcen cituztela oraico predicariec iracasten darozquitçueten gauçac, ceiñec cerutic igorri çayen Izpiritu Sainduaz predicatu bai darotçue Christo, ceiñi beha nahi bailuquete bethi egon aingueruec ere.

[13] Hargatic bada çuen arimaco errainac guerricaturic eta sobrequi bicitcen çaretela, iguricaçue esparantça perfet batequien Jesuchristo aguertuco denean ema-

nen çaitçuen gracia, [14] beguiratcen çaretelaric haur obedient batçu beçala, lehenago çuen ignorantcian ceben nahicarei abandonatcen ciñaiztenean, ohi ciñeten beçalaco içatetic.

[15] Aitcitic içan çaitezte saindu çuen bicitceco manayu gucian, çuec deithu içan çaituztena saindu den beçala, [16] escribatua denaz gueroz: "Içan çaitezte saindu, ceren ni saindu bainaiz". [17] Eta çuen aita beçala deithoratcen [1] duçuenaz gueroz presunen berezguneric gabe batbedera bere obren arauera jugeatcen ohi duena, bici çaitezte beldurtassunequien lurraren gainean arrotz beçala çaudezten demboran, [18] daquiçuelaric ez çaretela gal ditezquen gaucez, urrez edo cilharrez, içan erresquetatuac çuen aiten ganic hartua cinduten bicitceco manera ergueletic, [19] baiñan bai Jesuchristoren odol preciatuaz, bildots tatcha gabeco eta likhits gabecoarenaz beçala, [20] ceiña ja munduaren creacioneaz aitciñetic baitcen exlegitua, eta ceiña ordean azquen demboretan içan baida aguertua çuen gatic, [21] ceiñec hartaz baiduçue sinhesten hura hilletaric biztu içan duen eta gloriaz bethe içan duen Jaincoa baithan, çuen sinhestea eta esparantça içan deçaçuentçat Jaincoa baithan.

[22] Çuen arimac chahu errendaturic caritatearen legueari obeditcen dioçuela, çuen anayen ganaco amudioan maita çaçue elkhar, bihotçaren barrenetic heldu den amultsutassun batequien. [23] Bicitce berri bat harturic baitçaudezte ez ustel ditequen haci batetic, baiñan ecin gal ditequen batetaric, Jainco biciaren eta eternitate gucian irauten duenaren hitçaz. [24] Ecen haragui den gucia belharra beçala diteque eta guiçonaren gloria gucia belhar lorea beçala. Ihartu da bai belharra, erortcen da haren lorea. [25] Jaunaren hitça ordean badago eternitate gucicotz eta hitz hura da Evangelioaz çuei iracatsi içan çaitçuena.

1. Lehen maiz ikusi dugunez, *deitu* ere esan nahi du: Ik. I Corinth, I, 2.

II. Cap.

[1] Utciric beraz gaixtaqueria guciac, tromperia, itchurapen, invidia eta gaixqui errate guciac, [2] orai sorthuricaco haur batçuc beçala desira çaçue çuhurtciaren esne garbia, hartaz haz çaitezten gatic salbamenducotçat, [3] baldin behintçat dastatu baduçue cein eztia den Jauna.

[4] Haren ganat hurbiltcen çaretelaric, cein baita harri bicia, guiçonez bada arbuyatua, Jaincoaz ordean hautetsia eta toqui ohorezcoan ibenia, [5] çuec ere harri bici batçu beçala eçar çaitezte haren gainean, moldatceagatic etche izpiritual bat, aphecezco bilduma saindu bat, offrenda diotçotçuentçat Jaincoari Jesuchristoz bere gogaraco sacrificio izpiritualac. [6] Hargatic da Escrituran errana: "Huna non dudan eçartcen Sionen cantoiñeco harri principala, harri berecia, harri preciatua, eta haren baithan bere sinhextea ibenico duena ez da ahalcatua içanen". [7] Harri hura beraz ohorezco çaitçue çuei, sinhexten duçuenei; sinhexten ez dutenei ordean, bastitçailleec arbuyatu içan duten harria eta cantoiñeco horma bethe eguin den hura [8] batcen çaye behaztopamenduco eta scandalozco harritçat, trebecatcen baidire hitçaren contra eta ez baidute sinhesten; hortaco ere dire eçarriac. [9] Çuec ordean çarete leiñu berecia, aphez erregueèn bilduma, nacione saindua, populu irabacia, eçagutaraz detçatçuentçat ilhumbetaric bere argui miragarrizcorat deithu içan çaituztenaren handitassunac, [10] noizbeit Jaincoaren populua ez ohi ciñetenac, orai ordean haren populu çaretenac; misericordia ardietsi ez cindutenac, orai ordean ardietsi duçuenac.

[11] Maiteac, errequeritcen çaituztet arrotz eta bideante çareten beçala, arren beguira çaitezten haraguicaraco desircundetaric, ceiñec gudu ematen baidiote arimari, [12] ibilgune on bat daducaçuela gentillen artean, çuetaz gaixqui eguille batçuz beçala erasten duten orde, çuen baithan icussico dituzqueten obra onen ariaz gloria eman dioçatentçat Jaincoari bere visitaco egunean.

[13] Çareten bada pressuna suerte gucien manuco Jaincoa gatic: hala erregueren, gucien gaiñeco denaren beçala, [14] hala gobernadoreen, hartaz igorriac direnen beçala gaizqui eguilleen punitceco eta prestuen alde içateco, [15] ceren horla baida Jaincoaren nahia: ungui eguinez ichilaraz detçatçuen guiçon ignorantac eta çoratuac, [16] libro çaretenac beçala, ez çuen libertatea gaixtaqueriaren estacurutçat baliaratcitceco, aitcitic bai Jaincoaren cerbitçari beçala ibiltceco. [17] Guciac ohora çatçue; anayac maita çatçue; çareten Jaincoaren beldur; erregue errespeta çaçue.

[18] Sehiac, çareten errespetu suerte guciarequien çuen naussien manuco, ez choilqui prestu eta manso direnen, baiñan halaber dorphe eta bihurri direnen

ere, [19] ecen Jaincoari lakhet çayoena da, haren gogara eguitea gatic jassan detçan nihorc bere gaitxac eta injustuqui pairaracitcen diotçaten behaçunac. [20] Ecen certaz cinduquete gloriatceco, baldin çuen falten gatic jassaten baditutçue tratamendu gaixtoac? Bainan ungui eguiten duçuelaric passientqui pairatcen baditutçue, hura da Jaincoaren gogara dena.

[21] Hortarat çarete ecen deithuac, halaz eta [2] Jesuchristoc ere pairatu içan duenaz gueroz gure gatic, exemplu uzten darotçuela, jarraiq çaquiztentçat haren urratsei; [22] ceiñec ez baidu eguin bekhaturic eta ceiñen ahotic ez baida ilkhi egundaiño enganiozco hitcic; [23] ceinec ahacarrez jaçarri içan çayoenean, ez baidu hitz gaixtoric ihardetsi; ceinec gaixqui eguin içan diotenean, ez baidu eguin dichiduric ere; aitcitic bere burua eçarri içan baidu injustuqui jugeatcen çuenaren escuetarat; [24] ceiñec gure bekhatuac berac garrayatu içan baiditu bere gorphutcean gurutcearen gaiñean, bekhatuari hillac içanic bici gaquizcoentçat justiciari; ceiñaren çauriez finean içan baitçarete sendatuac. [25] Ciñeten ecen ardi errebelatu batçu beçala, bainan itçuli içan çarete orai çuen arimen artçaiña ganat eta aphezpicua ganat.

2. Beste askotan bezala, kausala da: ik. Rom. I, 19.

III. Cap.

[1] Halaber emasteac içan beitez bere senharren manuco, baldin bada hetaric cembeit hitça sinhexten ez duenic, emasteèn bicitceco molde onaz irabaciac içan daitecentçat hitçaren laguntça gabe. [2] Consideraturic Jaincoaren beldurtassunac çuei inspiratcen darotçuen comportamendu garbia, [3] çuen berreguintça ez bedi içan campocoa, illeèn içurduran, urrezco paramendutan edo tresna ederretan aguertcen dena, [4] baiñan içan bedi bihotceco guiçon gordea, izpiritu eme eta sosegu baten garbitassun perfetean dagoena, cein baida Jaincoaren aitcinean balio handi batetacoa. [5] Horla ecen lehenago Jaincoa baithan esperantça çuten emasteac aphaintcen ohi ciren bere senharren manuco çaudecelaric. [6] Hala nola Sarac obeditcen baitçuen Abraham, bere jauna deitcen çuela; Sarac diot, ceinaren alabac içan baiçaitezquete ungui eguinez eta altaramendu garaben ez beldur içanez.

[7] Senharrac halaber bici çaitezte çuen emasteequien çuhurqui, bachera hautscorrago den bati beçala ohore ekhartcen dioçuela, ceren diren emaste; consideraturic çuen herederoquide direla bicia ematen duen graciaren, çuen oracioneec trabaric aurkhi ez deçaten gatic. [8] Finean bada duçuen guciec izpiritu bat eta bera elkharrentçat, urricalmendu amultsu bat, anayatassunezco amudio bat. Çareten barkhatiar, eme eta humill. [9] Ez deçaçuela bihur gaixquia gaixquiarentçat, ez ahacarra ahacarrarentçat, aitcitic ihardetsaçue benedicione emanez, ceren hortarat baitçarete deithuac, benedicionezco heredalgoa errecibi deçaçuentçat.

[10] "Norc ere nahi baidu ecen bicitceaz goçatu eta nahi baiditu bere egunac dohatsu icussi, beguira beça bere mihia gaixqui erratetic eta bere ezpaiñac enganiozco hitcetaric. [11] Aldara bedi gaixquitic eta eguin beça unguia; bilha beça baquea eta jarraiq bequio hari, [12] ceren Jaunaren beguiac idequiac baidire justuen gainerat eta haren beharriac erne hequien othoitcetarat; Jaunac ordean bekhurunde dorphea eguiten diote gaixquiac eguiten dituztenei."

[13] Eta nor da çuei calteric eguin dieçaçuequenic, ungui eguiterat lehia baçarete? [14] Halaric ere, baldin cerbeit soffritcen baduçue justicia gatic, dohatsu çaitezquete; hequien beldurrez ordean ez çaiteztela ici eta ez altara. [15] Baiñan Jesuchristo Jaunaren saindutassunari eman dioçoçue gloria çuen bihotcetan. Eta çareten bethi prest ihardesterat esparantça duçuenaz arroçoin galdeguiñen darotçuequeten guciei, [16] ordean emetassunequien eta goardiarequien conscientcia chahu daducaçuelaric, çuetaz gaixqui erasteaz ahalca daitecentçat çuec Jesuchristo baithan daramaçuen bicitce saindua itçalgaitzcatcen dutenac. [17] Hobe da ecen ungui eguiten hari çaretelaric, Jaincoaren nahia hala bada, pairatcea, ecen ez gaixqui

eguiten hari çaretelaric, [18] halaz eta [3] Jesuchristo bera ere behin gure bekhatuen gatic hill içan denaz gueroz, justua injustuen gatic, gu Jaincoari offrendatcea gatic; hilla içanic alabainan bere haraguian, biztua içanic ordean Izpirituaz; [19] ceiñetaz halaber goan baitcitçayen predicatcerat pressondeguian ciren izpirituei, [20] ceiñac sinhetsgogor içan baitciren noizbeit, Jaincoaren passientciaren beguira çaudecenean Noeren demboran, archaren preparatcen hari cirenean, ceiñetan gutiac, erran nahi da çortci arima, içan baitciren salbatu cirenac uraren erdian.

[21] Hala çuec ere orai figura hari ihardexten dioen bathayoac çaituzte salbatcen, ez haraguia bere lohigunetaric garbitcen duenac, baiñan conscientcia Jaincoaren alderat chahu egoterat behartcen duenac Jesuchristoren phizteaz, [22] cein baida Jaincoaren escuiñean heriotcea hondatu duen ondoan, gu bicitce eternalaren heredero eguin guintecen gatic iganic cerurat, eta bere azpico eguinic aingueruac, bothereac eta berthuteac.

3. Ikus azken oharra.

IV. Cap.

[1] Bada Jesuchristoc pairatu içan duenaz gueroz bere haraguian, çuec ere arma çaitezte gogantce huntaz: nor ere hill baitçayo haraguiari, eta haina guelditu dela bekhatu eguitetic, [2] gaur guehiago haraguian bicitceco guelditcen çayoen dembora gucian bicitcea gatic ez guiçonen guticien arauera, baiñan bai Jaincoaren nahiaren arauera. [3] Ecen asqui içan behar çaye, iragan dutela demboraric gentillen passioneac contentatcen, ibilli içan ohi direnei lohiquerietan, guticia gaixtoetan, hordiquerietan, jancorretan, debochquerietan eta idolen adoracione sacrilegoetan, [4] orai miretsiac baidaudez nola ez çabiltçaten hec beçala lohiqueria eta desordenu beren ondoan eta blasphemioz baidaudez çuen contra.

[5] Baiñan contu errendatuco diote biciac eta hillac jugeatcerat prest presta dagoenari. [6] Horren gatic predicatu içan ere ohi çaye Evangelioa hillei; condenatuac direlaric guiçonen aitcinean haraguiaren arauez, bici daitecen gatic Izpirituaren arauez Jaincoaren aitciñean. [7] Gauça gucien akhabantça bada hurbill da. Çabiltçate beraz çuhurqui eta çareten atçarriac othoitz eguiterat. [8] Gauça gucien gainetic ordean duçuen elkharganaco caritate bethi dirauquen bat, ceren caritateac estaltcen baidu bekhatuen multço handia. [9] Çareten elkharren ostatuz errecibitçaille erassiaric gabe. [10] Batbederac errecibitu duquen dohaiñaren arauera cerbitçu errenda bioçate bertceei, Jaincoaren gracia differenten dispentsatçaille on beçala.

[11] Baldin norbeit mintço bada, agueri içan bedi Jaincoa mintço dela haren ahoz; baldin norbeitec cembait ministeriotan cerbitçatcen badu, cerbitça beça Jaincoac eman dioquen berthuteaz beçala, gauça gucietan glorificatua içan dadin gatic Jaincoa Jesuchristoz, ceiñi baidagoca gloria eta nausssitassuna mendetaco mendeetan. Amen.

[12] Ene maiteac, ez deçaçuela estranio aurkhi Jaincoac afflixioneèn suaz frogatcen çaituztenean, cerbeit gauça ohiz campoco heltcen balitçaitçue beçala. [13] Aitcitic boz çaitezte, ceren çareten parçuner Jesuchristoren soffricarietan, haren gloria aguertuco denean bozcarioz betheac içan çaiteztentçat. [14] Baldin iroyac eta injurioac pairatcen baditutçue Jesuchristoren icena gatic, dohatsu çarete, cergatic ohore, gloria eta Jaincozco berthute den gucia eta haren Izpiritua bera ere errepausatcen baida çuen gaiñean. [15] Çuetaric bada nihorc ez deçan paira guiçon hiltçaille beçala edo ohoin edo gaixqui erraille edo bertceren onen guticios beçala.

[16] Baldin ordean pairatcen badu guiristiño beçala, ez dadillala ahalca; aitcitic glorifica beça Jaincoa aria hortaz. [17] Ecen huna non den ordua, ceiñetan hassi behar baidu jugeamenduac Jaincoaren etchetic; bada baldin gure ganic hasten

bada, cer içanen da haiñen akhabantça, ceiñec ez baidute sinhexten Jaincoaren Evangelioa? [18] Eta baldin justua nekhez bada salbatcen, non aguertuco da gaixtaguina eta bekhatorea? [19] Halatan bada Jaincoaren nahiaren arauera pairatcen dutenec, obra onetan hari direlaric, gomenda biotçote bere arimac bere creatçaille fidelari.

V. Cap.

[1] Çuen artean diren aphecei, bada, othoitz hau diotet eguiten nic, cein bainaiz hec beçala aphez eta are Jesuchristoren soffricarien lekhuco eta bai egun batez aguertu behar duen gloria haren ere: [2] Bazca çaçue Jaincoaren arthaldea cargutan eman çaitçuequena, hartaz artha hartcen duçuelaric ez gogoaren bortcha[4], baiñan gogo onez, Jaincoaren arauera; ez irabaci liçun baten guraz, baiñan amudioz; [3] ez eta Jaunaren primeçaren gaiñean naussi eguiten çaretelaric, bainan artaldearen exemplu içaterat çuen gogo guciaz jartcen çaretelaric. [4] Eta aguertuco denean artçaiñen printcea, errecibituco duqueçue gloriazco khoroa, iraganen ez dena.

[5] Halaber, gasteac, çareten çaharragoen manuco. Guciac bada lehia çaitezte elkharren alderat humill aguertcerat; ceren Jaincoa contra jartcen baitçaye superbioei, eta aitcitic humillei baidiote ematen bere gracia. [6] Humilia çaitezte beraz Jaincoaren escu botheretsuaren azpian, altcha çaitçatentçat bere bisitaren demboran, [7] çuen grina gucia etchatcen duçuelaric haren ganat, cergatic artha baidaduca çuetaz. [8] Çareten sobre eta erne, ceren deabrua çuen etsaya lehoin marrubialari bat beçala ingurutan baidabiltçue cein irets othe deçaquen bilha. [9] Eguioçue contra fedean tiesso atchequiz çaudeztelaric, dacussaçuelaric munduan ditutçuen anayec gauça berac dituztela pairatceco.

[10] Gracia gucien Jaincoac bada, ceiñec deithu içan baigaitu bere gloria eternalerat Jesuchristo baithan, aphur bat pairatu duqueçuenean berac çaituzte perfet errendatuco, borthiztuco eta atessatuco. [11] Hari dagoco gloria eta naussitassuna mendetaco mendeètan. Amen.

[12] Silbano gure anaya fidelarequin escribatu darotçuet laburqui neure ustez; declaratcen eta frogatcen darotçuedalaric Jaincoaren eguiazco gracia dela, çuec ceiñetan baitçaudezte, eta hura. [13] Salutatcen çaituzte Babilonian den Eliçac, eta çuec beçala hautatua denac, bai eta ene seme Marc-ec ere. [14] Saluta çaçue elkhar mussu saindu batez. Gracia dela çuequien guciequien, ceinac baitçarete Jesuchristo baithan. Amen.

4. Agian *bortchaz* behar du: "non coacte".

J. PETRI APOST.

Bigarren Guthuna

I. Cap.

[1] Simon Piarres, Jesuchristoren cerbitçariac eta Apostoluac, guc beçala fedearen dohaiña ardietsi içan dutenei gure Jainco eta Salbatçaille Jesuchristoren justiciarequien: [2] gracia eta baquea daquiçuela eman franquiaz Jaincoaren eta Jesuchristo gure Jaunaren eçagutçan, [3] nola haren bothere divinoac eman içan baidarozquigu bicitceari eta jaincotiartassunari dagozcon guciac, guri eçagutaracitceaz bere gloria eta berthute propioaz deithu içan ohi gaituena, [4] ceiñetaz eman içan ohi baidarozquigu aguinduricaco gracia handiac eta preciatuac, hetaz eguin çaitez-tengatic natura divinoaren partale, ihes eguiten dioçuelaric munduan erreguiñatcen ohi duen guticiaren corrupcioneari.

[5] Çuec ere bada çuen aldetic ardura eta lehia gucizco bat behar duçue ekharri, iratchaquitceco çuen fedeari berthutea, berthuteari jaquintça, [6] jaquintçari berriz temperantcia, temperantciari passientcia, passientciari jaincotiartassuna, [7] jaincotiartassunari anayen alderaco amudioa, anayen alderaco amudioari berriz caritatea. [8] Baldin ecen horiec çuen baithan edireten badire eta berretuz badohaz, ez çaituzte alfer utcico eta fruitu gabe Jesuchristo gure Jaunaren eçagutça duçuenarequien. [9] Halaber horiec ez dituena itsu da eta hastamuca dabilla, ahantciric bere bekhatu çaharretaric nola içan den garbitua.

[10] Hargatic bada, ene anayac, lehia çaitezte obra onez çuen deyha eta berezcoa guerthu errendatcerat, ecen horla hari çaretela ez duçue bekhaturic eguiñen nihoiz ere, [11] eta bide hortaz emanen darotçue Jaincoac francoqui Jesuchristo gure Jaunaren eta Salbatçaillearen erresuma eternaleco sarpidea. [12] Horri dagocala içanen dut ardura gauça horietaz bethiere çuec orhoitaracitceco, jaquintsun eta borthiztuac çareten arren eguia hunetaz. [13] Uste dut ecen justu dela gorphutz huntaco etcholan naiceino, atçarraraz çaitçatedan ene abenicoez. [14] Segur bainaiz sarri utci behar dudala ene gorphutçaren etchola, Jesuchristo gure Jaunac eçagutaraci darotanaren arauera. [15] Artha iduquico dut ordean, ni hill ondoan ere içan deçaçuen behar duena gauça hautaz orhoitceco.

[16] Ez darotçuegu ecen elhe berriei eta asmu [1] berreguinei jarreiquiz eçaguta-

1. Luzexeagoa dirudi idatzi duen hitzak, baina erdian zerbait ezabatu bide du: *astmu* ote da? Ikus Apost. Eguinc. XVI, 16.

raci Jesuchristo gure Jaunaren botherea eta ethorgunea, baiñan bai gueronec icussiric haren majestatea, [17] ecen errecibitu içan çuen Jainco Aita ganic ohore eta gloria, haren handitassunari çagocon gloriape baten erditic ethorri citçayoen boz hau aditu içan cenean: "Hauche da ene Seme maitea, ceiñetan edireten baidut ene atseguin gucia. Hau adi çaçue". [18] Eta boz hura cerutic heldu cela gueronec aditu içan guinduen, harequien guinaudecela mendi sainduan.

[19] Baiñan baditugu profeten erranac ere cinqui asqui daudecenac, ceini ungui eguiten baiduçue behatceaz, lekhu ilhunbetsu batean arguitcen duen çucia bati beçala, eguna arguitcen has daitequen artean çuen bihotcetan, [20] gucien gainetic gogoan daducaçuelaric Escrituraco profeciaric batere ez dela, interpretacione bereci batez explicatcen denic. [21] Ez çaizquigu ecen guiçonen vorondatez ekharriac içatu profeciac lehenago, bainan Izpiritu Sainduaren movimenduz mintçatu içan dire Jaincoaren guiçon sainduac.

II. Cap.

[1] Içatu dire bada profeta falsoac populuaren artean, çuen artean ere içanen diren beçala naussi gueçurtiac, ceinec sararacico baidituzte heresia galgarri batçu; eta ukhaturic erossi içan dituen Jauna, erakharrico baidute bere buruen gaiñerat galtçapen lauster bat. [2] Hainitz jarreiquico çaizte hequien debochqueria lohiei, ceiñac direla causa blasphemiac eguiñen baidire eguiaren bidearen contra, [3] eta bere auarician, hitz ederrez enganatcen çaituztelaric, mercaduria bat eguiñen dute çuen arimez. Haiñen condenacionea ja aspaldidanic hor heldu da tricatu gaberic eta hequien galtçapena ez datça lo.

[4] Baldinetariac ecen Jaincoac ez baditu guphida içatu bekhatu eguin duten aingueruac, aitcitic ifernuco gatheez gaiñetic erautsiric arthiqui baditu lecean behera, han tormentatuac içateco eta jugeamenduco eguneraiño aldaratuac içateco, [5] baldin lehenago mundua ez badu guphida içatu eta Noe justiciaren predicaria choilqui bera çortcigarren salbatu içan badu, uholdea gaixtaguinen munduaren gaiñerat erakharri çuenean, [6] baldin Sodomaco eta Gomorraco hiriac hautsetan eçarriric galtçapen osso batetarat condenatu içan baditu, gaixtaquerian bicico direnen exemplutçat hec eçartceco, [7] eta Lot justua, higuingarri hec bere bicitce infameaz laceriatcen eta persecutatcen çutena, libratu içan badu, [8] beguiratcez ecen eta aditcez ere justua cen, egunetic egunerat haren arima justua bere eguitate gaixtoez affligitcen çuten jendeèn artean cegoelaric, [9] baidaqui Jaunac haren beldurtassuna dakharquetenac perilletic atheratcen; gaixtaguinac berriz jugeamenduco egunecotz iduquitcen punituac içateco, [10] guehienic ordean bere guticia lohien contentatceco haraguiaren muguidei darraiztenac, naussien authoritateaz trufatcen direnac, atrebitu eta bere buruez pagu direnac, eta dotrina chahuaz gaixqui darasatela heresia berrien sortcerat herabe ez direnac, [11] aingueruac indarrez eta bai botherez handiago direlaric, elkharren contra madaricacionezco jugeamenduric ematen ez duten orduan.

[12] Baiñan hauc arroçoin gabeco abre, bere içatez atcemanac eta galduac içateco eguiñac diren batçu beçala blasphematcen hari dire ez daquiquiten [2] gaucen contra; bere uherduran suntsitu beharrac ditezque, [13] eta errecibituco dute bere gaixtaqueriaren saria; bere atseguiña ematen baidute egun gucia atseguinpean eramatean; laidoa eta liçunqueria bera ere dire eta placerez asseac abandonatcen

2. *Daquizquiten* behar luke.

çaitezte [3] jan edan sobraniazcoei, çuequien eguiten dituzten otruntça caritatezcoetan ere. [14] Beguiac betheac dituzte adulterioz eta akhabantçaric ez duen gaixtaqueria batez; acicatcen dituzte arima ariñac eta erguelac; gogo ancetsu bat dute abariciacotz; madaricionezco ume batçu dire.

[15] Bide chuchena utciric errebelatuac dabiltça Balaam Bosor-en semearen bideari darraizcola, ceiñec maitatu içan baitçuen bere iniquitatearen saria, [16] cein ordean centçatua içan baitcen bere olde çoratuaz, astaca abre mutu batec guiçon guisa mintçaturic baratu baitçuen profeta haren çoramendua. [17] Haiñac dire ithurri batçu urgabeac, hedoi batçu haice buhumbaz erabilliac, ceiñentçat baidaudez ilhunbezco lanhoa beltçac. [18] Mintçatce naussitcho eta fidoz batez ecen acicatcen dituzte haraguiaren nahicara lohietarat, enganioan bici ciren jendeètaric doi doya aldaratuac ditezquen presunac, [19] libertatea hainei aguintcen diotela berac uhergunearen esclabo direlaric, halaz eta [4] nortaz ere nihor baida garaitua, eta haren esclauo denaz gueroz.

[20] Baldinetariac ecen, aldaratu ondoan munduco cutsagune gaixtoetaric eçaguturic Jesuchristo gure Jauna eta gure salbatçaillea, berriz ere hetan coaitatcen badire, bere buruac uzten badituzte garaitcerat, hequien azquen içatea gaixtoagoa eguiten da are lehena baiño. [21] Hobe çuqueten ecen ez eçagutu içatea justiciaren bidea, ecen ez eçagutu ondoan guibelat bihurtcea eta eman içan çayen legue saindua abandonatcea. [22] Baiñan hei guerthatcen ohi çaye errefau eguiatiac erraten duena: "Oçarra bihurtu diteque bere goragalerat eta ahardia, garbitua içan ondoan, berriz ere bassan iraulzcatcerat".

3. *Çaizte* behar zen hor: ik. hor bertantxe (II, 2).
4. Hemen ere kausala: ik. Rom. I, 19.

III. Cap.

[1] Huna, ene maiteac, bigarren buthuna escribatcen darotçuedana, eta batean eta bertcean atçarraraci hari [5] nahiz ene avenicoez çuen izpiritu çucentassunez betheac, [2] orhoit çaiteztentçat profeta sainduen erranez, ceiñez ja mintçatu içan bainaiz, eta Jaunac eta Salbatçailleac apostolutçat eman darożquitçuenen meçuez, [3] gucien gainetic gogoan duçuelaric ethorrico direla azquen demboretan trufari batçu enganioz betheac, bere guticia propialen arauera dabiltçanac, [4] erranen dutenac: "Non da haren ethorrico celaco aguintça? Gure aitac hillac dauntçanaz gueroztic ecen, gauça guciec munduaren hastapenetic ohi ciren beçala diraue". [5] Berariaz equi daudez jaquin gabe, ceruac eguin içan cirela lehenbicitic Jaincoaren hitçaz eta bai lurra ere, ceiña uraren barnetic atheratua baidago uren erdian. [6] Eta hetaz berez içan cen bizquitartean galdua orduco mundua, urez hondatua içanic.

[7] Bada orai diren ceruac eta lurra hitz beraz daudez beguiratuac suz erreac içateco jugeamenduco egunean eta gaixtaguinen galtçapeneco egunean. [8] Gauça bat da bederen, ene maiteac, guciz jaquin behar duçuena: egun bat Jaunaren beguietan milla urthe beçala eta milla urthe egun bat beçala direla. [9] Eta hala ez du berantcen Jaunac bere aguindua complitcerat, cembeitec uste duten beçala, baiñan pairatuqui hari da çuen gatic, ez nahiz nihor gal dadin, aitcitic bai guciac dathocen penitentciarat. [10] Ethorrico da bada Jaunaren eguna betbetan ohoin bat beçala eta orduan ceruac iraganen ditezque habarrots handirequien, elementac urthuco dire suaren bicitassunez, lurra berriz eta hartan diren obra guciac erreco dire.

[11] Horiec guciac suntsitu beharrac direnaz gueroz, nolacoac behar duçue içan eta nolacoa behar da içan çuen bicitcearen saindutassuna eta çuen jaincotiartassuna, [12] iguriquitcen baiduçue eta lehiatuqui desiratcen ere Jauna ethor daitequen denbora, ceinetan ceruac suntsituco baidire iraçaquiz eta elementac urthuco suaren berotassunez? [13] Haren aguintçaren arauera ordean ceru berri batçuen eta lur berri baten ustean gaudez, ceiñetan justiciac eguiñen baidu bere egoitça.

[14] Horri dagocala, ene maiteac, gauça horien ustean lehia çaitezte bicitce garbi eta erratecoric gabeco batez aurkhi çaitçaten baquean, [15] eta sinhetsaçue gure Jaunaren passientcia lucea çuen onetaco dela, hala nola Paulo gure anaya maiteac ere escribatu içan baidarotçue eman içan çayoen çuhurtciaren arauera; [16] eguiten ere duen beçala bere buthun gucietan mintço denean gauça horie-

5. Hitz honek alfer dirudi.

taz, ceiñetan baidire toqui batçu aditceco gaitz direnac, ignoranteec eta arinec makhur hartcen dituztenac, bertce Escriturac ere beçala, bere galtçapenetan.

[17] Çuec bada, ene anayac, aitcinetic hortaz jaquintsun eguinac çareten beçala, beguirautçue guiçon çoratu hequien enganioac eramanic eror ez çaitezten orai çaudezten fermutassunetic. [18] Aitcitic çabiltçate berretuz Jesuchristo gure Jaunaren eta Salbatçaillearen gracian eta eçagutçan. Hari gloria bai orai eta bai eternitateco eguneraiño. Amen.

J. JAUNI APOST.

Lehenbicico Guthuna

I. Cap.

[1] Haste hastetic cena, aditu içan duguna, guere beguiz icussi içan duguna, miratu içan duguna eta gure escuec hazcatu içan dutena bicitcearen Berboaren ariaz [2] (ecen bicitcea aguertu içan da eta icussi dugu, lekhucotassuna hartaz errendatcen dugu eta iracasten darotçuegu bicitce eternal hura, Aita baithan cena eta guri aguertu içan çaicuna), [3] icussi içan duguna (diot) darotçuegu iracasten, cueç ere sar çaitezten gatic parçunercoan gurequien, eta gure parçunercoa içan dadin gatic Aitarequien eta haren Seme Jesuchristorequien. [4] Eta hau darotçuegu escribatcen boz çaitezten gatic eta çuen bozcarioa içan dadin gatic complia.

[5] Hauche da bada Jesuchristo ganic ikhassi içan duguna eta çuei iracasten darotçueguna: Jaincoa arguia bera dela eta ilhumbe garabic ez dela haren baithan. [6] Baldinetariac erraten badugu parçunercoa dugula harequien eta ilhunbeetan bagabiltça, gueçurra erraten dugu eta ez gare eguian hari. [7] Baldin ordean arguian bagabiltça bera arguian den beçala, parçunercoa duquegu elkharrequien eta Jesuchristo haren Semearen odolac garbitcen gaitu bekhatu gucietaric.

[8] Baldin erraten badugu bekhaturic ez dugula, guere buruac enganatcen ditugu eta eguia ez da gure baithan. [9] Baldin aithortcen baditugu gure bekhatuac, hura leyal da eta justu barkhatceco guri gure bekhatuac eta garbitceco gu gaixtaqueria gucietaric. [10] Baldin erraten badugu ez dugula eguin bekhaturic, hura dugu gueçurti eguiten eta haren hitça ez diteque gure baithan.

II. Cap.

[1] Ene haurtchoac, hau escribatcen darotçuetet bekhaturic eguin ez deçaçuen gatic; baldin ordean nihor heldu bada ere bekhatu eguiterat, badugu avocat bat Aitaren aldean, Jesuchristo, gucia justua dena. [2] Bera da eta bictima gure bekhatuen barkharacitcecoa, eta ez choilqui gureèn, baiñan halaber mundu guciarenen.

[3] Eta huntan dacusagu hura eçagutcen dugula: baldin haren manamenduac beguiratcen baditugu. [4] Norc ere erraten baidu hura eçagutcen duela eta haren manamenduac ez baiditu beguiratcen, gueçurti bat da eta eguia ez da haren baithan. [5] Norc ere ordean beguiratcen baiditu haren erranac, eta harc du eguiazqui amudio perfet bat Jaincoarentçat. Hortan eçagutcen dugu haren baithan garela. [6] Norc ere erraten baidu Jesuchristo baithan dagoela, behar du harc ere ibilli Jesuchristo ibilli içan den beçala.

[7] Ene maiteac, ez darotçuetet manamendu berri bat escribatcen, baiñan bai hastetic içan duçuen manamendu çaharra; manamendu çahar hura da çuec aditu içan duçuen hitça. [8] Bertce alde nic escribatcen darotçuetedana manamendu berri bat da, eta hori eguia da Jesuchristo baithan eta bai çuen baithan, ceren ilhunbeac iragan baidire eta eguiazco arguiac ja arguitcen baidu. [9] Norc ere erraten baidu arguian dela eta bere anaya gaitcesten badu, haiña ilhumbeètan da oraiñocoan. [10] Bere anaya maite duena arguian dago eta behaztopatceric haren baithan ez da. [11] Baiñan bere anaya gaitcesten duena ilhumbeetan da, ilhunbean dabilla eta ez daqui norat dohan, ceren ilhumbeec itsutu baidiotçate beguiac.

[12] Escribatcen darotçuetet çuei, ene haurtchoac, ceren barkhatcen baitçaizquitçue çuen bekhatuac Jesuchristoren icena gatic. [13] Escribatcen darotçuet [1] çuei, aitac, ceren eçagutu baiduçue haste hastetic dena. Escribatcen darotçuet çuei, gasteac, garaitu baiduçue izpiritu gaixtoa. [14] Escribatcen darotçuet çuei, haurrac, ceren eçagutu baiduçue Aita. Escribatcen darotçuet çuei, gasteac, ceren indartsu baitçarete, Jaincoaren hitça çuen baithan egoten baida eta garaitu baiduçue izpiritu gaixtoa.

[15] Ez deçaçuela maita mundua, ez eta munduan diren gaucetaric deussere. Baldin nihorc maitatcen badu mundua, ez da Aitaren amudioa haiña baithan, [16] ecen munduan ditequen gucia edo da haraguiaren guticia, edo beguietaco guticia, edo bicitcearen superbioa; eta hori ez da Aita ganic heldu dena, baiñan bai

1. Gutun honetan ere *darotçuetet* eta *darotçuet* nahasi ageri dira. Ikus aurreko (12.) bertsoa, eta I Corinth. XV, 1.

mundua ganic. [17] Mundua iragaten da eta bai haren guticia ere; ordean Jaincoaren nahia eguiten duquena seculacotz dago.

[18] Ene haurtchoac, azqueneco orena diteque, eta aditu duçuen beçala Antechristoc ethorri behar duela, orai danic ere badire hainitz Antechristo, eta hortic dacusagu azqueneco orenean garela. [19] Gure ganic ilkhi dire, baiñan ez ciren gureètaric; ecen guretaric içan balire, gurequien egonen bide ciren; bainan aguertu behar baitçuten ez direla guciac guretaric. [20] Çuez [2] denaz beçambatean, errecibitu duçue sainduaren çaporea eta eçagutcen ditutçue gauça guciac. [21] Ez darotçuet ere escribatu eguia eçagutcen ez duten batçuei beçala, aitcitic bai hura eçagutcen dutenei beçala eta daquitenei beçala gueçurric batere ez dela heldu eguiatic. [22] Nor da gueçurtia, baicen Jesus dela Christo ukhatcen duena? Hurache da Antechrist bat, Aita eta Semea ukhatcen dituena. [23] Norc ere ukhatcen baidu Semea, eta haiñac ez du eçagutcen Aita ere; norc ere aithortcen baidu Semea, eta haiñac du Aita ere eçagutcen.

[24] Çuetaz denaz beçambatean, hastetic ikhassi içan duçuena bego bethiere çuen baithan; baldinetariac çuen baithan badago bethiere hastapenetic ikhassi içan duçuena, cebonec ere egonen çarete Semea baithan eta Aita baithan. [25] Eta hori da ere aguintça, berac eguin içan darocuna, aguindu içan darocunean bicitce eternala.

[26] Hau darotçuetet escribatu çuec enganatcen çaituztenen ariaz. [27] Ordean çuec Jaincoaren Semea ganic errecibitu içan duçuen çaporea bego çuen baithan, eta ez duçueque mengoaric nihorc irakhats çaitçaten; bainan nola çapore harc berac iracasten baidarozquitçue gauça guciac eta hura baida eguia gueçurric batere gabecoa, çaudete harc iracatsi içan darotçuenean.

[28] Guciz orai, ene haurtchoac, çaudete cinqui hartan, Jaincoaren Semea aguertuco denean içan deçaguntçat fidantcia eta ahalqueriaz bethe ez gaitçan bere ethor egunean. [29] Baldin badaquiçue Jaincoa justua dela, jaquiçue justiciaren arauera nor ere bici baida, eta hura haren ganic sorthua dela.

2. Hala dio; ikus ordea *çuetaz denaz beçambatean* lau bertso beherago (24.).

III. Cap.

[1] Icussaçue nolaco amudioa eracutsi içan darocun Aitac, nahi baidu Jaincoaren ume deith gaitecen eta içan ere gaitecen. Hargatic munduac ez gaitu eçagutcen, ceren ez baidu eçagutcen hura ere. [2] Ene maiteac, orai danic Jaincoaren ume gare, ordean ez da oraiño agueri cer içanen garen; badaquigu Jesuchristo aguertuco denean bere glorian, hura idurico dugula, ceren icussico baidugu den beçala. [3] Eta norc ere baidu esperantça hori haren baithan, eta haiña santificatcen da, hura bera ere saindu den beçala.

[4] Norc ere eguiten baidu bekhatu, eta haiñac leguearen contra eguiten du, ecen bekhatua leguearen contra dena da. [5] Eta badaquiçue hura aguertu içan dela gure bekhatuen khentceco, eta bekhaturic ez baida haren baithan. [6] Nor ere haren baithan egoten baida, eta haiñac ez du bekhaturic eguiten; eta norc ere bekhatu eguiten baidu, eta haiñac ez duque hura icussi, ez eçagutu. [7] Ene haurtchoac, nihorc ez çaitçatela engana. Justiciazco obrac eguiten dituena da justua, hala nola Jesuchristo baida justua. [8] Bekhatu eguiten duena deabruaren ume da, ceren deabrua hastetic bekhatu eguiten hari baida; eta aria hortaz ethorri içan da mundurat Jaincoaren Semea, deabruaren obren desseguitea gatic. [9] Jaincoa ganic sorthu denac ez du eguiten bekhaturic, ceren Jaincoaren hacia haren baithan baidago; eta ecin daguique ere bekhaturic, ceren Jaincoa ganic sorthua baida.

[10] Hortan dire agueri Jaincoaren umeac eta deabruaren umeac; nor ere ez baida justua, ez da Jaincoa ganic, ez eta halaber bere anaya maite ez duena ere. [11] Hau da ecen hastetic iracatsi içan çaitçuena eta aditu içan duçuena: deçaçuen elkhar maita. [12] Içan ez çaitezten Cain beçala, cein baitcen izpiritu gaixtoaren ume eta ceiñec hill baitçuen bere anaya. Eta cergatic hill çuen? Ceren haren eguitateac baitciren gaixtoac[3], anayarenac aitcitic baitciren justuac. [13] Ez deçaçuela mirets, ene anayac, baldin munduac higuin baçaituzte. [14] Guc huntan dacusagu iragan garela heriotcetic bicitcerat: maite baiditugu gure anayac. Maitatcen ez duena heriotcean dago. [15] Norc ere gaitcesten baidu bere anaya, eta haiña guiçon hillçaille bat da; eta badaquiçue guiçon hiltçaillec batec ere ez duela bicitce eternala bere baithan egotiar.

[16] Huntan dugu eçagutcen Jaincoaren amudioa gure alderaco: bere bicia eman içan baidu gure gatic, guc ere eman behar dugu bicia gure anayentçat.

3. Orriaren bazterrean idatzi du gero hor itzuri zitzaion hitza: *gaixtoac.*

[17] Norbeitec duelaric mundu huntaco ontassunetaric, icusten badu bere anaya beharrean eta çarratcen badio bere bihotça, nola egon daiteque Jaincoaren amudioa haren baithan? [18] Ene haurtchoac, ez deçagula maita hitcez eta mihiz, bainan bai obrez eta eguiaz. [19] Hortan eçagutcen dugu eguiaren ume garela; eta ditugu Jaincoaren aitciñean gogoatuco hortaz gure bihotçac. [20] Baldinetariac ecen condenatcen bagaitu gure bihotçac, guehiago bide da Jaincoa gure bihotça baiño, eta eçagutcen baiditu gauça guciac. [21] Ene maiteac, guere bihotçac ez bagaitu condenatcen, fidantcia badugu Jaincoaren aitciñean, [22] eta cer nahi galde dioçogun, errecibituco dugu haren ganic, cergatic haren manamenduac beguiratcen baiditugu eta hari agradatcen çayoena eguiten baidugu.

[23] Eta hau da haren manamendua: sinhetx deçagun haren Seme Jesuchristoren icenean, eta maita deçagun elkhar, manua eman darocun beçala. [24] Bada haren manamenduac beguiratcen dituena haren baithan egoten da eta hura berriz haren baithan [4]; eta hortan eçagutcen dugu berac eman darocun Izpirituaz gure baithan egoten dela.

4. Hitz hauen parean *haina* idatzi du orriaren bazterrean. Non txertatzeko? Ikus hurrengo kap. IV, 16: haren arabera hemen ere *haina haren baithan* nahi zukeela dirudi.

IV. Cap.

[1] Ene maiteac, ez detçatçuela sinhets izpiritu guciac; aitcitic froga çatcitçue izpirituac hea Jaincoa ganic diren, ecen hainitz profeta falso ethorri dire mundurat. [2] Huntanche eçagutcen ditugu Jaincoa ganicaco izpirituac: Jesuchristo haraguizco gorphutz batequien ethorri içan dela aithortcen duen izpiritu gucia Jaincoa ganic diteque. [3] Eta Jesuchristo partitcen duen izpiritu gucia ez da Jaincoa ganic; eta hura diteque Antechristo, ceiñetaz aditu baiduçue erraten heldu dela; eta ja orai danic munduan ja.

[4] Çuec Jaincoa ganic çarete, ene haurtchoac, eta garaitu duçue izpiritu hura, cergatic handiagoa baida çuen baithan dena, ecen ez munduan dena. [5] Hec munducoac dire; hargatic dire mintço munduaz eta ditu munduac hec entçuten. [6] Gu Jaincoa ganic gare. Jaincoa eçagutcen duenac entçuten gaitu gu; Jaincoa ganic ez denac ez gaitu aditcen. Hortan dugu eçagutcen eguiaren Izpiritua eta enganiozco izpiritua.

[7] Ene maiteac, deçagun elkhar maita, ecen amudioa eta caritatea Jaincoa ganic da; eta norc ere maitatcen baidu, eta haiña Jaincoa ganic sorthua da eta haiñac eçagutcen du Jaincoa. [8] Maitatcen ez duenac ez du eçagutcen Jaincoa, ecen Jaincoa amudio da. [9] Huntanche eracutsi içan du Jaincoac bere amudioa gure alderat: bere Seme bakharra igorri içan baidu mundurat, bici gaitecen gatic hartaz. [10] Eta huntan da haren amudioa ciñezcoa: ez baigare gu Jaincoa maitatu dugunac, baiñan berac lehenic maitatu baigaitu gu eta igorri baidu bere Semea barkhamenduzco bictima bat beçala gure bekhatuentçat.

[11] Ene maiteac, baldin horla bagaitu Jaincoac gu maitatu, guc ere maitatu behar dugu elkhar. [12] Jaincoa nihorc ez du icussi egundaiño. Baldin elkhar maitatcen badugu, Jaincoa gure baithan dago eta haren amudioa gure baithan perfeta da. [13] Huntan eçagutcen dugu haren baithan gaudecela eta hura gure baithan: eman baidarocu bere Izpiritutic. [14] Gueure beguiz icussi dugu eta iekhucotassuna errendatcen dugu, Aitac igorri içan duela bere Semea munduaren salbatçaille içateco. [15] Norc ere bada aithortuco baidu Jesus dela Jaincoaren semea, Jaincoa haren baithan dagoque eta hura Jaincoa baithan. [16] Guc behintçat eçagutu dugu eta sinhetsi ere bai Jaincoac guretçat duen amudioa. Jaincoa amudio da eta hala amudioan dagoena Jaincoa baithan dago eta Jaincoa haiña haren baithan.

[17] Huntan da Jaincoaren amudioa perfeta gure baithan: fidantcia baidugu jugeamenduco egunecotçat, ceren hura den beçalaco baigare gu ere mundu huntan. [18] Iciapena ez da edireten caritatearequien; aitcitic caritate perfetac feratcen

du iciapena, ecen beldurrac pena berequien dakharque eta beldur denac ez du caritate perfeta.

[19] Guc bada maita deçagun Jaincoa, halaz eta[5] Jaincoac lehenic maitatu gaituenaz gueroz gu. [20] Baldin edoceiñec erraten badu: "Maite dut Jaincoa" eta hala ere bere anaya gaitcesten badu, gueçurti bat da. Maitatcen ez duenac bere anaya, cein baidu icusten, Jaincoa, cein ez baidu icusten, nola maita ahal deçaque? [21] Eta hau da manu bat Jaincoa ganic duguna: Jaincoa maitatcen duenac maita deçan halaber bere anaya ere.

5. Hemen ere kausala: ik. Rom. I, 19.

V. Cap.

[1] Norc ere sinhexten baidu ecen Jesus dela Christo, eta haina Jaincoa ganic sorthua da; eta norc ere maite baidu genderatu duena, maite du orobat haren ganic genderatua içan dena ere. [2] Huntan dugu eçagutcen maite ditugu [6] Jaincoaren umeac; maitatcen dugunean Jaincoa eta eguiten ditugunean haren manuac. [3] Jaincoa maitatcea ecen haren manamenduac beguiratcean datça, eta haren manamenduac ez dire gaitçac.

[4] Ceren Jaincoa ganic sorthuac diren guciac munduaren garai baidire, eta munduaren garai errendatcen ohi duen bictoria hura gure fedea da. [5] Nor da munduari garaitcen çayoena, baicen haiña, ceiñec sinhexten baidu Jesus dela Jaincoaren Semea? [6] Jesuchristo hura bera da ethorri içan dena urarequien eta odolarequien; ez urarequien choilqui, bainan urarequien eta odolarequien, eta Izpiritua da lekhucotassuna errendatcen duena Jesuchristo dela eguia. [7] Ecen hirur dire lekhucotassuna ematen dutenac ceruan: Aita, Verboa eta Izpiritu Saindua, eta hauc hirurac bat dire. [8] Eta hirur dire lekhucotassuna ematen dutenac lurrean: Izpiritua eta ura eta odola, eta hauc hirurac bat dire.

[9] Baldinetariac guiçonen lekhucotassuna errecibitcen badugu, Jaincoaren lekhucotassuna handiagoa da; bada hau da lekhucotassun handi hura: Jaincoac bere Semeaz errendatu duena. [10] Jaincoaren Semea baithan sinhexten duenac badu Jaincoaren lekhucotassuna bere baithan; Semea baithan sinhexten ez duenac gueçurti eguiten du Jaincoa, ceren ez baidu sinhexten Jaincoac bere Semeaz errendatu içan duen lekhucotassunean. [11] Eta lekhucotassun hura da, bicitce eternala eman darocula Jaincoac; eta bicitce hura haren Semea baithan da. [12] Semea duenac badu bicitcea; Semea ez duenac bicitcea ez duque.

[13] Hauc escribatcen darozquitçuet daquiçuentçat bicitce eternala baduçuela sinhexten duçuenec Jaincoaren Semearen icenean. [14] Eta haren baithan fidantcia ematen darocuna da, entçuten baigaitu haren nahiaren araueraco galdetcen diogun gucietan. [15] Badaquigu ecen entçuten gaituela galdetcen diogun gucietan; eta daquigu, ceren ardiexten baidugu galdetcen dioguna.

[16] Jaquiten duenac haren anayac eguin duquela bekhatu bat heriotcerat ez dohana, galde beça eta ardietxico du bicitcea haiñarentçat, ceiñaren bekhatua ez baidoha heriotcerat; bada ordean bekhatu bat heriotcerat dohana, eta ez dut harentçat erraten othoitz eguin deçaçuela. [17] Gaixtaqueria gucia bekhatu da, bai-

6. *Ditugula* behar zen hor.

ñan bada bekhatu bat heriotcerat dohana. [18] Badaquigu, nor ere Jaincoa ganic sorthua baida, eta haiñac ez duela eguiten bekhaturic; aitcitic Jaincoa ganicaco sortce harc beguiratcen du eta izpiritu gaixtoac ez du uquitcen haiña. [19] Badaquigu Jaincoa ganic garela gu, eta mundua den gucia izpiritu gaixtoaren botherearen azpian dela. [20] Badaquigu halaber Jaincoaren Semea ethorri içan dela eta eman darocula adimendua, eçagut deçagun gatic eguiazco Jaincoa eta içan gaitecen gatic haren eguiazco Semea baithan. Hura da eguiazco Jaincoa eta bicitce eternala. [21] Ene haurtchoac, beguira çaitezte idoletaric. Amen.

J. JAUNI APOST.

Bigarren Guthuna

I. Cap.

[1] Apheçac andre Electari eta haren haurrei, ceiñac maite baiditut eguiaz, eta ez nic bakharric, baiñan orobat eguia eçagutcen duten guciec ere, [2] gure baithan egoten den eta seculan gurequien içanen den eguiaren gatic, [3] gracia, misericordia eta baquea diçuela Jainco Aitac eta Jesuchristo Aitaren Semeac eguian eta caritatean.

[4] Asco bozcario içan dut aurkhitceaz çure haurretaric ceinbeit eguian dabiltçanac, Aita ganic errecibitu içan dugun manuaren arauera. [5] Eta othoizten çaitut orai, andrea, ez manamendu berri bat escribatcen banarotçu beçala, baiñan hastetic exlegitua içan çaicunaren arauera deçagun elkhar maita. [6] Bada caritatea Jaincoaren manamenduen arauera ibiltcean dago; hori da ecen manamendua, hastetic errecibitu içan duçuena, hortan ibill çaiteztentçat.

[7] Cergatic hainitz enganatçaille ilkhi baidire mundurat, ceiñec ez baidute aithortcen Jesuchristo ethorri içan dela haraguizco gorphutz batequien. Hori da enganatçaille eta Antechristo içatea. [8] Goardia emoçue ceben buruei, gal ez detçatçuen eguin ditutçuen obra onac, aitcitic sari bethe bat errecibi deçaçuentçat. [9] Nor ere aldaratcen baida eta ez baidago Jesuchristoren dotrinan, eta haiñac ez du Jaincoa bere; eta nor ere baidago haren dotrinan, eta haiñac bai Aita eta bai Semea bere ditu. [10] Baldin nihor heldu bada çuen ganat eta ez badu ekhartcen dotrina hori, ez deçaçuela har etcherat, ez eta saluta ere. [11] Ecen hura salutatcen duena parçuner eguiten da haren eguitate gaixtoetan.

[12] Hainitx gauça nuquelaric çuei escribatceco, ez dut eguin nahi içatu paperez eta tintaz, esperantça baidut sarri çuequien içanen naicela, eta ahoz aho mintçatuco garela, çuen bozcarioa bethea içan dadin gatic. [13] Salutatcen çaituzte çure aizpa Electaren haurrec.

J. JAUNI APOST.

Hirurgarren Guthuna

I. Cap.

[1] Apheçac ene Cayo maiteari, eguian maite dudanari.
[2] Ene maitea, othoitz eguiten diot Jaincoari hain ungui içan çaitecen çure eguiteco gucietan eta bai çure ontassunean, nola baitçare çure arimari darauntsoten gaucetan. [3] Bozcario handi bat içatu dut ethorri içan direnean anayac eta lekhucotassuna errendatu dutenean çure eguiazco jaincotiartassunaz eta eguiaren arauera ibiltceco duçun lehiaz. [4] Bozcario handiagoric ez dut ecen aditceaz baiño ene haurrac eguian dabiltçala. [5] Ene maitea, guiristiño leyal beçala eguiten duçu anayen alderat eguiten ditutçun gauça gucietan eta are lekhortarren alderat eguiten ditutçunetan, [6] ceiñec lekhucotassuna errendatu içan baidute çure caritateaz Eliça guciaren aitciñean, eta ungui eguinen duçu hec guidatceaz eta laguntceaz bere biyayean Jaincoari dagocon maneran. [7] Haren icena gatic ecen abiatu içan dire, deussere hartcen ez dutela gentilletaric. [8] Halatan beraz guc behar ditugu ungui errecibitu halacoac, parçuner içan gaitecen gatic eguiarentçat hec eguiten dituzten gaucetan.
[9] Escribatuco nioquen bada Eliçari ere, baiñan hequien artean naussitassuna erabiltcerat ayher denac, Diotrephec, ez gaitu errecibitu nahi. [10] Horri dagocala baldin heldu banaiz horrat, eracutsico diot cein gaixqui eguiten duen hizcuntça gaixtoz erasteaz gure contra; eta hori asqui ez balu beçala, berac ez ditu errecibitcen anayac, eta errecibitu nahi dituztenac debecatcen ditu eta Eliçatic cassatcen. [11] Ene maitea, ez deçaçula imita gaixqui dena, bainan bai ungui dena. Ungui eguiten duena Jaincoa ganic da; gaixqui eguiten duenac ez du eçagutcen Jaincoa. [12] Demetriori lekhucotassuna errendatcen dio mundu guciac eta bai eguiac berac ere; bada guc ere errendatcen diogu, eta badaquiçu gure lekhucotassuna eguiazcoa dela.
[13] Hainitz gauça banituen çuri escribatceco, baiñan ez dut eguin nahi içatu tintaz eta plumaz, [14] ceren esperantça baidut sarri icussico çaitudala, eta orduan mintçatuco gare bekhoz bekho. [15] Baquea dela çurequien. Salutatcen çaituzte adisquideec. Saluta çatcitçu gure adisquideac ceiñ beregain.

S. JUDA APOST.

Guthuna Catholicoa

I. Cap.

[1] Juda, Jesuchristoren cerbitçariac eta Jacoberen anayac, Jainco Aitac santificatu eta Jesuchristoc conserbatu eta deithu içan dituenei, [2] misericordia, baquea eta caritatea gaindiz dathorzquitçuela.

[3] Ene maiteac, lehia handirequien gogo bainuen çuei escribatceco erquide dugun salbamenduaren gaiñean, mengoan aurkhitcen naiz orai eguiteco, errequeritcen çaituztedalaric, arren guduca çaitezten gogotic behin sainduei eman içan çayen fedea gatic. [4] Sarthu içan dire ecen gure arterat guiçon batçu, aspaldidanic Escrituretan seiñalatuac direnac condenatuac içateco; Jaincoaren beldur gabeac, gure Jaincoaren gracia gambiatcen dutenac lohiquerian bicitceco estacuru batetarat, eta Jesuchristo gure naussi bakharra eta gure Jauna ukhatcen dutenac.

[5] Orhoitaraci nahi çaituztet bada, baidaquizquitçue berdin gauça guciac: Jesusec populua athera cuenean eta salbatu Egiptotic, ondoan sinhetxi ez çutenac suntsiaraci cituela. [6] Bere lehentassuna beguiratu ez çuten aingueruac berriz, aitcitic bere egoitça propiala utci içan çutenac, egun handico jugeamenducotçat erresalbatuac daduzcala, ilhunbepean gathe eternalez estecaturic; [7] hala nola Sodoma eta Gomorra eta hequien hauçoco hiriac, hec beçala lohiqueriari abandonatu citçaizcoenac eta bertcelaco haragui baten ondoan abiatu ere cirenac, eguin içan baidire su eternalaren exemplu bat jassan içan duten gastiguez. [8] Manera berean dute hauc ere bere haraguia hidoiztatcen, autoritate beharquitua mezpreçatcen eta cargu handitan direnez gaizqui erasten.

[9] Michael archangelua deabruarequien ciharducanean Moiseren gorphutçaren gainetic, ez cen ausartatu madaricionezco sententcia bat ematerat haren contra; choilqui harc erran çuena cen: "Jaunac erabill deçala hire gaiñean bere botherea". [10] Hauc ordean aditcen ez dituzten gauça guciac behindic behin condenatcen dituzte blasphemiorequien; naturalqui bestia mutuec beçala eçagutcen dituzten gauça guciez berriz baliatcen dire bere buruen gaizcoatceco. [11] Çorigaitz hequientçat, ceren Cainen bidean abiatu baidire, sariaren egarriz Balaam beçala enganatuac içanic; abandonatcen baitçaizco desserreguelamenduari eta Coreren alboratamendua seguituz galduco baidire hura beçala.

[12] Gende batçu dire bere othruntcetan likhitsac, jauncorrean dauntçanac deussen beldur gabe, bere buruen bazcatceaz baicen artharic ez dutenac. Hedoy batçu dire uric gabecoac, haiceec harat hunat darabiltçatenac. Arbola batçu, ihartcean baicen loratcen ez direnac, fruituric ekhartcen ez dutenac, bietan hillac, erroetaric atheratuac. [13] Itsassoco uhin dorphe batçu dire, confusionezco arrapoa etchatcen dutenac. Içar errebelatu batçu, tempesta ilhunbetsu bati iguriqui behar çaizconac eternitate gucicotz. [14] Horietaz profetisatu ere du bada Enoch Adamen ondoco çazpi garren içan denac, erraten duelaric: "Huna non dathorren jauna milliunea dituen sainduequien, [15] gucien contra jugeamendua ematerat, eta bentcutcerat gaixtaguin guciac, eguin içan dituzten gaixtaqueria guciez, eta bekhatoros gaixtoec Jaincoaren contra erassi dituzten ahacar guciez". [16] Murmuratçaille batçu dire bethi errencuraz daudecenac, bere nahicaren arauera dabiltçanac, orgulleriazco hitcic baicen ahoan ez dutenac, bere intressa gatic pressunen admiratçaille jartcen direnac.

[17] Çuec ordean, ene maiteac, orhoit çaitezte Jesuchristo gure Jaunaren Apostoluec aitciñetic erran içan darozquitçueten gaucez, [18] ceiñec erraten baitçarotçuen azquen demboretan ethorrico direla enganatçaille batçu bere guticien arauera ibillico direnac gaixtaquerietan. [19] Jende batçu dire, berac aldaratcen direnac, guiçon abrecaraco batçu, Jaincoaren Izpiritua ez dutenac.

[20] Çuec ordean, ene maiteac, ceben buruac altchatcen ditutçuelaric edificio izpiritual bat beçala çuen fede guciz sainduaren cimenduaren gaiñean, eta Izpiritu Sainduaz othoitz eguiten duçuelaric, [21] çaudezte Jaincoaren amudioan, Jesuchristo gure Jaunaren misericordiaren beguira bicitce eternalecotçat. [22] Errepreni çatcitçue behintçat ja berenez condenatuac diren batçu. [23] Bertceac berriz salba çatcitçue sutic beçala atheratcen ditutçuelaric; bertce batçu berriz ditutçuen urricari, cebonentçat ere beldurtcen çaretela, eta duçuen higuin arropa liçundu bat beçala haraguiaren khutsua duen gucia.

[24] Botheretsu denari, bada, çuec beguiratceco bekhaturic gabe eta eramateco haren gloriaren thronuaren aitciñerat, chahu eta tatcha gabe, bozcarioz gaindi eguinac, Jesuchristo gure Jaunaren ethorgunean, [25] Jainco bakhar gure Salbatçaille denari Jesuchristo gure Jaunaz, gloria eta magnificentcia, naussitassuna eta botherea mende gucien aitcinetic eta ori ere eta bai mendetaco mende gucietan. Amen.

J. JOANNI

Apost. Apocalipsa
edo Errevelacionea

I. Cap.

[1] Jesuchristoren Errevelacionea, ceiña eman baidio Jaincoac, aguertceco bere cerbitçariei lauster guerthatu beharrac diren gauçac; harc igorriric bere ainguerua eçagutaraci baidiotça Joannes bere cerbitçariari, [2] ceiñec iracatsi içan baidu Jaincoaren hitça eta lekhucotassuna eman Jesuchristo ganic icussi içan dituen gauça guciez.

[3] Dohatsu iracurtcen eta aditcen dituena profecia huntaco hitçac eta beguiratcen dituena huntan escribatuac direnac, dembora ecen hurbill da.

[4] Joannesec Asian diren çazpi Elicei: gracia eta baquea dela çuequien "denaren, cenaren eta ethorri behar duenaren" partez, eta haren thronuaren aitciñean diren çazpi Izpirituen partez, [5] eta Jesuchristoren partez, cein baida lekhuco fidela, hilletaricaco lehen yayoa, lurreco erregueen princea, ceiñec maitatu içan baigaitu eta garbitu içan baigaitu gure bekhatuetaric bere odolean [6] eta eguin içan baigaitu Jainco bere Aitaren erresuma eta aphez; hari dagoco gloria eta naussitassuna mendetaco mendeetan, amen.

[7] Huna non heldu den hedoypean. Icussico dute begui guciec, bai eta cilhatu içan dutenec ere, eta lurreco populu guciec auhenac eguiñen dituzte haren gaiñean. Bai, hala içanen da. [8] Ni naiz alpha eta omega, hastapena eta akhabantça, diotsa Jainco Jaunac, "denac, cenac eta ethorri behar duenac", guciz botheretsuac.

[9] Ni Joannes, çuen anaya eta çuen parçunera behaçunean, erressuman eta pairagunean Jesuchristo baithan, nintcen Patmos daritçan irlan Jaunaren hitça gatic eta Jesuchristori lekhucotassuna errendatcea gatic. [10] Nintcen içan Izpirituaz altchatua igande egun batez eta nuen aditu ene guibeletic boz handi bat claroin batena beçala, [11] ciotsana: "Icusten duçuna escriba çaçu liburu batean, eta igorroçute çazpi Eliça Asian direnei, Ephesan, Smyrnan, Pergaman, Thyatiren, Sardisen, Philadelphian eta Laodicean".

[12] Itçuli nintcen icusteco cer cen niri mintço citçaitan boça eta itçuli eta, icussi nituen çazpi candeler urrezco. [13] Eta çazpi candeler urrezcoen erdian icussi nuen Guiçonaren Semea iduri çuen bat, arropa luce batez bestitua eta bulharren

gaiñean guerricatua urrezco guerrico batez. [14] Haren burua berriz eta haren illeac ciren churi lana churia beçala eta elhurra beçala, eta haren beguiec distiatcen çuten suaren kharrac beçala. [15] Haren oiñec baciduriten cobre fina labe gori batean denean beçala, eta haren boça ur handi batçuen habarrotsaren pare cen. [16] Cituen bere escuiñeco escuan çazpi içar, eta haren ahotic bi ahotaco ezpata çorrotz bat cen ilkhitcen, eta haren bisaya hain cen distianta nola iguzquia bere indarrean.

[17] Icussi nuen beçain sarri, erori nintcen haren oiñetarat hilla beçala; bainan ibeni çuen bere escuiñeco escua ene gaiñean, erraten çarotalaric: "Ez duçula beldurric, ni naiz lehena eta azquena [18] eta bici naicena. Içan naiz hilla, bainan orai bicia naiz mendetaco mendeetan, eta nic ditut heriotcearen eta ifernuaren gakhoac. [19] Escriba çatcitçu, beraz, icussi ditutçun gauçac eta direnac, eta bai hauquien ondoan ethorri behar direnac. [20] Huna misterioa ene escuiñeco escuan icussi ditutçun çazpi içarrena eta çazpi candeler urrezcoena. Çazpi içarrac dire çazpi Elicetaco aingueruac, eta çazpi candelerac dire çazpi Eliçac.

II. Cap.

[1] Ephesiaco Eliçaren aingueruari escriba dioçaçu: Huna cer dioen çazpi içar bere escuiñeco escuan daduzcanac, çazpi candeler urrezcoen erdian dabillanac. [2] Badaquizquit çure eguitateac, çure nekheac eta çure pairacortassuna. Badaquit ecin jassan detçaquetçula gaixtoac, frogatu ditutçula apostoluac direla diotenac eta ez direnac, eta gueçurti aurkhitu ditutçula; [3] pairacor çarela, jassan ere duçula ene icena gatic eta ez çaitçula gogoa faltatu. [4] Ordean badut iroi bat çuri eguiteco, cein baida utci duçula çure lehenbicico caritatea. [5] Orhoit çaite, beraz, nondic erori çaren eta eguiçu penitentcia; eta har çatcitçu çure lehenbicico eguitateac; bertcela sarri heldu natçaitçu eta khenduco dut çure candelera bere lekhutic, baldin penitentcia eguiten ez baduçu. [6] Baiñan hau baduçu: higuin baiditutçu Nicolaiten eguitateac, ceiñac neronec ere higuin baiditut. [7] Beharriac dituenac adi beça cer erraten daroen Izpirituac Elicei: garaitcen duenari emanen diot jaterat bicitcearen arbolaco fruitutic, cein baida ene Jaincoaren paradisuan.

[8] Smyrnaco Eliçaren aingueruari ere escriba dioçaçu: Huna cer dioen lehen eta azquen denac, hilla içan denac eta bici denac. [9] Badaquit çure behaçuna eta çure pobrecia, baiñan aberats çare eta belzten çaituzte bere erassia gaixtoez judutar erraten diren batçuc eta ez direuec, aitcitic Satanen synagoga direnec. [10] Ez çaitecela ici soffrituco ditutçunez. Sarri eçarrico ditu deabruac çuetaric cembeit pressondeguian, frogatuac içan çaiteztentçat, eta içanen duçue pairatceco hamar egunez. Çaren leyal heriotceraiño eta emanen darotçut bicitcearen khoroa. [11] Beharriac dituenac adi beça cer erraten daroen Izpirituac Elicei: garaituco duena ez da çaurthua içanen bigarren heriotceaz.

[12] Pergamaco Eliçaren aingueruari escriba dioçaçu. Huna cer dioen ezpata bi aldetaric çorrotça darabillanac: [13] Badaquit nola çaudecen Satanen thronua den toquian, badaducaçula ene icena eta ez duçula ukhatu içan ene fedea, Antipes ene lekhuco fidelac heriotcea pairatu içan duenean çuen artean, non egoten baida Satan, eta han. [14] Ordean cerbeit gauça aphur badut çure contra: cer[1] baiditutçu hor Balaamen dotrina atchequitcen dutenac, ceiñec iracasten baitcioen Balac-i aurizquitceco harriac eçartcen Israelgo umeèn aitcinean, jan ceçatentçat eta lohiquerian eror citecentçat: [15] Hala baditutçu çuc ere Nicolaiten dotrina atchequi-

1. *Ceren* behar du izan nahitaez: ikus kap. honetanxe sei zenbaki beherago (20.), non *ceren* baitio, eta latinez ere bietan hitz berak ("Sed habeo adversus te pauca: quia...").

tcen dutenac. [16] Halaber penitentcia eguiçu: bertcela sarri heldu natçaitçu, eta guducatuco naiz hequien contra ene ahoco ezpatarequien. [17] Beharriac dituenac adi beça cer erraten daroen Izpirituac Elicei: garaitcen duenari emanen diot manna gordea dena, eta emanen ere diot harri churi bat, eta harri hartan icen berri bat escribatua nihorc ez daquiena, errecibitcen duenac baicen.

[18] Thyatiraco Eliçaren aingueruari berriz, escriba dioçaçu: Huna cer dioen Jaincoaren Semeac, beguiac suaren kharra beçala dituenac, eta oiñac cobra fina iduri dutenac: [19] Badaquizquit çure eguitateac, çure fedea, çure caritatea, pobreèz daducaçun artha, çure pairagunea eta çure azqueneco obrec ichitcen dituztela lehenbicicoac. [20] Ordean badut cerbeit gauça aphur çure contra: ceren uzten baiduçu Jesabel, bere burua profetatçat eguiten duen emaste harc, iracats deçan eta engana detçan ene cerbitçariac, eroraracitceco hec lohiquerian eta idolei sacrificatuac diren gaucetaric hei janaracitceco. [21] Eman içan diot dembora penitentcia eguiteco, eta ez çayo nahi urriquitu bere lohiqueriaz. [22] Sarri etçanaracico dut ohean, eta adulterioa harequien eguin dutenac atsecabe handitan içanen dire, baldin penitentcia eguiten ez badute bere obra gaixtoez. [23] Haren umeac hillen ditut heriotcez, eta eçagutuco dute Eliça guciec ni naicela çundatcen ditudana guelçurriñac eta bihotçac; eta çuetaric batbederari emanen diot bere lanen arauera.

Çuei ordean erraten darotçuet, çuei [24] eta gaiñeraco Thyatiran çaretenei eta doctrina horri ez darraizten guciei, eta Satanen barrentassunac, erraten duten beçala, eçagutcen ez dituztenei: Ez dut eçarrico bertce cargaric çuen gaiñean. [25] Guciarequien ere duçuenari atchecoçue nathorren artean. [26] Garaituco duenari eta azqueneraiño ene obrac beguiratuco dituenari emanen diot bothere nacioneèn gaiñean; [27] gobernatuco ditu burdinazco cigor batequien, eta lurrezco bachera batçu beçala chehacatuac içanen dire, [28] nic ere ene Aita ganic bothere hori errecibitu içan dudan beçala; eta emanen diot haiñari goiceco artiçarra. [29] Beharriac dituenac adi beça cer erraten daroen Izpirituac Elicei.

III. Cap.

[1] Escriba dioçaçu Sardiseco Eliçaren aingueruari ere: Huna cer dioen Jaincoaren çazpi izpirituac dituenac eta çazpi içarrac. Badaquizquit çure eguitateac; icena duçu bici çarela eta hilla çare. [2] Çaren atçarria eta borthitzatcitçu hiltcerat dohacenac, ecen ez ditut aurkhitcen çure eguitateac betheac ene Jaincoaren aitcinean. [3] Iducaçu, bada, gogoan errecibitu içan duçuna ete entçun duçuna, eta beguira çaçu eta eguiçu penitentcia; ecen atçarria ez baçaude, ethorrico natçaitçu ohoin bat beçala, eta ez duçu jaquiñen cer orenez ethorrico natçaitçun. [4] Hala ere bada, baditutçu Sardisen cembeit presuna bere jaunzcurac liçundu ez dituztenac, eta hec dire ibillico enequien arropa churitan, ceren mereci baidute. [5] Garaituco duena horla içanen da bestitua arropa churiz, eta ez dut unatuco [2] haren icena bicitcearen liburutic, eta aithortuco dut haren icena ene Aitaren aitcinean, eta haren aingueruen aitciñean. [6] Beharriac dituenac adi beça cer erraten daroen Izpirituac Elicei.

[7] Phyladelphiaco Eliçaren aingueruari escriba dioçaçu: Huna cer dioen Sainduac eta eguiatiac, ceiñec baidu Daviden gakhoa, ceiñec idequitcen baidu eta nihorc ez çarratcen, ceiñec çarratcen baidu eta nihorc ez idequitcen. [8] Badaquizquit çure eguitateac. Eman darotçut çure aitciñean athe bat idequia, ceiña nihorc ecin hers baideçaque; ceren indar aphurra baiduçu, eta beguiratu içan baiduçu ene hitça eta ez baiduçu ukhatu ene icena. [9] Emanen darozquitçut sarri cembeit Satanen synagogaticacoac, juduac direla erraten dutenac eta ez baidire; baiñan gueçurra erraten baidute, sarri erakharrico ditut çure oiñetan ahozpez jartcerat, eta jaquinen dute maite çaitudala. [10] Ceren beguiratu içan duçun ene errana pairagunearen gaiñean, nic ere beguiratuco çaitut çu tentacionearen orenetic, cein ethorrico baida mundu guciaren gainerat lurrean daudenen frogatcerat. [11] Ethorrico naiz sarri. Atchecoçu duçunari, bertce nihorc har ez deçan çure khoroa. [12] Garaituco duenaz eguinen dut harroin bat ene Jaincoaren templuan eta camporat ez da ilkhico guehiago, eta escribatuco dut haren gaiñean ene Jaincoaren icena eta ene Jaincoaren hiriaren icena, Jerusalem berriarena, cerutic ene Jaincoa ganic jausten denarena, eta ene icen berria. [13] Beharriac dituenac adi beça cer erraten daroen Izpirituac Elicei.

[14] Escriba dioçaçu Laodiceaco Eliçaren aingueruari ere: Huna cer dioen eguia bera denac, lekhuco fidelac eta eguiatiac, cein baida Jaincoac creatu dituenen

2. Hala badio ere, *urratuco* ("non delebo") behar du.

ethorquia. [15] Badaquizquit çure eguitateac; ez çarela ez hotz, ez bero. Ochala hotza baciñe edo beroa. [16] Baiñan ceren ephela çaren eta ez çaren ez hotça ez beroa, okhatuco çaitut ene ahotic, [17] baidioçu: Aberats naiz eta ontassunez gaindi eguina eta ez dut deussen peituric. Eta ez daquiçu onbehar çarela eta urricalquiçun, pobre eta itsu eta bulhuzgorri. [18] Conseillatcen çaitut erosteaz ene ganic suan frogaturicaco urrea, aberasteco eta arropa churiac jaunzteco eta çure bulhuztassun ahalcagarria estaltceco, eta collyrio bat beguien gaiñean emateco icus deçaçun gatic. [19] Nic maite ditudanac errepreniteen ditut eta gastigatcen; iraçacaçu beraz çure zeloa eta eguiçu penitentcia. [20] Huna, athean nago eta jotcen dut; baldin norbeitec aditcen badu ene boça eta idequitcen badarot athea, sarthuco naiz haren ganat eta afalduco naiz harequien eta hura ere enequien. [21] Garaituco duena jarraracico dut enequien neure thronuan, neroni ere garai içanic jarri içan naicen beçala ene Aitarequien haren thronuan. [22] Beharriac dituenac adi beça, cer erraten daroen Izpirituac Elicei."

IV. Cap.

[1] Horien ondoan behatu nuen eta icussi nuen athe bat idequia ceruan; eta lehenbicico boça aditu nuenac trompeta batena beçala mintço citçaitala erran çarotan: "Igan çaite hunat eta eracutsico darozquitçut hauquien ondoan arribatu behar diren gauçac". [2] Eta betbetan eramana içan nintcen Izpirituz, eta berehala icussi nuen thronu bat eçarria ceruan eta norbeit jarria thronu haren gaiñean. [3] Eta jarria cegoenac iduri çuen jaspa harria eta sardanioa, eta thronua cen inguratua holtzadar batez smaragda cidurienaz. [4] Thronuaren inguruan ciren hogoi eta laur bertce thronu, eta thronu hetan hogoi eta laur çahar jarriac, arropa churiz bestituac, buruen gaiñean cituztela urrezco khoroac. [5] Thronutic ilkhitcen ciren chismistac, boçac eta ihurciriac, eta ciren thronuaren aitciñean çazpi lanpa iraçaquiac, cein baidire Jaincoaren çazpi Izpirituac. [6] Thronuaren aitciñean cen berinazco itsasso bat beçala, cristailla ciduriena; eta thronuaren erditsuan eta inguruan ciren laur animalia beguiz betheac aitcin guibeletan. [7] Lehenbicico animaliac lehoiña cidurien, bigarrenac iduri çuen chahala, hirur garrenac çuen bisaya guiçonarena beçalacoa, eta laurgarrenac cidurien arrano bat hegaldaca dabillana. [8] Laur animaliec çuten bakhotchac seira hegal, betheac ciren beguiz inguruan eta barrenean, eta ez ciren guelditcen gau eta egun erratetic: "Saindu, Saindu, Saindu da Jainco Jaun guciz botheretsua, cena eta dena eta ethorrico dena".

[9] Eta animalia hec ematen ciotenean gloria eta ohore benedicionerequien thronuan jarria cegoenari, mendetaco mendetan bici denari, [10] arthiquitcen cituzten bere buruac hogoi eta laur çaharrec thronuan jarria cegoenaren aitcinean eta adoratcen çuten mendetaco mendetan bici dena, eta etchatcen cituzten bere khoroac thronuaren aitciñean, ciotelaric: [11] "Mereci duçu, o gure Jainco Jauna, errecibitcea gloria, ohore eta bothere, ceren çuc creatu içan baiditutçu gauça guciac, eta çure nahia gatic baidiraute eta creatuac içan baidire".

V. Cap.

[1] Orduan icussi nuen thronuaren gaiñean jarria cegoenaren escuiñeco escuan liburu bat escribatua barnetic eta campotic, ciguillatua çazpi ciguilluz. [2] Eta icussi nuen aingueru bat bothere handitacoa deyagoraz erraten çuena: "Nor da gai idequitceco liburua eta khentceco horren ciguilluac?". [3] Baiñan nihorc ez ceruan, ez lurraren gaiñean, ez lurraren azpian ecin ideq ceçaquen liburua, ez eta hartarat beha ere ceçaquen. [4] Eta ni urtzen hari nintcen nigarretan, ceren nihor ez cen aurkhitu gai cenic liburuaren idequitceco, ez eta ere hari behatceco.

[5] Orduan çaharretaric batec erran çarotan: "Ez deçaçula eguin nigarric. Huna Judaren leiñuticaco lehoina, Daviden urthamea, ceiñec ardietxi baidu bere bictoriaz liburua idequitceco botherea eta khentceco haren çazpi ciguilluac". [6] Behatu nuen eta icussi nuen thronuaren eta laur aliamalien erdian eta çaharren erdian bildots bat hilla içana beçala, chutic cegoena eta cituena çazpi adar eta çazpi begui, cein baidire Jaincoaren çazpi Izpirituac mundu gucirat igorriac. [7] Ethorri cen eta hartu çuen liburua thronuan jarria cegoenaren escu escuiñetic; [8] eta idequi içan çuenean liburua, laur animaliac eta hogoi eta laur çaharrac erori ciren ahuzpez bildotsaren aitciñean, cituztelaric guciec harpac eta urrezco ampoillac urriñ onez beheac, cein baidire sainduen othoitçac. [9] Eta çuten cantatcen cantico berri bat, ciotelaric: "Digne çare, Jauna, hartceco liburua eta haren çazpi ciguilluac idequitceco, ceren hillaracia içan baitçare eta erresquetatu içan baigaitutçu Jaincoarentçat çure odolaz leiñu gucietaric, lengoya[3]gucietaric, populu eta nacione gucietaric; [10] eta are eguin içan baigaitutçu erregue eta aphez gure Jaincoarentçat; eta erreguiñatuco ere dugu lurraren gaiñean".

[11] Behatu nuen oraiño eta aditu nuen hainitz aingueruen boça thronuaren inguruan eta animalien eta çaharren inguruan; eta millaca eta millionca ciren, [12] ceiñec erraten baitçuten oihu goraz: "Digne da hillaracia içatu den bildotsa errecibi deçan botherea, Jaincotassuna, çuhurtcia, indarra, ohorea, gloria eta benedicionea". [13] Eta ceruan, lurraren gaiñean eta lurraren azpian diren creatura guciac eta itsassoan direnac, eta bai hetan diren guciac aditu nituen erraten: "Thronuan jarria dagoenari eta bildotsari dagocote benedicione, ohore, gloria eta bothere mendetaco mendetan". [14] Eta laur animaliec erraten çuten: "Amen". Eta hogoi eta laur çaharrac erori ciren bere bisayen gaiñerat eta adoratu çuten mendetaco mendetan bici dena.

3. *Lengoaya* behar luke: ikus beheraxeago VII, 9.

VI. Cap.

[1] Ondoan icussi nuen idequi çuela bildotsac çazpi ciguilluetaric bat, eta aditu nuen laur animalietaric bat erraten ihurçuriaren pareco boz batequien: "Çato eta icussaçu". [2] Dembora berean icussi nuen betbetan aguertcen çaldi çuri bat, eta haren gaiñean jarria cenac çuen arbalesta bat, eta eman citçayoen khoroa bat, eta abiatu cen Victoria victoriaren gaiñean eramaten dohan victorios bat beçala.

[3] Idequi çuenean bigarren ciguillua, aditu nuen bigarren animalia erraten: "Çato eta icussaçu". [4] Ordu berean ilkhi cen bertce çaldi bat gorria, eta haren gaiñean jarria cenari eman citçayoen botherea eramateco baquea lurretic, eta eguiteco guiçonec elkhar hill ceçaten; eta eman citçayoen ezpata handi bat.

[5] Idequi çuenean hirurgarren ciguillua aditu nuen hirurgarren animalia erraten: "Çato eta icussaçu". Ordu berean aguertu cen çaldi beltz bat, eta haren gaiñean jarria cenac çuen balentça bat bere escuan. [6] Eta aditu nuen boz bat laur animalien erditic beçala erraten çuena: "Lakha bat ogui cornadu batean, eta hirur lakha garagar cornadu batean. Ez dioçaçutela eguin calteric mahats arnoari eta olioari".

[7] Idequi içan çuenean laurgarren ciguillua, aditu nuen laurgarren animaliaren boça, ceiñac erraten baitçuen: "Çato eta icussaçu". [8] Dembora berean icussi nuen çaldi ferdats bat, eta haren gaiñean jarria cenac çuen icena Herioa eta ifernua ondotic çarrayoen; eta eman citçayoen botherea lurraren laur parteen gaiñean, hillaracitceco guiçonac ezpataz, gossetez, heriotcez eta lurrean diren bestiez.

[9] Idequi içan çuenean bortzgarren ciguillua, icussi içan nituen aldarearen azpian Jaincoaren hitça gatic eta hari lekhucotassuna errendatcea gatic heriotcea pairatu içan çutenen arimac. [10] Eta deyagoraz ceudecen erraten çutelaric: "Noiz artean, Jauna, saindua eta eguiatia çarena, egonen çare justicia eguin gabe eta bendecatu gabe gure odola lurrean daudecenen gaiñean?". [11] Eta eman citçayen guciei arropa churi bana, eta erran citçayen iduriq ceçatela errepausuan oraiño dembora guti bat, compli cedin artean hec beçala Jaincoaren cerbitçari direnen nombrea eta hequien anaya hec beçain ungui heriotcea pairatu behar çutenena.

[12] Icussi nuen halaber, idequi çuenean seigarren ciguillua, lur ikharatce handi bat eguiten cela; iguzquia eguin cen beltz sakhu illezco bat beçala, ilharguia berriz eguin cen gucia odola beçala. [13] Eta içarrac erori ciren cerutic lurraren gaiñerat, fico ondo batec, haice handi batez higuitua denean, bere fico sassoatu gabeac erortcerat uzten dituen beçala. [14] Cerua goan cen liburua itçulicatu bat beçala, eta mendi guciac eta irlac higuitu ciren bere lekhuetaric; [15] eta lurreco erregueac,

princeac, guerlaco officialeac, aberatsac, botheretsuac eta guiçon guciac, ala esclauoac ala libro cirenac, gorde ciren leceetan eta mendietaco arroquetan, [16] eta erran çaroen mendiei eta arroquei: "Eror çaitezte gure gaiñerat eta gueriça gaitçatçue thronuaren gaiñean jarria dagoenaren bistatic eta bildotsaren coleratic, [17] ceren ethorri baida hequien iraquiduraren egun handia. Eta norc iraun deçaque hequien aitciñean?".

VII. Cap.

[1] Hauquien ondoan icussi nituen laur aingueru lurraren laur cantoinetan, itchequitcen cituztela lurreco laur haiceac, eguin ez ceçatentçat haiceric lurraren gaiñerat, ez itsassoaren gaiñerat eta ez arbola baten gaiñerat ere. [2] Icussi nuen oraiño bertce aingueru bat igaten cela iguzqui jaiquitcetic, çakharquela Jainco biciaren seiñalea; eta deyagora eguin çaroen lurrari eta itsassoari, calte eguiteco botherea çuten laur aingueruei, [3] erraten çuelaric: "Ez dioçaçuela eguin calteric lurrari ez itsassoari eta ez arbolei, seiñalatu dituzquegun artean gure Jaincoaren cerbitçariac bere bekhoquietan". [4] Eta aditu içan nuen ere seiñalatuen nombrea cela ehun eta berrogoi eta laur millena Israelgo umeèn leiñu gucietaric.

[5] Judaren leiñutic ciren hamabi milla seiñalatuac; Rubenen leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Gad-en leiñutic hamabi milla seiñalatuac; [6] Aser-en leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Nepthaliren leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Manasseren leiñutic hamabi milla seiñalatuac; [7] Simeonen leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Leviren leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Issacharen leiñutic hamabi milla seiñalatuac; [8] Zabulon-en leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Josephen leiñutic hamabi milla seiñalatuac; Benjaminen leiñutic hamabi milla seiñalatuac.

[9] Ondoan icussi nuen tropela handi bat nihorc ecin conda ceçaquena, nacione gucietaric, leinu gucietaric, populu gucietaric eta lengoaya gucietaric, chutic ceudecela thronuaren aitciñean eta bildotsaren aitciñean, bestituac arropa churiz eta palmac bere escuetan cituztelaric. [10] Eta oihu goraz ceudecen, erraten çutelaric: "Eman bequio gloria gure Jaincoari, cein jarria baidago thronuaren gaiñean, eta bildotsari, ceren harc salbatu baigaitu". [11] Eta aingueru guciac ceudecen chutic thronuaren eta çaharren eta laur animalien inguruan; eta ahozpez jarriric thronuaren aitciñean, adoratu çuten Jaincoa, [12] ciotelaric: "Amen. Gure Jaincoari dagoca benedicionea, gloria, çuhurtcia, esquer ona, ohorea, botherea eta indarra mendetaco mendetan. Amen".

[13] Orduan çaharretaric batec hitça harturic, erran çarotan: "Arropa churiz bestituac diren horiec nor dire eta nondic ethorriac dire?". [14] Ihardetsi nioen: "Jauna, çuc daquiçu". Eta erran çarotan: "Horiec dire affliccione handiac pairaturic heldu direnac, eta bere arropac garbitu içan dituztenac eta churitu bildotsaren odolean. [15] Hargatic dire Jaincoaren thronuaren aitciñean eta dute hura cerbitçatcen gau eta egun bere templuan; eta thronuan jarria dagoena egonen da horien

gaiñean. [16] Ez dire gossetuco ez egarrituco guehiago, eta ez iguzquiac ez beroric batec ere ez ditu guehiago nekhatuco, [17] ceren thronuaren erdian den bildotsa içanen baida horien artçaiña, eta eramanen baiditu ur bicizco ithurrietarat eta chucatuco baiditu Jaincoac nigar guciac horien beguietaric".

VIII. Cap.

[1] Idequi çuenean Bildotsac çazpi garren ciguillua, guciac egon ciren ichillic ceruan oren erdi batez hurren. [2] Eta icussi nituen çazpi aingueru Jaincoaren aitciñean daudecenac, eta eman citçaizten çazpi trompeta. [3] Orduan ethorri cen bertce aingueru bat eta egon cen aldarearen aitciñean urrezco incensario bat çaducala, eta eman citçaizcon hainitz urrin on suerte, offrenda citçantçat saindu gucien othoitçac Jaincoaren thronuaren aitciñean den aldare urrezcoaren gaiñean. [4] Eta igan cen sainduen othoitcez eguinicaco incensuen khea aingueruen escutic Jaincoaren aitciñerat.

[5] Ondoan hartu içan çuen aingueruac incensarioa eta bethe çuen aldareco sutic, eta arthiqui çuen lurraren gaiñerat, eta eguin ciren ihurtçuriac, boçac eta chismistac eta lur ikharatce handi bat. [6] Orduan çazpi aingueru çazpi trompetac cituztenac preparatu ciren trompeta jotcerat.

[7] Lehenbicico aingueruac trompeta jo çuen; eta erori içan cen lurrerat babaçuça eta sua odolez nahastatua, eta lurraren eta arbolen heren partea errea içan cen eta belhar ferde gucia chizcortua.

[8] Bigarren aingueruac jo çuen trompeta eta mendi handi sutan cen bat beçala erori cen itsassorat, eta itsassoaren heren partea eguin cen odol. [9] Eta itsassoan bici diren creaturen heren partea hill içan cen, eta untcien heren partea galdu.

[10] Hirur garren aingueruac jo çuen trompeta, eta içar handi bat suz iraçaquia, çucia bat beçala, erori cen cerutic ibayen heren partearen gaiñerat eta ithurrien gaiñerat. [11] Içar harc çuen icena Acencioa, eta uren heren partea gambiatu baitcen acenciotarat, guiçonetaric hainitz hill içan ciren ur hetaric edanic, ceren kharmindu içan baitciren urac.

[12] Laur garren aingueruac jo çuen trompeta, eta joa içan cen iguzquiaren heren partea eta ilharguiaren heren partea eta bai içarren heren partea; halaco moldez, non ilhundu içan baitcen hequien heren partea eta egunac galdu içan baitçuen bere arguiaren heren partea, eta gauac ere bai orobat.

[13] Orduan icussi nuen eta aditu nuen arrano baten boça, ceruaren erditic hegaldaca çohanarena, ceiñec erraten baitçuen oihugoraz: "Çorigaitz, çorigaitz, çorigaitz lurrean daudecenei, trompeta jo behar duten bertce hirur aingueruac erraterat dohacenaren ariaz".

IX. Cap.

[1] Bortzgarren aingueruac jo çuen trompeta eta icussi nuen içar bat cerutic erori cena lurrerat eta eman citçayon lececo putçuaren gakhoa. [2] Idequi çuen lececo putçua, eta altchatu cen putçutic khe bat labe handi batetaco khea beçalacoa; eta ilhundu ciren iguzquia eta airea putçuco kheaz. [3] Eta putçuco khetic ilkhi ciren larrepota batçu, cein barrayatu baitciren lurraren gaiñerat eta eman citçayen bothere bat lurreco scorpionec duten beçalacoa; [4] eta exlegitu içan citçayen, ez cioçatela eguin calteric lurreco belharrari, ez ferde ciren garabei, eta ez arbolei ere; baicen choilqui Jaincoaren seiñalea bere bekhoquietan içanen ez çuten guiçonei. [5] Eta eman citçayen botherea ez hec hiltcecoa, baiñan tormentatcecoa bortz ilhabetez; eta hec soffriaracitcen duten tormenta scorpionac guiçona cilhatcen duenean eguiten ohi duena beçalacoa da. [6] Dembora hartan bilhatuco dute guiçonec herioa, eta ez dute aurkhituco; desiratuco dute hiltcea, eta ihessi goanen çaye herioa.

[7] Larrepota hequien figura, bada, cen çaldi guducotçat preparatu batçuen iduricoa. Bere buru gaiñetan cituzten khoroa batçu beçala, urrezcoac ciduritenac, eta hequien bisayac ciren guiçonen bisayac beçalacoac. [8] Illeac cituzten emasteen illeac beçalacoac, eta hequien hortçac ciren lehoiñenac beçalacoac. [9] Bacituzten halacreta batçu burdinazco halacretac beçalacoac, eta hequien hegalen habarrotsa cen hainitz çaldi gudurat lauster eguiten dutenetaco charriotena beçalacoa. [10] Buztanac cituzten scorpionenac beçalacoac, eta eztenac ere bacituzten buztanetan; eta baçuten bothere guiçonei calte eguiteco bortz ilhabetez. [11] Eta çuten bere gaiñeco erreguetçat Lece hosiñeco Ainguerua, hebraicoz daritçana Abadon, grequez berriz Apollion, erran nahi baida Galtçaillea. [12] Lehenbicico çorigaitz hori iragan da, eta huna bertce bia oraiño ondotic heldu direnac.

[13] Seigarren aingueruac jo çuen trompeta eta aditu nuen boz bat Jaincoaren beguien aitciñean den aldare urrezcoaren laur cantoinetaric ilkhitcen cena, [14] ciotsana trompeta çuen seigarren aingueruari: "Lecha çatcitçu Euphrateco ibaya handiaren gaiñean estecatuac daudecen laur aingueruac".

[15] Berehala lechatuac içan ciren laur aingueruac, ceiñac preparatuac baitceudecen orenaren, egunaren, ilhabethearen eta urthearen beguira, hiltceco guiçonen heren partea. [16] Eta çaldizco armadaren contua cen berrehun millionetacoa; aditu nuen ecen erraten hequien nombrea. [17] Eta huna nola icussi içan nituen çaldiac visionean: Hequien gaiñean jarriac cirenec cituzten halacreta suzcoac, hyacintazcoac eta suffrezcoac, eta çaldien buruac ciren lehoiñen buruac beçalacoac; eta

hequien ahotic sua eta khea eta suffrea ciohan. [18] Eta hirur plaga horietaz, erran nahi da, hequien ahotic ilkhitcen cen suaz, kheaz eta suffreaz, hilla içan cen guiçonen heren partea. [19] Çaldi hequien botherea ecen hequien ahoetan da eta hequien bustanetan; ceren hequien bustanac sugueènac beçalacoac baidire, buruac dituztenac, eta hetaz dute ere çaurtcen. [20] Eta bertce gaiñeraco guiçon plaga horietaz hillac içan ez cirenac ez ciren jarri ere urriquitan bere escuezco obrez, ez guehiago adoratceco deabruac eta urrezco, cilharrezco, cobrezco, harrizco eta çurezco idolac, ceiñec ecin baideçaquete ez icus, ez adi, eta ceiñ ecin ibill ere baidaitezque. [21] Eta ez çuten eguin penitentcia bere guiçon hiltcez, ez bere poçoatcequeriez, ez bere lohiqueriez, ez bere ohoinqueriez.

X. Cap.

[1] Icussi nuen berriz bertce aingueru bat indar handitacoa jausten cela, cerutic hedoi batez inguratua eta holzadar bat buruaren gaiñean çuena; haren bisaya iguzquia beçala cen eta haren oiñac ciren suzco harroiñac beçala. [2] Çuen bere escuan liburutto bat idequia eta eçarri çuen bere escuiñeco oiña itsassoaren gaiñean, ezquerrecoa berriz lurraren gaiñean. [3] Eta eguin çuen oihu gora bat lehoinaren orroa beçalacoa, eta harc oihu eguin çuenean, çazpi ihurtçuric adiaraci cituzten bere boçac. [4] Eta çazpi ihurtçuriec adiaraci cituztenean bere boçac, ni escribatcerat nindohan, baiñan aditu nuen boz bat cerutic erraten çarotana: "Ciguilla çatcitçu çazpi ihurtçurien erranac eta ez detçatçula escriba". [5] Orduan itsassoaren eta lurraren gaiñean chutic cegoela icussi içan nuen aingueruac altchatu çuen escua cerurat; [6] eta juramentu eguin çuen mendetaco mendetan bici denaz, ceiñec creatu içan baiditu cerua eta ceruan diren guciac, lurra eta lurrean diren guciac, itsassoa eta itsassoan diren guciac, demboraric ez cela içanen guehiago, [7] baiñan çazpi garren aingueruac bere boça adiaracico çuquen egunean eta trompeta jonen[4] çuquenean, akhabatuco cela Jaincoaren misterioa, bere cerbitçari profetez declaratu içan duen beçala.

[8] Eta aditu nuen ceruticaco boça berriz ere mintço citçaitala eta erraten çarotala: "Çohaz eta har çaçu liburu idequia itsassoaren eta lurraren gaiñean chutic dagoen aingueruaren escutic". [9] Joan nintcen ainguerua ganat eta erran nioen eman cieçadala liburua, eta erran çarotan: "Har çaçu liburua eta irets çaçu; kharminduco du çure sabela, baiñan çure ahoan goço içanen da eztia beçala". [10] Hartu nuen bada liburua aingueruaren escutic eta iretsi nuen, eta cen ene ahoan eztia beçain goço; ordean iretsi içan nuenean, kharmindu cen ene sabela. [11] Orduan erran çarotan: "Berriz ere behar dioçute profetisatu nacioneèi, populuei, lengoaya differentetaco guiçonei eta hainitz erregueri".

4. Hemen ezin garbiago idatzi du horrelaxe: Ik. I Kor. XV, 52.

XI. Cap.

[1] Eman çarotedan guero canabera bat haga bat beçalacoa eta erran çarotedan: "Altcha çaite eta neurth çaçu Jaincoaren templua eta aldarea; neurtçatcitçu han adoratcen dutenac ere. [2] Templuaren campoco aldea ordean utçaçu eta ez deçaçula neurt, cergatic utci baitçaye hura gentillei eta hiri saindua osticatuco dute berrogoi eta bi ilhabethez. [3] Baiñan emanen daroet meçua ene bi lekhucoei, eta profetisatuco dute milla eta berrehun eta hirur hogoi egunez sakhuz bestituac. [4] Hauc dire bi acitun ondo eta bi candeler lurraren Jaunaren aitciñean daudecenac. [5] Baldin nihorc hei gaixquiric eguin nahi badaroe, su bat ilkhico da hequien ahotic, hequien etsayac iretsico dituena; eta baldin nihorc hei calteric eguin nahi badaroe, horla beharco du haiñac hilla içan. [6] Hauc badute botherea çarratceco cerua, uriric eguin ez deçantçat hec profetisatuco duqueten demboran; eta badute botherea gambiatceco urac odoletarat eta jaçartceco lurrari plaga suerte guciez nahico duten gucian.

[7] Eta akhabatuco duquetenean bere lekhucotassuna, lece barnetic igaten den bestiac eguinen du guerla hequien contra; garaituco ditu eta hillen ditu. [8] Eta hequien gorphutçac egonen dire etçanac hiri handico carriquetan, cein deitcen baida izpiritualqui Sodoma eta Egiptoa, ceinetan gurutceficatua içan baida hequien Jauna ere. [9] Eta icussico dituzte leiñu gucitaco, populu gucitaco,lengoaya gucitaco, nacione gucitaco jendeèc hequien gorphutçac hirur egun eta erdiz, eta ez dituzte utcico eçartcerat sepulturan. [10] Lurreco habitantac boztuco dire hequien heriotceaz; aleguerantciac eguiñen dituzte eta presentac igorrico darozte elkharri, ceren bi profeta hec tormentatu içan baidituzquete lurraren gaiñean ceudecenac".

[11] Baiñan hirur egunen eta erdiren buruan bicitcezco Izpiritua sarraraci çuen Jaincoac hequien baithan; altchatu ciren chutic bere oiñen gaiñean, eta hec icussi içan cituztenac sessituac içan ciren icialdura handi batez. [12] Orduan aditu içan çuten boz handi bat cerutic hei erraten çaroena: "Igan çaitezte hunat" eta igan ciren cerurat hedoipe batean, bere etsayec icusten cituztela. [13] Ordu hartan berean eguin cen lur ikharatce handi bat eta hiriaren hamargarren partea erori içan cen, eta hill içan ciren lur ikharatce hartan çazpi milla guiçon; bertce gaiñeracoac icitu ciren, eta eman cioten gloria ceruco Jaincoari. [14] Bigarren çorigaitça goan da; eta horra hirurgarrena non heldu den.

[15] Çazpi garren aingueruac jo çuen trompeta eta aditu içan ciren ceruan boz handi batçu ciotenac: "Iragan da mundu huntaco Erressuma gure Jauna ganat eta haren Christo ganat, eta erreguiñatuco du mendetaco mendetan. Amen".

[16] Dembora berean hogoi eta laur çaharrac, Jaincoaren aitcinean bere cadiretan jarriac daudecenac, erori ciren ahozpez eta adoratu içan çuten Jaincoa, ciotelaric: [17] "Esquerrac darozquitçugu ematen, Jauna, Jainco guciz botheretsu ciñena, çarena eta ethorri behar çarena, ceren baliatu baitçare çure bothere handiaz eta erreguiñatcen baidutçu [5]. [18] Hassarratu dire nacioneac eta ethorri diteque çure coleraren dembora eta golardoa ematecoa çure cerbitçari profetei eta sainduei eta çure icenaren beldurra dutenei, chiperrei eta handiei, eta desseguitecoa lurra gaizcoatu dutenac". [19] Orduan idequi içan cen Jaincoaren templua ceruan, eta icussi içan cen haren alientciaren arca haren templuan, eta eguin ciren chismistac, boçac, lur ikharatce bat eta babaçuça handi bat.

5. *Baiduçu* dio beti.

XII. Cap.

[1] Gauça miragarri bat aguertu içan cen ceruan: emaste bat iguzquiaz inguratua, ilharguia bere oiñen azpian çuena eta hamabi içarrezco khoroa bat buruan.
[2] Eta içorra baitcen, heyagoraz cegoen erditceco minez eta erditcean sentitcen cituen doloreez. [3] Bertce gauça miragarri bat ere icussi içan cen ceruan: dragoin handi gorri bat çazpi buru cituena eta hamar adar; eta bere buruetan çazpi burute. [4] Bere buztanaz herrestan çaraman ceruco içarren heren partea, eta ororaraci cituen lurrerat, eta dragoin hura guelditu içan cen emazte erdi behar çuenaren aitciñean, erdi citequenean haren semea irextea gatic. [5] Erdi cen bada seme batez, ceiñec gobernatu beharco baitcituen nacione guciac burdiñazco cigor batequien, eta goratua içan cen haren semea Jaincoa ganat eta haren thronurat. [6] Eta emastea goan cen ihessi deserturat, ceinetan baitçuen gorde lekhu bat Jaincoaz preparatua, han hacia içateco milla eta berrehun eta hirur hogoi egunez.
[7] Eguin cen guero gudu handi bat ceruan: Michael eta bere aingueruac hari ciren guduan dragoiñaren contra, eta dragoiña ere berriz eta bere aingueruac hari ciren guduan. [8] Ordean hauc içan ciren flacoenac, eta hauquientçat toquiric guehiago ez cen aurkhitu ceruan. [9] Eta dragoin handi hura, sugue çahar hura, Deabrua deitcen dena eta Satana, mundu gucia enganatcen duena, arthiquia içan cen lurrean behera eta haren aingueruac ere arthiquiac içan ciren harequien batean.
[10] Eta aditu nuen boz handi bat ceruan ciotsana: "Orainche da ifinia gure Jaincoaren salbamendua eta indarra eta erresuma eta haren Christoren botherea, ceren arthiquia içan baida gure anayen accusatçaillea, gure Jaincoaren aitciñean gau eta egun hequien acusatcen hari cena. [11] Ordean hec garaitu içan çaizco bildotsaren odolaren ariaz eta haren hitçari errendatu içan dioten lekhucotassunaren ariaz; eta guphidetsi gabe bere biciac, pairatu dute heriotceraiñocoan. [12] Hargatic bada çaitezte aleguera ceruac, eta çuec, hetan çaudeztenac; çorigaitz lurrari eta itsassoari, ceren jautsi içan baida deabrua çuen ganat iraquidura handi batez bethea, baidaqui ecen dembora aphurra duela".
[13] Icussi içan çuen ondoan dragoiñac egoitcia cela lurrerat, jarraiqui citçayoen seme batez erdi içan cen emasteari; [14] ordean eman citçaizcon emasteari bi hegal arrano handi batenac, hegalda cedin gatic deserturat bere gorde lekhurat, ceiñetan hacia baida dembora batez, demborez eta dembora erdi batez, suguearen bistatic campoan.
[15] Orduan arthiqui içan çuen sugueac bere ahotic urez ibaya bat beçala emastearen ondotic, hura bere uretan atcematea gatic. [16] Baiñan lagundu çuen

lurrac emastea, idequi çuen bere galtçarbea, eta hurrupatu içan çuen dragoiñac bere ahotic arthiqui içan çuen ibaya. [17] Eta hassarraturic dragoiña emastearen contra, goan cen guerla eguiterat haren bertce haurrei, ceiñec beguiratcen baidituzte Jaincoaren manamenduac eta ceiñec baidiraute Jesuchristori lekhucotassuna errendatcen. [18] Eta guelditu cen itsassoco harearen gaiñean.

XIII. Cap.

[1] Eta icussi nuen itsassotic igaten bestia bat cituena çazpi buru eta hamar adar, eta bere adarren gaiñean hamar diadema, eta bere buruen gaiñean blasphemiozco icenac. [2] Nic icussi nuen bestiac iduri çuen leoparta bat; haren oiñac ciren hartçaren oiñac beçalacoac; haren ahoa cen lehoiñaren ahoa beçalacoa, eta hari eman cioen dragoiñac bere indarra eta bere bothere handia. [3] Eta icussi nuen haren buruetaric bat hiltceraiñocoan çaurthua beçala, baiñan çauri hillgarri hura sendatu çitçayoen eta mundu gucia miretsiric jarreiqui citçayoen bestiari. [4] Adoratu çuten dragoiña, ceiñec eman baitcioen botherea bestiari, eta adoratu çuten bestia ere erraten çutelaric: "Nor da bestiaren pare? eta nor guduca ahal diteque haren contra?".

[5] Eta eman citçayon aho bat orguilleriazco hitçac eta blasphemioac erraten cituena; eta eman ere citçayon botherea guerla eguiteco berrogoi eta bi ilhabetez. [6] Idequi çuen bada ahoa blasphematceco Jaincoaren contra, blasphematceco haren icena eta haren tabernaclea eta ceruan daudecenac. [7] Eman ere citçayon botherea sainduei guerla eguiteco eta hec garaitceco; eta eman citçayon bothere leiñu gucien gaiñean, populu eta erdara eta nacione gucien gaiñean. [8] Adoratu içan çuten lurraren gaiñean daudecen guciec, ceiñen icenac ez baidire escribatuac munduaren hastean danic hillaracia içatu den bildotsaren bicitcezco liburuan. [9] Baldin nihorc badu beharriric, adi deçala. [10] Gathibutassunerat eramanen duena goanen da bera ere gathibutassunerat. Ezpataz hillen duena bera ere ezpataz hilla beharra içanen da. Hemen da sainduen pairagunea eta fedea.

[11] Icussi nuen oraiño bertce bestia bat lurretic altchatcen cena, eta cituen bi adar bildotsarenac beçalacoac; ordean mintço cen dragoiña beçala. [12] Eraguiten çuen lehenbicico bestiaren bothere gucia haren beguietan, eta adora araci çaroen lurrari eta han daudecenei lehenbicico bestia, ceiñaren çauri hillgarria içan baitcen sendatua. [13] Eguin cituen prodigio handi batçu, bai halaco moldez, non sua jautsaracitcen baitçuen cerutic lurrerat guiçonen beguietan. [14] Eta balacatu içan cituen lurreco egoquiac, bestiaren aitciñean eguiteco botherea çuen prodigioen gatic, erraten çaroelaric lurraren gaiñean egoten direnei, eguin cioçatela imagina bat ezpata colpea errecibitu içan çuen bestiari eta hala ere bicia cenari. [15] Eman citçayon ere botherea bestiaren imaginari izpiritua emateco, eta imagina hura mintçaratcitceco eta bestiaren imagina adoratuco ez çuqueten guciac hillaratcitceco. [16] Obligatuco ere ditu guciac, chiperrac eta handiac, aberatsac eta pobreac, libro direnac eta gathibu direnac, ekhartcerat bestiaren caractera bere escu escui-

ñean edo bekhoquian, [17] halaco moldez, non nihorc ecin erossico baidu, ez salduco, bestiaren caractera edo icena edo haren icenaren contua içanen duenac baicen. [18] Hemenche da çuhurtcia. Adimenduric duenac conda beça bestiaren contua; contua da ecen guiçon batena, eta haren contua da sei ehun eta hirur hogoi eta sei.

XIV. Cap.

[1] Behatu nuen eta icussi nuen Bildotsa chutic cegoela Siongo mendiaren gaiñean, eta harequien ehun eta berrogoy eta laur milla presuna, çutenac haren icena eta haren Aitaren icena escribatua bere bekhoquietan. [2] Eta aditu içan nuen boz bat cerutic ur handi batçuen habarrotsa beçalacoa eta ihurtçuri handi baten habarrotsa beçalacoa; eta nic aditu nuen boz hura cen guitharra jotcen hari diren hainitz guitarra joilleèn soiñua beçalacoa. [3] Çuten cantatcen cantu berri bat beçala thronuaren aitciñean eta laur animalien eta çaharren aitciñean; eta nihorc ecin canta ceçaquen cantu hura, baicen ehun eta berrogoi eta laur milla hec, ceiñac erossiac içan baidire lurretic. [4] Hec dire emastequiequien lohitu içan ez direnac, virginac baidire. Hec dire Bildotsari darraitçanac dohan toqui gucietarat. Hec dire guiçonen artetic erossiac içan direnac, lehenbicicoetaric consecratuac içateco Jaincoari eta Bildotsari. [5] Eta hequien ahoan ez da aurkhitu içan gueçurric; hala tatcha gabe ere dire Jaincoaren thronuaren aitciñean.

[6] Guero icussi nuen bertce aingueru bat hegaldaca ciohana ceruaren erditic çakharquela Evangelio eternala, hura iracasteco lurreco egoquiei, nacione guciei, leiñu guciei, erdara gucietacoei eta populu guciei; [7] eta ciotsan heyagoraz: "Çareten beldur Jaincoaren eta emoçue gloria, ceren ethorri baida haren jugeamenduaren ordua; eta adora çaçue cerua eta lurra, itsassoa eta ur ithurria eguin ican dituena".

[8] Ondoan ethorri cen berce aingueru bat eta erran çuen: "Erori da, erori da Babylonia, hiri handi hura, ceiñec bere lohiqueriaren iraquiduraco arnotic edanaraci içan baidaroe nacione guciei".

[9] Hauquien ondoan berriz ethorri cen hirur garren aingueru bat, ciotsana oihu goraz: "Baldin nihorc adoratcen badu bestia eta haren imagina edo hartcen badu haren caractera bere bekhoquian edo bere escuan, [10] haiñac edanen du Jaincoaren iraquidurazco arnotic, haren iraçaquiduraren calitcean preparatua den arno phuru hartaric eta içanen da tormentatua suz eta suffrez aingueru sainduen aitciñean eta Bildotsaren presentcian. [11] Eta hequien tormentaco khea altchatuco da mendetaco mendetan, eta ez dute içanen sosseguric ez gauaz eta ez egunaz bestia eta haren imagina adoratu içan duquetenentçat, edo haren icenaren caractera hartu duquetenentçat. [12] Hemenche da sainduen pairagunea, ceiñec beguiratcen baidituzte Jaincoaren manamenduac eta Jesusen fedea".

[13] Orduan aditu içan nuen boz bat cerutic, erraten çarotana: "Escriba çaçu: Dohatsuac dire hillac, Jauna baithan hiltcen direnac. Oraindanic dio Izpirituac: Descantsatuco dire bere nekhetaric, ecen bere obrac badarraizte".

[14] Eta beha nindagoelaric, icussi nuen hedoy churi bat, eta hedoy haren gañean jarria Guiçonaren Semea cidurien bat, çuena buruaren gaiñean urrezco khoroa bat eta escuan iguitey çorrotz bat. [15] Bertce aingueru bat ilkhi cen templutic, oihu handi eguiten cioela hedoyaren gaiñean jarria cegoenari: "Erabillaçu çure sega, eta eguiçu uzta, ethorri da ecen dembora uzta eguitecoa, ceren lurreco uzta çorhitua baida". [16] Hedoyaren gaiñean jarria cegoenac, bada, erabilli çuen bere iguiteya lurraren gaiñean eta uztatua içan cen lurra.

[17] Bertce aingueru bat oraiño ilkhi cen ceruan den templutic, harc ere baitçuen iguitey çorrotz bat. [18] Bertce aingueru bat berriz ilkhi cen aldaretic, ceiñec baitçuen bothere suaren gaiñean; eta eguin cioen oihu gora iguitey çorrotça çuenari, erraten cioelaric: "Erabillaçu çure iguitey çorrotça eta ebaqui çatçu lurreco mahastico mulkhoac, ceren çorhituac baidire hango mahatsac". [19] Erabilli çuen, bada aingueruac bere iguitey çorrotça lurraren gaiñean, eta ebaquiric hango mahatsa, arthiqui çuen Jaincoaren colaren [6] dolhare handirat. [20] Eta dolharea çapatua içan cen hiriaz campoan, eta dolharetic ilkhi cen odola bacen çamarien bridetaraiño milla eta sei ehun stadioren hedaduran.

6. Hala dio, baina *coleraren* behar zuen ("in lacum irae").

XV. Cap.

[1] Icussi nuen ceruan bertce prodigio bat handia eta miragarria: çazpi aingueru, ceiñec baitçituzten azqueneco çazpi plagac, ceiñetaz baida akhabatcen Jaincoaren iraquidura. [2] Eta icussi nuen beyrazco itsasso bat beçala suz nahastecatua; eta bestia, haren imagina eta haren icenaren contua garaitu içan çutenac ceudecela beyrazco itsassoa beçalaco haren gaiñean, Jaincoaren guitarrac cituztelaric. [3] Eta çuten cantatcen Moise Jaincoaren cerbitçariaren cantua eta Bildotsaren canticoa, ciotsatelaric: "Handiac eta miragarriac dire çure eguitateac, ò Jainco Jaun guciz botheretsua; justuac eta eguiazcoac dire çure bideac, ò mendetaco Erreguea. [4] Nor ez da çure beldur içanen, Jauna? Norc ez du glorificatuco çure icena? Ecen çu bakharra çare urricalmenduz bethea; ethorrico ere çaizquitçu nacione guciac eta jarrico dire ahozpez çure aitcinean, ceren aguertu baidire çure jugeamenduac".

[5] Horien ondoan behatu nuen eta icussi, idequitcen cela lekhucotassuneco tabernaclearen templua ceruan. [6] Eta ilkhi ciren templutic çazpi plagac cituzten çazpi aingueruac liño garbiz eta churiz bestituac, eta urrezco guerricoez bulharren gaiñean guerricatuac. [7] Orduan laur animalietaric batec eman içan çaroen çazpi aingueruei çazpi chopera urrezco, mendetaco mendetan bici den Jaincoaren coleraz betheac. [8] Eta bethe cen templua khez Jaincoaren majestatearen eta handitassunaren presentcian; eta nihor ecin sar citequen templuan, akhabatu citezquen artean çazpi aingueruen çazpi plagac.

XVI. Cap.

1. Eta aditu nuen boz handi bat templutic erraten çaroena çazpi aingueruei: "Çohazte eta issur çatcitçue Jaincoaren iraquiduraren çazpi ampoillac lurraren gainerat".

[2] Goan cen lehenbicicoa eta issuri içan çuen bere ampoilla lurraren gaiñerat, eta ethorri citçayen çauri dorphe eta gaixto bat bestiaren seiñalea çuten guiçonei eta haren imagina adoratu içan çutenei.

[3] Bigarren aingueruac issuri içan çuen bere ampoilla itsassoaren gainerat eta eguin cen hill baten odola beçala; eta itsassoan bicia çuen gucia hill içan cen.

[4] Hirurgarren aingueruac berriz issuri içan çuen bere ampoilla ibayen gaiñerat eta ur ithurrien gaiñerat, eta odol bilhacatu içan ciren. [5] Eta aditu nuen uretaco ainguerua erraten: "Justua çare, Jauna, çarena eta ciñena. Saindua çare horlaco jugeamenduac ematen baiditutçu; [6] ceren sainduen eta profeten odola issuri içan duten, çuc ere hei odola eman dioçute edaterat, mereci dute ecen". [7] Aditu nuen bertce aingueru bat aldaretic erraten çuena: "Baiqui, Jauna, Jainco bothere gucia duçuna; eguiazcoac eta justuac dire çure jugeamenduac".

[8] Laur garren aingueruac issuri içan çuen bere ampoilla iguzquiaren gaiñerat eta eman citçayon indarra tormentatceco guiçonac suaren berotassunaz. [9] Erre ciren guiçonac su handi batez eta blasphematu çuten Jaincoaren icena, ceiñec baidaduzca plaga horiec bere botherean, eta ez çuten eguin penitentcia hari gloria emateco.

[10] Bortzgarren aingueruac issuri içan çuen bere ampoilla bestiaren thronuaren gaiñerat eta eguin cen haren erressuma ilhumbetsu eta aussiqui cituzten guiçonec bere mihiac dolorearen handiz. [11] Blasphematu içan çuten Jainco cerucoa bere doloreac gatic eta bere çauriac gatic, eta ez çuten eguin penitencia bere eguitatez.

[12] Seigarren aingueruac issuri içan çuen bere ampoilla Euphrateco ibaya handi haren gaiñerat eta agortu içan cen hango ura, bidea eguiteco iguzquia ilkhitcetic ethorri behar çuten erregueei. [13] Orduan icussi içan nituen ilkhitcen dragoinaren ahotic, bestiaren ahotic eta profeta falsoaren ahotic hirur izpiritu liçun negalen iduricoac. [14] Dire ecen deabruen izpirituac prodigioac eguiten dituztenac, eta mundu gucico erreguetarat goaten direnac, hec billaratcitceco gudurat Jainco bothere gucitacoaren egun handicotçat. [15] Sarri heldu naiz ohoiña beçala. Dohatsu atçarria dagoena eta bere tresnac beguiratcen dituena, beldurrez bulhucia ibill

ez dadin eta aguer ez deçan bere ahalqueria. [16] Bildu içan cituzten erregue hec hebraicoz Armagedon daritçan lekhurat.

[17] Çazpigarren aingueruac issuri içan çuen bere ampoilla airerat eta ilkhi cen boz handi bat templutic, thronuaren aldetic, ciotsana: "Eguin du hequienac". [18] Ordu berean eguin ciren chismistac, habarrotsac eta ihurtçuriac; eta eguin cen lur ikharatce bat hain handia bai, non egundaiño ez baitcen içatu, guiçonac lurraren gaiñean direnaz gueroztic, halaco lur ikharatceric eta hain handiric. [19] Eta eguin cen hiri handia hirur çathitan; nacionetaco hiriac erori içan ciren, eta Babylonia handia ethorri içan citçayon gogorat Jaincoari bere hassarrean eta çumінduraren arnozco calitça hari edaterat emateco. [20] Irla guciac goan ciren ihessi eta mendiac urmariatu içan ciren. [21] Eta babaçuça handi bat talentu baten pissucoa erori içan cen cerutic guiçonen gaiñerat; eta blasphematu çuten Jaincoa guiçonec babaçuçaren plaga gatic, ceren handia baitcen hainitz plaga hura.

XVII. Cap.

[1] Orduan ethorri cen çazpi ampoillac cituzten çazpi aingueruetaric bat. Mintçatu citçaitan eta erran çarotan: "Çato; eracutsico darotçut emastequi galdu handiaren condenacionea, ceiña baidago jarria ur handiaren gaiñean, [2] ceiñarequien lohitu içan baidire lurreco erregueac, eta ceiñac hordiaraci içan baiditu lurreco egoquiac bere lohiqueriaco arnotic".

[3] Eta eraman içan baininduen izpirituz bakhar lekhurat, icussi içan nuen emaste bat jarria, blasphemiozco icenez bethea cen bestia escarlata colorezco baten gaiñean, ceinec baitcituen çazpi buru eta hamar adar. [4] Emastequi hura cen vestitua purpraz eta escarlatez, berreguindua urrez, harri preciatuz eta perlaz, eta çuen copa urrezco bat escuan bere lohiqueriaco abominacionez eta likhitsez bethea. [5] Eta haren bekhoquian icen hau cen escribatua: "Misterioa, Babylonia handia, lurreco lohiquerien eta abominacioneèn ama".

[6] Eta icussi nuen emastequi hura horditua sainduen odolaz eta Jesusen marthiren odolaz, eta hura icusteaz harritu nintcen eta espantatu. [7] Orduan erran çarotan aingueruac: "Certaz çare miretsia? Nic erranen darotçut emastequiaren misterioa eta hura ekhartcen duen bestia, çazpi buru eta hamar adarretacoarena. [8] Icussi içan duçun bestia içatu da eta ez da; eta igan beharra da tulunbiotic eta guero suntsitu beharra alde batetarat; eta espantatuco dire lurrean daudecenac, ceiñen icenac ez baidire escribatuac bicitceco liburuan munduaren hastapenetic, icusteaz bestia ohi cena eta guehiago ez dena. [9] Eta hauche da horren sentsua çuhurtciaz bethea: çazpi buruac çazpi mendi ditezque, ceiñen gaiñean jarria baidago emastequia; orobat çazpi erregue ditezque. [10] Bortz hillac dire; bat bada oraiño eta bertcea oraiño ez da ethorri; eta dathorrenean dembora aphurrez egon beharco du. [11] Eta bestia, cein baitcen eta cein ez baida, eta hura bera da çortci garrena; eta çazpitaric ere da eta sarri suntsitcerat doha. [12] Icussi içan ditutçun hamar adarrac hamar erregue dire, ceiñec erressuma ez baidute oraiño errecibitu, baiñan botherea errecibitu dute erregue beçala oren batençat bestiaren ondoan. [13] Hauc chede bat eta bera dute, eta bere indarra eta botherea emanen diote bestiari. [14] Hauc guerla eguiñen diote Bildotsari, eta bildotsac garaituco ditu hec, ceren Jaunen Jauna baida eta Erregueen Erreguea; eta harequien direnac dire deithuac, hautatuac eta fidelac".

[15] Erran çarotan oraiño: "Icussi içan ditutçun urac, ceiñetan baidago jarria emastequi paillarda hura, dire populuac, nacioneac eta erdarac. [16] Bestiari icussi diotçotçun hamar adarrac dire emastequi galdu hari gaitx nahico diotenac, hura

desolatuco dutenac, bulhucico dutenac, haren haraguiac iretsico dituztenac eta bera suan erreco ere dutenac. [17] Jaincoac ecen eman daroe bihotcean eguin deçaten hari lakhet çayoena, eman dioçoten bere erressuma bestiari, complituac içan daitecen artean Jaincoaren erranac. [18] Eta emastequi icussi içan duçuna da lurreco erregueèn gaiñean erreguiñatcen duen hiri handia".

XVIII. Cap.

[1] Horien ondoan icussi nuen bertce aingueru bat jausten cena cerutic, çuena bothere handi bat, eta lurrac arguitcen çuen haren gloriaz. [2] Eguin çuen oihu bere indar guciaz erraten çuelaric: "Erori da, erori da Babylonia handia, eta eguin içan da deabruen egoitça eta izpiritu lohi gucien eta hegaztin liçun eta higuingarri gucien gordelekhua, [3] ceren haren lohiqueriaren colerazco arnotic edan içan duten nacione guciec; eta lurreco erregueac lohitu içan dire ere harequien, eta lurreco mercatariac aberastu içan dire harc bere atseguiñetaco erabilli içan dituen sobranietaric".

[4] Aditu nuen bertce boz bat ere cerutic, erraten çuena: "Ilkhi çaite hortic, ene populua, beldurrez ecen parteric duçuen horren bekhatuetan eta horren plaguetan, [5] ceren igan içan baidire horren bekhatuac ceruraiño, eta orhoitu içan da Jauna horren gaixtaqueriez. [6] Bihur dioçoçue ordainez cer ere berac eguin içan baidarotçue, eta hura; eta are bihur dioçoçue bietacoa bere eguitateèn arauera; harc edaterat eman içan darotçuen edateco beretic edanaraz dioçoçue bietan haiñbertce. [7] Cembat ibilli içan baida handiagoan eta atseguiñetan, eta hambat eman dioçoçue tormenta eta dolore, ceren erraten baidu bere gogoan: "Jarria naiz erreguiñatçat, ez naiz alhargun eta doluric icussico ez duquet". [8] Hargatic bada dire egun berean ethorrico haren plagac, herioa, dolua eta gossetea; eta da suaz errea içanen, ceren botheretsu baida hura condenatuco duquen Jaincoa.

[9] Orduan egonen dire nigarrez eta auhenez haren gaiñean harequien lohitu içan diren eta atseguiñetan bici içan diren lurreco erregueac, icussico duten orduan haren erretcearen khea. [10] Urrundic egonen dire haren tormenten iciapenez, eta erranen dute: "Oi hau çoria eta çorigaitça, Babylonia, hiri handia eta hiri borthitça, betbetan ethorri içan baida hire condenacionea!".

[11] Lurreco mercatariac ere nigarrez eta hats beherapenez egonen dire haren gaiñean, ceren nihorc ez baiditu erosten guehiago hequien salcariac. [12] Urrezco eta cilharrezco salcari hec, harri preciatuac, perlac, liñu finac, purpurac, sedac, escarlatac, ussain onetaco çur mota guciac, ebolicazco muble guciac, harri preciatuzcoac, cobrezcoac, burdinazcoac eta marbola harrizcoac, [13] cinamoma urrin onac, ur ussain onetacoac, incensua, arnoa, olioa, irin lorea, ogui bihia, cargaco abreac, ardiac, çamariac, carrossac, esclauoac eta libroac, [14] hire desira eta atseguina eguiten ohi çuten fruituac goan çaizquin hire ganic; delicatassun eta ostendade gucia akhabo dun hiretçat, guehiago aurkhituco ez ditun".

[15] Gauça horietaco mercatariac eta harequien aberastu içan direnac haren ganic urrun egonen dire haren tormenten iciapenez nigarretan eta hats beherape-

netan; [16] erraten dutelaric: "Helaz, helaz, hiri handi hura, liño finez, purpuraz eta escarlatez vestitua cena, eta urrez, harri preciatuz eta perlaz estalia! [17] Betbetan urmariatu içan baidire hambat aberatstassun; eta pillotu guciac, itsassoan dabiltçan guciac, marinelac eta itsassoan emplegu dutenac urrunduac egon çaizco. [18] Eta oihuz jarri dire icussi dutenean hiri erre haren toquia, erraten dutelaric: "Cein hiri içan da egundaiño hiri handi hau beçalacoric?". [19] Estali dituzte herrautsez bere buruac eta deyagoraz jarri içan dire nigarretan eta auhenetan, erraten dutelaric: "Helaz, helaz, hiri handi hura, ceinetan aberastu içan baidire untciac itsassoan cituzten guciac harequien eguiten ohi cituzten irabaciez; betbetan içan baida iraulia. [20] Bozcaria çaite horren gaiñean, cerua, eta bai çuec ere, apostolu sainduac eta profetac, ceren justicia eguin baidarotçue hartaz".

[21] Orduan altchatu içan çuen aingueru borthitz batec harri bat, errota harri handi bat beçalacoa, eta arthiqui itsassorat erraten çuelaric: "Hunelacotche abiaduran içanen da arthiquia Babylonia hiri handi hura, eta guehiago ez da aurkhituco. [22] Eta guitarrarien boça, ez musicianoena, eta ez chirola eta trompeta joileena ez dun adituco guehiago hire baithan; cer nahi officiotaco officialeric batere ez dun aurkhituco hire baithan guehiago, eta errota harriaren habarrotsa ez dun adituco hire baithan guehiago. [23] Lampen arguiac ez din arguituco hire baithan guehiago, eta ez oraiño esposaren esposaren eta esposoaren [7] voça dun adituco hire baithan, ceren hire mercatariac baitciren lurreco princeètaric, ceren hire edari poçoatuez çoratuac içan baidire nacione guciac". [24] Eta hiri hartan aurkhitu içan ere da profeten eta sainduen odola eta bai lurraren gaiñean hillaraciac içan diren guciena.

7. Bi bider idatzi du *esposaren,* behin aski zelarik. Vulgatak honela dio: "et vox sponsi et sponsae". Hemen gainera beste pasarte hartan ez bezala (Jo. III, 29) *esposo* eta *esposa* bereizi ditu.

XIX. Cap.

[1] Horien ondoan aditu içan nuen tropela hainitcen boz bat beçala, ceruan erraten çuena: "Alleluya, agur, gloria eta bothere gure Jaincoari dagoca; [2] ceren eguiazcoac eta justuac baidire haren jugeamenduac, ceren condenatu içan baidu bere lohiqueriaz lurra uhertu içan duen emagaldu handi hura, eta bendecatu içan baidu bere cerbitçarien odola, haren escuec issuri içan dutena". [3] Eta berriz ere erran çuten: "Alleluya"; eta haren erretcearen khea altchatu cen mendeèn mendetacotz. [4] Orduan erori ciren ahozpez hogoi eta laur çaharrac eta laur animaliac eta adoratu çuten Jainco thronuaren gaiñean jarria cegoena, erraten çutelaric: "Amen, alleluya". [5] Eta ilkhi cen boz bat thronutic, erraten çuena: "Lauda çaçue gure Jaincoa haren cerbitçari çareten guciec eta haren beldurra duçuenec, chipiec eta handiec".

[6] Aditu içan nuen oraiño ere tropela handi baten habarrotsa beçala, ur handi batçuen habarrotsa beçala eta ihurtciri handi batçuen habarrotsa beçala, erraten çutenena: "Alleluya, ceren erreguiñatcen baidu gure Jaincoac, bothere gucia duenac. [7] Boz gaitecen eta aleguera gaitecen eta demogun hari gloria, ceren ethorri baidire Bildotsaren ezteyac eta haren emaztea preparatua baida, [8] eta eman baitçayo vesti dadin lino finez, diztiantez eta churiz, lino fin hura ecen sainduen justicia da".

[9] Aingueruac orduan erran çarotan: "Escriba çaçu: Dohatsu Bildotsaren ezteyetaco afarira deithuac direnac". Erran çarotan halaber: "Jaincoaren hitz hauc eguiac dire". [10] Berehala arthiqui nintcen haren oiñetarat hura adoratceco, baiñan erran çarotan: "Beguirautçu hori eguitetic; cerbitçaria naiz, çure quide eta çure anayen [8], ceiñec Jesusi errendatu içan baidiote lekhucotassuna. Jaincoa deçaçu adora, ecen profeciazco Izpiritua Jesusen lekhucotassuna diteque".

[11] Guero icussi nuen cerua idequia, eta aguertu cen çaldi çuri bat; eta haren gaiñean jarria cena deitcen cen Fidela eta Eguiatia, justutassunequien jugeatcen duena eta guducatcen dena. [12] Haren beguiac ciren suaren kharra beçala; bacituen buruan diadema hainitz, eta çuen icen bat escribatua, nihorc eçagutcen ez duena berac baicen. [13] Cen vestitua odolez tintatua cen arropa batez eta haren

8. Zerbait oker dagoela dirudi, batez ere beheraxeagoko (XXII, 9) oso antzeko den pasartearekin alderatuz; baina ez da gauza segurua, latinez ere testuak oso antzekoak bai, baina desberdinak baitira: hemen "conservus tuus sum, et fratrum tuorum habentium..."; han "conservus enim tuus sum, et fratrum tuorum prophetarum, et eorum qui...".

icena deitcen da Jaincoaren Verboa. [14] Ceruan diren armadac hari çarraizcon, çaldi çurien gaiñean jarriac, lino churiz eta garbiz vestituac. [15] Eta haren ahotic ilkhitcen cen ezpata bat bi aldetaric çorrotça, hartaz jaçartceco nacioneei, ecen harc ditu hec gobernatuco burdiñazco cigor batequien, eta harc du ere osticatcen Jainco bothere gucia duenaren furiazco eta iraquidurazco arnoaren dolharea. [16] Eta du bere arroparen eta bere ichterraren gaiñean escribatua: "Erregueèn Erreguea eta Jaunen Jauna".

[17] Ondoan icussi nuen aingueru bat iguzquian chutic cegoena, ceiñec oihu eguin baitçaroen gora ceruaren erditic hegaldatcen ciren hegaztin guciei, erraten çaroelaric: "Çatozte eta bil çaitezte Jaincoaren afari handirat, [18] jan detçatçuen erregueèn haraguiac, guerlaco officialeèn haraguiac, indartsuen haraguiac, çaldien eta hequien gainean direnen haraguiac eta libro eta esclauo, chiper eta handi gucien haraguiac".

[19] Eta icussi nituen bestia eta lurreco erregueac eta hequien armadac bilduac, guerla eguiterat çaldiaren gaiñean jarria cenari eta haren armadari. [20] Bainan hartua içan cen bestia eta harequien batean profeta falsoa, haren aitcinean prodigioac eguin içan cituena, ceiñetaz enganatu içan baitcituen bestiaren caractera hartu içan çutenac eta haren imagina adoratu içan çutenac; eta biac biciric arthiquiac ican ciren sua eta suffrea ceitchaizcoen lekhurat. [21] Bertceac hillac içatu ciren çaldi gainean jarria cegoenaren ahotic atheratcen cen ezpataz; eta hegaztin guciac asse ciren hequien haraguietaric.

XX. Cap.

[1] Icussi nuen berriz aingueru bat jausten cerutic lece hosineco gakhoa eta gathe handi bat bere escuan çuena. [2] Hartu içan çuen dragoiña, sugue çaharra, cein baida deabrua eta Satana, eta estecatu içan çuen milla urtherentçat. [3] Egotci çuen tulumbioan behera, çarratu çuen han, eta ibeni çuen ciguillu bat haren gaiñean, engana ez detçantçat guehiago nacioneac akhaba ditezquen artean milla urtheac, ceiñen ondoan lechatua behar baidu içan dembora gutitacotz batetacotz [9].

[4] Icussi nituen halaber thronu batçu eta hetan jarri içan cirenac, eta jugeatceco botherea eman içan citçayen hainei. Icussi içan nituen oraino Jesuchristori lekhucotassuna errendatce gatic eta Jaincoaren hitça gatic buruac ebaquiac içan cituztenen arimac, bestia ez haren imagina adoratu içan ez dutenenac, haren seiñalea bekhoquian ez escuan hartu içan ez dutenac [10]. Eta bici içan ciren eta erreguiñatu içan çuten Jesuchristorequien milla urthez. [5] Bertce hillac ez dire biztu akhaba ditezquen artean milla urtheac. Hori da lehenbicico biztea. [6] Dohatsu eta saindu da parte duena lehenbicico biztean. Hainen gainean bigarren heriotceac ez du bothereric; aitcitic haiñac içanen dire Jaincoaren eta Jesuchristoren aphez eta erreguiñatuco dute harequien milla urthez. [7] Eta akhabatu ditezquenean milla urtheac, lechatua içanen da Satana eta atheraco da bere pressondeguitic eta irabacico ditu lurraren laur cantoiñetan diren nacioneac, Gog eta Magog, eta bilduco ditu gudurat, hequien contua içanen baida itsassoco harea beçala. [8] Barrayatu ciren lurraren hedadurat [11] eta inguratu çuten sainduen ostea eta hiri maitea. [9] Ordean jaustaraci içan çuen Jaincoac cerutic su bat, ceinec iretsi içan baitcituen; eta deabrua, hec irabazten ohi cituena, arthiquia içan cen suzco eta suffrezco lakhuarat, ceinetan bestia [10] eta bai profeta falsoa tormentatuac içanen baidire gau eta egun mendetaco mendetan.

[11] Icussi içan nuen halaber thronu handi çuri bat eta norbeit haren gaiñean jarria, ceinen aitcinetic goan baitciren ihessi lurra eta cerua, eta toquiric ere ez cen aurkhitu hequienic. [12] Icussi içan nituen guero hillac, handiac eta chiperrac, chutic thronuaren aitciñean, eta liburuac idequiac içan ciren; guero berriz idequia içan cen bertce liburu bat, cein baida bicitcearena, eta hillac jugeatuac içan ciren liburuetan escribatuac cirenen gaiñean bere obren arauera. [13] Itsassoac bihurtu

9. Bata ezabatu eta bestea idatzi du. Ala *guti batetacotz* nahi izan ote du utzi?
10. Beharbada *dutenenac* nahiko zuen hemen idatzi.
11. *Hedadurarat* behar luke.

cituen haren uretan hill içan cirenac; herioac eta ifernuac bihurtu cituzten halaber cituzten hillac, eta batbedera jugeatua içan cen bere eguitateèn arauera. [14] Eta ifernua eta herioa arthiquiac içan ciren suzco lakhuarat. Hura diteque bigarren heriotcea. [15] Eta aurkhitu içan ez cena escribatua bicitcearen liburuan arthiquia içatu cen suzco lakhuarat.

XXI. Cap.

[1] Guero icussi nuen ceru berri bat eta lur berri bat, lehenbicico cerua ecen eta lehenbicico lurra goanac ciren eta itsassoric ez cen guehiago. [2] Eta nic Joannesec icussi içan nuen hiri saindua, Jerusalem berria, jausten hari cela cerutic, Jaincoa ganic, aphaindua bere senharrarentçat berreguintcen den espos bat beçala. [3] Eta aditu nuen voz handi bat thronutic heldu cena eta erraten çuena: "Huna Jaincoaren tabernaclea guiçonequillacoa eta egonen da hequiequien; hec haren populua içanen dire, eta Jaincoa bera hequien artean içanen da hequien Jaincoa. [4] Chucatuco ditu Jaincoac nigar guciac hequien beguietaric eta herioric guehiago içanen ez da, ez auhenic, ez heyagoraric, ez doloreric; ceren lehenagoco gauçac iragan baidire". [5] Orduan erran çuen thronuan jarria cegoenac: "Huna gauça guciac berri eguiten ditut". Eta erran içan çarotan niri: "Escriba çaçu, ecen hitz hauc haguitz dire guerthuac eta eguiazcoac". [6] Erran çarotan oraiño: "Akhabo da. Ni naiz alpha eta omega, hastapena eta akhabantça. Egarri denari emanen diot nic edaterat ur bicizco ithurritic dohaiñic. [7] Garaituco duena hauquien jabe içanen da eta içanen naiz haren Jainco eta hura içanen da ene haur. [8] Baiñan beldurtiez eta sinhets gaitcez, execrableèz eta guiçon hiltçailleèz, lohiez, poçoatçailleèz, idolatrez eta gueçurti guciez denaz beçambatean, hequien partea içanen da suz eta suffreez diraquien lakhuan, cein baida bigarren heriotcea".

[9] Ethorri içan cen guero çazpi ampoilla azqueneco çazpi plaguez betheac cituzten çazpi aingueruetaric bat; mintçatu citçaitan eta erran çarotan: "Çato eta eracutsico darotçut Bildotsaren emaste den esposa". [10] Eta eraman ninduen Izpirituz mendi handi eta gora batetarat eta eracutsi içan çarotan Jerusalem hiri saindua jausten hari cela cerutic Jaincoa ganic. [11] Baçuen harc distiadura bat jaincozcoa, eta haren arguiac iduri çuen harri preciatu bat, jaspe harri cristaillaren pareco bat beçalacoa. [12] Çuen murrailla bat handia eta gora, ceinetan baitciren hamabi portale eta portaletan hamabi aingueru eta icen batçu escribatuac, cein baitciren Israelgo semeèn hàmabi leiñuen icenac. [13] Iguzqui ilkhitcetic ciren hirur portale, ouestetic hirur portale, eguberditic hirur portale eta iguzqui sartcetic hirur portale. [14] Hirico murraillac bacituen hamabi cimendu, eta hetan ciren Bildotsaren hamabi Apostoluen icenac.

[15] Niri mintço citçaitanac çuen urrezco canabera bat, neurtcecotçat hiria eta hango portaleac eta murrailla. [16] Hiria da laur aldetaric berdin eçarria, hambat luce cembat baida çabal; neurthu içan çuen hiria bere urrezco canaberaz, hamabi milla stadiotaraiñocoan; eta haren lucetassuna, haren goratassuna eta haren çabal-

tassuna berdin dire. [17] Neurthu çuen halaber haren murrailla ere, cein baitcen ehun eta berrogoy eta laur bessotacoa guiçonaren neurriz, cein baitcen aingueruarena. [18] Murrailla cen bastitua jaspe harriz eta hiria bera cen urre phuruzcoa, iduri baitçuen beira garbiz eguiña.

[19] Hirico murraillen cimenduac ciren harri preciatu mota guciez berreguinduac. Lehenbicico cimendua cen jazpezcoa, bigarrena saphirazcoa, hirurgarrena calcedoniazcoa, laurgarrena smaraldazcoa, [20] bortzgarrena jardonixezcoa, seigarrena sardoniozcoa, çazpi garrena chrisolitezcoa, çortcigarrena beryllazcoa, bederatcigarrena topazezcoa, hamargarrena chrisoparezcoa, hamecagarrena hyacinthezcoa, hamabigarrena amethystezcoa. [21] Hamabi portalac ciren hamabi perla, bakhotcharentçat bat, eta portale bakhotcha cen eguina perla batez eta hirico plaça cen urre phuruz, berina clar clara cidurienez. [22] Templuric ez nuen icussi içan hirian, ceren Jainco Jaun bothere gucia duena baida eta Bildotsa hango templua. [23] Eta hiriac ez du iguzquiaz ez ilharguiaz arguitua içateco beharric, ceren eta Jaincoaren gloriac baidu arguitcen eta Bildotsa baida haren lampa. [24] Nacioneac ibillico dire haren arguitan eta lurreco erregueèc ekharrico dute bere gloria eta bere ohorea harat. [25] Hango portaleac ez dire çarratuco egunaz, ecen gauic han içanen ez da. [26] Harat ekharrico dute nacioneèn gloria eta ohorea. [27] Ez da sarthuco harat deussere lohi denic, ez abominacioneric edo falseriaric eguiten duenic, baiñan choilqui Bildotsaren bicitcezco liburuan escribatuac direnac.

XXII. Cap.

[1] Eracutsi içan çarotan oraiño ur bicizco ibaya bat, cristailla beçain clara, Jaincoaren eta Bildotsaren thronutic heldu cena. [2] Hirico plaçaren erdian eta ibaya haren bi basterretan cen bicitcezco arbola hamabi fruitu ekhartcen dituena, ematen duelaric ilhabethe guciez bere fruitua eta arbola hartaco hostoac dire nacioneèn sendatceco. [3] Madaricioneric guehiago han içanen ez da, aitcitic Jaincoaren eta Bildotsaren thronua han içanen da, eta bere cerbitçariec cerbitçatuco dute. [4] Icussico dute haren bisaya, eta ekharrico dute haren icena escribatua bere bekhoquietan. [5] Gauic guehiago han içanen ez da; eta ez lampen beharric, ez iguzquiaren arguiaren beharric ez dute içanen, ceren eta Jainco Jaunac arguituco baiditu eta erreguiñatuco dute mendetaco mendetan.

[6] Ondoan erran içan çarotan: "Hitz hauc haguitz dire sinhextea mereci dutenac eta eguiazcoac; eta profeten Izpirituen Jainco Jaunac igorri içan du bere ainguerua eracusterat bere cerbitçariei sarri guerthatu behar direnac. [7] Ethorrico naiz sarri. Dohatsu liburu huntaco profeciaren erranac beguiratcen dituena".

[8] Ni Joannes naiz, gauça hauc aditu eta icussi içan ditudana. Eta aditu eta icussi nituenean, arthiqui içan nintcen hauc eracusten çarozquidan aingueruaren oiñetarat hura adoratcecotçat. [9] Baiñan erran içan çarotan: "Beguirautçu hori eguitetic, ecen cerbitçari bat naiz, çure quidea eta çure anaya profeten quidea; eta liburu huntaco profeciaren erranac beguiratuco dituztenen quidea: Jaincoa deçaçu adora". [10] Ondoan erran içan çarotan: "Ez detçatçula ciguilluaren azpian eman liburu huntaco profeciaren hitçac, dembora ecen hurbil da. [11] Injusticia eguiten duenac eguin beça oraino; lohi dena lohi bedi oraiño; justu dena eguin bedi justuago oraiño eta saindu dena santifica bedi guehiago ere oraiño. [12] Sarri heldu naitequc eta ene saria neurequien dut, bihurtceco batbederari bere obren arauera. [13] Ni naiz alpha eta omega, lehena eta azquena, hastea eta akhabantça. [14] Dohatsu bere arropac garbitcen dituztenac Bildotsaren odolean, içan deçatentçat burupe biciaren arbolan eta athetaric sar daitecentçat hirian. [15] Khen hemendic oçarrac, poçoatçailleac, lohiac, guiçon hiltçailleac eta idolatreac eta falseria maitatcen eta eguiten duqueten guciac. [16] Nic, Jesusec, igorri içan dut ene ainguerua gauça hautaz çuei lekhucotassuna errendatceco Elicetan. Ni naiz Daviden urthamea eta semea, içar distianta, goiceco içarra. [17] Izpirituac eta esposac dute erraten: "Çato". Aditcen duenac ere erran beça: "Çato". Egarri dena bethor, eta nahi duenac har beça bicitcezco uretic dohainic.

[18] Declaratcen daroet ecen liburu huntaco profeciaren hitçac adituco dituzten guciei, baldiñetariac nihorc hei deussic iratchaquitcen badaroe, eroraracico dituela Jaincoac hainaren gaiñerat liburu huntan escribatuac diren plagac. [19] Eta baldin nihorc khentcen badu deussic liburu huntaco profeciaren hitcetaric, khenduco du Jaincoac ere hura biciaren liburutic eta hiri saindutic, eta ez dio emanen parteric liburu huntan escribatuac diren aguintcetan.

[20] Dio gauça hautaz lekhucotassuna ematen duenac: "Baiqui, sarri heldu naiz eta lauster. Amen. Çato, Jesus Jauna". [21] Jesuchristo gure Jaunaren gracia dela çuequien guciequien. Amen.

HIZTEGIA

– A –

abenico: "commonitio", zuzper hitz, exortu
abisamendu: zuhurtzia, burubide
abisuco (izan): iritziko (izan)
abre: abere
abride: aurride, anaia
aditu (elkar): elkar hartu
adiu: agur
adreçatu: drezatu, zuzendu, igorri
affruntu: laido, iroi, irain
agueriqui: agerian
agudoqui: laster, arin, berehala
aguergune: ikuskari, agerraldi
ahacar: errieta, agiraka, liskar
ahalcagarri: lotsagarri
ahalcatu: lotsatu
ahalcor: daitekeen, litekeen, posible
ahalque: lotsa, lotsaizun
ahalqueria: lotsa
ahantci: ahaztu, atzendu
ahapaldi: agiraka, errieta, irain, iseka
ahapaldiztatu: errieta eman, gaitzesan, laidotu
ahutceco: masaileko, ahopeko
aiher: etsai, kontrako; grinatsu, irrikitsu
aihercunde: gorroto, gaitzerizte, ezinikusi
aingura: arba, arpeu
aire: itxura, behakunde
aitcinaratu: aitzindu, aurreratu
aitcineticaco jaquina: "praescientia"
accordatu: akort, ados jarri
akua: ahako, jendetza
accusu: salakuntza
ala nekhez!: bai nekez!
alboratamendu: matxinada
alboratatu: nahastatu, asaldatu, gaixtatu
albotaramendu: matxinada
aldamio: aterpe, etxape, arkupe
aldaratu: aldegin, urrundu
aldetu: alde jarri, defendatu
aleguia (izena): itxurakeria
aleguiatsu: itxuratsu
aliamalia: animalia
alientcia: elkargo, hitzarmen, itun
allocatu: akuratu, alogeratu
altaratu: aztoratu, asaldatu
altaramendu: matxinada, asaldatze
altchagarri: orantza, legami, azkarri
altesatu: teinkatu, estutu
amarratu: lotu, estekatu
amasso: amona, amabitxi
amen: Hebr., IX, 7 (ahamen?)
amoiña: eskupekoa
–n amoreagatic: –tzeko
amulsu: otzan, maitagarri
amultsuqui: gozaro, maitaro
antepara: uholdeari eusteko horma
antsia: ardura, kezka, arreta, arrenkura
antçu: antz, irudi, gisa
antçura: antzera, bezala
antçutu (legea): ezeztatu, indargabetu
ançura: antz, itxura
apacegatu: baretu, ibitu, ematu
aparaillu: asaldu, barrandatze
aphacegagarri: eztigarri, emagarri, bakegarri, aringarri
apel (egin): –rengana jo
aralde: talde, multzo, andana
arbalesta: arku, uztai, tiro uztai
arbuiatu: erdeinatu, gutietsi

ardietsi: iritsi, lortu, eskuratu
ardit: bi kornaduko sosa
arduraco: maizko, sarriko
argui haste: oilarite, egunsenti
arguiaren begui: egunsenti, oilarite
aria: arrazoi, kausa, bide, akordio
ariaz: –gatik
arnegatu: ukatu
arnegu: uko, birao
arraillatu: printzatu
arraintce: arrantzo
arraici: begitarte, aurpegi
arrantçatu: arrantzoan aritu
arrapo: lerde, elder, erdel, hagun
arrasatu: murriztu, soildu, moztu
arraso: hurbil, ondoan, gertu
arrauketan (egin): arraunketan, arraunka (aritu)
arraçoinatu: arrazoitu
arren: horregatik
arribatu: iritsi, heldu; gertatu
arribera: ibai, erreka
arrimu: ordena, hurrenkera
arroba: arropa, jazki, tresna
arrobatu: lapurtu, ostu, ebatsi
arroda: "ruta" deritzan belarra
arrolamendu: errolda
arrolatu: izena eman, erroldan ipini
arruntera: arrunt, xoil, xume
arruntçatu: arma airean dantzatu; hurbildu, hurreratu
arruta (eman): itsasoz abiatu, jo
arte: tarte, bitarte; lakio, sare
artha: arreta, axola, ardura
arthiqui: jaurtiki, egotzi
arthosqui: arretaz, arduraz
artimoin: ontziaren oihal handia
archera: morroi, ministrari
assaldu: aparailu, barrandatze
assentu: oinarri, zimendu
aspertu: haserretu, amorratu
astaca: asta emea
atesatu: sendotu, gogortu
athalçain: atezain
atiça: abadagune, parada
atchequi: eduki, gorde; **solhasa atchequi** = hizketa izan
(–ri) atchequi: lotu, itsatsi, eutsi
atchiqui: iraun, zutik egon
atçaman: atzeman, harrapatu
atçarri: ernai, erne, adi; ernaitu, esnatu
atçartasun: ernealdia, erne egote
atce: arrotz, kanpotar, atzerritar
atcequia: aitzakia
aurizquitceco harria: trebekatzeko, oztopatzeko harria
auhen: intzirin, asperen
auhenztatu: deitoratu
aurca: aurre(a), aitzin(a)
aurquintça: landa edo lur puska, eskualde
aussarqui: ausardiaz, bulartsuki
aussarquiche: ausardia pixka batez
aussiqui: horzkatu, hozka egin
açarcatu: atzeman, harrapatu
acicatu: liluratu, atzipetu
acitun ondo: oliondo

– B –

babaçuça: txingorra
bafore: urrin, lurrun
baheatu: galbahetu
bahi: berme, bahitura
baiqui: bai eki, bai noski
bakhoitz: bakar
balacu: lausengu, losintxa, zurikeria
baldinetariac: baldin
balditu: harritu, txunditu
balentça: balantza, zalantza
baliaraci: dirua erabili, balioa gehitu
balimba!: baldinbait ere!
balimba ez!: utikan, inola ez
bal(t)sa: multzo, andana, tropela

balsagune: nahasketa, nahasmendu
balsatu: nahasi, nahastu, kutsatu; batu, elkartu
banagune: bonbazia, banokeria
bancu: koba, hartzulo
banoqueria: huskeria
bantatu: harrotu, handietsi
baratalgo zurrumurru, esamesa, gaizkiesan(a)
barnat: barnera, barrura
barrayadura: hondamendi, galtzapen, sakabanatze
barrendatu: barrendu, zulatu, zundatu
barurtiar: barauzale
barurtu: barautu, barau egin
basa: lohi, lokatza
bassa: oliba, "oleaster"
bastitu: eraiki
bastitçaile: etxegile
bat eta bera: berbera
bachera: baxera, morko, lurrontzi, azpil, ontzi
baciña: konketa, garbitontzi
bazcatu: alatu, larretu
beguitarte: aurpegi, behagune
beguitarte (egin): onartu, ongi hartu
behagune: aurpegi, begitarte
behacunde: aurpegi, begitarte
(—tu) behar bidean: —tu beharrean, ordez
behar ordu: beharkizun, beharrizan
beharric: noraezean, ezinbestean
beharqui: egoki, gisako, bidezko, komenigarri
beharquiçun: beharrizan, behar ordu
beharretsien: beharrezkoen, beharren
behartu: —ren beharra izan
(authoritate) beharquitua: Juda I, 8 ("dominationem") nahitaezkoa (?)
behatu: begiratu, so egin, istimatu
(—ri) behatzen (zaio): dagokio, dihoakio
behaztopagune: trabagarri, trabaleku, oztopabide
behaztopatu: tupust egin, trebekatu
behaçun: saminaldi, nahigabe, lorraldi
beheitimendu: beherapen
beheititu: beheratu
beillatce: gaubela
beyra: xopera, edontzi
bekhaizgune: bekaizkeria, inbidia
bekhoz bekho: aurrez aurre
bekhurunde: begirada, begirasun
bela: oihal, zapi
beldurcunde: gogoanbehar
belogui: belaki
bendecatu: mendekatu
bendecatçaille: mendekatzaile
bentçutu: garaitu, gailendu, konbentzitu, errefutatu
bera beraren contra: nor bere buruaren kontra
bera(u)ndu (berantzen): berandutu, atzeratu, luzatu
bere buruz: berez, bere gisa
ber(e) estaturatu: berreraiki, lehengoratu, gaiberritu, birlandu
beregain: bere eskuko (izan, aritu...), bere gisa
beregainqui: bereziki, batikpat
berenez: berez
berezgu: berezko, berezgune, bereizketa
berezgune: berezko, bereizketa
berezco(ric ez egin): bereizketa, berezgune, hautaketa
berezcotu: berezko, berezi, bitxi egin, salbuetsi
berga: bela zurrun
bergamio: pergamino
berreguin: dotore, apain
berregindu: dotoretu, apaindu
berreguinqui: dotoreki, apainkiro
berregune: emendio, gehitura, indartze, sendortze

berretcari: gehitura, emendailu, berretura
berretu: gehitu, ugaldu, emendatu
berro: sastraka, sasi sarria
bertce alde: apart, lakot, landa
bertcelacatu: bestelakotu, gezatu, andeatu
bide cantoin: bidegurutze
bideante: bidari, bidelari, erromes
bidegabe: makur, oker, injustizia
bidezqui: zuzenki, egoki, bide bezala
bihicatu: aletu, xehetu
bihitu: aletu, xehetu
bihurcatu: espartzatu, txirikordatu
bildumatu: bildu, biribilkatu
bilhucatu: bihurkatu, bihurritu
biondaguiçula: bejondeizula!
biper: suge
birazca: binaka
biribilcatu: bildu, batu
birlandatu: landaberritu, landaz aldatu
birunda: gurpil
bisaya: aurpegi, begitarte, behagune, behakunde
bitiña: pittika, ahantxume
biyaya: bidaia
bicicai: bizigai, elikadura
bocan: ate, sarrera, sarbide
bolaçale: zuritzaile
bombacia: festa, jai, olgeta, dosteta
borthiztu: indartu, sendotu
bortchatiar: mutiri, aiher
bozcariatu: poztu
branca: ontzi aurre, brankera
broquel: ezkutu, erredola
buhumba: zurrunbilo
burasso: guraso
burjes: hiritar; nagusi, ugazaba
bur(r)eu: bulego
burreu: urkatzaile
buru eguin: jazarri, kontra egin, eraso
burupe: esku, baimen, eskubide; aginte, aginpide, nausitasun, eskudantzia; fidantzia, harrokeria, hanpabide
bururdi: burko, buruki
burutarat eman: sinisterazi, bentzutu, konbentzitu
burute: diadema
burutu(zco nardo): garatu, zoritu, heldu, burua egin
butatu: bultzatu, bota
buthun: gutun

– D –

daffailla: mahain zapi, zamaua
damu (egin): errieta egin; pena eman
damu (hartu): gaizki hartu
damuztatu: haserrerazi, suminerazi
deabrucara: deabru gisa
debadio: errieta, eztabaida, liskar
debochatu: bizimodu txarrean amildu
debochqueria: purtzilkeria, galdukeria
deiagora: deiadar, oihu
deithoratu: deitu, izendatu, oihukatu
deitzi: jatzi, jetzi
desamarratu: askatu
desircunde: gutizia, desira, nahikunde
descridatu: kreditua galdu
despeida: agur
despendatu: gastatu
despensari: zerbitzari, mutil, morroi
despentçargoa: administralgoa
despentcer: zerbitzari
despita: erra, amorru
desseigna: asmo, xede, plangintza
desseiñu: asmo, xede, plangintza
detchima: hamarrena
dezbiztatu: mozorrotu
diacre: diakono
dilindan: dindilika, zintzilik
distiadura: distira
distiant: distiratsu
distiatu: dir-dir egin, distiratu
dichidatu: mehatxatu, zemaitu

dichidu: mehatxu, zemai
dizcipulutce: ikaslegoa
dohainic: dohan, doharik
dohatu: dohaindu, hornitu
dolamen: dolumin, tristura
dolhare: tolare, lako
doloratu: nahigabetu, tristatu, penatu
dorphe: gogor, latz, zail
dosteta: olgeta, jolas
dreçu (eman): apainketa, moldabide, zerbitzu

— E —

ebasco: lapurreta
ebatsi: ostu, lapurtu
edaran: eradan, edan erazi
ediren: idoro, aurkitu, kausitu
edosqui: bularra hartu
egartsu: egarri
eguiaquide: egiantzeko, egilagun
egoqui(a): etxeko, biztanle
egoquide: etxeko, biztanle, etxetiar
eguberdi: eguerdi
eguincari: bururatze, burutze, egitate, egintza
eguinquidin: egin litekeen, posible
egundaiño ez daiño: sekula santan
eho: eiho
ekharri (norbait gaizki): hartu, tratatu
equi: noski, segurki, baiki
eldarnio: amets zoro
elcortu: ihartu, agortu, antzutu
(—an) eman: ezarri, jarri, ipini
emancari: erakaspen, "tradiciones"
emendatu: berretu, gehitu, ugaldu
embarrassatu: kateatu, trabatu
endreçu: zerbitzu, mesede, lantegi
encaillatu: hondarra jo
enconiatu: tristatu, enoiatu
emparatu: askatu, liberatu, iaregin
entellegamendu: adimendu
entseiña: ezaugarri, ikurrin
ephaitçan: zeletan, ataizean, barranda
eraguintça: eginkari, eragin indar
erantçun: kritikatu, marmar egin, larderiatu
erantçute: errieta, agiraka, ahapaldi
erasi: berriketan, marmarrean aritu
erasle: berritxu, hiztun
erauntsi: jo, eraso, danbadaka aritu
erautsi: jatsi (edo jautsi) erazi
erautsi: ontzitik ura atera
erbaldu: ahuldu, erkindu, argaldu
eredosqui: edosqui erazi, bularra eman
ereintça: ereite, erein landa
ergui: idisko, biga
erhassun: eritasun, gaitz
erhi: behatz
eri: gaixo, mintxo
erkhatz: erratz, eskoba
erquide (dute zerbait): amankomunean
erquidetassun: harreman, tratu
erranquide: baliakide, sinonimo
errateco(a): keixu, esankizun
errebelatu: galdu, desbideratu, okertu
erreberritu: berritu, birberritu
errefusatu: ukatu, debekatu
erreguinatu: errege izan, agindu
erregu: lakari
errement: lanabes, tresna
errendatu: bihurtu, eman, itzuli
errepausu: atseden, pausaldi
erreportari: gaizki esale, maxiolari
erreportchu: agiraka, ahapaldi, errieta
errepusta: erantzun
errequerimendu: eske, otoi, erregu
errequeritu: otoitu, eskatu
erremulia: zurrunbilo, buhunba, turrupil, xirimola
erresalbatu: salbuetsi, apart utzi, reserbatu
erresquetamendu: erospen, erosketa

errestun: eraztun
erriatu: uretara eratsi
esencusa: estakuru, aitzakia, zuribide
esencusatu: zuritu, garbitu, aitzakiak atera
escas (da): peitu, falta (da)
escatima: kalapita, xixtra, istilu
esquertiar: esker oneko, obligatu
escudantcia: aginpide, burupe
eslegicari: manu, agindu, manamendu
eslegitu: manatu, agindu
esleitu: manatu, agindu
espantitu: izutu, larritu, ikaratu
esparñatu: aurreratu, galerazi, debekatu
espartçatu: bilukatu, txirikordatu
establia: ukuilu
establitu: errotu, sustraitu, finkatu
estecadura: lotura, estekailu, lotkailu
estecaillu: lotki, lotkailu
estecatu: lotu, atxiki
estira: tormentu
etheldu: epeldu, txepeldu
ethorcor: manuko, esaneko
etsi etsia (adb): ernegaturik
exortu: hitzaldi, susper solas, abenico
ethorgune: etorrera, etorbide
ezaldarte: ezbehar, zoritxar, froga, behazun
ezberen: ezperen, ostera, bestela

— F —

fedaztatu: fede eman, hitz eman, agindu
fermu: irmo, sendo, bortiz
fiadorgoa: berme, bahi
fin: maltzur
finatu: amaitu, bukatu, azkendu
finecia: azpikeria, maltzurkeria, marrukeria
fitetz: laster, arin
fits: izpi, lasto, zipitz, pizki
flaquitate: ahulezia
fornitu: hornitu
franquia: ugaritasun, sobera; emankor, eskuzabal
frisatu: kixkurtu
fuin: muin, guritasun
fundamen: oinarri, zimendu, harroin
funditçaille: gastatzaile, xahutzale
funts: ondasun, aberastasun
(bere) funtsetic (mintçatu): bere baitatik, barrendik

— G —

gabe(a): falta, behar, lazeria, miseria
gabetacoric: gabe
gaidassun: gaitasun
gaindi (egin): gainez egin
(—an) gaindi: —an zehar
gaindiro: ausarki, gainezka
gaindiz: gainez
gaindizco: ugari, oparo, gainezkako
gaixqui(a): gaitz, kalte
gaixtaguintassun: gaiztakeria, txarkeria
gaixtatu (herria): nahastatu, aztoratu, gaiztotu
gaitcerizcoa: gorroto, gaitzerizte
gaitziru: gaitzeru
gaitzitu: gaizkitu, haserretu, mindu, nahigabetu
gaizcoatu: gaizkitu, txartu, hondatu, usteldu
gakho: giltza
galmendu: galbide, hondamendi
galtçapen: galbide, hondamendi, kalte
galtçar: magal, kolko
galtçarbe: galtzarpe
gantçudura: oliadura
garai(a eman): amor eman
garai: garaipen, garaite
garaico(a): garaipen, garaite
garastia (adb.): garesti

garastios: garesti
garau: ale, bihi, inor
garbicari: garbiketa
gargaite: gailur, tontor, erpin
garrayatu: herrestan eraman, herrestatu
garrayo: hormatxori, kurloe, txolarre
gastiatu: gaztigatu, iragarri
gatheztatu: kateatu, estekatu, katez lotu
gathibudi: gatibutasun
gaurgoro: gaurgero, gaurdanik
gaurguehiago: gaurgero, oraindanik, harrez gero
gueriça: izkutu, gorde, babes
gueriçatu: babestu, izkutatu, defendatu; desbistatu, itxuraldatu, mozorrotu
guerice: izkutu, babes
guerricatu: gerrikoa lotu
guerthuki: segurki, ziurki
guibelatu: atzeratu
guibelondo (egin): atzea, bizkarra eman
guiçoncaraco: gizon erako, gisako, antzeko
goan: joan
goardia (eman): adi entzun
goate: joate
gogantce: gogoratze, otoitze, pentsatze
(—ren) gogara (egin): —ri atsegin eman
gogaraco(a): gogoko, atsegin, begiko
gogoa (galdu inori): uzkurtu, gogo urritu, gogaitu
gogo(ari eman): uste izan, pentsatu, sinistu
gogo urritu: uzkurtu, epeldu
gogoatu: gogoratu, sinetsi, sinisterazi; ziur egon, lasaitu, baketu
gogogarri: sarkor, eragingarri, sinisterazgarri
gogoramendu: pentsamendu
gogorquitu: gogortu
goita: ernaitasun, ardura
goitha(n): zain, begira, ustean
goititu: goratu, altxatu, jaso
golardo: sari
goraco(a): goiko(a)
goramendu (izpirituzco): "éxtasis"
gorapen: goresmen, laudorio
goratassun: altura, goi-behea, harrokeria
goratiar: harro, goiharro
goratic: goitik
gordeca: izkutuka
gorricara: gorrixka, gorrasta
griñetan (izan): larritu, kezkatu
guphida (izan inor): errukitu, barkatu
guphidetsi: errukitu, urrikitu, kupitu, barkatu
gura: nahi, gogo
guriqueria: emekeria
guriqui: biguinqui, emeki
gurutceficatu: gurutziltzatu
guti çuhur: zuhurtzia gutiko
gutien eder: edertasunik gutieneko
gutien jaquintsu: gutiena dakiena
gutimendu: gutxitze, murrizte
gutizia: grina, desira
gutiziatu: grinatu, zaletu, desiratu

— H —

habarrots: zarata, zalaparta
hagoatu: herbaldu, erkindu, ahuldu
hagorandu: bizigabe, indargabe, laxo, sorgor
hagun: arrapo, lerde
haina: hura
haina hura: harako hura
haintçurtu: aitzurtu, atxurtu
haice buhumba: erremulia, turrupil, zurrunbilo
hala hala: orobat, halaber, halaxe
halabehar: behar, beharrezko
halacreta: bular babeski
haltoqui: ozenki, goraki
hamami: hamabi

handietsi: harrotu, ilarraindu
handigoa: handikeria, harrokeria
handizqui: biziki, arras
haraguicoi: haragizale
haraguicor: haragikoi
harangatu: mintzaldia egin
harea: hondarra
haritz: zuhaitz, zuhamu
harmatu (begiak inori): zuzendu, drezatu
harriburu: giltzarri, horma bete, kantoi harri
harroin: zutarri, zutoin, oinarri, zutabe
hartaz gueroz: harrez gero
hartcecodun: hartzedun
harchede: helmuga, xede, helburu
has-has: buluzi, gorri, huts
hastamuca: aztamuka, aztaka, itsumandoka
hastandu: urrundu, aldendu
hats: arnase
hatsbeherapen: asperen, intzirin
hauntu: handitu, hanpatu, handietsi, harrotu
hauntceratu: handitu, puztu, hanpatu
hautetsi: hautatu, aukeratu
hautu: hautaketa, hautabide
hauçu: ausart, zilegi
haxqueria: zikinkeria, lizunkeria
haz-anaya: "collactaneus", ugaz-anaia
hazdura: haztura, ohitura
hacilla: ereintza
hazcuntça: ohitura, aztura
hea: ea
hebaindu: elbarritu
hedoi: hodei
hegoa: hego haize
heiagora: deiadar, garraxi, oihugora
heldu: iritsi, lagundu, urgaitzi
helgaitce: sukar
helpide: jomuga, xede
hemendic harat: gaurgero, gaurdanik
herabe: uzkur, lotsati, koldar
herbal: ahul, mendre, erkin, eri
herbaltasun: ahulezia
heredalgo: oinordetza, primutza
herresa: ezaugarri, bahi, hildo, atz
herrestan: arrastaka
herrestatu: garraiatu
herrunca: erronka, sail, lerro, zerrenda, maila
herstura: larritasun, estutasun, larridura
hertsi: estutu, ertsatu
hertsiqui: zorrozki, gogorki
hertchatu: behartu, bortxatu, akuilatu
hertce: heste, errain
hiberniatu: negua e(ra)man
hidoiztatu: zikindu, kutsatu, lohitu
higuitu: mugitu
hilldumatu: hillerazi, hilduratu
hilgogor (erori): zerraldo, zurrun
hilcari: hiltzaile, hilgarri
hirriscu: arrisku
hiçatu: jaso, altxatu
hobenduri: errudun
hordi: mozkor
horlacatu: horrelakotu, horrelako egin
horma bethe: giltzarri, harriburu, kantoi harri
hotce(a): "dentadura" (Ap.Eg.7,54)
(—ri) hots eman: arduratu, arretatu
hurren: ia
hurren (da): azkenetan, hilzorian
hurrena: beharrean, zorian
hussu(a): maizko, sarriko

— I —

ibeni: ipini
ibilgune: ibilera, ibilpide
idaroqui: atera, aterarazi
idequi: edeki, kendu
idolaqui: idoloen jaki, jateko
idolacoi: idolozale

idolategi: idolo etxe
(—rekin) iduqui: —ri lotu, itsatsi
iduri (egin): itxura egin
idurico: antzeko, gisako
iduricunde: irudi, itxura, antz
ifini: ipini
igorri: bidali
igortciri: trumoi
iguriqui: itxedon, uste izan
iguriquitce: itxoite, egongarri, pazientzia
iguripen: itxedote, itxoite
iguzqui sartce: sartalde, mendebalde
ihardetsi: erantzun
iharduqui: eztabaidatu
iharduquitce: eztabaida, kalapita
iharrosi: astindu
ihesco(a): ihesa, ihesia
ihinztatu: ureztatu, garastatu, zipriztindu
ihitei: igitai, dailu
ihurçuri: trumoi
icascari: erakaspen, ikasgai
ikhasdiar: ikasle, ikasliar
icuscari: "visión", ikuskizun, ikusgune
icusquiçun: zerikusi
icustate: begiramen, lotsa, errespetu
ilhargi aldi: "lunatismo", ilargi gaitza
ilhunbeztatu: ilundu
ilkhi: irten, atera
ilkhipide: irtenbide, ihespide
indarztatu: sendotu, irmotu, tinkotu, bermatu
infredimendu: hotzaldi, hozpen
imprençu: urratura, zirritu, zantzu, arrasto, "stigmata"
intresse: "interés"
(—rat) irabaci: iritsi, heldu, ailegatu
iragan: igaro, gertatu, heldu
iragatez: bidenabar
ira(i)tzi: jaurtiki, bota, erauzi
iraca: zalge, llollo
iracatstçaille: irakasle
iraquitu: irakitan egon
iraquidura: erra, haserre, amorru
iratçarri: ernaitu, esnatu
irau: birau, birao, irain, laido
iraunguitu: itzali
irauncorgune: "longanimitas", bihotz handitasun, pairacortasun
iraçaqui: piztu, su hartu
irazi: iragazi, iragan erazi; erauzi, atera, idoki
iretsi: irentsi
iretchiqui: atxiki, lotu, erantsi, egotzi
iriondu: xahutu, urmariatu
iroi: laido, irau, birao, irain
iroiztatu: iraindu, laidotu, gaitzesan
itce: iltze, puntapaxa
itçalgaitzcatu: susmatu, gogoanbehartu, kritikatu, beztu, gaitzerran
itçalgaizcunde: susmo, gogoanbehar
itçuli: irauli, aztoratu, asaldatu
itçuri: ihes egin
ichitu: xitu, gainditu, iragan
itchurapen: irudipen, itxura
icialdura: izidura, ikara, iziapen
icicor: beldurti, ikarakor
içor: haurdun
iztergoratu: jaso, bildu, gerriratu
içurritce: izurri, izurrite

— J —

jadan: iadanik
jaidura: grina, joera, irrits, gutizia
jaincoessa: jainko eme
jaca: xaka
jaquintsun: jakintsu
jancor: bazcari, otordu, orrits, oturuntz
jaulera: atezain, zaintzaile
jaunzcura: jazkera, jaztekoa
jautsi: jatxi
jauci: iragan, igaro; punpatu, saltatu; **burutic jaucia** = eroa, ergela

jaçarri: eraso, erauntsi
jelosia: espa, zelo, inbidia, gogoanbehar
jeloscor: gogoanbehartsu
jenderatu: sortu, munduratu
jenderacione: belaunaldi, gizaldi
josgune: jostura
jujatu: epaitu, iuiatu

— K —

cabana: etxola, txabola
cadira: aulki
caillatu: arrastatu, erakarri
caltecor: kaltegarri
cantoin: ainguru
khar: gar
—cara: gisa (gizonkara, deabrucara)
cargatu: enkargatu; salatu
kharmin: mingots, samin, garratz
kharmindu: garraztu, samindu
carracadura: karraska
carrica: kale
cassatu: jaurtiqui, iraitzi, bota
khassatu: jaurtiqui, iraitzi, bota
casquet: buru oskola
catabuta: zerraldo
cachot: presondegi, kartzela
khechatu: lehiatu, ahalegindu, kezkatu, arduratu
cobratu: berreskuratu, berriz beretu
colomba: usakume
colpatu: jo, zauritu
conquestatu: irabazi, eskuratu
condagune: kontaketa, errolda
companiatu: lagundu
compartitu: partzunean aritu
compli(a): betea, konplitua
compligune: osagune, bururamendu
consent (izan): ados izan, bat egon
continual: segiduko, etengabeko
contrariatu: kontrestatu, kontra esan
contrestatu: kontra esan, erantzun
concebitu: aditu, ulertu, konprenitu
corbona: emari, emaitz
cordocatu: kolokatu, kuluskatu
cornadu: sos, txanpon
khoroa: koroia
cor(t)su: lasterbide, ibilaldi, lasterkaldi
costuma: ohitura, usario, aztura
costumatu: ohitu
crima: gaixtakeria, hilketa; esankizun, ahapaldi
cumina: txarpoil
curaye: kemen, adore
curritu: arakatu
cusiña: lehengusiña
khurtu: makurtu, ukurtu

— L —

ladretassun: legenarra, ezkabi, lepra
lahar: sasi, sastraka
laidoztatu: iraindu, laidotu
lakhet: atsegin, gogoko, maite
lambo: ilunpe, laino, lanbro
(-z) landan: salbu, lekot, apart
landatu (begiak): jossi, drezatu, zorroztu, zuzendu
languidura: eritasun, gaitz, aje
languintça: zerbitzaritza
languitu: eritu, gaixotu
lampa: argimutil, kriseilu
lanterna: kriseilu
largatu: askatu, libratu
larrain: muino, kasko
laussengatu: losintxatu, balakatu, ferekatu
lauster (egin): lasterkatu
lausterca: lasterka
latztura: ikara, laborri
lacho: lasai, zabar
laceria: ondiko, ezbehar, nahigabe
laceriatu: penatu, sufrierazi

laztu: ikaratu, izutu
laça: habe, haga
lebami: altxagarri, azkarri, orantza
legartsu: harritsu
lehia: isia, irrika, arreta, premia, presa
lehiatu: saiatu, ahalegindu, isiatu
lehiatu (zaio): jazarri, aurka jarri
lehiatuqui: isiaz, lehiakarrean
lehiacarrean: lehiatuki, isiaz
leihor: lehor, idor
leinu: ondorengo
lekhat: salbu, lekot, apart
lekhortar: arrotz, kanpoko
lekhortiar: arrotz, kanpoko
lema: timoi
lemami: altxagarri, azkarri, orantza
levami: altxagarri, azkarri, orantza
lechatu: lasaitu, askatu
libratu: entregatu
limicatu: milikatu, mihiztu
liscar: eztabaida
lohakhartu: loak hartu
lohakhatu: lokartu, loak hartu
loharcatu: lokartu, loak hartu
loharkhatu: lokartu, loak hartu
lohigune: zikinkeria, lohikeria
lokhuma: lokuluxka
lonyera: esku zapi, toaja
lurtiar: lurreko, lurkoi
luçamen: luzamendu
luceroqui: luzaz, luzaro

– M –

maguina: ezpata zorro
magiciano: azti, sorgin
mainada: familia
mainatu: elikatu, hazi, altzoan berotu
maingu: herren
mainguca: herrenka
mainho: bainu, mainu
maltso: "manso", otzan
manayu: jokabide, portaera
mandataricoa: mandataritza
manyadera: gambelu, aska
mankhar: elbarri, beso bakar (?)
manuco: azpiko, mendeko
manutasun: otzantasun, sotiltasun
marcatu: seinalatu, adierazi
marcu: sos, txanpon
marrubi: marru, makakorro, auhen
marrubialari: marrukari
macela: masaila
macelaco: masaileko, zafardailako, blaztada
menayatu: gidatu, gobernatu, manaiatu
menda: belar bat
mendre: txiki, xume, exkax
mengoa: behar, beharrezko
mengoazco: beharrezko
merecient: merezidun
mercaduria: salerosketa
mercaduriatu: tratua egin, merkatalgoan aritu
mercatalgo: merkataritza, salerosketa
mespreçant: arbuiatzaile
meçu: abisu, mandatu
mihisse: oihal, maindire, zapi
milhu: belar bat
miña: behazun, bedamin
minqui: lazki, saminki
miratu: aztertu, ikertu
miraz: nekez, ozta, doi
mitcha: metxa
mocanera: sudur zapi
mocanes: hil oihal, hil zapi
moco: mutur, punta
moltsu: zarpa, boltsa, zorro, zaku
mora: martzoka
morrailla: harresi
muble: tresna
muga jauci: ordua igaro
mulkho: pilo, meta, multzo

multçuca: multzoka
mucuratu: pilatu, metatu, ugaldu, mukurutu
mucuru: gainezka, gaindiz
murrailla: harresi
mussuthuts (gelditu): muturruts, hutsean
mustarda: ziape
mustra: mostra, eredu
muthilco: mutiko
muthiriqui: ertsiki, ertxatuki
muthiritu: apetatu, isitu, kasketatu

— N —

nahicara: grina, gutizia, desira, irrika
narraio: orban, notha
negal: zakel
nekharaci: enoiatu, gaitzitu, neke eman
niholeretan: inola ere
nombre: kopuru, mukuru
nord-este: ipar sortalde
notatu: ohartu
nothatu: zikindu, orbandu

— O —

obligantça: zor agiria
ogui: gari
ogui buruca: galburu
oguipe: gari soro
ohatu: oheratu
ohatce: kabi
ohico(a): ohizko
ohicunde: ohitura
ohitça: ohitura, usario, aztura
ohiz campoco: ez ohizko
ohoinqueria: lapurkeria
oihua (gorago eraman): gehiago oihukatu
oillarite: oilarraren kantu ordua, egunsenti
oindagora: orpo hezur, ostiko
okhatu: ok egin, ahotik jaurtiki
okher: begi bakar
olha: olatu, uhin, baga
omen: fama, ospe, marmar
onbehar: txiro, behartsu
ondico: zoritxar, koaita, ezbehar
ondicoz: zoritxarrez, damurik
ondo(a): osin, zulo
ondoquide: ondorengo, oinordeko
onetsi: maitatu
ongarri: zimaur
ongunde: "in dispositione angelorum" Ap.Eg.7,53, "ministerium", langintza
(apheztassuneco) ongunde: apezlan
ontassun: ondasun, aberastasun, funts
op(h)or: pototxin, kaiku
orai doi-doia: arestian, lehenxeago
oraiño doi-doia: arestian, lehenxeago
orainchean: arestian, lehenxeago
orentsuan: orduan gutxi gorabehera
orhantça: legami, altxagarri, azkarri
orhatu: ore egin
orhatç: orratz
orhe: ore, orantz
oriçu!: tori!
oriçue!: adizue!, torizue!
orre: orhe, ore, orantza
ostalera: ostatu jaun, ostalari
ostatatu: ostatuz hartu
ostatu: ostoz jantzi, ostoak atera
oste: jendetza
ostenda: nabarmenkeria
ostendade: handikeria, arrandi; aitormen
osticatu: oinkatu
othruntça: jatordu, orrits, bazkari
othruntçatu: bazkaldu
oueste: sartalde, mendebalde
ochala: oxala, ojala, ai!
oçar: zakur

– P –

pailarda: emagaldu
pairacortassun: eramantasun, otzantassun, egongarri
pairantça: sofritze, pairatze, jasate
pairatu: sofritu, nozitu, jasan
pairu: egongarri, pairacortasun
papur: apur, puxka
paratu: eman, eskaini
partaya: zati, puska
partale: erkide, partzuner, partaide
partida: arerio, lehiakide
partilla: banaketa, partiketa
parçuner: erkide, partaide
partçunezco: erkidetasun
passayetan: pasiuan
pausatu: jarri, ezarri, ipini, kokatu
pausu: atseden, bake, pausaldi
pegar: kantxil, pitxar
peitu: exkax, gabe, falta, hutsik
pelat: sos, txanpon
pertal: soineko barrena
peça: pieza, txanpon, sos
picatu: ebaki, moztu
pissatu: zamatu, astundu, kargatu
pitzberritu: berpiztu
plat: plater
podore: bothere, ahal
podorosqui: bortizki, fermuki
pontu: puntu
populutce: jendetza, oste
porroscatu: porrokatu
potcho: xakur
pocin: puxka, ahamen
poçoatcequeria: pozoinkeria
poçoaztatce: pozoinatze
presonyer: atxilotu, preso
preçagarri: estimagarri
preçatu: istimatu
precio: istimu
primeça: ondare, jarauntsi
primu: lehen seme; ondare
primuquide: oinordekide
propi: gai, diñe
propos: solas, hizketa
punitu: zehatu, zigortu
puchantça: ahal, aginpide

– S –

sabeldassun: beherakoa, tirrin
sahets: saihets
saillida: bukaera, amaiera
saler: sail, talde, andana, multzo
salerca: sailka, taldeka
salcari: salgai, salmenta, saltzekoa
sargune: sarbide, aurrerapide, laguntza
sar-ilkhi: sartu-irten
sarri: aurki, laster, agudo
sassiatu: ase, okitu
sasoal: umotua, zoritua, heldua
sassoatu: sasoitu, zoritu; gazitu, ondu
seguratuqui: segurantzaz
sehi: morroin, mutil
sehitassun: gatibutasun
secrete: komuna
sekulerenean: sekulan, inoiz
senoa: itsas kolkoa, adar
seryent: sarjento
sessitu: hartu, atzeman, oratu, eutsi, atxitu
sesca: kainabera
sinhextiar: sinesle, sinestun
sobrania: sobera, gehiegizkoa
sobrantcia: sobera, gehiegizkoa
soffricari: neke, oinaze
soillaru: mandio
soin: sorbalda
solegitu: poztu, lasaitu, arindu
soleiumendu: solas, lasaipide
socorri: laguntza
soto: mandio, atarte

suernatu: sobornatu
suernatçaille: sobornatçaile
suffre: sulbur
suyet: gai, arrazoi
sumindu: haserretu
surguiarazi: altxarazi, sorrerazi
sustengatu: defendatu, baieztatu
suztatu: piztu, sutu, irazeki, ixiotu

— T —

targa: talde, alderdikeria, bereizketa, zatiketa
targo: erdiketa, "cisma"
tarritatu: haserretu, sumindu; asaldatu, aztoratu, zagitatu
thaila: zerga, kaizu, gizabete
thaillu: molde, modu, era
th(r)esora: altxor, gordailu
th(r)esorero: diruzain
thiratu: errestatu, erakarri
thomba: hilobi
thu: txistu
tirain: uhin, baga, olatu
tolosano: txanpon, sos
tormenta: estira
tortoilla: usakume
trabatu: debekatu, eragotzi
traditu: saldu, saldukeria egin
tragaça: gezi, azkon
trahitu: saldu, trai egin
traiña(n ekarri): errestatu, arrastan eraman
traiñatu: arrastatu, kailatu
trebecagarri: behaztopa, oztopo
trebecatu: behaztopatu, oztopatu
trebecu: oztopa, behaztopa
trebessatu: zeharkatu, arakatu
trenchare: lubaki, trintxera
tresna: arropa, jazki
tricatu: duda egin, herabe izan, gelditu, pausatu
trompatu: engainatu
tromperia: marrukeria
tropela: jendetza, oste
trochatu: oihalez, ipurzapiz bildu
troçatu: oihalez, ipurzapiz bildu
trublatu: aztoratu, asaldatu
truble: aztoramendu, ezinegon
trufatu: irri, iseka egin
tulumbio: leize, amildegi, zulo

— U —

uhertu: arretu, irabiatu, gaizkoatu
ukhabilo: esku mutur
uli: euli
unguitu: ondu, sendatu, ongitu
unguizco: ongitxo, ondotxo
unhatu: nekatu, arikatu
unhide: inude, hazama
uri: euri
urmariatu: ahitu, xahutu, iriondu; galdu, desegin
urrentsu: ia, gutxi falta; "bai urrentsu eta bai cinez" (Ap.Eg. XXVI,29) = ia-ia ez ezik, areago ere
urrical: urriki-, erruki-
urricalcor: errukitsu, kupibera
urricalmendu: erruki
urricari: errukarri
urriquitu: errukitu, urrikaldu
urrun handi: oso urruti
urthame: kimu, muskil
usna: usmo, sumo, usmatze
ussaindu: kirastu, atsitu, ufeztu
ustecari: "espektatiba", itxaropen, esperantza
ustelgune: usteltasun
ustertu: usteldu, beraxtu, samurtu

uztail: uzta
uztatu: uzta bildu

– X –

chancre: minbizi
charmatu: liluratu, azikatu
charriot: gudu gurdi
chartal: larrepot, matxinsaltari
charcho: merio, herriko mutil
chede: asmo, erabaki
chehacatu: xehatu, apurtu
chehatu: xehatu, txikitu
cheheren chehe: xeheki, xeharo
cherrenda: zerrenda
chikhiro: zikiro
chiper: txipi, txiki
chirimola: zurrunbilo, ekaitz, erauntsi, erremulia
chirmendu: aihen, aldaska, muskil
chismista: tximista
chizcortu: ihartu, zimeldu
chito: txita
chopa: txopa, popa
chopera: kopa, edontzi
chukhatu: txukatu, lehortu
chumetu: xumetu, txikitu, beheititu

– Z –

çafardailaco: masaileko, blaztada
çaguitatu: tarritatu, zirikatu, sumindu
çama: garibala, azao
çamaldun: mandozain, zaldun
çapatu: zapaldu
çap(h)ardalaco: zartada, blastada
çapatu: zanpatu, zapaldu
çarpa: boltsa, zorro, zaku
çarratu: itxi, ertsi
çauri hillgarri: inor hiltzeko zauria
çaurthu: zauritu
cebatu: hezi, menderatu
ceben: zeuen
cebonec: zeuroc
cedarri: mugarri, hesi
ceden: baba zorri, zomorro
centenero: ehunburu, ehuntari
cepho: girgilu, kate
cerbaitago: gehiago, gaiago, trebeago
cerentçat: zergatik
cerguera: zerga
cethabe: galbahe
cehatu: zigortu, jo
cein beregain: banaka
celatatu: barrendatu, kirikatu
centçagune: zentzabide
cericaco(a): nolako
cerutiar: zeruko
ciguillatu: zigilua ipini
ciguillu: zilu, zildai
cilhacor: zulakor
cilhatu: zulatu
cilheguitu: utzi, permetitu, baimena eman
cilho: zulo
cinez: eki, baiki, ausarki: "bai urrentsu eta bai cinez" (Ap.Eg. XXVI, 29) = ia-ia ez ezik, areago ere
cinqui: zinez, zintzoki
circoncisatu: erdaindu, bil-ebaki
çorta: tanto, xorta
çunda: zingo, berun
çundatu: zirikatu, tentatu, ikertu
çurratçaille: larrujole
çurtz: umezurtz
çucen (dut): esku, eskubide

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMAN ARGITARATURIKO ZERRENDA

LISTA DE LIBROS PUBLICADOS EN LA SECCION «EUSKARAREN LEKUKOAK»

1. *Doctrina Christioaren cathechima*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
2. *Linguae vasconum primitiae*, Bernard Etxepare.
3. *Manual devotionezcoa*, Joannes Etxeberri, Ziburukoa.
4. *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (bi liburuki), Sebastian Mendiburu.
5. *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*, Etienne Lapeyre.
6. *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*, Jusef Egitategi.
7. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salbatu içateco*, Athanase Belapeyre.
8. *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac*, Bernard Gasteluçar.
9. *Koplak*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
10. *Ongui iltzen laguntzecó itzgaiac*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
11. *Bayonaco Diocesaco bi-garren catichima*, Lavieuxville-Harosteguy.
12. *Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*, Prai Bartolome Santa Teresa.
13. *Euskal testu zaharrak (I)*, Jose Maria Satrustegi.
14. *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiana*, [Juan Antonio Moguel ta Urquiza].
15. *Latsibi*, Resurreccion Maria Azkue.
16. *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
17. *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Ioannes de Haraneder.

PATXI ALTUNA BENGOETXEA

Azpeitian jaio zen 1927ko irailaren 8an. Jesusen Lagundiko ohizko ikaskuntzak egin zituen —Retorika Loiolan, Folosofia Oñan, Teologia Austriako Innsbrucken—, bi azkenak lizentziaturaz bururaturik. Filologia klasikoa ikasi zuen Salamancan, Antonio Tovar jauna Unibertsitateko Erretore ez ezen, latineko irakasle ere zuelarik. Horretan ere lizentziatura erdietsi zuen. Azkenik doktoradua eskuratu zuen Unibertsitate berean Koldo Mitxelenaren gidaritzapean honako tesi hau garatuz: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación.*

Orduko onduak zituen *Euskara, hire laguna* —euskaraz ikasteko metodoa— eta beste bizpahiru liburuki, haren osagarri; bai eta belaunaldi hartako gazte euskarazaleek hain harrera ona egin zioten *Mitxelenaren idazlan hautatuak* ere. Tesiaz gero, ordea, Euskal Filologiako ikaskuntzak garai hartantxe Unibertsitatean landatuak zirenez gero eta horrek sorrerazi zituen beharkizun berriei laguntza eman nahirik, bide berriari ekin zion: alegia, euskal idazle zaharren liburuen edizio kritikoak prestatzeari, eta esan daiteke horretan nabarmendu dela, bada Patxi Altunaren eskuetatik iragarri dira Etxepare, Ziburuko Etxeberri, Tartas, Mendiburu, Ubillos, Fray Bartolome.

Ez dirudi gainera zerrenda agortu denik, orain Ioanes de Haraneder baitakarkigu, XVIIIgarren mendeko idazle lapurtar ezaguna, bere *Philotea* eta *Gudu izpirituala* lehendik ere ezagutzen genituelarik, ez ordea hark euskaratu zuen Testamentu Berri hau. Hau berrehun eta berrogeitamar urte egon da juxtuki (1740-1990) liburutegi bateko hautsa irensten, nahiz guk dakigula apaiz katolikok inoiz euskarara egina zuen Testamentu Berriaren lehen itzulpena izan. Orain dator lehen aldiz argitara, zor zitzaizkion hitzaurrea, oin-oharrak eta hizteginoa Patxi Altunak ezarririk.